

HIRUGARREN LIBURUA

I

Erabilgarriaz eta zintzoaz

Inor ez da ergelkerien esatetik salbu. Zorigaitza, berorien apainki esatea da.

*Næ iste magno conatu magnas nugas dixerit*¹.

Hori ez dagokit niri. Neureak itzurtzen zaizkit balio duten bezain axolarik gabeen. Horrela hobe dute. Bat-batean utziko nituzke den gutienik kostatuko balitzaizkit. Eta ez ditut erosten ez saltzen, pisatzen duten baino gehiagotan. Paperari mintzatzen natzaio aurkitzen dudan lehenari mintzatzen natzaion bezala. Hori egia da, hona zergatik.

Nori ez zaio engainua gaitzesgarria izan behar, Tiberiok hain behar handitan uko egin zionez geroz? Alemaniatik jakinarazi zitzaion ezen, ongi aurkitzen bazuen, Arminioz libratua izanen zela pozoinaren bidez (erromatarrek zuten etsairik handiena zen, Varroren denboraz hain itsuski erabili zituen eta eskualde haietan beren menperatzearen hedadura oztopatzen zuen bakarra). Erantzun zuen: jendalde erromatarrek bere etsaiez bide agerian, armak eskutan, mendekatzeko ohitura zuela, ez amarruz eta gordeka. Erabilgarria utzi zuen zintzoaren alde. “Ahalkegabe bat zen” esanen didazu. Sinesten dut; ez da mirakulu handia bere ofizioko jendearen baitan. Baina bertutearen aitorpenak ez du gutiago balio gorrotatzen duenaren ahotan. Egiak indarka erauzten dionez geroz eta, bere baitan hartu nahi ez badu ere, bere buruaren apaintzeko hartaz bederen estaltzen duen ber.

Gure egitura, bai publikoa eta bai etxekoa, akatsez betea da. Baina naturan deus ez da erabilgarritasunik gabe; erabilgarritasun eza bera ere ez; deus ez da unibertso honetan sarturik bere leku egokia ez duenik. Gure izatea nolakotasun gaiztoez josia da: handinahia, jeloskeria, bekaitza, mendekua, sineskeria, etsipena, gure baitan daude hain jabego naturalean non bere irudia animalengan ere ezagutzen baita; eta krudelkeria ere, hain bizio soraioa; zeren, urrikaltasunaren erdian, barrenean sentitzen baitugu ez dakit zein atsegin maltzurrezko zizta ezti-mingatxa beste bat oinazetan ikusiz; eta haurrek ere sentitzen dute;

Suave, mari magno, turbantibus æquora ventis,

*E terra magnum alterius spectare laborem.*²

Gizonaren baitan nolakotasun horien haziak kenduko lituzkeenak hondatuko lituzke gure biziaren funtsezko baldintzak. Halaber, gizarte orotan, badira ofizio beharrezkoak, ez bakarrik okaztagarriak, baina oraino biziosoak. Bizioek hor aurkitzen dute beren maila eta erabiltzen dira gure elkartzearen josterako, pozoinak bezala gure osasunaren iraupenerako. Eta desenkusagarri bilakatzen badira, behar ditugun ber eta ororen premiak haien egiazko nolakotasuna ezabatzen duen ber, zati horren jokatzeari utzi behar zaie beren ohorea eta kontzientzia eskaintzen duten hiritarrik indartsuenei eta lotsa gutien dutenei, aro zaharreko haiek beren herriaren salbamenerako bizia eskaini zuten bezala. Guk, ahulagoek, hartzen ditugu eginkizun errazagoak eta arrisku gutiagokoak. Ontasun publikoak eskatzen du hitza jan, gezurra esan eta sarraskia egin dadin; eman diezaiegun eginbehar hori jende manukor eta malguagoei.

Egiazki, maiz atsekabetu naiz epaileen ikustean gaizkilea bere eginaren agertzera erakartzen amarruz eta faborearen edo barkamenaren gezurrezko esperantzen bidez, eta horretan engainua eta ausarkeria erabiltzen. Ongi litzaioke zuzenbideari, eta Platoni berari, erabilpen hau faboratzen baitu, nire arabera goazkoak liratekeen beste bideak eman diezazkידaten. Zuzenbide maltzurra da eta ez dut ikusten gutiago zauriturik berak egiten badu beste batek baino. Aspaldi ez duela, erantzun nuen neke handiz salduko nuela Printzea partikular baten alde, hagitx dolutua bainintzateke ezein partikularren saltzeko

Printzearen alde; eta ez dut bakarrik engainua hastiatzen, baina hastiatzen dut ere neure buruaz engaina daitezen. Ez dut gairik ez aukerarik ere eman nahi.

Gure printzeen artean negoziatzeko izan dudan apur horretan, gaur egun urratzen gaituzten zatiketa eta azpizatiketa hauetan, xeheki begiratu dut haiek neure baitan engaina ez zitezen eta neure itxuran nahas ez zitezen. Ofizioko jendeak ahal bezain gorderik daude eta agertzen eta itxuratzen dira ahal bezain epel eta hurbil. Nik neure burua eskaintzen dut neure usterik bizienez eta molderik neureenaz. Negoziatzaile beratz eta hasi berria, nahiago baitut eginkizunari huts egin neure buruari baino! Hala ere, orain arte hainbateko zoriarekin izan da (zeren zinez zoriak zati nagusia baitu) non guti iragan baita esku batetik bestera gogoan behartze gutiagorekin eta fabore eta libertate gehiagorekin. Badut molde ireki bat, erraza laketarazteko eta sinesmenaren irabazteko lehen elkartzeetan. Zintzotasunak eta egia hutsak, edozein mendetan izan dadin, oraino aurkitzen dute beren aldia eta lekua. Eta gero, beren interesik gabe lan egiten dutenen libertatea guti aihergarri eta hastiagarri da, bere mintzoaren latzaz kexatu atenastarrei Hiperidesek eman erantzunaz haiek egiazki baliatzen ahal baitira: “Jaunak, ezazue gogoan har librea ote naizen, baina halakoa naizen deusik hartu gabe eta hortik nire eginkizunak hobekitu gabe” Neure libertateak ere arindu nau maltzurkeriaren susmotik bere azkartasunaren bidez, ezer esan gabe utziz pisua eta zaurigarria bazen ere, ez nuke makurrakorik esanen handik urrun egonik. Eta neure libertateak soiltasun eta axolagabetasunaren itxurazko erakuspen bat duelako. Ekitean ez dut ekiteaz beste fruiturik nahi, eta ez ditut lotzen ondorio eta xede luzeak; ekimen bakoitzak egiten du bereziki bere jokia: jasan beza, ahal badu!

Bestalde, ez naiz handien alderako gorroto edo amodiozko pasionek hertsatua; eta ez dut neure borondatea laido edo beharkunde bereziaz estekaturik. Gure erregeei begiratzen diet atxikimendu soil zilegi eta zibil batez, interes bereziak ez hunkiturik ez hozturik. Neure buruari eskerdun bainatzaio horregatik. Alderdi orokor eta zuzenak ez nau lotzen neurturik eta sukarrik gabe baizik. Ez naiz bahitze eta estekatze sarkor eta barren horien gai; herra eta gorrotoa zuzenbidearen eginbeharraz harago dira, eta bere pasioneek balio dute bakarrik arrazoi soilaren bidez beren eginbeharra aski betetzen ez dutenentzat³; xede zilegi eta zuzen guztiak beren baitan dira neurtuak eta epelduak, bestela bilakatzen dira bihurri eta zuzengabe. Horrek ibilarazten nau orotan kopeta gora, aurpegia eta bihotza zabalik.

Zinez, eta ez naiz aitortzeko beldur, beharraren arabera errazki eramanen nioke ezkoargi bat San Mikeli eta bestea bere sugari, atso haren xedeari jarraikiz. Alderdi onari jarraiki nioke sutaraino, baina bakarrik ahal badut. Honda bedi Montaigne⁴ hondamen publikoarekin batera, behar bada; baina, beharrik ez bada, zorionari eskertuko diot salba dadin; eta neure eginbeharra baimena ematen didan bezainbatez haren iraupenerako erabiltzen dut. Ez ote zen Atiko, alderdi zuzenari atxikiz, eta galdu zuen alderdiari, bere neurtasunagatik salbatu zena munduaren orokorreko hondamen hartan, hainbat aldaketa eta ezberdintasunen artean?

Hura bezalako gizon pribatuei errazago zaie; eta halako behar motan aurkitzen dut zuzenki egoten ahal dela sartzeko gogorik gabe eta nork bere baitan iraun. Zalantzati eta erdizka irautea, nork bere atxikimendua gelditu eta aiherrik gabe edukitzea bere herriaren nahasmenduetan eta zatiketa publiko batean, ez dut ederra ez zintzoa aurkitzen. *Ea non media, sed nulla via est, velut eventum expectantium quo fortunae consilia sua appicent.*
5

Hori onar daiteke auzokideen eginkizunei buruz; eta Gelonek, Sirakusako tiranoak, horrela eten zuen bere aiherra barbaroek grekoen kontra egin zuten gerran Delfosen ordezkari bat edukiz, emaitzez beterik, zain egoteko ikusten noren aldera eroriko zen zoria, eta aldiaren hartzeko tenorez irabazlearen erakartzeko bere alde. Zurikeria mota bat litzateke nork bere etxeko eginkizunetan egitea, horietan halabeharrez alderdia hartu

behar baita xedea emanaz. Baina ez kargurik ez hertsatzen duen manu adierazirik ez duenari ekintzan ez sartzea barkagarriago aurkitzen diot (eta ez dut neuretzat desenkusa hori erabiltzen) gerra arrotzetan baino, nahiz eta hauetan, gure legeen arabera, ez da nahasten nahi ez duena⁶. Hala ere, osoki sartzen direnek halako zuhurtzia eta epeltasuna egin dezakete non erauntsiak beren buruen gainetik iragan beharko baitu kalterik gabe. Ez genuen arrazoirik Orleanseko apezpiku zenagandik, Morvillierseko jaunagandik horrela uste izateko? Eta ordu honetan ausarki aritzen direnen artetik ezagutzen ditut ohitura hain zuzen edo eztiak dituztenak non beti zutik iraunen baitute, zeruak zernahi aldaketa laidogarri eta erorketa prestatzen badigu ere. Uste dut berez erregeei dagokiela erregeen kontra sustatzea, eta burlatzen naiz hain araurik gabeko gatazketara bihotza arinik agertzen diren gogo horietaz. Zeren ez baita gatazka berezia printze batekin hartzen haren aurka ageriki eta ausarki joateagatik nor bere ohorearen eta bere eginbeharraren arabera; halako pertsonaia maitatzen ez badu, hobeki egiten du, onesten du. Eta bereziki legeen alderdiak eta estatu zaharraren defentsak beti izan du hori: beren xede bereziaz nahasten dituztenek beraiek horretaz desenkusatzen dituztela defendatzaileak, baldin eta ohoratzen ez badituzte.

Baina ez da eginbeharra deitu behar (egunero egiten dugun bezala) interes eta pasione berezitik sortzen den barreneko minkertasun eta lazkeria bat; ez kuraia, jokabide zuri eta maltzur bat. Lehia deitzen dute beren maltzurkeria eta bortizkeriaren aldeko ixurpena; ez da alderdia haiek berotzen dituen, beren interesa da. Gerra sustatzen dute ez zuzena delako, baina gerra delako.

Deusek ez du oztopatzen elkarri etsaiak zaizkien gizonen artean errazki eta leialki ibili ahal izatea; joka zaitez hor gutienez neurtua den onespen batez, orotarik berdina ez bada ere (zeren neurri ezberdinak jasan baititzaizke), eta ez zaitzan hainbateraino baten aldera eramanez non honek zuek dena eskatzen ahal duen; eta askiats ezazu haien graziaren neurri erdi batekin eta ur uherretan ibiltzearekin arrantzan ari izan gabe.

Beste moduak, indar osoz nork bere buruaren eskaintzea hauei eta haiei, oraino kontzientzia baino zuhurtzia gutiago du. Berdin ongi hartzen zaituen bat gaizki saltzen duzunean beste norbaitentzat, eta honek ez ote daki beste hainbeste egiten duzula bere bizkar? Gizon gaiztotzat hartzen zaitu; hala ere, entzuten zaitu, eta zuregandik ateratzen du, eta bere eginkizunak gauzatzen ditu zure saldukeriatik. Zeren gizon dobleak erabilgarriak baitira ekartzen duten horretan; baina begiratu behar da ez dezatela eramanez ahal gutienaz baizik.

Ez diot bati esan besteari, bere orduan, esan ez diezaiokedan ezer, azentua bakarrik pita bat mudatua; eta ez dut aipatzen gauza berdin edo ezagunik besterik, edo denentzat balio dutenak. Ez da erabilpenik zeinen alde gezurraren esatea neure buruari baimentzen diodanik. Neure isiltasunari eman zaiona erlijioski zaintzen dut, baina gordetzeko ahal bezain guti hartzen dut; printzeen sekretua zama nardagarria da hartaz eginkizunik ez duenarentzat. Gogotik agertarazten dut antolatze hau: guti fida diezadaten, baina fida daitezen ausarki nik aipatzen diedanaz. Beti jakin izan dut nahi izan dudana baino gehiago.

Mintzo ireki batek beste mintzo bat irekitzen du eta kanporatzen, ardoak eta amodioak egin bezala.

Filipidesek zuhurki erantzun zion Lisimako erregeri, honek esaten baitzion: “Zer nahi duk nik partzuergoan eman diezadatan nuere ontasunetik? – Hik nahi duana, hire sekretuetarik ez den ber.” Badakusat bakoitza asaldatzen dela erabiltzen zaion eginkizunen funtsa estaltzen bazaio eta mozorrotzen bazaio azpizentzuren bat. Neuretzat, askiasten dut egin dezadan nahi dena baino gehiago esaten ez bazait, eta ez dut nahi neure jakintzak aitzin eta oztopa dezan neure hitza. Engainabideaz baliatua izan behar banaiz, izan bedi, bederen, neure kontzientziaz salbu. Ez dut hain zerbitzari

atxikitzen ez leialtzen hartua izan nahi, non uste den inoren gaizki saltzeko ona naizela. Bere buruari hitz-jale zaiona, hutsik gabe izanen zaio bere nagusiari.

Baina gizonak erdizka onartzen ez dituzten eta zerbitzu mugatu eta baldintzatu arbuiatzen dituzten printzeak⁷ dira. Ez da antolabiderik; argiki esaten dizkiet neure mugak; zeren soilik arrazoiaren esklabua izan behar dut, eta horretan ere ez dut ongi bururatzen ahal. Eta gizon libre batengandik haiek egin eta erosi duten edo bere zoria haien eskuetan daukan lagun batengandik bezalako esteka eskatuz zuzengabeen aritzen dira. Legeek neke handitik arindu naute; alderdia bereizi didate eta nagusi bat eman; beste gorentasun eta eginbehar oro haien arabera izan behar da eta mugatua. Honekin ez da adierazten neure aiherrak beste batera eramanez banindu ez nuela eskurik emanez. Borondateak eta nahikundeak beraiek lege bilakatzen dira; ekintzek arau publikotik hartu behar dute.

Nire jokamolde hau guztia aski elkargaitza zaie gure moduei; ez litzateke ondorio handien egiteko ez irauteko; errugabetasuna bera ez liteke gure artean antola itxurarik gabe, ez harremanetan ari gezurrik gabe. Horregatik ez dut inola ere iharduera publikorik bilatzen; horietaz neure lanbideak eskatzen duena ahal dudan modurik pribatuenean ematen diot. Haur nintzelarik haietan belarrietaraino sartu ninduten, eta ongi gertatu zen; goizik arindu naiz haietarik. Gero, maiz itzuri naiz haietan sartzetik, bakanka onartu eta sekula ez eskatu; bizkarra emanik handinahiari; ez arraunlariak bezala, horrela atzeraka aurreratzen direnak, baina hala ere hain osoki non, ontziratuta ez naizenez, neure zori onari baino gutiago zor baitiot neure erabakiari. Zeren baitira nire gustuari eta helmenari etsai gutiago zaizkien bideak, haietan barrena zoriak deitu izan banindu zerbitzu publikora eta neure aitzinamendura munduko sinesmen aldera, baitakit neure hitzaldien arrazoiaren gainetik iraganen nintzatekeela hari jarraikitzen.

Nik neure ohituretan lainotasuna, bakuntasuna eta soiltasuna deitzen dudana antzea eta finezia, eta are zuhurtzia ontasuna baino gehiago, trebezia natura baino gehiago, zentzu ona zori ona baino gehiago dela nire aitormenaren aurka arrunki diotenek kentzen didaten baino ohore gehiago egiten didate. Baina egiazki nire finezia finegia egiten dute. Eta hurbiletik jarraiki eta zelatatu didanari irabaztea emanez nioke aitortzen ez badut ez dela beren eskola jitezko mugimendu hau errepikatzen eta, hain bide bihurri eta ezberdinetan barrena, libertatearen eta baimenaren hain itxura berdina eta makurgaitz bat iraunarazten ahal duen araurik, eta beren arreta eta trebetasun osoak ez litzatekeela horretara eramaten ahal. Egiaren bidea bakarra eta soila da, bereziko irabazpidearena eta karguan diren eginkizunen erraztasunarena bikoitza, ezberdina eta zorizkoa. Maiz ikusi dut libertate itxuratu eta moldatu horien erabiltzen, baina maizenik arrakastarik gabe. Gogotik dirudite Esoporen astoa, zakurrarekin lehiatu nahian, alaiki egotzi baitzen bi hankaka bere nagusiaren bizkar gainera; baina halako bestatik zakurrak ferekatzeak erdiesten zituen artean asto gaiztoak bi aldiz gehiago makilkada erdietsi zituen. *Id maxime quemque decet quod est cuiusque suum maxime*. Ez diot engainatzeari bere maila kendu nahi, munduaren gaizki ulertzea bailitzateke; badakit maiz onuragarriki baliatu dela, eta iraunarazten eta hazten dituela gizonen lanbiderik gehienak. Badira bizio zuzenak, ekintza on edo barkagarri asko zuzengabeak diren bezala.

Bere baitako zuzenbidea, naturala eta orokorra, besterik arautua da, eta beste zuzenbide berezi, nazional, gure bizimoduaren beharretara hertsatu hau baino noblekiago: *Veri juris germanaeque iustitiae solidam et expressam effigiem nullam tenemus; umbra et imaginibus utimur*; eta Dandamis zuhurrak Sokrates, Pitagoras, Diogenesen bizitzen berri entzutean, pertsonaia handitzat ustetsi zituen beste gauza orotan, baina apalduegiak legeen begirunera, berauen onartzeko eta betetzeko egiazko bertutea anitz baztertu behar baita bere etorkizko indarretik. Eta ekintza bizioso anitz gauzatzen baitira ez bakarrik legeen baimenez, baina oraino beren akuilatzeaz: *Ex senatus consultis*

plebiquescentis scelera exercentur. Mintzo arruntari jarraitzen diot, gauza erabilgarri eta zintzoen artean bereizketa egiten baitu; eta ekintza natural, ez bakarrik erabilgarri, baina beharrezko zenbait txar eta zikin izendatzen baititu.

Baina luza dezagun gure saldukeriaren adibidea. Traziako erresumarako bi erregegai beren zuzenbideen eztabaidan gertatu ziren. Enperadoreak debekatu zien armetara jotzea; baina haietarik batek, beren elkarrikusterako adiskidantzazko adostasun bat gauzatu zuelakoan, bere laguna deiturik etxean besta egiteko, giltzaperarazi eta hilarazi zuen. Zuzenbideak eskatzen zuen erromatarrek hilketa hori epai zezaten; zailtasunak ostopatzen zituen bide arruntak; gerrarik eta arriskurik gabe zilegi egin ez zezaketena, saldukeriaz egitera entseiatu ziren. Zintzoki ez zezaketena, erabilgarriki egin zuten. Horretarako egokia aurkitu baitzen Ponponio Flako delako bat; honek hitz eta segurantz itxuratuen estakurupean, gizon hori bere sareetara erakarririk, agintzen zion ohore eta faborearen orde, zango eta esku estekaturik bidali zuen Erromara. Hitz-jale batek saldu zuen bestea, ohitura arruntaren kontra; gibel-beldurrez beteak baitira, eta neke da beren antzeaz harrapatzea; jasan berri dugun proba latza lekuko.

Nahi duena Ponponio Flako izanen da, eta aski dira nahi izanen dutenak; niri dagokidanez, nire hitza eta fedea, garatikoa bezala, gorputz orokor honen zatiak dira; haien eginkizunik hoberena zerbitzu publikoa da; aitzinustetzat daukat hori. Baina nola, manatuko balitzait jauregiaren eta auzien kargua har dezadan, erantzunen bainuke: “Horretaz ez dakit deus”; edo soldadu lubakitzaleen zuzendariaren kargua, esanen bainuke: “Eginkizun gorago baterako deitu naiz”; berdin gezurretan aritzeko, gaizki saltzeko eta hitz jateko zerbitzu nabarmen baten alde, ez hiltzeko edo pozointzeko, erabili nahi nindukeenari esanen nioke: “Norbaiti ebatsi edo ohostu badiot, lehenik bidal nazazu galeretara.”

Zeren ohorezko gizon bati laudagarri baitzaio mintzatzea lakedemoniarrek egin bezala, Antipaterrek irabaziak izanik, beren akordioen puntuaren gainean: “Manatzen ahal dizkiguzu nahi bezainbat zama pisutsu eta kaltegarri; baina ahalkegarrien eta zikinen manatzean zure denbora galduko duzu” Bakoitzak bere buruari zin egin behar baitio Egiptoko erregeek beren epailei ospetsuki zin eginarazten zieten: ez liratekeela beren kontzientziaz baztertuko beraiek egin diezaieten zernahi manurengatik. Halako eginkizunetan laidozkeriaren eta zigorraren ezaugarri ageri bat da; eta ematen dizunak salatzen zaitu, eta ematen dizu, ongi aditzen baduzu, zama eta zigorra bezala; eginkizun publikoak zure ekintzarekin hobekitu bezainbat gaizkiagotzen baitira zureak; horretan zenbat eta hobeki egiten duzun hainbat eta gaizkiago egiten baituzu. Eta ez da berria izanen, ez menturaz zuzenbide itxurarik gabe, egiteko manatu dizunak zigortzen zaituela. Maltzurkeria barkagarria izan badaiteke kasu zenbaitez: bakarrik maltzurkeriaren zigortzeko eta engainatzeko erabiltzen denean.

Saldukeriarik aski aurkitzen dira ez bakarrik ezeztatuak, baina nortzuen faboretan eginak baitziren haiek beraiek zigortuak. Nork ez daki Fabriziooren sententzia Pirroren sendagileari buruz? Baina oraino aurkitzen da manatu duenak mendekatu duela gogorki berak erabili zuenaren bizkar, ezeztatuz hain sinesmen eta ahalmen neurririk gabe bat, eta ez onartuz zerbitzu eta obedientzia hain utzi eta laxo bat.

Jaropelk, Errusiako dukeak, Hungariako aitorenseme bat igorri zuen Boleslao Poloniako erregeren gaizki saltzeko, edo hilaraziz, edo errusiarrei bidea emanez kalte nabarmen zerbaiten egiteko. Hori gizon trebea bezala ibili zen, errege horren zerbitzuari lotu zitzaion, erdietsi zuen haren kontseiluko izatea eta haren fidelenetarik bat. Abantaila horiekin eta bere nagusiaren kanporatze baten aldia hautatuz, errusiarrei gaizki saldu zien Visliczia, hiri handi eta aberats bat, haiek osoki hondatua eta sarraskitua izan zena, ez bakarrik sexu eta adin orotako hango biztanleen erabateko hiltzearekin, baina inguruko aitorensemegoaren multzo handiarenarekin ere, hark bildua baitzuen

horretarako. Jaropelkek, bere mendekuz eta herraz aseturik, etorkirik gabe ez baitzen hala ere (zeren Boleslaok gogorki laidoztatu baitzuen eta jokamolde beretsuan), eta gaizki saltze horren fruituaz nardaturik, itsuskeria hutsa eta bakarra gogoetatuz, eta ikuste oso eta ez pasioneak nahastu batez begiratzuz, halako damu eta gogoz kontrako batean hartu zuen non egileari begiak lehertarazi baitzizkion eta mihia eta ahalke-zatiak moztarazi.

Antigonok sinestarazi zien Argiraspidesen soldaduei Eumenes beren kapitain orokorra gaizki sal ziezaioten, bere etsaia baitzen; baina haiek entregatu ondotik hilarazi baitzuen, nahi zuen bera izatea jainkozko zuzenbidearen ordezkaria hain gaiztakeria higuigarri baten zigorrerako eta probintziaren agintariaren eskuetan ezarri zituen, honi hagitx manu ageria emanez haien galtzeko eta bururatze gaiztora eramateko, zernahi gisaz ere izan dadin. Halako moldez non, ziren multzo handi hartarik, inork ez baitzuen gero Makedoniako airea ikusi. Zenbat eta hobeki izan baitzen zerbitzatua, hainbat eta gaiztoki eta zigorgarriki uste baitzuen izan zela.

P. Sulpizio bere nagusiaren gordelekua salatu zuen esklabuari libertatea eman zitzaion, Silaren legez kanporako dekretuaren aginduari jarraikiz; baina arrazoi publikoaren aginduari jarraikiz, osoki libre, burkaitz Tarpeiatik behera egotzia izan zen. Urkarazten dute bere ordaintzearen poltsa lepoan dutela. Beren bigarren lege berezia beterik, orokorra eta lehena betetzen dute. Mahomet bigarrenak, bere anaiatz libratu nahian, manuairen bekaitzagatik, beren arrazaren moduari jarraikiz, horretarako baliatu zen bere ofizialetarik batez, honek zintzurrean bat-batean ur asko sartuz ito baitzuen. Hori eginik, hiltze horren ordainerako hiltzailea ezarri zuen zenduaren amaren eskuetan (bakarrik aitagandikako anaiak baitziren); amak, bere aitzinean, urdaila irekiarazi zion hiltzaile hari eta, osoki bero zelarik, bere eskuez ikertuz eta bihotza erauziz, zakurrei bota zien jan zezaten. Eta gure Kloviz erregek Kanakreren hiru zerbitzariak urkarazi zituen haiek beren nagusia gaizki saldu zioten ondotik; horretarako bidaliak baitzituen.

Eta deus ere balio ez dutenei beraiei hain ezti zaie, ekintza bizioso bateko baliabidea erdietsirik, segurtasun osoz ontasun eta zuzenbide ezaugarri bat kanpotik josi ahal izatea, kontzientziaren ordainketa eta zuzenketa bat bezala.

Gainera horrelako gaiztakeria higuigarrien egilei begiratzan diete horien erantzuki egiten dieten jendeak bezala. Eta haien heriotzaren bidez bilatzen dute halako azpikerien ezagutzaren eta lekukotasunaren itotzea.

Bada, menturaz sariztatzen bazaizu behar publikoari antolabide ezinagoko eta etsi horrekin huts ez egiteko, egiten duenak hartzen zaitu, non ez den bera ere, gizon madarikatutzat eta hastiagarritzat; eta gaizki saldu duzunak egiten duena baino traidoreagotzat hartzen zaitu; zerenez zure kuraiaren gaiztakeria ukitzen baitu zeure eskuez, gezurtamenik gabe, helbururik gabe. Baina erabiltzen zaitu, gizon galduekin zuzenbide goraren eginkizunetarako egiten den bezala, kargu erabilgarria bezain guti zintzoa baita. Halako eginkizunen azpikeriaz beste, bada kontzientziaren apalkeria. Seianoren alaba, Erroman epai-molde baten arabera heriotzara ezin kondenaturik baitzen, birjina zelakoan, legeei iraganbidearen emateko, borreroak bortxatua izan zen beronek ito baino lehenago; ez bakarrik honen eskua, baina honen arima ere erraztasun publikoaren esklabua da.

Amurat lehenak, bere semeak egin bere kontrako bihurraldia faboratu zuten azpikoen kontrako zigorraren gogortzeko, beren ahaide hurbilek hilketa horretarako eskua eman zezaten manatu zuelarik, hagitx zintzoa aurkitzen diet batzuei hautetsi izatea lehenago zuzengabeki beste norbaiten familia-hiltzailearen erruduntzat hartuak izatea, beren familiaren hiltzearekin zuzenbidearen zerbitzatzea baino. Eta, neure aroan bortxatu herrixka zenbaitetan, beren biziaren bermatzeko beren adiskideen eta lagunuen urkatzea onartzen duten jende zitalak ikusi ditudanean, urkatuak baino izaera gaiztoagotzat eduki

ditut. Vuitoldo lituaniarren printzeak behiala egin omen zuen lege hau: gaiztagin kondenatuek beraiek beren eskuez gauzatu behar zuten beren kontra ezarri heriotza-zigorra, arrotza aurkituz hirugarren batek, hutsaren errugabea, erabilia eta gizahilketa batez zamatua izan zedin.

Printzek, gorabehera larri batek eta bere estatuaren beharraren gertakari bortitz eta ustegabe batek bere hitza eta fedea makurrarazi diolarik, edo besterik bere eginbehar arruntetik desbideratzen duelarik, behar hori jainkozko zigorraren ukalditzat hartu behar du; ez da bizioa, zeren bere arrazoa utzi baitu arrazoi orokorrako eta ahaltsuago baten alde, baina egiazki zorigaitza da. Halako moldez non “Zein antolabide? galdegiten zidan bati egin bainion: “Antolabiderik batere, zinez bi muturren artean hertsaturik baldin bazen (*sed videat ne quaeratur latebra perjurio*) egin behar zuen; baina damurik gabe egin bazuen, mindu ez bazen egitean, bere kontzientzia antolabide gaiztoetan zegoelako ezaugarria da.”

Aurkituko balitz hain kontzientzia minberako norbait non ezein sendabiderik ez bailitzaioke hain antolabide pisutsuaren gai, ez nuke horregatik gutiago onetsiko. Ez lezake bere burua gal barkagarri eta zuzenkiago. Ez dugu ororen egiteko ahalmenik. Zernahi moldez, maiz ezarri behar dugu, azken ainguran bezala, gure ontziaren geriza zeruko erabaki hutsean. Zein behar zuzenagorako gordetzen da? Zer zaio bere fedearen eta ohorearen bizkar, menturaz bere salbazioa eta are bere jendearen salbazioa baino maiteagoak izan behar zaizkion gauzen bizkar baizik egiten ahal ez duena baino egingarritasun gutiagoko egitekoa? Besoak gurutzaturik bere laguntzarako Jainkoa deituko duenean, ez ote du uste behar jainkozko ontasuna ez dela bere ohiz landako eskuaren faborearen ukatzeko esku garbi eta zuzen bati?

Adibide arriskatuak dira, gure arau naturalen salbuespen arraro eta eriak. Amore eman behar zaie baina neurtasun eta zuhurtzia handirekin; ezein erabilgarritasun pribatu ez da gai halako bortxatzea egin diezaiogun geure kontzientziari; bai publikoa oso ageria eta beharrezkoa denean.

Timoleon bere eginaren arrotzasunari buruz bermatu zen bota zituen malkoengatik, oroitzuz anaiatzko esku batez hil izan zuela tiranoa; eta horrek zuzenki ziztatzan zuen bere kontzientzia: erabilgarritasun publikoa erosi behar izan baitzuen bere ohituren zintzotasunaren saritan. Senatua bera, haren bidez zerbitzaritzatik libratua, ez zen osoki ausartzen hain ekintza gora batez erabakitzer, hain bi itxura pisuko eta elkarren kontrakoetan urraturik. Baina Sirakusakoek hain zuzen, ordu berean, bidalirik Korintokoengana hauen geriza eta hiria bere lehen zuzentasunean berriz ezartzeko eta Sizilia hertsatzen zuten tirano txiki askoren garbitzeko gai zen buruzagi baten eske, senatuak Timoleon igorri zuen aterabide eta adierazpen honekin: bere eginbeharrean ongi ala gaizki jokatu litzatekeen arabera bere erabakiak herriaren libratzailearen aldekoa ala anaiaren hiltzailearen aurkako alderdia hartuko zuela. Ametsezko bururapen honek badu, hala ere, aitzakia zerbait adibidearen arriskuaren eta hain ekintza berezi baten muntaren gainean. Eta ongi egin zuten beren erabakia gainetik kenduz edo kanpoan eta gogoeta arrotzetan bermatuz. Bada, Timoleonon jokamoldeek bidaia horretan sarri garbitu zuten bere auzia, hain zuzen eta birtuoski jokatu modu guztietan; eta eginbehar gora horretan garaitu behar zituen laztasunetan lagundu zuen zorionak zirudien bere garbitasunaren aldeko Jainko laguntzaileek bidalia.

Honen helburua barkagarria da, zerbait izan bazitekeen. Baina irabazpide publikoaren handitzearen erabilgarritasuna, senatu erromatarrari aitzakiatzat balio baitzion aipatu behar dudana bururapen itsusi honentzat, ez da aski azkarra halako zuzengabearen bermatzeko. Hiri zenbait zilarrezko saritan berrerosi eta libertatean birrezarriak izan ziren, senatuaren arau eta baimenarekin, L. Silaren eskutik. Gauza auzi berrian erori izanik, senatuak kondenatzen ditu lehen bezala petxagarriak izatera eta beren buruen

berrerosteko erabili zuten dirua haientzat galdua izanen zela. Gerra zibilek sortzen dituzte maiz halako eredu zitalak: pribatuak zigortzen ditugu gu besterik ginelarik sinetsi digutenarengatik; eta epaile batek jasanarazten dio bere aldaketaren zigorra deus egin ez dezakeenari; irakasleak bere ikaslea azotatzen duela manukorra izateagatik; eta gidariak bere itsua. Zuzenbidearen irudi lazgarria! Filosofian badira arau faltsu eta laxoak. Erabilgarritasun pribatua hitz emanaren gainetik balioarazteko eskaintzen zaigun ereduak ez du pisurik aski hartzen nahasten dioten goraberarengatik. Ebasleek hartu zaituzte; libertatean ezarri zaituzte, halako diru-multzoaren ordainketaren zina zuregandik erdietsirik; haien eskuetarik atera ondoren, makur da esatea oneko gizon bat bere fedetik libratua dela ordaindu gabe. Ez baita. Beldurrak behin batez nahiarazi didana, behartua naiz nahi izatera oraino beldurrik gabe; eta hark borondaterik gabe nire mihiaz baizik bortxatuko ez balu ere, oraindik behartua naiz neure hitzaren xeheki betetzera. Neuri dagokidanez, zenbait aldiz mihia gogoari oharkabean aitzindu zaiolarik, halarik ere gezurtatzeko kontzientzia egin dut. Bestenaz, mailaz maila, erroz gora ezarriko gure gure agindu eta zinetarik hirugarren batek hartzen duen zuzenbide osoa. *Quasi vero forti viro vis possit adhiberi*. Honetan bakarrik badu interes pribatuak gure aginduari huts egiteko zuzenbidea, baldin eta berez gauza gaizto eta zuzengabe bat agindu badugu; zeren bertutearen zuzenbideak gure eginbeharraren zuzenbidearen gainetik egon behar baitu.

Behiala ezarri dut Epaminondas gizon bikainen lehen mailan, eta ez dut neure burua gezurtatzen. Noraino goratu zuen bere eginbeharraren axola! Garaitu zuen gizonik sekula ez baitzuen hil; bere herriari libertatearen itzultzeko ontasun preziazinezkoaren alde, tirano bat edo bere gaiztakideak zuzenbidearen moldepean hiltzeagatik kontzientzia egiten; eta gizon bat, nahi den herritarrik onena ere, etsaien artean eta guduan bere adiskidea eta arrotza bereizten ez zuena gaiztotzat hartzen baitzuen. Horra osaketa aberatseko gogo bat. Giza ekintza zakar eta bortitzenekin ezkontzen zuen ontasuna eta gizatasuna, filosofiaren eskolan aurkitzen den sotilena ere. Minaren, heriotzaren, pobreziaaren aurkako kuraia handi, haizatu eta tematu hura izaera ote zen ala hain ezinagoko eztitasun eta jitezko ontasunaren heineraino minberatu zuen artea? Burdinez eta odolez lazgarri, badoa hondatuz eta hautsiz beraz landako beste nornahiren kontra garaitezina zen herri bat eta, halako nahasmenaren erdian, itzurtzen zaio bere arrotzaren eta adiskidearen jotzeari. Gerraren berorik gorenaren heinean, sutan zelarik eta herraz eta sarraskiz lerdea zeriolarik, ontasunaren ausikia jasanarazten zionak zinez ongi manatzen zuen gerran. Mirakulua da halako ekintzei nahasi ahal izatea zuzenbidearen irudi zerbait; baina soilik Epaminondasen bortiztasunari dagokio eztitasuna, ohiturarik bigunenen erraztasuna eta hobengabetasun hutsa nahasi ahal izatea. Eta batak legeek ez zutela gizon armatuen gaineko ahalik mamertiniarrei esaten ziolarik, besteak herriko tribunoari zuzenbidearen eta gerraren aroak bi zirela, hirugarrenak armen hotsak oztopatzen ziola legeen ahotsaren aditzeko, honek ez zuen oztoporik gizatasun eta jendetasun hutsaren ahotsen aditzeko. Ez ote zuen etsaiengandik mailegatua, gerrara joaten, Musei eskaintzen egiteko ohitura, beren eztitasun eta alaitasunaren bidez soldaduzko herra eta laztasunaren kamusteko?

Ez gaitezen lotsa, hain irakasle handi baten ondoan, uste izateaz badela etsaien berauen kontra zilegi ez den zerbait, interes orokorrak ez baitu dena denengandik eskatu behar interes pribatuaren aurka, *manente memoria etiam in dissidio publicorum faederum privati juris.*:

et nulla potentia vires

Praestandi, ne quid peccet amicus, habet ¹⁴;

eta gauzak oro ez zaizkiola oneko gizon bati onegarriak bere erregeren ez alderdi orokorraren ez legeen zerbitzurako *Non enim patria praestat omnibus officiss, et ipsi*

conducit pios habere cives in parentes. Aro honetarako egokia den irakaskuntza da; ez ditugu geure kuraiak burdinezko xafla horiekin gogortu behar, aski da gure bizkarrak izan daitezen; aski da gure hegatsak tintan busti ditzagun, odoletan busti gabe. Kuraiaren handitasuna eta bertute arraro eta bakan baten ondorioa bada adiskidantza, eginbehar pribatuen hitza eta ahaidetasunaren gutiestea ontasun orokorraren eta epailearen manukortasunaren alde, zinez aski da, horretaz gure buruaren desenkusatzeko, Epaminondasen kuraiaren handitasunean ez dagokeen handitasuna dela.

Gaitzesten ditut gogo desarautu haren deialdi errabiatuak,

dum tela micant, non vos pietatis imago

Ulla, nec adversa conspecti fronte parentes

Commoveant; vultus gladio turbate verendos. ¹⁶

Ken diezaiegun izaerazko gaiztoei, odoltzaleei eta traidoreei arrazoi-estakuru hori; utz dezagun hor zuzenbide larri eta bere buruaz landako hori, atxiki gakizkiegun gizatasun gehiagoko mugei. Zenbat ahal duen denborak eta adibideak! Zinaren kontrako gerra zibileko gertakari batez, Ponpeioren soldadu batek, alderdi kontrarioan zegoen bere anaia oharkabea hilik, ahalkez eta damuz bere burua hil zuen bertan, eta, urte zenbait geroago, jende beraren beste gerra zibil batez, soldadu batek, bere anaia hil zuelakoan, saria eskatu zien bere kapitainei.

Gaizki argudiatzen dira ekintza baten zintzotasuna eta edertasuna bere erabilgarritasunagatik, eta gaizki ondoratzen da uste izanez bakoitzak egin behar duela eta bakoitzari zintzoa zaiola, erabilgarria baldin bada:

Omnia non pariter rerum sunt omnibus apta ¹⁷.

Hauta dezagun giza harremanetan beharrezkoena eta erabilgarriena, ezkontza izanen da; hala ere, sailduen aholkuak alderdi kontrarioa aurkitzen du zintzoagoa eta giza ofiziorik agurgarriena harengandik bereizten du, balio gutiagoko abereak garainotegirako gordetzen ditugun bezala.

II

Dolu egiteaz

Besteek gizona moldatzen dute; nik kontatzen dut eta agertarazten dut berezi bat, gaizki moldatua, berriz moldatu beharko banu zinez arras besterik eginen bainuke. Gaurgero egina da. Nire margolatzearen marrak ez dira desbideratzen, aldatzen eta bereizten badira ere. Mundua ez da etengabeko inarroste batez baizik. Gauzak oro inarrosten dira etengabe: lurra, Kaukasoko harkaitzak, Egiptoko piramideak, eta bai ororen inarrosteaz eta bai bereaz. Iraupena bera ez da inarroste ahulago batez baizik. Ez dut neure gaia segurtatzen ahal. Badoa zabuka eta kulunka, mozkortasun natural batez. Hein honetan hartzen dut, den bezala, hartan dihardudan unean. Ez dut izatea margolatzen. Iragaitea margolatzen dut: ez adin batetik besterako iragaitea, edo, jendeak dioen bezala, zazpi urtetarik zazpi urtetara, baina egunez egun, minutuz minutu. Egokitu behar zaio nire historia orduari. Bere hartan alda ninteke, ez bakarrik zoriaz, baina xedeaz ere. Gorabehera berezi eta aldakorren eta erabaki gabeko irudimenen -eta gertatzen denean, kontrarioen- zerrenda bat da; edo neroni besterik naizelako, edo gauzak beste gorabehera eta gogoetez hartzen ditudalako. Menturaz kontresaten dut neure burua, baina egia, Demadesek zioen bezala, ez dut kontraesaten. Neure gogoa bermatuko ahal balitz, ez nintzateke entseiatuko, deliberatuko nintzateke; beti ikasbidean eta frogatzean dago.

Bizi apal eta distirarik gabe bat eskaintzen dut, orobat da. Filosofia moral osoa bizi xehe bati atxikitzen zaio apainketa aberatsagoko bizi bati bezain ongi; gizon bakoitzak darama giza-baldintzaren molde osoa.

Autoreak jendeari mintzatzen zaizkio ezaugarri berezi eta arrotz baten bidez; ni, lehena, neure izate orokorraz, Michel de Montaigne bezala, ez gramatiko, edo poeta, edo legegizon bezala. Mundua kexatzen bada neure buruaz sobera mintzatzen naizelako, ni kexatzen naiz bera ez baita bakarrik bere buruaz gogoetatzen.

Baina arrazoa ote da, bizimoduan honen berezia, nahi dezadan neure burua publiko bilakatu ezagutzen? Arrazoa ote da ere ager ditzadan mundura, moduak eta antzeak hainbat sinesmen eta manu-indar dutelarik, naturaren ondorio gordin eta bakunak, eta oraino aski natura ahulekoak? Ez ote da harririk gabeko harresi baten egitea, edo halako zerbait, liburuen eraikitzea jakintzarik ez arterik gabe? Musikaren ameskeriak antzeaz zuzenduak dira, nireak zoriaz. Hau dut, bederen, araubidearen arabera: sekula inork ez zuela iharduki nik hasi dudana baino hobeki aditu ez ezagutu gairik, eta horretan bizi den gizonik jakintsuena naizela; bigarrenik, inor ez zela bere gaian aitzinago sartu, ez xehetu berezikiago zatiak eta ondorioak; eta ez zela iritsi zehatz eta osokiago bere beharrari eman helburura. Osatzeko, fidelitasunik besterik ez dut ekarri behar; eta hori hor da, aurki daitekeen zintzo eta hutsena. Egia diot, ez nahi dudana bezainbat, baina ausartzen naizen bezainbat; eta zahartzean ausartzen naiz apur bat gehiago, zeren baitirudi ohiturak ematen diola adin honi libertate gehiago eraisteko eta neurtasun gutiago bere buruaz mintzatzeko. Ez da gertatzen ahal maiz gertatzen ikusten dudana, langilea eta bere lana elkarri desegokitzen zaizkiola: hain solas zintzoko gizonak egin ote du hain idazki ergela? edo, hain idazki jakintsuak abiatu ote dira hain solas ahuleko gizon batengandik, solasbide arrunt bat eta idazki arraroak dituen, esan nahi baita, bere ahalmena berak mailegatu lekuan dela, eta ez bere baitan? Pertsonaia jakintsua ez da orotan jakintsua, baina trebea orotan trebea da, ez jakitean ere.

Hemen bagabiltza ados eta abiatze berean, neure liburua eta biak. Beste inon, gomendatzen eta salatzen ahal da egina egilearengandik berezirik; hemen ez: bata ukitzen duenak bestea ukitzen du. Ezagutu gabe epaituko duenak niri baino bidegabe gehiago eginen dio bere buruari; ezagutu duenak asetu nau osoki. Neure merezimenduz gain zorionekoa naiz baldin eta bakarrik onespén publikotik zati hau badut: adimeneko jendeei sentiaraz diezaiedan jakintzatik neure mozkinaren egiteko gai nintzela, jakintzarik izan banu, eta merezi nuela oroimenak hobeki lagun nintzan.

Desenkusa dezagun hemen maiz diodana, bakanka damutzen naizela eta nire kontzientziak bere burua askiesten duela, ez aingeru edo zaldi baten kontzientzia bezala, baina gizon baten kontzientzia bezala, beti ere errepika hau gehituz, ez zeremoniazko errepika bat, baina manukortasun garbi eta jitezkoa: galdeginez eta ez jakinez mintzatzen naizela, ondoriorako begiratzuz, garbiki eta bakarrik, sinesmen arrunt eta zilegiei. Ez dut irakasten, kontatzen dut.

Ez da zinezko biziorik ofendatzen ez duenik, eta epaiketa oso batek salatzen ez duenik; zeren hain itsustasun eta ezegokitasun ageria baita, non menturaz arrazoa baitute nagusiki zozokeriaz eta jakinezaz sortuak direla diotenek. Hain da irudigaitza ezagun daitekeela hartaz higuindu gabe. Gaiztakeriak gehienetan irensten du bere pozoina eta pozointzen da. Bizioak uzten du, haragian zauri bat bezala, gogoan dolu bat beti bere burua arramaskatzen eta odoleztatzen duena. Zeren arrazoiak ezabatzen baititu garaitiko iluntasunak eta minak; baina doluarena sortzen du, larriagoa baita, barrenean sortzen baita; sukarren hotza eta beroa kanpotik datorrena baino hertsagarriagoa den bezala. Biziotzat ditut (baina bakoitza bere neurriaren arabera) ez bakarrik arrazoiak eta naturak kondenatzen dituztenak, baina gizonen uste faltsu eta makurrak moldatu dituenak, legeek eta ohiturak baimentzen badute.

Ez da, halaber, ongi sortu izaera bat pozten ez duen ontasunik. Bada egiazki ez dakit zein goresmen gure baitan alaitzen gaituena eta burgoitasun eskuzabal bat kontzientzia ona laguntzen duena. Azkarki biziosoa den gogo bat menturaz segurtasunez gerizatzen

ahal da, baina atsegin eta askiespen hau ez du erdiesten ahal. Ez da atsegin arin bat hain mende usteldu baten kutsaduraz zaindurik sentitzea eta bere baitan esatea: "Gogoraino ikusiko nindukeenak ez ninduke hobendun aurkituko ez inoren atsekabe eta hondamenagatik, ez mendeku edo bekaitzagatik, ez legeenganako laido publikoagatik, ez berrikeria edo nahasmenagatik, ez neure hitzaren jateagatik, eta aroaren lizentziak bakoitzari baimentzen eta onartzen dion arren, ez dut eskurik ezarri ezein gizon frantsesen ontasunetan ez poltsan, eta beti neure bizkar bizi izan naiz, ez gerran ez bakean, ez naiz inoren lanaz baliatu ordaindu gabe." Kontzientziaren lekukotasun hauek atsegin dagite, ontasun handia zaigu poztasun natural hau, eta sekula huts egiten ez digun ordain bakarra da.

Ekintza bertutezkoen saria besteren onespenean ezartzea sobera funts segurgabe eta nahasi baten hartzea da. Berezik i hau bezalako mende usteldu eta jakingabe batean jendearen onspena laidogarria da; nori fidatzen zatzaizkio goresgarria zer den ikusteko? Jainkoak begira nazala oneko gizona izatetik egunero bakoitzaren ohorean ikusten dudana deskribapenaren arabera. *Quae fuerant vitia, mores sunt.* Nire adiskideetarik zenbait entseiatu dira nire zuzentzera eta salatza bihotz zabalean, edo beren abiatzean, edo neronek akuilaturik, gogo on batean ez bakarrik erabilgarritasunean baina eztitasunean ere adiskidantzaren eginbehar guztiak gaintitzen duen eginbehar bat bezala. Beti onartu dut jendetasunaren eta eskerronaren besorik zabelenekin. Baina zuzen eta kontzientziaz mintzatza, maiz aurkitu dut haien erantzuki eta goresmenetan hainbeste neurri faltsu non beren moldean ongi egitea baino nahiago bainuke huts egitea. Guk bereziki, geure baitan bakarrik erakusten den bizi pribatu bat bizi dugunok, ezarri behar dugu molde bat barrenean geure ekintzen neurtzeko eta berorren arabera behin ferekatu behin zigortu geure burua. Baditut neure legeak eta gortea neure buruaren epaitzeko, eta horra jotzen dut beste inora baino gehiago. Ongi mugatzen ditut neure ekintzak besteren arabera, baina bakarrik aditzen ditut neure arabera. Zutaz beste inork ez daki beldurtia eta krudela zaren, edo leial eta fidela; besteek ez zaituzte ikusten; asmatzen zaituzte zalantzazko ustezkatzeen bidez; ez dute hainbat zure izaera ikusten nola zure antzea. Horregatik ez atxiki haien sententziari baina atxiki zakizkio zeureari. *Tuo tibi iudicio est utendum.-Virtutis et vitiorum grave ipsius conscientiae pondus est: qua sublata, jacent omnia.*

Baina esaten den horrek, doluak ondotik darraiola bekatuari, ez bide dio begiratzen bere tresna goratuan dagoen bekatuari, bere etxean bezala baitago gure baitan. Gezurtatzen eta ukatzen ahal dira harrapatzen gaituzten bizioak, pasioneek haien aldera garamatzatenean; baina borondate azkar eta sendo batean ohitura luzeaz erroztatuak eta ainguratuak daudenak ez dira kontraesanaren menpean. Dolua gure borondatearen ukatzeaz baizik ez da, gure ameskerien kontrajartze bat zentzu orotan inarrostean gaituena. Gezurtatu behar zaio harako hari bere iraganeko bertutea eta bere neurtasuna:

Quæ mens est hodie, cur eadem non puero fuit?

Vel cur his animis incolumes non redeunt genæ? 21

Bizitarik hoberena da bere baitan antolaturik dirauena. Bakoitzak parte hartzen ahal du antzerkian eta pertsonaia zintzo bat antzeztu taulatuan, baina barrenean eta golkoan, oro ahal dugunean, oro estalia denean, zuzen izatea, horra guztia. Ondoko maila etxean horrela izatea da, inori konturik eman behar ez dizkiogun eta ikertzerik ez faltsutzerik ez duten ekintza arruntetan. Eta, hala ere, Biasek, familiaren egoera bikain baten itxuratzen zioen: "halakoa non eta barrenean nagusia den, bere oldez, kanpoan legearen eta gizonen esanen beldurrez den bezala." Eta hiru mila ezkututan bere etxea halako heinean ezartzea non auzokideek ez bailukete gehiago izanen han zeukaten ikusmena eskaintzen zioten langileei Julio Drusoren hitz zuzena izan zen: "Emanen dizkizuet, zioen, sei mila eta egin ezazue bakoitzak orotarik ikus dezan". Ohorearekin

azpimarratzen da Agesilaoren ohitura, bidaian zelarik elizetan aterbearen hartzekoa, jendeak eta jainkoek beraiek ikus zitzaten bere ekintza pribatuak. Halako bat izan zaio miresgarria munduari, bere emazteak eta morroiak ezer ohargarririk ikusi ez diotena. Gizon guti izan dira beren morroiak miretsiak.

Inor ez da izan, ez bakarrik bere etxean, baina bere herrian profeta, dio historien ezagutzak. Gauza bera gauza ezdeusetan. Adibide apal honetan ikusten da handien irudia. Gaskoinako nire eskualde honetan bitxikeriatzat hartzen da nire ikustea inprimaturik²². Hainbat gehiago balio dut nitaz hartzen den ezagutza neure etxetik urruntzen den ber. Guienan erosten ditut inprimalaria, kanpoan erosten naute beraiek. Berezitasun honen gain bermatzen dira bizirik eta hemen gordetzen direnak, beren buruaren goratzeko, zenduak eta joanak. Nik nahiago dut gutiago eduki. Eta ez naiz munduratzen berronetarik erdiesten dudana zatirako. Handik goiti, uzten dut.

Jendeak harriturik laguntzen du hura, ekintza publiko batetik, bere ateraino; hark uzten du bere jantziarekin jokamolde hori eta erortzen da hainbat beherago nola gorago igana baitzen; barrenean, bere baitan, dena da nahasia eta apala. Araubiderik balitz ere, oharbide bizi eta ongi berezi bat behar da ekintza apal eta pribatuetan horretaz ohartzeko. Gainera, antolamendua bertute motel eta iluna da. Harresi bateko sarbidearen irabaztea, enbaxada baten zuzentzea, herrialde baten manatzea, ekintza distiratsuak dira. Gaitzestea, irri egitea, saltzea, ordaintzea, maitatzea, hastiatzea eta solastatzea bakoitzak berekin eta bere buruarekin eztiki eta zuzenki, utzi gabe, gezurtatu gabe, gauza arrarogoa da, nekeagoa eta oharren gutiagokoa. Hortik bizi baztertuek, zernahi esaten bada ere, jasaten dituzte besteez bezain eginbehar latz eta gogorrak edo areago. Eta pribatuek, dio Aristotelesek, buruzagiek egiten duten baino nekeago eta gorago zerbitzatzen dute bertutea. Aldi nabarmenerako prestatzen gara kontzientziagatik baino gehiago ospeagatik. Ospera iristeko biderik laburrena ospeagatik egiten duguna kontzientziagatik egitea izanen litzateke. Eta iruditzen zait Alexandroren bertuteak askoz ere indar gutiago antzezten duela bere antzerkian Sokratesenak ihardukitze apal eta ilun horretan egiten duena baino. Errazki gogoratzen zait Sokrates Alexandroren lekuan; Alexandro Sokratesenean ez dezaket. Hari egiten zer dakien galdeginen dionari hark erantzunen dio “Munduaren menperatzen” ; honi galdeginen dionari honek esanen dio: “Giza bizitzaren eramaten bere baldintza naturalaren arabera”; askoz ere jakintza orokorragoa, pisutsuagoa eta zilegiagoa. Gogoaren helburua ez datza gora joatean, baina antolatuki.

Bere handitasuna ez da handitasunean aritzen, erdiunean baizik. Horrela, barrenean epaitzen eta neurtzen gaituztenek ez dute gure ekintza publikoengatik kontu handirik egiten, eta badakusate ez direla hondo lohiztatu eta pisu batetik atera ur mehe xirripa eta ttantta zenbaitez baizik. Kasu berdin batean, itxura zintzo horregatik epaitzen gaituztenek berdin ondoratzen dute gure barreneko izaeraz, eta ez dituzte ahalmen arruntak eta beraienak bezalakoak elkartzen ahal beren ikusmenetik hain urrun diren eta harregarriak zaizkien beste ahalmen horiekin. Horrela deabruei molde basak ematen dizkiegu. Eta nork ez dizkio emanen Tanburlani²³ bekain goratuak, sudur irekiak, aurpegi izigarri bat eta goratasun larri bat, bere izenaren hotsaz gogoratu den irudimenaren larritasuna den bezala? Behiala Erasmo erakutsi izan balitzait neke litzateke ez nituzkeela bere morroi eta neskameari esanen liokeen oro adagio eta apotegmatzat²⁴ hartuko. Bere itxura eta jakintzagatik agurgarria den lehendakari handi bat baino anitzez errazago gogoratzen zaigu eskulangile bat bere aulki zulodunaren edo bere emaztearen gainean. Iruditzen zaigu haiek ez direla jarleku goratu horietarik behehitzen bizitzearaino.

Gogo biziosoak maiz ongi egitera kanpoko bulkatze zerbaitek akuilatuak diren bezala, bertutetsuak ere hala dira gaizki egitera. Epaitu behar dira, beraz, bere egoera

jarriagatik, beren baitan direlarik, inoiz badira; edo, behintzat, atsedenetik eta bere jatorrizko jarlekutik hurbilagoak direlarik. Jatorrizko aiherrak laguntzen eta azkartzen dira irakaskuntzaz; baina ez dira doi aldatzen eta garaitzen. Nire aroan, mila izaera itzuri dira bertute edo bizio aldera araubide kontrario baten barrenean:

Sic ubi dessuetæ silvis in carcere clausæ

Mansuevere feræ, et vultus posuere minaces,

Atque hominem didicere pati, si torrida parvus

Venit in ora cruor, redeunt rabiesque furorque,

Admonitæque tument gustato sanguine fauces;

Fervet, et a trepido vix abstinet ira magistro ²⁵.

Jatorrizko nolakotasun horiek ez dira erauzten; estaltzen eta gordetzen dira. Hizkuntza latina naturala bezala zait, frantsesa baino hobeki aditzen dut; baina badira berrogei urte ez naizela hartaz baliatzen ez mintzatzeko ez idazteko; eta bizitzan bizpahiru aldiz erori naizen ertzerainoko eta bat-bateko hunkimenetan, bata neure aitaren ikustean osoki sendo neure gainera makurtzen alditxarturik, beti bota ditut barren-zolatik lehen hitzak latinez; natura jalgiz eta mintzatuz bortxaz, ohitura luze baten kontra. Eta adibide hau beste askoz esaten da.

Nire aroan, uste berrien bidez, munduko ohituren aldatzera entseiatu direnek itxurako bizioak aldatzen dituzte; izatezkoak beren hartan uzten dituzte, berretzen ez badituzte; eta berretzea beldurtzekoa da. Gogotik baztertzen ohi da beste ongiegite orotarik kanpoko nahikeriazko zuzentze horietan, neke gutiago eta meritu handiagokoak baitira; eta hortik errazki askiesten dira beste jatorrizko eta barreneko bizioak. Ikus ezazu apur bat nola jokaten den gure ezagutza: inor ez da, bere burua badantzu, kontrarioak zaizkion irakaskuntza eta pasioeen erauntsiaren aurka borrokatzen duen molde berezko, molde nagusi bat bere baitan atzematen ez duenik. Ez dut kasik neure burua sentitzen inarrosaldiz eragina, ia beti aurkitzen naiz neure lekuan, gorputz pisu eta astunek egin bezala. Neure baitan ez banaiz, beti naiz hemendik hurbil. Neure zirtzilkeriek ez naramate urrun. Ez da ezinagokorik ez arrarorik ezer; eta bai zuzentze sendo eta azkarrik.

Egiazko zigorra, gure gizonen molde arruntari dagokiona, beren barrena bera usteltze eta zaborrez beterik dela da; zuzentzearen gogoeta nahasia dute; beren penitentzia eria eta erruduna, gutiz goiti beheiti beren bekatua bezala. Zenbaitek, edo esteka natural batez bizioari lotuak izateagatik, edo ohitze luze bategatik, ez dute haren itsuskeria aurkitzen. Besteei (beraueu metakoa bainaiz) bizioa hertsigarria zaie, baina kontrapisatzen dute atseginaren edo beste aldi baten bidez, pairatzen dute eta ematen zaizkio zerbaiten saritan; bizioski, beraz, eta laxoki. Menturaz gogoratzen ahal litzateke hain neurrizko ezberdintasun urrundua, non eta zuzenbidez atseginak bekatua desenkusatuko bailuke, erabilgarritasunaz diogun bezala; ez bakarrik bazterrekoa eta bekatuaz kanpoko balitz, ebasketan bezala, baina bere ihardukitzean berean, emakumeekiko elkartzean bezala, hor sustatzea bortitza eta, diote, noizbait garaitezina baita.

Nire ahaide baten lurraldean, Armagnacen nengoen lehengo egunean, ikusi nuen bakoitzak “ebaslea” goitizendatzen duen nekazari bat. Honela egiten zuen bere bizitzaren ipuina: erromesa sorturik, eta aurkiturik bere eskuez ogiaren irabaztean sekula ez litzatekeela eskasgoaren aurka bere buruaren aski gotortzera iritsiko, deliberatu zela ebasle izatera; eta lanbide horretan segurtasunez eman zuen bere gaztaro osoa, bere gorputzaren indarraren bidez; zeren besteren alorretarik uzta eta mahatsa biltzen baitzituen, baina hain luzera eta zati handitan non gogoraezina baitzen gizon batek hainbat eraman izan lukeela bizkar gainean gau batez; horretaz landara, bazuen egiten zuen kaltearen berdintzeko eta barreiatzeko axola, eta zama jasangarriagoa

zitzaion partikular bakoitzari. Orain aurkitzen da, bere zahartzaroan, aberatsa bere mailako gizon batentzat, joan-etorri horri esker, lasai aitortzen baitu; eta, Jainkoarekin antolatzeko bere erdiespenez, badio beti dela emaitzen bidez ebatsi zituenen ondokoan askiesteko prest; eta, amaitzen ez badu (zeren dena batean ez baitezake), bere ondokoei manatuko diela, berak bakarrik duen bakoitzari egin dion gaitzaren jakintzaren arabera. Deskribapen honen arabera, egiazkoa edo faltsua bada ere, honek ebasketa badakusa ekintza makur bezala eta gorrotatzen du, baina eskasgoa baino gutiago; aski soilki dolutzen da, baina, horrela kontrapisatua eta ordaindua den ber, ez da dolutzen. Hori ez da bizioaren baitara garamatzen eta horretara gure adimena bera moldatzen digun ohitura hori, ez gure gogoan inarrosaldika nahastuz eta itsutuz doan eta, adimenarekin batean, bizioaren ahalmenera egotzen gaituen haize bortitz hura.

Osoki egiten ohi dut dagidana eta banabil dena batean; ez dut neure arrazoiari itzurtzen zaion eta gutiz goiti beheiti neure zati guztien baimenik gabe dabilen mugimendurik, zatiketarik ez barreneko bihurraldirik gabe; neure gogoak badu horren hobena edo goresmen osoa; eta behin batean duen hobena beti badu, zerengatik bere sortzetik bat baita: aiherrera, bide bera, indar bera. Eta aburu orokorren gaian, haurtzarodanik jarri nintzen iraun behar nuen heinean.

Badira bekatu oldartsuak, lasterrak eta bat-batekoak; bazter ditzagun. Baina hainbat aldiz berritxiki, erabaki eta gogoetatu beste bekatu horietan, edo izaerazko bekatuak, eta are lanbide eta ofiziozko bekatuak, ez dut gogoratzen ahal indar berean landatuak direla hain luzaz beroriek dauzkanaren arrazoiak eta kontzientziak etengabe horrela nahi eta aditu gabe; eta aitzinetik manatu halako instant batez datorkion eta arrandiatzen duen dolua apur bat irudigaitza eta moldagaitza zait.

Ez naiz Pitagorasen alderdikoa, “gizonek arima berri bat hartzen dutela jainkoen irudietara hurbiltzen direnean haien orakuluen biltzeko”. Non ez zuen esan nahi arrotza, berria eta denboraz mailegatua izan behar zela, beraiena ospamen horri dagokion hain garbi-ezaugarri guti erakutsiz.

Arau estoikoen guztiz kontrakoa dagite, hauek manatzen baitigute geure baitan ezagutzen ditugun akatsen eta bizioen zuzentzea, baina debekatzen horiengatik amorratuak eta atsekabetuak izatea. Hauek sinestarazten digute damu eta dolu handia dutela barrenean. Baina aldatzerik ez zuzentzerik, ez etenik, ez digute agertarazi. Eta ez dago sendatzerik gaitzetik arintzen ez bada. Dolua balantzaren platerean pisatuko balitz, bekata eramanen luke. Itxuratzeke ez dut aurkitzen debozioa baino nolakotasun errazagorik, ohiturak eta bizia egokitzen ez bazaizkio; haren izatea iluna eta gordea da; itxurak, errazak eta hanpatuak.

Niri dagokidanez, nahi ahal dut orokorki besterik izatea; gaitzesten eta hastiatzen ahal dut neure molde orokorra, eta Jainkoa otoizten neure aldatze osorako eta neure jitezko ahultasunaren aitzakiarako. Baina hori ez dut dolua deitu behar, uste dut, ez aingerua ez Katon ez izateko ezatsegina baino gehiago. Neure ekintzak arautuak eta egokiak zaizkio naizenari eta neure izaerari. Ez dezaket hoberik egin. Eta dolua ez dagokie, berez, gure indarrean ez dauden gauzei, gaitzestea bai. Mila izaera irudikatzen ditut neurea baino gora eta arautuagoak; ez ditut, hala ere, neure ahalmenak aldatzen; neure besoa ez gogoan azkarrago bilakatzen ez diren bezala hala den beste baten gogoratzeagatik. Gurea baino ekintza-molde zuzenago baten irudikatzeak eta nahi izateak gurearen dolua sortuko balu, dolutu beharko ginatke gure ekintzarik xehenengatik; izaera bikainagoaren baitan zuzenik uste baikenuke osotasun eta zuzentasun handiagoz gauzatuak izan ziratekeela; eta berdin egin gogo baikenuke. Gaztaroko moldeak zahartzaroarekin gogoratzen ditudanean, aurkitzen dut orokorki antolamenduz zuzendu ditudala, neure arabera; neure ihardukitzeak ahal duen guztia da. Ez naiz gorabehera berdinetan engainatzen, beti honelakoa izanena naiz. Ez da ubeldura bat, gehiago da

zikintzen nauen tindura orokor bat. Ez dut azaleko, erdiko eta zeremoniako dolurik ezagutzen. Alderdi orotan hunkitu behar nau nik hala deitzeko, eta neure barrenak zimika eta atsekabe ditzan Jainkoak ikusi nauen bezain barren eta osoki.

Irabazpideei dagokienez, aldi eder asko itzuri zaizkit jokamolde zorioneko baten eskasean. Nire aholkuek, hala ere, ongi hautatu dute agertzen ziren gorabeheren arabera; beren modua alderdirik erraz eta seguruenaren hartzea da beti. Aurkitzen dut, neure moldearen arabera, neure iraganeko gogoetetan ongi ibili naizela agertzen zitzaidan gaiaren egoerarentzat; eta beste hainbeste eginen nuke hemendik mila urtera aldi berdinetan. Ez dut begiratzen nola den orain, baina nola zen gogoetatu nuelarik.

Aholku ororen indarra denboran datza; aldiak eta gaiak itzulikatzen eta aldatzen dira etengabe. Huts larri eta muntako zenbait egin ditut neure bizitzan, ez aburu onaren eskasean, baina zorionaren eskasean. Badira erabiltzen diren gauzakietan zati ezageri eta asmaezinak, bereziki gizonen izaeran, baldintza mutuak, erakuspenik gabeak, dauzkanarentzat berarentzat zenbait aldiz ezezagunak, ustegabeko aldietan gauzatzen eta iratzartzen direnak. Neure zuhurtziak ez baditu ikertu eta aztiatu ahal, ez natzaio horregatik eskargaitza; bere eginbearra bere mugetan dauka; gertakariak garaitzen nau eta ezeztatu dudan alderdia faboratzen badu, ez da antolabiderik; ez naiz neure buruaren kontra bihurtzen; neure zoria salatzen dut, ez neure egina; hori ez da dolua deitzen.

Fozionek eman zien atenastarrei jarraikia izan ez zen aholkuren bat. Egitekoa, hala ere, ongi gauzaturik haren ustearen aurka, norbaitek esan zion: “Hara, Fozion, pozik hago gauza hain ongi joateaz? –Biziki pozik niagok, egin zuen, horrela gertatzeaz, baina ez nauk damutzen hala aholkaturik izanagatik.” Neure adiskideek neuregana jotzen dutenean aholkaturik izateko, libreki eta ageriki egiten dut, gelditu gabe, kasik mundu osoak dagien bezala, gauza menturatua izanik neure zentzuaren aurka gerta daitekeelakoan, nondik eta neure aholkuaren erantzukia egiteko bidea ukanen bailukete; horregatik ez bainaiz sumintzen. Zeren beraiek baitute errua, eta nik ez baitiet eginbear hori ukatu behar.

Ez diot doi neure huts edo zorigaitzen erantzukia neure buruari baizik leporatzen. Zeren, zinez, bakanka baliatzen bainaiz besteren aburuez, non ez den ohorez eta zeremoniaz, salbu eta jakintzaren irakaskuntzaren edo eginaren ezagutzaren beharra daukadalarik. Baina, adimenaz baizik baliatu behar ez naizen gauzetan, arrazoi arrotzek balio dezakete nire bermatzeko baina guti nire desbideratzeko. Guztiak entzuten ditut ongi eta zintzoki; baina, oroitzen naizenez, ez ditut orain arte neureez baizik sinetsi. Nire arabera, nire borondatea daramatenak euliak eta atomoak dira, besterik ez. Ezer gutitan dauzkat neure aburuak, baina ezer gutitan ere besteenak. Zoriak zuzenki ordaintzen nau. Aholkurik hartzen ez badut, oraino gutiago ematen dut. Hagitz guti eskatua naiz; baina oraino gutiago sinetsia: eta ez dakit ezein eginkizun publikorik ez pribaturik nire aburuak zuzendu eta bideratu duenik. Zoriak berak inola ere nireari estekatu zituenek gogotikago utzi diote beren buruen zuzentzea beste edozein buruimuini. Neure manuaren zuzenbideen bezain zaindari sutsua neure atsedenen zuzenbideena naizenez geroz, nahiago dut horrela; nire honetan utziz, egiten da nire xedearen arabera, nire baitan denaren ezartzea eta edukitzea baita. Atsegina zait besteren egitekoez axolagabe egotea eta beren zainketatik libre.

Egiteko guztietan, iraganak direnean, nolanahi ere den, damu guti dut. Zeren hala gertatu behar zutelako gogoramen honek nekez kanpo ezartzen bainau: hara unibertsoaren ibilbide handian eta kausa estoikoen kateamenduan direla; zure amestek ez du, nahiaz eta irudimenaz, gauzen antolabide osoak, eta iraganak, eta etorkizunak kordokatzen ez dituen ezer aldatzen ahal.

Bestalde, hastiatzen dut adinak dakarren zorizko dolutze hori. Atseginaz gabetu ziotelako urteei eskerduna zitzaizkiola zahartzaroan zioenak bazuen nireaz beste den

aburu bat. Ez natzaio sekula ezintasunari eskerdun izanen egiten didan onagatik. *Nec tam aversa unquam videbitur ab opere suo providentia, ut debilitas inter optima inventa sit.* Gure nahikundeak bakanak dira zahartzaroan; asetasun barren batek hartzen gaitu ondoren; ez dut horretan kontzientziarik ikusten; doluak eta ahuleziak inprimatzen digu bertute laxo eta hoztu bat. Ez dugu geure burua utzi behar aldatze naturaletara eramaten hain osorik non gure adimena nahasirik den. Gaztaroak eta atseginak ez didate behiala bizioaren aurpegia ezezagutarazi atseginen; eta orain urteek ekartzen didaten atsekabeak ez dit ezezagutarazten atseginarena bizioan. Orain gaurgero ez bainaiz, banintz bezala gogoetatzen dut. Nik, biziki eta erneki inarrosten baitut, aurkitzen dut neure arrazoa adinik nabarmenenean neukana bera dela, non ez den, menturaz, zahartzean ahuldu eta gaizkiagotu baita, eta aurkitzen dut atsegin horretan nire gorputzaren osasunaren onerako ukatzen didanak ez lukeela lehen baino gehiago eginen izpirituaren osasunaren alde. Borrokaz kanpo ikusteagatik ez zait suhartsuagoa iruditzen. Nire tentazioneak hain hautsiak eta ilaunduak dira non ez baitute balio kontra ezar dadin. Menperatzen ditut soilik eskuak aurrera hedatuz. Ezar bedi lehenagoko gutizia haren aitzinean, beldur naiz lehen zeukan baino jasateko indar gutiago edukiko duela. Ez dakusat haren baitan orduan aditzen ez zuen ezer ere aditzen duenik, ez argitasun berririk batere. Horregatik, gaitzondoa bada, zorogaitzeko gaitzondo bat da. Antolabide mota zitala, gaitzari osasunaren zor izatea! Ez dagokio gure zorigaitzari ofizio horren egitea, gure adimenaren zorionari baizik. Ofentsa eta atsekabeen bidez ez zait deus ere eginarazten, beren madarikatzeaz baizik. Hori soilik azote-ukaldika iratzartzen diren jendeei dagokie. Nire arrazoiak ibilbide garbiagoa du zorionean. Gaitzen bereganatzen sartuagoa eta lanpetuagoa da atseginekin baino. Argiago dakusat eguraldi garbian. Osasunak ohartarazten nau, alaikiago bezala, halaber gaitzak baino onuragarriago. Ahal bezainbat aitzindu naiz neure zuzentze eta arautzearen aldera gozatzeko aldia nuenean. Ahalke eta bekaitz nintzateke neure zaharreriarren eskasgoa eta zoritxarra nahiago izan behar balitz neure urte sendo, erne, azkarrak baino; eta apreziatzekoa banintz ez izan nintzenean, baina izatetik etena naizenean. Nire ustez, zorionez bizitzea da, eta ez, Antistenesek zioen bezala, zorionez hiltzea, giza zoriona egiten duena. Ez naiz begira egon filosofo baten buztanaren mustroski lotzeari gizon galdu baten buruan eta gorputzean; ez amaitze eskas honek uka eta gezurta zezan neure bizitzaren zatirik eder, oso eta luzeena. Agertu eta erakutsi nahi dut neure burua orotarik berdin. Berbizi beharko banu, bizi naizen bezala berbiziko nintzateke; ez dut iraganaz negar egiten, ez etorkizunaz beldurtzen. Eta engainatzen ez banaiz, barrenean kanpoan bezala joan da. Zoriari zor diodan nagusienetakoa da neure gorputzaren egoeran gauza bakoitza bere sasoiaren zuzendurik izatea. Hartan ikusi dizkiot belarra, eta loreak, eta fruitua; eta ikusten dut haren idortasuna. Zorionez, naturalki baita. Eztikiago jasaten ditut ditudan gaitzak beren aroan baitira eta hobeki oroitarazten baitidate iragan bizitzaren zorion luzea.

Halaber, nire zuhurtzia handitasun berekoa izan daiteke aro batez eta bestez; baina hats eta grazia hobekoa zen, gordin, alai, jatorragoa orain dena baino: makurra, mamurra, nekatua. Gaitzesten ditut, beraz, aldatze zorizko eta mingarri hauek.

Jainkoak gure kuraia frogatu behar du. Gure kontzientziak zuzendu behar du bere burua gure arrazoiaren berrindartzeaz, ez gure nahikundearen ahuleziaz. Atsegina ez da, bere baitan, zurbil ez hits begi makartzuez eta uherrez ikusteagatik. Neurtasuna maitatu behar da berez eta manatu digun Jainkoaren begirunez, eta kastitatea berdin; katarroek mailegatzen digutena eta nire sabeleriaren ontasunari zor diodana ez da ez kastitate ez neurtasuna. Ez da atseginaren gutiستهaz eta borrokatzeaz arrandiatu behar ikusten ez bada, ezezagutzen badira haren graziak, indarrak, eta edertasun erakargarriena. Bata eta bestea ezagutzen ditut, niri dagokit esatea. Baina uste dut zahartzaroan gure gogoak

isuriagoak direla gaztaroan baino eritasun eta akats oztopagarriagoei. Gaztea nintzelarik nioen, orduan nitaz burlatzen ohi ziren. Oraino badiot neure ile urdinak sinesmena ematen didan ordu honetan. Zuhurtzia deitzen dugu geure aldien nekezia, oraingo gauzen atsekabea. Baina, zinez, ez ditugu bizioak uzten aldatzen ditugun bezainbat, eta, nire ustez, gaizkiagotzen. Harrokeria ergel eta erorkor bat, talata aspergarri bat, aldi arantzatsu eta elkartezin horiek, eta sineskeria, eta aberastasunekiko axola irrigarri bat hauen erabilera galdurik denean, horietaz guztietaz landan, hor aurkitzen dut bekaitz, zuzengabe eta maltzurkeria gehiago. Zimur gehiago ezartzen dizkigu gogoan aurpegian baino; eta ez da gogorik ikusten, edo gogorki guti, zahartzean minker eta urdin-urritik ez duenik. Gizona badabil osorik bere goraldi aldera eta bere behealdi aldera.

Sokratesen zuhurtzia eta kondenaren gorabehera askoren ikustean, ausartuko nintzateke sinestera inola ere berak eman ziola bere burua, zina hautsiz, bere nahiaz, hain laster, hirurogeita hamar urteko adinean, jasan behar izanez bere gogoaren ibilera aberatsen gogortzea eta bere ohiko argitasunaren itsutzea.

Zein aldakuntzak ikusten dizkiot²⁷ egunero egiten neure ezagun askoren baitan! Eritasun ahaldun bat da, naturalki eta ohargabea sartzen dena. Ikertzapenaren hornidura eta axola handia behar da zamakatzen dizkigun akatsei itzurtzeko, edo gutienez haien aitzinamenduen moteltzeko. Ohartzen naiz, neure mozketak oroz gain, oinez oin menperatzen doakidala. Badihardut ahal dudana bezainbat. Baina hondarrean ez dakit nora naramakeen. Zer gerta ere, askiesten dut nondik eroriko naizen jakina izan dadin.

III

Hiru harremanez

Ez gatzazkie hain gogorki atxiki behar geure aldi eta izaerei. Gure trebetasunik nagusiena erabilera askori ematen jakitea da. Ibilera bakar bati estekaturik eta beharturik irautea izatea da, baina ez bizitzea. Gogorik ederrenak aniztasun eta arintasun gehiago dutenak dira.

Hona Katon zaharraren lekukotasun ohoregarri bat: *Huic versatile ingenium sic pariter ad omnia fuit, ut natum ad id unum diceret, quodcumque ageret.*

Niri balitzait neure moduz neure buruaren antolatzea, ez da hain molde onik non eta nahi nukeen loturik egotea bereizten ez jakiterainokoan. Bizia mugialdi ezberdin, araugabe, molde anitzetako bat da. Ez da nor bere buruaren adiskide izatea eta are gutiago nagusi, esklabu izatea da, bere buruari etengabe jarraitzea eta norbere aiherre hain atxikia izatea non ez den haietarik desbideratzen ahal, non ez diren bihurtzen ahal. Ordu honetan badiot neure gogoaren oztopotik errazki baztertzen ahal izateko, ez dakielako ihardukitzen salbu eta trabatzen den lekuan, ez bere buruaz baliatzen hertsaturik eta osorik baizik. Gai arinago bat ematen bazaio ere, berak gogotik handitzen eta hedatzen du bere indar osoaz baliatu behar den heineraino. Horregatik haren astia eginbehar nekea zait, nire osasuna kaltetzen duena. Gogorik gehienek behar dute gai arrotz bat iratzartzeko eta aritzeko; nireak gehiago behar du atseden hartzeko *vitia otii negotio discutienda sunt*, zeren haren ikertzerik nekagarriena eta nagusiena bere buruaren ikertzea baita. Liburuak dira harentzat bere ikertzetik desbideratzen duten ariketa motakoak. Datozkion lehen gogoetetan, badabil eta frogatzen du bere indarra zentzu orotara, badarabil bere eskuztatzea behin indarrez, behin antolamenduz eta graziaz, arautzen, neurtzen eta azkartzen da. Berak badu bere ahalmenak zeren iratzarri. Naturak, denei bezala, eman dio bere erabilerako gairik aski, eta gauzarik aski bere hartan asmatzeko eta uste izateko.

Bere buruaren azkarki ikertzen eta baliatzen dakienarentzat gogoetatzea ikertzapen oso eta betea da: betetzea baino nahiago dut neure gogoaren moldatzea. Bakoitzaren gogoaren arabera, bakoitzaren gogoeten erabiltzea baino egiteko ahulagorik, ez bortitzagorik,

ez da. Handienek hartaz dagite beren ofizioa, *quibus vivere est cogitare*. Naturak lehenbat horrekin horrenbat faboratu du non deus ez baita hain luzaz egin dezakegunik, ez arrunki eta errazkiago lotzen gatzazkion ekintzarik. Irakurpenak balio dit neure hitzaldiaren iratzartzeko gai ezberdinen bidez, neure adimenaren erabiltzeko, ez neure oroimena.

Ihardukitze gutik geldiarazten naute indarrrik ez ahaleginik gabe. Egia da jendetasunak eta edertasunak betetzen eta hartzen nautela pisuak eta barrentasunak bezainbat edo gehiago. Eta beste edozein harremanetan lokartzen bainaiz eta neure adimenaren azalik besterik ematen ez baitut, maiz gertatzen zait, halako solas apal eta laxoetan, plantazko solasetan, haur bati ere ez dagozkion ameskerien eta ergelkeria irrigarrien erantzutea, edo temoski isilik egotea, are desegokiago eta jendetasun gutiagorekin. Badut ameskeriazko molde bat neure baitara naramana, eta bestaldetik gauza arrunt askoren ezjakintasun dorpe eta haur bat. Bi nolakotasun horien bidez irabazi dut neure bizkar egin ahal izan daitezen egiazki bospasei ipuin beste nornahi baten bizkar bezain ergelak. Bada, neure solasari jarraikiz, izaera neke honek minbera bilakatzen nau gizonetik harremanetarako (axolarik handienez bereizi behar ditut) eta zaila bilakatzen ekintza arruntetarako. Jende xehearekin bizi eta aritzen gara; haren solasak nardatzen bagaitu, gutiesten badugu gogo apal eta arruntei lotzea, eta apal eta arruntak maiz dira zaluenak bezain arautuak (ororen jakinezari ez dagokion jakintza jakingabea da), ez dugu geure eginkizunekin ez bestearenekin ere aritu behar; eta publikoak eta pribatuak argitzen dira halako jendeekin. Gure gogoaren ibilerarik utzienak eta naturalenak ederrenak dira; ariketarik hoberenak, hertsatze gutienekoak. Ala Jainkoa, jakintzak zeinen ofizio ederra egiten dien nahiak beren ahalmenaren arabera arautzen dizkienei! “Ahal den araberea”, Sokratesen zuhurtitz eta solasik maiteena zen, mami handiko solasa. Zuzendu eta gelditu behar ditugu gure nahiak gauzarik errazen eta hurbilenetara. Ez ote zait ergelaldi bat mila jenderekin ados ez izatea, zoriak haiengana bainarama, haiek gabe ez bainaiteke iragan, neure harremanetarik kanpo diren bizpahiruri atxikitzeko, edo gehiago erdiesten ahal ez dudan gauza baten ametsezko nahi bati? Neure ohitura beratzek, minker eta lazkeria guztien etsaiak baitira, bekaitzez eta etsaigoez arindu ahal naute errazki; ez zen sekula gizonik, ez diot maitatua izateko, baina gorrotatua ez izateko aldi gehiago eman zuenik. Baina neure solasaldiaren hotsasunak ebatsi dit, arrazoiarekin, askoren onginahia, beste zentzu makurrago batez itzultzeagatik barkagarriak direnak.

Adiskidantza arraroen eta hautatuen erdiesteko eta iraunarazteko hagitz gaia naiz. Hain gose handiz hartzen ditut neure gustuari datozkion elkartzeak, agertzen eta egozten naiz hain egarritz, non hutsik gabe errazki lotzen eta hunkitzen baitut ematen dudanean. Zorioneko froga egin dut maiz. Adiskidantza arruntetan inola ere antzu eta hotz naiz, zeren nire ibilera ez baita naturala urrats betean ez bada; gainera neure zoriak gaztarotik adiskidatzan bakar eta bete batera eramanez eta erakarria naularik, zinez, inola ere moteldu nau besteekiko eta irudimenez inprimatu lagungoko aberea dela eta ez saldokoa, zahar hark zioen bezala. Hala bada, neke dut erdizka eta neurritz harremanetan aritzea, eta adiskidantza asko eta betegabeen solasaldian manatzen zaigun zuhurtzia apal hori; eta nagusiki manatzen zaigu aro honetan, jendeaz ez baita mintzatzen ahal arriskuz edo faltsuki baizik.

Eta badakusat, hala ere, helburutzat, nik bezala, bizitzaren erraztasunak dituen (funtsezko erraztasunak diot), izurreriari bezala itzuri behar zaie izaerazko nekezia eta minberatasun horiei. Egoera askotako gogo bat onetsiko nuke, hertsatzen eta laxatzen dakiena, zoriak eramanez orotan ongi legokeena, auzokidearekin ehizaz eta auziaz eztabaidatzen ahal duena, atseginez solasean egon daitekeena zurgin eta lorezain

batekin; miresten ditut bere sehigoaren azkenarekin ihardukitzen eta haien alorretan solasaldiaren eramaten dakitenak.

Eta ez zait atsegin Platonen aholkua: morroiei beti nagusiko hizkuntza batez mintzatzea, jostetarik gabe, trebeziarik gabe, berdin izan daitezen to ala no. Zeren, nire arrazoiak gain, gizagabe eta zuzengabe baita zoriaren lehentasun horren balioaraztea hainbateraino; morroi eta nagusien artean ezberdintasun gutien onartzen duten bizimoduak iruditzen zaizkit zuzenenak.

Besteek ikertzen dute beren gogoaren aitzintzeko eta goratzeko, nik apaltzeko eta etzateko; bakarrik bere buruaz kanpo baita biziosoa.

Narras, et genus Æaci,

Et pugnata sacro bella sub Ilio:

Quo Chium pretio cadum

Mercemur, quis aquam temperet ignibus,

Quo præbente domum, et quota,

Pelignis caream frigoribus, taces ³¹.

Hala nola, gerran suhartasun lakedemoniarrak neurtasunaren eta xirulen soinu ezti eta goxoaren beharra baitzuen, ausarkeriara eta aberekeriara eman zezan beldurrez, beste erresumak oro soldaduen kuraia hunkitzen eta berotzen duten soinu eta ahots gora eta bortitzez baliatzen ohi diren artean, berdin iruditzen zait, ohizko moldearen aurka, geure gogoaren erabileran maizenik berunaren behar gehiago dugula hegalea baino, sutaldia eta inarrosaldia baino gehiago hoztasuna eta atsedena. Oroz gain, nire ustez, adituak ez direnen artean adituarena egitea ergelarena egitea da, beti bortxaz mintzatzea, *favellar in punta di forchetta* ³². Zauden jendeen ibileran jarri behar da, eta noizbait jakineza itxuratu. Bazter itzazu indarra eta sotiltasuna; harreman arruntean aski da antolamenduari atxikitzea. Bestalde, herrestaka ibil zaitez, nahi badute.

Jakintsuak bereziki behaztopatzen dira harri honetan. Beti egiten dute beren irakaskuntzaren agerpena eta barreiatzen dituzte beren liburuak orotan. Aro honetan hain bortizki durundatu dituzte andereen ganbarak eta belarriak non, hauek mamia gogoan hartu ez badute ere, horren itxura baitute bederen; solas eta gai mota guztietan, apalago eta arruntago bada ere, andere horiek baliatzen dira mintzatzeko eta idazteko mode berri eta jakintsu batez,

Hoc sermone pavent, hoc iram, gaudia, curas,

Hoc cuncta effundunt animi secreta; quid ultra?

Concumbunt docte; ³³

eta Platon eta Santo Tomas aipatzen dituzte lehen topatuak lekukotzat balioko lukeen gauzetan. Gogora irits ez dakiekeen irakaspena mihian gelditu zaie.

Andere ongi sortuek sinesten badidate, askietsiko dute beren jatorrizko aberastasun naturalen balioaraztearekin. Beren edertasunak gordetzen eta estaltzen dituzte edertasun arrotzen azpian. Ergelkeria handia da norbere argitasunaren itzaltzea mailegatu argi batez argitzeko; ehortziak eta lurperatuak dira artearen azpian. *De capsula totae* Ez baitute beren burua ongi ezagutzen; munduak ez du deus ederragorik; beraiei dagokie arteen ohoratzea eta apainduraren apaintzea. Zer behar dute, maitatuak eta ohoratuak bizitzea baino gehiago? Eta hori sobera badakite. Beren baitan duten ahalmenaren apur bat iratzartzea eta berotzea behar dute soilik. Erretorikari, zuzenbideari, logikari eta beren eginbeharrarentzat hain hutsal eta ezdeus diren halako drogeriei lotuak dakuskidanean beldur naiz horien aholkua ematen dieten gizonek egin dezaten izenburu horren azpian menperatzeko legearen edukitzeko. Zeren, zein beste aitzakia bilatuko nieke? Aski da andereek antola ahal dezaten, gu gabe, beren begien grazia alaitasunera, larritasunera eta eztitasunera, eta ezetz bat gogortasunez, zalantza eta faborez gazpiperratu, eta ez dezaten itzultzailerik bila beren zerbitzurako egiten diren

hitzaldietan. Jakintza horrekin, makilaz manatzen dute eta eskola maisuei irakasten. Hala ere, guri amore emateak, ezertan den ere, samurtzen baditu eta jakinminez liburuetan sartzan nahi badute, poesia antze egokia da beren eginbeharrarentzat; antze zoraxka eta sotila da, mozorrotua, elekaria, dena atseginetan, dena itxuratan, beraiek bezala. Historiatik ere erraztasun bereziak erdietsiko dituzte. Filosofian, bizitzari buruz ari den zatitik, gure aldiez eta baldintzez aditzera, gure saldukerietarik defendatzera, beren nahikundearen ausarkeriaren neurtzera, beren libertatearen zuzentzera, bizitzaren atseginen luzatzera, eta zerbitzari baten arinkeria gizabidez eta urteen eta zimurren eragozpenaren eta halako gauzen jasatera daramatzaten hitzaldiak hartuko dituzte. Horra, gehienez, jakintzetan emanen niekeen zatia.

Badira izaera berezi, baztertu eta barrenak. Nire funtsezko moldea harremanetarako eta emaitzarako egokia da; dena kanporatua eta agerian naiz, gizarterako eta adiskidantzarako sortua. Maite eta predikatzen dudana bakartasuna ez da gehienez neure baitara neure maitasun eta gogoeten biltzerik besterik; ez neure urratsen, baina neure nahi eta neure axolen moztea eta hertsatzea, axola arrotza baztertuz eta zerbitzatze eta behartzeari zernahiren gainetik itzuriz, eta ez hainbat gizon metari nola egiteko metari. Lekuko bakartasunak, egiaren esateko, hedatzen eta zabaltzen nau kanpora; gogotikago egozten naiz estatuko egitekoetara eta unibertsora bakarrik naizenean. Louvren eta jendartean, hertsirik eta bortxan nago neure larruan; jendetzak neure baitara narama, eta ez dut sekula hain zoroki, libreki eta bereziki solastatzen nola begiruneko eta zuhurtzia zeremoniatsuko lekuetan. Gure zorakeriak ez zaizkit irrieginarriak, gure jakintzak bai. Neure izatez, ez naiz gorteetako inarrosaldien etsaia; han eman dut bizitzaren zati bat, eta lagungo handitan alaiki jokatzeko egina naiz, arteka eta neure aldiaren den ber. Baina mintzatzen naizen izaerazko beratasun honek bortxaz estekatzen nau bakartasunari; neure etxean ere, familia jendeztatu eta etxe bisitatuenetarik baten erdian. Hor badakuskit jende asko, baina bakanka solastatzeko maite ditudanak; eta hor gordetzen dut neuretzat eta besteentzat ohigabeko libertate bat. Zeremonia, egonbehar, lagungo, eta gure jendetasunaren (o, ohitura apal eta nardagarria!) beste halako arau nekagarrien etena egiten da hor; bakoitza bere oldez jokatzeko da; eta nahi duenak adierazten ditu bere gogoetak; ni mutu, ameskor eta hetsirik nago, neure arrotzen irain gabe.

Bilatzen ditut gizon zintzoak eta trebeak deitzen direnen lagungoa eta hurbiltasuna. Hauen irudiak besteekiko atsekabea ematen dit. Ongi hartzekotan, gure moldeetarik arraroena da, nagusiki naturari zor zaiona. Harreman horren helburua soilik berezitasun, maiztasun eta solasaldia da: gogoen ihardukitzea, beste fruiturik gabe. Gure solasetan, gaiak oro berdin zaizkit; ez zait axola pisurik eta barrentasunik ez izatea; grazia eta egokitasuna hor dira beti; dena adimen heldu eta iraunkor batez tindatua da, eta ontasun, zabaltasun, alaitasun eta adiskidantzarekin nahasia. Gure gogoak ez darakutsa bere edertasuna soilik ordezkartzezko gaietan eta erregeren eginkizunetan; beste darakutsa solastatze pribatuetan. Neure jendeak ezagutzen ditut isiltasunean berean eta beren irribarrean, eta menturaz hobeki agertzen zaizkit mahaian aholkuan baino. Ongi zioen Hipomakok borrokalari onak ezagutzen zituela bakarrik karrika baten barrenean ibiltzen ikustean. Irakaspenak sartu nahi badu gure solasean, ez zaio ezeztatuko: ez ohi bezala maisu, agintari eta nardagarria, baina laguntzaile eta manukorra. Haren baitan astiaren iragaiterik besterik ez dugu bilatzen; irakatsiak eta predikatuak izateko orduan bila joanen gatzazkio haren jarlekura. Gure baitara apal dadin oraingoz, nahi badu; zeren, oso onuragarria eta nahigarria bada ere, oraindik uste dut iragan gintezkeela ongi eta gure egitekoa egin hori gabe. Ongi sortu eta gizonen harremanetan aritua den gogo bat osoki atsegin bilakatzen da berez. Artea ez da halako gogoen sorkuntzen gordelekuaz eta artxiboaz besterik.

Halaber, harreman ezia da niretzat emakume eder eta zintzoena: *Nam nos quoque oculos eruditos habemus* Gogoak lehenean bezainbat gozatzeko ez badu ere, gorputzaren zentzuek, honetan parte gehiago baitute, bestearen adinako hein batera daramate, nahiz eta, nire arabera, ez berdina. Baina apur bat erne egon beharreko harremana da, bereziki gorputzak anitz ahal duenen baitan, ni bezala. Haurtzaroan berotzen nintzen eta antolabiderik ez adimenik gabe beren buruaren joatera uzten dutenen baitan poetek ikusten omen dituzten zoraldi guztiak pairatu nituen. Egia da azote-ukaldi horrek irakaspenerako balio didala,

Quicumque Argolica de classe Capharea fugit,

Semper ab Euboicis vela retorquet aquis ³⁶.

Zorarena da horretan gogoeta guztien ezartzea eta maitasun ero eta neurrigabe batez atxikitzea. Baina, bestalde, amodiorik ez borondatezko beharrik gabe sartzea, antzezleen moduan, adin eta ohituraren eginbehar arrunt baten jokatzeak, beretik hitzez baizik ezer ez ezartzeko, egiazki segurantzaren zaintzea da, baina laxoki, bere ohorea, edo mozkina, edo atseгина, arriskuaren beldurrez utziko balu bezala; zeren egia baita halako ariketa gauzatzen dutenek ez dutela igurikatu behar gogo eder bat hunkituko edo askietsiko lukeen fruiturik batere erdiestea. Gogoz nahi izan behar da gogoz hartu nahi den gozatzeko atseгина; hau diot zoriak zuzengabe haien maskara faboratuko balu, maiz gertaten dena, zeren ez baita andere horietarik inor, baldarragoa bada ere, hagitx maitagarria dela gogoan ez duenik, eta gomendatzen ez denik bere adinaz edo bere irriaz, edo bere mugimenduaz; zeren erabateko itsusirik ez baita, ez ederrik ere; beste gomendiorik ez duten neska bramaniarrak badoaz plazan barrena, jendea horretarako bildua dei publikoaz, beren ezkontzarako zatiak erakutsiz, ea hortik bederen senarraren erdiesteko balio ez ote duten.

Beraz, zerbitzatzeko egiten zaion lehen zinean errazki sinesten ez duen emakumerik ez da. Bada, gaurko gizonen ohizko eta arrunteko hitz-jatetik gertatu behar da jadanik esperientziak erakusten diguna, beraiek elkartzen eta biltzen direla beren baitara, edo beren artean, guregandik itzurtzeko; edo antolatzen direla beraiek beren aldetik ematen diegun eredu horretan, antzezlanaren beren zatia jokatzen dutela eta harreman horretara ematen direla pasionerik, axolarik ez maitasunik gabe. *Neque affectui suo aut alieno obnoxiae*; uste edukiz, Lisiasen sinesmenari jarraikiz Platonen baitan, erabilgarriago eta errazago ematen ahal zaizkigula guri, guk gutiago maitatzen ditugun ber.

Antzezpenetan bezala joanen da; jendeak antzezleek bezainbat edo atsegin gehiago edukiko du.

Neure aldetik, nik ez dut Venus ezagutzen Kupidorik gabe sortzapenik gabeko amatasun bat baino gehiago; izatea elkarri mailegatzeko eta zor dioten gauzak dira. Horrela engainu hori arrerortzen da egin duenaren gainean. Deus ez zaio kostatzen, baina ez du balio duen deus eskuratzen. Venus jainkosa egin dutenek begiratu dute haren edertasuna gorputzik gabekoa eta izpirituzkoa izan dadin; baina jende hauek bilatzen dutena ez da bakarrik giza-modukoa, ez basa ere. Basapiztiek ez dute hain dorpea eta lurrekoa nahi! Badakusagu maiz irudimenak eta nahiak berotzen eta eskatzen dituztela gorputzak baino lehenago; sexu batean eta bestean badakusagu saldoan bereizten eta hautatzen dutela beren maitasunetan, eta beren artean dituztela onginahi luzeko elkartzeak. Zahartzaroak gorputzaren indarra ezeztatzen dizkionak, oraindik ikaratzen dira, maitasun orroak eta dardarak egiten dituzte. Badakuskigu egitekoaren aitzinean esperantzaz eta suz beteak; eta, gorputzak bere jokoa jokatu duenean, oraindik ferekatzen oroimen horren eztitasunaz; eta badakuskigu handik aurrera harrotasunaz hanpatzen direnak eta besta eta garaipenezko kantuak egiten dituztenak: nekatuak eta aseak. Gorputza bakarrik behar natural batez arindu behar duenak, ez du beste bat behartzen hain prestatze bitxiez; hori ez da gose handi eta hertsagarri batentzako jakia.

Nola ez baitut eskatzen naizen baino hobetzat hartua izaterik, hau esanen dut neure gaztaroko hutsez. Ez bakarrik dagoen osasunaren arriskuagatik (ez baitut jakin bi aldiz kutsaturik ez izateko bezain ongi egiten, kutsadura arinak beti ere, eta laburrak), baina oraindik gutiespenagatik, doi ez naiz eman elkartze publiko eta ordainduetara. Nahi izan dut atsegin hori nekeziaz, nahiaz eta ospe zerbaitez zorroztu. Eta maite nuen Tiberio enperadorearen modua, bere amodioetan apaltasun eta zintzotasunagatik liluratzten baitzen beste edozein nolakotasunengatik bezainbat; eta Flora emakume publikoaren gogoa, diktadore, kontsul edo zentsor baino gutiagokori ematen ez baitzitzaien, eta maitaleen mailan atsegina hartzen baitzuen. Egiazki hor perlek eta brokaduek zerbait ematen dute, eta izenburuek eta moldeek. Bestalde, izpirituaz kontu handia egiten nuen, baina gorputza akastuna ez zen ber; zeren, kontzientzian erantzuteko, bi edertasun horietarik halabeharrez bata ala besteak huts egin behar balu, lehenago bereiziko bainuen izpirituzkoa; honek badu bere erabilera gauza hobeetan; baina, maitasunaren gaian, nagusiki ikusmen eta ukimenari dagokien gaia baita, zerbait egiten da izpirituaren grazia-rik gabe, deus ez gorputzaren grazia-rik gabe. Andereen egiazko abantaila edertasuna da. Hain dute berea non gurea, itxura apur bat ezberdinak nahi baditu ere, ez baita bere heinean haienarekin nahasten denean baizik: haurrekoa eta bizargabea. Jaun handiaren baitan edertasunagatik zerbitzatzen dutenak, ezin konta ahala baitira, kanporatuak omen dira, luzeenean, hogeita bi urteetan.

Hitzaldiak, zuhurtzia eta adiskidantza-eko eginkizunak hobeki aurkitzen dira gizonen baitan; horregatik zuzentzen dituzte munduko egitekoak.

Bi harreman horiek zorizkoak eta besteren menpekoak dira. Bata aspergarria da bere bakantasunagatik; bestea higitzen da adinarekin; horrela ez ziratekeen aski izanen nire bizitzaren beharrerako. Liburuena, hirugarrena baita, seguruagoa eta gureagoa da. Lehenei ematen dizkie beste abantailak, baina bere alde baditu zerbitzuaren iraupena eta erraztasuna. Honek laguntzen nau bide osoan eta orotan. Arintzen nau zahartzaroan eta bakartasunean. Asti aspergarri baten zama kentzen dit; ordu guztietan nardatzen nauten lagungoez libratzen nau. Minaren ziztadak moteltzen ditu, ezinagokoa eta nagusia ez bada. Destenorezko irudimen batetik baztertze-ko, aski dut liburu-eta-otara jotzea; errazki erakartzen naute beren aldera eta irudimen hori estaltzen. Eta gero, ez dira sumintzen ikusiz beste erraztasun egiazko-ago, bizi-ago eta naturalago horien eskasean bilatzen ditudala; beti aurpegi berarekin onartzen naute.

Badiote errazki ibil daitekeela oinez zaldia uhaletik daramana; eta Napoliko eta Siziliako gure errege Jakobok, eder, gazte eta sendo, bere burua herrian barrena andatan eramane-razten zuenak, lumazko buruko txar baten gainean etzanik, zaku griseko arropa eta zapel batez jantzirik, hala ere erret ospamen handiaz jarraikirik: ohe-eramaile, mota guztietako zaldi, aitorenseme eta ofizial asko, erakusten zuen idortasun beratz eta zalantzakor bat; sendabidea eskuko helmenean duena ez da urrikaltzekoa. Zuhurtitz honen ezagutza eta erabileran, osoki egiazkoa baita, datza liburu-eta-rik ateratzen dudana fruitu osoa. Zinez, kasik ez naiz haietaz baliatzen ezagutzen ez dituztenak baino gehiago. Haietaz gozatzen naiz, altxorrez zikoitzak bezala, nahi dudanean gozatuko naizela baitakit; nire gogoa asetzen eta aski-esten da jabego-eskubide horretaz. Ez dut libururik gabe bidaiatzen, ez bakean ez gerran. Hala ere, iraganen dira egun asko, eta hilabeteak, erabili gabe: “Laster izanen da, diot, edo bihar, edo nahi dudanean”. Denbora badabil eta badoa, artean, ni zauritu gabe. Zeren ezinesana baita zenbat atsedean eta egonaldi egiten dudana gogo-eta horretan: saihetsean ditudala atsegin emateko neure al-edian, eta ezagutzean zenbat laguntza dakarkioten neure bizitzari. Giza bidaia honetan aurkitu dudana hornidurarik hoberena dira, biziki urrikaltzen natzaizkio halakorik ez dutenen adimeneko gizonei. Beste edozein jostaketa, arinagoa bada ere, lehenago onartzen dut, honek huts egiten ahal ez didanez geroz.

Neure etxean, apur bat maizago baztertzen naiz neure liburutegira, hortik neure etxea manatzen baitut esku batez. Sarreraren gainean nago eta badakusat neure azpian baratza, azpikorta, korta eta etxeko zati gehienak. Hor begiztatzen dut orain liburu bat, orain beste bat, antolabiderik ez xederik gabe, josigabeko puskaka; behin ametsetan nago, behin idazten eta diktatzen, ibiltzen naizelarik, neure irudimen hauek.

Dorre bateko hirugarren solairuan da. Lehena nire kapera da, bigarrena gela eta gelondoko bat, hor maiz etzaten bainaiz, bakarrik egoteko. Gainean badu jantzitegi haundi bat. Behiala etxeko lekuri ezerabiliena zen. Hor ematen ditut neure biziko egunik gehienak, eta eguneko ordurik gehienak. Gauez sekula ez nago hor. Ondoan gela aski polit bat, neguan suaren edukitzeko gai, hagitz egoki leihokatua baita. Eta, gastuaren baino gehiago axolaren beldur ez banintz, eginbehar guztietarik baztertzen nauen axola, errazki jos niezaioke alderdi bakoitzari ehun urrats luze eta hamabi zabaleko galeria bat, oin betean, erabilpen horretarako harresi guztiak behar dudana garaieran aurkiturik. Baztertoki orok behar du ibiltoki bat. Neure gogoetak lokartzen dira eseritzen baditut. Nire gogoak ez dabil zangoek ez badarabilte. Libururik gabe ikasten ari direnak oro horretan dira.

Itxura biribila du eta ez du zuzenik nire mahai eta jarlekurako behar dudana landa, eta itzuliz erakusten dizkit, ikustaldi batez, nire liburu guztiak, bost mailatan lerrokatuak inguruan. Hiru leiho ditu ikuspegi aberats eta librekoak, eta zabalez zabal hamasei urrats huts. Neguan bakankago nago; zeren nire etxea muino baten gainean jarria baita, izenak dioen bezala, eta ez du alderdi hau baino haizeztatuagorik; atsegin baitzait apur bat nekagarri eta bazterturik izatea, ariketaren fruituagatik bezainbat jende-osteari itzurtzeagatik. Hor da nire egoitza. Entseiatzen naiz haren meneratze osoaren neure buruari ematera eta zoko bakar horren baztertzera ezkon-, haur- eta lagun-partzuergotik. Garaitiko orotan hitzeko manu-indar bat bakarrik dut: izatekotan ere, nahasia. Erromesa, nire ustez, bere etxean bere baitan egoteko lekuri ez duena, bere buruari gortearen egiteko, bere buruaren gordetzeko! Handinahiak ongi ordaintzen ditu bere jendeak beti erakuspenean egonez, merkatu bateko irudia bezala: *Magna servitus est magna fortuna*. Beren bazterrak ere ez zaizkie bazterleku! Gure erlijiodunek daramaten bizitzaren idortasunean ez zait ezer ere hain gogor iruditu nola arautzat izatea beren arteko lekuzko eta egonbeharrezko etengabeko partzuergoa. Inola ere jasangarriagoa aurkitzen dut beti bakarrik egotea, inoiz ezin egotea baino.

Inork esaten badit musen apaltzea dela haietaz baliatzea soilik josteta eta astiordua bezala, hark ez daki nik bezala zenbat balio duen atseginak, jostetak eta astiorduak. Kasik esanen nuke beste helburu oro irigarria dela. Egunetik egunera bizi naiz; eta, begirunez mintzatzen, neuretzat baizik ez naiz bizi: neure helburuak hor bururatzen dira. Gazterik, erakuspenerako ikasten nuen; gero, apur bat, zuhurtzeko; ordu honetan, jostatzeko; behin ere ez irabazteko. Ibilkizun mota honi buruz nuen gogaldi hutsal eta garestia, ez bakarrik neure behararen asetzeko baina, hiru urratsez aitzinago, neure buruaren oihalezatzeko eta apaintzeko, aspaldi utzi dut.

Liburuek badituzte nolakotasun gozagarri anitz, bereizten dakizkitenentzat; baina nekerik gabeko onik ez: huts eta garbi ez den atsegina da, ez besteak baino gehiago; bere eragozpenak baditu, eta aski nekagarriak; gogoak badihardu, baina gorputza, haren axola ez baitut ahortzi, badago artean ekintzarik gabe, apaltzen eta ilauntzen da. Ez dakit neuretzat kaltegarriago den eta, neure adinaren beherapen honetan, gehiago itzuri behar zaion soberakeriarik.

Horra nire ihardukitze maitatuenak eta bereziak. Ez naiz mintzatzen munduari, eginbehar zibilez, zor dizkiodanez.

IV

Desbideratzeaz

Behiala baliatua izan naiz zinez atsekabetua zen andere baten arintzeko; zeren haien dolurik gehienak izunak eta zeremoniazkoak baitira:

Uberibus semper lachrimis, semperque paratis

In statione sua, atque expectantibus illam,

Quo jubeat manare modo. ³⁹

Gaizki egiten da pasione horren kontra ezartzen denean, zeren horrek akuilatzen eta estekatzen baititu aitzinago goibeltasunean; gaitza zorrozten da eztabaidaren lehiagatik. Solas arruntetan badakusagu axolarik gabe esanen nukeena, ezeztatzen bazait, moldatzen dudala, lotu egiten natzaiola; egin gogo nukeena baino anitzez gehiago. Eta gero, hala eginez, agertzen zatzaizkio zeure eginbeharrari sarrera zakar batekin, sendagile baten pairaleari buruzko lehen harrerak politak, alaiak eta atseginak izan behar diren artean; eta sendagile itsusi eta beltzuriak ez zuen sekula onik egin. Aitzitik bada, hasieratik lagundu eta faboratu behar da haren dolua, eta onespen eta aitzakiaren lekukotasun zerbait eman. Adimen horretaz abantaila irabazten duzu aitzinago iragaiteko eta, isurmen erraz eta oharkabe batez, haren sendatzerako berme eta egokiagoak diren hitzaldietara lerratzen zara.

Ni, begiak neure gainean zituen lagungoa liluratu nahi bainuen bereziki, gaitzaren estaltzera ausartu nintzen. Horrela egiazki ohartu naiz esku txar eta antzua dudala sinestarazteko. Edo neure arrazoiak sobera zorrotz eta idor agertzen ditut, edo zakarregi, edo sobera soraioi. Haren oinazeari denbora batez lotu ondotik, ez nintzen haren sendatzera entseiatu arrazoi azkar eta bizien bidez, edo eskasean baititut, edo uste bainuen bestela eginen nuela neure beharra; ez nindoan ere filosofiak arintzeko manatzen dituen moldeen artean bereiziz: “Dolutzen ohi dena ez dela gaitz bat”, Kleantesek bezala; “Gaitz arin bat dela”, peripatetikoek bezala; “Dolu egitea ez dela ekintza zuzena ez onesgarria”, Krisipok bezala; ez nire moldetik hurbilago den Epikuroren hau, gogoetaren iraganaraztea gauza nardagarrietarik atsegingarrietara; ez mukuru honetarik zama baten egitea, aldiaren arabera emanez, Zizeronek bezala; baina gure solasak bigunki desbideratuz eta emeki-emeki gai hurbilagoetara ekarriz, eta gero apur bat urrunagoetara, anderea neure baitara ematen zen arabera, estali nion oharkabean gogoeta mingarri hura, eta jokamolde onean eta osoki lasaian eduki nuen han nengoen artean. Desbideratzeaz baliatu nintzen. Eginbehar berean jarraiki zidatenek ez zuten hobekitzerik batere aurkitu, zeren nik ez bainuen aizkora erroetara eramanez.

Menturaz, beste nonbait⁴⁰ aritu naiz desbideratze publiko mota zerbaiti buruz. Eta soldaduen horren erabilera, Perikles berorretaz baliatu baitzen Peloponesoko gerran, eta beste mila beste inon, bere herritik indar etsaien kanporatzeko, oso maiz da historietan.

Liejako hirian, setiaturik zeukan Burgundiako kondeak sarrarazi baitzuen errendizio akordatu baten eginbeharren gauzatzeko, Himbercourteko jauna bere burua eta beste zenbaiten salbatzeko baliatu zen itzulia trebea izan zen. Jende hura, gauaz bildurik hartaz erabakitzeke, deliberatu zen iragan akordioen kontra bihurtzera; eta zenbaitek gogoetatu zuten menpean zeuzkaten negoziatzaileen gainera jotzea. Hark, bere egoitzara oldarka zetozen jende horien lehen uhinaren haizea entzunez, laster bidali zituen haien aldera hiriko bi biztanle (zenbait baitzituen berekin), berehala behar hartarako moldatu zituen beren batzarrean eskaintzeko baldintza ezti eta berriago batzuekin manatuak. Bi haiek gelditu zuten lehen erauntsia, jendalde uher hori herriko etxera eramanez beren manuren entzuteko eta erabakitzeke. Deliberoa laburra izan zen; hara beste ekaitza bat gainezkatzen, lehena bezain sutua; eta hark berriz lau ordezkari berdin igortzen, gora esanez orain eskaintza gizenagoak, haien asetze osorako, adierazi behar zizkietela, hortik jende hori zuzenik bulkatua izan zen bere batzarrerara. Hondarrean, josteta-emankizun haren bidez, haien sumindura baztertuz eta aholku hutsaletan ahulduz, azkenean lokartu zuen eta biharamuna irabazi, bere eginkizun nagusia baitzen.

Beste ipuin hau mota berekoa da. Atalantek, edertasun bikaineko eta antolatze miresgarriko neskak, ezkont-eskarian zeukan mila jarraitunen metatik libratzeko, lege hau eman zien, onartuko zuela lasterrean berdinduko zuena, huts eginen zutenek bizia galtzen bazuten. Asko aurkitu ziren saria halako arrisku baten gai ustetsi zutenak eta halako salerosketa krudelaren nekea menturatu zutenak. Hipomenesek, bere entseia besteen ondotik egin behar zuenez, maitasunezko oldarraldi horren jainkosa zaindarigana jo zuen, bere laguntzarako deituz; horrek, otoitza entzunez, hiru urrezko sagar eta berauen erabilera eman zizkion. Laster-zelaia irekirik, Hipomenesek bere maitalea orpoetan sentitzen duen arauz, itzurtzera uzten du, alegia eta ohartu gabe, sagar haietarik bat. Neska, haren edertasunez liluratua, hutsik gabe desbideratzen da haren hartzeko.

Obstupuit virgo, nitidique cupidine pomi

Declinat cursus, aurumque volubile tollit. ⁴¹

Beste hainbeste egin zuen, bere aldian, bigarren eta hirugarrenarekin, harik eta baztertze eta desbideratze horren bidez, lasterraren abantaila gelditu zitzaion arte.

Sendagileek, katarroa iraungi ez dezaketenean, baztertzen eta desbideratzen dute arrisku gutiagoko beste zati batera. Ohartzen naiz ere gogoaren eritasunetan sendabiderik arruntena dela. *Abducendus etiam nonnumquam animus est ad alia studia, sollicitudines, curas, negotia; loci denique mutatione, tanquam aegroti non convalescentes, saepe curandus est*". Gaizki zaio gaitzetan bekoz beko jotzea, ez zaio eritasunari kontra egitea ez borrokatzea komeni; bai haren epeltzea eta desbideratzea.

Beste irakaspen hau goregia eta nekegia da. Lehen mailekoei dagokie gauzaren baitan gelditze hutsa, gogoan hartzea, epaitzea. Sokrates bakar bati dagokio heriotzaren onartzea aurpegi arrunt batez, hartaz baliatzea eta gozatzea. Ez du gauzaz landan arintzerik bilatzen; hiltzea gorabehera natural eta axolagabea iruditzen zaio; horretan tinkatzen du begirada, eta badoakio beste inora begiratu gabe. Hegesiasen ikasleek, beren burua gosez hiltzen baitute, haren irakaspenen hitzaldi ederrez beroturik, eta hainbaterainoko non Ptolomeo erregek debekarazi baitzion hitzaldi hiltzaile haietaz bere eskolari mintzatzea, haiek ez dute heriotza bere baitan gogoan hartzen, ez dute neurtzen: ez dute hor bere gogoeta gelditzen; lasterkatzen, xederatzen dira izaki berri batera. Urkatoki baten gainean ikusten diren jende gaizo horiek, debozio sutsu batez beteak, beren zentzu guztiez ahal bezainbat baliatzen, belarriak ematen zitzaizkion irakaspenetan, begiak eta eskuak zeruetara goitituak, ahotsa etengabeko otoitzetan, hunkimendu latz eta pausagabeko batez, egiazki halako beharkundean onesgarria eta egokia den gauza egiten dute. Erlijioaz goretsi behar dira; baina ez, berez, iraupenaz. Borrokari itzurtzen zaizkio; heriotzatik desbideratzen dute beren gogoan, haurrak jostakatzen diren bezala ziztukaldi bat eman nahi zaienean. Ikusi ditut, inoiz begirada apaltzen bazen haien inguruan egiten ari ziren heriotzaren prestaketa izigarri horietara, ikaratzen eta sutsuki botatzen beste inora beren gogoan. Barrentasun beldurgarri batetik iragaiten direnei manatzen zaie begien hesteko edo baztertze.

Subrio Flaviok, Neronen manamenduaz hilarazia izan behar baitzen, eta Nigeren eskuez, biak gerra-buruzagiak izanik, zigorra egin behar zen zelaira eramana izan zenean, ikusiz beraren sartzeko Nigerek eginarazi zuen zuloa, ezberdina eta moldegaitza, zioen, zeuden soldaduei buruz: "Hau ere ez duk soldadu-araudiaren arabera." Eta burua bermeki eduki zezan aholkatzen zion Nigeri: "Hik horren bermeki joko bahu ere!" Eta ongi asmatu zuen, zeren, Nigeren besoa dardaran izanez, ukaldi askoz moztu baitzion. Honek dirudi ongi eduki duela bere gogoan gaian zuzen eta tink.

Borrokaldian, armak eskuan, hiltzen denak ez du heriotza ikertzen, ez du sentitzen ez gogoan hartzen; guduaren sutaldiak darama. Nire ezagutzako gizon zintzo batek, zelai hetsian⁴³ borrokatzen eroria izanik, eta lurrean bere etsaiaren bederatzi edo hamar

puñalukaldiez sarraskiturik sentituz, zeuden guztiek oihukatuz bere kontzientziari ohar zekion, esan zidan gero, ahots horiek belarrietara iristen bazitzaizkion ere, ez zutela inola ere hunkitzen, eta gainetik kentzeaz eta mendekatzeaz besterik ez zuela gogoan. Bere gizona hil zuen borroka hartan berean.

Anitz egin zuen L. Silanoren alde bere kondena eraman zionak, zeren haren erantzuna aditurik, hiltzeko ongi prestatua zegoela baina inola ere ez esku gaizkileez, haren gainera egotziz, bere soldaduekin bortxatzeko, eta hark, armarik gabe, lehiatsuki defendatuz ukabilez eta oinez, hilarazi baitzuen liskar horretan: herra laster eta nahasian ezabatuz heriotza luze eta nekagarri baten sentimendua, horretara deitua baitzen.

Beti gogoetatzen dugu beste inon; bizitza hobe baten esperantzak gelditzen eta bermatzen gaitu, edo gure haurren balioaren esperantzak, edo gure izenaren etorkizuneko omenak, edo bizi honetako gaitzei itzurtzea, edo hiltzen gaituztenak mehatxatzen dituen mendekuak,

Spero equidem mediis, si quid pia numina possunt,

Supplicia hausurum scopulis, et nomine Dido

Sæpe vocaturum...

Audiam, et hæc manes veniet mihi fama sub imos. 44

Xenofon eskaintza ospatzen ari zen koroaturik, Mantineako guduan bere seme Griloren heriotzaren iragartzera etorri zitzaionean. Berri horren lehen sentimenduan, lurrera botatzen du bere koroa; baina, solasaren jarraipenaz, heriotz hagitz suhar baten moldea entzunez, bildu zuen eta buru gainean berrezarri.

Epikurok berak bere azkenean bere burua arintzen du bere idazkien betikotasun eta erabiltarritasunaren bidez. *Omnes clari et nobilitati labores fiunt tolerabiles*. Eta zauriak berak, lanak berak, dio Xenofonek, ez du armadako buru bat nekatzen soldadu bat bezala. Epaminondasek hagitzez alaiago hartu zuen bere heriotza, garaipena bere aldera gelditu zelako berri edukirik. *Haec sunt solatia, hæc fomenta summorum dolorum*. Eta halako beste gogoetek jostakatzen, baztertzen eta desbideratzen gaituzte gauza bere baitan gogoan hartzetik.

Filosofiaren argudioak ere badoaz modu guztiez gaia saihestatzen eta itzurtzen, doi azala harramazkatzen. Lehen eskola filosofikoaren eta garaitikoen lehen gizonak, Zenon handiak, heriotzaren kontra: “Ezein gaitz ez da ohoragarria; heriotza hala da, ez da beraz gaitz bat”; mozorkeriaren aurka: “Inork ez dio bere sekretua mozkor bati salatzen; bakoitzak egiten dio zuhur bati; zuhurra ez da beraz mozkorra izanen” Hau da xedean jotzea? Maite dut gogo nagusi horien ikustea gure zoritik ezin bereiziz. Hain gizon perfektuak izan eta ere, beti aski dorpeki gizonak dira.

Mendekua pasione ezia da, hunkimendu handikoa eta naturala; ongi badakusat, ezein esperientziarik ez badut ere. Berriki, hartatik printze baten⁴⁷ desbideratzeko, ez nindoakion esaten aurpegi-masaila eman behar zitzaiola bestea jo zizunari, karitatearen eginbeharragatik; ez nindoakion ere agertarazten poesiak pasione horri ematen dizkion gertakari tragikoak. Hor utzi nuen eta jostakatu nuen irudi kontrario baten edertasunaren dastarazten; urrikaltasun eta ontasunez irabaziko zuen ohorea, faborea eta onginahia; handinahiari buruz desbideratu nuen. Hara nola egiten den.

“Maitasunean zure atxikimendua azkarregi bada, zatika ezazu” diote; eta egia diote, zeren maiz frogatu baitut onuragarriki; hauts ezazu nahi ezberdinetan, haietarik bat izan dadin, nahi baduzu, buru eta nagusi bat; baina irents eta tiraniza zaitzan beldurrez, ahul ezazu, geldiaraz ezazu, zatikatuz eta baztertuz:

Cum morosa vago singultiet inguine vena... 48

Conjicito humorem collectum in corpora quæque. 49

Eta egizu ordu onean, hura atxiki egin bazaizu neketan egon ez zaitezen beldurrez,

Si non prima novis conturbes vulnera plagis,

Volgivagaque vagus venere ante recentia cures. 50

Behiala atsekabe bortitz batek, nire izaeraren arabera, hunkitua nintzen, eta bortitza baino zuzenagoa zen; menturaz galduko nintzatekeen soil neure indarrez fidatu izan banintz. Hartatik desbideratzeko baztertze azkar baten beharrean izanez, egin nintzen, antzez, maitemindua, eta itxuraz, adinak laguntzen baininduen horretan. Maitasunak arindu ninduen eta adiskidantzak eragin gaitzetik baztertu. Beste garaitiko orotan berdin: irudimen latz batek nauka; heztea baino laburrago aurkitzen dut haren aldatzea; ordezkatzan dut, kontrario batez ahal ez badut, behintzat beste batez. Aldatzeak beti arintzen, urtzen eta ezabatzen du. Gudukatzen ahal ez badut, itzurtzen natzaio, eta itzuriz desbideratzen naiz, engainatzen; lekuz, ihardukitez, lagungoz aldaratzen, salbatzen naiz beste josteta eta gogoeten mukuruan, non eta hark neure oinazka galtzen baitu eta nahasten bainau.

Horrela dagi naturak iraupen ezaren bidez; zeren denborak, gure pasioneen sendagile nagusizat eman digunak, hortik irabazten baitu bere ondorioa, gure irudimenari beste eta beste egitekoak emanez, nahasten eta usteltzen du lehen hunkimendu hori, bortitzagoa bada ere. Zuhur batek ez dakusa lehen urtearen buruan baino gutiago hogeita bost urteren buruan bere adiskidea azken hatsetan; eta, Epikuroren arabera, deus ere gutiago, zeren ez baitio aurreikuspenari ez zahartasunari atsekabeen arintzerik batere ematen. Baina beste hainbat gogoetak zeharkatzen dute hau non hondarrean ilauntzen eta laxatzen baita.

Zurumurru arrunten norabidearen desbideratzeko, Altzibiadesek bere zakur ederrari belarriak eta buztana moztu zizkion eta plazara bidali, jendeari elegai hori emanez, bere beste ekintzak bakean utz zitzaiz. Halaber ikusi ditut, jendearen ustezkatzeko eta aburuen baztertze ondorio honengatik, eta berriketarien desbideratzeko, emakumeak maitasun itxuratuen bidez beren egiazko maitasunak estaltzen. Baina halakoa ikusi dut, itxuratzean, jakinez bere buruaren atxikitza utzi duena, eta egiazko eta jatorrizko maitasuna itxuratuagatik utzi du; eta harengandik ikasi dut ongi aurkitzen direnak ergelak direla estaltze horren onartzean. Jendeen usteak eta solasak zerbitzari ordezkatzaila horrentzat gordeak izanik, sinets ezazu zozoa dela ez bada hondarrean zure lekuan ezartzen eta zu harenera bidaltzen ez bazaitu. Hori da, zinez, oinetako baten moztea eta jostea beste bat eraman dezan.

Deus gutik baztertzen eta desbideratzen gaitu, deus gutik baikauzka. Doi ez diegu gai oso eta soilei begiratzen; gorabehera edo irudimen xume eta axalaezkoak dira jotzen gaituztenak, gaietarik jalgitzen diren azal hutsalak,

Folliculos ut nunc teretes aestate cicadae

Linquunt; 51

Plutarkok berak bere alabarenganako bihotz-minak ditu haren haurtzaroko tximinokeriengatik. Goraintzi baten oroimenak, ekintza batenak, grazia berezi batenak, azken gomendio batenak, atsekabetzen gaitu. Zesarren jantziak Erroma osoa nahasi zuen, haren heriotzak egin ez zuena. Belarrietan durundatzen gaituen izenen hotsa bera: “Nire nagusi gaixoa!” edo “Nire adiskide handia!” “Ai, nire aita mitea!” edo “Nire alaba ona!” aipalelo hauek ziztatzen nautenean eta hurbiletik ikertzen ditudanean, aurkitzen dut deitoratze gramatikal eta ahozkoa dela. Hitzak eta doinuak zauritzen naute (predikuegileen oihuek adilegoa hunkitzen duten bezala, maiz beren arrazoiek baino gehiago, eta gure zerbitzurako hiltzen den abere baten ahots urrikgarriak hunkitzen gaituen bezala) artean, neure gaiaren egiazko eta barreneko izatea pisatu edo ikertu gabe;

His se stimulis dolor ipse lacescit; 52

gure doluaren funtsak dira.

Nire harrien temakeriak, zakilean bereziki, egotzi nau noizbait hiruzpalau eguneko gernu-debeku luzeetan, eta heriotzan hain barrenean non erokeria baitzatekeen huts eginen zuela uste izatea, eta are nahi izatea, egoera horrek dakartzan oinaze krudelak ikusirik. Ai enperadore on hura, bere gaizkileei zakila lotarazi ziena pixagitearen ezaz hilarazteko, zein maisu handia zen borrerogintzan! Han nengoelarik, gogoan hartzen nuen zein kausa eta gauzaki arinen bidez hazten zuen irudimenak neure baitan bizitzaren mineria; zein atomoez eraikitzen zen neure gogoan abiatze horren pisua eta nekea; zein gogoeta hutsalak onartzen genituen hain eginkizun handitan; zakur bat, zaldi bat, liburu bat, edalontzi bat, eta zer ez? bazeuden nire galtzean. Besteenean beren handinahizko esperantzak, beren poltsa, beren jakintza, ez ergelkeria gutiagorekin nire arabera. Soraioki banekusan heriotza, orokorki nekusalarik, bizitzaren amaiera bezala; osoki, menperatzen dut; xeheki, hartzen nau. Morroi baten negarrak, neure jantzi zaharren emateak, esku ezagun baten ukimenak, arin-solas arrunt batek, hunkitzen eta minberatzen nau.

Hala nahasten digute gogoan alegien deitoratzeek; eta Didon eta Ariadnaren doluek sustatzen dituzte Virgilio eta Katuloren baitan sinesten ez dituztenak berak. Izaera zail eta gogorraren eredua da batere hunkimenik ez sentitzea, mirakulutzat bezala Polemonez esaten den bezala; baina ez zen zurbildu ere aztala eramanez zion zakur errabiatu baten ausikian. Eta ezein zuhurtzia ez doa hain barrenera atsekabe baten kausa hain biziki eta osoki gogoratzean arrazoiaren bidez, non ez duen gehitzerik eduki atsekabe horren egotearekin, begiek eta belarriek, gorabehera hutsalez baizik inarrosten ahal ez diren zatiek, parte dutelarik.

Arrazoia ote da arteak beraiek gure jatorrizko ergelkeriaz eta zozokeriaz balia daitezen eta beren mozkina egin dezaten? Elestaria, dio erretorikak, bere hitzaldiko antzezpen horretan, bere ahotsaren hotsaz eta bere inarrosaldi itxuratuez hunkituko da, eta antzezten duen pasionean bere burua utziko du engainatzera. Bere baitan inprimatuko du egiazko eta izatezko dolu bat, jokatzeko duen antzerkeria horren bidez, are gutiago hunkitzen dituen epaileengana igortzeko: hiletetan erosten diren jende horiek egiten duten bezala doluaren zeremoniaren laguntzeko, beren negarrak pisuka eta neurriak saltzen baitituzte eta beren goibeltasuna; zeren, molde mailegatu batez inarrosten badira ere, alabaina, jokamoldea ohituz eta antolatuz, egia baita osoki beren burua daramatela maiz eta beren baitan hartzen dutela egiazko goibeltasun bat.

Joan nintzen, neure beste adiskide askoren artean, Gramonteko jaunaren gorputzaren Soissonsera eramatera, hila izan zen La Fereko setiotik. Gogoan hartu nuen, iragan ginen orotarik, deitoratzez eta negarrez betetzen genuela aurkitzen genuen jendea, gure lagungoaren muntaketaren erakuspen bakarraren bidez; zeren zenduaren izena ere ez baitzen hor ezaguna.

Kintilianok dio hain antzezle gogorki atxikiak bere doluzko jokaldiari ikusi dituela non oraindik egoitzan hartaz negar egiten baitzuten; eta bere burua beste baten baitan pasione zerbaiten eragiteari lotua izanik, hartua izan zuela harik eta, ez bakarrik negarrez, baina egiazki doluz zamakatu gizon baten aurpegi-zurbiltasun eta itxura batez bere burua harrapatua aurkitu arte.

Gure mendietarik hurbil den eskualde batean, emakumeek Martin apez⁵³ egiten dute; zeren, nola senar galduaren aldeko bihotz-mina handitzen baitute hark zeuzkan baldintza on eta atseginen oroitzapenaz, aldi berean biltzen eta adierazten baitituzte haren akatsak, nonbait ere beraiek ordaintze zerbaitetan sartzeko eta urrikaltzetik desbideratzeko erdeinu aldera. Guk baino grazia gehiagorekin, zeren lehen ezagunaren galtzean, lehiatzen baikara laudorio berri eta faltsuen mailegatzera eta, ikusmenetik galdu dugunean, ikusten genuenean iruditzen ez zitzaigunaz osoki besterik egitera; oroit-mina zati irakasgarri bat balitz bezala; edo negarrek, gure adimena ikuziz, argituko

balute bezala. Jadanik ezeztatzen ditut eman nahi izanen zaizkidan lekukotasun faboragarriak, ez mereziak edukiko ditudalako, baina hila izanen naizelako.

Hari galdegiten bazaio: “Zein interes duzu zuk setio honetan? –Ereduarena, esanen du, eta printzearen aldeko obedientzia orokorrarena; ez dut irabazterik batere nahi; eta badakit ni bezalako partikular bati dagokiokkeen ospe zati xumea; ez dut hemen ez pasionerik, ez auzirik.” Ikus ezazu, hala ere, biharamunean, erabat aldatua, herraz osoki irakinez eta gorrituz bere gudu-lerroan oldartzeko; hainbat altzairuren distira eta gure kanoi eta atabaletako sua eta abarrotsa dira gogortasun eta gorroto hori zainetan egotzi dizkiotenak. “Kausa hutsala!” esanen didazu. Nola kausa? Ez da batere behar gure gogoaren inarrosteko; gorputzik ez gairik gabeko ameskeria batek zuzentzen eta inarosten du. Balizko erroten egiteari lotzen banatzaio, neure irudimenak moldatzen dizkit erraztasunak eta atseginak, haietaz neure gogoa egiazki perekatzen eta gozatzen baita. Zenbat aldiz uhertzen dugu geure gogoa herraz edo goibeltasunez halako itzalen bidez, eta gogoa eta gorputza aldaratzen dizkiguten ametssezko pasionetan sartzen gara! Zer keinu harrituak, irribartsuak, nahasiak, sortzen dituen ameskeriak gure aurpegietan! Zer jauziak eta inarrosaldiak gorputz-adarretan eta mintzoan! Ez ote dirudi gizon bakar honek berarekin harremanetan dagoen gizon-multzo baten ikusmen faltsuak dituela, edo barreneko deabru batek jazartzen duela? Galdegiozu zeure buruari non den aldaketa horren gaia: ote da naturan, gutaz salbu, ezdeustasunak bermatzen duen ezer, nagusitzen duen ezer?

Kanbisesek lotan amesteagatik bere anaia Persiako errege bilakatu behar zela, hilarazi zuen; maite zuen eta beti fidatu zen anaia bat! Aristodemo mesiniotarren erregek bere burua hil zuen aztiatze gaiztotzat hartu zuen bere zakurren ez dakit zein oihurengatik. Eta Midas erregek beste hainbeste egin zuen, amestu zuen amets ezatsegin batek nahasia eta kordokatua. Amets batengatik uztea, hain zuzen, bizitzaren balio zehatzaren hartzea da.

Entzun, hala ere, gure gogoa gorputzaren apalkeriatik garaitzen, bere ahuleziatik, zauritze eta aldatze guztien gaia denetik; egiazki badu horretaz mintzatzeko arrazoia:

O prima infelix fingenti terra Prometheo!”

Ille parum cauti pectoribus egit opus.

Corpora disponens, mentem non vidit ni arte;

Recta animi primum debuit esse via .⁵⁴

V

Virgilioren neurtitz batzuez

Balioko gogoetak beteagoak eta sendoagoak diren arauz, halaber dira oztopagarri eta garestiagoak. Bizioa, heriotza, beharkundea, eritasunak, gai larriak dira eta zamakatzen gaituztenak. Gaitzen ihardukitzeko eta borrokatzeko bideetan irakatsia den gogoa izan behar da, eta ongi bizitzeko eta ongi sinesteko arauetan irakatsia, eta maiz iratzarri eta erabili ikerpen eder horretan; baina molde arrunteko gogo bati atsedean eta neurtasunez egin behar zaio: zoratzen da sobera etengabe hertsatua izanez.

Gogoa erne edukitzeko, banuen gaztaroen neure buruaren gaztigatzeko eta axolatzeko beharra; alaitasuna eta osasuna ez omen dagozkie hitzaldi larri eta zuhurrei. Orain beste egoera batean naiz; zahartzaroaren baldintzak sobera gaztigatzen, zuhurtzen eta predikatzen naute. Poztasunaren soberatik larritasunaren soberara erori naiz, nardagarriagoa baita. Horregatik uzten baitut orain, gogoz, neure burua apur bat galbidera joatera; eta noizbait erabiltzen dut gogoa gogoeta zoraxka eta gazteetan, hor laketzen baita. Gaur ez naiz jarriegi, dorpeegi eta helduegia baizik. Urteek hoztasun eta neurtasunaren ikasbidea ematen didate egunero. Gorputz honek ihes egiten du araurik gabekotik, eta haren beldur da. Bere aldia da gogoaren zuzentzeko moldabidearen aldera. Manatzeko bere aldia da, eta egiten du gogorki eta larrikiago. Lotan ala

iratzarria, ordurik ere ez dit uzten irakaspenez, heriotzaz, jasankortasunez eta penitentziaz lanik egin gabe. Neurtasunetik gerizatzen naiz, behiala atseginetik egin bezala. Sobera gibelatzen nau, zozokeriaraino ere. Bada, neure buruaren jabe izan nahi dut, zentzu orotan. Zuhurtziak baditu bere soberak eta ez du erotasunak baino neurtasunaren behar gutiagorik. Hala bada, zuhurtasunez ihar, zimel eta larri bilaka nadin beldurrez, neure gaitzek ematen dizkidaten arteetan,

Mens intenta suis ne siet usque malis, 55

eztiki baztertzen eta gordetzen dut neure ikusmena aitzinean dudan zeru goibel eta hodeitsu honetarik: Jainkoari esker, ikararik gabe behatzen baitut, baina ez bortxatze eta ikertzerik gabe; eta banoa jostakatuz iragan gaztaroaren oroitzapenetan,

animus quod perdidit optat,

Atque in praeiterita se totus imagine versat .56

So egin beza haurtzaroak aurrera, zahartzaroak atzera: ez ote zen Janoren aurpegi bikoitzak adierazten zuena? Eraman nazaten urteek nahi badute, baina atzeraka. Neure begiek aro zendu hori ezagutzen ahal duten bezainbat, hara baztertzen ditut inarrosaldika. Neure odoletik eta zainetarik ihes badoa, ez dut bederen irudia oroimenetik erroitik erauzi nahi,

hoc est

Vivere bis, vita posse priore frui. 57

Platonek zaharrei manatzen die gazteriararen ariketa, dantza eta jostetan egotea, beste baten baitan gozatzeko beren baitan gaurgero ez duten gorputzaren arintasunaz eta edertasunaz, eta beren oroimenean deitzeko adin loreztatu horren grazia eta faborea, eta nahi du lehiaketa horietan garaipenaren ohorea eman diezaioten beren artean jende gehiago eta gehien iratzarri eta gozarazi duen gazteari.

Behiala egun hertsigarri eta ilunak azpimarratzen nituen ohigabeak bezala: horiek dira orain nire ohikoak, ohigabeak ederrak eta lasaiak dira. Ikaratzen bainaiz fabore berri batez bezala deusek minik egiten ez didanean. Ferekatuz eta ere, orain ez dut ateratzen ahal irri soil bat gorputz txar honengandik. Ez naiz alaitzen irudimenez eta ametsetan baizik, amarruz baztertzeko zahartzaroaren nahigabea. Baina zinez ametsetakoaz beste antolabide bat beharko litzateke: borroka ahula, antzea naturaren kontrakoa. Ergelkeria handia da, bakoitzak egin bezala, giza oztopoen luzatzea eta aurrikustea; zahartu baino lehen zaharra izatea baino nahiago dut zaharra izatea aro laburragoan. Aurkitzen ahal ditudan atseginaldirik eskasena atzematen ditut ere. Ongi ezagutzen ditut, omenez, atsegin mota zuhur, azkar eta ospetsu asko; baina usteak ez du nire gainean ahalmenik aski haien aldeko nahian ezartzeko. Ez ditut nahi hainbat gogohandikoak, handiak eta ospagarriak, nola eztiak, errazak eta prestatuak. *A natura discedimus; populo nos damus, nullius rei bono auctori.*

Nire filosofia ekintzan eta oraingo erabilpen naturalean datza, ameskerian guti. Atzegin har baneza urretan eta ziban jostatzen!

Non ponebat enim rumores ante salutem. 59

Atsegina handinahi gutiko nolakotasuna da: bere baitan aski aberatsa aurkitzen da omenaren saria nahasi gabe, eta laketago da itzalean. Azotatu beharko litzateke ardo eta saltsetako zapoaren bilatzen ihardukiko lukeen gazte bat. Deusik ez da nik gutiago jakin eta baloratu nuenik. Ordu honetan ikasten dut hori. Ahalke handitan naiz, baina zer eginen diot? Ahalke eta sumindura gehiago dut horretara bulkatzen nauten aldiengatik. Guri dagokigu amestea eta hutsalkerietan aritzea eta gazteriararen omenaren eta helburu onaren gainean egotea: hau munduaren, sinesmenaren aldera doa; gu hortik gatoz. *Sibi arma, sibi equos, sibi hastas, sibi clavam, sibi pilam, sibi natationes et cursus habeant; nobis senibus, ex lusionibus multis, talos relinquant et tesseras.*

Legeek beraiek etxera bidaltzen gaituzte. Adinak naraman baldintza eskas honen alde, jostagailu eta astigailuen ematea baino gutiagorik ez dezaket egin, haurtzaroari bezala: hor arrerortzen gara ere. Zuhurtziak eta eromenak lanik aski edukiko dute nire bermatzeko eta laguntzeko txandazko ofizioekin, adinaren zorigaitz honetan:

Misce stultitiam consiliis brevem. ⁶¹

Berdin itzurtzen natzaie ziztadarik arinenei; eta behiala harramazkatuko ez ninduketenek ordu honetan alde alde zulatzen naute: nire ohitura hain errazki hasten da egokitzen gaitzari! *In fragili corpore odiosa omnis offensio est.*

Mensque pati durum sustinet ægra nihil. ⁶³

Beti izan naiz kilikabera eta minbera laidoentzat; orain beratzagoa naiz eta orotarik irekiagoa,

Et minimæ vires frangere quassa valent. ⁶⁴

Neure arrazoimenak debekatzen dit naturak pairatzeko manatzen dizkidan eragozpenen aurka kexatzea eta arnegatzea, baina ez haien sentitzea. Lasterkatu nintzateke munduko bazter batetik bestera lasaitasun atsegingarri eta gozagarritzko urte on baten bila, bizitzeaz eta gozatzeaz beste helbururik ez baitut. Lasaitasun itzalia eta ergela aski zait, baina lokartzen eta dorpetzen nau: ez naiz hartaz askiesten. Nire aldiak ongi dakizkion eta harenak ongi dakizkidan inor baldin bada, lagungo on bat, landetan, hirian, Frantzian ala kanpoan, geldia ala bidaiaria, aski du esku-ahurrean xixtu egitea, eta joanen natzaio entseieuz hornitzera haragi eta hezurrezko.

Gogoaren lehentasuna zahartzarotik bere buruaren berreskuratzea baita, aholkatzen diot, ahal bezainbat, egin dezan; berdatu egin dadin, loreztatu egin dadin, ahal badu, mihura zuhaitz ihartu baten gainean bezala. Beldur naiz traidore bat dela: hain hertsiki atxikia zaio gorputzari non beti uzten bainau hari jarraikitze behar duenean. Bazterrean lausengatzen dut, alferrik badihardut. Alferrik entseiatzen naiz elkartze horretarik baztertzera, eta Seneka, Katulo, andere eta erret dantzen agertaraztera; bere lagunak sabeleko mina badu, badiirudi berak ere baduela. Berezi eta bere zaizkion egitekoak ez dira goititzen ahal; katarro-urrina dute ageriki. Ez du alaitasunik bere ekarmentetan, halaber gorputzean ez bada.

Gure irakasleak engainatzen dira zeren, gure gogoaren oldarraldi ohigabeen kausen bila, jainkozko lilura bati, maitasunari, gudu-laztasunari, poesiari, ardoari ematen dizkietenaz landara, ez baitiote osasunari bere zatia eman; osasun irakin, azkar, bete, astidun bat, behiala urteen berdetasunak eta segurtasunak ukaldika ematen zidaten bezalakoa. Alaitasunezko su horrek gogoan sortzen ditu gar bizi eta argiak, gure helmen naturalaz gain, eta indar gartsuenak, zoroenak ez badira ere. Bada, ez da miresteko egoera kontrario batek nire gogo apaltzen eta itzatzen badu, eta ondorio kontrario bat egiten.

Ad nullum consurgit opus, cum corpore languet. ⁶⁵

Eta oraino nahi du fidel izan nakion zeren gizonen erabilera arruntak dakarrena baino kasu gutiago ematen baitio, berak dioen bezala, onarpen horri. Bederen, epea dugun artean, bazter ditzagun gaitzak eta nekeak geure harremanetarik:

Dum licet, obducta solvatur fronte senectus; ⁶⁶

“*tetrica sunt amaenanda jocularibus.* Maite dut zuhurtzia alai eta zibil bat, eta itzurtzen natzaio ohituren lazkeriari eta idortasunari, susmagarritzat hartuz aurpegi beltzuri oro:

Tristemque vultus tetrici arrogantiam. ⁶⁸

Et habet tristis quoque turba cynædos. ⁶⁹

Bihotz onez sinesten dut Platon, baitio aldi errezak eta zailak eragin handikoak direla gogoaren ontasunean edo gaiztakerian. Sokratesek aurpegi iraunkor bat izan zuen, baina lasaia eta irribartsua, ez iraunkorra Kraso zaharra bezala sekula ez baitzitzaion irri egiten ikusi.

Bertutea nolakotasun atsegingarria eta alaia da.

Ongi badakit jende gutik gaitzetsiko duela nire idazkien lizentzia, bere gogoetaren lizentzia gehiago gaitzetsi behar ez duenik. Ongi nagokio haien kuraiari. baina laidostatzen ditut haien begiak.

Xedealdi antolatua da Platonen idazkien kritikatzeara eta isilik iragaitea bere ustezko harremanak Fedon, Dion, Stela eta Arkeanasarekin. *Non pudeat dicere quod non pudeat sentire.*

Hastiatzen dut gogo zeken eta ilun bat, bere bizitzaren atseginen gainetik lerratzen dena eta zorigaitzetan atxikitzen eta alatzen; euliak bezala, gorputz ongi berdin eta leun baten kontra egoten ahal ez direnak, eta atxikitzen eta pausatzen direnak leku latz eta ezberdinetan; eta izainak bezala odol gaiztorik besterik xurgatzen eta nahi ez dutenak.

Bestalde, neure buruari manatu diot egitera ausartzen naizen guztiaren esatera ausartzea, eta atsekabea dut argitaraezinezko gogoetengatik. Neure ekintzen eta baldintzen makurrena ez zait hain itsusia eta koldarra iruditzen nola haren aitortzera ez ausartzea aurkitzen dudana itsusia eta koldarra. Bakoitza zuhurra da aitortzean, izan behar zen egitean; huts egiteko ausartzia inola ere ordaindua eta lotua da berorren aitortzeko ausartziaz. Denaren esatera bere burua hertsatuko lukeenak isiltzera behartu garenetik ezer ez egitera hertsatuko luke. Jainkoak aileza nire lizentziaren soberak erakar ditzan gizonak libertateraino, gure akatsetarik sortu bertute laxo eta itxurazko horien gainetik; neure neurririk ezaren bizkar erakar ditzadan arrazoiaren heineraino! Nork bere bizioa ikusi eta ikertu behar du berriz esateko. Besteei estaltzen diotenek, estaltzen diote eskuarki beren buruari. Eta ez daukate aski estaltzat ikusten badute; ebasten eta gordetzen diote beren kontzientziari. *Quare vitia sua nemo confitetur? Quia etiam nunc in illis est; somnium narrare vigilantis est.* Gorputzaren gaitzak argitzen dira handitzearekin. Aurkitzen dugu hezurreria dela erreuma edo bihurtura deitzen genuena. Gogoaren gaitzak iluntzen dira beren indarrean; eritasunik handiena duenak gutien sentitzen ditu. Horra zergatik maiz behar diren argitara eraman, gupidarik gabeko esku batez, zabaldu eta gure golkotik erauzi. Ongi-egiteetan bezala, gaizki-egiteetan ere berdin da, noizbait askiespena bakarrik aitorpena da. Ote da itsustasun zerbait huts egitean, beronen aitortzeko beharretik barkatzen gaituena?

Neke dut itxura egitea, beraz itzurtzen natzaio besteren sekretuen zainketari, ez baitut bihotzik aski neure jakintzaren ezeztatzeko. Isiltzen ahal dut; baina ukatzea, ez dezaket bortxarik eta atsekaberik gabe. Sekretuen zaindari ona izateko, izan behar da izaeraz, ez eginbeharraz. Gutxi da, printzeen zerbitzuan, sekretu zaindaria izatea, non ez den oraino ere gezurtia. Tales Miletokoari galdegin ziona ea zin egin behar zuenez ez zela lizunkerieta ibilia, niri etorri izan balitzait, erantzunen niokeen ez zuela egin behar, zeren gezurra lizunkeria baino oraino makurragoa iruditzen balitzait. Talesek osoki besterik aholkatu zion, zin egin zezala, gehiagoaren bermatzeko gutiagoaren bizkar. Hala ere, aholku hori ez zen hainbat bizioen hautespena nola ugaltasuna.

Horren gain, aipa dezagun hau bidenabar, ez zaio gaizki egiten kontzientziako gizon bati neke zerbait agertarazten zaionean bizio baten ordainean; baina, bi bizioen artean hertsatzen denean, hautakizun latzean ezartzen da, Origenesi egin bezala: edo idolatra zezan, edo jasan zezan haragiki gozaturik izatea agertu zitzaion etiopiar handi itsusi batek. Lehen baldintza onartu zuen, eta biziosoki, esaten da. Hala ere ez lirateke atseginik gabe, beren hutsaren arabera, aro honetan protestatzen digutenek nahiago luketela beren kontzientziaren zamatzea hamar gizonarekin, meza batekin baino.

Nabarmenkeria bada horrela hutsen argitaratzea, ez da arrisku handia eredu eta erabilerara iragan dadin; zeren Aristonek baitzioen gizonak gehien beldurtzen dituzten haizeak agerian ezartzen dituztenak direla. Bota behar da gure ohiturak estaltzen dituen zirtzil ergel hau. Beren kontzientzia putetxera igortzen dute eta beren itxura araupean

daukate. Hitz-jaleak eta hiltzaileak ezkontzen dira zeremoniaren legeekin eta haiei estekatzen beren eginbeharra; zuzengabeak ez du jendetasunik ezaz kexurik egin behar, ez maltzurkeriak nabarmenkeriaz. Damu da gizon gaizto bat ez baita ergela ere izan eta jendetasunak bere bizioa ez baitu arintzen. Apaintze horiek badagozkie bakarrik pareta on eta sendo bati, gordea edo zuriztatua izatea merezi duena.

Hugenoten alde, gure aitorpen gordea eta belarrizkoa salatzen baitute, aitortzen dut publikoki, erlijioski eta garbiki. San Agustinek, Origenesek eta Hipokratesek beren usteen hutsak argitaratu dituzte; nik ere neure ohiturenak. Neure buruaren ezagutaraztearen gose naiz; eta ez zait axola zeren kostutan, egiazki den ber; edo, hobeki esateko, ez naiz ezeren gose, baina hiltzerainoko beldurrez naiz nire izenaren ezagutza gerta dakienek trukagaitzat har nazaten.

Dena ohore eta osparen alde egiten duenak zer uste du irabazten duela munduari agertuz mozturirik, bere egiazko izatea jendearen ezagutzatik ebatsiz? Lauda ezazu konkorratzen bat bere goratasun ederraz, iraintzat hartu behar du. Beldurtia bazara eta gizon suhartzat oharatzen bazaituzte, zutaz mintzatzen ote dira? Bestetzat hartzen zaituzte. Berdin nahi nuke ostearen burua delakoan egiten zaizkion bonetaldiez sarista dadila, lerroko azkena den hori. Arkelao Makedoniako errege, karriketan barrena iraganez, norbaitek ura isuri zuen haren gainera; jarraitunek zioten zigortu behar zuela: “Bai, baina, zioen, ez du nire gainera urik bota, baina ni nintzela uste zuenaren gainera”. Sokratesek, beraz gaizki mintzatzen zela salatzen zionari: “Ez, egin zuen, nire baitan ez da badioten horretarik ezer.” Neure aldetik, piloto ona izateaz, hagitx apala izateaz edo arras kastoia izateaz laudoriatu nindukeenari ez nioke esker handirik zor. Eta halaber, hitz-jalea, ebaslea edo hordia deitu nindukeenari, hain guti laidostatutzat edukiko nuke neure burua. Beren burua ezagutzen ez dutenak askiesten ahal dira onespenez faltasuekin; ni ez, neure burua dakusadana eta barreneraino ikertzen dudana, zer dagokidan ongi dakidana. Atsegin zait gutiagor laudoriatua izatea, hobeki ezagutua naizen ber. Zuhurtzat hartzen ahalko litzaidake nik ergelkeriatzat daukadan halako zuhurtziaren moldepean.

Nardatzen naiz andereak balia daitezen neure *Entseieuz* bakarrik moble arrunt bezala, eta salako moble bezala. Kapitulu honek gelakoa egingen nau. Maite dut haiekiko harremana apur bat pribatua. Publikoa faborerik ez zaporerik gabea da. Agurretan, ohituaz harago berotzen dugu uzten ditugun gauzei buruzko maitasuna. Munduko josteten azken agurra egiten dut hemen, hona gure azken besarkadak. Baina gatozen nire gaira.

Zer egin die ernaritako ekintzak gizonei, hain naturala, hain beharrezkoa eta zuzena, hartaz ahalkerik gabe mintzatzeraz ez ausartzeko eta solas serio eta arautuetarik baztertzeko? Ausarki ahoskatzen dugu: hil, ebatsi, hitza jan; eta hori, hortzen artean baizik ez gara ausartuko? Esan nahi baita, hitzez zenbat eta gutiago kanporatzen dugun, hainbat gehiago baimentzen diogun geure buruari horri buruzko gogoetaren gizontzako? Zeren nabarmen baita gutien erabiltzen diren hitzak, gutien idatziak eta hobeki isilduak, hobekien jakinak eta orokorkien ezagunak direla. Ezein adinek, ezein ohiturak ezagutzen du, ogia bezainbat. Bakoitzaren baitan inprimatzen dira adierazi gabe, eta ahotsik ez irudirik gabe. Nabarmen da ere isiltasunaren gerizapean ezarri dugun ekintza dela, nondik eta krimena baita ateratzea, ez salatzeko ez epaitzeko ere. Ez gara ausartzen azotatzera itzulinguru eta margoan baizik. Fabore handia gaizkile bati hain hastigarri izatea non zuzenbideak uste baitu zuzengabea dela haren ukitzea eta ikustea; libre eta salbatua beren kondenaren laztasunaren ontasunagatik. Ez ote da liburuaren gaian bezala, salduago eta publikoago bilakatzen baitira ezabatuak direnetik? Neuretzat banoa hitzez hitz Aristotelesaren ustearen hartzera, baitio ahalke izateak apainduratzat balio duela gaztaroen, baina gaitzespentzat zahartzaroen.

Neurtitz hauek eskola zaharrean erabiltzen dira, modernoari baino hagitzez atxikiagoa natzaion eskola (bere bertuteak handiagoak eta bizioak xumeagoak iruditzen zaizkit):

Doana sutan ihes Venus aldetik,

*Sutan darraiona, galbide beretik.*⁷²

Tu, Dea, tu rerum naturam sola gubernas,

Nec sine te quicquam dias in luminis oras

*Exoritur, neque fit lætum nec amabile quicquam.*⁷³

Ez dakit nork liskartu ahal dituen Palas eta Musak Venusekin, eta hoztu Amodioari buruz; baina ez ditut elkarrekin hobeki moldatzen diren jainkosarik ikusi, ez elkarri gehiago zor diotenik. Musei maitasunezko irudimena kentzen dienak daukaten solasbiderik ederrena ebatsiko die eta beren eginaren gairik nobleena; eta maitasunari poesiaren harremana eta zerbitzua galaraziko dionak ahulduko dizkio bere armarik hoberenak; horrela amultsutasun eta onginahitasunaren Jainkoa⁷⁴ eta gizatasun eta zuzenbidearen jainkotsa gerizatzaileak salatzen dira eskergaitzaren eta ezagutzarik ezaren bizioagatik.

Ez naiz hain aspaldi Jainko horren erresumatik eta jarraipenetik atzerriratua bere indarrez eta balioez neure oroimena informaturik ez edukiteko,

*agnosco veteris vestigia flammæ.*⁷⁵

Oraindik bada hunkimen eta bero zerbait sukarraren ondotik,

*Nec mihi deficiat calor hic, hiemantibus annis.*⁷⁶

Osoki ihartua eta dorpetua banaiz ere, oraindik sentitzen ditut iragan gartsutasun horren hondar epel zenbait:

Qual l'alto Ægeo, per che Aquilone o Noto

Cessi, che tutto prima il vuolse et scosse,

Non s'accheta ei pero: ma'l sono e'l moto,

*Ritien de l'onde anco agitate è grosse.*⁷⁷

Baina aditzen dudanaren arabera, Jainko horren indarrak eta balioa beren egiazko izatean baino biziagoak eta beroagoak aurkitzen dira poesiaren margoan ,

*Et versus digitos habet.*⁷⁸

Erakusten du maitasuna bera baino ez dakit zein aire maitagarriago bat. Biluts gorritan ez da Venus hain ederra, eta bizia, eta hatsangarria, nola baita hemen Virgilioren baitan:

Dixerat, et niveis hinc atque hinc diva lacertis

Cunctantem amplexu molli foveat. Ille repente

Accepit solitam flammam, notusque medullas

Intravit calor, et labefacta per ossa cucurrit.

Non secus atque olim tonitru cum rupta corusco

*Ignea rima micans percurrit limine nimbos.*⁷⁹

...Ea verba loquutus,

Optatos dedit amplexus, placidumque petivit

*Conjugis infusus gremio per membra soporem.*⁸⁰

Ohargarri aurkitzen dudana hau da: ezkont-Venus batentzat hagitx hunkitua margolatzen duela. Harreman zuhur horretan nahikundeak ez dira hain zoraxkak aurkitzen; itzaliak eta motelagoak dira. Maitasunak hastiatzen du bere buruaz kanpoan aritzea eta, ezkontzan bezala, beste izenburupean eraikitzen eta diharduten elkartzeetan epelki nahasten da: elkartzeak, ontasunak, arrazoiez pisatzen dute hor, graziak eta edertasunak bezainbat edo gehiago ere. Ez da norbere buruagatik ezkontzen, zernahi esaten bada ere; hainbat edo gehiago ere ezkontzen ohi da norbere gerokotasunagatik, bere familiagatik. Ezkontzaren erabilpena eta interesa dagokio gure arrazari, gutaz

anitzez ere harago. Horregatik atsegin zait modu hori: norbere eskuez baino gehiago hirugarren eskuez zuzendua izan dadin, eta besteren interesaz norberarenaz baino gehiago. Hau guztia, zenbat kontrajartzen zaien maitasunezko ohiturei! Halaber, intzesto mota bat da ahaidetasun agurgarri eta sakratu honetan maitasunezko baimenaren ahaleginez eta bitxikeriez baliatzera joatea, beste inon uste dut esan dudan bezala⁸¹. Ezkontidea ukitu behar da, dio Aristotelesek, zuhurki eta larriki, lizunkiegi ferekatuz atseginak arrazoiaren txangetarik erauz dezan beldurrez. Honek arrazoiagatik dioena sendagileek osasunagatik diote; atsegin beroegi, laketegi eta maizegi batek hazia aldaratzen duela eta sortzapena oztopatzen; bestalde diote, batze ilaun batean, berez ezkontzarena den bezala, bero zuzen eta emankor batez betetzeko, agertu behar zaiola bakanka eta arte handitan,

Quo rapiat sitiens venerem interiusque recondat. ⁸²

Ez dut edertasunaz eta maitasunezko nahiez bideratzen diren ezkontzarik baino gehiago ikusten huts egiten eta uhertzen. Funts sendoago eta iraunkorragoak behar dira, eta kontuz ibili; alaitasun irakin horrek ez du balio.

Maitasuna gehituz ezkontzari ohore egiten diotela uste dutenek egiten dute, uste dut, bertuteari fabore egiteagatik, noblezia bertuteaz baizik ez dela diotenek bezala. Ahaidetasun zerbait duten gauzak dira; baina ezberdintasun handia da: gaizki egiten da beren izen eta izenburuen uhertzearekin; bata eta besteari egiten zaio kalte biak nahastuz. Noblezia nolakotasun ederra da, eta arrazoiz sartua; baina besteren baitatik datorren nolakotasuna izanik eta gizon bizioso eta ezdeus batengan eror daitekeena, bertutea baino urrunez beheitiago da balioaren aldetik: bertutea, halakoa baldin bada, izun eta ageria da; aroaren eta zoriaren menpekoa; molde ezberdinekoa lekuen arabera; bizia eta hilkorra; iturbururik gabea Nilo ibaia bezala; sorterrokoa eta arrunta; ondoregokoa eta antzekoa; ondorioz, eta aski ondorio ahulez, egina. Jakintza, indarra, ontasuna, edertasuna, aberastasuna, beste nolakotasun guztiak harremangarriak eta adierazgarriak dira; hau bere baitan akitzen da, ez du inorentzat balio. Eskatzen zitzaion gure erregetarik bati bi hautagaien bereizkuntza kargu bererako, haietarik bat aitorensemea zen, bestea ez. Manatu zuen, nolakotasun horri begiratu gabe, bereiz zedin meritu gehiago zuena; baina, balioa osoki berdina balitz, kasu horretan odola errespeta dadin: hori zen, zuzen, bere mailaren ematea. Antigonok, gizon gazte ezezagun bati, hil berri zen bere aitaren kargua eskatzen zion:

Egiazki, ez da gertatu behar Espartako erregeen ofizial, tronpetari, zerbitzari, sukaldariekin bezala, semeek jarraitzen baitiete beren karguan, ez gaiagoak badira ere, ofizioa adituak baino lehen. Kalkutakoek aitorensemeak egiten dituzte gizatasunaz gain dagoen giza mota bat. Ezkontza debekaturik zaie eta gerrazkoa ez den lanbide oro. Ohaideak, ase arte izan ditzakete, eta emakumeek beste hainbeste emazain, elkarri bekaiztu gabe: baina heriotzarako krimena da eta barkaezina, bere mailakoa ez den inorekin elkartzea. Eta zikindutzat daukate beren burua, bakarrik ukituak badira iragaitean, eta, beren aitorensemegoa laidostatua eta kaltetua balitz bezala, hiltzen dituzte haiengana apur bat sobera hurbiltzen direnak; halako molde, non bilauak oihuka ibiltzera behartuak baitira, Veneziako gondolariek bezala karriketako izkinetan elkarrekin topo ez egiteko; eta aitorensemeek manatzen diete nahi duten auzora baztertzeko. Hauek itzurtzen zaizkio horrela betierekotzat jotzen duten irainari; eta haiek heriotza gertu bati. Ezein denboraren iraupenek, ezein erret faborek, ezein ofizio, edo bertutek, edo aberastasunek ez du nekazaria aitorenseme bilakarazten ahal. Horretan laguntzen du lanbide ezberdinen arteko ezkontzak debekatzen dituen ohiturak; ez da zapategile arrazako emakume bat zurgin batekin ezkontzen ahal; eta gurasoak behartuak dira haurrak gurasoen lanbidetan heztera, zehazki, eta ez beste batean, nondik eta irauten baitu beren zoriaren bereizkuntzak eta iraupenak.

Ezkontza on batek, halakoa bada, baztertzen ditu amodioaren lagungoa eta baldintzak. Entseiatzen da adiskidantzaren iruditza. Bizi elkargo ezti bat da, iraupenez, leialtasunez eta elkarrenganako mugagabeko ofizio eta eginbehar onuragarri eta sendoez betea. Haren gustua dastatzen duen ezein emakumek,

optato quam junxit lumine tæda, ⁸³

ez luke bere senarraren maitale edo lagunaren lekua nahi izanen. Senarraren maitasunean emazte bezala badago, ohoretsuki eta segurukiago dago. Senarra kanpoko aldera hunkiturik eta lehiaturik agertzen bada, galdegin dakion, hala ere, nori opa diezaion gehiago ahalke bat gertatzea, emazteari ala maitaleari; noren zorigaitzak atsekabetuko lukeen gehiago; nori opa dion handitasun gehiago; galdera hauek ez dute batere dudarik ezkontza sendo batean. Hain gutiren ikusteak darakusa bere balioa eta saria. Ongi moldatuz eta ongi hartuz, ez da zati hoberik gure gizartean. Ez gaitezke hura gabe, eta apaltzen ari gara. Kaioletan ikusten dena gertatzen da: kanpoan dauden xoriak sartzeko etsituak dira; eta ateratzeko axola bera dute barrenean daudenek. Sokratesek, galdeginik zer zen egokiagorik emakumearen hartzea ala ez hartzea: “Bietarik zernahi egin bada ere, zioen, damutuko da” Hitzarmen bat da esaten den hori ongi dagokiona: “*homo homini*” edo “*Deus*” edo *lupus*⁸⁴ dela. Nolakotasun anitzen elkargoa behar da haren eraikuntzarako. Errazagoa aurkitzen da gaur gogo soil eta jende xehean, nahikeriek, jakin-nahiak eta astiak ez baitute hainbeste nahasten. Izaera desantolatuak, nirea den bezala, estekadura eta hertsatze oro hastiatzen baitut, ez zaizkio hain egokiak,

Et mihi dulce magis resoluto vivere collo. ⁸⁵

Neure gogoz, zuhurtzia berarekiko ezkontzari itzuriko nintzaiokeen, berak nahi izan banindu. Baina, alferrik diogu, bizitza arruntaren ohiturak eta azturak bagaramatza. Nire ekintzarik gehienak ereduz zuzentzen dira, ez hautapenez. Zernahi moduz, ez nintzen neurez joan, eramana izan nintzen, aldi arrotzek garraiatua. Zeren ez bakarrik gauza nekagarriak, baina batere gauzarik ez da hain itsusi, bizioso eta itzurigarriarik non, baldintza eta gorabehera zerbaitengatik, onargarri bilakatzen ahal ez den: hain hutsala baita giza jarrera! Eta orduan eramana izan nintzen gaizki prestatua eta gogoz kontra, orain, entseiatu ondoren, naizen baino gehiago. Eta, osoki lizentziosotzat hartzen banaute ere, egiazki bete ditut ezkontzaren legeak agindu eta uste nuen baino zorrozkiago. Ez da gibelatzeko aroa nork bere buruaren atzipetzera utziz geroz. Libertatea zuhurki erabili behar da; baina behin eginbeharraren menean egonez geroz, eginbehar orokorraren legepean egon behar da, edo bederen entseiatu. Harreman hau onartzen dutenek bertan herra eta hastioz jokatzeko, zuzengabeki eta desegoki egiten dute; eta andereen artean eskuz esku iragaiten ikusten dudan arau hau, orakulu saindu bat bezala,

Zerbitza'zan hire senarra hire jauna bailitzan,

Traidoregandik bezala hire burua gorde'zan,

esan nahi baita: , gerra eta desafio oihua, berdin iraingarri eta neke da. Beratzegia naiz hain xede bihurrietarako. Egiaren esatera, oraindik ez naiz gogoaren trebetasunaren osotasun eta finezia horretara iritsi, neure nahikundeari ez dagokion arau eta erregela oro irrigarritzat hartzeko: sineskeria hastiatu badut ez naiz neurehala erlijiorik ezara egozten. Beti ez bada eginbeharra betetzen, beti bederen maitatu eta ezagutu behar da. Esposatu gabeko ezkontza tradiketa da. Gatozen bestetara.

Gure poetak itxuratzen du ezkontza bat adostasun eta egokitasunez betea, leialtasun anitzik ez badu ere. Esan nahi ote du ez dela ezinezkoa amodioaren ahaleginei ematea eta, hala ere, ezkontzari buruz eginbehar zerbaiten gordetzea, eta zauritzen ahal dela osoki hautsi gabe? Halako morroiak ebasten dio horregatik gorrotatzen ez duen nagusiari. Edertasunak, aldiak, zoriak (zeren zoriak hor eskua baitu ere),

fatum est in partibus illis

Quas sinus abscondit: nam, si tibi sidera cessent,

Nil faciet longi mensura incognita nervi, ⁸⁶

lotu diote arrotz bati, menturaz ez hain osorik non ez den esteka zerbait berak bere senarrari eusteko. Bi xede dira, bide bereziak eta ez nahasiak dituztenak. Emakume batek bere burua ematen ahal dio inola ere ezkondu nahi ez zukeen halako lagun bati; ez diot ontasunaren baldintzengatik baina pertsona berarenengatik. Gero damutu ez den jende guti ezkondu da maitaleekin. Eta beste munduan ere. Zein bizimolde txarra egin du Jupiterrek bere emaztearekin lehenik amodioka ezagutu eta gozatu zuen bere emaztearekin? Hori esaten da: zarean kaka egitea gero buruaren gainean ezartzeko.

Neure aroan ikusi dut, leku on batean, amodioa ahalkegarriki eta maltzurki sendatzen ezkontzaren bidez; mailak goregiak dira. Oztoporik gabe maite ditugu bi gauza ezberdin eta elkarren kontra egiten dutenak. Isokratesek zioen Atenaseko hiriak atsegin ematen zuela, amodioz baliatuak izaten diren emakumeek egiten duten moduan; bakoitzak maite zuen ibiltzera eta astiaren ematera etortzeko; inork ez zuen ezkontzeko maite, esan nahi baita hor jartzeko eta egoteko. Ezatseginez ikusi ditut beren emazteak hastiatzen dituzten senarrak bakarrik engainatzen dituztelako; ez ditugu bederen geure hutsarengatik gutiago maitatu behar; damuz eta urrikariz bederen, maiteagoak izan behar zaizkigu.

Helburu ezberdinak eta hala ere elkargarriak dira, dio berak⁸⁷, nolabait. Ezkontzak badu bere aldetik erabilgarritasuna, zuzenbidea, ohorea eta iraupena: atsegin berdin bat, baina orokorragoa. Amodioa atsegin hutsean funtsatzen da, eta egiazki badu kilikagarriago, biziago eta zorrotzago; nekeak akuilatu atsegina. Ziztatze eta erretzearen beharra du. Ez da amodioa gezirik eta surik gabea bada. Andereen eskuzabaltasuna ugariagia da ezkontzan eta kamusten du maitasunaren eta nahiaren punta. Oztopo horri itzurtzeko ikus ezazu beren legeetan Likurgok eta Platonek duten axola.

Emakumeek ez dute osoki hutsik egiten munduan sartuak diren bizi-arauak onartzen ez dituztenean, are gutiago zeren gizonak baitira egin dituztenak beraiek gabe. Bada, jakina, amarru eta liskarrik haien eta gure artean; haiekin dugun onarpenik hertsiena oraino nahasia eta ekaiztsua da. Gure autorearen ustez, axolarik gabe erabiltzen ditugu honetan: amodioaren ekintzetan alderatzerik gabe gu baino gaiagoak eta sutsuagoak direla ezagutu dugunez geroz, eta antzinako sazerdote horrek lekukotasuna eman du, behin gizon, behin emakume izan baitzen,

Venus huic erat utraque nota; ⁸⁸

eta, gainera, beren ahotik ikasi dugunez geroz behiala mende ezberdinetan eginbehar horretan maisu egile famatuak ziren enperadore eta enperadoresa batek (hark desfloratu zituen gau batez hamar birjin sarmatar, bere gatibuak; baina honek askiarazi zituen gau batez hogeita bost oldarpen, lagungoaz aldatuz bere behar eta atseginaren arabera,

adhuc ardens rigidæ tentigine vulvæ,

Et lassata viris, nondum satiata, recessit ⁸⁹

eta, Katalunian emazte bat kexatzen baitzen bere senarraren ahalegin jarraikiengiengatik gertatu auzian, ez hainbat, nire ustez, emakumea akitua zelako (zeren mirakuluak ez baititut sinesten, fede-gaian ez bada) nola aitzakia horren pean beren emazteen aldeko senarren manu-indarraren mozteko eta bridatzeko, ezkontzaren ekintza nagusia den berorretan, eta erakusteko beren bihurkeriak eta maltzurkeria ezkont-oheaz gaindi iragaiten direla eta oinpetzen dituztela Venusen grazia eta eztitasunak ere; aipatu salaketari senarrak erantzun baitzion, zinez gizon aberea eta basa, barau-egunetan beraietan ere ez litekeela hamar baino gutiagorekin ase, gertatu zen Aragoiko erreginaren delibero nabarmen hura, haren bidez, aholkularitzaren gogoeta ondu baten

ondotik, erregina on hark, betirako ezkontza zuzen batean behar den neurtasun eta apaltasunaren arau eta adibide emateko, muga zilegi eta beharrezkotzat manatu zuen eguneko seiko kopurua; bere sexuko behar eta aiherretik anitz kendurik, zioen, molde erraz eta, beraz, iraunkor eta aldaezin baten finkatzeko. Berorretan oihukatzen dute doktoreek: zein ote da emakumearen nahia eta txirrinta, beren arrazoia, zuzenketa eta bertutea balio horretan neurtzen denez geroz? Gogoan harturik gure nahikundeei buruz egin den epaiketa ezberdina, eta Solonek, zuzenbidearen eskolaren buruzagiak, ezkontelkartzeko horretan huts ez egiteko, hilabeteko hiruretan baizik ez duela mugatzen. Hori sinetsi eta predikatu ondoren, joanak izan gara haiei kontinentziaren ematera, bereziki eta partzuergoan, eta zigor azken eta ezinagokoen azpian.

Ez da hori baino pasione hertsigarriagorik, nahi baitugu beraiek bakarrik iraun diezaioten, ez soilik bere neurriko bizio bati bezala, baina hastioari eta higuindurari bezala, erlijiorik ezari eta familia-hilketari baino gehiago; eta gu, hala ere, ematen gaitzazkio errurik ez erantzukirik gabe. Gure artean haren gain nagusitzera entseiatu direnek aski frogatu dute zein nekezia edo, gehiago, ezintasuna zen, gorputzaren ilauntzeko, ahultzeko eta hozteko gaiezko antolabideez baliaturik. Guk, aitzitik, emakumeak nahi ditugu sendo, azkar, sasoian, ongi haziak, eta kastoak halaber, esan nahi baita bero eta hotz: zeren ezkontzak, erretzetik haien zaintzeko kargua duela baitiogu, hozte guti ekartzen baitie, gure ohituren arabera. Hartzen badute oraindik adinaren bizkortasunak irakiten dion bat, kanpora barreiatzeko harro egonen da:

Sit tandem pudor, aut eamus in jus:

Multis mentula millibus redempta,

Non est hæc tua, Basse; vendidisti. ⁹⁰

Polemon filosofoa zuzenki auziperatua izan zuen bere emazteak, zeren ernaritako alorrari zor zaion hazia alor antzu batean ereiten baitzuen. Eta hartzen dutena baldin bada xehakatu horietarik bat, hara, ezkontza betean, birjinak eta alargunak baino makurrago. Asetzat dauzkagu ondoan gizon bat dutelako, erromatarrek Klodia Leta, vestalea, bortxatutzat zeukaten bezala Kaligula hurbildu baitzitzaion, egiaztatu bazen ere hurbiltzeaz baizik ez zuela egin; baina, aitzitik, hala berretzen da beren beharra, zeren ar baten ukitzeak eta laguntasunak berak ernatzen baitu beren beroa, bakartasunean geldiago legokeena. Eta, itxura den bezala, gorabehera eta gogoeta horrengatik beren kastitatea merituzkoago bilakatzeko helburu horretarako, Boleslaok eta Kinge bere emazteak, Poloniako erregeek, elkarren adostasunean agindu zuten, elkarrekin etzanak, beren eztei-egunean berean, eta bete zuten ezkont-erraztasunen aitzinean.

Haurtzarotik hezten ditugu amodioaren eginkizunetara: haien grazia, haien apaindura, haien jakintza, haien solasa, haien hezkuntza osoa ez da helburu horri begira baizik. Haien hezlariek amodioaren aurpegiarik besterik ez diete inprimatzen, hura haiei etengabe erakutsiz harengandik nardatzeko baizik ez balitz ere. Nire alaba (haurretan dudan guztia baita) legeek sutsuenak ezkontzeko desenkusatzan dituzten adinean da⁹¹; gorpuzkera berankor, mehar eta beratzekoa da, eta berdin izan da bere amak hezia modu baztertu eta berezi batez: oraindik ez baita hasten baizik haurtzaroko gaizotasunetik argitzen. Irakurtzen zuen liburu frantses bat nire aitzinean. *Fouteau* hitza agertu zen, zuhaitz ezagun baten izena⁹²; zuzentzerako duen emakumeak geldiarazi zuen berehala, apur bat zakarki, eta iraganarazi zuen urrats gaizto horren gainetik. Utzi nuen egitera beren arauen ez nahasteko, zeren ez bainaiz inola ere gobernu horretan sartzen; emaraudiak badu ibilera misteriotsu bat, utzi behar zaie. Baina, engainatzen ez banaiz, sei hilabetez hogeit hamarroiekiko harremanak ez zuen haren irudimenean ezarriko, atso on horrek bere gaitzespen eta debekuaren bidez egin bezala, silaba gaizto horietako hotsen adimen, erabilera eta ondorio guztiak.

*Motus doceri gaudet Ionicos
Matura virgo, et frangitur artubus
Jam nunc, et incestos amores
De tenero meditatur ungui.* ⁹³

Laxa bitez apur bat zeremoniatik, hitzaldizko libertatean sar bitez, jakintza honetan haurrik besterik ez gara haien ondoan. Entzun iezaiezu gure jarraipen eta solasen itxuratzen, ongi ezagutarazten dizute deus ere ez diegula ekartzen gu gabe jakin eta egosi ez dutenik. Platonek dioena ote da: mutil lizunkoiak izan direla behiala? Nire belarria gertatu zen egun batean beren artean egin hitzaldietarik zenbait ohartu gabe ebasten ahal zituen lekuan: zer esan ote nezake? "Amabirjina! (egin nuen) ordu honetan bagoaz *Amadis*-en perpausen eta Boccacio eta Aretinoren bildumen ikertzera sotilarenak egin nahian; ongi baliatzen gara geure denboraz! Ez da hitzik, ez eredurik, ez molderik gure liburuek baino hobeki haiek ez dakitenik: beren zainetan sortzen den irakasgaia da,

Et mentem Venus ipsa dedit, ⁹⁴

eskolako maisu on horiek: naturak, gaztetasunak eta osasunak, etengabe gogoan iradokitzen dietena; ez dute ikasi behar, sortzen baitute."

Nec tantum niveo gavis est ulla columbo

Compar, vel si quid dicitur improbius,

Oscula mordenti semper decerpere rostro,

Quantum praeipue multivola est mulier. ⁹⁵

Haien nahiaren jatorrizko bortiztasun hori apur bat bridapean egon izan ez balitz, desohoratuak ginatke. Munduko mugimendu osoa bideratzen eta biltzen da elkartze horretara: orotan barreiatu den gaia da, gauza guztiek begiratzen dioten erdialdea da. Oraino ikusten dira Erroma zahar eta zuhurraren arauak amodioaren zerbitzurako eginak, eta Sokratesen manamenduak emagalduen irakasteko:

Nec non libelli Stoici inter sericos

Jacere pulvillos amant. ⁹⁶

Zenonek, bere legeen artean, arautzen zituen ere desfloratzearen zabaltze eta inarrosaldiak. Zeri buruz ari zen Estrato filosofoaren liburua, *Haragizko Batzeaz?* eta zertaz ziharduen Teofrastok bata *Maitemindua*, bestea *Amodioaz* deituetan? Zertaz Aristipok bere *Antzinako Atseginez?* Zer nahi dute Platonen baitan bere aroko amodiorik ausartenen hain deskribapen hedatu eta biziek? Eta Demetrio Falereoren *Maiteminduez* liburuak; eta *Klinias* edo *Maitemindu Bortxatua* Heraklides Pontikoenek? Eta *Haurren Egiteaz* edo *Ezteiez* eta beste *Maitaleaz* Antistenesenek? Eta *Maitasunaren Ariketez* Aristonenak? Eta bata *Amodioaz* eta bestea *Maitatzeko Arteaz* Kleantesenek? *Maitasun Solasak* Esferorenak? Eta Krisiporen *Jupiter eta Juno* alegiak, jasankortasun guztiez haragokoan ahalkegabea denak, eta hain lizunkoiak diren bere berrogeita hamar *Gutunek?* Zeren bazterrean utzi behar baitira alderdi epikuriarrari jarraiki dioten filosofoen idazkiak. Iragan aroan berrogeita hamar jainko ziren ofizio horri lotuak; eta aurkitu da herririk non eta, debozioarako zetozenen aiharren lokartzeko, elizetan neskak eta mutilak edukitzen baitziren haietaz gozatzeko, eta zeremoniazko ekintza zen haietaz baliatzea ofiziora etorri baino lehen⁹⁷.

Nimirum propter continentiam incontinentia necessaria est; incendium ignibus extinguitur.

Munduko alderik handienez, gure gorputzaren zati hau jainkotua zen. Herrialde berean, batzuek larrutzen dute zati baten eskaintzeko eta kontsaktatzeko, besteek eskaintzen eta kontsaktatzen zuten beren hazia. Beste batean, gizon gazteek jendearen aitzinean zulatzen eta irekitzen zuten leku ezberdinetan haragia eta larruaren artean, eta

irekidura horietarik ziriak sartzen zituzten, jasan zitzaketenik luze eta zabalenak; eta ziri horietaz egiten zuten gero bere jainkoen eskaintzerako sua, eskaski bizkor eta kastotzat hartuak izanik oinaze krudel horren indarraz izitzen baldin baziren. Besteetan, kargudunik sakratuena agurtua eta ezaguna izaten zen zati horietarik, eta zeremonia askotan horren irudia ospatsuki eramana izaten zen jainko ezberdinen ohoretan.

Andere egiptiarrek, Bakanaletako bestan, lepoan zeramaten zurezko bat, ederki moldatua, handia eta pisutsua, bakoitzak bere indarraren arabera, beren jainkoaren irudiak erakusten zuenaz beste, neurritan gorputzaren garaitikoa gainditzen baitzuen.

Emakume ezkonduak, hemendik hurbil, beren buruestalkiaz moldatzen dute irudi bat beren kopetaren gainean, hartaz duten gozamenaz arrandiatzeko; eta, alarguntzearekin, giblean etzaten eta gordetzen dute beren buruko apainduraren azpian.

Andererik zuhurrenak, Erroman, ohoratzen ziren Priapo jainkoari loreen eta koroen eskaintzeagatik; eta haren gorputzaren zatirik ahalkegarrienetan birjinek gaua ematen zuten beren eztei-aroan. Oraindik ez dakit ez ote dudan neure mendean debozio beretsuaren itxuraren bat ikusi. Zer esan nahi zuen oraindik suitzarren artean ikusten den gure gurasoen bragetako zati irrigarri horrek? Zergatik egin orain egiten dugun gure zatien erakuspena, moldean eta gure galtzen azpian, eta maiz, makurrago dena, beren handitasun naturalaz gaindi, faltsukeriaz eta izunkeriaz?

Sinesteko gogoia dut jakzera mota hori sortua izan zela mende hobeetan eta kontzientzia gehiagokoetan jendearen ez engainatzeko, bakoitzak publikoki eta ageriki eman zezan bere egitearen kontua. Erresuma xumeagoek badute oraindik inola ere egiaren arabera. Orduan jakinarazten zen egilearen jakintza, besabete edo oinbeteko neurriekin egiten den bezala.

Nire gartzaroan, ikusmenaren ez usteltzeko, bere hiri handiko hainbat irudi eder eta zahar zikiratu zituen gizagaizo hark⁹⁹, beste antzinako gizagaizo haren usteari jarraikiz:

Flagitii principium est nudare inter cives corpora. ¹⁰⁰

gogoratu behar zuen, jainkosa onaren misterioetan gizonezko itxura oro debeketua zen bezala, ez zela batere aitzinamendurik ez bazituen zaldiak eta astoak zikirarazten ere, eta natura bera hondarrean.

Omne adeo genus in terris hominumque ferarumque,

Et genus æquoreum, pecudes, pictæque volucres,

In furias ignemque ruunt. ¹⁰¹

Jainkoek, dio Platonek, eman digute gorputzadar manugaitz eta tiraniko bat, animalia herrati batek bezala, bere gosearen bortiztasunez dena menperatu nahi duena. Berdin emakumeei, animalia irensele eta antsia bat, bere sasoian jakiak ukatzen bazaizkio, berantetsirik zorutzen dena eta, bere herra haien gorputzetan putz eginez, hodiak hesten dituen, hatsa geldiarazten, mila gaitz mota eraginez, harik eta egarri arruntaren fruitua xurgaturik, bere umontziaren hondoa ausarki zipatu eta erein duen arte.

Nire legegilea hala ohartzen bide zen, menturaz erabilera kastoago eta emangarriago bat dela ordu onetik biziaren ezagutaraztea, beren irudimenaren libertate eta beroaren arabera haren asmatzera uztea baino. Egiazko zatien beharrean, emakumeek ordezkutzen dituzte, nahiaz eta esperantzaz, hiruretan handituak. Eta nire ezagutzako batek bere burua galdu du, haien erabilera larriagoaren heinean ezartzeko oraindik egokia ez zen lekuan bereen erakustaldiaren egiteagatik.

Zein kalte ez dute egiten erret etxeetako iraganbide eta eskaleretan haurrak ereiten doazen margo ikaragarri handi horiek? Hortik dator gure ahal naturalaren aldeko gutiespen krudel bat. Nork daki ez ote dion Platonek horri begiratu, beste errepublika ongi aratuen arabera, manatuz gizonak eta emakumeak, zaharrak eta gazteak, bilutsik ager daitezen batzuk besteen ikusmenera beren gimnastikoetan? Indiarrek, gizonak gordinki ikusten baitituzte, hoztua badute bederen ikusmenaren zentzua. Eta horko

Peruko erresuma handiko emakumeek, gerriaren azpian aitzinetik zirriztatu oihal batez baizik ez baitute estaltzeko, eta hain meharra non, zeremoniazko zintzotasun zerbait bilatzen badute ere, urrats bakoitzean ikusten baitzaie osorik, badiote ere asmamen bat dela berengana gizonen erakartzeko eta arrendandik baztertzeko, hauengana osoki emana den herri bat baita, esan liteke gehiago galtzen dutela aurreratzen dutena baino eta gose oso bat garratzagoa dela begiz bederen asetu dena baino. Halaber zioen Liviak emakume zintzo bati gizon biluts bat ez zaiola irudi bat baino gehiago. Emakume lakedemoniarrek, gure neskak baino birjinagoek, egunero ikusten zituzten bere hiriko gizon gazteak erantziak beren ariketetan, beraiek ere beren izterren estaltzeko ezaxolatiak, uste izanez, Platonek dioen bezala, beren bertuteaz aski estaliak bertugaderik¹⁰² gabe. Baina San Agustinek aipatzen dituen haiek biluztasunaren aldeko zirikamenduaren eredu miresgarria eman dute, zalantzan ezarri baitute emakumeak epaiketa unibertsalean beren sexuan berpiztuko ote diren, eta ez gehiago gurean, gure ez zirikatze halako egoera sainduan¹⁰³.

Engainatzen eta hertsatzen zaie, oro har; berotzen eta kitzikatzen dugu haien irudimena etengabe, eta gero sabeletik oihukatzen dugu! Aitor dezagun egia: doi ez da gure artean inor bere emazteren bizioetarik datorkion ahalkearen beldur gehiago duena bereetarik datorkiokeenaren baino; bereaz baino gehiago axolatzen ez dena (karitate miresgarria) bere emazte onaren kontzientziatz; nahiago ez lukeena bera ebaslea eta sakrilegoa izan, eta bere emaztea hiltzailea eta heretikoa, emaztea bere senarra baino kastoagoa izan ez dadin baino.

Hain zainketa zaila egin behar baino lehenago, gogotik hautesiko lukete auzitegira joatea diruaren bila, eta gerrara omenaren bila. Ez ote dakusate ez dela merkataririk, ez abokaturik, ez soldadurik bere beharra uzten ez duenik beste horretara lasterka joateko, eta zamakaria, eta zapataria, lanez eta gosez xehakatuak eta zamakatuak badira ere?

*Nam tu, quæ tenuit dives Achæmenes,
Aut pinguis Phrygiæ Mygdonias opes,
Permutare velis crine Licinniaë,
Plenas aut Arabum domos,
Dum fragrantia detorquet ad oscula
Cervicem, aut facili sævitia negat,
Quæ poscente magis gaudeat eripi,
Interdum rapere occupet?* 104

Bizioen estimu gaiztoa! Gu eta haiek lizunkeria baino desnatural eta kaltegarriagoak diren mila ustelkerien gai gara; baina guk ez ditugu bizioak egiten eta neurtzen naturaren arabera, baina gure interesaren arabera, hortik hartzen baitituzte hainbeste molde ezberdin. Gure dekretuen garrazkeriak bizio horren alderako emakumeen isurmena bere baldintzak dakarrena baino garrazzago eta biziosoago bilakatzen du, eta bere kausa baino ondorio makurragei lotzen. Ez dakit Zesarren eta Alexandroren balentriek gogortasunean gaintitzen duten gure moldean hazia den, hots, jendearen argitan eta harremanetan, emakume gazte eder baten erabakia, hainbat eredu kontrariok oldarturik, osorik irauten, mila jarraipen etengabeko eta bortitzen erdian. Ez da ez-egite hori baino egite arantzatsuagorik, ez erneagorik. Errazagoa aurkitzen dut koraza baten eramatea bere bizi osoan birjintasun bat baino; eta birjintasunaren agintza guztietan gorena da, garrazzena den bezala: *diaboli virtus in lumbis est*, dio San Jeronimok.

Zinez, giza eginbeharretan nekeena eta azkarrena anderee eman diegu, eta berorren ospea kentzen diegu. Horrek tematzeko balio behar diete ezten berezi baten moduz; gai eder bat da gutaz burlatzeko eta haien gainean arrandiatzen dugun suhartasun eta bertutezko lehentasun horren ostikatzeko. Aurkituko dute, ohartzen bazaizkio, ez direla

bakarrrik goretsiak baino maitatuagoak ere. Plantako gizon batek ez du bere jarraipena uzten ukatua izateagatik, kastitatezko ukapena den ber, ez hautapenezkoa. Alferrik zin egiten eta mehatxatzen dugu, alferrik kexatzen: gezurra diogu, gehiago maite ditugu; zakar ez beltzuri ez den zuhurtasuna bezalako beitarik ez da. Zozokeria eta beldurkeria da gorroto eta gutiespenaren aurka tematzea; baina borondate eskerdun batez nahasia den erabaki bertutetsu eta iraunkor baten kontra gogo noble eta eskuzabal baten egitekoa da. Ezagutzen ahal dituzte gure zerbitzuak hein bateraino, eta guri zintzoki sentiarazten ez gaituztela gutiesten.

Zeren gure hastiatzea onesten ditugulako eta gure gorrotatzea maitatzen ditugulako manatzen dien legea zinez krudela da, bere nekeziagatik baizik ez balitz ere. Zergatik ez dituzte gure eskaintzak eta eskaerak entzunen zintzotasunaren eginbeharrari atxikiak dirauten ber? Zer axola du asmatzea barrendik hots egiten dutela zentzu libreago bat? Gure aroko erregina batek argiki zioen errekerimendu horien ukatzea nor beraren ahuleziaren lekukotasuna eta erraztasunaren salaketa zela, eta andere ez narritatu bat ez dela bere kastitateaz arrandiatzen ahal.

Ohorearen mugak ez dira hain hertsiki moztuak: bada zertaz laxa, ematen ahal da kalteatu gabe. Mugaren buruan bada hedadura libre zerbait, ezaxolatua eta neutroa. Indarrez hertsatu eta gibelatu ahal duena, bere zoko eta gotorlekuraino, gizon dorpea da ez bada bere zoriaz askietsirik. Garaipenaren balioa zailtasunaz neurtzen da. Jakin nahi duzu zein hunkipen egin duen bere bihotzean zure zerbitzuak eta zure merituak? Neur ezazu bere ohituretan. Halakoak gehiago ematen ahal du, hainbat ematen ez baitu. Ongi-eginaren esteka osoki da ematen duenaren borondatearen arabera. Ongi egitean gertatzen diren beste gorabeherak mutuak, hilak eta menturazkoak dira. Gutti horren ematea gehiago kosta zaio, bere lagunari bere osoa baino. Zerbaitetan neurritzat balio baldin badu bakantasunak, honetan izan behar da; ez begira zein guti den, baina zenbat jende gutik duen. Monetaren balioa aldatzen da lekuko zigilu eta markaren arabera.

Zenbaiten herrak eta neurririk ezak zernahi esanarazten badie ere bere deskontentamenduaren soberaz, beti bertuteak eta egiak birreskuratzen du bere abantaila. Ikusi ditut irainengatik omena luzaz kalteatua izan dutenak gizonen onespen orokorrean berriz goretsiak beren iraupen hutsaren bidez, axolarik ez amarrurik gabe: bakoitza dolutzen da eta gezurtatzen du haietaz sinetsi duena; neska susmagarriak izatek on eta ohoreko andereen arteko lehen maila dute. Norbaitek zioen Platoni: “Denak ari dira zutaz gaizki esaka.-Utz itzazu esaten, egin zuen, mintzairaz aldaraziko dituen moldean biziko naiz.” Irauteko sustatu behar dituen Jainkoarekiko begiruneaz eta hain ospe arraroaren balioaz beste, mende honetako usteltzeak horra bortxatzen ditu; eta, haien lekuan banintz, ez nintzateke ezertaz hain guti fidatuko nola hain esku galgarrietan neure omenaren ezartzeaz. Nire aroan kontatzeko atsegina (eztitasunaz egitekoari berari deus guti zor dion atsegina) adiskide fidel eta bakar bat zutenei baizik ez zitzaien zilegi; orain bilera eta mahaietako solas arruntak erdietsi faboreen harrokeriak eta andereen eskuzabaltasun sekretuak dira. Egiazki zitalkeria eta bihotz apalkeria sobera da grazia xamur horien jazartzea, eskuztatzea eta nahastea pertsona esker gaitz, mihiluze eta buruarineei uztea.

Bizio horren kontra gure neurririk gabeko eta zuzengabeko aiherkundera sortzen da giza gogoak atsekabetzen dituen gaitzik hutsal eta ekaiztsuenetik, jeloskeria baita.

Quis vetat appposito lumen de lumine sumi?

Dent licet assidue, nil tamen inde perit. 106

Hura eta bekaitza, haren ahizpa, iruditzen zaizkit bizioen osteko makurrenak. Honako honetaz ez naiz doi mintzatzen ahal: hain azkar eta ahaldun margolatzen den pasione horrek ez du bere graziaz ondoriorik batere neure baitan. Besteari dagokionez, ezagutzen dut, ikusmenaz bederen. Ihiziek badute haren mindura: Kratis artzaina ahuntz

batez maitemindurik, honen akerra, hura lotan zelarik, jeloskeriaz etorri zitzaion buruaren kaskatzera berearekin eta lehertu zion. Sukar horren soberakeria goratu dugu herri basa zenbaiten ereduz; hobekien irakatsiak hunkituak izan dira, arrazoia da, baina ez zoratuak:

Ense maritali nemo confessus adulter

Purpureo stygias sanguine tinxit aquas. 107

Lukulo, Zesar, Ponpeio, Antonio, Katon eta beste gizon zintzo batzuk adardunak izan ziren, eta ikasi zuten horregatik burrunba egin gabe. Aro hartan, ez zen Lepido ergel bat besterik horren arrenkuragatik hil zenik.

Ah! tum te miserum malique fati,

Quem attractis pedibus, patente porta,

Percurrent mugilesque raphanique. 108

Eta gure poetaren Jainkoa bere emaztea bere lagunetarik batekin harrapatu zuenean, askietsi zen haien ahalkearazteaz,

atque aliquis de Diis non tristibus optat

Sic fieri turpis; 109

eta, hala ere, hutsik gabe berotzen da bere emazteak eskainitako fereka ezteiz, kexatia ea horregatik zalantzan ote duen bere maitasuna:

Quid causas petis ex alto, fiducia cessit

Quo tibi, diva, mei? 110

Hara emazteak bere sasikume baten alde eskatzen diola,

Arma rogo genitrix nato, 111

eskuzabalez ematen baitzaio, eta Vulkano mintzatzen da Eneasez ohoretsuki,

Arma acri facienda viro. 112

Zinez gizakiaz goragoko gizatasun batez! Ontasun sobera hori onartzen dut Jainkoei ematea:

nec divis homines componier æquum est. 113

Haurren nahasmenari buruz, legegilerik larrienek manatzen eta arautzen baitute beren errepubliketan, ez dagokie emakumeei, haien baitan pasione hori, ez dakit nola, bere lekuan baitirudi:

Sæpe etiam Juno, maxima cælicolum,

Conjugis in culpa flagravat quotidiana. 114

Jeloskeriak hartzen dituelarik gogo ahul eta iraupenik gabeko horiek, urrikalgarria da nola oineztatzen eta tiranizatzen dituen; lerratzen da adiskidantzaren azpian; baina behin jabetuz geroz, ongi-nahiaerentzat balio zuten kausek beraiek hiltzerainoko gorrotoaren funtsetarako balio dute. Gogoaren eritasunen artean, hau da janaritzat gauzarik gehien eta erremediotzat gauzarik gutien duena. Senarraren bertutea, osasuna, meritua, omena beren egonezaren eta herraren sustatzaileak dira:

Nullæ sunt inimiciæ, nisi amoris, acerbæ. 115

Sukar horrek itsusten eta usteltzen du bestela ederrik eta onik duten guztia, eta emakume jeloso batengadik, nahi bezain kasto eta antolatua bada ere, ez da minker- eta fastikatzeturrinik ez duen ekintzarik. Inarrosaldi herratia da, kausaren kontrarioa den mutur batera daramatzana. Hala zen Erroman Oktavio batekin: Pontia Postumiarekin etzanik, maitasuna berretu zuen gozamenaren bidez, eta zernahi kostuz leihatu zen harekin ezkontzera; ezin sinestaraziz, ezinagoko maitasun horrek egotzi zuen etsaigorik krudel eta hilgarrienaren ondorioetara; hil zuen. Halaber, beste amodiozko eritasun honen ezaugarri arruntak barreneko herrak, xede bihurriak eta azpilanak dira,

notumque furens quid fæmina possit, 116

eta errabia bat, onginahiaren aitzakiapean desenkusatzera bortxatua denez, bere burua hainbat gehiago alatzten duena.

Bada, kastitatearen eginbeharrak badu hedadura handi bat. Borondatea ote da emakumeek brida dezaten guk nahi duguna? Zati aski arin eta bizi bat da; lehia sobera du gelditu ahal izateko. Nola? Ametsek batzuetan hain aitzinera daramatzate non ez baitute gezurtatzen ahal. Ez da beren baitan, ez menturaz borondatean berean ere, emea baita, nahikundeatarik ez gura izatetik defendatzea. Haien borondatea bakarrik interesatzen bazaigu, nora goaz? Irudika ezazu zein oste handia, osoki lumaztatua eramateko lehentasuna edukiko lukeenarengana, begirik ez mihirik gabe, hainbat non bakoitzak onartuko bailuke.

Emakume eszitiarrek begiak lehertzen zizkieten beren esklabu eta gerrako preso guztiei, haietaz libre eta estalkiago baliatzeko.

O aldi egokiaren abantaila zoragarria! Galdegin balitzait maitasunaren lehen zatia, erantzunen nuke aldia hartzen jakitea dela; bigarrena hura bera, eta oraindik hirugarrena ere bai: dena dezakeen hein bat da. Maiz zoria izan dut eskas, baina inoiz ere abiadura; Jainkoak begira dezala horretaz burlatzen ahal dena! Mende honetan ausartzia gehiago behar da, gure gazteriak beroaren aitzakiapean desenkusatzen dutena: baina, hurbiletik begiratuko baliote ikusiko lukete gehiago etorzen dela gutiespenetik. Ofendatzeko beldur egonen nintzateke axola handiz, eta gogotik errespetatzen dut maite dudana. Bestalde, harreman honetan, begirunea kentzen duenak distira ezabatzen du. Maite dut hor apur bat haur, beldurti eta zerbitzari bezala egin dadin. Honetan osoki ez bada, besteetan badut Plutarkok aipatzen duen ahalke ergela, eta horretaz izan da nire bizitza zauritua eta zikindua modu ezberdinez; nire izaera orokorrari gaizki dagokion nolakotasuna; zer da bihurkeria eta eztabaida bezain gurea? Begi samurrak ditut ezetz baten sostengatzeko, ezetz esateko bezala; eta hainbat pisatzen zait beste bati pisu egitea non, eginbeharrak bortxatzen nauenean norbaiten borondatearen entseiatzera hari kostatzen zaion zalantzazko gauza batean, ahulki eta gogoz kontra egiten baitut. Baina neure partikularretarako baldin bada (Homerok egiazki badio ere behartsu bati ahalkea bertute ergel bat zaiola) bidaltzen ohi dut hirugarren bat neure ordeztu gorritu egin dadin. Eta errefusatzen ditut halako nekezian erabiltzen nautenak, eta inoiz gertatu zait ukatzeko borondatearen edukitzea, horretarako indarrik ez bainuen.

Beraz, emakumeen bridatzera entseiatzea hain egoskor eta natural zaien nahikunde batean eromena da. Eta, entzuten ditudanean beren buruaren laudorioka hain borondate birjin eta hotzaren edukitzeagatik, haietaz burlatzen naiz; hala gibelatzen dira arras atzera. Hortzik gabeko atso zimeldu bat bada, edo gazte ihartu eta biriketan joa den bat, osoki sinesgarria ez bada, badute bederen esateko itxura. Baina badabiltzan eta oraindik arnasten dutenek beren egoera makurragotzen dute, gogoetatu gabeko aitzakiek salaketatzat balio baitute. Nire auzokideen arteko aitorenseme bat bezala, ezintasunez susmaturik,

Languidior tenera cui pendens sricula beta

Numquam se mediam sustulit ad tunicam, 117

bere ezteiak baino hiruzpalau egun geroago, ausarki joan zen zin egitera, bere buruaren zuritzeko, hogei oldarraldi egin zituela aitzineko gauan; horretaz baliatu izan baita gero haren jakineza hutsaren frogatzeko eta ezkontzaren hausteko. Gainera hori ez da balioko deusen esatea, zeren kastitaterik ez bertuterik ez baita, kontrako ahaleginik ez bada.

“Egia da, esan behar da, baina ez naiz neure buruaren errendatzeko prest.” Sainduak beraiek hala mintzatzen dira. Beren hoztasun eta soraiotasunagatik beren burua laudoriatzen dutenengandik aditzen da, eta nahi dute sinetsiak izan aurpegi larri batekin. Zeren, aurpegi itxuratu batez, begiak beren hitzak gezurtatzen baitituzte, eta gaizki ematen duen beren ofizioaren mordoiloaz denean, ongi aurkitzen dut. Zabaltasun eta

libertatearen zerbitzari azkarra naiz; baina ez da antolabiderik; osoki ergela edo haurra bada, andereentzat baliorik gabea da, eta harreman honetan desegokia; sarri desbideratzen da zantarkeriara. Beren moztaroez eta itxurez ez dute ergelik besterik engainatzen. Horretan gezur esatea bere ohorezko jarlekuan da; ate faltsu batetik egiara garamatzen itzulia da.

Emakumeen irudimena ez badugu edukitzen ahal, zer nahi dugu haiengatik? Ondorioak ote? Badira asko harreman arrotz orori itzurtzen zaionik, nondik eta kastitatea usteldurik izaten ahal baita,

Illud saepe facit quod sine teste facit. 118

Eta gutien beldurtzen gaituztenak menturaz beldurgarrienak dira; haien bekatu mutuak makurrenak dira:

Offendor mæcha simpliciore minus. 119

Badira, lizunkeriari gabe eta, areago dena, jakin gabe, haien garbitasuna galtzen ahal duten ekintzak: *Obstetrix, virginis cujusdam integritatem manu velut explorans, sive malevolentia, sive inscitia, sive casu, dum inspicit, perdidit*. Halako batek, bilatzeagatik, galdu du bere birjintasuna; halako batek, jostaketan, hil du.

Ez genekike zehazki emakumeei debekatzen dizkiegun ekintzak beraiei mugatzen. Gure legea gogoetatu behar da hitz orokor eta dudazkoen azpian. Haien kastitatez moldatzen dugun ideia bera irrigarria da; zeren ditudan eredu ezinagokoen artean Fatua baita, Faunoren emaztea, bere ezteien ondotik ezein arri bere buruaren ikustea baimendu ez ziona, eta Hieronen emaztea, bere senarraren ahokiratsa somatzen ez zuena, gizon ororen nolakotasun bat zela uste izanez. Soraio eta ikustezin bilakatu behar dira gure askiesteko.

Bada, aitor dezagun eginbehar horren epaiketaren korapiloa borondatean datzala nagusiki. Izan dira ezbehar hori jasan duten senarrak, ez bakarrik beren emazteen alderako erantzukirik ez irainik gabe, baina hauen bertutearen gomendio eta eskerron bereziarekin. Halako andereak, bere bizia baino hobeki bere ohorea maite zuenak, hiltzerainoko etsai baten aiherrari eskaini dio bere senarrari bizitzaren salbatzeko, eta honen alde egin du bere alde inola ere eginen ez zukeen. Ez da hau eredu hauen hedatzeko lekua: goraegiak eta aberatsegiak dira molde honetan erakusteko, gorde ditzagun jarleku nobleago batean.

Baina, molde arruntagoko adibidetarako, ez ote dira egunero beren senarren erabilpen hutsarentzat, eta beraien manamendu eta artekatze adieraziaren bidez, beren burua ematen duten emakumeak? Eta zaharraroan Faulio Argiviarrak berea eskaini zion Filipo erregeri handinahiaz; halaber jendetasunaz Galba horrek, Mezenasi afaltzeko eman zionak, ikusiz bere emaztea eta biak hasten zirela azpilanean begiratzek eta keinuka, burukoaren gainera utzi zuen erortzera bere buruaren, gizon lokartuarena eginez, haien adiskidetzeari bizkarraren emateko. Eta aitortu zuen hagitx grazia on batez; zeren, aldi horretan, zerbitzari batek mahai gainean zeuden edalontzien gainera bere eskuaren ezartzeko ausartzia harturik, oihukatu zion: “Ez duk ikusten, artaburua, Mezenasentzat bakarrik ari naizela lotan?”.

Halako emakume batek, itxura arautupean jokatzen den beste hori baino borondate moldatuagoa duenak, baditu ohitura neurritz gainekoak. Ikusten ditugun bezala ezagutzaren adina baino lehehago kastitateari emanak izateagatik kexatzen direnak, halaber ikusi dut zinez kexatzea lizunkeriari emanak izateagatik ezagutzaren adina baino lehenago; gurasoen bizioa izan daiteke kausa, edo beharraren indarra, aholkulari zakar bat baita. Ekialdeko Indietan, kastitatea gomendio berezitan izanez, azturak jasaten zuen emazte batek bere burua ematen ahal diola elefante bat eskaintzen zionari; eta hori halako sari handitan onetsia izateko ospe zerbaitekin.

Etxeko gizona zen Fedon filosofoak, bere Elidako herriaren konkistaren ondotik eta hark iraun zuen artean, bere gaztetasuneko edertasuna zilarrezko saritan nahi lukeenari saltzeko ofizioa egin zuen, hartaz bizitzeko. Eta Solon lehendabizikoa izan omen zen Grezian, bere legeen bidez, beren ahalkearen bizkar beren biziaren beharren betetzeko libertatea emakumeei eman ziena; hura baino lehen gobernu askotan onartua izan zen legea, dio Herodotok.

Eta gero, zein da axola nekagarri horren fruitua? zeren, zuzenbide zerbait bada ere pasione horretan, oraindik ikusi beharko bailitzateke onuragarriki ote garamatzan. Norbait ote da bere abileziaz estekatzen dituela uste duena?

Pone seram, cohibe; sed quis custodiet ipsos

Custodes? Cauta est, et ab illis incipit uxor 121

Zein erraztasun ez zaie ezaguna hain mende jakintsu batean?

Jakinahia orotan biziosoa da, baina hemen galgarria. Erokeria da gaitz bati buruz argitu nahi izatea, gaizkiagotzen eta larritzen ez duen sendabiderik ez baitu, haren ahalkea berretzen eta publikatzen baita jeloskeriaren bidez, haren mendekuak zauritzen baititu gure haurrak gu sendatzen gaituen baino gehiago. Ihartzen eta hiltzen zara hain egiaztatze ilunaren bila. Nire arokoak, bururatu dutenak, zein urrikgarri bilakatu dira! Oharregileak ez baditu, aldi berean, bere antolabidea eta laguntza agertzen, oharpen iraingarria da, gezurtatze bat baino gehiago puñal-ukaldi bat merezi duena. Gauzatzeko neketan denarentzat ez da ez dakienarentzat baino burla gutiago. Adargintzaren ezaugarria ezabaezina da: behin batez atxiki zaionari beti atxikia zaio; zigorrak adierazten du hutsak baino gehiago. Alferrik da gure zorigaitz pribatuen erauztea itzaletik eta dudatik taulatu tragikoetan tronpetarazteko; eta soilik adierazpenean ziztatzen duten zorigaitzak. Zeren emazte ona eta ezkontza ona ez baita hala denari esaten, baina isiltzen denari. Argia izan behar da ezagutza aspergarri eta ezteus horri itzurtzeko. Eta erromatarrek bazuten aztura bezala, bidaiatik itzultzean, etxeen aitzinera norbaiten bidaltzekoa, emazteei beren itzuleraren berri emateko, ustekabeen ez harrapatzeko. Eta horregatik herri batek ezarri du sazerdoteak emazteari iraganbidea ireki diezaion, eztei-egunean, ezkonduari duda eta lehen entseiu horretan ea birjina edo maitasun arrotz batek zauriturik datorkiolako jakinahiaren kentzeko.

“Baina jendea mintzatzen da.” Badakizkit ehun gizon zintzo adardun, zintzoki eta guti nabarmenki. Gizon on bat adarrez beterik da, eta ez da gutietsia. Egin ezazu zeure bertuteak zeure zorigaitza ito dezan, jende onek horren aldia madarika dezaten, ofendatzen zaituena ikara dadin bakarrik gogoan hartzean. Eta gero, nortaz ez da zentzu horretan mintzatzen, txikitik handieneraino?

Tot qui legionibus, imperitavit,

Et melior quam tu multis fuit, improbe, rebus. 122

Ikusten duk zenbat gizon zintzo lotzen diren erantzuki horrekin hire aitzinean? Gogoan har ezak ez zaiala barkatzen besteeetan. Eta zertaz burlatzen dira aro honetan ezkontza lasai eta ongi konpondu batez baino gehiago? Zuetarik bakoitzak egin du adardun bat: bada natura dena berdinetan da, ordainketan eta gorabeheretan. Ezbehar horren maiztasunak gaurgero garraztasuna gutitu izan behar du; hara ohitura bilakaturik.

Pasione urrikgarria, oraindik adieraezina izatekoa baitu,

Fors etiam nostris invidit questibus aures 123

zeren, irri egiten ez badu ere, mozkingean bere zatiaren hartzeko bideaz eta jakintzaz baliatuko ez den zein adiskideri ausartuko zara zure minen fidatzera?

Ezkontzaren minkerrak, eztitasunak bezala, gordeak edukitzen dira zuhurrentzat. Eta, bertan aurkitzen diren beste baldintza nekagarrien artean, honako hau, naizen bezalako

gizon mihidunari, nagusietarik zaio: ohiturak gaizto eta kaltegarri bilakatzen duela inori esatea hartaz dakigun eta sentitzen dugun guztia.

Emakumeei aholku beraren ematea jeloskeriaz sendatzeko, denbora galdua litzateke; beren izatea hain sartua baita susmoan, hutsalkerian eta jakinahian non zuzenbidez sendatzea ez baita uste behar. Maiz zuzentzen dira eragozpen horretarik eritasuna bera baino beldurgarriagoa den osasun modu batez. Zeren, bakarrik beste baten baitan sartuz gaitza kentzen dakiten liluramenduak diren bezala, beraiek ere beren senarregana gogotik bidaltzen baitute sukar hori galtzen dutenean. Hala ere, egiaren esateko, ez dakit haiengandik jeloskeria baino makurragorik jasaten ahal den; beren baldintzetarik makurrena da, beren gorputz-zatietarik burua den bezala. Pitakok bazioen bakoitzak bere akatsa bazuela; berea bere emaztearen buru txarra zela; horretaz landara, osoki zorientzutat hartuko lukeela bere burua. Aski eragozpen pisutsu bat da, hain pertsonaia zuzen, zuhur eta suharrak hortik bere bizitzaren egoera osoa aldaraturik sentitzen baitzuen: zer egin behar dugu gixon t'erdio?

Marseillako senatuak arrazoia zuen eskariaren onartzeko bere emaztearen erauntsitik itzurtzeagatik hiltzeko baimena eskatzen zuenari; zeren soilik zatia kenduz kentzen den gaitz bat baita, eta balioko antolabiderik ez duena, ihesaz edo jasankortasunaz beste, biak hagitz zailak badira ere.

Honetan aditua zen, uste dut, emazteitsu eta gizon gor batzuen artean ezkontza on bat moldatzen zela dioena.

Begira dezagun ere hertsatzen diegun eginbeharreko garraztasun handi eta bortitz horrek ez ditzan gure helburuari kontrarioak zaizkion bi ondorio eragin: hots, jarraitunak akuila ditzan eta emakumeak errazago bilaka ditzan. Zeren, lehenari buruz, plazako balioaren goratzearekin, goratzen baitugu konkistaren balioa eta nahia. Ez ote litzateke Venus bera bere salgaiari txanoa sotilki goratu diona legeen erosteko, jakinik zeinen maitasunezko jostaketa ergela den ameskeriaz eta arrarotasunaz balioarazten ez duena? Hondarrean dena zerrikia da saltsak ezberdintzen duena, Flaminioaren arrotzak zioen bezala. Cupido jainko hitz-jale bat da; bere jokoa egiten du debozio eta zuzenbidearen kontra borrokatuz; bere ospea da bere ahalmena beste ahalmen guztien aurka jotzea, eta beste arau guztiek bide eman diezaieten bereei.

Materiam culpæ prosequiturque suæ. 124

Eta bigarrenari buruz: ez ote ginateke gutiago adardun hala izatearen beldur gutiago bagina, emakumeen izaerari jarraikiz, zeren debekuak akuilatzen eta gomitatzen baititu?

Ubi velis, nolunt; ubi nolis, volunt ultro... 125

Concessa pudet ire via. 126

Zein adimen hoberik aurkituko genioke Mesalinaren ekintzari? Hasieran gordeka adardundu zuen bere senarra, egin ohi den bezala; baina, bere egitekoak errazegi gauzatzuz, haren baitan zegoen zozokeriagatik, bat-batean gutietsi zuen erabilpen hori. Hara amodioa egiten agerian: zerbitzariak onartzen, bakoitzaren aitzinean ordaintzen eta faboratzen. Nahi zuen senarra sumindu egin zedin. Abere hori ezin iratzarritz horietaz guztietaz, eta bere atseginak sobera beratz eta motel bilakatuz hark onartzen eta baimentzen bide zuen erraztasun laxoagatik, zer egin zuen? Enperadore sendo eta bizi baten emaztea izanez, Erroman, munduko antzokian, eguerdi minean, besta eta zeremonia publikoan, aspaldi gozatu zen Silioarekin ezkontzen da senarra hiriaz landan zegoen egun batez. Ez ote dirudi kastoa izatera bideratzen ari zela bere senarraren ezaxolaz, edo jeloskeriaz nahikundea akuila ziezaion eta, debekatuz, zirika zezan beste senar bat bilatzen zuela? Baina aurkitu zuen lehen oztopoa azkena izan zen ere. Ihizi hori iratzarri zen bat-batean. Maiz mamurro lokartu horiekin makurragoa da. Izatez ikusi dut ezinagoko pairamen horrek, laxatzera datorrenean, mendeku garratzagoak

sortzen dituela; zeren, bat-batean izekiz, herra eta zoramena batera metatuz, bere ahalegin guztiak lehertzen ditu lehen oldarraldian,

irarumque omnes effundit habenas. 127

Hilarazi zuen emakumea eta bere azpilaneko oste handi bat ere, besterik egin ez zezakeen baina Mesalinak azote ukaldika oherarazi zuen bat.

Virgiliok Venusez eta Vulkanoz dioena, Lukreziok esana zuen egokiago Venus eta Marteren artean izan gozamen gorde batez:

belli fera mænera Mavors

Armipotens regit, in gremium qui sæpe tuum se

Rejicit, æterno devinctus vulnere amoris:

Pascit amore avidos inhians in te, Dea, visus,

Eque tuo pendet resupini spiritus ore:

Hunc tu, diva, tuo recubantem corpore sancto

Circumfusa super, suaveis ex ore loquelas

Funde. 128

Ausnartzen ditudanean *rejicit, pascit, inhians, molli, foveat, medullas, labefacta, pendet, percurrit* horiek, eta *Infusus* politaren ama den *circumfusa* noble hori, gutiesten ditut gero sortu ziren finezia eta hitzezko itzulinguru xehe horiek. Jende on haiei ez zitzairen aurkientzia zorrotz eta sotilik behar; haien mintzaira betea eta gizona da azkartasun natural eta iraunkor batez; dena da epigrama, ez buztana bakarrik, baina burua, urdaila eta oinak ere. Ezer bortxaturik, ezer narraturik ez da, dena badabil abio berean. *Contextus totus virilis est; non sunt circa flosculos occupati.* Ez da bakarrik elegintza beratz eta akatsik gabe bat: zaintsua eta sendoa da, ez baitu hainbat atsegin egiten nola betetzen eta liluratzen baitu; eta gehiago liluratzen ditu gogorik azkarrenak. Ikusten ditudanean azaltzeko molde plantako horiek, hain biziak, hain barrenak, ez diot ongi esatea denik, badiot ongi gogoetatzea dela. Irudimenaren garaitasuna da hitzak goratzen eta haizatzen dituenak. *Pectus est quod disertum facit.* Gure jendeek deitzen diete adimena, mintzaira eta hitz ederrak, gogoeta beteei.

Margolatze hori zuzendua da ez hainbat eskuaren trebetasunagatik baina gauza gogoan bizikiago inprimatua edukitzeagatik. Galo errazki mintzatzen da errazki gogoetazten duelako. Horazio ez da axalezko adierazpen batekin askiesten, honek salatuko bailuke. Gauza badakusa argiago eta barrenago; bere gogoak zabaltzen eta ikertzen du hitz eta irudien biltegi osoa bere buruaren erakusteko; eta behar ditu arruntaz landakoak, bere gogoeta arruntaz landakoa den bezala. Plutarkok dio mintzaira latinoa dakusadala gauzen bidez; hemen berdin: zentzuak argitzen eta sortzen ditu hitzak; ez gehiago haizezkoak, baina haragiz eta hezurrez. Adierazten dute diotena baino gehiago. Ergelek ere somatzen dute honen irudi zerbait: zeren, Italian, nahi nuena solas arruntez bainion; baina, gai larrietan, ez nintzateke malgutzen ahal ez dudana hizkuntza batez fidatzera ausartuko, ez bere abio arruntaz harago bihurtzeko. Horretan nahi dut neuretik zerbait gehitu.

Gogo ederren eskuztatzeak eta erabiltzeak ematen dio mintzairari balioa, ez hainbat berriztatuz, baina zerbitzu azkarrago eta ezberdinez betez, hedatuz eta malgutuz. Ez dakartzate hitzik, baina bereak aberasten dituzte, adierazpenaren eta erabilpenaren asmoa luzatzen eta barrenagotzen dute, irakasten dizkiete ohigabeko mugimenduak, baina zuhurki eta zorrozki. Eta hori zein guti emana den denentzat, ikusten da mende honetako hainbat idazle frantziarren bidez. Bide arruntari ez jarraikitzeak aski ausartak eta erdeinariak dira; baina asmamenik eta neurririk ezak galtzen ditu. Arrozetasunaren arrandiatze eskas bat bakarrik ikusten zaie, moztutako hotz eta zentzugabeak gaia apaltzen dutenak goratu beharrean. Berritasunean harrotzen diren ber, eragina berdin zaie; hitz berriaren hartzeagatik arrunta uzten dute, askotan azkar eta zaintsuagoa.

Gure mintzairan aurkitzen dut gairik aski baina apur bat molde eskas bat; zeren ezer ez baita gure ihizien eta gure gerraren mordoilotik egin ez litekeenik, mailegatzeko alor zabal bat baita; eta mintzamol-

deak, belarrak bezala, hobekitzen eta azkartzen baitira birlandatzean. Aski ugari aurkitzen dut baina ez aski malgurik ez bizkorrik. Eskuarki erortzen da gogoetatze ahaldun batean. Zuzen bazoaz, maiz sentitzen duzu

ilauntzen eta zimeltzen dela zure azpian, eta haren hutsaldian laguntzera agertzen zaizula latina, eta grekoa besteei. Bereizi berri ditudan hitz horietarik zenbaitetan nekezago ikusten dugu, erabilerak eta maiztasunak grazia inola ere apal eta arrunt bilakatu baitigu. Gure ohiko mintzairan, edertasuna zaharrieriaz higatzen eta kolorea erabiltze maizegi batez histu den esaldi bikainak eta metaforak aurkitzen diren bezala. Baina horrek ez die gusturik batere kentzen sudur ona dutenei, ez eta, itxura den bezala, hitz horiek lehenik distiran ezarri zituzten autore zaharrei osperik batere gutitzen.

Zientziek sobera sotilki darabiltzate gauzak, ohiari eta naturalari sobera izun eta ezberdin zaion molde batez. Nire nerabeak amodioa egiten eta aditzen du. Irakur iezaiozu Leon Hebreu eta Ficin: hartaz mintzatzen da, haren gogoetaz eta ekintzez, eta berak ez du ezer aditzen. Nik ez ditut Aristotelesen baitan neure mugimendu arruntik gehienak ezagutzen; eskolaren erabilerarako estaliak eta mozturrotuak dira beste jantzi batez. Jainkoak eman biezaiote egite ona! Ofiziokoa banintz artea naturalduko nuke haiek natura artifizialdu bezainbat. Utz ditzagun hor Bembo eta Equicola¹³¹.

Idazten dudalarik, ongi nago liburuen lagungo eta oroimenik gabe, neure moldearen eten dezaten beldurrez. Hainbat non, egiazki, autore onek sobera apaltzen bainaute eta kuraia hausten. Gogotik egiten dut margolari haren ateraldia, hark oilarrak zarpailki itxuraturik, bere mutilei debekatzen baitzien bere lantegira ezein oilar naturalik etortzera utz zezaten.

Eta gehiago beharko nuke, neure buruari distira apur baten emateko, Antinodides musikoaren asmamena, musika egin behar zuelarik manatzen baitzuen, haren aurrean edo ondoan, adilegoari ager zekizkion beste abeslari txar zenbait.

Baina ez naiz hain errazki Plutarkoz gabetzen ahal. Hain orokorra eta betea da non aldiro eta hartu duzun zernahi gai bitxitan, zure beharrearantz sartzen baita eta luzatzen baitzitu esku zabal bat aberastasun eta apaindurez akiezina. Haserretzen nau hura maiz erabiltzen dutenen ebasbideari hain ageria egoteak: ez naiz harengana hain bakanka itzultzen ahal non izterrik edo hegalki hartzen ez diodan.

Neure xede honetarako, ongi datorkit neure etxean idaztea, herri basa batean, inork laguntzen ez txandakatzen ez bainau, eskuarki bere paternosterraren latina aditzen duen gizonik ez baitut ikusten, eta frantsesez are gutiago. Hemendik kanpoan hobeki eginen nukeen, baina egin ez zatekeen hain neure izanen; eta haren helburu nagusia eta betetasuna zehazki neure izatea da. Ongi zuzenduko nuke gorabeherazko huts bat, haietaz beterik bainaiz, oharkabea bainabil; baina neure baitan arruntak eta iraunkorrak diren hutsen kentzea tradiketa litzateke. Esanen zaidanean edo nik neure buruari diodanean: "Zakarregia haiz irudietan. Hara gaskoinismo bat. Hara esaldi arriskutsu bat (ez dut baztertzen karrika frantziarren erdian erabiltzen direnetarik batere, beren erabilerari gramatikaren bidez kontra egin nahi diotenak burlatzen dira). Hara jakingabeko hitzaldi bat. Hara kontramintzezko hitzaldi bat. Hara eroegi bat. Sobera jostaketan aritzen haiz, uste izanen baita zuzen dioala itxuraz dioana. -Bai, egiten dut nik, baina nik zuzentzen dizkiat oharkabeko hutsak, ez ohizkoak. Ez ote da hala ni nonahi mintzatzen naizen molde? Ez ote dut neure burua bizirik erakusten? Aski! Nahi izan dudana egin diat: denek ezagutzen bainaute neure liburuan, eta neure liburua neure baitan."

Bada, badut izaera tximinozko eta imitatzaile bat: neurtitzen egitera nahasten nintzenean (eta ez nuen latinorik besterik egin), ageriki salatzen zuten azkenik irakurri berri nuen poeta; eta, nire lehen entseiuetarik zenbaitek arrotz-urrina dute. Parisen nonbait ere Montaignen ez bezalako moldez mintzatzen naiz. Arretaz begiratzen diodan nornahik errazki inprimatzen dit beretik zerbaite. Gogoan hartzen dudana neureganatzen dut: planta ergel bat, ihakin itsusi bat, mintzamolde irrigarri bat. Bizioak, gehiago; zauritzen nautenez geroz, atxikitzen zaizkit eta ez doazkit inarrosi gabe. Izaeraz baino gehiagotan ikusi zait biraoak egiten antzekotasunaz.

Imitazio hilgarria Alexandro erregek Indietako eskualde batean aurkitu zituen handitasunez eta indarrez izigarriak ziren ziminoena bezala. Besterik menperatzeko zailak baitziratekeen. Baina egiten ikusten duten guztiaren imitatzeko aiherrak hartzen beraiek eman zuten bidea. Zeren hortik ihiztariak ikasi baitzuten haien aitzinean aihenezko korapiloez lotu oinetakoak ezartzen, buruko moztarriak zirriztaloekin eramaten eta beren begiak lekedaz igurtzi balituzte bezala egiten. Hala gaizki bilakatu zituen ihizi haiek beren tximinozko izaerak. Beraiek lekedatu, kaprestatu eta urkatu baitzituzten beren buruak. Maiz atsegin eta mirespena dakarren beste baten keinuen eta hitzen trebeki itxuratzeko beste ahalmen hori ez da nire baitan egur puska batean baino gehiago. Neure arabera zin egiten dudanean bakarrik da, agintzetan zuzenena baita. Sokratesek zin egiten omen zuen, Zenonek orain italiarrak baliatzen diren hitz bera; Gapparik eta Pitagorasek ura eta airea.

Hain erraza naiz azalezko hunkipen horien onartzeko oharkabea non, ahoan Maiestate edo Gorentasuna hiru egunez jarraian edukirik, zortzi egun geroago itzurtzen zaizkit Bikaintasun edo Jauntasunaren ordeiz. Eta ihakinaz eta burlaz esanen nukeena, bihar seriozki esanen dut. Horregatik, idaztean, nekeago onartzen ditut gai erabiliak, beste baten bizkar iharduki ditzadan beldurrez. Gai oro berdina emankorra zait. Euli baten gainean hartzen ditut ere; eta aileza Jainkoak hemen eskuan dudan hau ez dadin hartua izan hain nahi hegaldakariaren borondateaz! Nahi dudanarekin hasten bainaiz, gaiak oro elkarri kateatuak axikitzen baitzaizkio.

Baina neure gogoaz ezatsegina zait zeren eskuarki sortzen baititu bere ameskeriarik barrenenak, zoroenak eta gehien atsegin zaizkidanak bat-batean eta gutien bilatzen ditudalarik; laster ezabatzen baitira, berehala nondik atxiki ez edukiz; zaldiz, mahaian, ohean, baina zaldiz gehiago, nire astialdirik luzeenak hor baitira. Badut ernetasun eta isiltasunarekiko xeheki jeloskorra den mintzaira bat, bortxaz mintzatzen baldin banaiz: eteten nauenak geldiarazten nau. Bidaian, bidean beharrak berak moztu ditu solasak; bestalde, maizago bidaiatzen dut luzerako solas hauei egokia zaien laguntzarik gabe, horregatik asti osoa hartzen dut neure buruarekin solastatzeko. Neure ametsekin bezala gertatzen zait; ametsetan, oroimenari gomendatzen dizkiot (zeren gogotik amesten baitut amesten dudala), eta biharamunean ongi iruditzen zait haien kolorea nolakoa zen, edo alai, edo iluna, edo bitxia; baina garaitikoan zer ziren, aurkitzera zenbat eta gehiago lehiatzen bainaiz, orduan eta gehiago hondoratzen baitut ahanzpenean. Halaber irudimenera erortzen zaizkidan zorizko hitzaldi horietarik ez zait oroimenean gelditzen irudi hutsal batez baizik, bakarrik haren bila alferrik neure buruaren hausteko eta lehiatzeko bezainbatekoa.

Hara bada, liburuak bazterrean utziz, gihartsuki eta xehekiago mintzatuz, ororen buruan aurkitzen dut maitasuna ez dela gozamen horren egarriaz besterik, desiratzen den norbaiten baitan, ez Venus nork bere untzien husteko atseginaz besterik, bizioso bilakatzen baitira neurririk ezaz. Sokratesentzat maitasuna sortzapenezko aiherra da edertasunaren bidez. Eta, maiz gogoan hartuz atsegin horren dardar irrigarriak, Zenon eta Kratipo inarrostu zituzten zentzurik gabeko mugimendu eroak eta zoroak, neurririk gabeko herra hori, maitasunaren ondorioz eztienean kolera eta krudelkeriaz aurpegi

izeki hori, eta gero harrokeria larri, larderiatsu eta geldi hori hain ekintza zoroan, eta gure atseginak eta zikinak nahasirik ezarri izana, eta atseginik gorenak ikararik eta kexarik baduela minak bezala, uste dut egia dela Platonek dioena, gizona Jainkoen jostagailua dela,

quænam ista jocandi

Sævitia! 132

eta ihakinaz utzi digula naturak gure ekintzetarik uherrena, arruntena, hortik gure berdintzeko, zoroen eta zuhurren parekatzeko, eta gu eta animaliak ere. Gizonik kontenplatzaile eta zuhurrena, molde horretan irudikatzen dudanean, zuhurrarena eta kontenplatzailearena egiten badu ahalkegabetzat daukat; horiek dira indiolarraren zangoak bezala, bere urguilua apalarazten dutenak:

ridentem dicere verum

Quid vetat? 133

Josteten artean uste serioak bazterten dituztenek, dio norbaitek, egiten dute erakusleihorik gabeko saindu baten irudiaren agurtzeko beldurrez dagoenak bezala.

Ongi jaten eta edaten dugu ihiziek bezala, baina horiek ez dira gure gogoaren eginkizunak oztopatzen dituzten ekintzak. Horietan badaukagu berorien gaineko abantaila; honek, aldiz, ezartzen du gure beste gogamen oro uztarripean, bere manu-indar inperatzailearen bidez dorpatzen eta aberetzen du Platonen baitan den teologia eta filosofia osoa; eta gainera, bera ez da horregatik kexatzen. Beste orotan gordetzen ahal duzu egokitasun zerbait; beste ekintza guztiek jasaten dituzte zuzentasunaren arauak; hau ez da soilik irudikatzen ahal biziosoa eta irrigarria ez bada. Aurkitzen diozu, ikusteko, molde zuhur eta neurtu bat? Alexandrok bazioen bere burua hilkortzat ezagutzen zuela nagusiki ekintza horretan eta lo egitean: loak itotzen eta ezabatzen ditu gure gogoaren ahalmenak; estaldurak xurgatzen eta xahutzen ditu berdin. Zinez, ezaugarri bat da ez bakarrik gure etorkizko usteldurarena, baina gure hutsalkeria eta moldegabekeriarena ere.

Alde batetik, naturak hara bulkatzen gaitu, nahi horri loturik bere ekintzetan gorena, erabilgarriena eta atsegingarriena; eta, bestaldetik, zantar eta zuzengabekoa bezala salarazten eta ihes eginarazten digu, gorriarazten eta harekiko baztertzea gomendatzen.

Ez ote gara aski basak egiten gaituen ekintza basa izendatzen dugunean?

Herriak, erlijioetan, batu dira molde askotan, hala nola, opari, argidura, intzentsatze, baraualdi, eskaintza eta, besteen artean, ekintza horren gaitzespenean. Aburu guztiak batera doaz, prepuzioaren mozketaren ohitura hain hedatuaz beste, horren zigor bat baita. Arrazoia dugu, menturaz, geure burua gaitzetsiz gizona bezalako sorkuntza ergel baten egiteagatik; ekintza ahalkegarria deituz eta ahalkegarriak ere horretarako balio duten zatiak (ordu honetan, nireak egiazki ahalkegarriak eta penagarriak dira). Pliniok aipatzen dituen eseniarrek inuderik ez zatarrik gabe iraun zuten mende askoz, molde eder horri jarraikiz, etengabe ematen zitzaientz arrotzen ostetik; herri oso bat izanik bere buruaren iraungitzera arriskatua emakumezko besarkada bati atxiki baino lehenago, eta gizonen jarraipenaren galtzera horren bidez bat moldatu baino lehenago. Zenonek ez omen zuen emakumeekiko eginkizunik ukan bere bizitzan behin baizik; eta jendetasunaz izan omen zen, ez iruditzeke sexua sobera gogorki gutiesten zuela. Sortzearen ikusteari bakoitza itzurtzen zaio, hiltzearen ikustera bakoitza leihatzen da. Suntsitzeko bilatzen da zelai zabal bat argi zabalean; egiteko, murgiltzen da zoko ilun eta gorde batean. Sortzeko, eginbeharra da gordetzea eta gorritzea; eta ospea da, eta bertute asko sortzen dira desegiten jakitetik. Bata iraina da, bestea grazia; zeren Aristotelesekin baitzioen norbaiten ontzea haren hiltzea dela, bere herriko esaldi batez.

Atenastarrek, bi ekintza horien desfaborearen parekatzeko, Delosko irla garbitu eta Apoloren aitzinean zuritu beharra edukiz, haren harresiko barreneko aldean ehorzketa eta sortzapen oro batera debekatu zuten.

Nostri nosmet pœnitet. 134

Gure izatea biziotzat jotzen dugu.

Badira jatean beren burua gordetzen duten herriak. Badakit andere bat, eta handienetarik, aburu hori berori duena, molde ezatsegina dela mastekatzea, beren grazia eta edertasunetik anitz apalarazten duena; eta ez da gogotik jendearen aitzinean agertzen gosez badago. Eta badakit gizon bat jaten ikustea edo bera ikus dadin jasaten ahal ez duena, eta lagungo orori itzurtzen zaio, bere burua betetzen duelarik husten duelarik baino gehiago.

Turkiarraren inperioan, badira gizon anitz, besteen gainetik nabarmentzeko, beren otorduak egiten dituztenean beren buruaren ikustera uzten ez dutenak; astean behin bazik jaten ez dutenak; aurpegia eta gorputzadarrak orbantzen eta ebakitzen dituztenak; inori behin ere mintzatzen ez zaizkionak; guztiak jende ameskariak beren natura uste baitute ohoratzen dutela beren burua desnaturalduz, beren gutiesteaz arrandiatzen direnak, eta beren gaizkitzeaz zuzentzen.

Zein animalia izigarria bere burua hastiatzen duena, bere atseginetik zamakatzen dutena; bere burua zorigaitzekotzat daukana!

Badira beren bizitza gordetzen dutenak,

Exilioque domos et dulcia limina mutant, 135

eta besteen ikusmenetik gerizatzen dutenak; osasun eta poztasunari nolakotasun etsai eta kaltegarriari bezala itzurtzen zaizkienak. Ez bakarrik alderdi askok, baina herri askok madarikatzen dute beren sortzea eta benedikatzen beren heriotza. Eguzkia gaitzetsirik eta iluna agurretsirik den lekua bada ere.

Ez gara argiak geure buruaren gaizki erabiltzeko ez bada; gure gogoaren indarraren egiazko xedea da, tresna galgarria eta desarautua!

O miseri! quorum gaudia crimen habent. 136

"Ai! Gizagaizoa, baduk beharrezko eragozpenik aski, eure asmamenaz berretu gabe; eta aski baldintza esteiaria haiz, artearen bidez izan gabe. Baduk zinezko eta izatezko itsustasunik aski, ametsezkorik moldatu gabe. Uste duk sobera atseginetan hagoela, heure atsegina atsekabe bilakatzen ez bazaik? Uste duk naturak behartzen dizkian eginbehar guztiak bete dituala, eta hura herbal eta astidun gelditzen dela heure baitan, hik eure burua eginbehar berrietara behartzen ez baduk? Ez haiz haren lege orokor eta dudaezinezkoen laidostatzekeo beldur, eta leihatzen haiz euretara, alderdikoiak eta ametsezkoak; eta hauek zenbat eta berezi, zalantzarri eta kontresanagoak diren orduan eta gehiago egiten duan hor heure ahalegina. Heure asmamenekeo arau positiboek betetzen eta estekatzen haute, eta eure parrokiako legeek: Jainkoarenak eta mundukoak ez dagozkik. Habil apur bat gogoeta honen adibideetan barrena, hire bizitza osoa hor duk."

Bi poeta¹³⁷ horien neurtitzek, horrela gordeki eta neurtuki lizunkoitasunaz arituz egiten duten bezala, uste dut hurbilagotik agertarazten eta argitzen dutela. Andereek bere bularra sare batez estaltzen dute, apezek gauza sakratu asko; margolariak beren egina itzaltzen dute, distira gehiagoren emateko; eta eguzki eta haize bolada islada jasangaitzagoa omen da zuzenez baino. Zuhurki erantzun zion egiptiarrak galdegin zionari: Baina badira beste gauza batzuk erakusteko gordetzen direnak. Entzun ezazu zabalago hau,

Et nudam pressi corpus adusque meum. 138

iruditzen zait zikiratzen nauela¹³⁹. Erantz beza Martzialek Venus bere nahian, ez du erdiesten hain osorik erakustea. Dena dioenak asetzen eta hastiatzen gaitu; adieraztearen beldur denak bideratzen gaitu dena baino gehiago badela uste izatera. Apaltasun mota honetan zurikeria bada, eta bereziki, hauek¹⁴⁰ egin bezala, irudimenerako hain bide ederra zabaltzen digutelarik. Eginak eta margoak ebastearen itxura behar dute.

Espainolen eta italiarren amodioa, adeitsu eta lotsatiagoa, minbera eta estaliagoa, atsegin zait. Ez dakit nork, Zahar Aroan, nahi zuen zintzurra luzatua lertxuin baten lepoa bezala luzeago dastatzeko irensten zuena. Nahi hori egokiagoa da atsegin laster eta zalu honetan, nirea bezalako izaerei ere, bat-batekotasunean bainaz biziosoa. Bere ihesaldiaren geldiarazteko eta sarreretan hedatzeko, haien artean denak balio du fabore eta saritzat: begiztada batek, agurraldi batek, hitz batek, keinu batek. Errekiaren urrinaz otordua egin lezakeenak aurrezkitze ederra eginen ote luke? Izate mamitsu hagitz eskas bati askoz ere hutsalkeria eta ameskeria sukartsu gehiago nahasten dion pasionea da: berdin ordaindu eta baliatu behar da. Irakats diezaiegun andereei beren buruaren errespetarazten, maitatzen, gure entretenitzen eta engainatzen. Lehenean egiten dugu gure ezinagoko kargaldia; hor da beti oldartasun frantsesa. Haien faboreak ttantaka isuraraziz eta banaka ezarriz, bakoitzak, azken zahartzaroa arte, aurkitzen du zerbait, bere balio eta merituen arabera. Gozamenean baizik gozamenik ez duenari, heinik gorenean baizik irabazten ez duenari, harrapatzean baizik ihiza maite ez duenari, ez dagokio gure eskolan nahastea. Zenbat eta maila eta eskalera gehiago, orduan eta goentasun eta ohore gehiago baita azken jarlekuan. Atsegin izan beharko litzaiguke zuzenduak izatea, jauregi ikusgarrietan bezala, atari eta iraganbide ezberdinetan, galeria luze eta atsegingarrietan, eta itzulinguru askotan barrena. Zatikatze hori gure erreztasunerako letorke; luzeago geldituko eta laketuko ginateke; esperantzarik ez nahikunderik gabe deus guti balio dugu. Gure nagusigoa eta jabegoa osoa ezinagoko beldurgarria zaie gure fede eta iraupenaren menpean direnez gero, aski arriskatuak daude. Bertute arraroak eta zailak dira; gureak diren bezain laster ez gara gehiago haienak:

postquam cupidæ mentis satiata libido est,

Verba nihil metuere, nihil perjuriam curant. ¹⁴¹

Eta Trasonides, gizon gazte grekoa, bere maitasunaz hain maitemindua zen non, maitale baten bihotza erdietsirik, gozatzetik baztertu baitzen loriatzen eta apasionatzen zen sutasun grinatsuen ez moteltzeko, asetzeko eta ilauntzeko gozamenaren bidez.

Kostuak gustua ematen dio jakiari. Ikus ezazu nola gure herriari berezi zaion agurtzeko moldeak uhertzen duen bere erraztasunaz musuen grazia, berorietaz baitzion Sokratesek hain ahaldun eta arriskutsuak direla gure bihotzen ebastea. Ohitura ezatsegina da eta andereei laidogarria, beren ezpainak mailegatu beharra bere lagungoan hiru lekaio dituen edonori, nardagarriagoa bada ere.

Cujus livida naribus caninis

Dependet glacies rigetque barba:

Centum occurrere malo culilingis ¹⁴²

Eta guk ere ez dugu doi irabazten: mundua zatikatua den bezala, hiru ederrentzat musukatu behar ditugu berrogeita hamar itsusi; eta urdail xamur batentzat, nire adinekoak diren bezala, musu txar batek gainetik ordaintzen du on bat.

Italian, jarraitunarena eta liluratuarena egiten dute saltzeko direnei buruz ere; eta honela defendatzen dira: “Gozamenean badirela mailak, eta zerbitzuen bidez berentzat erdietsi nahi dutela osoena dena. Gorputzaz besterik ez dute saltzen; borondatea ez daiteke salgai izan, libreegi eta bereegi baita.” Hala horiek diote borondatea bilatzen dutela eta

arrazoia dute. Borondatea da zerbitzatu eta iharduki behar dena. Hastio dut atxikimendurik gabeko gorputz bat neure irudikatzen; eta iruditzen zait Praxiteles egin zuen Venusen irudi ederraren zikintzera zihoan mutil harenaren hurbil dagoen zorakeria dela hori; edo egiptiar ero harena, momifikatzen eta baltsamatzen zuen emakume hil baten hilkiar beroturik: horrek gero Egipton egin zen legeari bidea eman baitzion, emakume gazte eta ederren gorputzak, eta etxe onekoenak, hiru egunez gordetuko zirela beren ehorzketaz arduratu behar zutenen eskuetan ezarri baino lehenago. Periandrok izigarriago egin zuen, ezkont-atxikimendua (arautu eta zilegiagoa) Melisaz, bere emazte zenaz, gozameneraino hedatu baitzuen.

Ez ote dirudi ilargiaren bolada ilargijo bat zela: Endimionez, bere maitaleaz, bestela ezin gozatuz, loaraztea hilabete askoz, eta soilik ametsetan mugitzen zen mutil baten gozamenaz askiestea.

Halaber diot gogorik edo sentimendurik gabeko gorputz bat maitatzen dela bere baimenik eta bere nahirik gabe gorputz bat maitatzen denean. Gozamenak oro ez dira berdinak: badira gozamen ahul eta ilaunak; onginahiaz beste diren mila kauek eskurarazten ahal digute andereen emaitza hori. Ez da atxikimenduaren lekukotasunik aski; zurikeria gerta daiteke besteetan bezala: batzuetan andereak ipurdi-mazel bakarrekin doaz,

tanquam thura merumque parent:

Absentem marmoreamve putes. 143

Badakizkit beren kotxea baino lehenago horren mailegatzea nahiago dutenak, eta hortik baizik harremanetan aritzen ez direnak. Begiratu behar da ea zure lagungoa atsegin zaien oraindik beste helburu baterako edo bakarrik horretarako, zalditegiko mutil handi bat bezala; zein mailatan eta saritan ezarria zaren,

tibi si datur uni,

Quo lapide illa diem candidiore notet. 144

Zer, zure ogia irudimen atseginago baten saltsan jaten badu?

Te tenet, absentes alios suspirat amores. 145

Nola? Ez ote dugu gure egunetan bat ikusi ekintza horretaz baliatzea mendeku ikaragarri baten erabilpenerako, hortik emakume zintzo baten hiltzeko eta pozointzeko, egin zuen bezala?

Italia ezagutzen dutenek ez dute sekula bitxia aurkituko baldin eta, gai honetarako, ez badut beste inon adibiderik bilatzen; zeren horretan herri hori esaten ahal baita munduko garaitikoaren irakaslea. Eskuarkiago emakume ederrak baitituzte eta guk baino itsusi gutiago; baina edertasun arraro eta bikainetan aurkitzen dut parean goazela. Eta berdin uste dut gogoetan: molde arruntetarik anitzez gehiago dute eta zozokeria alderatzerik gabe arraroagoa da ageriki; gogo berezi eta maila gorenekoetan, ez diegu ezer zor. Antzekotasun hau hedatu beharko banu, irudituko litzaidake suhertasunaz esaten ahal dela, aitzitik, haien ondoan, gure artean herrikoia eta naturala dela; baina batzuetan ikusten da haien eskuetan hain betea eta azkarra non dauzkagun adibide guztiak gainditzen baititu. Herri hartako ezkontzak honetan dabilta mainguka: haien azturak hain lege zakarra eta azpikaria ematen die emakumei non arrotzarekiko elkartzerik urrunduen baitaie hurbilena bezain larria. Lege horrek hurbiltasun guztiak halabeharrez mamitsu bilakatzen ditu; eta, dena batera baitoakie, andereek badute hagitz hautabide erraza. Eta hesi horiek hautsi badituzte, sinets ezazu su egiten dutela: *luxuria ipsis vinculis, sicut fera bestia, irritata, deinde emissa*. Bridak apur bat laxatu behar dituzte:

Vidi ego nuper equum, contra sua frena tenacem,

Ore reluctanti fulminis ire modo. 147

Lagungoarekiko nahia ilauntzen da libertate zerbait emanez.

Gutiz goiti beheiti gu zori beretsuan gabiltza. Haiek ezinagokoak dira hertsatzean, gu laxatzean. Gure herriko ohitura eder bat da gure seme-alabak onartuak izan daitezen etxe onetan nerabe moduan haziak eta heziak izateko nobleziaren eskola batean bezala. Eta jendetasunik eza eta laidoa ere omen da horretarako aitorenseme baten ukatzea. Ohartu naiz (zeren zenbat etxalde, hainbat modu eta molde ezberdin) beren ardurapeko neskei arau hertsiagoak eman nahi izan dizkieten andereek ez dutela mentura hoberik ukan. Neurtasuna behar da; beren jokamoldearen zati on bat beren zuhurtziari utzi behar zaio: zerengoz baita, nolana ere, orotarik bridatzen ahal dituen araubiderik. Baina aski egiazkoa da eskolatze libre batetik, bere eratzunak salbu, ateratzen dena hagitzez fidagarriagoa dela eskola gogor eta hertsia batetik osorik ateratzen dena baino.

Gure aitek zuzentzen zuten beren alaben jokamoldea ahalke eta beldurrari buruz (kuraiak eta nahiak berdina ziren); guk, segurantzari buruz: ez dugu horretan pikorrik ere aditzen. Emakume sarmatarrek ez dira ezein gizonekin etzaten ahal beren eskuez gerran beste bat hil ez duten artean. Niri, soilik belarrietan barrena baitut zuzenbidea, aski zait aholkurako atxikitzen bazaizkit, nire adineko lehentasunari jarraikiz. Aholkatzen diet, bada, guri bezala, abstinentzia, baina, mende hau berorren oso etsaia bada, behintzat zuhurtzia eta zintzotasuna. Zeren, Aristiporen ipuinak dioen bezala, emagalduta baten etxean sartzen ikusiz gorritzen ziren gazteei mintzatzen: “Bizioa ez ateratzea da, ez sartzea”. Bere kontzientzia baztertu nahi ez duenak bazter beza bere omena; barrenak balio ez badu ere, itxurak iraun beza ongi.

Andereen faboreen ematean luzatasuna laudoriatzen dut. Platonek erakusten du, amodio mota orotan, erraztasuna eta zalutasuna debekatua zaizkiela eskatuei. Hain ausarki osorik eta burrunban beren buruaren ematea antsiakeriazko aldi bat da, beren antze guztiarekin estali behar dutena. Beren ematean, zuhurki eta neurtuki ibiliz, hobeki engainatzen dute gure nahia eta beraiena gordetzen. Ihes ibil bitez beti gure aurrean, badiot beren buruaren harrapatzera utzi behar dutenak ere; hobeki irabazten gaituzte ihes eginez, eszitarrek bezala. Zinez, naturak ematen dien legearen arabera, haiei ez dagokie nahi izatea eta desiratzea; haien eginbeharra jasatea, obeditzea, amore ematea da; horregatik naturak eman die etengabeko ahalmen bat; guri arraroa eta dudakorra; beti dute beren ordua, gurerako prest izan daitezen: “*pati natae*” Eta naturak gure nahikundeek erakuspen eta adierazpen ageria izan dezaten nahi izan duenean, haienak gordeak eta barrenak izan daitezen egin du eta erakustaldirako desegokiak eta soilik defentsarako diren zatiez hornitu ditu.

Hau bezalako marraldiak lizentzia amazoniarrari utzi behar zaizkio: Alexandro Hirkaniatik iragaiten zelarik, Talestris, amazonen erregina, aurkitzera etorri zitzaion bere sexuko hirurehun zaindarekin, ongi zaldizkatuak eta armatuak, armada handi baten garaitikoa ondoko mendiez haraindi utzirik; eta esan zion, gora eta jendearen aitzinean, haren garaipenen eta suhertasunaren hotsak haraino erakarri zuela haren ikusteko, bere bidean eta ahalmenaren eskaintzeko haren eginkizunen laguntzarako; eta, hain eder, gazte eta azkarra aurkituz, berak, bere nolakotasun guztietan osoki betea baitzen, aholkatzen ziola elkarrekin etzan zitezen, munduko emakumerik suhartsuenagandik eta sekula bizi zen gizonik suhartsuenagandik etorkizunerako zerbait handi eta arraroa sor zedin. Alexandrok eskertu zion garaitikoagatik; baina, bere azken eskariaren betetzerako astirik emateko, hamahiru egunez gelditu zen leku horretan, ahal bezain alaiki bestakatu baitzituen hain printzesa kuraiatsuen faboretan.

Gu gara, kasik orotan, andereen ekintzen epaile zuzengabeak, haiek gurenak diren bezala. Egia aitortzen dut kalteatzen nauenean, zerbitzatzen nauen bezala. Desarautze zitala da hain maiz aldatzera bulkatzen dituen eta zernahi gaitan beren atxikimenduaren finkatzeko oztopatzen dituen, hainbat aldakuntza eta adiskide ematen

zaizkion Jainkosa horretaz ikusten den bezala; baina egia da ere amodioaren naturaren aurka dela bera bortitza ez bada, eta bortiztasunaren naturaren aurka iraunkorra bada. Eta horregatik harritzen, oihukatzen eta emakumeen baitako eritasun horren kausa, desnaturaldia eta sinestezina bezala, bilatzen dutenek zergatik ez dute ikusten zenbat aldiz onartzen duten beren baitan espanturik eta mirakulurik gabe! Harrigarriagoa litzateke, menturaz, gelditasunaren ikustea; ez da gorputzezko pasione bat bakarrik: zikoizkerian eta handinahian mugarik ez bada aurkitzen, ez da lizunkeria gehiagorik. Bizi da oraino asetasunaren ondoan; eta ez zaio iraupeneko askiespenik ez amaitzerik manatzen ahal; beti badoa bere jabegoaz haraindi; eta, beraz, emakumeei aldakortasuna barkagarriagoa zaie, menturaz, guri baino.

Guk bezala aipa dezakete amankomunean dugun berezitasun eta berritasunaren aldeko isurmena eta bigarrenik, guk ez bezala, gatuak zakuan erosten dutela (Joana Napoliko erreginak itoarazi zuen Andresoren lehen senarra bere leihoko burdinetan bere eskuz ehundu zuen urrezko eta zetazko zirriztilo batez, zeren ezkont-eskaintzetan ez baitzizkion aurkitu, haren garaiera, edertasuna, gaztetasuna eta prestutasuna ikusiz, gogoratu zitzaion esperantzari dagozkiokkeen zatirik ez ahaleginik, handik liluratua eta engainatua izan baitzen); ekintzak ahalegin gehiago duela jasankortasunak baino: horrela, beren aldetik bederen beharrerako aski badela, gure aldetik besterik gerta daitekeen artean. Platonek, honengatik, zuhurki finkatu zuen bere legeen bidez, ezkontzen egokitasunaz erabakitzeke, epaileek ikus zitzaaten mutil ezkongaiak biluts gorritan, eta neskak bakarrik gerriraino bilutsik. Gure entseiatzean, ez gaituzte aurkitzen, menturaz, beren hautakizunerako gaiak,

Experta latus, madidoque simillina lora

Inguina, nec lassa stare coacta manu,

Deserit imbelles thalamos. 149

Ez da dena borondatea zuzen ibil dadin. Ahuleziak eta ezintasunak zilegi hausten dute ezkontza bat:

Et quærendum aliunde foret nervosius illud,

Quod posset zonam solve virgineam, 150

zergatik ez? eta, bere neurriaren arabera, amodiozko elkar-aditze lizunkoiago eta biziago bat,

si blando nequeat superesse labori. 151

Baina, ez ote da ausarkeria handia gure akatsen eta ahulezien eramatea atsegin izan nahi genukeen lekura, eta gure uste ona eta gomendioa utzi nahi genukeenara?

ad unum

Mollis opus, 152

ez nuke begirunean eta errespetuan izan behar dudana pertsona bat nardatu nahi:

Fuge suspicari,

Cujus undenum trepidavit ætas,

Claudere lustrum. 153

Naturak askietsi beharko luke adin hau urriakalgarri bilakatzearekin, oraindik irrigarri bilakatu gabe. Hastio dut ikustea, astean hiruretan berotzen duen behazbete azkartasun herbal batengatik, halako garraztasunaz lehiatzen eta larritzen, sabelean argidura handi eta egiazko zerbait balu bezala: zinezko itzupa-sutaldi bat. Eta miresten dut haren egosaldia hain bizi eta zirtatsua, hain aro hormatua eta iraungia. Nahikunde hori egoki behar litzaioke gaztetasun eder baten loreari bakarrik. Fida zaitez, ikusteko, zeure baitan den sukartasun nekaezin, bete, iraunkor eta handi horren frogatzera, bide ederrean utziko zaitu! Bidal ezazu, hobeki, haurtasun beratz, harritu eta ezjakin batengana, oraindik zigorpean ikaratzen dena eta horregatik gorritzen dena

Indum sanguineo veluti violaverit ostro
Si quis ebur, vel mitra rubent ubi lilia multa

Alba rosa. 154

Biharamunean, bere laxakeria eta nabarmenkeriaren lekukoak izan diren begi eder horien gutiespena, ahalkez hil gabe, jasaten ahal duenak

Et taciti fecere tamen convitia vultus, 155

ez ditu sekula gau langile eta ekile baten ariketa bizkorragatik eroriak eta xamurtuak ikusteko asetasuna eta harrotasuna sentitu. Bakarren bat nitaz aspertzen ikusi dudanean, ez dut neurehala haren arinkeria salatu; dudatan ezarri dut arrazoa ez ote nuen gehiago naturarekiko kexu izateko. Egiarki, zuzengabeki eta jendetasunik gabe erabili nau,

Si non longa satis, si non bene mentula crassa: 156

Nimirum sapiunt, videntque parvam

Matronæ quoque mentulam illibenter, 157

eta ezinagoko kalte batekin.

Nire zatietarik bakoitzak ni egiten nau beste edozeinek bezala. Eta ezeinek ez nau honek baino berezikiagorik gizona egiten. Publikoari zor diot orokorki neure irudiaren egitea. Nire irakaspenaren zuhurtzia, egiatan, libertatetan, izatetan da, osoki; bere egiazko eginbeharren zerrendan, arau xehe, itxuratu, ohitu, probintziar horiek gutietsiz; osoki naturala, iraunkorra, orokorra, haren umeak, baina sasikumeak, jendetasuna eta zeremonia direlarik. Edukiko ditugu itxurazko bizioak izatezkoak eduki izan ditugunean. Hauetan egiten dugunean besteetara lasterkatuko gara, aurkitzen badugu lasterkatu behar dela. Zeren arriskua baita eginbehar berriak ametsetan asma ditzagun eginbehar naturalekiko gure utzikeriaren zuritzeko eta nahasteko. Eta hala ikusten da hutsak krimenak diren lekuetan krimenak hutsik besterik ez direnean; jendetasunaren legeak arraroak eta laxoak diren herrietan, lege zahar eta etorkizkoak hobeki beteak. Hainbat eginbeharren andana zenbatezinak gure axola itotzen, ilauntzen eta ezabatzen baitu. Gauza xehekiko lehiak beharrezkoetarik baztertzen gaitu. O gizon arin horiek hartzen duten bide erraza, gurearekin konparatuz! Horiek dira apaintzen eta elkarri ordaintzen dizkiogun axolak; baina ez dugu ordaintzen, aitzitik, berretzen dugu geure zati ahalkegarrien inguruan geure zerrendak eta zirtzilak goratzen dituen epaile handi horren aldeko zorra, ez baita engainatzen orotarik ikusten gaituenean, gure zaborrik barren eta ezagerienerraino. Gure ahalke birjinen zintzotasun onuragarria, ageritasun hori oztopatzen ahalko balio.

Hondarrean, hitzezko sineskeria hain xehekoi horretarik gizona desergelduko lukeenak ez luke mundura galtze handirik ekarriko. Gure bizitza alde zoromenean, alde zuhurtzian da. Begirunez eta araez baizik idazten ez duenak atzean uzten du erdia baino gehiago. Ez naiz neure aurrean desenkusutzen; eta eginen banu, gehiago desenkusatuko nuke neure burua neure aitzakiengatik beste edozein zatirengatik baino. Uste zenbaiten aurrean desenkusutzen naiz, alde ditudan baino kopuru handiagotan baititut. Haien begirunez, oraino hau esanen dut (zeren bakoitzaren askiesteko nahia baitut, halarik ere gauza hagitx zaila *esse unum hominem accommodatum ad tantam morum ac sermonum et voluntatum varietatem*) ez dutela, berez, nire kontra zeren egon duela mende asko onartu eta finkatu autoritateei esanarazten diedanarengatik, eta ez dela arrazoa zuzengabeki uka diezadaten mende honetan gure eliza gizon sonatuek beraiek gozatzen duten baimena. Hona bi:

Rimula, dispeream, ni monogramma tua est. 159

Adiskide baten zakilak asetzen eta ferekatzen du. 160

Zer, beste hainbat? Moldezketasuna maite dut; eta ez dut xedetan mintzamolde nabarmen hau hautatu: naturak egin du niretzat. Ez dut ohitura onartuaren kontrakoak

diren beste moduak baino gehiago laudoriatzen; baina desenkusutzen dut eta salaketa baztertzen gorabehera berezi eta orokor zenbaitengatik.

Jarrai dezagun. Halaber, nondik datorke beren bizkar faboratzen zaituzten andereen gainean hartzen duzun indarka kenduriko erabateko manamendu hori?

Si furtiva dedit nigra munuscula nocte. 161

Hartaz laster hartzen baituzu senarrezko interesa, hoztasuna eta nagusigoa. Harreman librea da: zergatik ez zatzaizkio zeure buruari kexatzen nahi duzunarengatik? Ez dago manurik borondatezko gauzen gainean.

Moldearen aurka da, baina egia da, hala ere, harreman hau erabili dudala, neure aroan eta bere izaerak jasaten ahal dueneraino, beste edozein harreman bezain kontzienteki eta zuzenbidezko modu zerbaitekin, eta neure atxikimenduaz ez diedala sentitzen nuenaz baizik adierazi, deblauki agertaraziz haren beherapena, indarra eta sortzapena, oldarraldiak eta gibelapenak. Ez gabilta beti hein berean. Hain zuhurra izan naiz agintzeko non uste dut agindua eta zor izana baino gehiago bete dudala. Neure baitan emakumeek aurkitu dute fideltasuna beren arintasunaren zerbitzuan ere: badiot arintasun aitortua eta batzuetan ugaldia. Ez dut sekula haiekin harremanik hautsi atxikitzen nintzaien artean, hari baten puntatik baizik ez balitz ere; eta, zernahi bide eman badidate ere, ez dut sekula gutiespen eta gorrotaraino hautsi; zeren halako faboreek, harremanik ahalkegarrienen bidez erdietsiak badira ere, oraino behartzen bainaute onginahi zerbaiteara. Batzuetan ikusarazi diet kolera eta jasangaizkeria apur bat beren amarru eta itzurbide eta gure erantzunen heinean: zeren, izaeraz, maiz neure harremanak kalteatzen dituzten bat-bateko oldarraldien menpekoa bainaiz, aldi arinak eta laburrak badira ere.

Nire aburumenaren libertatea entseiatu nahi izan badute, ez dut ahoan bilorik izan haiei aitazko oharpen sarkorren adierazteko eta erredura zuten lekuan ziztatzeko. Nitaz kexatzekorik eman badiet gehiago izan da neure baitan erabilpen modernorako ergelki kontzientziadun zen maitasun bat aurkiturik. Neure hitza bete dut errazki libratzen ahalko nintzatekeen gauzetan; batzuetan errendatzen baitziren ohorearekin eta irabazleak errazki faltsutzen ahal zituen baldintzen arabera. Haien ohorearen alde, behin baino gehiagotan geldiarazi dut atsegina bere heinik gorenean; eta, arrazoiak hertsaten ninduenean, neure buruaren aurka armatu ditut, eta beraien bidez ibili izan ziratekeen baino segurkiago eta larriago jokatzen ziren neure arauen bidez, osoki emanak zirelarik. Ahal izan dudana bezainbat, bakarrik neure gainean hartzen nuen gure hitzarmenen arriskua, beraien arintzeko. Eta gure azpilanak erabili ditut garratz eta ustegabekoenean barrena, susmopean gutiago egoteko, eta bestalde, neure ustez, hurbilgarriagoa izateko. Berezi irekiak dira berez gordeak dauzkaten lekuetarik. Hain beldurgarriak ez diren gauzak ez dira hain defendatuak eta zainduak: errazkiago ausartzen ahal zara inork uste ez duen ausartuko zaren horretara, nekeziaren bidez erraz bilakatzen baita.

Sekula inork ez zituen bere hurbilketak hain nabarmenki sexualak eduki. Maitabide hau gehiago da arauaren bidez; baina zein irrigarria zaien gure jendeei eta zein guti eraginkorra den, nork daki nik baino hobeki? Baina ez naiz dolutuko: ez dut gehiago galtzekorik;

me tabula sacer

Votiva paries indicat uvida

Suspendisse potenti

Vestimenta maris Deo. 162

Ordu honetan zabalik mintzatzeko aroa da. Baina beste bati bezala menturaz esanen nuke: “Ametsetan arai haiz adiskide, hire aroko maitasunak harreman guti dik fede eta zintzotasunarekin,”

hæc si tu postules

Ratione certa facere, nihilo plus agas,

Quam si des operam, ut cum ratione insanias; 163

halaber, aitzitik, berriz hastea gertatuko balitzait, zinez abiatze eta aitzinatze berean litzateke, antzuagoa ahal balitzait ere. Dorpezia eta ergelkeria barkagarriak dira ekintza gaitzesgarri batean. Zenbat eta urrunagoa naizen haien moldetik, orduan eta hurbilago natzaion neureari.

Gainerakoan, harreman honetan, ez nuen neure burua osoki joatera uzten; atsegin zitzaidan baina ez zitzaidan ahantzi; osorik gordetzen nuen naturak eman didan zentzu eta neurtasun apur hau, bere eta neure zerbitzurako; hunkipen apur bat, baina ameskeriarik batere. Nire kontzientzia lotzen zen ere, lizunkeria eta laxakeriaraino; baina eskertxar, hitz-jate, gaiztakeria eta krudelkeriaraino ez. Ez nuke bizio horren atsegina zernahi kostutan erosiko, eta askiesten nintzen duen gustu berezko eta soilarekin: *Nullum intra se vitium est*. Kasik berdin hastio dut astialdi zimeldu eta moteldu bat nola behartze arantzatsu eta nekagarri bat. Batak hertsatzen nau, besteak lokartzen; zauriak maite ditut ubeldurak bezainbat, eta sakiak makilkadak bezainbat. Harreman honetan aurkitu dut, egokiago nintzaionean, neurtasun zuzen bat bi mutur horien artean. Maitasuna inarrosaldi erne, bizi eta alai bat da; ez nintzen hartaz nahasirik ez goibeldurik, baina beroturik eta aldaraturik ere: hor gelditu behar da; bakarrik zoroentzat kaltegarria da.

Gizon gazte batek Panezio filosofoari galdegiten zion ea zuhurrari ongi litzaiokeen maitemindurik izatea: "Utz dezagun hor zuhurra, erantzun zuen, baina hi eta biok, hala ez baikara, ez gaitezen halako gauza mugitu eta bortitzean sar, beste baten esklabu egiten baikaitu eta geure aitzinean gutiesgarri bilakatzen" Egia zioen, ez baita berez hain nahasgarri den gauza bat berari eusteko gai ez den eta Agesilaoren hitza, zuhurtzia eta maitasuna ez daitezkeela elkar, egitez irabazteko gai ez den gogo batengan fidatu. Lan hutsal bat da, egia da, desagokia, ahalkegarria eta zuzengabekoa; baina, modu honetan erabiliz, uste dut osasungarria eta gogo eta gorputz pisutsu baten sotiltzeko egokia; eta, sendagile bezala, manatuko nioke nire zoriko eta baldintzeko gizon bati, beste edozein errezeta bezain gogotik, iratzartzeko eta sasoian iraunarazteko urteetan aitzindurik, eta zahartzaroaren harrapatzetik berandutzeko. Zahartzaroko inguru-auzunetan garen artean, oraino pultsuak danbatzen duenean,

Dum nova canities, dum prima et recta senectus,

Dum superest Lachesi quod torqueat, et pedibus me

Porto meis, nullo dextram subeunte bacillo, 165

honek bezalako inarrosaldi ausikari batek eskatuak eta ferekatuak izateko beharra dugu. Ikus ezazu zenbat gaztetasun, azkartasun eta alaitasun eman dion Anakreon zuhurrari. Eta Sokrates, naizen baino zaharragoa, amodiozko gai batez mintzatuz: "Haren sorbaldaren kontra neureaz bermaturik, zioen, eta nire burua harenari hurbildurik, liburu baten elkarrekin so egiten genuenean, sentitu nuen, gezurrik gabe, bat-batean ziztaldi bat bizkarrean ihizi baten ausiki batena bezala, eta bost egun geroago inurritzen ninduen eta bihotzean ezarri zidan etengabeko hatz-min bat." Ukialdi batek, eta zorizkoak, eta sorbalda batean, adinaz hoztu eta laxatu gogo bat, giza gogoetan lehena neurtasunean, berotu behar? Zergatik ez, bada? Sokrates gizona zen; eta ez zuen besterik izan ez eman nahi.

Filosofia ez doa atsegin naturalen aurka, beraietan neurria den ber, eta neurtasuna predikatzen du, ez ihesaldia; bere ahaleginaren indarra atsegin arrotz eta sasikoen aurka erabiltzen du. Baitio gorputzaren nahiak ez direla gogoaren bidez berretuak izan behar; eta argiki ohartarazten digu ez nahi izateko gure gosearen iratzartzea asetasunaren bidez, ez nahi izateko sabelaren galkatzea bete beharrean, nekezian ezartzen gaituen gozamen eta aldaratzen eta gosetzen gaituen jaki eta edari orotarik baztertze;

maitasunaren zerbitzutan, gorputzaren beharra soilik asetzen duen gai baten hartzea manatzen digun bezala; gogo hunkitzen ez duena, honek ez baitu hor eginkizunik, baina gorputzari mantsoki jarraiki eta lagundu. Baina ez ote dut arrazoirik uste izateko arau hauek, nire ustez gogorkeria apur bat baitute, bere ofizioa dagien gorputz bati dagozkiola, eta gorputz erori bati, urdail behekitu bati bezala, desenkusagarri zaiola berotzea eta ernatzea arteaz, eta, ametsen bidez nahiaren eta alaitasunaren itzularaztea, berez galdu dituenek geroz?

Ez ote dezakegu esan, lurreko gartzelaldi hau den artean, ez dela geure baitan soilik gorputzezko edo izpirituzko ezer ere, eta laidogarriki urratzen dugula gizon osoki bizi bat; eta dirudiela arrazoia dela jo dezagun atseginaren erabilerarako minaren alderako egiten dugun bezain faboratuki? Mina (adibidez) betetasunerainoko bortitza zen sainduen ariman penitentziaren bidez; gorputzak parte hartzen zuen naturalki beren partzuergoaren eskubideagatik, eta, hala ere, zati guti izan zezakeen horren kausa: bai, ez dira askietsi soilik jarraiki eta lagun zezan arima atsekabetua; beraiek atsekabetu dute oinaze handiez eta bereziez, batak eta besteak, arimak eta gorputzak, gizona minean murgil zezaten, osasungarriagoa baitzen garratzagoa zen bezainbat.

Halako batean, ez ote da zuzengabea arimaren ezitzea gorputzezko atseginetan, eta esatea herrestaka eraman behar dela beharkunde eta hertsatze bortxatu eta zerbitzari zerbaitetara bezala? Arimari gehiago dagokio atseginen berotzea eta faboratzea, haietara agertzea eta gomitatzea, manatzeko kargua baitagokio; dagokion bezala, nire ustez, komeni zaizkion atseginetan, berauen baldintzak dakarten sentimendu osoaren iradokitzea eta sarraraztea gorputzean, eta ikertzea eztiak eta osasungarriak izan zekizkion. Zeren arrazoia baita, dioten bezala, gorputzak ez diezaiela bere nahikundeei jarraiki izpirituaren kaltetan; baina zergatik ez da arrazoia ere izpirituak ez diezaiela berei jarraiki gorputzaren kaltetan?

Hatsetan iraunarazten nauen beste pasionerik ez dut. Nik bezala, ofizio zehatzik ez duten besteen baitan zikoizkeriak, handinahiak, liskarrek, auziek egiten dutena amodioak errazago eginen luke: itzuliko zidakeen ernetasuna, neurtasuna, grazia, nire buruaren zainketa; nire itxura segurtatuko luke zaharrieraren keinuek, keinu moldegabe eta urrikalgarri horiek, ustel ez dezaten, berriz bideratuko ninduke estudio sendo eta zuhurretara, nondik eta apreziatuago eta maitatuago bilakatuko bainintzateke, nire gogoari kenduz bere buruaren eta adinaren etsipena, eta bere baitara bilazaraziz; desbideratuko ninduke honelako adinean astialdiak eta gure osasunaren egoera txarrak zamakatzen dizkiguten mila gogoeta aspergarritarik, mila neke goibetarik; ametsetan bederen birberotuko luke naturak uzten duen odol hau; kokotsa bermatuko lioke eta zainak luzatuko abiadura handian bere hondamen aldera doan gizon gaizo honi.

Baina ongi aditzen dut berreskuratzeko aski neke den erraztasun bat dela; ahuleziaz eta esperientzia luzeaz, gure gustua xamurrago eta finago bilakatu da; gehiago eskatzen dugu, gutiago ekartzen dugunean; gehien hautatu nahi dugu, onartuak izatea gutien merezi dugunean; geure burua hala ezaguturik, ausartzia gutiago eta mesfidantza gehiago dugu; gure eta haien baldintza ezaguturik, deusek ez digu segurtatzen ahal maitatuak garela. Ahalke naiz gazteria berde eta irakin horren erdian egoteaz,

Cujus in indomito constantior inguine nervus,

Quam nova collibus arbor inhæret. 166

Zergatik joan behar genuke geure eskasgoaren agertzera alaitasun horren erdira?

Possint ut juvenes visere fervidi,

Multo non sine risu,

Dilapsam in cineres facem? 167

Indarra eta arrazoia dute berentzat; egin diezaiogun lekua, ez dugu gehiago zer eustekorik.

Edertasun sorberriaren hozidura horrek ez du bere burua uzten hain esku zakarrez erabiltzera eta soilik materialak diren bideez eskuztatzen. Zeren, filosofo zahar hark lasterkatzen zuen neskatala baten grazia onaren irabazten jakin ez baitzuen burlaz aritzen zitzaionari erantzun bezala: “Nire adiskidea, amua ez zaiok hain gazta berriari atxikitzen.”

Bada, harremanen eta elkartzeen beharra duen salerospen bat da; onartzen ditugun beste atseginak ordaintzen ahal dira mota ezberdineko sarien bidez; baina hau diru mota berean ordaintzen da soilik. Zinez, josteta honetan, egiten dudak atseginak sentitzen dudanak baino eztiago ferekatzen du neure irudimena. Bada, ez da batere eskuzabala atsegin erdiesten ahal duena ematen ez duenean: gogo zital bat da, dena zorretan nahi baitu eta atsegin baitu zamagarria zaien pertsonekin harremanetan egotean. Ez da hain edertasun, ez grazia, ez fabore bikainik sari horretan desiratzeko ahal duen gizon zintzorik. Andereek ez badigute onik egiten ahal urrikariz baizik, askoz ere nahiago dut ez bizitzea, limosnaz bizitzea baino lehen. Nahi nuke haiei eskatzeko eskubidea eduki, Italian errekeritzen ikusi dudak moldean: *Fate ben per voi*; edo Zirok bere soldaduak sustatzen zituen moduan: *Bere burua maite duenak jarraiki diezadan*.

“Bil zaitez, esanen zait, zeure baldintzakoengana, zori bereko lagungoak errazago egingen dizu” -O antolabide zozoa eta motela!

Nolo

Barbam vellere mortuo leoni. 169

Xenofonek erantzuki eta salabidetzat aurkitzen du, Menoni buruz, maitasunean lorealdia histua zuten gaiak erabiltzen baitzituen. Atsegin gehiago aurkitzen dut soilik bi edertasun gazteen nahasmen zuzen eta eztiaren ikustean edo soilik irudimenez gogoratzean, neronek nahasmen ilun eta moldegabe baten bigarren partaidearen egitean. Ametsezko nahikunde hori Galba enperadoreari uzten diot, haragi gogor eta zaharrei baizik lotzen ez zitzaiona; eta gaizo esteiari hari,

O ego di' faciant talem te cernere possim,

Charaque mutatis oscula ferre comis,

Amplectique meis corpus non pingue lacertis! 170

Eta, lehen itsustasunen artean, edertasun artifizial eta sofistikuak kontatzen ditut. Emones, Kioko mutil gaztea, uste izanez apainketa ederrez naturak ukatzen zion edertasunaren erdiestea, Artzesilao filosofoari agertu zitzaion eta galdegin zion zuhur bat maitemintzen ahal zen: “Bai, hain segur, erantzun zion bestea, hire bezalako edertasun apaindu eta sofistiku batez ez den ver.” Itsustasun eta zahartasun aitortu bat ez da, nire irudiko, beste margotu eta leundu bat bezain zahar eta itsusi.

Ez dakidan zintzurretik atxiki, baina esanen dut: amodioa ez zait berez eta naturalki bere sasoian iruditzen haurtzaroaren auzokidea den adinean baizik,

Quem si puellarum insereres choro,

Mille sagaces falleret hospites

Discrimen obscurum, solutis

Crinibus ambiguoque vultu. 171

Eta edertasuna berdin.

Zeren Homerok hedatzen baitu kokotsa iluntzen hasten den arte eta Platonek berak lore arraroa bezala azpimarratu baitu. Eta ageria da zergatik Dio sofistak gaztaroaren lehen biloxkak Aristogitonak eta Harmodioak¹⁷² deitzen zituen. Gizontasunean, jada bere lekutik kanpoan aurkitzen dut. Zahartzaroan ez aipatzeko:

Importunus enim transvolat aridas

Quercus. 173

Eta Nafarroako erregina Margaritak, emakume bezala, urrunez luzatzen du emakumeen abantaila, manatuz aroa dela, hogeita hamar urtetan, ederren izenburua alda dezaten onen izenburuaren hartzeko.

Zenbat eta laburragoa ematen baitiogu geure bizien gaineko jabegoa, hartaz hainbat hobeki baliatzen baikara. Ikus ezazu haren itxura: haur kokots bat da. Nork ez daki haren eskolan antolabide ororen alderantziz ibiltzen dela? Estudioa, ariketa, erabilera, jakinezarako bideak dira: hasberriek irakasten dute. *Amor ordinem nescit*. Egiatzki, bere ibilerak garbo gehiago du, oharkabeziaz eta ahalketasunez nahasia delarik; hutsek, kontrako gertakariak, zorrozatasuna eta grazia ematen diote; gosetia eta nahikeriatsua den ber, berdin da zuhurra bada. Ikus ezazu nola doan zalantzan, zehaldoka eta zoraxka bezala; zepoan ezartzen da arteaz eta zuhurtziaz gidatzen denean, haren jainkozko libertatea bortxatzen da esku bilotsu eta zakarren menpean ezartzen denean.

Bestalde, anderee askotan aditu diet adimen guztiz izpirituzko hori laudoriatuz eta hor zentzuek duten interesa kontutan hartzea gutietsiz. Denak balio du; baina esan dezaket maiz ikusi dudala haien adimenen ahulezia desenkusatu dugula beraien gorputzen edertasunen alde; baina, adimenaren edertasunaren alde, zuhur eta helduagoa bada ere, den gutienik ere beherapenean erortzen den gorputz bati eskua luzatu nahi dioten andererik oraindik ez dut ikusi. Zergatik ez zaio emakume bati gorputzetik gogorako esteka sokratiko noble horrenganako nahikeria gogoratzen, adimen eta sorkuntza filosofiko eta izpirituzko bat bere izterren saritan, goratzen ahal zituen baliorik gorenean, erosiz? Platonek bere legeetan manatzen du gerran balentria nabarmen eta onuragarri bat egin izan duena, gerra berorren garaian eta bere itsustasunari edo adinari begiratu gabe, ez dadin errefusaturik izan ahal berak nahi duenaren musukatzetik edo beste amodiozko faboretik. Soldaduzko suhartasunaren gomendiotan hain zuzen aurkitzen duena, ez ote daiteke izan ere beste balore zerbaiten gomendiotan? Eta zergatik ez zaio emakume bati bere lagunei amodio kasto horren ospearean predikatzeko nahikeria gogoratzen? Kasto, bai, ongi diot,

nam si quando ad praelia ventum est,

Ut quondam in stipulis magnus sine viribus ignis

Incassum fuit. 175

Gogoan itotzen diren bizioak ez dira makurrenak.

Talata jario batetik, nozbait ere jario bortitza eta kaltegarria, atera zaidan xehetasun nabarmen honekin bukatzeko,

Ut missum sponsi furtivo munere malum

Procurrit casto virginis e gremio,

Quod miseræ oblite molli sub veste locatum,

Dum adventu matris prosilit, excutitur,

Atque illud prono præceps agitur decursu;

Huic manat tristi conscius ore rubor; 176

badiot arrak eta emeak molde berean ezarriak direla; hezkundeaz eta ohituraz landa, ezberdintasuna ez da handia.

Platonek, bere errepublikan, berdin deitzen ditu batzuk eta besteak estudio, ariketa, kargu, gerrako ala bakeko ofizio guztien elkargora; eta Antistenesek kentzen du berezitasun oro haien bertutearen eta gurearen artean.

Askoz errezagoa da sexu baten salatzea bestearen desenkusatzea baino. Esaten dena: zozoak beleari ipurbeltz.

VI

Ibilgailuez

Aski egiaztatzeko erraza da autore handiak, kausei buruz idaztean, ez direla bakarrik egiazkotzat dauzkatenaz baliatzen, baina oraino ere sinesten ez dituztenez, asmamen eta

edertasun zerbait duten ber. Aski egiazki eta onuragarriki diote, argiki baldin badiote. Ez gara kausa nagusiari buruz seguruak izaten ahal; asko metatzen ditugu, ea menturaz zenbaki horretan aurkituko ote den,

Namque unam dicere causam

Non satis est, verum plures, unde una tamen sit. 177

Galdegiten didazu nondik datorren urtzintz egiten duenaren benedikatzeko ohitura? Hiru haize mota sortzen ditugu: azpitik ateratzen dena zikinegia da; ahotik ateratzen denak badakar sabelkeriaren erantzuki zerbait; hirugarrena urzintza da; eta, burutik eta laidorik gabe baitator, onarpen zintzo hori egiten diogu. Ez zaitez sotilezia honetaz burla; Aristotelesena omen da.

Plutarkoren baitan (ezagutzen ditudan autore guztietarik artean naturarekin eta adimena jakintzarekin hobekien nahasi duena baita) uste dut ikusi dudala, itsasoz bidaiatzen dutenei gertatzen zaien urdaileko nahasmenaren kausa azaltzen, hori beldurretik datorkiela, arrazoi zerbait aurkiturik nondik eta frogatzen baitu beldurrak halako ondorioa sor dezakeela. Nik, horri arras emana bainaiz, ongi badakit kausa hori ez dagokidala, eta ez argudioz baina beharrezko esperientziaz badakit. Esan izan zaidana aipatu gabe: berdin gertatzen zaiela abereei, eta bereziki zerriei, ezerein arrisku-oharbiderik izan gabe; eta neure ezagun batek bere lekukotasuna bezala aipatu didana: horri arras emana izanik, oka egiteko gogoia iragan zitzaiola bizpahiru aldiz, ekaitz handi batean beldurrez ikaraturik egonez, zahar horri bezala: *Pejus vexebar quam ut periculum mihi succurreret*; nik ez nuen sekula ur gainean beldurrik izan, beste inon izan ez dudana bezala (eta maiz gertatu dira bidezkoak, heriotza hala baldin bada) nahasi edo itsutu ninduenik. Inoiz beldurra sortzen da adimen gabetik, bihotz gabetik bezala. Ikusi ditudan arrisku guztiak, begiak zabalik, ikusmena libre, sendo eta osorik, izan da; kuraia behar da ere beldurtzeko. Horrek balio izan dit, inoiz, besteei ez bezala, neure ihesaldiaren zuzentzeko eta manupean edukitzeko, beldurrik gabe ez bazen ere, bai bederen ikararik eta harrimenik gabe izan zedin; ihesaldia hunkitua zen, baina ez zozotua ez etsitua.

Gogo handiak aski urrunago doaz, eta erakusten dituzte ez bakarrik ihesaldi lasaiak eta sendoak, baina larriak ere. Aipa dezagun Alzibiadesek kontatzen duen Sokratesen ihesaldia, bere armakidea baitzen: "Aurkitu nuen, dio, gure armadaren galeraren ondoren, bera eta Lakes, iheslarien artean azkenak; eta ikusi nuen ni osoki lasai eta segurtasunean nintzelarik, zeren zaldi on batez bainengoen eta bera oinez, eta hala gudukatu genuen. Lehenik ohartu nintzen zenbat prestutasun eta erabakimendu erakusten zuen Lakesen ondoan, eta gero bere ibileraren harrotasuna, inolako aldakuntzarik gabe bere ohizkoa bezalakoa zena, ikusmena sendo eta arautua, ohartzuz eta gogoan hartuz bere inguruan gertatzen zena, begiratzuz behin batzuei behin besteei, lagun ala etsai, batzuk kuraiatzen zituen eta besteei bere odolaren garesti saltzeko prest zegoela adierazten zien modu batez; eta hala salbatu ziren: zeren ez baitzaie halakoei gogotik oldartzen; ikaratien ondotik lasterkatzen ohi da." Horra kapitain handi horren lekukotasuna, irakasten baitigu, egunero egiaztatzen duguna, deusek ez gaituela galbideetara hainbat eramaten nola beraietarik itzurtzeko gose neurgabe batek. *Quo timoris minus est, eo minus ferme periculi est*. Gure jendeak gaizki dio: hori heriotzaren beldur da, adierazi nahi duenean gogoan duela eta aurrikusten duela. Aurrikuspena berdin komeni zaio ongi eta gaizki dagokigunari. Galbidearen gogoan hartzea eta neurtzea inola ere hartaz harritzearen kontrarioa da.

Ez naiz aski azkarrik sentitzen beldurraren pasione horren, ez beste pasione gogor baten ukaldia eta bortiztasunaren jasateko. Behin hark garaiturik eta lurreraturik banintz, ez nintzateke behin ere osoki zutituko. Nire gogoia bere txangatik aterako lukeenak ez luke sekula berriz bere lekuan zuzen ezarriko; sobera biziki eta barrenki ikertzen eta bilatzen

du bere burua eta, horregatik, ez luke inoiz ere bere burua zulatuko zukeen zauria sendatuko eta bermatuko. Ongi gertatu zait oraindik ezekin eritasunek ez baitit aldaratu. Datorkidan oldarraldi orotan agertzen eta oposatzen natzaio neure modurik gorenean; horrela, garaituko nindukeen lehenak defentsabiderik gabe ezarriko ninduke. Ez dut bat baino gehiagorik; uholdeak nonahi ere gainditzen baitu nire harresia, horra ni irekia eta itoa antolabiderik gabe. Epikurok badio zuhurra ez dela sekula egoera kontrario batera iragaiten ahal. Nik badut nonbait ere zuhurtitz horren kontrarioa den uste bat: behin batez arras eroa izan dena ez da behin ere arras zuhurra izanen.

Jainkoak hotza ematen du jantziaren arabera, eta pasioneak ematen dizkit haiei eusteko dudaren moduan arabera. Naturak, saiheztetik desestaliz, bestetik estali nau; indarrez desarmatu naularik, soraiotasunez eta ohartasun arautu edo moteldu batez armatu nau.

Bada, ez dut luzaz jasaten ahal (eta gaztaroan nekeago jasaten nuen) orgarik, ez andarik, ez ontzirik; eta zaldiz ez den ibilgailu oro hastiatzen dut, hirian nola landetan. Baina anda jasaten ahal dut orga bat baino gutiago eta, arrazoi beragatik, ur gaineko inarrosaldi zakar bat, beldurra sortzen duena, eguraldi lasaian sentitzen dena baino errazago. Arraunek, gure azpian ontzia eramanez, ematen duten inarrosaldi arin horren bidez nahasten sentitzen ditut, ez dakit nola, burua eta urdaila; neure azpian ikaratzen den jarlekurik jasaten ahal ez dudana bezala. Belak edo uraren joairak berdin garamatzanean edo tiraka garraiatzen gaituenean, inarrosaldi bateratu horrek ez nau inola ere zauritzen: higialdi etendu bat da ofendatzen nauena, eta ilaundua denean areago. Ez dut haren moldeak besterik deskribatzen ahal. Sendagileek manatu didate sabelazpiaren hertsatzea eta estekatzea oihala batez ez behar horren antolabiderako; ez dut entseiatu ere, neure baitan diren akatsen neurez borrokatzeko eta menperatzeko ohitura baitut.

Horretaz oroimena aski informaturik banu ere ez nuke hemen astirik emanen historiek agertzen diguten gerrarako zerbitzuetan zaldiorgen aniztasun mugagabearen esaten, ezberdinak baitziren herrien eta mendeen arabera eta uste dut ere eragin eta premiazkotasun handikoak zirela ere; miresgarria baita haien berri oro galdu dugula. Bakarrik hau esanen dut, arras berriki, gure gurasoen aroan, hungariarrek hagitzen onuragarriki erabili zituztela turkiarren aurka, bakoitzean ezkutari bat eta mosketari bat baitzen, eta arkabuz andana bat lerrokaturik, prest eta kargaturik: dena ezkutu-errela batez gerizaturik, itsasontzi baten moduan. Beren guduan ihardukitzen zuten hiru mila halako orgarekin, eta, kanoiak jo ondoren, aitzinarazten zituzten eta etsaiei igortzen zieten sutaldi hori garaitukoak etorri baino lehenago, gudaloste arin bat baitzen; edo etsaien gudalosteen erdian sartzen zituzten hausteko eta zabaltzeko, bestalde haietaz baliatzen ahal ziren leku arriskatueta barrera zihoan gudalostearen gerizatzeko, edo lasterka aterbe baten estaltzeko eta gotortzeko. Nire aroan, gure mugetarik batean, aitoren seme bat, bere burua ezin erabiliz eta bere pisuaren gai litzatekeen zaldirik ez aurkituz, auzi bat edukiz, herrian barrera bazebilen deskribatu bezalako orga batez, eta hagitzen ongi aurkitzen zen. Baina utz ditzagun gerra-orga horiek. Gure lehen arrazako erregeak herrian barrera bazebiltzan lau idik garraiatu orga batez.

Erroman, Marko Antonio izan zen lehendabizikoa bere burua garraiarazi zuena lehoi uztartuak zeuzkan orga batez, eta berarekin zeraman neska musikari bat. Heliogabalok beste hainbeste egin zuen geroago, bere burua Zibeles jainkoen ama izendatuz, eta tigreek garraiatua, Bako jainkoa itxuratuz; inoiz ere bi orein uztartu zizkion bere organi, eta beste behin lau zakur, eta oraindik lau neska bilutsik, hauek garraiaraziz ospe handitan bera bilutsik zela ere. Firmo enperadoreak bere orga eramanez zuten handitasun miresgarriko ostruka batzuei, halako moldean non gehiago ematen baitzuten hegaka zebilela zirriketan baino. Asmamen hauen bitxitasunak gogoan ezartzen dit beste ameskeria hau: erregeen baitan gogo ahulezia mota bat dela, eta zer diren aski ez

sentitzeko ezaugarri bat, ihardukitzea beren buruaren balioarazteko eta apaintzeko ezinagoko gastuen bidez. Gauza barkagarria litzateke atzerrian; baina, bere azpikoen artean, dena ahal duen lekuan, bere duintasunetik ateratzen du gauzatzen ahal duen ohorezko mailarik gorena. Uste dudan bezala aitorenseme bati soberazkoa zaiola bere pribatuan apainki janzte; bere etxeak, bizimoduak, bere sukaldeak, aski erantzuten dute bere izenean.

Isokratesek bere erregeri ematen dion aholkua ez zait arrazoirik gabe iruditzen: “Izan bedi ospetsua moble eta tresnetan, iraupeneko gastua denez geroz, ondokoenganaino iragaiten dena; eta erabilepenetik eta oroimenetik doazen handitasunetarik ihes egin beza”.

Mutil gazte nintzelarik maite nuen neure buruaren ongi janzte, beste apaindurarik ezean, eta ongi zegokidan; zenbaiten soinean jantzi ederrak nigarrez ari dira. Baditugu kontu miresgarriak gure erregeen zuhertasuna beren buruari eta beren emaitzei dagokienez; errege handiak omenean, suhertasunean eta ontasunean. Demostenesek bortizki gudukatzen du diru publikoak joko eta besteen ospakizunei ematen zizkien bere hiriko legearen aurka; nahi du hiriko handitasuna itsasontzi ongi tresnatuetan eta armada ongi hornituetan erakutsia izan dadin.

Eta arrazoiarekin salatzen da Teofrasto *Aberastasunez* liburuan aburu kontrario baten finkatzeagatik, eta aberastasunaren egiazko fruitua halako gastu mota zela sostengatzeagatik. Horiek dira, dio Aristotelese, bakarrik jende xeherik arruntenari dagozkion atseginak, asetu bezain laster oroimenetik ezabatzen direnak eta ezein gizon adimentsu eta larrik onesten ahal ez dituenak. Erabilpena erregezkoagoa irudituko litzaidake, eta onuragarri, zuzen eta iraunkorragoa, portuetan, itsas gerizetan, gotorpen eta harresietan, ospezko eraikuntzetan, elizetan, hospitaletan, ikastetxeetan, karrika eta bideen birmoldaketetan izan balitz. Berorretan Gregorio hamahirugarrena aita sainduak bere oroimena gomendagarria utzi baitu nire aroan, eta berorretan ere gure Katalina erreginak urte luzeetan lekukotasuna emanen bailuke bere ahalbideak bere xedearen adinakoak izan balira. Zoriak ezatsegin handia egin dit gure hiri handiko Zubi Berriaren egitura ederra hautsiz eta hil baino lehenago erabileran ikusteko neukan esperantza ebatsiz¹⁸⁰.

Aipatuaz beste, menekoei iruditzen zaie, ospatze horien ikusleak izanez, beren aberastasunen erakustaldia egiten zaiela eta beren bizkar bestakatzen dela. Zeren jendeek gogotik uste baitute beren erregeei buruz, guk geure nerabeei buruz egin bezala, axola izan behar dutela guri ausarki emateko behar dugun guztia, baina ez dutela inola ere berentzat hartu behar. Eta horregatik, Galba enperadoreak, bere afarian atsegin baitzitzaion musikari bat, bere kutxa ekarrarazi zuen eta bere eskuaz eman zion hartu zuen diru-ahurkada bat hitz hauekin: “Ez da publikotik, niretik da” Halaber, maizenik gertatzen da jendeak arrazoa duela, eta begiak bazkatzen direla sabelaren bazkatzeko zuenarekin. Eskuzabaltasuna bera ez da ongi bere lekuan erret eskuetan; pribatuek eskubide gehiago dute; zeren, zehazki hartzekotan, errege batek ez du berez berea den ezer; bere burua besteari zor dio.

Menekotasuna ez baita menperatzailearen faboretan ematen, menperatuaren faboretan da. Goiko bat egiten da, sekula ez bere probetxurako, baina behekoaren probetxurako, eta sendagile bat eriarrentzat, ez bere buruarentzat. Ahalduntasun orok, arte orok bezala bere buruaz landara hedatzen du bere helburua: *nulla ars in se versatur*.

Horregatik printzeen haurtzaroaren hezleek, ezkuzabaltasunaren bertute horren inprimatzera lehiatzen baitira, eta predikatzen baitiete ezeren errefusatzen ez jakitea eta ematen dutena baino erabilpen hoberik ezertan ez ikustea (neure aroan omen handitan ikusi dudana hezkuntza), edo begiratzen diote beren probetxuari beren nagusiarenari baino gehiago, edo ez dute aditzen zertaz mintzatzen diren. Errazegia da

ezkuzabaltasunaren inprimatzea besteren bizkar nahi bezainbat zer eman duenaren baitan. Eskuzabaltasunaren neurria ez da emaitzaren arabera baina egiten duenaren bideen arabera; hutsala da hain esku ahaldunetan. Barreiatzaileak egiten dira eskuzabalak izan baino lehen. Horregatik gomendio eskasekoa da, beste erret bertuteen ondoan, eta, Dionisio tiranoak esan bezala, tirania berarekin ongi konpontzen den bakarra. Lehenago irakatsiko nioke nekazari zaharraren neurtiz hau:

Τη χειρὶ δεισπεῖν, ἀλλὰ μὴ ὀλῶ τῷ θυλάκῳ 182

uzta bildu nahi duenak eskutik erein behar duela eta ez zakutik bota (bihia barreiatu behar da, ez zurrutaka bota); eta zerbitzatu duten arabera hainbat jenderi eman edo, hobeki esateko, ordaindu eta itzuli behar baitio, xahutzaile leial eta argia izan behar dela. Printze baten eskuzabaltasuna mugarik eta neurririk gabea bada, nahiago dut zikoitza.

Erret bertuteak dirudi zuzenbidean datzala gehienez; eta zuzenbidearen zati guztietarik eskuzabaltasuna laguntzen duena hobeki komeni zaie erregeei; zeren bereziki beren kargurako gorderik baitute, beste zuzenbide oro gogotik besteren bidez egiten duten artean. Neurririk gabeko eskuzabaltasuna onginahiaren erdiesteko bide ahula zaie; zeren jende gehiago baztertzan baitu erakartzen duena baino: *Quo in plures usus sis, minus in multos uti possis. Quid autem est stultius quam quod libenter facias, curare ut id diutius facere non possis?* Eta, merituarekiko begirunerik gabe erabilia bada, ahalketzen du onartzen duena, eta graziaz gabe onartzen da. Tirano zenbait eskainiak izan zaizkio publikoaren gorrotoari beraiek zuzengabeki aitzinarazi zituztenen eskuen bidez; halako gizon motak uste baitu segurtatzen duela behar ez bezala erdiesti ontasunen jabegoa, erakutsiz gutiespenez eta gorrotoan dutela eman dizkiena, eta horretan uste eta aburu arruntarekin elkartuz.

Emaitzetan neurririk gabe den printze baten azpikoak neurririk gabe bilakatzen dira eskarietan; ez dute beren burua mailatzen arrazoiaren arabera baina ereduaren arabera. Egiazki, maiz badugu geure ahalkerik ezaz zeren gorritu; zuzenbidez gaineratik ordainduak gara sariak geure zerbitzua berdintzen duenean, bada, atxikimendu naturaletan ez ote diegu geure printzei deus zor? Gure gastua badarama sobera egiten du; aski da lagun dezan; garaitikoa liberalitatea deitzen da, eskatzen ahal ez dena, zeren eskuzabaltasunaren izenak berak libertatearen hots dahi. Gure ustez, eskuzabaltasuna sekula ez da betea; erdietsia ez da kontutan ezartzen; bakarrik maitatzen da etorkizuneko: zeren zenbat eta gehiago akitzen baita printze bat ematean, orduan eta gehiago pobretzen baita adiskideetan.

Nola asetuko ditu bete arauz hazten diren gutiziak? Bere gogoa hartzekoan duenak jada ez du hartu izan duenean. Gutiziak ez du eskergaitza izatea bezain berea den ezer. Ez da hemen Zioren erdua desegokia izanen, aro honetako erregeei frogatzat balioko baitie beren emaitza ongi ala gaizki erabilien ezagutzeko, eta ikusarazteko beraiek baino zeinen hobeki banatzen zituen enperadore hark. Horregatik hauek behartuak izan baitira beren maileguen egitera jende ezezagunen gaineratik, eta maizago ere gaizki egin dietenen gaineratik ongi egin dietenen gaineratik baino; eta laguntzak erdiesten baitituzte izenik besterik doahinik ez dutenak. Kresok haren eskuzabaltasunaren erantzukia egiten zion eta ustezkatzan zuen ea zenbaiteraino goratuko zatekeen haren tesoroa esku hertsia goak izan balitu. Ziok izan zuen bere eskuzabaltasunaren zurrutzeke nahia; eta, bereziki faboratu zituen bere herriko handiei buruz mezua emanaz, bakoitzari eskatu zion ahal bezainbat dirurekin lagun ziezaioten bere behar bati, eta agirietan bidaltzeko. Zerrenda horiek guztiak eramanak izan zitzaizkionean, haren adiskideetarik bakoitzak uste izanez ez litzatekeela aski izanen bakarrik haren eskuzabaltasunetik onartu zuenaren eskaintzea, eta bere ontasunetarik anitz gehituz, aurkitu zuen kopuru hori Kresoren aurrezkia baino askoz ere gehiago goratzen zela. Horri buruz baitzioen Ziok:

"Ez ditut ontasunak beste printzeek baino gutiago maite, baina hobeki erabiltzen ditut. Zuk ikusten duzu zeinen sari gutitan erdietsi dudan hainbat adiskideren tesoro neurgaitza; eta atxikimendurik eta maitasunik gabeko gizon ordainduak baino zeinen diruzain fidelagoak zaizkidan, eta nire aberastasuna kutxetan baino hobeki gordea dudala, beste printzeen bekaitza, gorrotoa eta gutiespena erakarriz."

Enperadoreek bere joko eta erakustaldi publikoetarako aitzakia ateratzen zuten honako honetarik: beren manu-indarra nolabait ere zetorkiela (itxuraz bederen) Erromako jendearen borondatetik, betidanik ohitua baitzen halako emankizun eta soberakerien bidez lausengaturik izatera. Baina partikularrak ziren beren hirikideen eta adiskideen saristatzeko ohitura hazi zutenak, nagusiki beren poltsatik halako ugaritasun eta ausartasunaren bidez: osoki beste gustua zuen nagusiak haren imitatzeraz etorri zirenean.

Pecuniarum translatio a justis dominis ad alienos non debet liberalis videre Filipok, zeren bere semea emaitzen bidez entseiatzen baitzen mazedoniarren borondatearen irabaztera, gutun baten bidez erantzuki egiten zion molde honetan: "Zer? Nahi ote duk eure azpikoek beren poltsazaintzat har hazaten eta ez erregetzat? Erakarri nahi dituk? Erakartzak eure bertutearen ongi-egiteez, ez heure kutxaren ongi-egiteez".

Halarik ere, gauza ederra zen simetria ederrean emana zen oihan itzaltsu handi bat erakutsiz, zuhaitz handi, abartsu eta berde andana baten erakartzea eta plazako legarretan landaraztea, eta, lehen egunean, han barrena mila ostroka, mila orein, mila basurde eta mila orkaznabarren laxatzea, jendeek har zitzaten utziz; biharamunean, jendearen aitzinean ehun lehoi handi, ehun lehoinabar eta hirurehun hartzen hilaraztea, eta, hirugarren egunerako, zeinlehenka hirurehun gladiatore bikoterengatik gudukaraztea, Probo enperadoreak egin bezala. Gauza ederra zen ere kanpotik apaindurez eta estatuez landu marmolez azalezkatu anfiteatro handi haien ikustea, barrena aberastasun arraro askoz distiratu zela,

Baltheus en gemmis, en illita porticus auro; 185

hutsune handi horren alderdi guztiak beteak eta inguratuak, hondotik burura, marmolez ere eta kuxinez estali hirurogei edo larogei harmailek,
exeat, inquit,

Si pudor est, et de pulvino surgat equestri,

Cujus res legi non sufficit; 186

non eta ehun mila lagun zabalik jarriak lerrokatzen ahal baitira; eta hondoko lekuaren, jokoak gauzatzen zirenekoa, lehenik irekiaraztea eta ebakiaraztea erakustaldirako basapiztiak botatzen zituzten zuloak itxuratzen zituzten artaketan; eta gero, bigarrenik, itsas barren batez uholdezkatzea, itsas piztia ausarki garraiatzen baitzituen, itsasontzi armatuez kargaturik, itsas gudu baten itxuratzeko; eta, hirugarrenik, berriz zelaitzea eta idortzea galdiatoreen gudurako; eta, laugarren molderako, bermeilo eta estorakez¹⁸⁷ estali, legarraren ordeaz, bazkari ospetsu baten emateko jende kopuru zenbatezin horri, egun bakar baten azken ekitaldia;

quoties nos descendentis arenæ

Vidimus in partes, ruptaque voragine terræ

Emersisse feras, et iisdem sæpe latebris

Aurea cum croceo creverunt arbusta libro.

Nec solum nobis silvestria cernere monstra

Contigit, æquoreos ego cum certantibus ursis

Spectavi vitulos, et equorum nomine dignum,

Sed deforme pecus. 188

Inoiz ere sortarazi da fruitondo eta zuhaitz berdez bete mendi gora bat, mazelatik erreka bat zeriola, egiazko iturburu batetik bezala. Inoiz ibilarazten zen berez irekitzen eta

laxatzen zen ontzi handi bat, eta, borrokarako lauzpabost basapizti sabeletik bota ondoren, berriz hesten eta ezabatzen zena, laguntzarik gabe. Beste inoiz, plaza horren beheitiko alderditik egoztarazten zituzten ur zurrutza batzuk goraino jauzten zirenak eta, garaitasun hartatik, jende meta zenbagaitz hori ureztatzen eta goxatzen zuen. Eguraldiaren oldarretik gerizatzeko, edukialdi mugagaitz hori estalarazten zuten, behin orratzez landu purpurazko oihalez, behin honako edo halako koloreko zetaz, eta istanpatean aitzinarazten eta gibelarazten zituzten, beren nahikeriaren arabera:

Quamvis non modico caleant spectacula sole,

Vela reducuntur, cum venit Hermogenes. 189

Jendearen aurrean ezartzen ziren sareak, basapizti horien bortiztasunetik gerizatzeko, urrez ehunduak ziren:

auro quoque torta refulgent

Retia. 190

Halako soberakerietan zerbait barkagarria bada, asmamenak edo berritasunak miresteakoak direnean da, ez gastuagatik.

Hutsakeria horietan berorietan ohartzen gara zein emankorrak ziren mende horiek gurek ez duten gogo motetan. Emankortasun mota horretan naturaren beste sorkuntzetan bezala da. Ez dut adierazi nahi han naturak bere azken ahalegina akitu zuenik. Ez gabilta, gehiago itzultzen gara, eta itzulinguruka hor-hemenka. Geure urratsen gainetik gabilta. Beldur naiz gure ezagutza zentzu orotan ahula dela, apur bat dakusagu aurrean, eta apur bat atzean; guti besarkatzen du eta guti bizi da, laburra denboraren eta gaiaren hedaduran:

Vixere fortes ante Agamemnona

Multi, sed omnes illachrimabiles

Urgentur ignotique longa

Nocte. 191

Et supera bellum Trojanum et funera Trojæ,

Multi alias alii quoque res cecinere poetæ. 192

Eta Solonek dioena, Egiptoko apezengandik ikasia zuela haien estatuaren bizitza luzea eta atzerriko historien ikasteko eta gordetzeko modua, ez zait gogoeta honetan gezurtapenerako lekukotasuna iruditzen. "*Si interminatam in omnes partes magnitudinem regionum videremus et temporum, in quam se injiciens animus et intendes ita late longeque peregrinatur ut nullam oram ultimi videat in qua possit insistere: in hac immensitate infinita vis innumerabilium appareret formarum* 193."

Omenaren bidez, iraganaz gureganaino etorri izan den guztia egia balitz eta norbaitek ezaguna balitz ere, eza baino gutiago litzateke ezagutzen ez denaren ondoan. Hemen garen artean, darion munduaren irudi honen beronen ezagutza, jakinahirik handienena ere, a zein eskasa eta murrizta! Ez soilik zoriak maiz eredugarri eta pisutsu bilakatzen dituen gertakari berezietarik, baina gobernu eta herri egoeretak ere, gure jakintzara datorrena baino ehun aldiz gehiago itzurtzen zaiguna da. Miresten gara gure artilleria eta inprimeriaren asmamenaren mirakuluaz; beste gizonak, munduko beste muturrean, Txinan, duela mila urte gozatzen zirenekoa. Mundutik ikusiko bagenu ikusten ez dugun bezainbat, ohartuko gintzaizkioke moldeetako etengabeko ugaritasunari eta aldakuntzari. Naturari dagokionez ez da ezer bakarrik ez arrarorik, bai gure ezagutzari dagokionez, gure arauen funts eskas bat baita eta gauzen irudi hagitx faltsu bat gogotik erakusten baitigu. Gaur hutsalki ondoriatzen dugun bezala munduaren makurtzea eta zahartzea geure ahulezia eta beherapenetik ateratzen ditugun argudioen arabera,

Jamque adeo affecta est ætas, affectaque tellus; 194

halaber, hutsalki ondoriatzen zuen hark munduaren sortzapena eta gaztaroa, bere aroko gogoen baitan ikusten zuen azkartasunaren arabera, arte ezberdinetako berritasunetan eta asmamenetan emankorrek baitziren:

Verum, ut opinor, habet novitatem summa, recensque

Natura est mundi, neque pridem exordia cæpit:

Quare etiam quædam nunc artes expoliuntur,

Nunc etiam augescunt, nunc addita navigiis sunt

Multa. 195

Gure munduak ediren berri du beste bat (eta nork segurtatzen digu ea bere anaietarik azkena ote den, Demonioek, Sibilek eta guk ere orain arte ezezagutzen genuenez geroz?) handitasun, betetasun eta zatien aberastasunean ez bera baino eskasagoa, halarik ere, hain berria eta haurra non oraindik irakasten baitzaio bere a, b, c; duela berrogeita hamar urte ez zekien ez letrarik, ez pisurik, ez neurrik, ez jantzirik, ez garirik, ez mahatsik. Oraindik zegoen osoki bilutsik magalean, eta bere ama hazlearen ahalbideetarik bizi zen. Ongi ondoriatzen badugu geure amaiera, eta berdin poeta hark bere aroaren gaztaroa, beste mundu hori argitara sartu orduko gurea aterako da. Unibertsoa elbarri bilakatuko da; zati bat ezindua, bestea indarrean.

Beldur naiz azken honen beherapena azkarki lehiarazi dugula geure izurriteaz, eta oso garesti saldu dizkiogula geure usteak eta arteak. Mundu haur bat zen; ez bagenu geure araubideetara herrestatu eta meneratu geure balio eta indar naturalen abantailari esker, eta ez dugu geure zuzenbide eta ontasunagatik erakarri, ez geure gogoaren handitasunagatik menperatu. Haien erantzun eta haiekin egin harreman gehienek gogo naturalaren argitasunean eta egokitasunean deus ere zor ez zigutelako lekukotasuna ematen dute. Cuzco eta Mexikoko hirien ospe ikaragarriak, eta, beste halako gauza askoren artean, errege horren baratzeak, non eta zuhaitz guztiak, fruituak eta belar guztiak, baratze batean duten egitura eta handitasunaren arabera, urrez bikainki moldatuak baitziren; nola, bere ganbaretan, bere erresuman eta itsasoan sortzen ziren animalia guztiak; eta harribitxiz, lumaz, kotoiez, margolaritzan egin obren edertasunak erakusten du ez direla gu baino gutiago trebetasunean ere. Baina, debozioari, legeen betetzeari, ontasunari, eskuzabaltasunari, leialtasunari, irekitasunari buruz, ongi etorri zaigu haiek bezainbat ez edukitzea; abantaila horretaz galdu dira, eta beren burua saldu eta traditu.

Ausartzia eta kuraiari buruz, bermetasunari, iraupenari, minen eta gosearen eta heriotzaren kontrako erabakiari buruz, ez nintzateke oroimenetan ditzakegun eredu zahar omentsuenen aldean haien artean aurkituko nituzkeen ereduengatik ezartzeko beldurrez. Zeren, menperatu dituztenentzat, ken ditzaten haien engainatzeko baliatu diren amarruak eta itxurakeriak, eta herri haiei jende bizardunen ustekabeko agertzearen ikusteak ekartzen zien harrimena, mintzairaz, erlijioaz, moldeaz eta ibileraz hain ezberdinak, hain munduko leku urrunekoak, haiek sekula ez baitzuten biztanlerik batere zegoenik gogoratu, mustro ezezagunen gainean goratuak, ez bakarrik zaldirik baina gizonik ez zamarik eramateko gai zen abererik batere ikusi ez zutenen kontra; azal distiratsu eta gogor batez hornituak eta arma sarkor eta dirdiratsuez, ispilu edo aizto baten dirdirioaren mirakuluagatik urretan eta perletan aberastasun handi baten trukatzera zetozenen aurka, eta gure altzairuren errazki zulatu ahal izateko jakintzarik ez gairik ez zutenak; gehi itzazu gure kanoi eta arkabuzen oinaztargiak eta ortotsak, Zesar bera, hain ustekabeen harrapatu bazuketen, ikartzeko gaiak, eta orain jende bilutsen kontra, kotoiezko oiha bakarren batera heldua baitzen haien asmamena, gehienez jo arkuak, harriak, makilak eta zurezko ezkuak besterik gabe armatzat edukiz; adiskidantza eta fede ona zelakoan, gauza arrotzen eta ezezagunen ikusteko

jakinahiagatik ustekabeen harrapatu jendeak: aipa iezaiezu, diot, konkistatzailei ezberdintasun hau, kentzen diezu hainbat garaipenen abantaila.

Beren jainkoen eta libertatearen defentsarako, itzurezinezko arriskueta agertzeko eta egozteko hainbat mila gizon, emakume eta haurren gartsutasun hezigaitza hainbat aldiz dakusadalarik; hain ahalkegarriki engainatu dituztenen menekotasunari amore eman baino gogotikago ezinagotasun eta nekezia guztien eta heriotzaren jasateko tematasun eskuzabal hori, eta batzuk, harrapatuak izanez, gosez eta barautzez beren buruaren akitzea hautatzen hain zitalki garaileak ziren beren etsaien eskutik biziaren onartzea baino lehenago, aurrikusten dut, armez, esperientziaz eta kopuruz parez pare oldartuko liekenak, ikusten dugun beste edozein gerratan bezain arriskutsuki eta gehiago ere egingen zukeela.

Damu ez baita Alexandroren eskumenera edo greko eta erromatar zahar haien eskumenera halako konkista noblea gertatu, eta hainbat erresuma eta jenderen aldakuntza eta nahasmena, haietan basa zena eztiki leundu eta garbitu eta han naturak sortu zituen hazi onak erraztu eta ugaritu baitzituzketen, ez bakarrik lurren lantzeari eta hirien apainketari hemengo moldeak gehituz, beharrezkoak ziratekeen bezainbat, baina herriko jatorrizkoei gehituz ere bertute grekoak eta erromatarrak! Zein antolabide izan zatekeen eta zein hobekuntza mundu honi guztuari, han agertu diren gure lehen ereduak eta moldeak erakarri izan balituzte jende haiek bertutearen mirespen eta imitaziora eta haien eta gure artean nebarrebazko elkartzeko eta adimen bat eraiki izan balute! Zein erraz izan zatekeen haietaz baliatzea, hain gogo berriak, ikasteko hain goseak, gehienek hain aitzinatze natural ederrak edukiz!

Alderantziz, haien jakinezaz eta moldegabeziak baliatu gara errazkiago makurrarazteko saldukeria, lizunkeria, zikoizkeria eta gizagabekeria eta krudelkeria mota guztietara, gure ohituren eredu eta neurrien arabera. Nork ezarri zuen inoiz ere halako saritan salmenta eta trafikoaren zerbitzua? Hainbat hiri hondaturik, hainbat herri ezeztaturik, hainbat milioi jende ezpatako ahoaz hilik, eta munduko zatirik aberats eta ederrena nahasirik perlen eta piper beltzaren negoziatioagatik! Garaipen basak. Handinahiek eta etsaigo publikoek ez zituzten sekula gizonak elkarren kontra bulkatu, hain areriotasun eta suntsitasun ikaragarri eta zitaletara.

Itsas bazterrez bazter ibiliz, beren mehategien bila, espainol zenbait lehorreratu ziren eskualde emankor eta atsegin batean, oso populaztaturik, eta jende hari egin zizkieten beren ohizko adierazpenak: "Jende baketsuak zirela, urruneko bidaiez etorriak, Gaztelako erregeren partetik igorriak, lur bizigarriko printzerik handiena, aita sainduak, lurrean Jainkoaren ordezkariak, India guztien printzegoa emana baitzion; zergadunak izan nahi bazitzaizkion, hagitz eztiki erabiliak izanen zirela; beren jaterako jakiak eskatzen zizkiela eta urrea sendabide zerbaiten beharrerako; erakutsiz, bestalde, Jainko bakar baten sinesmena eta gure erlijioaren egia, onartzeko aholkatzen baitzien, mehatxu zenbait gehituz."

Erantzuna honelakoa izan zen: "Baketsuak izateari buruz, ez zutela itxurarik, baldin baziren ere; beren erregeri buruz, eskatzen zuenez geroz, ahalbiderik gabea eta behartsua bide zela; eta halako emaitza egin zionari buruz, gizon liskartzailea zela, hirugarren bati berea ez zen gauza baten emateagatik, aitzineko jabeen kontrako eztabaidan ezartzeko; jakiei buruz, ematen zizkietela; urrerik guti bazeukatela, eta ezertan ez zeukaten gauza zela, beren biziaren zerbitzurako ezteusa zenez geroz, beren axola osoak begiratzeko baitzion soilik biziaren iragateari zorionez eta atseginez; horregatik, aurkitzen ahalko zutena, beren jainkoen zerbitzurako baliatua zenaz landara, ausarki har zezatela; Jainko bakar bati buruz, hitzaldia atsegin zitzaiela, baina ez zutela erlijioz aldatu nahi, hain luzaz onuragarriki baliatuak baitziren beraienaz, eta ez ohi zutela aholkurik onartzen beren adiskide eta ezagunen partetik ez bazen; mehatxuei

buruz, adimenik ezaren ezaugarria zela izaera eta ahalbideak ezagutzen ez diren jendeen mehatxatzea; beraz, lehia zitezen beren lurretik lekutzera, ez ohi baitzituzten ontzat hartzen jende armatuen eta arrotzen erantzukiak eta adierazpenak; bestela, haietaz eginen zutela beste horietaz bezala," hiri inguruan hilarazi gizon zenbaiten buruak erakusten zizkietelarik. Horra haurtzaro horren mordoiloaren adibide bat. Baina ez leku hartan ez beste askotan ere, espainolek ez zuten geldiketarik ez egitekorik batera egin, bilatzen zituzten salgaiak ez baitzituzten aurkitu, beste zernahi erraztasunik bazen ere, nire gizajaleak¹⁹⁶ lekuko.

Azkenik kanporatu zituzten mundu hartako, eta menturaz honetako, bi errege ahaltsuenetarik, hainbat erregeren erregeak baitziren, Perukoa, gudu batean harrapatua izanik eta hain ezinagoko ordainbeharrak batera bortxatua non sinesmen oro gainditzen baitu, eta hori ere fidelki ordaindurik, eta bere solasaren bidez kurai ireki, zabal eta iraunkor baten lekukotasuna emanik, eta adimen garbi eta ongi antolatu batena, garailei, milioi bat hirurehun hogeita bost mila bostehun urrezko libra atera ondoren, gutiagoraino goratzen ez ziren zilarrez eta beste gauzez landara, beren zaldiak urre hutsez ferratuak baitzebiltzan, gogoratu zitzairen, zernahi saldukeriaren saritan bazen ere, errege horren garaitiko tesoroen kopurua zenbatekoa litekeen jakiteko nahikeria, eta gorderik zeukanaz libreki gozatzekoa. Bizkarreratu zitzaion salaketa eta frogak faltsu bat: bere probintzien asalatzeko xedetan zebilela libertatean gelditzeko. Horregatik, tradiketa hori eraiki ziotenen berorien epaiketa ederraren bidez, publikoki urkaturik eta itorik izatera kondenatu zitzaion, bizirik erreka izateko oinazea ordainarazirik bertan eman zitzaion bataioaren bidez. Ezbehar izigarria eta adigabea, halarik ere, ez jokalmoldetan, ez hitzetan, bere burua gezurtatu gabe, erret modu eta larritasun batez jasan zuena. Eta gero, hain gauza harrigarriaz ikaraturik eta txunditurik ziren jendeen lokartzeko, itxuratu zen bere heriotzerako dolu handi bat, eta hileta ospatsuak eman zitzaizkion.

Bestea, Mexikoko errege, bere hiri setiatua luzaz defendatu ondoren eta setio horretan jasankortasunak eta iraunkortasunak ahal duten guztia erakutsirik, inoiz printze eta jende batzuek halakorik egin badute, eta bere zorigaitzak bere etsaien eskuetan bizi ezarriarik, errege bezala tratatzeko baldintzapean (gartzelan ez zien izenburu horren gai ez zen ezer erakutsi); garaipen horren ondoren uste zuten urre guztia ez aurkiturik, dena inarrosi eta ikertu ondoren, hasi ziren ustezko urre horren berrien bila zeuzkaten presoan gainean asmatu ahal zituzten oinazetik garratzenen bidez. Baina, deusik ez erdietsirik, kuraiak beren oinazeak baino azkarragoak aurkituz, halako errabiara jo zuten non, beren fedearen eta jendeen eskubide guztien kontra, errege bera eta bere gorteko jaun nagusietarik bat elkarren aurrean oinazeturik izatera kondenatu baitzituzten. Jaun hori, minaz behartua bere burua aurkituz, subizi gorriez inguraturik, hondarrean burua itzuli zuen bere nagusiaren aldera, urrikaria eskatuz bezala gehiagorik ez baitzezakeen. Erregek, haren gainean harroki eta larriki bere begiak ezarri, haren laxakeria eta gogo ahularen erantzukia bezala, hitz hauek esan zizkion soilik, ahots gogor eta berme batez: "Eta ni bainu batean ote nago? Hi baino goxokiago ote naiz?" Hura, handik labur, minei amore emanik, hil zen. Errege, erdi erreka, handik eramana izan zen, ez hainbat urrikariagatik (zeren, zein urrikarik hunkitu zituen inoiz halako gogoak, urrezko ontzi ebasgarri zerbaiten berri dudagarriagatik, beren aurrean errearazi baitzuten gizon bat, zorian eta merituan hain handia zen halako errege bat?) baina zerengatik haren iraunkortasunak gero eta ahalkegarriago bilakatzen baitzuen beren krudelkeria. Gero urkatu zuten, armaz suhartsuki entseiatu baitzen hain gatibotasun eta menpekotasun luze batetik libratzera, printze handi baten amaiera egokia egin baitzuen hor.

Beste behin, su berean ezarri zituzten, aldi berean, lauhun eta hirurogei gizon bizirik, lauhunak jende xehekoetarik, hirurogeiak probintzia bateko jaun nagusietarik, gerrako

presoak soilik. Beraingandik dauzkagu honelako narrazioak, zeren ez baitituzte aitortzen bakarrik, arrandiatzen eta predikatzen baitituzte ere. Beren zuzenbidearen lekukotasuna bezala ote? edo erlijioarekiko lehia? Zinez, hain helburu saildurako bide ezberdinak eta etsaiak dira. Gure fedearen hedatzera xederatu izan balira, gogoan hartu izan zuketan ez dela lurren jabegoaz zabaltzen baina gizonen jabegoaz, eta askietsiko zuketan gerraren beharrak dakartzan hiltzeekin, soraioki sarraski orokor bat nahasi gabe, basapiztien gainean bezala, burdinik eta surik aski izan artean, beren xederako beren mehategietako eginkizunetarako behar zituzten esklabuak bakarrik gorderik; eta buruzagi asko heriotzera kondenatu izan dituzte Gaztelako erregeek, zuzenik ofendatuak haien soberakerien ikaragarritasunak, eta kasik guztiak izan dira gaitzetsiak eta hastiatuak. Jainkoak meritutsuki baimendu du ebasketa handi horiek itsasoak irentsirik izan daitezen garraiatzerakoan, edo beren artean elkar jan duten gerretan, eta gehienak bertan ehortzi ziren, beren garaipenetik fruiturik batere izan gabe.

Eta erdiespena, printze zuhur eta aurrezkitzaile¹⁹⁷ baten eskuetan ere, hain eskaski dagokio haren aitzinekoei eman zitzaien esperantzari, eta lur berri haietara lehen lehorreratzean aurkitu zen aberastasun ugari hari (zeren, anitz ekartzen bada, ikusten baitugu deus ere ez dela uste behar zenaren ondoan), zeren diruaren erabilpena osoki ezezaguna baitzen, eta, beraz, beren urrea dena bildurik aurkitzen baitzen, erakustaldiaz eta ospamenaz landako beste zerbitzurik ez edukiz, aitagandik semegana errege askok gorde moble bat bezala, beti akitzen baitzituzten beren mehategiak beren jauregi eta tenploetako apainketarako zen ontzien eta estatuen mukuru gaitz horren egiteko, gure urrea, aldiz, dena erabileran eta salmentan badabil. Guk lantzen eta aldatzen dugu mila moldetan, hedatzen eta barreiatzen dugu. Irudika dezagun gure erregeek ere metatuko balute horrela aurkitzen ahalko zuten urre guztia mende zenbaitetan, eta geldirik gordeko balute.

Mexikoko erresumakoak inola ere hango beste herriak baino moldatuagoak eta artistagoak ziren. Hala uste zuten, guk bezala, unibertsoa bere amaieraren hurbil zela, eta ezaugarritzat hartu zuten guk eraman hondamena. Sinesten zuten munduaren izatea bost adinetan zatitzen dela, elkarri jarraika doazen bost eguzkiren bizitzan, haietarik lauk jada beren aroa betea baitzuten, eta argitzen zituena bosgarrena zela. Lehendabizikoa iraungi zen beste izakiekin batean uren uholde orokorraz; bigarrena, gure gainera zeruaren erorpenagatik, izaki bizi oro ito baitzuen, adin horri erraldoiak egokiarazten dizkiote, eta espainolei ikusarazten zizkieten hezurak, zeintzuen arabera gizonen garaiera hogeitazehekoa baitzatekeen; hirugarrena, dena erre eta suntsitu zuen suagatik; laugarrena, mendi zenbait ere bota zituen aire eta haizezko inarrosaldi batengatik; gizonak ez ziren hil, baina tximino bilakatu ziren (zein idurimenak ez dituen giza sinesmenaren laxakeriak jasan!); laugarren eguzki horren heriotzaren ondoan, mundua hogeita bost urtez egon zen betiko ilunbetan, haietarik hamabosgarrenean sortuak izan zirelarik giza arraza berregin zuten gizon eta emakume bat; hamar urte geroago, beren egunetako halakoan, eguzki sortu berria agertu zen; eta hasten da, gero, beren urteen zenbatzea egun hartarik. Eguzkiaren sorkuntzaren hirugarren egunean hil ziren jainko zaharrak; berriak gero sortuak dira egunetik egunera. Eguzki hau hilen deneko moduz nire autoreak¹⁹⁸ ez du ezer ikasi. Baina laugarren aldakuntza horren zenbakia badagokio munduan hainbat aldaratze eta berritasun sortu zituen izarren elkarretartzeari, astrologoen ustearen arabera duela zortzirehun inguru urte.

Ospatze eta handitasunari buruz, hortik sartu bainaiz solas honetan, ez Greziak, ez Erromak, ez Egiptok ez dute, izan dadin erabilgarritasunean, edo zailtasunean, edo gorentasunean, beren eraikuntzetarik batere alderatzen ahal Perun ikusten den bidearekin. Herriko erregeek hedatua, Kitoko hiritik Cuzcoko hiriraino (hirurehun lekoka dira), zuzenik, baturik, hogeita bost urrats zabal, harlauztaturik, alde batetik eta besterik

harresi eder eta goratuez jantzirik, eta berorien luzetasunean, barrendik, bi etengabeko erreka, moli deitu zuhaitz ederrak ertzetan dituela. Burkaitzak eta mendiak aurkitu dituzten lekuetan moztu eta zelaitu egin dituzte, eta erroitzak harriz eta kisuz bete. Egundaldi bakoitzaren buruan, badira jakiz, jantziz eta armaz hornitu jauregi ederrak, bai bidaiarientzat eta bai iragan behar diren armadentzat. Eraikuntza honen preziaztean zailtasuna kontatu dut, leku hartan bereziki nabarmena baita. Ez zuten hamar oinbete karratu baino guttiagoko harririk erabiltzen; ez zuten beste garraiabiderik besoez baizik, zama herrestaka; eta aldamioen egiteko arterik ere ez: eraikuntza goratzen den bezainbateko lurren goratzea eta gero kentzea, beste molderik ez zekiten.

Itzul gaitezen geure ibilgailuetara. Haien eta ibilgailu guztien ordez, gizonen bizkarren gainean garraiarazten zuten beren burua. Peruko azken errege hori, hartu izan zen egunean, hala eramana zen urrezko andetan, urrezko alkian jarriarik, bere guduaren erdian. Beheiti erorarazteko garraialariak hiltzen ziren bezainbatean (bizirik hartu nahi baitzen), bestee, zeinlehenka, hilen lekua hartzen zuten, halako moldez, non ez baitzen garaitzen ahal, jende haietan zernahi sarraski egin eta ere, harik eta zaldizko batek gorputzetik harrapatu eta lurrera bota zuen arte.

VII

Handitasunaren eragozpenaz

Erdien ahal ez dugunez geroz, hartaz mendeka gaitezen gaizki esanez. (Eta akatsen aurkitzea ez da osoki zerbaiti buruz gaizki esatea; gauza orotan aurkitzen baitira, ederragoak eta opagarriagoak badira ere.) Eskuarki, abantaila ageri hau badu: nahi duenean apaltzen dela, eta gutiz goiti beheiti badu baldintza bat eta bestearen arteko hautabidea; zeren ez baita gorentasun osotik erortzen; gehiago dira beheititzen ahal direnak erori gabe. Osoki iruditzen zait balio sobera ematen diogula, eta halaber balio sobera, ikusi edo entzun dugunez, gutiatsi dutenen edo beren oldez hartatik baztertu direnen erabakiari. Haren izatea ez da hain ageriki erraza non mirakulurik gabe errefusatzen ahal ez den. Gaitzen pairatzeko ahalegina arras zaila aurkitzen dut; baina, ondasun erdiko baten askiestean eta handitasunetik ihes egitean, egiteko guti aurkitzen dut. Ni, antzarkume batez baizik ez naizena, bortxamendu handirik gabe iristen ahalko nintzen bertute bat dela uste dut. Nola ez dira iritsiko errefusatze horrekin doan ospea kontutan hartzen dutenak, berorretan handitasunaren gozamen eta nahian berean baino handinahi gehiago izan baitaiteke; handinahia sekula ez baitoa bere arabera bide baztertu eta erabili gabetik baino hobeki?

Neure kuraia zorrozten dut jasankortasunari buruz, eta ahultzen nahia buruz. Beste batek bezainbat opatzen dut, eta neure opakizunei hainbat libertate eta mugarik eza uzten diet; baina, halarik ere, inoiz ez zait gogoratu erresumaren ez erretasunen opatzea, ez zori garaitu eta manatzaille horien gorentasuna. Ez naiz horretara xederatzen, sobera maite dut neure burua. Handitzeko gogoia dudalarik, apalki da, handitze bortxatu eta lotsati bat, neuretzat egokia, erabakian, zuhurtasunean, osasunean, edertasunean, eta aberastasunean ere bai. Baina hain sinesmen eta manu-indar ahaltsu horrek zoratzen dit irudimena. Eta beste haren¹⁹⁹ alderantziz, menturaz hobetsiko nuke Perigorden bigarrena edo hirugarrena izatea, Parisen lehena baino; behintzat, gezurrik gabe, Parisen hobeki hirugarrena, karguan lehena baino. Ez dut atezainarekin eztabaidatu nahi, ezezagun apala, ez mirespenaz jendetzaren zabalaraztea noan lekutik. Egoera erdiko bati natzaio zor, neure zoriaz bezala halaber neure gustuaz. Eta neure bizimoduan eta egitekoetan erakutsi dut, bereziki itzuri natzaiola Jainkoak nire jaiotza ezarri zuen ontasun-mailaren gainetik jauzteari. Izaera natural oro berdinki zuzena eta erraza da.

Horrela hain dut gogoia alferra, ez baitut zoriona bere garaitasunaren arabera neurtzen, bere erraztasunaren arabera neurtzen dut.

Baina aski bihotz handirik ez badut ere, aski zabalik badut, ausarki nire ahuleziaren aitortzeko manatzen baitit. Aldez alde ezarri beharko banu L. Torio Balboren bizitza, gizon zintzo, eder, jakintsu, sendo, aditu eta erraztasun eta atsegin mota guztietan aberatsa, bizitza osoki bere eta lasai baten eramaten, gogo aski prest heriotzaren, sineskeriaren, minen eta giza beharraren beste eragozpenen aurka, hondarrean gudu batez hiltzen, armak eskuetan, bere herriaren defentsan, alde batetik; eta beste aldetik M. Reguloren bizitza, edozeinek dakien bezain handia eta harroa, eta bere amaiera miresgarria; bata omenik gabe, kargurik gabe, bestea miresgarriki eredugarria eta ospagarria; zinez esanen nuke Zizeronek dioena, baneki hark bezain ongi esaten. Baina neurearen aldean ezarri behar banitu, halaber esanen nuke lehena hain egokia zaiola neure helmenari eta nahiari (azken hau neure helmenari egokitzen baitiot), nola bigarrena baitzaio gainetik urrundua; honetara ez bainaiz iristen ahal agurtasunaz ez bada, eta bestera gogotik iritsiko nintzateke erabilpenaz.

Itzul gaitezen geure denborazko handitasunera, hortik abiatu baikara.

Nagusitasun eragileaz eta jasaileaz aspertua naiz. Otanesez, Persiako erresumaren eskatzeko eskubidea zuten zazpietarik batek, hartu zuen nik gogotik hartuko nukeen alderdi bat; hautabidez edo zoriz iristeko eskubidea utzi zien bere lagunei, bera eta bereak inperio hartan estekadura eta nagusitasun guztiez landan, lege zaharrenaz salbu, bizi ziren ber eta lege haiei kalterik egin ez ziezaien libertate osoa zuten bermanatzeko nola manaturik izateko jasankortasunik gabe.

Munduko ofiziorik garratz eta zailena, nire irudiko, errege ongi egitea da. Beren hutsak barkatzen ohi ditut egin ohi dena baino gehiago, harritzen nauen beren karguaren pisu izigarriaren begirunez. Zaila da hain ahalbide neurrigabearen edukitzea neurripean. Bestalde, halako lekuan egoteagatik bada bertute alderako isurmen bat, izaera ez hain bikainekoak ez direnengan ere, hor ez baitezakezu zerrendan eta kontutan sartzen ez den ongirik egin, eta ongi egiterik xumeena hainbat jenderen gainean hedatzen baita, eta zure jakintzak, predikalarrienak bezala, jendearengana jotzen baitu, zehaztasun eskaseko epailea, engainatzeko erraza, askiesteko erraza ere. Gauza gutiren gainean eman dezakegu epaiketa zintzoa, gauza guti baita, nolabait ere, zeinetan interes berezirik ez baitugu. Goitasuna eta behetasuna, nagusigoa eta morrointza, bekaitza eta eztabaida natural batera behartuak dira; elkarri oldartu behar diote etengabe. Ez dut ez bata ez bestea sinesten beren eskubideei buruz; utz dezagun arrazoiak horri buruz esan dezan, hartaz baliatzen ahal garenean. Hilabete bat ez duela, orrialdekatzen nituen gai horri buruz elkarren kontra ari ziren bi liburu eskoziar; herrikoiak errege egiten zuen organi bat baino baldintza makurrekoagoa; erregezaleak Jainkoa baino besabete batzuk gorago ezartzen zuen ahalbidean eta gorentasunean.

Bada, handitasunaren eragozpena, hemen azpimarratzeko hartu dudana gogoratu berri zaidan gauza batengatik, honako hau da: menturaz, gizonen harremanetan, batzuk besteen kontra, ohorearen eta balioaren lehiaz, izan dadin gorputzaren ala gogoaren ariketetan, egiten ditugun entseiuak baino atseginagorik ez da deus ere; eta berorietan handitasunik gorenak ez du egiazki zatirik batere. Zinez, begirunearen bortxaz, maiz iruditu zait printzeak molde gutiesgarri eta laidogarri batez darabiltzagula. Zeren nik neure haurtzaroan ezinago laidogarritzat hartzen nuena, nirekin lehiatzen zirenak beren ahal osoaren erabiltzetik baztertzen zirela, ahaleginaren egiteko gaitzat ez baininduten hartzen, egunero gertatzen zaiela ikusten dudana baita, bakoitzak haien kontra ahalegiteko ez gaitzat hartzen baitu bere burua. Ezagutzen bada garaitzeko den gogorik apurrena dutela, haiei emateko lan egiten ez duenik eta haienaren kaltetzea baino lehen norbere ospearean traditzea nahiago ez duenik ez da; haien ohoreari zerbitzatzeko behar den indarririk besterik ez da erabiltzen. Zein zati dute lehian, norbera haien alde baita? Uste dut dakuskidala iragan aroko zaldunak lehiaketetara eta borroketara agertzen

gorputz eta arma faltsuez. Brisonek, Alexandroren aurka lasterkatzen, lasterraldian itxura egiten zuen; Alexandrok erantzuki egin zion, baina azotatu egin behar izan zitzaion. Gauza honengatik, Karneadesek zioen printzeen semeek ez dutela deus zuzenik ikasten, zaldien erabiltzeaz salbu, beste lehia guztietan bakoitzak amore ematen baitu haien azpian eta garaipena ematen baitie; baina zaldi batek, lausengari ez gortelari ez baita, erregeren semea lurreratzen du zamaltzainaren semearekin eginen lukeen bezala. Homero, Troiako guduan, Venus zauritua izan zedin baimentzera behartua izan da, hain emakume saindu eta minbera bat, kuraiaren eta ausartziaren emateko, arriskurik ez dutenengan gertatzen ez diren nolakotasunak baitira. Jainkoei gorromiarazten, beldurrarazten, ihes eginarazten, jelostarazten, kexarazten eta apasionarazten zaie gure artean akats horietaz eraikitzen diren bertuteez ohoratzeko.

Arriskuan eta nekean parte hartzen ez duenak ez dezake ekintza arriskatuerei darraizkien atseginean eta ohorean interesik nahi. Urrikgarria da hainbat ahal izatea non gauza guztiek amore ematen baitizute. Zure zoriak sobera urruntzen ditu zureganik gizartea eta lagungoa, baztertuegi ezartzen zaitu. Norbere azpian guztiaren beheitzeko erraztasun eta aisetasun laxoa atsegin mota guztien etsaia da; hori lerratzea da, ez ibiltzea; lotan izatea, ez bizitzea. Gogora ezazu ahalguztutasunaz lagundu gizona, hondoratzten duzu; limosnatzat eskatu behar dizkizu eragozpena eta oztopoa; bere izatea eta ongia eskasgoan dira.

Haien nolakotasun onak hilak eta galduak dira, zeren konparazionean soilik sentitzen baitira, eta berorretaz kanpoan ezartzen baitira; egiazko laudorioaren ezagutza guti dute, etengabeko eta molde bereko onespren batez askietsiak izanez. Beren azpikoetarik ergelenarekin aritzen badira, ez dute haren gainean abantailaren hartzeko modurik batere; esanez iruditzen zaio aski esan duela: garaitzen utziz amore eman duela. Nolakotasun horrek itotzen eta iraungitzen ditu beste nolakotasun egiazko eta izatezkoak: erregetasunean hondoratuak daude, eta erregeei bakarrik uzten zaie zuzenik erregetasunari dagozkion eta zerbitzatzen dioten ekintzen balioaraztea: beren karguko eginbeharrak. Errege izatea hainbat da non soilik hortik baita. Inguratzen duen distira arrotz horrek gordetzen eta estaltzen digu, gure ikusmena hor hausten eta ezabatzen da, argi azkar horrek beterik eta geldiarazirik. Senatuak eman zion elegintzaren saria Tiberiori; berak errefusatu zuen, uste edukiz hain eskaski libre zen halako epaiketarik, egiazko balitz ere, ez zela atseginik etortzen ahal.

Ohorezko abantaila guztiak ematen zaizkien bezala, onartzen eta baimentzen zaizkie dituzten akats eta bizioak, ez bakarrik onarpenaz, baina imitazioaz ere. Alexandroren jarraitun guztiek zeramaten, berak bezala, burua zehiarka; eta Dionisioren lausengariak buruz buru joka aritzen ziren bere aurrean, bulkatzen eta botatzen zuten oinetan zuten guztia, berak bezain ikusmen laburra zutela adierazteko. Horrela, noizbait ere, akatsek gomendiorako eta faborerako balio izan dute. Ikusi dut itxurazko gorrieria; eta, nagusiak bere emaztea hastiatzen baitzuen, Plutarkok ikusi du gortelietan beraienak, maitatzen zituztenak, hastiatzen ere. Areago dena, lizunkeria omenetan ikusi izan da, eta ustelkeria oro; zurikeria, biraoak, krudelkeria bezala; herexia bezala; sineskeria, erlijiorik eza, alferkeria bezala; eta makurragoa, makurragorik bada: Mitridatesen lausengarien eredu baina arriskatuago den baten bidez (beren nagusiak sendagile onaren ohorea nahi baitzuen beren gorputzaren zatiak ematen baitzizkion ziztatzeko eta erretzeko), zeren hauek pairatzen baitute arimaren erretzea, minberago eta nobleago den zati bat.

Baina, hasi naizenetik bukatzeko, Adriano enperadorea eztabaidan ari zelarik Favorino filosofoarekin hitz baten itzulpenari buruz, Favorinok aski laster utzi zion garaipena. Bere adiskideek erantzukia egiten zioten: Augustok neurtitzak idatzi zituen Asinio Poliorene kontra. Eta arrazoia zuten. Zeren Dionisiok, poesian Filoxeno ezin berdinduz,

eta hitzaldian Platon, bata harrobietara kondenatu baitzuen, eta Eginako irlara bidali baitzuen bestea esklabu bezala saltzera.

VIII

Solasean aritzeko moldeaz

Gure zuzenbidearen ohitura bat da batzuen kondenatzea besteen ohartarazteko.

Kondenatzea huts egin dutelako ergelkeria litzateke, Platonek dioen bezala. Zeren, egin dena ez baita desegiten ahal; baina berriz huts egin ez dezaten da, edo beren hutsaren eredutik ihes egin dadin.

Ez da zuzentzen urkatzen dena, besteak zuzentzen dira haren bidez. Berdin egiten dut nik. Nire hutsak naturalak eta zuzentzezinak dira gaurgero; baina, gizon zintzoek publikoari on egiten diotena beren burua imitaraziz, menturaz eginen dut nik neure ereduari itzuraraziz:

Nonne vides Albi ut male vivat filius, utque

Barrus inops? magnum documentum, ne patriam rem

Perdere quis velit. 200

Nire akatsak argitaratuz eta salatuz, norbaitek ikasiko du haien beldur izaten. Neure baitan gehien onesten ditudan zatiek nire gomendatzetik baino ohore gehiago erdiesten dute nire salatzetik. Horra zergatik haietara itzultzen eta gelditzen naizen maizago. Baina, dena aipaturik denean, ez da sekula galtzerik gabe norbere buruaz mintzatzen. Norbere kondenak beti handituak dira, laudorioak ez sinetsiak.

Izaten ahal dira nire izaerako jende batzuk, ereduez baino hobeki ikasten baitut oztopoez, eta jarraipenez baino hobeki ihesaldiez. Irakaskuntza mota honi begiratzen zion Katon zaharrak dioelarik zoroek zuhurrengandik baino ikaskizun gehiago dutela zuhurrek zoroengandik; eta lirajole zahar hark, Pausaniasek aipatzen baitu bere ikasleak behartzen ohi zituela bere aitzinean bizi zen jole txar baten entzutera, han ikas zezaten haren desakordio eta arau faltsuen hastiatzen. Krudelkeriarekiko higuinak urrikariaren ezein eredu eraman nintzakeena baino aitzinago narama urrikarian. Zaldizko on batek ez du nire jarrera hainbat zuzentzen nola zaldiz doan abokatu edo veneziar batek; eta mintzamolde mordoilo batek hobeki zuzentzen du nirea onak baino. Egunero beste baten jokamolde zozoak gaztigatzen eta ohartarazten nau. Atsegingarriak baino hobeki hunkitzen eta iratzartzen du ziztatzen duenak. Aro hau ez da egokia gibelka eramateko baizik, adostasunaz baino gehiago desadostasunaz, antzekotasunaz baino gehiago ezberdintasunaz. Eredu onek guti irakatsia izanik, gaiztoez baliatzen naiz, hauen ikasgaia egunerokoa baita. Entseiatu naiz atseginaren egitera eredu horietan ezatsegina ikusten nuen bezainbat; gotorra, ikusten nuen bezain beratza; ezia, ikusten nuen bezain garratza. Baina arau garaitezinetara xederatzen nintzen.

Gure gogoaren ihardukitzerik emankor eta naturalena solasa da. Gure bizitzaren beste ezein ekintza baino eztiagoa aurkitzen dut haren erabilera; eta, horregatik, hautatzera behartua banintz, uste dut onartuko nuela ikusmenaren galtzea entzumen edo mintzabidearena baino lehenago. Atenastarrek eta erromatarrek ohore handitan gordetzen zuten ariketa hau beren akademietan. Gure aroan, italiarrek gordetzen dituzte hondar batzuk, beren on handirako, gure eta haien adimenen arteko alderatzean ikusten den bezala. Liburuen estudiatzea mugimendu ilaun eta ahul bat da, berotzen ez duena; solasean aritzeak ukaldi batez irakasten eta diharduen artean. Solasean aritzen banaiz gogo azkar batekin eta lehiakide gogor batekin, saiheutsak hertsatzen dizkit, ezker-eskuin narabil; haren irudimenek abiarazten dituzte nireak. Irabazi-nahiak, ospeak, indartzeak bulkatzen eta goratzen naute nire buruaz gainera. Eta solasean adostasuna nolakotasun osoki aspergarria da.

Gogo azkar eta arautuen harremanaz gure gogoaz azkartzen den bezala, ezin esan da zenbat galtzen eta makurtzen den gogo apal eta herbalekin. Hori bezala hedatzen den

izurriterik ez da. Izanez ere badut horren berri. Hizkatzea eta solasean aritzea maite dut, baina gizon gutirekin eta neuretzat. Zeren handientzat ikuskizuntzat zerbitzatzea eta gogoaren eta ele-jarioaren erakustea norgehiagokan, aurkitzen baitut ofizio desegokia zaiola ohoreko gizon bati.

Ergelkeria nolakotasun txarra da; baina beraren ezin jasatea, eta berarengatik sumintzea eta gorromiatzea, gertatzen zaidan bezala, beste eritasun mota bat da, nekagarri bezala ergelkeriari deus guti zor diona; eta hori da orain neure buruaz salatu nahi dudana.

Solasean eta eztabaidan hasten naiz libertate eta erraztasun handirekin, aburuak nire baitan lurra desegokia aurkitzen baitu sartzeko eta barrenki erroztatzeko. Ezein ustek ez nau harritzen, ezein sinesmenak ez nau zauritzen, nirearekin kontrakotasun handiagoa badu ere. Ez da hain ameskeria arinik ez bitxirik non ez baitzait giza gogoaren ekoizpenetik ateragarria iruditzen. Guk, geure gogoari finkatzerik egiteko eskubidea kentzen diogunok, berazki begiratzen diegu uste ezberdinei, eta, adimena ematen ez badiegu ere, errazki ematen diegu belarria. Balantzako plater bat osoki hutsik denean, bestea uzten dut kordokatzerat atso baten ametsen azpitik ere. Eta desenkusagarria iruditzen zait lehenago zenbaki bakoitia onartzen badut; ostirala baino lehenago osteguna; mahaian hamahirugarrena baino hamabigarrena edo hamalagarrena izatea nahiago badut; gogotikago ikusten badut erbi bat saihetsetik dabilela neure bidetik zehiarka baino, eta eskuinekoa baino lehenago ematen badut ezkerreko oina oinetakoen hartzeko. Halako ameskeria guztiek, gure inguruan sinesmenean daudenek, merezi dute, behinik behin, entzun daitezen. Niretzat bakarrik ezdeuskeria daramate, baina daramate. Uste arruntak eta zorizkoak ezer ezak baino pisu gehiago dute naturan. Eta honaraino joatea baimendu nahi ez duena, sineskeriaren biziotik ihes egiteagatik, menturaz erortzen da temakeriarenean.

Bada, aburuen kontraesanek ez naute zauritzen ez asaldatzen; bakarrik iratzartzen eta ariarazten naute. Zuzenketatik ihes gabiltza, joan eta agertu beharko gintzaizkioke, bereziki solasbidearen moldepean datorrenean, ez nagusigoaren moldepean. Oposizio bakoitzari, ez zaio begiratzen ea zuzena den, baina, zuzen ala makur, hartaz nola deseginen garen. Besoak luzatu ordez, atzaparrak luzatzen dizkiogu. Jasanen nuke adiskideen aldetik zakarki joa izatea: “Ergel bat haiz, ametsetan ari haiz” Gizon zintzoen artean, maite dut suharki mintza dadin, hitzak gogoa doan lekura joan daitezen. Belarria azkartu behar dugu eta hitzen hots zeremoniatsuaren samurtasun horren kontra gogortu. Maite dut lagungo eta trebetasun azkar eta gizonezko bat, bere harremanaren garraztasun eta bizkortasunean gozatzen den adiskidantza bat, maitasuna bezala ausiki eta harramazka odoltsuetan.

Ez da aski bizkorra eta eskuzabala, ez bada liskartia, zibilizatua eta artista baldin bada, eta elkarren kontrako joaldien eta abiatzeen beldur baldin bada.

Neque enim disputari sine reprehensione potest. 201

Kontra egiten zaidanean, nire adimena iratzartzen da, ez nire kolera; aitzintzen naiz kontraesaten zaidanaren aldera, irakasten baitit. Egiaren alderdia izan behar zen bataren eta bestearen alderdi amankomuna. Zer erantzunen du hark? Gorromioaren pasioneak jo dio adimena. Arrazoiak baino lehenago nahasmena atxiki zaio. Onuragarria litzateke gure eztabaiden erabakia ordaindua izan dadin, gure galtzeen ezaugarri material bat izan dadin, kontua eduki dezagun, eta nire nerabeak esaten ahal diezadan: “Joan den urtean, ehun ezkutu kosta zitzaizun ezjakina eta temosa hoge aldiz izateagatik.”

Bestakatzen eta ferekatzen dut egia aurkitzen dudanez eskutan, eta alaiki errendatzen natzaio, eta luzatzen dizkiot neure arma garaituak, urrundik datorrela dakusadanean. Eta, bekoki harroegi eta maisuegi batetik ez datozen ber, bizkarreratzen ditut neure idazkiei egiten zaizkien erantzukiak; eta maiz aldatu ditut hobekitzearen arrazoiagatik baino gehiago jendetasunaren arrazoiagatik; ohartarazteko libertatearen

mantentzea eta eskertzea maite baitut amore emateko erraztasunaren bidez; neure bizkar bada ere. Halarik ere, neke da nire aroko gizonen horretara erakartzea; ez dute zuzentzeko kurairik zeren ez baitute zuzenduak izateko kurairik, eta beti itxuratuki mintzatzen dira batzuk besteen aurrean. Hain atsegin handia dut epaiturik eta ezaguturik izatean non berdin bezala baitzait bietarik zeinen moldez naizen. Neure irudimenak bere buruari kontraesaten eta kondenatzen baitio hain maiz non orobat baitzait beste batek egin dezan: oroz gain, nik haren erantzukiari nahi dudak kasuaz baizik eman ez diodan ber. Baina aharra egiten dut bere burua hain goratzat daukanarekin, nik ezagutzen dudak batek bezala, auziperatzen baitu bere oharpena, sinetsia ez bada, eta laidotzat hartzen baitu berari jarraikiz joaten ez bada. Sokratesek hartzen bazituen, beti irriz, bere hitzaldiari egin kontraesanak, esan liteke bere indarragatik zela, eta abantaila bere alde gertatu behar baitzen, ospe berriaren gai bezala onarzen zituela. Baina ikusten dugu deusek ez digula sentimendua hain minbera egiten nola arerioaren gailentasunaren eta arbuioaren usteak; eta, arrazoi horrengatik, ahulari dagokiola zuzentzen eta hobekitzen duten oposizioen gogotik onartzea. Egiazki, neure beldur direnen harremana baino gehiago bilatzen dut jotzen nautenena. Atsegin motel eta kaltegarri bat baita miresten gaituzten eta lekua uzten diguten jendeekin ihardukitzea. Antistenesek bere semei manatu zien ez eskertzeko ez onartzeko beti laudoriatzen zituen gizona. Harroagoa sentitzen naiz neure buruaren gain irabazten dudak garaipenaz, guduaren sugartasunean berean, neure arerioaren arrazoiaren indarraren azpian neure buruari amore emanarazten diodanean, haren ahuleziaren bidez haren gainean irabazten dudak garaipenaz ez dut atseginik.

Bada, onartzen eta aitortzen ditut zuzenik doazen argudio mota guztiak, ahulagoak badira ere, baina ez ditut jasaten molderik gabe ematen direnak. Berdin zait gaia, eta aburuak orobat, eta garaipena zeinen alde doan ere. Egun oso batez erantzunen nuke lasai, eztabaidaren moldea araupean badoa. Ez dut arau bezainbat indarririk ez sotileziarik eskatzen. Egunero artzaiei eta nerabeen arteko eztabaidetan ikusten den araua, gure artean behin ere ez. Zerbaitetan mainguka badabiltza jendetasunean da; guk ongi egiten duguna. Baina beren burrunbak eta egonezak ez ditu beren gaitik baztertzen: beren solasak darrai bere bidetik. Batak bestea aitzintzen badu, elkarren zain ez badira ere, elkar aditzen dute behintzat. Nire irudiko sobera ongi erantzuten da, egoki erantzuten bada. Baina eztabaida uherra eta araurik gabea denean, gaia uzten dut eta moldeari estekatzen natzaio herrati eta sobera, eta sartzen naiz eztabaidatzeko modutemoso, maltzur eta harro batean, horretaz gero gorritu egiten bainaiz.

Ezin da ergel batekin fede onean solasean ari. Ez da bakarrik nire adimena usteltzen hain nagusi zakar baten eskuan, nire kontzientzia ere bai.

Gure eztabaidak debekatuak eta zigortuak izan behar lirateke beste hitzezko gaiztakeriak bezala. Zein bizio ez dute iratzartzen eta hertsatzen, beti kolerak zuzendurik eta gidaturik! Etsaigoan sartzen gara, lehenik arrazoiaren aurka, eta gero gizonen aurka. Eztabaidatzen ez dugu ikasten kontraesateko baizik, eta bakoitzak kontraesanez eta kontraesana izanez, eztabaidaren fruitua egiaren galtzea eta iraungitzea dela gertatzen da. Horrela, Platonek, bere *Errepublikan*, debekatzen die ariketa hau gogo dorpeei eta gaizki sortuei.

Zertarako sartzen zara zernahiren bilatzera urratsik ez funtsezko abiatzerik ez duenarekin? Ez zaio gaiari kalterik batere egiten uzten denean beraren erabiltzeko moduaren ikusteagatik; ez diot modu eskolastikoa edo artistikoa, badiot modu naturala, adimen sendo batekoa. Zein izanen da azkenean? Bata badoa ekialdera, bestea mendebaldera; beharrezkoena galtzen dute, eta gorabeheren mukuruan nahasten. Erauntsiaren ordu baten buruan, ez dakite zeren bila ari diren; bata behean da, bestea gora, bestea saihestua. Hitz eta antzekotasun bati datxikiona; erantzuten zaiona aditzen

ez duena, hain sartua baita bere lasterraldian; eta gogoan du bere buruari eta ez zuri nola jarraiki. Indarrez ahul aurkitzen dena, denaren beldur, dena ezeztatzen duena, hasieratik solasa nahasten eta aldaratzen duena; edo, eztabaidaren erdian, haserretzen eta osoki akademiko bilakatzen dena; kolera-zko jakinezagatik, gutiespen harro bat erakutsiz edo itxurarik gabeko apalkeria ergel bat. Nabarmena den ber, berdin zaio zer agertzen den. Besteak bere hitzak zenbatzen ditu, eta arrazoitzat pisatzen. Hark ez darabil bere ahotsaren eta biriken abantailarik besterik. Eta hara bere buruaren kontra ondoriatzen duena. Eta honek hitzaurrez eta bihurtzeko hutsalez gortzen zaituena! Beste hura irain hutsez armatzen da eta bilatzen du funtsik gabeko liskar bat berea hertsatzen duen gogo baten lagungoari eta solasari itzurtzeko. Azken horrek ez dakusa ezer arrazoian, baina setiatuturik edukitzen zaitu bere perpausen jostura dialektikoei eta bere artearen formulei buruz.

Bada, nor ez da jakintzez mesfidatzen, eta ez du dudatzen haietarik bizitzaren beharrerako fruitu sendo zerbait ateratzen ahal den, haietaz dugun erabilpena ikusiz: *nihil sanatis litteris*? Nork hartu du adimena logikan? Non dira haren agintza ederrak? *Nec ad melius vivendum nec ad commodius disserendum* Ofizio horretako gizonen eztabaida publikoetan baino nahaste-borraste gehiago ikusten da sardin-saltzaileen esamesetan? Nahiago nuke neure semeak ostatueta mintzaten ikas dezan mintzatzeko eskoletan baino. Eduki ezazu arteetako maisu bat, ari zaitez harekin solasean: zergatik ez digu itxurazko bikaintasun hori sentiarazten, eta zergatik ez ditu emakumeak eta jakingabeak, gu garen bezala, bere arrazoen bermetasunagatik eta bere arauaren edertasunagatik liluratzen? Zergatik ez gaitu berak nahi bezala menperatzen eta sinestarazten? Gaian eta jokamoldean hain aitzindurik den gizon batek zergatik nahasten ditu irainak, moldegabekeria eta herra bere eskriman? Erantz ditzan bere boneta, bere jantzia eta bere latina; ez ditzan gure belarriak jo Aristoteles guztiz huts eta gordinaz, gure artekotzat hartuko duzu, edo makurrago. Iruditzen zait, hertsatzen gaituzten mintzairazko bihurtaldi eta estekadura horiei buruz, eskuzko jostakariekin bezala dela: beren arintasunak gudukatzen eta bortxatzen ditu gure zentzuak, baina ez du inola ere gure sinesmena kordokarazten; jostaketa horretaz landara, ez dute arrunt eta apal ez den ezer egiten. Jakintsuagoak izateagatik ez dute ezdeuskeria gutiagorik.

Jakintza maitatzen eta ohoratzen dut daukatene bezainbat; eta, bere zinezko erabilpenean, gizonen erdiespenik noble eta ahaltsuena da. Baina horiengan (eta mota horretakoa bada mugagabeko kopuruan) horretan finkatzen baitute beren gaitasuna eta balioa, beren adimena beren oroimenean baitute *,sub aliena umbra latentes*, eta ezer ez baitezakete liburuen bidez ez bada, hastiatzen dut, esatera ausartzen banaiz, zozokeria baino apur bat gehiago. Nire herrian eta aroan, irakaskuntzak poltsak hobekitzen ditu, gogoak inola ere ez. Motelak aurkitzen baditu, zamakatzen eta itozten ditu, mukuru gordina eta egostezina; argiak aurkitzen baditu, gogotik garbitzen, arintzen eta zorrozten ditu ezdeustu arte. Kasik nolakotasunik gabeko gauza da; hagitz tresna erabilgarria ongi sortu gogo bati, beste gogo bati galgarri eta kaltegarri zaio; edo, hobeki, erabilpen garestiko gauza da, prezio apaletan jabetzera ez datorrena; esku zenbaitetan, erregeren makila da; beste zenbaitetan, bufoiaren makila. Baina jarraiki dezagun.

Ez zaituela gudukatzen ahal zeure etsaiari irakastea baino zein garaipen handiagorik nahi duzu? Zeure aburuaren abantaila irabazten duzularik, egia da irabazten duena; araua eta jokamoldearen abantaila irabazten duzularik, zerori zara irabazten duzuna. Uste dut, Platonen eta Xenofonen baitan, Sokratesek eztabaidaren alde baino gehiago eztabaidarien alde eztabaidatzen duela, eta, Eutidemori eta Protagorasi beren desegokitasunaz irakasteko, beren artearen desegokitasunaz baino gehiago. Lehendabiziko gaia eskuan hartzen du haren argitzea baino helburu onuragarriagorik duenak bezala, esan nahi baita, zuzentzeko eta aritzeko hartzen ditudan gogoen argitzea.

Inarrosaldia eta ehiza gure helburua da, geurez: ez gara gaizki zuzentzeagatik desenkusagarriak; harrapatzean huts egitea, besterik da. Zeren egiaren bilatzeko sortuak baikara; jabetzea ahaltasun handiago bati dagokio. Ez da, Demokritok zioen bezala, amildegietako hondoan gorderik, baina hobeki garaitasun mugagabea goratua jainkozko ezagutzen. Mundua ikerpen eskola batez baizik ez da. Eta ez da ea helburua zeinek eskuratzen duen, baina lasterraldirik ederrenak zeinek egingen dituen. Egia dioenak hainbat egiten ahal du ergelarena nola faltsua dioenak: zeren esanaren moduz eta ez gaiaz ari baikara. Nire izaera moldeari bezainbat gaiari begiratzea da, abokatuari bezainbat auziari, Altzibiadesek egin zedin manatzen zuen bezala.

Eta egunero solastatzen naiz autoreen baitan irakurtzen, beren jakintzari buruzko axolarik gabe, beren modua bilatzen, ez beren gaia. Halaber gogo ospetsu baten harremana bilatzen dut, ez hark irakats diezadan, baina nik ezagut dezadan, eta ezagutuz, balio badu, imita dezadan.

Gizon orok esan dezake egiazki; baina arautuki, zuhurki eta jakinez esatea, gizon gutik ahal du. Horregatik, ez jakitetik datorren hutsak ez nau ofendatzen, zozokeriak bai. Onuragarriak zitzaizkidan harreman asko hautsi ditut, ni solasean ari nintzaienen erantzunaren nabarmenkeriagatik. Ez naiz urtean behin haserretzen neure menpean ditudan jendeen hutsengatik; baina beren aipamen, aitzakia eta astadefentsa basengatik, egunero gara zintzurretik elkarren harrapatzeko. Ez dute aditzen zer ez eta zergatik esaten den, eta berdin darantzute; etsitzekoa da. Ez dut neure buruan zakarki jotzea sentitzen beste buru baten kontra ez bada, eta hobeki moldatzen naiz neure jendeen bizioarekin beren ausarkeria, zozokeria eta ergelkeriarekin. Gutiago egin dezaten, egiteko gaiak diren ber: haien borondatearen berotzeko esperantzan bizi zara; baina egur puska batetik ez dago zaintzerik ez balioko gozatzerik.

Zer, bada, gauzak hartzen baditut diren ez bezala? Izaten ahal da; eta horregatik neure jasangaizkeria salatzen dut, eta banago lehenik berdin biziosoa dela zuzena nola makurra denarengan (zeren beti garrazkeria tiraniko bat baita norbere molde ez bezala den molde baten ez jasatea); eta gero, egiazki, munduko ergelkeriengatik sumintzea eta hunkitzea baino ergelkeria handiagorik, ez desegokiagorik, ez dela. Zeren nagusiki gure kontra baikaramatza; eta iragan aroko filosofo hark²⁰⁵ ez luke sekula bere negarrentzat aukerarik falta, bere burua ikertu bezainbat. Misonek, zazpi zuhurretarik batek, izaera timoniar eta demokritar²⁰⁶ batekoa baitzen, galdeginik ea zergatik irri egiten zuen bakarrik: “Nik bakarrik irri egitea irrigarria delako,” erantzun zuen.

Zenbat ergelkeria esaten eta erantzuten dudan egunero, neure arabera; eta zenbatez ere gehiago, beste baten arabera! Ezpainak ausikitzen baditut, zer ez dute besteek egingen? Hitz batez, bizidunen artean bizi behar dela, eta zubipean ibaia joan dadila utzi, gure axolarik gabe, edo, gutienez, gure hunkimenik gabe. Baina, zergatik topatzen gara, geure hunkimenik gabe, gorputz makurra eta gaizki eginga duen batekin, eta ez dugu gogo gaizki antolatu baten topaketa pairatzen ahal koleran sartu gabe? Garrazkeria bizioso hori, hutsean baino gehiago, epailearengan datza. Ahoan eduki dezagun beti Platonen hitz hau: “Osasunik gabe aurkitzen dudan hau, ez ote da neroni osasunik gabe izateagatik?” Ez naiz ni neroni hutsean? Neure oharpena ez daiteke neure kontra bihur? Zuhurtitz zuhurra eta jainkozkoa, gizonen hutsik orokorrena eta arruntena azotatzen duena. Ez bakarrik elkarri egiten dizkiogun erantzukiak, baina geure eztabaidagaiak, arrazoiak eta argudioak ere eskuarki geure kontrako bihurgarriak dira, eta geure armez jotzen dugu geure burua. Horren adibiderik aski utzi dit zahargoak. Asmatu zuenak argiki ongi eta egoki esan zuen:

Stercus cuique suum bene olet. ²⁰⁷

Atzean gure begiek ez dakusate ezer. Egunean ehun aldiz, geure buruaz burlatzen gara geure ondokoaren bizkar eta besteen baitan hastiatzen ditugu geuregan argikiago dauden

akatsak, eta berauek miresten ditugu nabarmenkeria eta ohargabekeria harrigarri batez. Oraindik atzo berean ikusi nuen adimeneko gizon bat, behar bezalako pertsonaia, burlatzen zela graziosoki bezain zuzenki beste baten modu dorpeaz, mundu guztiari burua hausten baitzion bere familiako genealogia eta ezkontzekin, erdia baino gehiago faltsuak izanik (beren nolakotasunak dudagarriagoak eta segurgabeagoek dituztenak gogotikago lotzen zaizkie halako solas ergelei); eta berak, bere baitara gibelatu izan balitz, bere emaztearen arrazako lehentasunen balioaraztean eta barreiatzean ez zukeen bere burua asperkeria eta ahoberokeria gutiagorekin aurkituko. Handinahi zamakagarria, emazteak hartaz bere burua armaturik ikusten duena, eta hori bere senarraren eskutik! Latina adituko balute, esan beharko litzaieke:

Age! si hæc non insanit satis sua sponte, instiga. 208

Ez dut esan nahi garbirik ez denak ez duela salatu behar, zeren inork ez bailuke salatuko; ez eta erru mota berean garbirik denak ere. Baina nahi dut gure adimenak, orduan epaitzen ari den beste baten gainera jotzean, ez gaitzan geure barrenerako epaiketarik barkatu egin. Karitatezko ofizioa baita bere baitan bizio bat erauzten ahal ez duena, halarik ere, entseia dadin besteren baitatik kentzera, hor hazia hain gaiztoa eta tematia ez delakoan. Eta ez zait erantzun egokirik iruditzen nire hutsaz ohartarazten nauenari bere baitan ere badela esatea. Eta zer horregatik ere? Oharpena beti egiazkoa eta onuragarria da. Sudur onik bagenu, geure gorotzak gehiago kirastu beharko gintuzke geurea den ber. Eta Sokratesek uste du bere burua, eta bere semea, eta arrotz bat, bortizkeria eta irain baten errudun aurkituko lituzkeenak bere burutik hasi beharko lukeela zuzenbidearen kondenara aurkezten eta hor eskatu, bere buruaren garbitzeko, borroeroaren eskuaren laguntza, bigarrenik semearentzat eta azkenik arrotzarentzat. Arau honek doinu goratuxe bat hartzen badu, gutienez lehenik bere burua aurkeztu behar du bere kontzientziaren zigorrera.

Zentzuak gure epaile berezi eta lehenak dira, ez baitzaizkie gauzei ohartzen kanpoko gorabeherengatik baizik. Eta ez da mirestekoko gure gizartearen zerbitzuko zati guztietan zeremoniazko eta azalezko itxurazko nahasmen etengabeko eta orokor bat baldin bada; bizimoduaren zatirik hoberena eta eraginkorrena horretan datza. Beti gizonarekin ari gara harremanetan, haren baldintza ikaragarritzko gorputzekoa baita. Iragan urteetan erlijiozko ariketa bat hain beharia eta materiagabekoa eraiki nahi digutenak ez daitezen harri, horrek gure artean zatiketa eta alderdiaren ezaugarriarik, izenbururik eta tresnarik ez balu, beren behatzen artetik itzuria eta urtua izanen zatekeela uste duen norbait aurkitzen bada. Solasean bezala: mintzatzen denaren larritasunak, jantziak, eta ontasunak maiz sinesmena ematen diete aburu hutsal eta zozoei; ez baita uste izatekoa jaun batek, hain jarraikia eta hain beldurgarria, ez dezan barrenean herrikoiaz beste den jakintza bat, eta hainbat eginkizun eta kargu ematen zaizkion gizon bat, hain arbuiatzailea eta beltzuria, ez dadin urrundik agurtzen duen eta inork enplegatzen ez duen beste hura baino trebeagoa izan. Ez bakarrik hitzak, baina jende horien keinuak gogoan eta kontutan hartzen dira, bakoitzak itzulpen eder eta senda bat eman nahi dielarik. Solas arruntera apaltzen badira eta onarpen eta begirunez beste den zerbait agertzen bazaie, zartakatzen zaituzte beren esperientziaren manu-indarraz: entzun dute, ikusi dute, egin dute; adibideen bortxaz zamakaturik zaude. Gogotik esanen nieke zirujau baten esperientziaren fruitua ez dela bere ariketen historia, ez eta lau izurridun eta hiru hezurreri sendatu dituela oroitzea, erabilpen horretarik ez badaki bere adimena zertaz egin ondoratzen, eta sentiarazten ez badigu zuhurrago bilakatu dela bere artearen erabilpenaz. Musika tresnen kontzertu batean bezala, ez da arrabit bat, espineta bat eta xirula aditzen, aditzen da harmonia orokor bat, multzo horren bilera eta fruitua. Bidaiek eta karguek hobekitu badituzte, beren adimenaren eginkizuna da horren agertaraztea. Ez da aski esperientzien aipatzea, pisatu eta sailkatu behar dira, eta egosi eta destilatu behar

dira, dakartzaten arrazoi eta ondorioen ateratzeko. Sekula ez zen hainbeste historialari izan. Beti da on eta onuragarri haiei entzutea, beren oroimenaren biltegitik irakaspen eder eta onesgarritz ausarki hornitzen baikaituzte; zati handia, zinez, bizitzaren zerbitzurako; baina guk ez dugu hori bilatzen orain, bilatzen dugu ea errezialari eta bildumen egile horiek beren baitan onesgarriak diren.

Tirania mota oro gorroto dut, mintzoduna eta eragilea. Gogotik bihurtzen naiz gure adimena zentzuen bidez engainatzen duten gorabehera hutsalen kontra; eta handitasun ohigabeko horien zelatan egonik, aurkitu dut, gehienetan, besteak bezalako gizonak direla.

Rarus enim ferme sensus communis in illa

Fortuna. 209

Menturaz egiazki direna baino gutiago apreziatzen eta ikusten ohi zaie, gehiago entseiatzen eta gehiago erakusten baitira: ez dagozkio hartu duten zamari. Zaman baino indar eta ahal gehiago izan behar da eramalearengan. Bere indarra bete ez duenak asmatzeko uzten dizu indar gehiago ote duen eta bere azken heineraino entseiatu ote den; bere zamaren azpian lehertzen denak bere neurria eta bere bizkarren ahulezia agertzen du. Horregatik ikusten dira hainbat gogo gaitasunik gabe jakintsuen artean, besteen artean baino gehiago: etxeko nagusi onak, merkatari onak, eskulangile onak izan ziratekeen; beren indar naturala horren arabera moldatua baitzen. Jakintza pisu handiko gauza da; lehertzen dira haren azpian. Gai noble eta ahaldu haren eskuztatzeko eta sailkatzeko, haren erabiltzeko eta hartaz baliatzeko, beren ahalmenak ez du indarrik aski, ez gaitasunik aski: bakarrik izaera azkar batean gertatzen baita; eta hauek hagitz bakanak dira. “Ahulek, dio Sokratesek, filosofiaren duintasuna usteltzen dute erabiltzean” Ezdeusa eta biziosoa dirudi gaizki bildua delarik. Hara nola higatzen eta zorutzen diren,

Humani qualis simulator simius oris,

Quem puer arridens pretioso stamine serum

Velavit, nudasque nates ac terga reliquit,

Ludibrium mensis. 210

Halaber, zuzentzen eta manatzen gaituztenei, mundua eskupean baitute, ez zaie aski adimen arrunt baten edukitzea, guk ahal duguna ahal izatea; gu baino urrunez beherago daude gu baino urrunez gorago ez badaude. Gehiago agintzen baitute, gehiago zor dute ere; eta horregatik isiltasuna ez zaie bakarrik begirunezko eta larritasunezko itxura, baina oraindik ere probetxu eta ongi-egotezkoa: zeren Megabiso, Apelesen ikustera joanik honen lantokian, luzaz egon baitzen hitzik esan gabe, eta gero hasi zen honen obrez mintzatzen, nondik eta erantzun gogor hau izan baitzuen: “Isilik egon haizenean, gauza handi zerbait hirudien hire kateekin eta hire apaindurengatik; baina orain, mintzatzen aditu zaiane, nire lantokiko mutilek ere gutiesten haute” Apaindura handi haiek, bonbazia haiek, ez zuten ezjakintasun herrikoi baten moldean ezjakina izatea baimentzen, eta desgoki mintzatzea margolaritzaz: ustezko jakintza kanpoko hura gorde behar zuen muturik egonez. Nire aroan, zenbat gogo ergelei balio izan zaien aurpegi hotz eta isil batek zuhurtasun eta gaitasunaren izenburutzat!

Handitasunak, karguak, halabeharrez meritugatik baino gehiago ematen dira zoriaz; eta maiz zuzengabea egiten zaie erregeei erantzukia. Aitzitik, mirestekoa da hainbeste zorian izan dezaten, hain ezaugarri guti izanez:

Principes est virtus maxima nosse suos; 211

Zeren naturak, bikaintasunaren bereizteko eta gure bularretan sartzeko, non eta gure borondatearen eta gure balio zuzenaren ezagutza baitago, ez baitu hainbat jendegana hedatzen ahal den ikusmena eman. Bereizi behar gaituzte ustezka eta itsuka, arrazaz, aberastasunaz, irakaspenaz, jendearen omenaz: hagitz argudio ahulak. Zuzenbidean

epaitzeko eta arrazoiaren bidez gizonen bereizteko bidea aurkitzen ahalko lukeenak, horrekin bakarrik finkatuko luke gobernu-molde bete bat.

“Bai, baina ongi bururatu du eginkizun handi hau” Zerbaiten esatea da, baina ez da aski, zeren zuzenik onartu zuhurtitza da hau: ez direla aholkuak gertakarien bidez epaitu behar. Kartagindarrek zigortzen zituzten beren kapitainen aburu txarrak zorioneko ondorio batez zuzenduak balira ere. Eta erromatarrek maiz ezeztatu diete onespena garaipen handi eta erabilgarriari, zeren buruzagiaren jokamoldea ez baitzegokion bere zorionari. Munduko ekintzetan ikusten ohi da zoriak, guri erakusteko zenbat ahal duen gauza guztietan, eta gure ustearen garaitzeko atsegina duela, dorpeak zuhur ezin bilakaturik, zorionekoak egin dituela, bertutearekin lehian. Eta soilago bere ehundura duten ekintzen faboratzera sartzen da gogotik. Hortik egunero ikusten baita gure arteko xehenek hagitz lan handiak, publikoak nola pribatuak, bururatzen dituztela. Eta, Siranes persiarak, bere solasak hain zuhurak zirela ikusiz, bere eginkizunak hain gaizki gertatzen zirenez harritzen zirenei erantzun bezala: bakarrik bere solasen jabea zela baina bere eginkizunena zoria zela; hauek ere berdin erantzun dezakete, baina alderantziz. Munduko gauzarik gehienak beren kabuz egiten dira,

Fata viam inveniunt. 212

Ondorioak maiz bermatzen du hagitz jokamolde dorpea. Gure artekaritza kasik aztura batez baizik ez da, eta ohitura eta ereduaren begirunea arrazoiarena baino maizago. Eginaren handitasunaz harriturik, behiala jakin izan ditut bururatu zutenen bidez beren motiboak eta norabidea: uste arruntik besterik ez dut aurkitu; eta arruntenak eta erabilienak halaber dira, menturaz, gauzatzeko seguruenak eta errazenak, erakustaldirako ez, ordea.

Zer, bada, arrazoirik motelenak hobekien jarriak ote dira? Apalenak eta laxoenak, eta zafratuenak, hobeki dagozkie egitekoei? Erregeen aholkuaren lehentasunaren gordetzeko, pertsona arrotzek ez dute parte hartu behar ez eta lehen oztopoa baino urrunagora begiratu. Sinesmena hazi nahi duenak onartu behar du itsuka eta osoki. Nire aholkuak azaletik gaiaren lehen lerroak egiten ditu, eta gogoan hartzen dut arinki, haren lehen itxuren arabera; eginbeharraren giharra eta muina, zeruari uzten ohi diot:

Permitte divis cætera. 213

Zoriona eta zorigaitza beren buruaren jabeak diren bi botere dira. Zuhurgabezia da giza zuhurtziak zoriaren eginbeharra bete ahal duela uste izatea. Eta kausak eta ondorioak besarkatzen dituela eta bere eginaren aitzinamendua eskutik daramala uste duenaren eginkizuna hutsala da; bereziki gerrako aholkuetan. Gure artean noizbait ikusten den zuhurtasun eta neurtasun militarra baino handiagorik ez zen sekula ikusi: bidean galtzeko beldurrez ote da, joko horren galbiderako gordetzen?

Areago diot; gure zuhurtzia eta gogoeta berak darraiola maizenik zoriaren jokamoldeari. Nire borondatea eta hitzaldia behin molde batez behin bestez badabil, eta mugimendu horietarik askok beren burua gobernatzen dute nik gabe. Nire arrazoiak baditu aldizko eta zorizko abiadurak eta inarrosaldiak:

Vertuntur species animorum, et pectora motus

Nunc alios, alios dum nubila ventus agebat,

Concipiunt. 214

Begira bedi nor diren hirietan ahaltsuenak eta nork egiten dituzten hobeki beren eginbeharrak: maizenik aurkituko da argirik gutien dutenak direla. Emakumeei, haurrei eta ergelei gertatu zaie estatu handien gobernatzea, printzerik argitsuenei bezain ongi. Eta hor sotalak baino maizago zakarrak aurkitzen dira, dio Tuzididesek. Beren zorionaren ondorioak beren zuhurtasunari ematen dizkiogu.

Ut quisque fortuna utitur

Horregatik ongi diot, zernahi moduz, gertakariak gure balioaren eta gaitasunaren lekuko eskasak direla.

Bada, puntu honen gainean nengoen, aski dela handitasunean goratu den gizon baten ikustea: gizon ezdeus bat bezala ezagutu badugu ere hiru egun lehenago, gure usteetan lerratzen da oharkabea handitasunaren eta jakintzaren irudi bat eta sinesten dugu, itxuraz eta sinesmenaz berreturik, merituan ere berretua dela. Hartaz uste dugu, ez haren balioaren arabera, baina fitxen moduz, haren mailaren lehentasunaren arabera. Zoria itzultzen delarik ere, erortzen eta berriz jende metaren erdian nahasten delarik, bakoitzak galdegiten du hain gora eraman ahal duen kausari buruz. "Hau ote da? egiten da; ez zekien besterik han zegoenean? Hain gutirekin askiesten ote dira printzeak? Zinez, esku onetan gara." Neure aroan, maiz ikusi dudana gauza da. Handitasunaren maskarak ere, komedietan erakusten denak, inola ere hunkitzen eta engainatzen gaitu. Erregeen baitan nik neronek agurtzen dudana beren agurtzaileen andana da. Agurtasun eta menpekotasun oro zor zaie, adimenarenaz salbu. Nire arrazoia ez da makurgarria ez malgugarria, nire belaunak bai.

Melantiok, Dionisioren tragediaz zer uste zuen galdeginik, zioen: "Ez dut ikusi, mintzairaz hain estalia baita." Halaber, handien hitzaldiez epaitzen duten gehienek esan beharko zuten: "Ez dut haren gai aditu, hain estalia baitzen larritasunez, handitasunez eta gorentasunez."

Antistenesek atenastarrei sinestarazten zien bidal zitzaten beren astoak lurren lantzerako erabiliak izan zitezen, zaldiak ziren bezala; horren gain erantzuna izan baitzitzaion abere hori ez dela halako lanerako sortua: "Orobat da, ihardetsi zuen, aski da zuen mamua; zeren zuen gerren buruzagitzan erabiltzen dituzuen gizonik jakingabeenak eta ez gaienak laster bilakatzen baitira hagitz meritudun, horretan erabiltzen dituzuelako".

Horretan datza hainbat jendalderen ohitura, beren artetik egin duten erregea kanonizatzen baitute, eta ez baitira askiesten ohoratzearekin adoratzeko ez badute. Mexikokoak, haren sakralizatzeko zeremoniak bukatu direnean, ez dira aurpegira so egitera ausartzen: areago, erregetasunaren bidez jainkotu izan balute bezala, eginarazten dizkioten zinen artean, beren erlijioaren, beren lekeen, beren libertateen gordetzeko, suharra, zuzena eta ona izateko, zin egiten dute ere eguzkiaren ibilarazteko bere ohiko argian, aro egokian hodeietarik euriaren egiteko, ibaien beren ibilbidetik lasterrarazteko, eta lurrari emanarazteko bere jendeek behar dituzten gauzak.

Molde arrunt honetarik bazterrean nago, eta jakintzaz gehiago mesfidatzen naiz zoriaren handitasunaz eta jendeen gomendioaz lagundurik dakusadanean. Gogoan izan behar dugu, agurtasunez eta begirunez ikaratzen den jendalde baten aurrean, zenbat den behar orduan mintzatzea, unearen bereiztea, solasbidearen haustea edo aldatzea maisuzko manu-indarraz, besteren oposiziotik defendatzea buruko inarrosaldi batez, irribarre batez edo isiltasun batez.

Ontasun izigarri handiko gizon bat, bere mahaian oso laxoki erabiltzen zen mintzagai arin batean bere aburuaren nahasterakoan, honela hasi zen zehazki "Soililk gezurti edo ezjakin bat izan daiteke honako honekin ados ez dena: mar-mar-mar...". Jarraiki puntu filosofiko horri, puñal bat eskuan.

Hona maiz erabiltzen dudana beste oharpen bat: eztabaidetan eta solasetan, onak iruditzen zaizkigun hitz guztiak ez dira bertan onartuak izan behar. Gizonik gehienak jakintza mailegatu batez aberatsak dira. Halako bati gerta dakioke ateraldi, erantzun eta zuhurtitz on baten esatea eta aitzinatzea haren indarrik ezagutu gabe. Menturaz neronen bidez egiaztatzen ahalko da ez ohi dela edukitzen mailegatzen den guztia. Horretan ez da beti amore eman behar, egia edo edertasun zerbait bada ere. Gudukatu behar da espreski, edo atzera egin, aditzen ez delakoan, alde orotarik dastatzeko ea nola jarria den

bere autorearen baitan. Gerta baitaiteke guk geure buruari ezpata sartzen diogula eta ukaldia laguntzen dugula bere indarraz gain. Behiala erabili ditut guduaren beharrea eta hertsaduran neure xedeaz eta esperantzaz urrunago sartu izan diren oldarraldiak; metaka ematen nituen, onartzen ziren pisuka. Hala nola gizon azkar batekin eztabaidatzen dudanean, atsegin dut haren ondorioen aurreratzea, esplikatzeke nekea kentzen diot, entseiatzen naiz oraindik betegabea eta sorberria den haren irudimenaren aurrikustera (haren adimenaren arautasunak eta egokitasunak urrundik mehatxatzen bainau), beste horiekin osoki kontrarioa egiten dut: ez da deus ere ulertu behar beraien bidez ez bada, ez da deus ere aitzinetik eman behar. Hitz orokorreaz epaitzen badute: “Hau ongi, hori ez” eta asmatzen badute, ikus ezazu ea zoriak asmatzen duen haien ordeaz.

Mugatu eta hertsu egin dezaten apur bat beren epaiketa: zergatik den, nondik den. Hain maiz dakuskidan epaiketa orokor horiek ez diote ezer. Jendalde oso bat mukuruka eta metaka agurtzen duten jendeak dira. Egiazki ezagutzen dutenek izenez eta banaka agurtzen dute. Baina egiteko arriskatsua da. Hortik ikusi dut, egunero baino maizago, ahulki finkatu gogoek, idazki baten irakurpenean edertasunaren lekuaren azpimarratzeko argiarenak egin nahian, hain hautaketa txarrean geldiarazten dutela beren mirespena non, autorearen bikaintasuna guri irakatsi ordeaz, beren jakineza irakasten baitigute. Virgilioren orrialde oso bat aditurik, oihu hau segurua da: “Hara zein ederra den!”. Sotilak hortik itzurtzen dira. Baina orpoaz orpo jarraitzea, eta aburu adierazi eta hautatu batez azpimarratu nahi izatea autore on bat nondik goratzen den, nondik bermatzen, hitzak, esaldiak, asmamenak, batzuk besteen ondotik pisatuz, alde hortik! *Videndum est non modo quid quisque loquatur, sed etiam quid quisque sentiat, atque etiam qua de causa quisque sentiat.*” Ergelei egunero aditzen dizkiet ergelak ez diren hitzak: zerbait on esaten dute; jakin dezagun noraino ezagutzen duten, ikus dezagun nondik duten. Laguntzen ditugu ez duten hitz eder hori eta arrazoiz eder hori erabil dezaten; soilik bildurik baitzeukaten; menturaz eta itsuka esan bide dute; balioarazten eta sinestarazten diegu.

Eskua ematen diezu. Zertarako? Ez dizute eskertzen, eta are zozoago bilakatzen dira. Ez iezaiezu jarraiki, utz itzazu joatera; gai hori erabiliko dute atzemanak izateko beldurrez dabilen jendea bezala; ez dira lekuz ez argiz aldatzera, ez barrenean ikertzera ausartzen. Inarrosten baduzu apur bat bada ere, itzurtzen zaie; uzten dizute, den bezain azkarra eta ederra. Arma ederrak dira baina gaizki giderreztatuak. Zenbat aldiz ikusi dut? Bada, haien argitzera eta laguntzera bazatoz, bertan harrapatzen eta ebasten dizute zure itzulpenaren abantaila: “Hori da esan nahi onena; hara zehazki nire ideia; ez badut horrela adierazi soilik mintzairaren eskasgoa izan da”. Putz egizu. Zozokeria harro horren zuzentzeko maltzurkeria bera erabili behar da. Hegesiasen irakaspenak (ez dela gorrotatu ez salatu behar, irakatsi baizik) arrazoiak du besteetan; baina hemen zuzengabe eta gizagabekeria da horrekin zer egin ez duen eta are gutiago balio duen norbaiten laguntzea eta zuzentzea. Maite dut haien uztea lohietatzera eta nahastera, oraindik daudenak baino areago, eta hainbestearaino non, ahal bada, azkenean beren burua ezagut dezaten.

Zentzuen ergelkeria eta antolabiderik eza ez da oharpen batez zuzentzen ahal den gauza. Eta konponketa horri buruz egoki esan dezakegu Zirok, gudu baten unean, bere ostea susta zezan eskatzen zionari erantzun zuena: “Ez direla gizonak kuraiatsu eta gudazale bilakatzen gudu zelaian berean prediku on bait esker, berehala musikari on bat bilakatzen ez den bezala kantu on baten aditzeagatik” Aitzinetik egin beharreko irakaspenak dira, hezkuntza luze eta iraunkor baten bidez.

Axola hori, eta zuzenketan eta irakaspenean iraunkortasun hori, gureei zor diegu; baina lehen iragalearen predikatza joatea eta lehen aurkituaren jakintzarik edo gaitasunik

ezaren zuzentzera, arras gaizki deritzodan ohitura da. Bakanka egiten dut, nirekin egiten diren solasean berean ere, eta irakaspen atzeratu eta maisuzko horietara jo baino lehenago uzten dut. Nire izaera ez da, ez idaztean eta ez mintzatzean, hasiberrientzat egokia. Baina guztientzat edo besteen artean esaten diren gauzetan ez naiz inoiz erdian sartzen, ez hitzez ez keinuz. Bestalde, deus ere ez zait ergelkerian hainbat amorratzen nola bere buruaz gozatzen dela ezein arrazoi arrazoituki egiten ahal dena baino gehiago. Zorigaitza da zuhurtziak zeure buruaz askiestea debekatzen dizula eta uzten zaituela beti asegabe eta beldurti, temakeriak eta ausarkeriak beren tropak gozamenaz eta segurantzaz betetzen dituzten artean. Zuntzunenei dagokie beste gizonei bizkar gainetik begiratzea, gudutik beti ospez eta alaitasunez beterik itzuliz. Eta maizenik mintzairazko arinkeria eta aurpegizko alaitasun horrek abantaila ematen die entzulegoaren aurrean, hau eskuarki ahula eta zinezko abantailen epaitzeko ez gaia izanez. Ustearen temakeria eta sutsukeria zozokeriaren frogarik seguruenak da. Deus ote da astoa bezain segurua, erabakia, gutieslea, so egilea, larria eta serioa?

Ez ote ditugu nahasten ahal, solasbide eta harremanaren izenburuean, atseginez eta bizitasunez elkarri burlaka ari diren adiskideen artean alaitasunak eta trebeziak sartzen dituen molde zorrotzak eta moztuak? Nire alaitasun naturalak aski egoki bilakatzen bainau ariketa horretarako; eta aipatu dudana beste ariketa hori bezain tinkoa eta larria ez bada, ez du zorrotasun ez argitasun gutiagorik, eta onuragarritasun gutiagorik ere ez, Likurgori iruditu bezala. Niri dagokidanez, gogo baino libertate gehiago ekartzen dut, eta asmamen baino zori gehiago; baina pairamenean hutsik gabea naiz, zeren ordaina, ez bakarrik garratza baina soberazkoa ere, asalatu gabe jasaten baitut. Eta egiten zaidan oldarraldian, bat-batean uzteko biderik ez badut, ez noa ere beste mutur horren gibeletik ere, erantzun aspergarri eta laxo batekin temakeria aldera: uzten dut joatera eta, belarriak goxoki apalduz, arrazoiaren edukitzea beste ordu hoberako uzten dut. Ez da beti irabazten duen merkataririk. Gehienak, indarrak eskasten zaizkienean, aurpegiz edo ahotsez aldatzen dira, eta destenorezko kolera batez, mendekatu orde, beren ahulezia eta jasangaizkeria salatzen dute. Arintasun horretan, geure akatsen zurda ezageriak zimikatzen ditugu, lasai egonik irainik gabe ukitzen ahal ez ditugunak; eta onuragarriki oharazten dizkiogu elkarri geure hutsak.

Badira beste esku joko batzuk, soberazkoak eta garratzak, frantses moduan, hiltzeraino gorrotatzen ditudanak: larrumintza xamurra eta sentikorra dut; eta neure bizian ehortzen ikusi ditut gure erret odoleko bi printze²¹⁷. Borrokatuz eztabaidatzea itsusi da.

Bestalde, norbaiti buruz uste bat eduki nahi dudanean, galdegiten diot ea zenbat askiesten den bere buruaz, noraino atsegin zaion bere mintzaira eta lana. Aitzakia eder hauetarik itzuri egin nahi dut: “Jostetan egin nuen;

Ablatum mediis opus est incudibus istud, ²¹⁸

ez nuen ordu bat eman; geroztik ez dut ikusi.” –“Bada, diot nik, utz ditzagun puska horiek, emaidazu osoki erakusten zaituen bat, bere bidez neurtu egin dakizun atsegin zaizun bat” Eta gero: “Zer iruditzen zaizu ederrena zeure lanean? Zati hau ote da, ala honako hau? Grazia, edo gaia, edo asmamena, edo adimena, edo jakintza?” Zeren eskuarki ohartzen bainaiz hainbat huts egiten dela norbere lanaren epaitzean nola beste baten lanaren epaitzean; ez bakarrik nahasten den atxikimenduagatik, baina haren ezagutzeko eta bereizteko jakintzarik aski ez izateagatik. Eginak, bere indarrak eta zoriaz, egilea bermatzen ahal du beronen asmamenaz eta ezagutzaz haratago eta aitzina hartzen ahal dio. Neuretzat, ez dut beste lanaren baliorik epaitzen neurearena baino ilunkiago; eta *Entseiuak*, behin behean, behin goran, ezartzen ditut, hagitz molde aldakor eta dudagarri batez.

Badira liburu erabilgarri asko beren gaiaren arrazoiagatik, haietarik autoreak gomendiorik batere erdiesten ez baitu, eta liburu onak, ekintza onak bezala, egilea

ahalkearazten dutenak. Idatziko nuke gure bazkarien eta jantzien moldea, eta gogoz kontra idatziko nuke; neure aroko ediktoak eta esku publikoetara doazen gutunak argitaratuko nituzke; eginen nuke gero galduko litzatekeen liburu on bati buruzko laburpen bat (eta liburu on bati buruzko laburpen oro laburpen ergela da), eta halako gauzak. Gerokotasunak erabilgarritasun berezia aterako du halako osaketetarik; nik, zein ohore aterako nuke, neure zori onarena ez bada? Liburu famatuetarik zati on bat baldintza horretakoa da.

Comineseko Philippe irakurri nuenean, duela urte asko, zinez hagitz egile ona, solas hau azpimarratu nuen ez arrunta bezala: poliki ihes egin behar dela norbere nagusiari hainbateko zerbitzuren egitetik non sari egokiaren aurkitzeko oztopatuko zaion. Asmamena goretsi behar dut, ez egilea; aspaldi ez duela Tazitoren baitan aurkitu nuen: *Beneficia eo usque laeta sunt dum videntur exolvi posse; ubi multum antevenere, pro gratia odium redditur*” Eta Senekak azkarki: *‘Nam qui putat esse turpe non reddere, non vult esse cui reddat.’* K. Zizeronek molde laxoago batez: *Qui se non putat satisfacere, amicus esse nullo modo potest.*

Gaiak, nola den arabera, agerrarazten ahal du gizon bat jakintsua eta oroimen handikoa, baina bere baitan zatirik berezien eta zuzenen eta bere gogoaren indarraren eta edertasunaren epaitzeko, jakin behar da zer den bere eta zer ez, eta bere ez den horretan zenbat zor zaion hautespen, antolamendu, apaindura eta eman dion mintzamoldeagatik. Zer? Ea gaia maileguz hartu duen eta moldea gaizkiagotu duen, maiz gertatzen den bezala. Guk, liburuekin harreman guti dugunok, neke honetan gaude: poeta berri baten baitan asmamen eder edo predikalari baten baitan argudio azkar zerbait ikusten dugunean, ez garela goastera ausartzen jakintsu baten bidez zati hori berea ala arrotza zaiolako berria izan arte; ordura arte zain nago beti.

Tazitoren historia txanda batez irakurri berri dut (doi gertatzen ez zaidana: duela hogei urte ez nagoela jarraian liburu baten aitzinean ordu batez baino gehiago), eta hainbat bere balioagatik nola diren anaia askorengan ikusten den jakintza eta ontasun molde iraunkorragatik Frantziak anitz onesten duen zaldun baten gomendioz egin dut. Ez dut egilerik ezagutzen idazki publiko bati ohitura eta isurmen partikularrei buruzko hainbat gogoeta gehitzen dionik. Eta iruditzen zait hari iruditzen zaionaren kontrarioa: bere aroko enperadoreen bizitzari bereziki jarraiki behar izanik, hain ezberdinak eta ezinagokoak krudelkeria mota orotan, hainbat ekintza nabarmen bereziki haien krudelkeriak azpikoen baitan eraginik, guduez eta inarrosaldi orokorrekoen ari izan balu baino gogoetatzeko eta kontatzeko gai azkarrago eta erakargarriago bat zeukala; eta maiz antzua aurkitzen dut, heriotza eder horien gain lasterkatzean haien ugaritasun eta luzetasunez gure aspertzeko beldurrez balitz bezala.

Historiaren modu hau ageriki erabilgarriena da. Higikunde publikoak gehiago daude zoriaren menpean, pribatuak gure menpean. Epaiketa bat da historiaren ondorio bat baino gehiago; bada kontu baino araubide gehiago. Ez da irakurtzeko liburu bat, ikertzeko eta ikasteko liburu bat da; zuhurtitzez hain betea da non baitira makurrak eta zuzenak; hitzaldi etiko eta politikoen mindegi bat da, munduko zuzendaritzan maila dutenen hornidura eta apainketarako. Beti aipatzen ditu arrazoi sendo eta azkarrak, molde ziztakor eta zorrotz batez, mendeko idazkera hanpatuari jarraikiz; hainbat maitatzen zuten haizatzea non gauzetan ziztarik ez zorrotzasunik aurkitzen ez bazuten hitzetarik hartzen baitzuten. Ez da Senekaren idazkeratik urrun; mamitsuagoa iruditzen zait, Seneka argiagoa. Bere zerbitzua egokiagoa da egoera uher eta eri batentzat, gure oraingo hau den bezala: maiz esanen zenuke margolatzen eta zimikatzen gaituela. Bere fedea zalantzan ezartzen dutenek beren burua salatzen dute gorrotatzen dutelako gainera. Aburu sendoak ditu eta eginkizun erromatarretan alderdi onari isuria da. Atsekabe zerbait dut zeren Ponpeio epaitu baitu harekin bizi eta harremanetan egon

diren jende onen usteak dakarrena baino mingotsago, Mario eta Silaren osoki paretzat jotzen baitu, gordeagoa zela salbu. Ponpeioren xedea eginkizunen gobernuan ez da handinahirik ez mendekurik gabetzat hartu, eta bere adiskideak berak beldur ziren garaipenak arrazoiaren mugez landara eramanez zukeela, baina ez halako hein zoro bateraino: bere bizitzan ez da hain tirania eta krudelkeria argiaz mehatxatzen gaituen ezer. Eta ez da ustea ageritasunarekin kontrapisatu behar: horrela nik ez dut sinesten. Bere narrazioak jatorrak eta zuzenak direla, menturaz argudia liteke honetarik beretik: ez dagozkiela beti zehazki bere epaiketen ondorioei, hauei jarraikitzen baitie hartu duen isurmenaren arabera, anitzetan erakusten digun gaiak gain, hau ez baitu molde bakar batez makurtu. Bere aroko erlijioaren onartzeagatik, manatzen zioten legeen arabera, eta egiazkoaren ez ezagutzeagatik ez du aitzakiarik behar. Hori bere zorigaitza da, ez bere hutsa.

Bereziki haren epaiketa hartu dut gogoan, eta ez naiz ongi argitu orotan. Hala nola Tiberio zahar eta eriak Senatari bidali gutuneko hitz hauek: “Zer idatziko dizuet, jaunak, edo nola idatziko dizuet, edo zergatikez dizuet idatziko aro honetan? Ainazate hil jainkoek eta jainkosek egunero hiltzen sentitzen naizen baino makurrago, hori baldin badakit”, ez dut ikusten zergatik ematen dizkion hain segurki Tiberioren kontzientzia oinaztatzen duen damu zitzakor bati; berdin naizenean, nik, behintzat, ez dut ikusten.

Hau ere apur bat laxo iruditzen zait: Erroman kargu ohoretsu zerbait izan zuela esan behar izanik, aitzakia emanez dioela ez duela arrandiakeriaz esan. Ateraldi hau ez zait molde horretako gogo batentzat egokia iruditzen. Zeren bere buruaz biribilki mintzatzera ez ausartzeak bihotzik eza zerbait badu. Sendo eta segurki epaitzen duen epaiketa gogor eta goratu batek, esku osoz darabiltza bere buruaren ereduak gauza arrotz batenak bezala, eta zabalik ematen du bere buruaren lekukotasuna beste batena bezala. Jendetasunaren arau arrunt horien gainean iragan behar da egiaren eta libertatearen alde. Ez naiz bakarrik neure buruaz mintzatzera ausartzen, baina bakarrik neure buruaz mintzatzera ere; galtzen naiz beste zerbait ez idazten dudanean eta neure gaiari itzurtzen natzaionean. Ez dut neure burua hain neurririk gabe maitatzen eta ez natzaio neure buruari hain atxikia eta nahasia non bereizten eta ikertzen ahal ez dudan bazterturik, auzokide bat bezala, zuhaitz bat bezala. Berdin huts egitea da noraino balio dugun ez ikustea, edo balio dugun baino gehiagoren esatea. Maitasun gehiago zor diogu Jainkoari geure buruari baino eta ez dugu ezagutzen, eta gainera ase arte mintzatzeko gara.

Idazki horiek haren baldintzetarik zerbait badakarte, pertsonaia handia zen, zuzena eta kuraiatsua, ez sineskeriazko bertute batekoa, baina filosofikoa eta eskuzabala. Ausarta aurkitzen ahal da haren lekukotasunetan; hala nola soldadu batek egur zama bat eramanez, eskuak hotzez gogortu eta zamari atxiki zitzaizkiola, eta han gelditu zirela loturik eta hilik, besoetarik erauziak. Halako gauzetan, hain lekukotasun handien manu-indarraren azpian malgutzen ohi naiz.

Vespasianoz dioena ere, Serapis jainkoaren faborez Alexandrian emakumeitsu bat sendatu zuela begiak bere tuaz igurtziz, eta ez dakit beste zein mirakulu, historialari on guztien eredu eta eginbeharraz egiten du: eraginkortasuneko gertakarien zerrenda egiten dute; jendeen sinesmen eta omenak gorabehera publikoen artean dira. Beren eginbeharra sinesmen orokorren aipatzea da, ez haien arautzea. Zati hau teologo eta kontzientzien zuzendari filosofoei dagokie. Horregatik hagitz zuhurki zioen bere lagun eta bera bezalako gizon handia zen honek: *Equidem plura transcribo quam credo: nam nec affirmare sustineo, de quibus dubito, nec subducere quae accepi*; eta besteak: *Haec neque affirmare, neque refellere operae pretium est. Fama rerum standum est*; eta mirakuluen baitako sinesmena gutitzen hasten zen mende batean idatziz, badio ez duela utzi nahi, hala ere, hainbat jende onak onartu eta zahar aroak begirune handiz hartzen

zuen gauza bat bere urtekarietan sartu gabe. Hagitz ongi esana. Eman diezaguten historia uste duten bezala baino gehiago hartzen duten bezala. Nik, darabildan gaiaren errege naizenak eta konturik inori ez diodanak, maiz sartzen ditut neure gogoko ergelkeriak, haietaz fidatzen ez banaiz ere, eta belarrietan atsegin ez zaizkidan hitzezko fineziak; baina menturara joatera uzten ditut. Badakusat halako gauzez ohorea hartzen dela. Ez dut nik bakarrik epaitu behar. Agertzen naiz zutik eta etzanik, aitzin eta gibealeko aldea, ezker eta eskuina, eta neure molde natural orotan. Gogoak, indarrean berdinak izanik ere, ez dira beti gaitasun eta gustuan berdinak.

Horra oroimenak osotara agertzen didana, eta aski segurantzaz eskasekin. Osotara egin epaiketa guztiak laxoak eta betegabeak dira.

IX

Hutsalkeriaz

Menturaz ez da honen hutsalki idaztea baino hutsalkeria ageriagorik. Jainkotasunak hain jainkozki adierazi diguna²²⁴ adimeneko jendeek gogoan axolaz eta etengabe erabili beharko zuten. Nork ez dakusa halako bide bati lotu natzaiola nondik, oztoporik ez lanik gabe, munduan tinta eta papera izan artean ibiliko bainaiz? Ez dut neure bizitzaz aipatzen ahal neure ekintzengatik: zoriak beheitiegi ezartzen ditu; neure ameskerien bidez egiten dut. Eta ikusi dut aitoren seme bat bere bizitza bere sabeleko ekintzen bidez baizik adierazten ez zuena; haren etxean ikusten zenuen, erakustaldian, zazpi edo zortzi eguneko pixontzi-lerro bat; hura haren ikerpena zen, haren hitzaldiak; beste edozein solasa kirasten zitzaion. Hauek dira, jendetasun gehixeagorekin, behin idor, behin beratz, eta beti egoskaitza den gogo zahar baten gorotzak. Eta noiz bukatuko dut zernahi gaitan gertatzen diren neure gogoeten etengabeko inarrosaldien eta aldaketen erakustaldia, Diomedesek gramatikaren gai bakarraz sei mila liburu bete baitzituen? Zer eman behar du talatak, mihiaren zezeltzeak eta laxatzeak mundua ito baitzuen hain liburu-zama ikaragarriaz? Hainbat hitz, bakarrik hitzengatik! O Pitagoras, zergatik ez huen erauntsi hau urrundu²²⁵!

Iragan aroko Galba bati salatzen zitzaion astialdian bizi zelako; erantzun zuen bakoitzak eman behar duela bere ekintzen arrazoia, ez bere astialdiarena. Engainatzen zen: zeren zuzenbideak ezagutza eta gorrotoa baitu ere lanik egin gabe daudenen gain.

Baina izan behar zen gaitasunik gabeko idazle ezdeusen kontrako lege behartze zerbait, ibiltarien eta alferren kontra den bezala. Jendeen eskutik baztertuko ginateke ni eta beste ehun. Ez da burla. Idazleen jendailak dirudi mende gainezkatu baten ezaugarria. Noiz idatzi genuen orain nahasmenean gaudenean bezainbat? Noiz idatzi zuten erromatarrek beren hondamenean bezainbat? Gainera, gogoen sotilezia ez da erresuma batean zuhurtzia, eginbehar alfer hau sortzen da bakoitzak bere lanbideko ofizioari laxoki lotzen zaiolako eta berazten delako. Mendearen usteltzea gauzatzen da gutarik bakoitzaren laguntza bereziaz: batzuek tradiketa dakarte, besteek zuzengabea, erlijiorik eza, tirania, zekenkeria, krudelkeria, ahaltsun gehiago duten arabera; ahulenez ergelkeria, hutsalkeria, alferkeria dakarte, hauetarik bainaiz. Badirudi gauza hutsalen aroa dela kaltegarriek hertsatzen gaituztenean. Gaiztoki egitea hain arrunta den aro batean, soilik ezdeuski egitea goresgarria bezala da. Kontsolatzen naiz eskua gainean ezarri behar direnen artean azkenetarik izanen naizelako. Larrienekin aritzen den artean, izanen dut zuzentzeko astia. Zeren iruditzen baitzait arrazoiaren kontrakoa litzatekeela eragozpen xehe jazartzea handiak metaka direnean. Eta Filotimo sendagileak aurpegian eta arnasean biriketako zauri bat ezagutu zion bati, behatza erakusten baitzion ziztatzeko: “Adiskide, egin zuen, hau ez duk hire azazkalekin aritzeko ordua.”

Horregatik xederatzen naiz gai honetara. Duela urte zenbait, oroitzapena gomendio berezitan daukadan pertsonaia bat, gure gaitz handien erdian, ez legerik, ez zuzenbiderik ez bere ofizio zegien epailerik ez baitzen, joan zen ez dakit zein birmoldaketa zikoitzen

argitaratzera, jazkera, sukaldaritza eta auzi-prozedurari buruz. Gaizki zuzendu jende baten bazkatzeko erabiltzen diren xehekeriak dira, osoki ahanzpenean utzirik ez dela esateko. Berdin egiten dute bizio higuigarri mota guztietan galdurik den jende bati jokoak, dantzak eta mintzamoldeak debekatzean gelditzen direnek. Ez da ikuzteko eta zoldaren kentzeko aroa sukar handi batek joak gaudelarik. Bakarrik espartarrei dagokie orrazten eta apaintzen hastea beren biziaren arriskuan ezartzera doazelarik.

Neuri dagokidanez, makurragoa den ohitura hau daukat: oinetako bat gaizki badut, oraindik gaizki uzten ditut neure atorra eta kapa ere: gutiesten dut neure buruaren erdizka zuzentzea. Egoera txarrean naizelarik, gaitzari natxikio; etsipenean neure burua uzten dut erorketari buruz joatera, eta botatzen dut, esaten den bezala, giderra aizkoraren ondotik; gaizkitzean tematzen naiz eta ez dut neure burua neure axolaren xedetzat jotzen: edo dena ongi, edo dena gaizki.

Fabore zait egoera honen hondamena elkartzen dela nire adinaren hondamenarekin: neure ontasunak nahasiak izan daitezen baino gogotikago pairatzen dut neure gaitzak berretuak izan daitezen. Zorigaitzean ahoskatzen ditudan hitzak sumindurazko hitzak dira; nire kuraia harrotzen da eztitu orde. Eta, besteak ez bezala, zorionean debotoagoa aurkitzen naiz zorigaitzean baino, Xenofonen arauari jarraikiz, haren arrazoiari ez; eta eskatzeko baino gogotikago eskertzeko goratzen ditut begiak zeru aldera. Osasunak irri egiten didanean axola gehiago dut haren berretzeko ezen ez haren birreskuratze galdududanean. Aitzinamenduek araubide eta irakaspenerako balio didate, besteei ezbeharrek eta azotek bezala. Zoriona kontzientzia onarekin elkargarria ez balitz bezala, gizonak ez dira jende on bilakatzen zorigaitzean baizik. Zoriona akuilu berezia zait neurtasun eta apaltasunari buruz. Otoitzak garaitzen nau, mehatxuak urruntzen, faboreak malgutzen, beldurrak gogortzen.

Giza baldintzen artean, hau aski arrunta da: geureak baino gehiago atsegin zaizkigula gauza arrotzak eta mugimenduaren eta aldaketaren maitatzea.

Ipsa dies ideo nos grato perluit haustu

Quod permutatis hora recurrit equis. 226

Hor badut nik neure zatia. Beste muturrari darraienak, esan nahi baita, beren baitan atsegin izatea, besteen gainetik daudela uste edukitzea eta dakusatena baino modu ederragorik ez onartzea, gu baino argiagoak ez badira ere, zinez zoriontsuagoak dira. Ez natzaio haien zuhurtziari bekaizti, baina bai haien zorionari.

Gauza berri eta ezezagunen gose den izaera honek hazten du nire baitan bidaiatzeko nahia, baina beste gorabehera asko biltzen zazkio. Gogotik baztertzen naiz etxeko gobernutik. Bada erraztasun zerbait manatzean eta etxekoen aldetik obediturik izatean, bihitegi batean bada ere; baina atsegin berdinegia eta ilaunegia da. Eta gero, halabeharrez, gogoeta nekagarri askoz nahasia da: behin zure jendearen eskasgoa eta zapalkuntza, behin zure auzokideen arteko auziak, behin zure gainean egiten duten ebasgoak, atsekabetzen zaitu;

Aut verberatæ, grandine vineæ,

Fundusque mendax, arbore nunc aquas

Culpante, nunc torrentia agros

Sidera, nunc hyemes iniquas; 227

eta doi sei hilabetetan behin igorriko duela Jainkoak zure maizterra osoki askietsiko duen aro bat eta, mahastientzat ona bada, belardiak kalteatzen ez dituen:

Aut nimiis torret fervoribus ætherius sol,

Aut subiti perimunt imbres, gelidæque pruinae,

Flabraque ventorum violento turbine vexant. 228

Gainera, oina zauritzen dizun iragan aroko gizon horren oinetako berria eta ongi moldatua²²⁹; arrotzak ez baitaki zenbat kostatzen zaizun eta zure familian ikusten den antolamenduzko itxuraren iraunarazteko zenbat ematen duzun, menturaz garestiegi erosten baituzu.

Berandu lotu natzaio etxeko gobernuari. Naturak ni baino lehenago sortarazi zituenek luzaz arindu naute horretaz. Beste molde bat hartua nuen, neure izaeraren arabera. Halarik ere, ikusi dudana nekegarria baino oztopagarriagoa den lanbide bat izan da; beste edozein gauzaren gai dena errazki izanen da horren gaia ere. Aberasteko nahian banintz bide hori luzeegi irudituko litzaideke; erregeei zerbitzatuko nieke, beste edozein baino harreman emankorragoa baita. Deus ere ez ebasteko ez xahutzeko omenaz baizik ez baitut erdietsi nahi, neure biziaren gainerakoaren arabera, gaizki eta ongi egiteko desegokia baita, eta iragaiteaz baizik ez baitut bilatzen, egiten ahal dut, Jainkoari esker, axola handirik gabe.

Gaizkienean ere, gastuen murrizketen bidez beti lasterka ari zara pobreziaaren aurretik. Horretan dihardut, eta berak bortxatu aitzin neure buruaren birmoldatzean. Bestalde neure gogoan finkatu ditut mailarik aski orain dudana baino gutiagorekin irauteko; badiot iraun askiespenarekin. *Non aestimatione census, verum victu atque cultu, terminatur pecuniae modus.* Nire egiazko beharrak ez du hain osoki hartzen nire ondasuna non, giharrean jo gabe, zoriak ez duen nire gainean non ausiki egin.

Nire egoteak, den bezain ez jakina eta erdeinaria bada ere, laguntza handia ematen die neure etxeko egitekoei; haietan dihardut, gogoz kontra bada ere. Gainera hauxe dut nik neure etxean: bazterrean neure muturretik kandelaren erretzeagatik, beste muturra ez da aurrezkitzen²³¹.

Bidaiek bakarrik nardatzen naute gastuagatik, handia eta nire ahalmenez goragoa baita; haietan ez soilik beharrezkoarekin baina ohorezko bagaiarekin izaten ohiturik, laburragoak eta bakanagoak egin behar ditut, eta haietan bakarrik aparra eta eskugaina erabiltzen dut, datorren arabera zainduz eta igurikatuz. Ez dut nahi ibiltzearen atseginak atsedenarena ustel dezan; aitzitik, uste dut elkar hazten eta faboratzen dutela. Zoriak honetan lagundu nau: bizitza honetan nire ofizio nagusia berazki eta lanpeturik baino gehiago laxoki bizitzea izanez, kendu didala aberastasunen ugaltzeko beharra nire ondokoen ostearen hornitzeko. Batentzat²³², nik hain atseginez aski izan dudanaekin aski ez badu, hainbat gaiztoago! Haren zuhurgabekeriak ez du nik gehiago opa diezaiodan merezi. Eta bakoitzak, Fozionen ereduaren arabera, aski hornitzen ditu bere semealabak, bera ez bezala izan ez daitezen hornitzen baditu. Inola ere ez nintzateke ni Kratesen eginarekin ados. Bankari baten baitan utzi zuen bere dirua baldintza honekin: semeak ergelak baziren, eman ziezaien; argiak baziren, herriko zozoenen artean bana zezan. Ergelak, dirurik gabe bizitzeko gaitasun gutiago edukitzeagatik, aberastasunen erabiltzeko gaiagoak balira bezala.

Ez dut uste neure urrunaldiagatik datorren kalteak, berau zertaz eraman eduki artean, egonbehar nekagarri honetarik desbideratzeko agertzen diren aldien onartzea ezeza dezadan merezi duenik. Beti bada makur doan zati bat. Eginkizunek, behin etxe batekoek, behin bestekoek, zirikatzen zaituzte. Gauza guztiak argitzen dituzu hurbilegitik; zorrotzasunak kalteatzen zaitu, besteetan bezala. Haserretzeko aldiei itzurtzen natzaie eta gaizki doazen gauzen ezagutzetik baztertzen naiz; baina ez dut hainbat egiten ahal non orduoro ez dudan topatzen, neure etxean, ezatsegin zaidan zerbaitekin. Eta gehien gordetzen zaizkidan zirtzilkeriak hobekien dakizkidanak dira. Batzuetan, gaitz gutiago egiteko norberak lagundu behar du gordetzen ere. Ziztada hutsalak, inoiz hutsalak, baina beti ziztadak. Oztoporik eskas eta xehenak ziztagarrienak dira; letra txikiek begiak gehiago ofendatzen eta nekatzen dituzten bezala, horrela gehiago zirikatzen gaituzte eginkizun txikiek. Gaitz xumeen osteak bakar baten

bortiztasunak, handiagoa bada ere, baino gehiago ofendatzen du. Etxeko arantz hauek usuagoak eta finagoak diren arauz, zorrozkiago ausikitzen gaituzte eta mehatxurik gabe, errazkiago atzeman gaituztelarik ustekabeen.

Ez naiz filosofoa; gaitzek hertsatzen naute pisatzen duten arabera; eta pisatzen dute moldearen arabera gaiaren arabera bezala, eta maiz gehiago ere. Haietaz badut jende xeheak baino ezagutza gehiago, jasankortasun gehiago ere. Hara, zauritzen ez banaute, zirikatzen naute. Bizia gauza xamurra da, nahasteko erraza. Aurpegia atsekabe aldera itzulia dudanez geroztik *nemo enim resistit sibi cum caeperit impelli*, xeheagoa bada ere eraman nauen kausa, alderdi horretarik ozpintzen dut gogaldia, gero bere egonezaz hazten eta sumintzen baita; gai bat beste baten gainean metatuz, horretaz hazten baita.

Stillicidi casus lapidem cavat. 234

Eguneroko itaizur horiek jaten naute. Eguneroko oztopoak sekula ez dira arinak. Etengabeak eta konponezinak dira, bereziki etxekoengan sortzen direnean, etengabeak eta bereiztezinak baitira.

Neure egitekoak urrundik eta osotara gogoan hartzen ditudanean, aurkitzen dut, menturaz haien oroitzapen zehatzik ez baitut, ordu hau arte aintzinduz joan direla neure kontuez eta arrazoez haratago. Haietarik ateratzen dut, neure ustez, haietan dena baino gehiago; haien zorionak salatzen nau. Baina beharraren erdian naizenan, zati guztiak ibiltzen dakuskidanean,

Tum vero in curas animum diducimur omnes, 235

mila gauzek ematen didate zeren nahi eta zeren beldur izan. Osoki uztea hagitz erraza zait; nekatu gabe lotzea, hagitz zaila. Urrikalgarria da halako lekuan egotea non dakusazun guztiak behartzen baitzaitu eta zeurekin ikuskizunik baitu. Eta iruditzen zait alaikiago gozatzen naizela etxe arrotz bateko atseginetan, eta gustua jatorragoa daramadala. Diogenesek nire arabera erantzun zion zein ardo mota aurkitzen zuen hoberena galdegiten zionari: “Arrotza”, egin zuen.

Nire aitak maite zuen Montaigneren eraikitzen, bertan sortua baitzen; eta etxeko eginkizunen gobernu honetan guztian, maite dut haren ereduaz eta araez baliatzea, eta neure ondokoak lotuko ditut ahal bezainbat. Hobeki ahal banu, egingen nuke harengatik. Ohore zait haren borondatea oraino gauzatzen baita eta neure bidez baitihardu. Jainkoak aileza ez dezadan esku artetik ihes egitera utzi hain aita onari bihurtzen ahal diodan bizimodu zerbait! Harresi puska zahar baten bukatzera eta eraikuntza zati makur zerbaiten zuzentzera sartu banaiz, zinez nire askiespenari baino gehiago izan da haren xedeari begira. Eta neure alferkeria salatzen dut ez jarrakitzeagatik haren etxean utzi zituen hastapen ederrei; are gehiago neure arrazako azken jabea izateko eta azken eskuaren ezartzeko bidean naizenez geroz. Zeren neure iharduera berezian, hain erakargarria omen den eraikitzeako atseginak, ez ehizak, ez baratzeek, ez bizimodu baztertuaren beste atsegin horiek, ez bainaute askiesten ahal. Horretan neure buruari erantzukia egiten diot, nekagarriak zaizkidan beste aburu guztietan bezala. Ez zait hainbat axola aburu azkar eta jakintsuen edukitzea, nola axolatzen bainaiz eroso eta bizirako errazen edukitzeagatik; aski egiazkoak eta sendoak dira, erabilgarriak eta atseginak badira.

Etxeko eginbeharretarako nire gaitasunik ezaren esatea aditzen didatenek, belarrietara ahapetik esaten didatenean gutiespena dela, eta nekazalgoko tresnen izenak, aroak, antolaketa, ardoak nola egiten diren, nola txertatzen den, belarren eta fruituen itxurak eta izenak, jaten ditudan jakien prestaketa, janzten ditudan ehunen izenak eta balioak, jakin gabe uzten ditudala, jakintza gorago baten erdiesteko, hilarazten naute. Hori ergelkeria da eta ospea baino gehiago zozokeria. Logiko ona baino nahiago nuke zamaltzain on bat izatea:

Quin tu aliquid saltem potius quorum indiget usus,

Viminibus mollique paras detexere junco? 236

Gure gogoetak entrabatzen ditugu orokortasunaz eta kausa eta ibilbide unibertsalez, gu gabe arras ongi dabiltzanak, eta gibelean uzten dugu geure eginkizuna eta Michel²³⁷, gizona baino hurbilagotik dagokiguna. Bada, neure etxean gelditzen naiz maizenik, baina nahi nuke honetan laketzea beste inon baino gehiago.

Sit meæ sedes utinam senectæ,

Sit modus lasso maris, et viarum,

Militiæque 238

Ez dakit bururatuko dudan. Nahi nuke, bere ondoregoko beste zati zerbaiten orde, neure aitak utzi izan balit bere urte zaharretan bere etxearen alde zeukan maitasun apasionatua. Oso zorionsua zen bere nahiak bere zorira biltzen baitzituen, eta zeukanaz laketzen baitzekien. Filosofia politikoak sala beza nire lanaren apaltasuna eta antzutasuna, nik aitak bezala gustua hartzen ahal dudan ber. Aburu honetakoa naiz: ofiziorik ohoragarriena publikoari zerbitzatzea eta anitzi onuragarria izatea dela. *Fructus enim ingenii et virtutis omnisque praestantia tum maximus accipitur, cum in proximum quemque confertur.* Neuri dagokidanez, uko egiten diot: alde, kontzientziak (zeren ikusten badut halako ofizioei dagokien pisua, halaber ikusten dut osatzeko daukadan bide eskasa; eta Platon, gobernu politiko orotan maisu zuzendaria, hutsik gabe baztertu zen), eta alde ere beldurrez. Askiesten naiz munduaz gozatzean bertan lehiatu gabe, bakarrik desenkusagarria den bizi baten bizitzean, ni ez beste inor behartzen ez duena.

Hirugarren baten zainketarako eta gobernurako, inork ez zuen sekula bere burua utzi nik baino bete eta laxokiago, horretarako norbait baldin banu. Ordu honetarako nire nahietarik bat nire urte zaharren errazki eztitzen eta lokartzen lekikeen suhi baten aurkitzea litzateke, haren eskuen artean ezarriko bainuke, jabego osoan, neure ontasunen zuzendaritza eta erabilera, haietaz egin dezan nik egiten dudana, eta neure gainean irabaz dezan nik irabazten dudana, izaera zinez eskerronekoa eta adiskidea ekartzen duen ber. Baina zer? Norbere seme-alaben leialtasuna ezezaguna den mundu batean bizi gara.

Bidaian nire poltsaren zainketa duenak osorik eta kontrolik gabe dauka; errazki engainatuko ninduke kontuetan; eta, deabru bat ez bada, ongi egitera behartzen dut hain konfiantza osoki utzirik baten bidez. *Multi fallere docuerunt, dum timent falli, et aliis jus peccandi suspicando fecerunt.* Neure jendeengandik hartzen dudana segurtasunik arruntena ezezagutza da. Ez ditut bizioak ustezkatzen ikusi ondoren baizik, eta gazteengan gehiago fidatzen naiz, eredu txarrez gutiago higituak iruditzen baitzaizkit. Bi hilabeteren buruan, larehun ezkutu xahutu ditudala esatea, gogotikago entzuten dut ezen ez gauero, hiru, bost, zazpirengatik, belarrietan erauntsialdiaren edukitzea. Beste bat bezain guti ebatsia izan naiz lapurketa mota horretan. Egia da jakineza laguntzen dudala; jakinean badut inola ere uherra eta nahasia neure diruaren jakintza; hein zerbaiteraino askiesten naiz hartaz zalantza edukitzen ahal izateaz. Leku zerbait utzi behar zaio zure nerabearen leialtasunik edo zuhurtziarik ezari. Gure eginbeharraren egiteko osotara gelditzen bazaigu, utz dezagun apur bat bere moldean joan dadin zoriaren eskuzabaltasunaren soberakin hori; hondar-biltzaileen zatia. Orogen buruan, ez dut neure jendeen fede ona apreziatzen beren laidoa gutiesten dudan bezainbat. O norbere diruaren ikertzeko ikerpen apala eta ergela, haren eskuztatzean, pisatzean eta zenbatzean laketzea! Hortik egiten du zikoizkeriak bere hurbilketa.

Duela hemezortzi urte gobernatzen ditudala neure ontasunak eta oraindik ez naiz deliberatu ezinbestez neure eskutik eta axolatik iragan behar diren paperen eta egiteko nagusien ikustera. Ez da gauza iragankorren eta mundukoen gutiespen filosofiko bat; ez dut hain gustu zorrotzurik, eta gutienez balio dutenetan apreziatzen ditut; baina zinez

aitzakiarik gabeko haur nagikeria eta utzikeria da. Zer ez nuke eginen kontratu bat irakurri baino lehenago, eta, neure eginkizunen morroi, paper errausti horiek inarrosiz ibili baino lehenago? edo, are makurrago, beste inoren eginkizunen morroi, hainbat jendek, diruaren saritan, egiten duten bezala? Axola eta nekea bezain garesti ez dut ezer, eta ezaxolatzea eta astian egotea bakarrik bilatzen dut.

Uste dut egokiago nitzatekeela besteren aberastasunaz bizitzeko, behartzerik eta morrointzarik gabe ahal balitz. Eta ez dakit, hurbiletik ikertzean, neure izaera eta zoriaren arabera, eginkizunen, nerabeen eta etxekoen aldetik jasan behar dudanak, ni baino handiago sortu eta apur bat neure moduz naramakeen gizon baten jarraipenak lukeenak baino zitalkeria, nardakeria eta garrazkeria gehiago ez ote duen. *Servitus obedienciae est fracti animi et abjecti, arbitrio carentis suo*. Kratesek makurragoa egin zuen, pobreziaren libertatean egotzi baitzen etxeko apalkeria eta axoletarik libratzeko. Hori ez nuke eginen (pobrezia hastiatzen baitut minaren parean), baina bai bizimodu hau beste beratzago eta lasaiago batengatik aldatuko nuela.

Urrundurik, erantzten naiz halako gogoeta guztietaz; eta orain teila baten erorketaz egiten dudana baino gutiago sentituko nuke dorre baten hondamena. Bazterrean nire gogoas aski errazki libratzen da, baina bertan mahastizain batenak bezala pairatzen du. Uhal makur batek nire zaldiarengan, zangoa jotzen didan estriberako mutur batek, egun oso batez edukiko ninduke ospindurik. Neure kuraia aski goratzen dut eragozpen horren aurrean, begiak ez ditzaket.

Sensus, o superi, sensus. 242

Neure etxean gaizki doan guztiaren erantzulea naiz. Nagusi gutik, maila erdikoez ari naiz, nirea den bezala, hartzen ahal du segundu bateko atsedena, eta ahal badu zorientsuagoa da, zamaren zati on bat gelditzen ez zaiolarik. Horrek ausarki zerbait kentzen du bisitarien erabilerako dudak jendetasunetik (eta menturaz norbait geldiarazi dut neure graziaz baino gehiago neure sukaldaritaz, aspergarriek egin bezala) eta anitz kentzen du neure etxean neure adiskideen bisita eta bileratik eduki beharko nukeen atseginetik. Bere etxean, aitorenseme baten molderik ergelena bere etxeko gobernuaz behaztopaturik ikustea da, nerabe baten belarrira mintzatuz eta beste bat begiez mehatxatuz; oharkabea joan behar da eta ibilbide arrunt bat erakutsi. Eta itsusi aurkitzen dut arrotzei mintzatzea egiten zaien tratamenduaz, bai desenkusatzeko nola gorestekoa. Antolamendua eta garbitasuna maite dut,

et cantharus et lanx

Ostendunt mihi me, 243

ugaritasuna baino gehiago; eta neure etxean beharrari begira nago, erakuspenari guti. Nerabe bat joka aritzen bada besteren etxean, plater bat isurtzen bada, irriz baizik ez duzu egiten; lotan zaude, nagusiak bere sukaldariarekin zure biharamuneko tratamendua antolatzen duen artean.

Neure arabera mintzatzen naiz, ororki onesten beti ere zein iharduera atsegingarria zaien izaera batzuei etxemodu baketsu, faboragarria, antolamendu arautu batez zuzendua, eta gauzari estekatu nahi gabe neure hutsak eta eragozpenak, ez eta Platon gezurtatu, uste baitu bakoitzaren ariketarik zorientsuena zuzengaitzik gabe bere eginkizunen egitea dela.

Bidaian naizelarik, ez dut neure burua eta neure diruaren erabilpena baino gehiago gogoan eduki behar; hori arau bakar batez zuzentzen da. Zati gehiegi behar dira biltzeko: orduan ez dut ezer aditzen. Gastuan zerbait aditzen dut, eta neure gastuari erakustaldiaren ematean, bere erabilpen nagusia baita. Baina handinahi soberaz jokatzeko naiz eta horrek ezberdin eta molderik gabe bilakatzen du, eta gainera neurririk gabe alde batetik eta bestetik. Erakusgarria bada, erabiltzen bada, neurririk gabe uzten dut neure

buruaren joatera, eta neurririk gabe ere hertsatzen naiz argitzen ez bada eta grazia-rik egiten ez badit.

Zernahi ere den, ohitura ala natura, besteren arabera bizitzeko baldintza inprimatzen digunak ongi baino askoz ere gaizki gehiago egiten digu. Geure erabilgarritasunez gabetzen gara omen orokorrari dagozkion itxuren egiteko. Ez zaigu hainbat axola gure izatea zer den geure baitan eta egian, nola axolatzen baitzaigu zer den ezagutza publikoan. Gogoaren ontasunak eta zuhurtzia fruiturik gabeak iruditzen zazkigu, gutaz beste inor haiez gozatzen ez bada, ikusmen eta onespen arrotzaren aurrean gertatzen ez badira. Batzuei urrea darie borborka lurrazpiko lekuetarik, ohartu gabe; beste batzuek xafletan eta hostoetan hedatzen dute; batzuei sos xeheek eskutuak balio dizkiete, besteei alderantziz, jendeak erabilpena eta balioa erakuspenaren arabera dela uste izanez. Aberastasunen inguruko axola orok zikoizkeriaren urrina du, xahupenak berak eta eskuzabaltasun aratuegi eta artifizialegi batek ere bai: ez dute oharpen eta axola nekagarri batek balio. Bere xahupena zuzena egin nahi duenak hertsia eta behartua egiten du. Berez, zainketa edo erabilpena nolakotasunik gabeko gauzak dira, eta ez dute ongi edo gaizkiaren kolorerik hartzen gure borondatearen erabilpenaren arabera ez bada. Ibilaldi horietara gonbidatzen nauen beste kausa gure egoeraren ohiturekiko dudaren desegokitasuna da. Neure bihotza errazki kontsolatuko nuke usteldura horri buruz interes publikoari dagokionez,

pejoraque sæcula ferri

Temporibus, quorum scelere non invenit ipsa

Nomen, et a nullo posuit natura metallo ²⁴⁴

baina ez neureari dagokionez. Sobera hertsatua aurkitzen bainaiz horrengatik. Zeren nire auzoan, gerra zibil hauen zuzengabekeria luzearengatik jada zahartuak baikara hain gehiegizko egoera batean,

Quippe ubi fas versum atque nefas, ²⁴⁵

non zinez miresgarria baita iraun ahal dezan.

Armati terram exercent, semperque recentes

Convectare juvat prædas et vivere rapto. ²⁴⁶

Hondarrean, gure ereduaren bidez badakusat giza lagunarteak badirauela eta badagoela, zernahi kostutan. Edozein jarlekutan ezartzen bazaie ere, metatzen eta lerrokatzen dira higituz eta elkar bilduz, araurik gabe sakelaritzen diren gaizki bateratu gauzakiak bezala, beraiek aurkitzen baitute, maiz trebetasunak egin lezakeena baino hobeki, batzuk besteen artean elkartzeko eta egoteko modua. Filipo erregek egin zuen nahas-mahas bat aurkitu ahal zituen gizonik gaizto eta zuzentezinekin, eta guztiak ezarri zituen eraikiarazi zien eta beren izena²⁴⁷ zeraman hiri batean. Uste dut bizioetarik beraietarik beren arteko egitura politiko bat eta gizarte erraz eta zuzen bat eraiki zutela.

Badakuskit, ez ekintza bat, edo hiru, edo ehun, baina erabilera arrunt eta onartuan diren hain ohitura izigarriak, bereziki gizagabekeria eta desleialkeria, neuretzat bizioetan makurrena baita, non ez baitut ikararik gabe gogoan hartzeko indarrik ere; eta kasik hastiatzen ditudan bezainbat miresten ditut. Gaiztakeria nabarmen horien ariketak hutsaren eta araurik ezaren ezaugarria bezainbat baitarama bizkortasun eta indarrarena. Beharrak antolatzen eta biltzen ditu gizonak. Zorizko josdura hori gero legeetan moldatzen da; zeren hain basak izan baitira non ezein giza aburuk ez baitzituen asmatzen ahal, hala ere Platonek eta Aristotelesek egin litzakeenek bezainbateko osasunez eta biziaren luzetasunez iraun egin dute.

Eta zinez artifizialki moldatu gobernu horiek guztiak irigarriak eta desegokiak aurkitzen dira gauzatzeko. Gizarte-molderik hoberenari buruz eta gure meneratzeko araurik errazenei buruzko eztabaida handi eta luze horiek bakarrik gure gogoaren ariketarako egokiak dira;

arteetan aurkitzen diren bezala beren izatea soilik hizkatzean eta eztabaidan duten eta horretaz landan bizirik batere ez duten gai asko. Gobernu-itxura hori mundu berri batean ezartzen ahalko zen, baina gizonak jada behartuak eta ohitura zenbaitetara emanak aurkitzen ditugu; guk ez ditugu sortzen Pirrak edo Kadmok bezala. Berriz zuzentzeko eta antolatzeko zernahi bide bagenu ere, ez ditugu beren ohizko azturatik makurtzen ahal dena hautsi gabe. Soloni galdegiten zitzaion ea atenasterrei ahal zituen legerik hoberenak finkatu zizkien: “Bai, erantzun zuen, onartuko zituzketeenetarik hoberenak.”

Varro molde beretsuan desenkusatzan da: erlijioaz berriro dena idatzi beharko balu, sinesten duena esanen lukeela, baina, jada onartua eta moldatua izanez, naturaren arabera baino gehiago erabileraren arabera esanen duela.

Ez bakarrik usteen arabera baina egiazki ere, herri bakoitzari zaion gobernurik bikain eta hobereena da orain arte mantendu dena. Erabileran datza haren molde eta erraztasun nagusia. Baina nik uste dut, horregatik, estatu herrikoi batean oligarkia nahi izatea, edo monarkia batean beste gobernu mota bat, bizioa eta eromena dela.

Izaten dakusaan bezala, maita ezak estatua,

Erregeren bada maita erregetasuna;

Gutirena bada, edo amankomuna,

Jainkoak hor sortarazi baihou, maita ber moduan.

Hala mintzatzen zen Pibraceko²⁴⁸ jaun ona, galdu berri duguna, hain gogo maitagarria, aburuak hain sendoak, ohiturak hain eztiak baitzituen; galera hau eta denbora berean Foixeko jaunarena, galera handiak zaizkio gure koroari. Ez dakit Frantziari gelditzen zaion, zintzotasun eta jakintzaz, beste bikote berdinek bi gaskoi horien ordezkatzeko gure erregeen aholkularitzako. Gogo ezberdin ederrak ziren eta, egiazki, mendearen arabera, arraroak eta ederrak, bakoitza bere moldean. Baina zeinek ezarri zituen aro honetan, hain desagokiak eta desarautuak gure usteldura eta erauntsiei?

Deusek ez du estatu bat berritasunak bezainbat hertsatzen: aldaketak bakarrik moldatzen du zuzengabea eta tirania. Zati zerbait makurtzen denean, antolatzen ahal da: gauza orotan naturala den aldaratzeak eta usteldurak gure lehen abiatze eta hastapenetarik sobera urrun ez gaitzaten oposatzen ahal da. Baina hain gai handi baten berreraikitza eta hain eraikuntza handi bateko funtsen aldatzera entseiatzea, garbitzeko ezabatzen dutenen eta huts partikularrak nahasmen orokorraren bidez eta eritasunak heriotzaren bidez sendatu nahi dutenen egitekoa da, *non tam commutandarum quam evertendarum rerum cupidi*. Mundua ez da bere buruaren sendatzeko gai; hain jasangaitza zaio hertsatzen duena non ez baita hartaz libratzera baizik xederatzen, zein kostutan den begiratu gabe. Mila eredu bidez badakusagu bere buruaren bizkar sendatzen dela; oraingo gaitzaren arintzea ez da sendatzea, baldintzaren zuzenketa orokorrik ez bada.

Zirujauaren helburua ez da haragi gaiztoaren hilaraztea: beronen sendabiderik besterik ez da. Urrunago xederatzen da: jatorraren sortaraztea eta zatiaren berbideratzea bere beharrezko izatean. Bakarrik oztopatzen duenaren kentzera xederatzen dena labur gelditzen da, zeren ongia ez baita halabeharrez gaitzaren ondotik etortzen; beste gaitz batek jarraiki diezaioke, eta makurrago batek ere, Zesarren hiltzaileei gertatu bezala, gauza publikoa halako heinera egotzi baitzuten non eduki baitzuten zeren damu egin hartan sartuak izateagatik. Gero askori, gure mende hauek arte, berdin gertatu zaie. Nire garaikide frantsesek ongi badakite horri buruz zer esan. Aldaketa handi guztiek estatua inarrostean eta desantolatzen dute.

Zuzenik sendatzera xederatuko litzatekeenak eta aurretik eginbehar osoa gogoan hartuko lukeenak gogotik hoztuko luke eskuaren sartzeko asmoa. Pakuvio Kalaviok molde horren bizioa zuzendu zuen eredu bikain baten bidez. Bere hirikideak beraien kargudunen kontra bihurtuak ziren. Berak, Kapuako hirian manu-indar handiko pertsonaia izanez, aurkitu zuen egun batez jauregian Senatuaren entzerratzeko bidea eta, plazan jendea bildurik, esan zion hain luzaz zapaldu zuten tiranoen gain libertate osoa

mendekuaren hartzeko eguna etorria zela, bakarrik eta armarik gabe baitzituen bere menpean. Proposatu zuen zozketan kanpora daitezen bata bestearen ondotik, eta bakoitzaren gain egin zedin bereziki, berehala gauzatuz erabaki zena, era berean kondenatuaren ordezkari oneko norbaiten izendapenaz ardura zitezen ber, haren lekua arduradunik gabe gelditu ez zedin. Senatore baten izena entzun orduko goratu zen haren kontrako sumindurako oihu orokor bat. Berehalako isiltasuna egin zen, jende guztia gogorki hertsaturik aurkitzen baitzen hautatzeko; lehen ausartagoak berea esan zuenean, hara ahots bilera ere handiago bat haren ezeztatzeke, ehun akats eta kausa zuzen izanez baztertzeko. Elkarren aurkako uste horiek beroturik, ere makurrago gertatu zen bigarren senatorearekin, eta hirugarrenarekin; kentzeko adostasuna bezainbatekoa baitzen hautatzeko desadostasuna. Nahasmen horretan alferrik nekaturik, hasten dira, bat hortik, beste bat handik, apurka apurka bileratik lekutzen, bakoitzak erabaki hau bere gogoan daramala: gaitz zaharragoa eta ezagunagoa beti gaitz berria eta ezezaguna baino jasagarriagoa dela.

Gure burua urrikgarriki inarrosi izategatik, (zeren zer ez dugu egin?)

Eheu cicatricum et sceleris pudet,

Fratrumque: quid nons dura refugimus

Ætas! quid intactum nefasti

Liquimus! unde manus juvenus

Metu Deorum continuit? quibus

Pepercit aris? 250

ez dut oraindik erabakirik hartzen ahal:

ipsa si velit salus,

Servare prorsus non potest hanc familiam. 251

Halarik ere, ez gara, menturaz, geure azken aroan. Estatuaren iraupena egiazki gure adimena gaitzen duen gauza da. Platonek dioen arabera, gobernamolde zibil bat gauza ahaltsua eta ezabagaitza da. Maiz badirau gaitz hilgarri eta barrenekoen aurka, zuzengabeko legeen kaltearen aurka, tiraniaren aurka, kargudunen soberakerien eta jakinezaren aurka, jendearen nahasmenaren eta bihurkeriaren aurka.

Gure zori guztietan, geure gaitzen dagoenarekin alderatzen gara eta hobeki daudenei begira gaude; aldera gaitzen behean dagoenarekin: ez da hain gaitz sorturik bere burua non arindu mila ere du aurkitzen ez dituenik. Gure bizioa da, geure atzean dena gogotik ikusi baino gehiago desgogoz ikusten dugula geure aurrean dena. "Egin balitz, zioen Solonek, elkarretara bildu gaitz guztien mukuru bat, ez litzateke inor ere, beste gizon guztiekin gaitz-mukuru horren zatiketa zuzena egin eta bere zati berdinen hartzea baino lehenago, dituen gaitz guztien berarekin eramatea hautatuko ez zuenik." Gure gobernu gaitz dabil; izan dira, hala ere, erriagoak hil gabe. Jainkoak gutaz baliatzen dira pilotan jostatzeko, eta esku guztiez garabiltzate:

Enimvero Dii nos homines quasi pilas habent. 252

Izarrek ezinbestez bideratu dute Erromako estatua mota horretan ahal dutenaren eredua bezala. Bere baitan hartzen ditu estatu bati dagozkion molde eta gorabehera guztiak; antolakuntzak, nahasmenak, zorionak eta zorigaitzak ahal duten oro. Nor etsi behar da bere egoeraz, hark jasan eta gaitzen zituen inarrosaldi eta mugimendu guztiak ikusiz? Menpekotasunaren hedadura estatu baten osasuna bada (honetan ez bainaiz inola ere ados, eta Isokrates atsegin zait Nikoklesi irakasten baitio eremu zabalak dituzten printzeen ez nahi izatea, baina gertatu zaizkien gordetzen dakitenak), hura eriena zegoenean bezain sendo ez zen behin ere. Haren modurik makurrena zorionekoena izan zitzaion. Doi ezagutzen da gobernurik batere lehen enperadoreen azpian; gogoratzen ahal den nahasmenik ikaragarriena eta trinkoena da. Halarik ere, jasan eta iraun zuen, ez bere mugetan hertsu monarkia bat gordetzen, baina hainbat herri hain ezberdin, hain

urrundurik, elkarrekin hain gaizki moldaturik, hain gaizki zuzendurik eta hain bidegabeki konkistaturik;

nec gentibus ullis

Commodat in populum terræ pelagique potentem,

Invidiam fortuna suam. 253

Kolokan den oro ez da erortzen. Hain gorputz handi baten egitura itze bati baino gehiagori atxikitzen zaio. Bere zahartasunagatik beragatik badirau; eraikuntza zaharrak bezala, aroak oina ebatsi dienak, azalik ez funtsik gabe, halarik ere bizi eta beren pisuan sostengantzen direnak,

nec jam validis radicibus hærens,

Pondere tuta suo est. 254

Gainera, ez da ongi egina bakarrik saiheitsaren eta hobiaren ikertzea: gotorleku baten segurantzari buruz epaitzeko, ikusi behar da nondik etortzen ahal zaion, oldartzailea zein egoeratan den. Ontzi guti hondoratzen da bere pisuaz eta indar arrotzik gabe. Bada, itzul ditzagun begiak orotara, dena kolokan da gure inguruan; ezagutzen ditugun estatu handi guztietan, izan daitezen kristauerrikoak ala kanpokoak, so egizu; aurkituko duzu aldaketa eta hondamenaren mehatxu ageri bat;

Et sua sunt illis incommoda, parque per omnes

Tempestas. 255

Joko ederra dute astrologoek guri ohartarazten, egiten duten bezala, hurbil diren aldakuntza eta bilakaera handiak; beren aztiatzeak oraingoak eta ageriak dira, ez da horraterako zeruraino joan behar.

Ez dugu bakarrik bihotz-arindura atera behar gaitzaren eta mehatxuaren lagunarte orokor honetarik, baina oraino esperantza zerbait gure estatuaren iraupenerako; zeren, berez, deus ere ez baita erortzen dena erortzen den lekuan. Eritasun orokorra osasun partikularra da; adostasuna nolakotasun etsaia zaio bereizteari. Neuretzat, ez naiz etsipenean sartzen, eta uste dut itzurtzeko bideak dakuskidala;

Deus hæc fortasse benigna

Reducet in sedem vice. 256

Nork daki Jainkoak nahi ote duen gerta dadin eritasun luze eta larrien bidez garbitzen eta egoera hobean ezartzen diren gorputzetan bezala, eritasun horiek kendu zietena baino osasun osoago eta garbiago bat ematen baitiete?

Gehien hertsatzen nauena, gure gaitzaren ezaugarrien zenbatzean, hau da: naturalak, zeruak bidaliak eta berezkoak bezainbatekoak gure desarautzeak eta giza zuhurtziarik ezak gehitzen dituenak direla. Badirudi izarrek beraiek diotela aski iraun izan dugula ohizko mugez gaindi. Eta honek ere hertsatzen nau: mehatxatzen gaituen gaitzik hurbilena ez dela aldakuntza bat multzo osoan eta sendoan, baina beronen ezabatzea eta desegitea, gure ezinagoko beldurra baita.

Ameskeria hauetan²⁵⁷ ere neure oroimenaren tradiketaren beldur naiz, ohargabeen idaztaraz diezadan gauza bat bi aldiz. Hastio dut neure buruaren birtopatzea, eta desgogoz berraurkitzen dut behin itzuri zaidana. Bada, ez dut hemen ekartzen irakaskuntza berririk batere. Irudimen arruntak dira; gogoan edukirik ehun aldiz, beldur naiz jada papereratu ditudala. Errepikapena aspergarria da orotan, Homeroren baitan bada ere, baina hondagarria da erakuspen azalezko eta iragankor batez baizik ez duten gauzetan; gogoan sarraraztea ezatsegina zait, gauza onuragarrietan ere, Senekan bezala, eta bere eskola estoikoaren ohitura ezatsegin zait, gai bakoitzari buruz luze eta zabal orokorki balio duten hastapen eta abiapuntuen errepikatzea, eta argudio eta arrazoi arrunt eta orokorren beti berraiapatzea. Nire oroimena krudelki gaizkiagotzen da egunero,

Pocula Lethæos ut si ducentia somnos

Arente fauce traxerim. 258

Hemendik aitzinera (zeren, Jainkoari esker, orain arte ez baitzait beharrezkoa izan), besteek esan behar dutenaren gogoan hartzeko aroa eta aldia bilatzen dutenen ordeztu, nik prestatzetik ihes egin beharko dut, gero baztertu beharreko eginbehar bati neure burua esteka diezaiodan beldurrez. Atxikia eta behartua izateak desbideratzen nau, eta neure oroimena bezalako tresna ahul baten menpean egoteak.

Ez dut sekula historia hau irakurtzen asalatu gabe, mindura berezi eta jator batez: Lintzestesez, Alexandroren kontrako azpilanagatik salatuz, armadaren aitzinera eramana izan zen egunean, ohiturari jarraikiz, bere defentsan entzuna izateko, buruan zeukan hitzaldi ikasi bat, zezeltzen eta dudatzen ahoskatu baitzituen hitz zenbait. Gero eta gehiago nahasten baitzen, bere oroimenarekin borrokatzen eta berrikertzen duen artean, hara ondoan zeuzkan soldaduek oldartua eta hila lantzen ukaldika, errudun frogatutzat jo baitzuten. Bere harridurak eta isiltasunak aitorpentzat balio zieten; gartzelan hainbat asti edukiz prestatzeko, ez da haien ustetan oroimenaren hutsa, kontzientzia da mihia lotzen eta indarra kentzen diona. Egiazki ongi esana! Lekuak, entzulegoak, igurikapenak harritzen dute ongi esateko nahiaz baizik jokatzeko ez denean. Zer egin daiteke ondorioz bizia daraman hitzaldi bat denean?

Neuretzat, esan behar dudanari estekatua izateak berak balio du hartarik desbideratzeko. Neure oroimenari osoki gomendaturik eta fidaturik naizenean, hain azkarki natxikio non lehertzen baitut: bere zamak joa gertatzen da. Hari gomendatzen natzaion bezainbat, neure buruaz kanpoan ezartzen naiz, neure jokamoldea bortxatu arte; eta noizbait gertatu zait estali behar dudala tratatzen nauen morrontza, neure nahia baita ezaxola handi bat eta higialdi zorizko eta aitzinetik gogoetatu gabe zenbaiten erakustea, oraingo aldietarik sortuak bezala: balioko ezer ez esatea bezainbat maite baitut ongi esatera prestatuzk etorria izana erakustea, azken hau gauza desagokoa baita, bereziki neure ofizioko jendeei, eta deus handirik eman ahal ez duenari sobera behartzen dion gauza; prestatetako laguntzen duena baino uste izateko gehiago ematen baitu. Soineko apainaz ergelki janzten ohi da arruntez baino jauzi hoberik ez egiteko. *Nihil est his qui placere volunt tam adversarium quam expectatio.*

Kurio hizlariak idatziz utzi izan da bere hitzaldietako zatien sailkapena hiru edo lauretan prestatzen zuenean, edo bere argudioen eta arrazoen zenbakia, errazki gertatzen zitzaioela, edo zerbaiten ahanzea, edo gaintetik bat edo biren gehitzea. Beti gorde izan naiz eragozpen horretan erortzetik, agintza eta arauen horiek gorrotaturik; ez soilik neure oroimenaz mesfidantzagatik, baina molde hori hurbilegia baitzaio artistarenari. *Simpliciora militares decent.* Aski da jadanik neure buruari agindu diola begiruneko lekuan mintzatzeko kargurik ez hartzeko. Zeren, norbere idazkia irakurriz mintzatzeari buruz, itsusia denaz landara, desabantaila baitzaie izaeraz zerbait egin ahal lezaketenei. Eta neure oraingo asmamenaren faborez arriskatzea, are gutiago; dorpea eta nahasia dut, bat-bateko behar handietarako balio ez duena.

Utz ezazu, irakurle, entseiuaren ukaldi hau eta neure margolatzearen garaitiko zatien gehiagarri honen joatera. Gehitzen dut baina ez dut zuzentzen²⁶¹. Lehenik, zeren uste baitut bere egina munduari hipotekatu dionak ez duela horren gain zuzenbiderik batere. Esan beza, ahal badu, hobeki beste inon, eta ez beza nahas saldu duen egina. Halako jendeengandik ez litzateke deus erosi behar beren heriotzaren ondoren ez bada. Gogoetan ari bitez ongi argitaratu baino lehenago. Nork leihatzen ditu?

Nire liburua beti bera da. Salbu eta, berriztatzen den arauz, eroslea ez dadin esku hutsik joan, neure buruari baimentzen baitiot apaingura zerbaiten gehitzera (gaizki josi mosaiko batez baizik ez baita). Lehen moldeak kondentzen ez duten baina, handinahizko sotilezia xume baten bidez, ondoko bakoitzari balio berezi zerbait ematen

dien gehigarriak dira. Hortik errazki gertatuko da kronologiazko aldaratze zerbait nahasiko dela, nire ipuinak beren egokialdiaren arabera hartzen baitute lekua, ez beti beren aroaren arabera.

Bigarrenik, neuri dagokidanez, aldaketan galtzeko beldurrez naizela; nire adimena ez doa beti aurrera, atzeraka badoa ere. Ez naiz lehenbizikoez baino gutiago mesfidatzen neure irudimenez bigarrenak edo hirugarrenak izateagatik, ez oraingoez baino gehiago iraganez. Maiz besteak zuzentzen ditugun bezain zozoki zuzentzen dugu geure burua. Nire lehen argitalpenak mila bostehun eta larogei urtean izan ziren. Denboraldi luze baten ondoren zahartu naiz, baina ez naiz behazbete bakar bat ere zuhurtu. Ni ordu honetan eta ni ordu hartan, bi gara; baina, noiz hobeki? Ez dut deus esaten ahal. Eder litzateke zaharra izatea, soilik hobekitze aldera joanen bagina. Mozkor zambulukariaren mugimendu bat da, zoratua, molde gabea, edo haizeak bere arabera darabiltzan ihienak.

Antiokok bortizki idatzi zuen Akademiaren alde; bere urte zaharretan beste alderdi bat hartu zuen. Bietarik nornahiri jarraikiko banieloke ere, ez ote litzateke beti Antiokori jarraitzea izanen? Zalantza ezarri ondoren, giza usteen egitasuna ezarri nahi izatea, ez ote zen zalantzaren ezartzea, eta ez egitasuna, eta agintzea, irauteko adinik eman izan balitzaio, beste bat baino hoberik ez zen inarrosaldi berri baten gai zela beti?

Fabore publikoak eman dit nik uste baino apur bat ausartasun gehiago, baina gehien beldurtzen nauena aspertzea da; nekatzea, nire aroko gizon jakintsu batek egin duen bezala, baino nahiago nuke ziztatzea. Goresmena beti atseгина da, nornahigandik eta zernahigatik badator ere; baina, zuzenki atsegin izateko, jakin behar da haren kausaren berri. Hutsek beraiek ere badute beren gomendiorako bidea. Onespen arrunta eta xehea desegokia aurkitzen da orduan; eta, neure aroan, engainatua naiz idazkirik txarrenak jendearen haizearen goiko saria irabazi dutenak ez badira. Zinez, eskerrak ematen dizkiet neure ahalegin ahulak onerako hartzen nahi dituzten gizon zintzoei. Ez da lekurik moldezko hutsak hain ageriak direnik nola berez gomendiorik ez duen gai batean. Ez zaitez nire kontra izan, irakurle, besteren irudimenaz edo ezaxolaz hemen itzurtzen direnengatik²⁶²; goizero, langile bakoitzak gehitzen dizkio bereak. Ez naiz ortografian ez puntuazioan sartzen, eta bakarrik manatzen dut zaharrari jarraiki diezaioeten; ez naiz aditua ez batean ez bestean. Zentzua osoki hausten dutenean, atsekabe guti dut, zeren horretaz arintzen bainaute bederen; baina faltsu baten bidez ordezkutzen dutenean eta beren gogoetaren aldera desbideratzen nautenean, hain maiz egiten duten bezala, hondatzen naute. Zernahi moduz, zuhurtitza nire neurriaren arabera aski azkarrik ez denean, gizon zintzo batek ukatu behar du nirea bezala. Zein guti langilea naizen ezagutzen duenak, zein egina naizen neure moldera, errazki sinestuko du gogotikago birridatziko nituzkeela beste hainbat entseiu, hurrezko zuzenketa horrengatik honako honen birzuzentzeari lotzea baino.

Lehenago banioen, bada, metal berri honen mehatagirik barrenean sarturik²⁶³, ez naizela bakarrik neureez beste diren ohiturak eta aburuak dituzten jendeekiko konfiantzaz gabeturik, berorien bidez baitute beste korapilo orori itzurtzen zaion elkarren arteko korapilo bat, baina oraindik ere ez nagoela arriskurik gabe dena goresgarri zaien artean, hauetarik gehienak ez baitira makurrago egoten ahal gure zuzenbideari buruz, hortik galbideko mailarik ezinagokoena sortzen baita. Dagozkidan gorabehera guztiak kontutan edukiz, legeen defentsa hainbat kostatzen zaion gizonik (galdu mozkinetan eta eragin kaltetan, maisuek dioten bezala) ez dut aurkitzen. Eta harroarenak egiten dira beren berotasun eta garraztasunagatik, balantza zuzenean nik baino anitzez gutiago egiten duten halakoak.

Betidanik etxe librea, harrera handikoa eta bakoitzari zabalik den bezala (zeren hartaz gerrako tresna baten egiteko sekula ez baitut neure buruaren bideratzera utzi²⁶⁴; gerran gogotikago sartzen bainaiz, neure auzotasunetik urrunena denean), nire etxeak merezi

izan du jendearen atxikimendurik aski, eta ez litzateke erraza zoko honetan nire oldartzea; eta maisu lan eredugarritzat jotzen dut, oraindik, hain erauntsi luze, hainbat aldaketa eta inarrosaldi hurbilen azpian, odolaren isurtzeari eta ebasteari buruz oraindik birjina egon dadin. Zeren, egiaren esateko, ahalezkoa baitzen nire baldintzako gizon batentzat molde iraunkor eta jarraiki bati itzurtzea, zernahi bazen ere; baina indarka egin sartzeak eta oldarraldiak eta zoriaren aldakuntzak eta gorabeherak bigundu baino gehiago garraztu egin dute herriaren borondatea, eta arrisku eta nekezia garaitezinez zamakatzen naute. Itzurtzen naiz; baina ezatsegin zait zuzenbidez baino gehiago zoriz eta neure zuhurtziaz izan dadin, eta ezatsegin zait legeen babesetik landan egotea eta haien geriza ez den beste baten azpian. Gauzak diren bezala, erdizka baino gehiago beste baten faborez bizi naiz, zor gogorra baita. Ez dut nahi neure segurantza edukiitzea neure zintzotasunaz eta libertateaz atsegin duten handien ontasun eta eztitasunari zor, ez neure aitzinekoen eta neure ohituren erraztasunari. Zeren, zer besterik banintz? Nire jokamoldeek eta nire solasaldiaren zabaltasunak edo nire ahaidegoak behartzen badituzte nire auzokideak, krudelkeria da hori ordaintzen ahal dezaten ni bizirik utziz, eta esaten ahal diezadaten: "Baimentzen diogu bere etxeko kaperan jainkozko zerbitzuaren jarraipen librea, inguruko eliza guztiak guk utziak eta hondatuak izanik, eta baimentzen diogu bere ontasunen erabiltzea, eta bere bizia, gure emazteak eta idiak behar denean gordetzen dituen bezala²⁶⁵." Aspaldi merezi dugu gure etxean Likurgo atenastarraren goresmena, bere hirikideen poltsen begiratzaille orokorra eta zaindaria baitzen.

Bada, uste dut zuzenbidez eta zilegitasunez bizi behar dela eta ez sariz edo faborez. Zenbat gizon zintzok nahiago izan dute biziaren galtzea nornahiri zor edukitzea baino! Itzurtzen natzaio behartze mota orori, baina oroz gain ohorezko eginbeharrez lotzen naudenari. Deus ere ez dut hain garesti aurkitzen nola ematen zaidana eta hori zeren neure borondatea bahiturik gelditzen baita eskerronaren izenburupean, eta gogotikago hartzen ditut saltzen diren ofizioak. Ongi sinesten dut; hauengatik dirurik besterik ez dut ematen; besteengatik neure burua ematen dut. Zintzotasunaren legeaz naukan gorapiloa hertsigarriagoa eta pisutsuagoa iruditzen zait behartze zibilaz naukana baino. Neure buruaren bidez baino eztikiago estekatzen zait eskribau baten bidez. Ez ote da arrazoi nire kontzientzia anitzez atxikiagoa izan dadin soilik beraz fidatu izan delako? Beste kasuetan, nire fedeak ezer ez du zor, ezer ez baitzaio maileguz eman; nitaz landan hartu diren bermeaz eta segurantza balia bedi. Neure hitza baino hagitzez ere nahiago nuke harresi baten eta legeen hertsatzearen haustea. Neure agintzen betetzeari buruz sineskeriarainoko zorrotza naiz, eta gai dudagarri eta baldintzapekoetan egiten ditut. Pisurik gabe direnei neure arauaren lehiaz pisua ematen diet; bere betebeharrak oinaze egiten eta zamakatzen bainau. Eginkizun osoki libre eta neuretan ere, epea esaten badut, uste dut neure buruari manatzen diodala eta besteren ezagutzari ematea norbere buruari manatzea dela; iruditzen zait agintzen dudala esaten dudalarik. Horrela bakanka argitaratzen ditut neure asmoak.

Neure buruaren egiten dudana kondena epaileena baino biziagoa eta gogorragoa da, hauek behartze orokorraren aldetik baizik ez bainaute hartzen, nire kontzientziaren hertsipena estu eta larriagoa delarik. Joan ez banintz herrestaka eramana nintzatekeen eginbeharrek laxoki betetzen ditut. *Hoc ipsum ita justum est quod recte fit, si est voluntarium*. Ekintzak ez badu libertatezko distira zerbait, ez du graziarik ez ohorerik batere.

Quod me jus cogit, vix voluntate impetrent. 267

Beharrak naramanean, maite dut borondatearen laxatzea, *quia quicquid imperio cogitur, exigenti magis quam praestanti acceptum refertur*. Ezagutzen ditut molde horri zuzengaberraino jarraikitzen diotenak, itzuli baino gehiago ematen eta ordaindu baino

gehiago mailegatzten baitute, behar baino zuhurreria gehiago egiten baitute. Ez naiz horretara xederatzen, baina entseiatzen naiz horren kontra.

Hainbat maite dut neure buruaren arintzea eta libratzea non, naturaz edo halabeharrez, adiskidantzaren eginbehar zerbait zor nienen aldetik ukan nituen eskergaitzak, laidoak eta irainak inoiz neure alde zenbatu baititut, haien hutsaldia neure zorraren kitatze eta arintze bezala hartuz. Arrazoi publikoaren itxurazko eginbeharrak oraindik ordaintzen badizkiet, halarik ere aurrezki handia aurkitzen dut atxikimenduagatik egiten nuena zuzenbideagatik egitean eta neure barreneko borondatearen arduraz eta axolaz apur bat arintzean *est prudentis sustinere ut cursum, sic impetum benevolentia*, apur bat lehiati eta hertsigarri baitut, ematen naizenean, edo hala da bederen inola ere beharturik egon nahi ez den gizon batentzat, eta zenbatze horrek balio dit gertatzen zaizkidan jendeen akatsen arindurarako. Ezatsegin zait gutiago balio dutelako, baina horrela aurrezten dut haienganako axola eta atxikimendu zerbait. Onartzen dut bere haurra gutiago maite duena ezkabiatsu edo konkortua delako, eta ez bakarrik gaiztoa denean, baina zorigaitzekoa eta gaizki sortua denean ere bai (Jainkoak berak hori berori apaldu baitu bere balio eta apreziatze naturaletik), hoztasun horretan neurtasunez eta zuzenbide zehatzez diharduen ber. Nire baitan, hurbiltasunak ez ditu akatsak arintzen, larriagotzen ditu.

Ororen buruan, ongi-egite eta eskertzearen jakintzan neure burua aditzen dudanaren arabera, jakintza sotila eta erabilpen handikoa baita, ordu honetan naizen baino libreagorik eta zor gutiagorekin ez dut inor ikusten. Zor dudana, eginbehar arruntei eta naturalei zor diet. Ez da besteetan osokiago kitatua den inor,

nec sunt mihi nota potentum

Munera. 270

Aski ematen didate printzeek ezer kentzen ez badidate, eta ongirik aski egiten didate gaizkirik batere egiten ez didatenean; eskatzen dudan guztia da. O zenbat eskertzen diodan Jainkoari nahi izan baitu bere graziatik zuzenean ukan dezadan daukadan guztia, berak gorde baitu bere baitan nire zor osoa! Nola otoizten diodan haren urrikari sailduari ez diezaiodan inori zor mesede handi funtsezkorik batere! Zorioneko eskuzabaltasuna hain urrun eraman nauena. Buka bedi!

Entseiatzen naiz inoren behar ageririk ez edukitzera.

In me omnis spes est mihi. Bakoitzak bere baitan ahal duen gauza da, baina errazkiago Jainkoak beharkunde natural eta larrietako gerizan ezarri dituenek. Besteren menpean izateak urrikalgarri eta arriskatu bilakatzen du. Gu ere, jarlekurik zuzenena eta seguruena baikara, ez gatzazkio geure buruari aski seguru. Neure buruaz landa ez dut neure den ezer; eta jabegoa nonbait ere eskas eta mailegatua da. Neure burua lantzen dut, kuraian, azkarrena baita, eta zorian ere, zertaz askiesteko aurkitzeko kanpoan orok utziko nauenean.

Hipias eleatarra ez zen bakarrik jakintzaz hornitzen, beste lagungo orotarik Musen magalean alaiki baztertu ahal izateko, eta ez bakarrik filosofiaren ezagutzaz, bere gogoari irakasteko bere buruaz askiesteko eta kanpotik datozkion erraztasunez gizonki gabetzeko, zoriak manatzen duelarik; hain axolatia izan zen ere bere sukaldaritza eta ile-mozketaren egiteko, bere jantziak, oinetakoak, tresnak, ahal bezainbat bere baitan finkatzeko eta laguntza arrotzari itzurtzeko.

Libreakiago eta alaikiago gozatzen da mailegatu ontasunez, beharkundeak behartu eta bortxatu gozamen bat ez denean, eta norbere borondatean eta ahalbidean hartaz gabetzeko indarra eta bideak direnean.

Ongi ezagutzen dut neure burua. Baina irudigaitza zait inoren hain eskuzabaltasun hutsik, ez hain abegikortasun irekirik eta dohainik, non ez baizitzaidan zorogaitzekoa, tiranikoa eta erantzukiz tindatua iruditu, beharrak hartara eramana izan banintz. Ematea

nolakotasun handinahizkoa eta lehentasunezkoa den bezala, halaber onartzea jasankortasunezko nolakotasuna da. Baiazetok egin zuen Tamerlanek bidaltzen zizkion emaitzen ezeztatze iraingarria eta liskartia lekuko. Eta Suleiman enperadorearen aldetik Kalikuteko enperadoreari eskaini zitzaizkionek hain haserraldi handitan ezarri zuten non, ez baitzituen bakarrik zakarki errefusatu, ez berak ez bere aitzinekoek ez zutela hartzeko ohiturarik eta beren ofizioa ematea zela esanez, baina gainera hobi baten barrenean sarrarazi baitzituen horretarako bidali enbaxadoreak.

Tetisek, dio Aristotelesek, Jupiter lausengatzen duenean, lazedemoniarrek atenasterrak lausengatzen dituztenean, ez doazkie egin dizkieten ongien oroitzapenaren berriztatzea, gauza hastiagarria baita beti, baina haiengandik ukan dituzten ongien oroitzapena. Nornahitaz hain trebeki baliatzen eta hari lotzen ikusten ditudanek ez lukete eginen pisatuko balute, gizon zuhur bati pisatu behar zaion heinean, eginbehar baten lotura; menturaz ordaintzen da inoiz, baina ez da inoiz ezabatzen. Esteka krudela bere libertatearen neurriak zentzu orotan zabaldu nahi dituenarentzat. Ezagutzen nautenek, nire gainekoek eta azpikoek ere, badakite ea sekula ikusi duten besteren gainean zama gutiago ematen duen inor. Garai honetako eredu oroz gainetik egiten ahal badut ez da mirari handia, neure ohituren hainbat zatik lagundurik: burgoitasun natural apur bat, errefusatzearen jasangaiztasuna, neure nahien eta xedeen behartzea, eginkizun-mota guztietarako gaitasunik eza, eta neure nolakotasunik maitatuenak: alferatasuna eta zabaltasuna. Horregatik guztiagatik hiltzerainoko hastiatzen dut beste bati loturik izatea, eta neure burua ez den beste inor lot dakidan. Gertaldi arin edo hertsigarri batean besteren ontasunaz baliatu baino lehenago aski biziki baliatzen naiz ahal dudan guztiaz hori gabe egoteko.

Neurriz gain nardatzen naute neure adiskideek eskatzen didatenean hirugarren bati eskatzeko. Eta, haiengatik, deus zor ez didanari buruz neure buruaren bahitzea ez zait zor didanaren desbahitzea, hartaz baliatuz, baino kostu gutiagokoa iruditzen. Baldintza hau kendurik, eta honako hau: ez dezatela niregandik gauza nekagarriarik eta axolatsurik nahi (zeren hiltzerainoko gerra adierazi baitiot axola orori), gozoki erraza natzaio bakoitzaren beharrari. Baina emateko bilatu dudana baino are gehiago itzuri natzaio onartzeari; errazagoa da ere, Aristotelesen arabera. Neure zoriak guti baimendu dit besteri ongi egitea, eta baimendu didan guti hori aski eskaski ezarri du. Gizonen artean maila zerbaiten edukitzeko sortarazi banindu, neure buruaren maitarazteko handinahia izanen nukeen, ez beldurrarazteko edo mirestarazteko. Ozarki adieraziko dut? Atseginari begiratu niokeen mozkinari bezainbat. Zirok, hagitz zuhurki, eta oso kapitain on eta oraino filosofo hobe baten ahotik²⁷², bere ontasuna eta ongi-egiteak apreziatzen ditu bere suhartasuna eta gerrako konkistak baino anitzez gehiago. Eta lehen Eszipionek, bere burua balioarazi nahi duen orotan, bere ontasuna eta gizatasuna pisatzen ditu bere ausartzia eta garaipenen gainetik, eta beti badu ahoan solas ospetsu hau: etsaiei utzi diela adiskideei bezainbat bera zer maitatu.

Esan nahi dut, bada, zerbait zor izan behar bada, mintzatzen naizena baino izenburu zilegiago batengatik izan behar dela, gerra zital honen legeak horretara behartzen bainau, eta ez nire iraupen osoa bezalako zor handitan: horrek lehertzen bainau. Mila aldiz etzan naiz neure etxean, irudikatuz tradituko eta hilen ninduketeela gau hartan, zoriarekin antolatuz ikararik eta luzetasunik gabe izan zedin. Eta neure paternosterraren ondotik aldarrikatu dut:

Impius hæc tam culta novalia miles habebit! ²⁷³

Zein sendabide litzateke? Nire sorlekua da, eta nire aitzinekoen gehiengoarena²⁷⁴; hemen ezarri dute beren atxikimendua eta izena. Gogortzen gara ohitzen garen orotan. Eta gurea bezalako egoera zital batean, ohitura naturaren emaitza hagitz faboragarria da,

gure sentimendua soraiotzen baitu gaitz askoren pairamenerako. Hau dute gerra zibilek beste gerrek baino makurragoa: bakoitza geure etxean zaindegian ezartzen gaituela.

Quam miserum porta vitam muroque tueri,

Vixque suæ tutum viribus esse domus. 275

Ezinagotasun handia da supazterrean eta etxeko atsedenean ere antsiatu egotea. Nagoen lekua gure nahasmenen multzoan beti lehena eta azkena da, bakea sekula ez baitu bere aurpegi osoa.

Tum quoque cum pax est, trepidant formidine belli. 276

...Quoties pacem fortuna lacescit,

Hac iter est bellis.

Melius, fortuna, dedisses

Orbe sub Eoo sedem, gelidaque sub Arcto,

Errantesque domos. 277

Inoiz ateratzen dut gogoeta horien kontra azkartzeko bidea soraiotasunetik eta laxakeriatik; hauek ere inola ere bermetasunera baikaramatzate. Maiz gertatzen zait arrisku hilgarrien irudikatzea atsegin zerbaitekin eta haien zain egotea; burua ergelki apaldurik sartzan naiz heriotzean, gogoetatu ez ezagutu gabe, jauzi batez irensten eta lo ahaltsu batez istantean hondoratzen nauean motelduraz eta nagitasunez bete barrentasun mutu eta ilun batean bezala. Heriotza labur eta bortitz horietan aurretik ikusten dudan ondorioak ikara baino arindura gehiago ematen dit. Badiote, bizia luzea izateagatik hoberena ez den bezala, heriotza hoberena dela luzea ez izateagatik. Hila izateagatik harritzen baino gehiago hiltzearekin trebatzen naiz. Itsutu eta zoramenez liluratu behar nauen erauntsi horretaz inguratzen eta estaltzen dut neure burua, oldarpen laster eta sorai batez.

Gertatuko balitz, baratzain zenbaitek dioten bezala, arrosak eta sagu-belarrak urrintsuagoak sortzen direla baratzuri eta tipulen ondoan, hauek edoskitzen eta berentzat baitakarte lurrean den urrin txar oro, halaber ere natura galdu hauek irentsiko balute nire aire eta aroko pozoin guztia eta beren auzokidetasunaren bidez hobe eta garbiago bihurtuko balidate, ez nuke dena galduko. Hori ez da; baina badaiteke honako honetarik zer bait izan: ontasuna ederragoa eta erakargarriagoa dela bakana denean, eta oposizioak eta ezberdintasunak bere baitan gogortzen eta estutzen duela ongi-egitea, eta oposizioaren lehiaz eta ospeaz sutan ezartzen duela.

Ebasleek, beren graziagatik, ez naute bereziki hastiatzen. Nik ere ez haiek: jende soberarekin egin beharko nuke. Kontzientzia berdinek daukate zoriaren mota ezberdinen azpian krudelkeria, tradiketa, ebaskeria berdina, eta are makurragoa, laxoagoa, seguruagoa eta ilunagoa den bezainbat, legeen itzalpean. Laido ageria hastiatzen dut zuritua baino gutiago, eta gerrazkoa gutiago bakezkoa baino. Gure sukarra gertatu da berak doi gaizkiagotu duen gorputz baten baitan: sua bazegoen, sugarra izeki zaio; hotsa handiagoa da, gaitza ez hainbat.

Neure bidaiekin arrazoia galdegiten didatenei erantzuten ohi diet: badakidala zeri ihes natzaion, baina ez zeren bila naizen. Esaten bazait atzeritarren artean badaitekeela ere osasun guti, eta haien azturek ez dutela gurek baino gehiago balio, erantzuten dut: lehenik, neke dela,

Tam multæ scelarum facies! 278

Bigarrenik, egoera gaizto bat egoera zalantzati batengatik aldatzea beti irabaztea dela, eta besteren gaitzek ez gaituztela gurek bezainbat zauritu behar.

Ez dut hemen ahantzi nahi, ez naizela behin ere Frantziaren kontra hainbat bihurtzen non ez dudan Parisera begi onez so egiten; nire bihotza dauka nire haurtzarodanik. Eta gertatu zait gauza bikaineekin bezala; zenbat eta hiri eder gehiago ikusi dudana, orduan

eta gehiago ahal eta irabazten duen beronen edertasunak neure bihotzean. Beragatik maite dut, eta apaindura arrotzez zaturik baino gehiago bere soiltasunean. Amultsuki maite dut, bere garitxa eta hutsetaraino. Hiri handi horren aldetik besterik ez naiz frantsesa; handia jendeetan, handia bere jarlekuko zoriontasunetan, baina oroz gain handia eta alderaezina erraztasunen ezberdintasun eta aniztasunetan, Frantziako ospea eta munduko apaindura nobleetarik bat. Jainkoak aileza handik gure zatiketak urrun daitezen! Osorik eta baturik izanez, beste bortizkeria orotarik gerizatua aurkitzen dut. Ohartarazten diot alderdi orotarik gaizkiena liskarrean ezarriko duena izanen dela. Eta, berari dagokionez, beraren beldur baizik ez naiz. Eta berarengatik, zinez, estatu honetako beste zatirengatik bezala beldur naiz. Iraunen duen artean, ez dut neure azken hatsaren emateko beste erretirorik behar, beste erretiro ororen minduraren galarazteko aski baita.

Ez Sokratesek esan duelako, baina egiazki neure izaera delako, eta menturaz ez soberakeria zerbait gabe, gizon guztiak neure herkidetzat dauzkat, eta poloniar bat frantses bat bezala besarkatzen dut, herriko esteka hori orokor eta amankomunaren ondotik ezarriz. Sorlekuko aire bati ez naitaio doi atxikia. Ezagutza osoki berriak eta osoki neureak iruditzen zaizkit auzoko beste ezagutza zorizko eta arrunt hauek bezainbat balio dutela. Gure erdiespeneko adiskidantza hutsak gailentzen dira aroko edo odoleko harremanak gehitzen dizkigun ondoan. Naturak munduratu gaitu libreak eta loturarik gabe; gu gartzelaratzen gara leku zenbaitetan; Persiako erregeek bezala, Txoaspes ibaiko urik besterik ez edatera behartzen baitzuten beren burua, ergelkeriaz uko eginez beste uren ororen beren erabilerako zuzenbideari, eta idortzen baitzuten, beraiei zegokienez, garaitiko mundu osoa.

Sokratesek bere amaiaren egin zuena, atzerriratzeko sententzia bat heriotzekoa baino makurragotzat jotzea, ni ez nintzateke, uste dut, behin ere hain hautsirik ez hain hertsiki ohiturik neure herrian non halakorik eginen nukeen. Zeruraino goratu bizi horiek badituzte irudirik asko nik atxikimenduz baino gehiago begirunez besarkatzen ditudanak. Eta badituzte ere hain goratuak eta ohigabeak non atxikimenduz ere ez baititut besarkatzen ahal, gogoan ere ez baititut hartzen ahal. Ateraldi hori xamurra zitzaion bere hiria mundutzat jotzen zuenari. Egia da bidaiak gutiesten zituela eta doi ezarri zituela oinak Atikako eremuaz landan. Zer bada? Deitoratu baitzuen bere adiskideen dirua bere biziaren desbahitzeko, eta errefusatu baitzuen gartzelarik ateratzea besteren bidez, legerik ez hausteko, bestalde legeak hain usteldurik ziren aro batez.

Eredu hauek lehen motakoak²⁷⁹ dira. Bigarrenekoak dira pertsonaia berean aurkitzen ahalko nituzkeen beste zenbait. Eredu arraro hauetarik askok gainditzen dute nire ekintzaren indarra, baina batzuek gainditzen dute nire adimenaren indarra ere.

Arrazoi horietaz beste, bidaiatzea iruditzen zait ariketa onuragarria. Gogoak badu hor etengabeko iharduera bat gauza ezezagunei eta berriei ohartzen; eta biziaren eraikitze, maiz esan dudana bezala, beste hainbat biziren, ameskeriaren eta ohituraren ezberdintasunaren etengabe erakustea eta gure izaeraren moldeen hain etengabeko ezberdintasunaren dastaraztea baino eskola hoberik ez dut ezagutzen. Gorputza ez da alferturik ez nekaturik, eta inarrosaldi neurtu horrek hatsetan iraunarazten du. Zaldiz badiraut behehitu gabe, naizen bezain sabelmindurik, eta aspertu gabe, zortzi eta hamar orduz,

Vires ultra sortemque senectæ. 280

Eguzki zorrotz baten bero garratzaz beste, ezain aro ez zait etsaia; zeren eguzkitakoek, aitzineko erromatarren arodanik Italian haietaz baliatzen baita, besoak zamakatzen baitituzte burua arintzen dutena baino gehiago. Jakin nahi nuke zein moldea zuten persiarrek, hain aspaldiko aroan eta luxuaren sortzapenean, haize freskoaren eta itzalen egiteko beren nahiara, Xenofonek dioen bezala. Euriak eta lohiak maite ditut, ahateek

bezala. Airearen eta aroaren aldaketa ez zait hunkitzen; orobat zait zeru oro. Nik neure baitan sortzen ditudan barreneko inarrosaldiez baizik ez naiz joa, eta horiek bakankago gertatzen zaizkit bidaiatzean.

Abiatzeko gogorra naiz; baina abiatuz geroztik, nahi bezainbat noa. Eginbehar handiei bezala txikiei itzurtzen natzaie, eta berdin auzokide baten ikusteko egun bateko bidaia batentzat tresnatzeari nola bidaia luze batentzat. Espainol erara ikasi dut neure egunaldien egiten: txanda batez, egunaldi handiak eta arrazoigarriak; eta, bero ezinagokoetan, gauaz egiten ditut, ilunabarrenetik goizargia arte. Bidean bazkaltzeko beste ohitura, burrunban eta lehian, bereziki egun laburretan, nahasgarria da. Nirekin lehen egunaldia egin ahal duen ezein zaldik ez dit sekula hutsik egin. Orotan edanarazten ditut, eta zaintzen dut bakarrik beren uraren erabiltzeko biderik aski izan dezaten. Jaikitzeo dudak nagikeriak ematen die jarraitzen didatenei nahierara bazkaltzeko astia abiatu baino lehenago. Neuretzat ez dut behin ere beranduegi bazkaltzen; gosea datorrit jan arauz, eta ez bestela; ez dut goserik mahaian baizik.

Zenbaitek deitoratzen dute atsegin zaidala iharduera horretan jarraitzea, ezkondu eta zaharturik. Engainatzen dira. Norbere familiaren uzteko aro hobea da gu gabe jarraitzeko heinean ezarri dugunean, bere iragan moldea gezurtatzen ez duen antolabidea utzi diogunean. Etxean hain fidelik ez den eta zure eginbeharraren betetzeko axola gutiago duen zaindaria bat utzirik urruntzea zuzur gabekeria gehiago da.

Emakume baten baitan jakintzarik onuragarri eta ohoragarria etxeko jakintza da. Emakume zuzur bakarren bat ikusten dut, beste oro baino lehenago bilatu behar baita, gure etxeen hondatzeko edo salbatzeko balio duen dote bakarra bezala. Ez bekit horretaz mintza ere: irakatsi didan esperientziaren arabera, emakume ezkondu batengandik, beste bertute ororen gain, bertute ekonomikoa eskatzen dut. Etxe osoa ematen diot, urruntzen naizenean haren gobernu guztia utziz. Amorrutik ikusten dut etxe askotan jauna itzultzen dela ozpindurik eta xehaturik bere egitekoen neketik, anderea oraindik bere ganbaran orrazten eta apaintzen ari delarik. Erreginen eginkizuna da; eta oraindik ez dakit. Irrigarria eta zuzengabea da gure emazteen alferkeria gure izerdiaz eta lanaz iraunarazia izan dadin. Ez da gertatuko nik inor debeka diezaiodan neure ontasunen erabilera nik baino modu erraz, lasai eta askeago batez eduki dezan. Senarrak gaia ematen badu, naturak berak nahi du andereek moldea eman dezaten.

Uste da urruntze horrengatik eraginak direla ezkonte-adiskidantza eginbeharrak, nik ez dut uste. Aitzitik, sobera etengabeko egote batengatik gogotik hozten den eta jarraitasunak zauritzen duen elkar ulertze bat da. Emakume arrotz oro emakume zintzo iruditzen zaigu. Eta bakoitzak esperentziaz sentitzen du elkarren ikusteko jarraipenak ez duela aldika urruntzean eta biltzean sentitzen den atsegina berdintzen ahal. Etete horiek neureenganako maitasun berri batez betetzen naute eta neure etxeko erabilera eztiago itzultzen didate; aldaketak berotzen du nire nahia alderdi batoren eta gero bestearen aldera. Badakit adiskidantza munduko zoko batetik bestera atxikitzeo eta biltzeko beso aski luzeak dituela; eta bereziki honek, eskerrona eta oroitzapena eskatzen duten faboreen etengabeko harreman bat baita. Estoikoek ongi diote, zuzurren artean hain elkartze eta harreman handia dela non Frantzian bazkaltzen duen honek asetzen baitu bere laguna Egipton; eta batek bakarrik behatz bat, edo dena dela, hedatzen badu, lur bizigarrian diren zuzur guztiek somatzen baitute horren laguntza. Gozamina eta jabegoa nagusiki irudimenari dagozkio. Honek guk ukitzen duguna baino berokiago besarkatzen du nahi duena, eta etengabekiago. Ohar zakizkie zeure eguneroko iharduerei, aurkituko duzu zeure adiskidegandik urrunena zaudela zeure aitzinean zaizunean: haren egoteak laxatzen du zure arreta eta zure gogoari baztertzeo libertatea ematen dio aldiro eta ororengatik.

Erromatik dauzkat eta zuzentzen ditut neure etxea eta bertan utzi ditudan erraztasunak; gutiz goiti beheiti bertan nagoenean bezala, badakuskit neure harresiak, neure zuhaitzak, eta neure errentak, berretzen eta gutitzen ere:

Ante oculos errat domus, errat forma locorum. 281

Ukitzen dugunaz baizik gozatzen ez bagara, agur geure ezkutuak geure kutxetan direnean, eta geure semeak ihizian baldin badira! Hurbilago behar ditugu. Baratzean, urrun da? Egualdi erdi batera? Zer, hamar lekoa, urrun ala hurbil da? Hurbil bada, zer hamaika, hamabi, hamahiru? Eta horrela urratsez urrats. Egiazki, bere senarrari arautuko dionak zenbatgarren urratsak bukatzen duen hurbila, eta zenbatgarren urratsak ematen dion urrunari hastapena, uste dut biren artean geldiarazten duela:

excludat jurgia finis.

Utor permissio, caudæque pilos ut equinæ

Paulatim vello, et demo unum, demo etiam unum,

Dum cadat elusus ratione ruentis acervi; 282

Eta dei dezaten ausarki filosofia beren laguntzarako; honi norbaitek erantzuki egiten ahalko baitio, sobera eta gutiaren, luze eta laburraren, arin eta pisutsuaren, hurbil eta urrunaren arteko josturako muturrik, bata ez bestea, ez baitu ikusten, haren hastapenik ez amaierarik ez baitu ezagutzen, erdiari buruz aski zalantzatsuki epaitzen duela. *Rerum natura nullam nobis dedit cognitionem finium.*

Ez ote dira andereak, ez mundu honen muturrean, baina beste munduan diren zenduen emazteak eta adiskideak? Besarkatzen ditugu izan direnak eta oraindik ez direnak, eta ez urruntzen direnak? Ezkontzean ez dugu hitzarmenik egin etengabea elkarri atxikiak egoteko, ikusten ditugun ez dakit zein animalia txikiak bezala, edo Karetiko sorginduak bezala, zakurren moduan. Eta ez ditu emazte batek bere begiak hain antsiatuki finkatuak izan behar bere senarraren aitzineko aldean non gibelego aldea ez baitio ikusten ahal, behar denean.

Baina emakumeen izaeren hain margolari bikain haren ateraldi hau ezartzekoa da hemen beren kexuen kausaren erakusteko:

Uxor, si cesses, aut te amare cogitat,

Aut tete amari, aut potare, aut animo obsequi

Et tibi bene esse soli, cum sibi sit male. 284

Edo, ez ote da berez oposizioak eta kontresanak askiesten eta hazten dituela, eta atsegin aski dutela ezatsegin egiten dizuten ber?

Egiazko adiskidantzan, horretan aditua bainaiz, neure aldera dakardana baino gehiago ematen natzaio neure adiskideari. Ez dut bakarrik hari ongi egitea berak egin diezadan baino nahiago, oraindik gehiago nahi dut bere buruari egin diezaion neuri baino: orduan egiten baitit gehien, bere buruari egiten dionean. Eta urruntzea atsegina edo onuragarria bazaio, orduan haren egotea baino askoz eztiago zait; eta ez da berez urruntzea, elkarri berri emateko bidea denean. Behiala atera dut erabilpena eta erraztasuna gure urruntzetik. Hobeki betetzen eta hedatzen genuen bizitzaren jabegoa elkarrengandik baztertuz; hura bizi zen, gozatzen zen, ikusten zuen nire orde, eta ni haren orde, izan balitz bezain osoki. Alderdi bat alferrik zegoen elkarrekin ginelarik: nahasten ginen. Lekuz baztertzeak joriago bilakatzen zuen gure nahien elkargoa. Gorputzezko egotearen gose asezinak salatzen du apur bat ahulezia gogoen gozamenean.

Aipatzen zaidan zahartzaroari buruz, aitzitik gaztaroari dagokio iritzi arruntetara apaltzea eta besterengatik bere buruaren bortxatzea. Honek biei zerbitzatzen ahal die, jendeari eta bere buruari; guk sobera lan badugu geure buruarekin bakarrik. Erraztasun naturalek huts egiten diguten arabera, artifizialen bidez sostengatzen gara. Bere atseginei jarraitzeaz gaztaroaren desenkusatzeko zuzengabea da, eta atseginen bila zahartzaroari debekatzea ere bai. Gazterik, neure pasioneak zuhurtasunez estaltzen

nituen; zaharrik, ilunak laxatzen ditut libertateaz. Lege platonikoek debekatzen zuten berrogei edo berrogeita hamar urteak baino lehenago bidaiatzea, bidaia onuragarri eta irakasgarriago bilakatzeko; gogotikago onartuko nuke hirurogei urte ondoren debekatzen dituen lege beraietako bigarren arau hura.

“Baina, halako adinean, ez zara sekula itzuliko halako bide luze batetik”. Zer zait hori! Ez natzaio lotzen ez itzultzeko, ez osatzeko; lotzen natzaio bakarrik mugitzeko, mugitzea atsegin zaidan artean. Eta banabil ibiltzeko. Irabazte edo erbi bat lasterkatzen dutenak ez dira lasterkatzen; lasterkatzen dira jostaketan aritzen direnak eta beren lasterraren ihardukitzeko.

Nire asmoa orotan zatigarria da; ez da esperantza handietan finkatua; egunaldi bakoitzak bururaten du haren xedea. Eta nire bizitzaren bidaia berdin badoa. Horregatik ikusi ditut leku urrundurik aski non eta nahi bainukeen geldirik egotea.

Zergatik ez, Krisipo, Kleantes, Diogenes, Zenon, Antipater, alderdirik beltzurieneko²⁸⁵ hainbat lagun zuhur lekutu baziren beren herritik, kexatzeko motiburik batere izan gabe, bakarrik beste aro baten gozamenagatik? Zinez, nire bidaien ezatseginik handiena da ez dudala nahi nukeen lekuan neure egotearen finkatzeko erabakirik eramaten ahal, eta beti itzultzeko deliberoa hartu behar dudala, izaera arruntetara jartzeko.

Neure sorlekuaz beste den leku batean hiltzeko beldurrez banintz, neureengandik urrundurik gaizkiago hilen nintzela uste banu, doi aterako nintzateke Frantziatik; ez nintzateke ikararik gabe neure parrokiatik aterako. Heriotza somatzen dut etengabean zintzurra edo giltzurriak ziztakatzen dizkidala. Baina besterik egina naiz: orobat zait orotan. Halarik ere, hautatzea balitzait, izanen litzateke, uste dut, ohe batean baino hobeki zaldiz, nire etxeaz landan eta neureengandik urrun. Adiskideengandik agurtzean, bada arindura baino bihotz-erditze gehiago. Gogotik ahanzten dut gure jendarteko eginbehar hori, zeren adiskidantzaaren eginbeharretarik ezatsegingarri bakarra hori baita, eta gogotik ahantziko nuke ere agur handi eta betiereko horren esatea. Hortik erraztasun bat ateratzen bada, ehun eragozpen ateratzen dira. Hil zorian ziren asko ikusi ditut antolaketa horrek urrikgarriki hertsatuak: jende meta horrek itotzen ditu. Eginbeharraren kontra eta atxikimendu eta axola gutiko lekukotasuna da atsedenean zure hiltzera uztea: batakin oinazetzen ditu zure begiak, besteak zure belarriak, besteak ahoa; ez da zentzurik ez gorputzaren zatirik inarosten ez zaizunik. Bihotza urrikariz hertsatzen zaizu adiskideen kexuak entzunez, eta amorruz menturaz ere beste kexu itxuratu eta mozorroturik entzunez. Gustu samurra eta ahula izan duenak orduan areago du. Premia handitan behar du esku ezti eta bere sentimenduari egoki bat, hazkura duen lekuan hatz egiteko; edo ez ukitzeko inondik ere. Munduratzeko emaginaren beharra badugu, halaber gizon zuhurrago baten beharra dugu hemendik ateratzeko. Halakoa, eta adiskidea, biziki garesti erosi beharko litzateke, halako aldian hartaz baliatzeko.

Ez naiz bere baitan azkartzen den eta deusek laguntzen ez nahasten ez duen azkartasun arbuari horretara iritsi; hein apalagokoa naiz. Iraganbehar horretarik itzurtzera eta baztertzerantz entseiatzen naiz. Ez da nire xedea ekintza horretan nire iraupenaren frogarik edo erakustaldirik egitea. Norentzat? Orduan amaituko da omenean dudak zuzenbide eta interes osoa. Askiesten naiz bere baitan bildu heriotza bat, lasaia eta bakartia, osoki neurea, neure bizi baztertuari eta bereziari egokia. Sineskeria erromatarren aitzitik, uste baitzen mintzatu gabe eta begien hesteko inor izan gabe hiltzen zena zorigaitzekoa zela, lanik aski badut neure buruaren arintzearekin beste inor arindu behar gabe, eta buruan gogoetarik aski gorabeherak besterik ekarri gabe, eta ihardukitzeko gairik aski maileguz eskatu gabe. Zati hau ez da gizartearen eginbeharra; pertsonaia bakarreko ekitaldia da. Bizi gaitezen eta irri egin dezagun geurean artean, joan gaitezen hiltzera eta narda egitera ezezagunen artera. Aurkitzen da, ordainduz, burua itzultzen dizuna eta oinak

igurtzen dizkizuna, nahi duzunaz baizik hertsatzen ez zaituena, aurpegi soraio bat erakutsiz, zure moduan ihardukitzera eta kexatzera uzten zaituena.

Adiskideen baitan urrikari eta doluaren hunkitzea nahi dezagun egiten duen gogaldi hurrezko eta gizatasunik gabeko horretarik egunero baztertzen naiz. Geure eragozpenak neurritz gora balioarazten ditugu, haien negarren erakartzeko. Bakoitzaren baitan bere zorigaitzari eusteko goersten dugun bermetasuna salatzen eta gaitzesten diegu geure ondokoei, geureari buruz denean. Ez gara askiesten geure gaitzez mintzen badira, oraindik atsekabetzen ez badira. Alaitasuna hedatu behar da, eta goibeltasuna ahal bezainbat mugatu. Arrazoirik gabe bere buruaz urrikalarazten duena arrazoa izanen denean ez urrikaltzeko gizona da. Beti kexatzea sekula ez izateko da, hain maiz urrikalgarriarena eginez non inori ez baitzaio urrikalgarria. Bizirik hilarena egiten duena hiltzerakoan bizirik bezala hartzekoa da. Ikusi dut haserratzten dena aurpegia ongi eta pultsua pausaturik aurkitzen zitzaiolako, irriaren estaltzea zeren bere sendakuntza salatzen baitzuen, eta osasunaz hastiatzea zeren urrikalgarria ez baita. Eta areago dena, ez ziren emakumeak.

Neure gaitzak erakusten ditut, gehienetan, diren bezala, eta asmo txarreko hitzei eta oihu itxuratuei itzurtzen natzaie. Alaitasuna ez bada, bai bederen daudenen jokamolde lasaia egokia da eri zuhur bati buruz. Egoera kontrario baten aurkitzeagatik, ez da osasunaren kontra bihurtzen; atsegin zaio beste baten baitan sendo eta osorik ikustea, eta hartaz gozatzea lagungoaren bidez behintzat. Beheko aldera hondoratzen sentitzeagatik, ez ditu biziaren gogoetak baztertzen, eta ez zaizkie solas arruntei itzurtzen. Eritasuna ikertu nahi dut sendo naizenean; agertzen denean aski eragin zinezkoa egiten du, neure irudimenak lagundu gabe. Lotzen gatzazkien bidaiak aitzinetik prestatzen ditugu, eta erabakia hartu dugu, baina zaldiaren gainean jarri behar dugun ordua besteei uzten diegu eta, haien alde, luzatzen dugu.

Neure ohituren argitarapenaren ezusteko mozkin hau sentitzen dut: inola ere arautzat balio didala. Batzuetan badatorkit neure biziaren historiaren ez traditzeko gogoeta bat. Adierazpen publiko honek bidean egotera behartzen nau, eta nire baldintzen irudiaren ez gezurtatzera, gaurko usteen maltzurkeriak eta eritasunak dakarten baino desitxuratze eta kontraesan gutiago baitute. Nire ohituren berdintasunak eta bakuntasunak sortzen dute itzulpen errazeko aurpegi bat, baina, nola moldea apur bat berria eta ohiz kanpokoa baita, gaizki esateari bide sobera ematen dio. Hainbaiteraino non uste baitut aski ematen diodala garbiki iraindu nahi nauenari ausikia non egin neure akats aitortu eta ezagunetan, eta zertaz asetu haizean bildu gabe. Baldin eta, neroni neure salaketa eta agerpenaz arduratzeagatik, iruditzen bazaio ausikia moteltzen diodala, arrazoa da bere zabaltzearen eta hedatzearen aldeko zuzenbideaz balia dadin (laidoak bere zuzenbideak baititu zuzenaren aurka) eta nik neure baitan erakusten dizkiodan bizioen erroak zuhaitzetaraino handi ditzan eta, ez soilik naukatenak, baina mehatxatzen nautenak ere aipa ditzan. Bizio laidogarriak, nolakotasunetan eta zenbakietan: jo nazan hortik.

Dion filosofoaren eredia besarkatuko nuke gogotik. Antigonok zirikatu nahi zuen bere jatorriari buruzko gaiarekin; berehala moztu zion: "Ni naiz, zioen, morroi harakin markatu baten eta emagaldutako baten semea, nire aita harekin ezkondu zen bere mailazko apaltasunagatik. Biak zigortuak izan ziren bidegabe zerbaitengatik. Elegile batek erosi ninduen gazterik, atsegina aurkitu baininduen, eta hiltzearekin bere ontasunak utzi dizkit, eta horiek Atenaseko hiri honetara ekarri, filosofiari lotu natzaio. Ez daitezen historialariak nire berrien bila lehia; nik esanen diet zer den." Aitorpen zabalak eta librearen erantzukia ahultzen eta iraina desarmatzen du.

Hainbat non, dena aipaturik, iruditzen baitzait arrazoiak harago goersten zaidan bezain maiz gutiesten zaidala ere. Iruditzen zaidan bezala ere, neure haurtzarodanik, ohorezko mailan eta lerroan dagokidanaz gorago eman izan zaidala.

Hobeki aurkituko nintzateke maila horiek edo arautuak edo gutietsiak lirakeen herrian. Gizonen artean, aitzintzeko edo esertzeko lehentasunaren eztabaida hiru erantzunez gorakoa denean, jendetasunik gabea da. Ez naiz inola ere zuzengabeki amore emateko edo aitzintzeko beldur, halako eztabaida nardagarritik ihes egiteko; eta sekula ez du inork nire lehentasunaz bekaitzik izan: utzi baitiot.

Neure buruaz idaztetik ateratzen dudan mozkin horretaz landara, beste honako honen zain nago: ni hil baino lehenago, gerta baledi nire gogaldiak atseginak eta adosgarriak zaizkiola gizon zintzo bati, elkarretara biltzera entseiatuko dela; lurralde irabazirik aski ematen diot, zeren ezagutza luze eta hurbil batek urte askoz eman ziezaiokeena, hiru egunetan ikusten baitu erregistro honetan, segurkiago eta zehatzago ere. Ameskeria ikusgarria baita: inori esan nahi ez nizkiokeen gauzak jendeari esaten dizkiot, eta neure jakintza edo gogoetarik gordeenei buruz liburudenda batera bidaltzen ditut neure adiskiderik minenak.

Excutienda damus prœcordia. 286

Ezaugarri onengatik ezagutuko banu egokia litzaidakeen norbait, zinez bila joanen nintzaioke hagitz urrun; zeren laguntasun egoki eta atseginaren ezintasuna ez baita nire irudiko erosten ahal. Oi adiskide bat! Zeinen egiazkoa den zuhurtitz zahar hori, adiskidantzaren erabilpena urarena eta suarena baino beharrazkoagoa eta eztiagoa dela! Nire esanera itzultzeko, ez da, bada, gaitzik asko urrundurik eta bazterturik hiltzean. Hori baino zorigaitz eta itsustasun gutiagoko ekintza naturalengatik eginbehartzat hartzen baitugu gure baztertzea. Eta areago, bizialdi luze baten herrestatzetik datozenek ez lukete beren ezinaz familia handi bat oztopatu nahi izan behar. Horregatik hinduek, eskualde batean, zuzentzat zeukaten halako beharkundean erori denaren hiltzea; eta beste batean, bakarrik uzten zuten ahal bezala salba zedin. Nori ez zaizkio aspergarri eta eramangaitzak? Eginbehar arruntak ez doaz horraraino. Bortxaz krudelkeria irakasten diezu zeure adiskiderik hoberenei, emaztea eta haurrak gogortuz erabilpen luzearen bidez zeure gaitzen ez sentitzeko ez deitoratzeko. Nire sabelminaren hasperenek ez diote inori hunkimendu gehiagorik ematen. Eta haien solasetik atsegin zerbait aterako bagenu ere -beti gertatzen ez dena baldintzen ezberdintasunagatik, honek gutiespena edo bekaitza edozeinen alde errazki sortzen baitu- ez ote da soberakeria adin oso batez egitea? Niregatik gogo onez bortxatzen ikusiko banitu, orduan haien mina deitoratuko nuke. Elkarren bermatzeko legea dugu, baina ez hain dorpeki etzatea beste baten gainean eta bere hondamenean finkatzea; odolaz baliatzeko bere eritasun baten sendatzeko haur txikiei lepoa moztarazten zien hark bezala, edo beste hark bezala, gazte samurrak ematen baitzizkion gauaz bere soinadar zahartuen berotzeko eta haien arnasaren ezintasunaren nahasteko bere arnas minker eta pisutsuarekin²⁸⁷. Venezia aholkatuko nioke gogotik neure buruari halako baldintzatik eta biziaren ahuleziatik bazterlekutzat.

Zaharreria nolakotasun bakartia da. Ni lagunkoia naiz soberakeriaraino. Eta arrazoigarria iruditzen zait gaur ken dezadan jendearen ikusmenetik nire zama, eta neure baitan bakarrik gorde dezadan, neure maskorrera geriza eta bil nadin, apoarmatuak bezala. Ikasten dut gizonekin egoten haiei atxiki gabe: laidoa bailitzateke halako malda behean. Lagungoari bizkar emateko ordua da.

“Baina halako bidaia luzean urrikalgarriki geldituko zara dena eskas izanen duzun zerritegi batean” Gauza beharrezkorik gehienak neurekin daramatzat. Eta gero, ez genekike zoriari itzurtzen berak erabakitzen badu gure oldartzea. Eria naizenean ez dut ohiz kanpoko ezer behar: naturak ahal ez duena nire baitan, ez dut nahi pilula batek egin dezan. Lurreratzen nauten eritasunen eta sukarren hasieran, oraindik sendorik eta osasunetik hurbil, Jainkoaren baitara biltzen naiz azken ofizio kristauen bidez, eta libreagoa eta arinagoa aurkitzen naiz, uste baitut eritasunaren arrazoi hoberik daukadala.

Eskribauen eta aholkularitzaren beharra oraindik sendagileena baino guttiagokoa dut. Neure egitekoez osoki sendorik finkatu ez dudana ez dadin uste gaitzak joa eginen dudarik. Heriotzaren zerbitzurako egin nahi dudana beti egina da; ez nuke atzeratuko egun batengatik ere. Eta ezer eginik ez bada, horrek esan nahi du edo zalantzak gibelarazi didala hautaketa (zeren noizean behin ez hautatzea ongi hautatzea baita), edo ez dudala ezer egin izan nahi.

Neure liburua idazten dut gizon gutirentzat eta urte gutirentzat. Iraupeneko gaia izan balitz, mintzaira sendago batez²⁸⁸ gauzatu beharko zatekeen. Gureak orain arte jasan duen etengabeko aldakuntzaren arabera, nork uste dezake bere oraingo moldea hemendik berrogeita hamar urtera erabilpenean egonen dela? Egunero itzurtzen zaie gure eskuei eta bizi naizenetik erdia aldatu da. Badiogu orain beterik dela. Beste hainbeste dio mende bakoitzak bereari buruz. Ez dut zaintzen honela iraunarazteko, itzuriko eta birmoldatuko baita egiten ari den bezala. Idazki on eta onuragarriei dagokie mintzairaren itzatzea beren gainean, eta berorren omena joanen da gure estatuaren zoriaren arabera.

Horregatik ez naiz gaur bizi diren gizonen artean beren erabilpena akitzen duten artikulu pribatu askoren sartzeko beldur, adimen arruntaz aitzinago ikusiko dutenen lagun zenbaiten jakintza bereziari buruz ari baitira. Orogen buruan ez dut nahi, zenduen oroitzapena inarosten dela maiz ikusten dudana bezala, eztabaida dadin: Bada, ongi izateak baimentzen nauen artean, hemen adierazten ditut neure isurmenak eta atxikimenduak; baina ahoz librekiago eta gogotikago egiten diot horren berri izan nahi duen nornahiri. Halako moldez, non oroimen hauetan, begiratzen bada, aurkituko da dena esan dudala, edo dena xederatu. Adierazten ahal ez dudana, behatzez erakusten dut:

Verum animo satis hæc vestigia parva sagaci

Sunt, per quæ possis cognoscere cetera tute ²⁸⁹.

Deus ere ez dut uzten neure buruaz nahi izateko edo asmatzeko. Horretaz mintzatu behar bada nahi dut egiazki eta zuzenki izan dadin. Gogotik itzuliko nintzateke beste mundutik naizen ez bezala moldatzen nauenaren gezurtatzeko, neure buruaren ohoratzekeo baizik ez balitz ere. Bizirik direnei buruz ere, beti aditzen dut diren ez bezala mintzatzen ohi dela. Eta neure indar guztiekin iraunarazi izan ez banu galdu dudana adiskide baten irudia, urratuko lidakete mila aurpegi kontrarioetan.

Neure gogaldi ahulen aipamenaren bukatzeko, aitortzen dut bidaiatzean ez dudala aterberik ikusten non eta irudimenetik iragan ez zaidan ea hor eria eta hiltzeaz neure moldera egoten ahalko naizen. Aterbea eman nahi dut berezirik izan dakidan lekuan, hotsik gabe, ez zikina, edo ketsua, edo itoa. Entseiatzen naiz heriotzaren lausengatzera gorabehera hutsal horien bidez, edo, hobeki esateko, entseiatzen naiz beste zama guztiez arintzera, bakarrik haren zain egoteko, hark hartuko bainau gogotik errezamarik gabe. Nahi dut haren zatia izan dezan neure bizitzaren gozotasunetik eta erraztasunetik. Puska handia da, eta pisukoa, eta gaur uste dut ez duela iragana gezurtatuko.

Heriotzak baditu besteak baino errazak diren moldeak, eta nolakotasun ezberdinak hartzen ditu bakoitzaren irudimenaren arabera. Naturalen artean, ahuleziatik eta motelduratik datorrena iruditzen zait biguna eta ezia. Bortitzen artean, lehertzen nauen hondamen bat baino gaizkiago irudikatzen dut amildegi bat, eta arkabuzaldi bat baino gaizkiago ezpata-ukaldi ebakigarri bat; eta neure burua Katonek bezala jo baino lehenago edan izan nukeen Sokratesen edabea. Eta orobat bada ere, nire irudimenak sentitzen du heriotza eta biziaren artean bezalako ezberdintasuna dela: labe sugartsu batera egotzi edo ibai zelaitsu bateko uretara. Hain zozoki begiratzen baitio gure beldurrak ondorioari baino gehiago moduari. Istant batez baizik ez da; baina halako

pisukoa non gogotik emanen baintuzke neure bizitzako egun asko neure moldera iragateko.

Bakoitzaren irudimenak aurkitzen baitu gehiagorik eta gutiagorik haren garraztasunean, hiltzeko moldeen artean bakoitzak bereizketa zerbait baitu, entseia gaitezen ezatsegin oroz arindurik den baten aurkitzera. Zergatik ez bilakatu atsegingarri, elkarrekin hil ziren Antoniok eta Kleopatrak bezala? Bazterrean uzten ditut filosofiak eta erlijioak sortu ahalegin garratzak eta eredugarriak. Baina gutiagoko gizonen artean aurkitu izan da, Petronio edo Tigelino bezala Erroman, bere buruaren hiltzeari lotu zaizkionak eta heriotza lokartu dutela beren prestaketen beraztasunaz. Jario eta lerrarazi dute beren ohizko solasen artetik, nesken eta adiskide onen artean; ez kontsolamenduzko solasik, ez testamentuzko aipamenik, ez iraupenezko arrandiatze hanpaturik, ez beren etorkizuneko baldintzei buruzko hitzaldirik; baina jostaketa, burla, solas arrunt eta herrikoien artean, eta musika eta maitasunezko neurtitzak. Ez genekike erabaki horren imitatzen jokamolde zintzoago batez? Zoroentzat onak diren heriotzak baitira, eta zuhurrentzat ere bai, bi horien artean direnentzat bila ditzagun onak ere. Neure irudimenak erakusten dit haren itxura erraz bat, eta, hil behar baita, nahigarria ere. Tirano erromatarrek uste zuten bizia ematen ziotela heriotzaren hautakizuna ematen dioten gaizkileari. Baina Teofastro, hain filosofo minbera, apala, zuhurra, arrazoiak behartua izan da Zizeronek latinizatu digun neurtitz honen esatera:

Vitam regit fortuna, non sapientia. 290

Zenbat laguntzen duen zoriak nire bizitzaren ibileraren erraztasunerako, halako heinean ezarri baitit non gaurgero ez baita inorentzat beharrezkoa ez oztopoa. Neure adineko aro guztietan onartuko nukeen baldintza da, baina neure pusken eta hondarren biltzeko aldi honetan, bereziki atsegingarria zait hiltzean inori ez egitea ez atseginik ez atsekaberik. Ordainbide artistiko baten bidez, zoriak berak egin du nire heriotzetik mozkin zerbait erdietsi behar dutenek hori bezainbateko galera izan dezaten. Heriotza pisutsua egin zaigu besteei pisutsua izanzen zaielakoan, eta haien interesagatik interesatzen zaigu, eta inoiz ere areago.

Bilatzen dudan aterbeko erraztasun horretan, ez dut apaintasunik ez zabaltasunik sartzen; hastio baitut; baina garbitasun soil zerbait, maizago artifizio gutiagoko lekuetan aurkitzen dena, naturak guztiz bere den grazia zerbaitez ohoratzen baititu. *Non ampliter sed munditer convivium...Plus salis quam sumptus.*

Eta gero, egitekoek neguaren bihotzean Grisoniara daramatzaten gauza da bidean halako ezinagokotasunak harrapaturik izatea. Ni, gehienetan atseginez bidaiatzen baitut, ez naiz hain gaizki gidatzen. Itsusia bada eskuinean, ezkerrera jotzen dut; zaldizkatzeko gaizki banago, gelditzen naiz. Horrela eginik, deus ere ez dut ikusten neure etxea bezain atsegina eta erraza ez denik baizik. Egia da soberakina beti soberazkoa aurkitzen dudala, eta delikadezian eta nasaitasunean oztopoa ere azpimarratzen dudala. Zerbait utzi ote dut ikusteko neure giblean? Itzultzen naiz; beti ere nire bidea da. Ez dut ezein marra gerturik egiten, ez zuzenik ez makurrik. Ez dut aurkitzen noan lekura esan zitzaidana? (maiz gertatzen baita besteren aburuak ez dagozkiela nireei, eta maizago faltsuak aurkitu baititut), ez naiz kexatzen; ikasi dut esaten zena ez dela.

Gorpuzkera librea dut eta gustua arrunta munduko gizona naizen aldetik. Herri batetik besterako moldeen ezberdintasunak ez nau eragiten ezberdintasunaren atseginagatik baizik. Aztura bakoitzak badu bere arrazoa. Maiz estainuzko platerak, zurezkoak, lurrezkoak, egosi ala erre, gurina ala eltzaurrezko edo olibazko olioia, bero ala hotz, dena zait orobat; hala ere, zahartzean nabaritzen dut nolakotasun zabal hori, eta beharko nuke fineziak eta bereizketak geldiaraz dezaten nire gosearen neurrigabekeria eta nire urdaila arin dezaten. Frantziatz kanpoan egon naizenean eta, jendetasunagatik, galdegin zaidanean ea frantses modura

zerbitzaturik izatea nahi nuen, burlatu naiz eta beti jarri naiz arrotzez beteenak ziren mahaietan.

Ahalke dut ikusiz gure gizonak sumintzen direla gogaldi ergel horregatik, muturtzen baitira beraieñi kontrarioak zaizkien moldeengatik: iruditzen zaie beren elementuaz kanpoan daudela beren herriaz kanpoan daudelarik. Doazen lekuan beren moldeei atxikitzen zaizkie eta arrotzak gaitzesten. Aurkitzen dute herkide bat Hungarian, bestakutzen dute zorion hori: hara nola biltzen eta elkarri josten diren, dakuskiten hainbat ohitura barbaro kondenatzen. Zergatik ez barbaroak, frantsesak ez diren ber? Eta oraindik argienak dira ezagutzen dituztenak, gero haietaz gaizki esateko. Gehienak joaten dira soilik itzultzeko. Bidaian estaliak eta hetsiak dira zuhurtasun isil eta adieraezin batez, aire ezezagun baten kutsaduratik gerizatuak.

Horietaz diodanak oroitarazten dit, gauza beretsuan, gure gorteliar gazteengan ikusi dudana. Bakarrik daude beren mailako gizonekin, ikusten gaituzte beste munduko jendeak bezala, arbuioz edo urrikalduraz. Ken iezaizkiezu haien gorteko misterioei buruzko solasak, beren habiatik landan daude, gu haientzat garen bezain berriak eta dorpeak. Ongi esaten da gizon zintzoa gizon nahasia dela.

Aitzitik, bidaietan nabil gure moldeez hagitz aseturik, ez Sizilian gaskoinen bilatzeko (aski utzi baititut herrian); gehiago bilatzen ditut grekoak eta persiarrak; haiengana noa, gogoan hartzen ditut; horri lotzen natzaio eta hor dihardut. Eta areago dena, uste dut ez ditudala gureek bezainbat balio ez duten ohiturarik aurkitu. Ez dut apostu handirik egiten honetan, zeren doi galdu baititut ikusmenetik nire haizeorrazak.

Bestalde, bidean aurkitzen dituzun lagunak gehienek atsegin baino oztupo gehiago dute: ez natzaie lotzen, orain are gutiago zahartzaroak bereizten eta bahitzen bainau inola ere molde arruntetarik. Besterengatik pairatzen duzu edo bestek zuregatik; bata eta bestea eragozpen pisutsuak dira, baina azkena gogorragoa iruditzen zait. Zori arraroa da, baina neurtezinezko arindurakoa, zuri jarraitzea maite duen gizon zintzo baten edukitzea, adimen sendo eta zurei dagozkien ohituretakoa. Behar handitan izan dut hori nire bidaia guztietan. Baina halako lagungoa, etxetik berezirik eta erdietsirik izan behar da. Ezein atseginek ez du gusturik niretzat komunikaziorik gabe. Nori ematea ez edukiz eta nik bakarrik sortuz, gogora datorkidan gogoeta onak fastikatzen nau. *Si cum hac exceptione detur sapientia ut illam inclusam teneam nec enuntiem, rejiciam.* ²⁹³ Besteak are gorago ezarri zuen. *Si contigerit ea vita sapienti ut, omnium rerum affluentibus copiis, quamvis omnia quæ cognitione digna sunt summo otio secum ipse consideret, et contempletur, tamen si solitudo tanta sit ut hominem videre non possit, excedat e vita.* ²⁹⁴ Arkitasen iritzia atsegin zait: zerua bera eta zeruko gorputz handi eta jainkozkoetan barrena ibiltzea ezatsegina litzaiokeela adiskide baten laguntzarik gabe.

Baina laguntza aspergarri eta desegokiarekin baino hobe da bakarrik egotea. Aristipok maite zuen orotan arrotz bizitzea:

Me si fata meis paterentur ducere vitam

Auspiciis, ²⁹⁵

hautatuko nuke ipurdia zelaren gainean iragatea:

visere gestiens,

Qua parte debacchentur ignes,

Qua nebulae pluviiue rores. ²⁹⁶

"Ez ote duzu denborapasa errazagorik? Zeren beharrean zaude? Zure etxea ez ote da aire eder eta sendoan, ez ote da aski horniturik, eta ez ote da behar baino handiagoa? Erret gorentasuna sartu ahal izan da bere ospe guztiarekin behin baino gehiagotan²⁹⁷. Zure etxeko gobernu onak ez ote ditu gainditzten besteak? Ba ote da mintzen zaituen herriko uste zerbait, ohiz kanpokoa eta jasanezina?"

Quæ te nunc coquat et vexet sub pectore fixa? 298

Non uste duzu oztoporik ez trabarik gabe egon zaitezkeela? *Numquam simpliciter fortuna indulget* Ez ote duzu ikusten zutaz landan deusek ez zaituela oztopatzen, orotarik zeure buruari jarraiko diozula, eta ororengatik kexatuko zarela? Zeren hemen behean soilik gogo basa edo jainkozkoentzat baita askiespenik. Halako aukeraldian askiespenik ez duenak non uste du aurkituko duela? Zenbat mila laguni iruditzen zaie zurea bezalako baldintza beren nahien xedea? Birmolda zaitez, zeren horretan dena ahal baituzu, zoriari buruz jasankortsunaz jokatzeko zuzenbiderik besterik ez baituzu." *Nulla placida quies est, nis quam ratio composuit.*

Badakusat oharpen horren arrazoa, eta ongi ikusten ere; baina gehiago egin izan zatekeen, eta egokiago, hitz batez esaten: "Izaten zaitez zuhur" Erabaki hura zuhurtasunaz gaindikoa da: bere ondorioa eta mozkina da. Hala egiten du eri gaiso ilaun baten ondotik anima dadila oihuka doan sendagileak; ez lioke hain dorpeki aholkatuko esanen balio: "Izan zaitez sendo" Neuretzat, beheko mailako gizon bat naiz bakarrik. Arau osasungarria, segurua eta adierraza da: "Askiets zaitez zeureaz, esan nahi baita arrazoiak" Horren gauzatzea, aldiz, ez da nire baitan ez ni baino zuhurragoak direnen baitan ere. Solas herrikoa da, baina ikaragarritzko hedadura du. Zer ez du hartzen? Gauza guztiak haren neurrian eta aldabidean erortzen dira.

Badakit hertsiki harturik bidaiatzeko atsegin horrek ezinegonaren eta zalantzaren lekukotasuna daramala. Hala baitira gure nolakotasun nagusiak eta menperatzaileak. Bai, aitortzen dut, ez dut ikusten nik iraun nezakeen lekurik, bakarrik ametsetan eta nahian. Ezberdintasun soilaz askiesten naiz, eta ezberdintasunaren jabegoaz, bederen zerbaitez askiesten ahal banaiz... Bidaiatzean, interesik gabe gelditzen ahal izateak berak ematen dit jatera, eta errazki astiaren emateko lekua izateak. Bizitza pribatua maite dut neure hautaketaz maite dudalako, ez bizitza publikoarekiko gaitzespenagatik, azken hau nire izaeraren arabera baita ere. Gogotikago zerbitzatzen diot neure printzeari neure adimenaren eta arrazoiaren hautespen libre batengatik delako, behartze berezirik gabe, eta ez naiz horretaratua eta bortxatua beste alderdi orotan gaitzetsia edo onartezina izanagatik. Eta horrela garaitikoetan. Gorroto ditut beharrak mozten dizkidan puskak. Erraztasun oro zintzurretik atxikiko litzaidake soilik haren menpean egon behar soilagatik:

Alter remus aquas, alter mihi radat arenas. 301

Soka bakar batek ez nau inoiz jarririk geldiarazten. –Hutsalkeria bada, diozu, jostaketa horretan" -Baina, non ez? Eta arau eder horiek hutsalkeria dira, eta zuhurtasun osoa hutsalkeria ere. *Dominus novit cogitationes sapientum, quoniam vanae sunt.* Sotilezia arraro horiek ez dagozkio predikuari besterik: beste mundura osoki kaprestaturik bidali nahi gaituzten hitzaldiak dira. Bizia mugimendu material eta gorputzekoa da, ekintza osagabea bere izatez, eta desarautua; bere arabera entseiatzen naiz berari zerbitzatza.

Quisque suos patimur manes. 303

Zertarako filosofiaren gailur goratu horiek, ezein gizaki ez baita beraietan egoten ahal, eta gure aztura eta indarra gaintzen duten arau horiek? Ikusten dut maiz biziaren ereduak proposatzen zaizkigula proposatzen dituenak ez adileek jarraikitzeo esperantzarik ez dutenak, ez, areago dena, jarraikitzeo gogorik ere. Adultero baten kontrako kondena idatzi duen paperetik beretik hartzen du epaileak zerrenda bat bere lagunaren emazteari mandatu baten egiteko. Zilegitasunik gabe marruskaka zurekin ari berri den emakumeak Portziak³⁰⁵ baino garrazkiago, eta zure aitzinean, oihukatuko du beste batek egin halako gauzgatik. Eta harako hark gizonak heriotzera kondenatzen ditu berak faltatzat hartzen ez dituen krimenengatik. Neure gaztaroan ikusi dut gizon

plantako batek esku batez argitaratzen zituela neurtitz bikainak edertasunean eta lizunkoitasunean, eta besteaz, denbora berean, aspaldi munduak irentsi duen birmoldaketa teologikorik sutsuena.

Hala doaz gizonak. Legeak eta arauak uzten ohi dira beren bidetik joan daitezen; guk besterik badugu, ez bakarrik ohituren desarautzeagatik, baina askotan ere kontrako iritzi eta usteagatik. Entzun ezazu irakurtzen filosofiazko hitzaldi bat; asmamenak, elegintzak, egokitasunak laster jotzen du zure gogoa eta hunkitzen zaitu; deusek ez du zure kontzientzia ferekatzen edo ziztatzen; hari ez zaio mintzatzen, ez ote da egia? Bazioen Aristonek bainu batek ez ikasgai batek ez dutela fruiturik batere garbitzen eta zolda kentzen ez badute. Azalean gelditzen ahal da, baina mamia kendu ondotik; edalontzi eder batetik ardoa edan ondotik grabatuei eta lanari ohartzen gatzaizkien bezala.

Filosofia zaharraren bilera guztietan aurkituko da egile bakar batek neurtasunaren arauak eta maitasun eta lizunkoitasunezko idazkiak batera argitaratzen dituela. Xenofonek, Kliniasen magalean, atsegin aristipiarraren kontra idatzi zuen. Ez da boladaka inarrosten dituen mirakuluzko konbertsio bat. Solonek behin bere burua erakusten du, behin legegilearen moldepean; behin mintzatzen da jendearentzat, behin bere buruarentzat; beretzat hartzen ditu arau libre eta naturalak, osasun sendo eta oso bat segurtatuz.

Curentur dubii medicis majoribus ægri. 306

Antistenesek zuhurrari baimentzen dio maitatzea eta egokia aurkitzen duenaren egitea bere modura, legeen zain egon gabe; berak haiek baino uste hobea daukanez geroz, eta bertutearen ezagutza gehiago. Bere ikasle Diogenesek bazioen nahasmenei arrazoiak oposatzen ziela, zoriari konfiantza, legeei natura.

Urdail minberentzat errezeta behartzaileak eta artifizialak behar dira. Urdail onek bakarrik jarraitzen diete beren gose naturalaren manamenduei. Horrela egiten dute gure sendagileek, meloia jaten eta ardo hotza edaten baitute, beren pairalea xarabe eta ogizopara beharturik daukaten artean.

Ez dakit zein liburu, zioen Lais gortelarisak, zein jakintza, zein filosofia, baina jende horiek beste edozeinek bezain maiz jotzen dute nire atean. Gure laxakeriak beti baikaramatza onesgarri eta zilegi zaigunaz gaindi, maiz ere hertsatzen dira gure bizitzaren arauak arrazoi orokorraz gaindi.

Nemo satis credit tantum delinquere quantum

Permittas. 307

Onesgarria litzateke oreka gehiago izan dadin manamenduaren eta obedientziaren artean; helburuak zuzengabea ematen baitu helezina baldin bada. Ez da hain gizon onik, bere ekintza eta gogoeta guztiak legeen ikerpenean ezarriz geroz, bere bizian hamar bider urkaturik izateko mereziduna ez denik, horregatik kalte handia eta hagitz zuzengabea litzateke zigortzea eta galtzea kasu zenbaitetan.

Olle, quid ad te

De cute quid faciat ille, vel illa sua? 308

Eta norbaitek, legeak ez hautsiz, ez luke bertuteko gizonaren goresmenik merezi, eta filosofiak azotaraziko luke hagitz zuzenean. Hain nahasia eta ezberdina baita erlazio hori. Ez gara arduratzen jende ona izateaz Jainkoaren arabera; eta ez dakigu geure arabera izaten. Giza jakintza ez zen sekula iritsi berak bere buruari ezarri arauetara eta, iritsi izan balitz, beste batzuk ezarriko lituzke urrunago beti nahi izateko eta xederatzeko, hain iraupenaren etsai baita gure egoera. Gizonak bere buruari manatzen dio halabeharrez akatsean egotea. Zertarako manatzen du inork egin dezan uste ez duena? Zuzengabea ote zaio ezinezkoa zaionaren ez egitea? Ahal ez izatera kondenatzen gaituzten legeek beraiek salatzen gaituzte ahal ez izateagatik.

Gaizkienean, bi alderditan bere buruaren aurkezteko libertate moldegabe hori, ekintzak modu batez, hitzaldiak beste batez, goresgarria izan dakieke gauzak esaten dituztenei; baina ez dakieke izan beren burua esaten dutenei, nik egin bezala. Lumaz eta oinez orobat joan behar dut. Katonen bertutea azkarra zen bere mendearen neurriaz gorago; eta beste manatzera nahasten zen gizon baten baitan, zerbitzu amankomunera bideratua, esan liteke, zuzengabea ez bazen ere, zuzenbide hutsala eta aroaz kanpoko zela. Neure ohiturek beraiek, doi behazbete baten luzetasunaz desegokiak baitira erabiltzen direnekiko, inola ere basa eta elkartezin bilakatzen naute neure aroarentzat. Ez dakit arrazoirik gabe hastiaturik aurkitzen naizen maiz ikusten dudan munduarekiko, baina badakit arrazoirik gabe litzatekeela kexatuko banintz hura nitaz hastiatuago delako ni hartaz naizena baino.

Munduaren egitekoei dagokien bertutea bihurgune eta zoko-moko askotako bertutea da; nahasia eta artifiziala, ez zuzena, ez garbia, ez iraunkorra, ez osoki errugabea, giza ahuleziari atxikitzeke eta josteko. Urtekariak oraindik ere erantzukia egiten diote gure erregetarik bati sobera errazki utzi baitzuen bere buruaren joatera bere konfessorearen kontzientziatzko usteen aldera. Estatuko egitekoek arau ausartagoak dituzte:

exeat aula

Qui vult esse pius. 309

Behiala entseiatu naiz erabiltzera eginkizun publikorako zerbitzuan biziaren uste eta arau berriak, zakarrak eta nahasigabeak, neure baitan sortuak diren edo hezkuntzak ekarriak izan diren bezala, beraietaz baliatzen bainaiz, errazki ez bada ere, bai segurtasunez neure bizitzan; hots, bertute eskolastiko eta eskarmenturik gabeko bat. Desegokiak eta arriskatuak aurkitu ditut arau horiek. Jende metan dabilenak makurka ibili behar du, ukondoak hertsatu, gibelatu edo aitzinatu, eta bide zuzenetik alde egin ere, aurkitzen duenaren arabera; ez du hainbat bere arabera nola besteren arabera bizi behar, ez bere buruarentzat xederatzen duenaren arabera baina xederatzen zaionaren arabera, aroaren, gizonen, egitekoen arabera.

Platonek badio munduaren erabilpenari itzurtzen zaionak mirakuluz egiten duela. Eta badio ere berak bere filosofoa gobernu baten bururako manatzen duelarik, ez duela Atenaseko bezalako gobernu ustel baten burua esan nahi, eta are gutiago gure gobernuarena, horietan zuhurtziak berak galduko bailuke bere latina. Bere baldintzakoa ez den lur batera birlandatu den belar bat bezala, lurra bere modura bestelakatu baino lehenago jartzen baita bera lurraren modura.

Osoki lotu behar banintzaie halako eginkizunei sentitzen dut aldaketa eta birmoldaketa anitz egin beharko nuela. Halakorik neure buruaren gainean ahal baneza ere (eta zergatik ez nezake ahal, denboraz eta axolaz?), ez nuke nahi. Eginbehar horretan entseiatu naizen gutiaz hainbat hastiatu bainaiz. Inoiz sentitzen dut neure gogoan goratzen direla handinahari buruzko zirikamendu zenbait; baina bihurtzen eta tematzen naiz kontra:

At tu, Catulle, obstinatus obdura. 310

Ez naute doi deitzen, eta nik ere guti eskaintzen dut neure burua. Nire nolakotasun nagusiak: libertatea eta alfertasuna osoki nolakotasun kontrarioak zaizkio ofizio horri.

Ez dakigu ahalmenak gizonengandik bereizten; zatiketa eta muga bereizgaitzak eta xeheak dauzkate. Bizitza partikular baten jakintzatik erabilpen publikorako jakintza zerbaiten ondorioatzea, gaizki ondorioztatzea da; halakoak ongi darama bere burua besteak eramaten jakin gabe, eta *Entseiuak* egiten ditu ondorioak egiten ez dakienak; halakoak ongi zuzentzen du setio bat gudu bat zuzentzen jakin gabe, eta pribatuan ongi mintzatzen da jende multzo bati edo printze bati gaizki mintzatuko litzaiokeena. Eta menturaz bata ahal duenaren baitan bestea ahal ez duelako lekukotasuna da ahal hori berori, eta ez alderantziz. Aurkitzen dut gogo goratuak gauza apalentsat bezain

desegokiak direla gogo apalak gauza goratuentzat. Sinestekoa ote da Sokratesek irrigaia eman ziela atenastarrei sekula ez baitzekien bere herriko botoen zenbaketa egiten eta kontseiluari horren berri ematen? Zinez, pertsonaia horren betetasunak hain agurtasun handian ditut non merezi baitu bere zoriak eman diezadan hain eredu ederra neure akats nagusien desenkusatzeko.

Gure jakintza zati mehetan xehekatua da. Nireak ez du zabaltasunik batere, eta kopuruan eskasa da. Saturninok manu osoa eman ziotenei esan zien: “Lagunok, kapitain on bat galdu duzue armadako buru txar baten egiteko” Hau bezalako aro gaizto batean munduaren aurrean bertute garbi eta zintzo bat erabiltzen duelako arrandiatzen denak, edo ez du ezagutzen, usteak usteltzen baitira ohiturekin batera (zinez, entzun ezazu nola itxuratzen duten, entzun nola gehienek beren burua goستن duten beren balentriengatik eta nola moldatzen dituzten beren arauak: bertutea erakutsi ordez, zuzengabea osoki hutsa eta bizioa erakusten dute, eta hain faltsua aurkezten dute printzeen hezkuntzan); edo, ezagutzen badu, makurrez arrandiatzen da eta, dioena dioela, bere kontzientziak salatzen dizkion mila gauza egiten ditu. Gogotik sinetsiko nioke Senekari halako aldian egin zuen ikerpenaz, bihotz bihotzez mintzatu nahi balitzait. Halako beharrean ontasun ezaugarririk ohoretsuena norberaren hutsaren eta bestearenaren libreki ezagutzea da, gaizkiari buruzko joera ahal bezainbat eustea eta luzatzea, gogoz kontra jarraitzea, hobeki zaintzea eta hobeki nahi izatea.

Ohartzen naiz erori garen Frantziako zehakatze eta zatikatze hauetan, bakoitzak bere kausaren defentsan lan egiten duela, baina, hobeek ere, mozorro eta gezurrarekin. Horri buruz garbiki idatziko lukeenak nabarmenki eta biziosoki idatziko luke. Alderdirik zuzenena, oraindik gorputz usteldu eta harjo baten soinadarra da. Baina halako gorputz batengan gaitz gutien duen soinadarrari sendo esaten zaio; eta ongi esana, gure nolakotasunek alderatzean bakarrik baitute izendapena. Errugabetasun zibila lekuen eta aroen arabera neurtzen da. Atsegin zait Xenofonen baitan Agesilaoren honako goresmena: behiala gerra egin zion ondoko printze batek bere lurretarik iragateko eskaturik, baimendu zion Peloponeson barrena iraganbidea emanez; eta ez bakarrik ez zuen harrapatu edo pozoindu, eskupean zuenez, baina oraindik jendetasunez onartu zuen, deusik egin gabe. Izaera haien baitan, hori ez zatekeen ezer; halako ekintza baten eskuzabaltasun eta gogoaren handitasuna beste lekuan eta aroan hartuko da kontutan. Oraingo tximinoak burlatuko ziratekeen, hain antz guti baitute errugabetasun espartarrak eta frantsesak.

Baditugu, hala ere, gizon bertutetsuak, baina gure arabera da. Arautasunean bere ohiturak bere mendeaz gainetik finkatuak dituenak, edo bihur eta motel ditzan bere arauak, edo, gehiago aholkatzen diodana, bazter dadin zokora eta ez dadin gurekin nahas. Zer irabaziko luke?

Egregium sanctumque virum si cerno, bimembri

Hoc monstrum puero, et miranti jam sub aratro,

Piscibus inventis, et fætæ comparo mulæ. 311

Aro hobeengatik dolu izaten ahal da, baina ez itzuri oraingoei; beste kargudunak nahi ditzakegu, baina, hala ere, hauei obeditu behar. Eta menturaz onei obeditzean baino gomendio gehiago bada txarrei obeditzean. Monarkia honen lege onartu eta zaharren irudiak lekuren batean argitu artean, horra ni haren alde. Zorigaitzez kontraesaten eta elkar oztopatzen badira, eta hautakizun zalantzarri eta zaileko bi alderdi sortzen badira, nire hautespena gogotik izanen da ihes egitea eta erauntsi horri itzurtzea; naturak lagunduko nau edo gerrako zoriak. Zesarren eta Pompeioren artean zabalik definituko nintzatekeen. Baina gero etorri ziren hiru ebasle horien artean, edo gorde egin beharko zen, edo haizeari jarraiki; goresgarri iruditzen baitzait arrazoiak gehiago gidatzen ez duenean.

Betegarri hau apur bat nire gaiaz landakoa da. Galtzen naiz, baina ohargabeziaz baino gehiago baimentasunez. Nire ametsek jarraikitzen didate, baina noizbait ere urrundik, eta elkarren arteko ikuskizunik badute, baina zeharrezko ikusmen batekin.

Platonen halako solas bat begiztatu dut, erdi abiatua ametsezko nabardura batetik, aitzinekoa maitasunari buruz, gainerakoa erretorikari buruz. Ez dira ñabardura horien beldur, eta ikaragarritzko grazia dute horrela haizetara edo irudietara beren buruaren uztean. Nire kapituluaren izenburuek ez dute beti gaia edukitzen; maiz adierazten dute bakarrik ezaugarri baten bidez, beste izenburu hauek bezala: *Andria*, *Eunukoa* ³¹³, edo beste izen hauek: *Sila*, *Zizeron*, *Torkuato* ³¹⁴. Ibilera poetikoa maite dut, jauzika eta itzulipurdika. Platonek dioen bezala arte alaia, arina, demoniakoa da. Badira Plutarkoren idazkiak non eta egileak gaia ahanzten duen, edo argudioaren xedea, dena gai arrotzez estalirik, bakarrik menturaz aurkitzen den: ikus ezazu haren ibilera *Sokratesen Demonioan*. Ala Jainkoa, zein edertasun duten ihesbide ausart horiek, aldakortasun horrek, eta are gehiago ezaxola eta zorizkoaren aldera hurbiltzen direnean. Lehiarik gabeko irakurlea da nire gaia galtzen duena, ez ni; beti aurkituko da zokoren batean aski izanen den hitz bat, iluna bada ere. Aldatze aldera noa, neurririk gabean eta arrapaladan. Nire idazkera eta nire gogoia berdin ibilkatzen dira. Zorotasun apur bat behar du ergelkeria gehiago eduki nahi ez duenak, hala badiote gure irakasleen arauak eta are gehiago haien erduek.

Mila poeta herrestatzen eta ilauntzen dira prosaikoaren aldera; baina prosa zaharrik hoberena (eta nik orobat neurtitz bezala barreiatzen dut nonahi) orotan distirutzen da azkartasun eta ausartasun poetikoaz, eta erakusten du haren zoramenaren itxura. Zinez beharrezko zaio elegintzaren nagusitasun eta lehentasunaren uztea. Poetak, dio Platonek, Musen hiruzangokoaren gainean jarriarik zoroki botatzen du ahora datorkion guztia, iturri bateko zurrutak bezala, ausnartu ez pisatu gabe, eta kolore ezberdineko, gai kontrariozko eta etorri hautsizko gauzak itzurtzen zaizkio. Bera osoki poetikoa da, eta teologia zaharra poesia ere, jakintsuek diote, eta lehen filosofia ere bai.

Jainkoen jatorrizko mintzaira da.

Uste dut neure gaia berez bereizten dela. Berak aski erakusten du non aldatzen den, non amaitzen, non hasten, non jarraikitzen, belarri ahul edo ezaxolatientzat diren lotura eta josdurazko hitzez korapilatu gabe, eta nik neure burua esplikatu gabe. Nor da berea lotan edo iheska irakur dezaten baino lehenago irakur ez dezaten nahiago ez duenik?

Nihil est tam utile, quod in transitu prosit. Liburuen hartzea beraien ikastea balitz, eta ikustea begiratzea, eta begizatzea gogoan hartzea, makur ibiliko nintzateke orotan diodan bezain ezjakinarena eginez.

Irakurlearen arreta pisuaren bidez ez baitezaket geldiaraz, *manco male* gertatzen bada geldiarazten dudala neure nahasmenaren bidez. –“Bai, baina gero dolutuko da hor denborapasean egoteagatik” Bai, menturaz, baina beti ere denborapasan arituko da. Eta gero badira ulertzea gutiesgarri aurkitzen duten izaerak, horiek gehiago onetsiko naute zer diodan jakinen ez baitute: nire zentzuaren barrentasuna ondoriatu dute iluntasunaren bidez, azken hau, ongi mintzatzeraz, biziki gorrotatzen dut, eta itzuriko nintzaioke neure buruari itzurtzen baneki. Aristoteles arrandiatzen da leku batean espreski egiten duelako; arrandiamen biziosoa.

Nola hasieran maiz nerabilen kapituluaren mozketak iruditu baitzait arreta hausten eta ezabatzen duela sortu baino lehenago, hain gutiarengatik ernatzea eta biltzea gutiesten baita, luzeagoak hasi naiz egiten, aitzineko asmoa eta astia eskatzen baitute. Honako ihardueran ordu bat eman nahi ez duenari ez zaio ezer ematen. Ez baita ezer egiten norbaiten alde, bide nabar beste zerbait eginez izan behar bada. Gainera, menturaz badut nik erdizka esateko, nahasiki esateko, desadostasunez esateko eginbehar berezi bat.

Esan behar nuen gaitzesten dudala arrazoi besta-hondatzaile hori, eta baldin eta bizia zirikatzen duten asmo arraro eta uste hain fin horiek egia badute, egia garesti eta traketsegia aurkitzen dudala. Aitzitik, entseiatzen naiz hutsalkeria beraren eta astakeriaren balioaraztera, hori atsegin bazait, eta uzten dut neure buruaren joatera neure joera naturalen aldera, hurbiletik kontrolatu gabe.

Nonahi ikusi ditut etxe hondatuak, eta estatuak, eta zerua eta lurra: beti gizakiak dira. Hori egia da; eta hala ere ez dut hain maiz hiri³¹⁷ honen hilobia ikusten ahal non ez dudan miresten eta agurtzen. Hilei buruzko axola gomendatu zaigu. Bada, ni neure haurtzarodanik hazia izan naiz hauekin batean³¹⁸; Erromako egitekoen ezagutza izan dut neure etxe koena baino askoz ere lehenago: Kapitolioa eta bere planoak ezagutzen nuen Louvre baino lehen, eta Tiber Sena baino lehen. Guretarik askoren baino gehiago izan ditut buruan Lukuloren, Meteloren eta Eszipionen baldintzak eta zoriak. Zendu dira. Eta nire aita ere, haiek bezainbat, eta hemezortzi urtez niregandik eta bizitzatik urrundu da haiek mila eta seirehunez egin duten bezainbat; hala ere haren oroitzapena, adiskidantza eta elkargoa besarkatzen eta praktikatzeko dut, batasun oso eta hagitz bizi batez.

Neure izaeraz lagunkoiago bilakatzen naiz zenduei buruz; ez dute gehiago beren burua laguntzen, behar dute, uste dut, gehiago nire laguntza. Eskerrona hor da hain zuzen bere distiran. Faborea ez da hain aberaski ematen ordaina eta itzultzea denean. Artzesilaok, Ktesibio erriari bisita eginez, eta egoera pobreak aurkituz, ederki sartu zion burukoaren azpira ematen zion dirua; eta, gorderik eginez, ematen zion gainera eskerrak eman beharraren kitatzea. Niregandik adiskidantza eta ezagutza merezi izan dutenek ez dute galdu gehiago ez izateagatik: hobeki eta axolatsukiago ordaindu diet, urrundurik eta jakin gabeen zeudelarik. Amultsukiagoa mintzatzeko naiz neure adiskideez horren jakiteko biderik ez dutenean.

Bada, ehun eztabaida egin ditut Ponpeioren eta Brutoren defentsagatik. Oraindik badirau atxikimendu horrek gure artean; oraingo gauzak beraiek ere ameskeriaz baizik ez dauzkagu. Neure burua mende honetarako ezdeusa aurkiturik, jotzen dut beste haren aldera, eta hartan hain murgildurik nago non Erroma zahar honen egoera, libre, zuzen eta sasoiari (zeren ez baitut haren sortzapena ez zahartzaroa maite), interesatzen eta apasionatzen binau. Horregatik bere kale eta etxeetako jarlekua eta Antipodetarainoko barrenak diren hondakin hauek ez nitzake hain maiz ikus non interesik gabe bailitzaideke. Naturaz ala ameskeriazko hutsaz ote da gomendiotan den oroitzapeneko jendeek erabiliak eta populatuak izan diren lekuek hunkitzen gaituztela inola ere beren ekintzen narrazioaren entzuteak edo beren idazkien irakurtzeak baino gehiago?

Tanta vis admonitionis inest in locis. Et id quidem in hac urbe infinitum: quacumque enim ingredimur in aliquam historiam vestigium ponimus. Atsegin zait haien aurpegia, planta eta jantzien gogoratzea: izen handi horiek hortzen artean ahoskatzen ditut eta belarrietan durundarazten. *Ego illos veneror et tantis nominibus semper assurgo.* Alderdi batetik handiak eta miresgarriak diren gauzetan miresten ditut ere alderdi arruntak. Gogotik irudikatzen ditut eztabaidatzen, ibiltzen eta bazkaltzen! Eskergabekeria litzateke bizitzen eta hiltzen ikusi ditudan hainbat gizon zintzoren erlikien eta irudien gutiesteria, hainbat irakaspen on ematen baitigute beren erreduez, haiei jarraitzen bagenek.

Eta gero ikusten dugun Erroma beronek merezi du maita dezagun, hain aspalditik eta hainbat izenbururengatik gure koroarekin elkarturik: hiri amankomun eta unibertsal bakarra. Hor manatzen duen kargudun nagusia berdin ezagutua da kanpoan ere: kristauherrien hiri metropolitanoa da; espainola eta frantsesa, hor bakoitza bere etxean da. Estatu honetako printzea izateko aski da Kristauerrikoa izatea, nonahi ere den. Hemen

behean ez da zeruak hainbeste faborezko eraginez eta iraupenez besarkatu duen lekurik. Bere hondamena bera ospetsua eta hanpatua da,

Laudandis preciosior ruinis. 321

Hilobian ere gordetzen ditu inperiozko ezaugarriak eta irudiak. *Ut palam sit uno in loco gaudetis opus esse naturae.* Norbait gaitzetsiko eta asaldatuko litzateke bere baitan hain atsegin hutsalaren ferekagatik. Baina gure gogoetak ez dira osoki hutsalak atsegingarriak direnean; eta zentzu komunaren gai den gizon bat beti pozten dutenen gaitzesteko bihotzik ez dut.

Zoriari anitz zor diot zeren orain arte ez baitu nire kontra iraingarririk batere egin, edo ez bederen jasan nezakeenaz goiti. Hori ote da zirrikaka aritzen ez zaizkionak berak duen bakean uzteko modua?

Quanto quisque sibi plura negaverit,

A Diis plura feret. Nil cupientium

Nudus castra peto...

...Multa petentibus

Desunt multa. 323

Hala badarrai, hagitz kontent eta askietsirik bidaliko nau.

Nihil supra

Deos lacesso. 324

Baina kasu jo gabe! Mila badira portuan hondoratzen direnak.

Errazki kontsolatzen naiz gehiago izanen ez naizenean hemen gertatuko denaz; oraingo gauzek aski behartzen naute,

Fortunæ cætera mando. 325

Ez dut ere beren izena eta ohorea daramaten haurren bidez gizonak etorkizunari estekatzen omen dituen lotura azkar hori, eta, menturaz, horregatik ohore gutiago igurikatu beharko dut, haurrak hain nahigarriak baldin badira. Munduari eta bizi honi atxikiten natzaio bakarrik nerongatik. Aski iruditzen zait zoriaren menpean egotea neure izateari dagozkion gorabeherengatik, besteen bidez hark duen neure gaineko ahalmena hedatu gabe; eta ez dut sekula uste izan haurrik³²⁶ gabe izatea bizitza ez hain oso ez hain bete bilakatzen duen akatsa denik. Ofizio antzuak baditu ere bere erosotasunak. Haurrak dira biziki desiragarriak zeren izatekorik ez duten gauzen multzokoak, bereziki ordu honetan, hain neke bailitzateke haur horiek on bilakatzea. *Bona jam nec nasci licet, ita corrupta sunt semina;* eta, aldiz, zuzenbidean badute zeren dolu egin, erdietsi eta gero galtzen dituenek.

Nire etxeko kargua utzi didanak aitzinetik esan zuen hondatu beharko nuela, nire izaera hain guti etxekoia ikusiz. Engainatu zen; hona naizela sartu nintzen bezala, edo menturaz hobeki; hala ere ofiziorik ez benefiziorik gabe.

Bestalde, zoriak ofentsa bortizik ez ohiz kanpokorik egin ez badit ere, faborerik ere ez. Bere emaitzetarik gure etxean dagoena ni baino ehun urte lehenago hala zegoen ere. Ez dut haren eskuzabaltasunari zor ezein izatezko eta mamizko ontasunik. Haizezko, ohorezko eta izenburuzko fabore zenbait egin dizkit, mamirik gabekoak; eta, egiaz ere, ez dizkit eman baizik eta eskaini. Jainkoak daki! Niri, osoki agerizkoa naizen honi, osoki mamizko errealitateaz baizik ez bainaiz askiesten, eta, aitortzera ausartuko banintz, zekenkeria handinahia bezain desenkusagarria aurkitzen baitut, mina ahalkea bezain itzurgarria, osasuna jakintza bezain nahigarria, edo aberastasuna noblezia bezainbat.

Bere fabore hutsalaren artean, neure baitan hazten den gogaldi zozo honi erromatar hiritartasunezko egiazko agiri batek bezainbateko atseginik ematen dion ezer ez dut. Han egon nintzen azkenaldian eman zitzaidan, zigilu eta urrezko letretan hanpatua, eta

faborezko dohaintasunez emana. Eta, nola gehiago edo gutiago faboragarri diren idazkera ezberdinetan ematen baitira, eta nola ikusi baino lehenago atsegin izan bailitzaidake erakutsi izan balitzait eredu bat, nahi dut, norbaiten askiesteko, baldin eta neurea bezalako jakinmina duen norbait bada, hemen bere moldean transkribatzea:

QUOD HORATIUS MAXIMUS, MARTIUS CECIUS, ALEXANDER MUTUS, ALMÆ URBIS CONSERVATORES DE ILLUSTRISSIMO VIRO MICHAELE MONTANO EQUITE SANCTI MICHAELIS ET A CUBICULO REGIS CHRISTIANISSIMI, ROMANA CIVITATE DONANDO, AD SENATUM RETULERUNT, S. P. Q. R. DE EA RE ITA FIERI CENSUIT:

Cum veteri more et instituto cupide illi semper studioseque suscepti sint, qui, virtute ac nobilitate præstantes, magno Reip. nostræ usui atque ornamento fuissent vel esse aliquando possent, Nos, majorum nostrorum exemplo atque auctoritate permoti, præclaram hanc Consuetudinem nobis imitandam ac servandam fore censemus. Quamobrem, cum Illustrissimus Michael Montanus, Eques sancti Michaelis et a Cubiculo Regis Christianissimi, Romani nominis studiosissimus, et familiæ laude atque splendore et propiis virtutum meritis dignissimus sit, qui summo Senatus Populique Romani iudicio ac studio in Romanam Civitatem adsciscatur, placere Senatui P. Q. R. Illustrissimum Michaelem Montanum, rebus omnibus ornatissimum atque huic inclyto populo charissimum, ipsum posterosque in Romanam Civitatem adscribi ornarique omnibus et præmiis et honoribus quibus illi fruuntur qui Cives Patritiique Romani nati aut jure optimo facti sunt. In quo censere Senatum P. Q. R. se non tam illi Jus Civitatis largiri quam debitum tribuere, neque magis beneficium dare quam ab ipso accipere qui, hoc Civitatis munere accipiendo, singulari Civitatem ipsam ornamento atque honore affecerit. Quam quidem S.C. auctoritatem iidem Conservatores per Senatus P. Q. R. scribas in acta referri atque in Capitolii curia servari, privilegiumque hujusmodi fieri, solitoque urbis sigillo communiri curarunt. Anno ab urbe condita CXCCCXXXI, post Christum natum M. D. LXXXI., III. Idus Martii.

Horatius Fuscus, sacri S. P. Q. R. scriba,

Vincen. Martholus, sacri S. P. Q. R. scriba. 328

Ezein hiritako hiritarra ez izanik, biziki askietsirik naiz sekula izan eta izanen den nobleenekoa izateagatik. Besteek beren buruari erneki begiratu baliote, nik egin bezala, aurkituko lukete, nik egin bezala, hutsalkeriaz eta ergelkeriaz beterik. Horretaz gabetzea ezinezkoa zait neure buruaz gabetu gabe. Horretan murgilduak gaude, batzuk besteak bezainbat; baina horretaz ohartzen direnak apur bat hobeki ote dauden oraindik ez dakit.

Gutaz kanpora begiratzeko uste eta ohitura arrunt horrek balio izan digu gure eginkizunerako: kexabidez beterik den gaia baita, gabeziarik eta hutsalkeriarik besterik ez baitugu ikusten. Gure ez atsekabetzeko, naturak espreski ezarri du gure ikusmenerako ekintza kanpoko aldera. Aitzinera goaz uraren joerarekin, baina geure kontra geure lasterraren itzultzea mugimendu nekea da: itsasoa asaldatzen eta oztopatzen da bere buruaren aldera itzultzen denean. Manamendu paradoxikoa zen aitzinean Delfoseko jainko hark egiten ziguna: "Begira zeuen baitan, zeuen burua ezagut ezazue, atxiki zeuen buruari; zeuen gogoia eta nahia, kanpoan higitzen dena, bil ezazue bere baitara; isurtzen zarete, hedatzen zarete; meta zaitezte, eutsi zeuen buruari; traditzen, ezabatzen, ebasten zaizue. Ez ote duk ikusten mundu honek bere ikusmen guztiak barreneko aldera bideratuak eta bere begiak bere buruaren kontenplatzeko dauzkala? Beti duk hiretzat hutsalkeria, barrenean eta kanpoan, baina ez duk hain hutsala hedadura gutiago duenean. Hitaz salbu, o gizona, zioen jainko hark, gauza bakoitzak bere burua ikertzen dik lehenik eta, bere beharraren arabera, badizkik mugak bere lan eta nahientzat. Hi, unibertsoa besarkatzen duan hori, bezain huts eta beharduna

ezer ez duk; hi haiz ezagutzarik gabeko ikertzailea, eremurik gabeko epailea eta, ororen buruan, fartsaren ergela."

X

Norbere nahimenaren menperatzeaz

Gizonik gehienekin alderatuz geroz, deus gutik hunkitzen nau, edo, hobeki esateko, deus guti atxikitzen zait; zeren arrazoia baita gauzek hunki gaitzaten, gutaz jabetzen ez direnen ber. Axola handia dut ikerpenaren eta hitzaldiaren bidez berez neure baitan aski aitzindua den soraiotasunaren lehentasun honen hazteko. Beraz, gauza gutiri atxikitzen natzaio eta gauza gutirengatik apasionatzen naiz. Ikusmen garbia dut, baina gai gutiri buruz xederatzen dut; zentzu minbera eta beratza baita. Oharpena eta arreta, aldiz, gogorra eta gorra dut: nekez estekatzen naiz. Ahal dudan bezainbatean, osorik ematen dut neure burua, eta horregatik gogotik lotuko eta eutsiko nioke neure atxikimenduari osorik eman ez dezan, besteren menpean daukadan gaia baita, eta horren gain zoriak badu nik baino zuzenbide gehiago. Halako moldez, non hainbat onesten dudan osasuna bera ez bainuke hainbat desiratu behar eta hain zoroki atxiki non gaitzak jasanezinak aurkitzen ditudan. Neurtu behar da minarekiko gorrotoaren eta atseginarekiko maitasunaren artean; eta Platonek manatzen du bien artean erdiko bide bat.

Baina neure buruaz desbideratzen nauten eta kanpora behartzen nauten atxikimenduei oposatzen natzaie neure indar osoarekin. Nire aburua da beste bati mailegatu eta soilik norbere buruari eman behar zaiola. Neure nahimena hipotekatzeko eta emateko erraza balitz, ez nuke iraunen: beratzegia naiz, naturaz eta ohituraz,

fugax rerum, securaque in otia natus. 329

Menturaz, azkenean neure arerioari abantaila emanen lioketen eztabaida hizkatuek eta tematiek, neure ekimen beroa ahalkegarri bilakatuko lukeen amaierak, krudelki oinazetuko nindukete. Besteek egin bezala ausiki eginen banu ere, neure gogoak ez luke sekula hainbat besarkatzen dutenek pairatzen dituzten alarmen eta hunkimenen jasateko; berehala zehakatua izanen zen barreneko inarroste horretan. Inoiz eramana izan banaiz besteen eginkizunen zuzentzera, zin egin dut eskuan hartzeko, ez birikan edo gibelean; haietaz arduratzeko, ez neureganatzeko; axolatzeko, inola ere ez apasionatzeko: begiratzen diet baina ez ditut berotzen. Lanik aski badut errailetan eta zainetan daukadan metaren antolatzen eta arautzen, meta arrotz bat hartu eta hartaz neure burua zamakatu gabe; eta aski axolaturik naiz neure izatezko, izaerazko eta naturazko eginkizunez, beste arrotzen beharra izan gabe. Beren buruari zenbat zor dioten eta beren buruarekin zenbat moduz behartuak dauden badakitenek aurkitzen dute naturak eman diela mandatu hori aski beterik eta inola ere ez alferra. Egitekorik aski baduk heure baitan, ez hakio heure buruari urrun.

Gizonak alokairuan ematen dira. Beren ahalmenak ez dira beraientzat, morroi egiten dira besteentzat eta beren ahalmenak horientzat dira; beren maizterrak daude beren baitan, ez beraiek. Izaera arrunt hori ez zait atsegin: aurreztu behar da gure gogoaren libertatea eta ez hipotekatu aukera zuzenetan ez bada; hauek, sendoki epaitzen badugu, hagitx bakanak baitira. Ikus nola jendeak heziak diren beren buruaren eramatera eta hartzera uzten, orotan egiten dute, gauza txikietan nola handietan, ez dagokienean eta badagokienean; berdin sartzen dira beharra eta eginbeharra den lekuan, eta bizirik gabe dira inarroste nahasirik gabe direnean. *In negotiis sunt negotii causa*. Beharra ez dute bilatzen behartzeko ez bada. Ez da joan nahi dutelako baina egon ez daitezkeelako, hain zuzen bere erorketara abiatu den harri bat bezala, ez baita gelditzen etzaten den arte. Jende mota bati eginbeharra jakintza eta duintasunaren ezaugarria zaio. Beren gogoak mugimenduan bilatzen du bere atsedena, haurrak seaskan bezala. Esan daiteke beren adiskideei eginbidetsuak zaizkiela beren buruari oztopoak zaizkion bezainbat. Inork ez dio besteri bere dirua eman, eta bakoitzak ematen dio bere denbora eta bizia; ezertan ez

gara gauza horietan bezain xahutzaileak, beorietan bakarrik zikoizkeria onuragarria eta goresgarria litzaigukeelarik.

Nik osoki ezberdina den modua darabilt. Neure baitan badiraut, eta eskuarki berazki nahi dut nahi dudana, eta guti nahi dut; axolatzen eta behartzen naiz berdin: bakanka eta lasai. Haiek nahi eta zuzentzen duten guztia beren nahimen eta ahalmen guztiaz egiten dute. Hainbat urrats gaizto badira non, seguruenerako, apur bat arinki eta gaingiroki iragan behar baita mundu hau. Lerratu behar da eta ez hondoratu. Atsegina bera mingarria da bere barrentasunean:

incedis per ignes

Suppositos cineri doloso. 331

Bordeleko jaunek beren hiriko alkatea izendatu ninduten, Frantziatik urrun eta halako gogoetatik urrunago nintzelarik. Desenkusatu nintzen, baina irakatsi zitzaidan gaizki egiten nuela, erregeren mandatua artean baitzen ere. Ederrago iruditu behar duen kargu bat da, bururatzeko ohoreaz landako beste irabazterik ez etekinik ez baitu. Bi urtez dirau; baina luzatua izaten ahal da bigarren hautespen baten bidez, hagitz bakanka gertatzen dena. Niri hala gertatu zitzaidan; eta bakarrik izan zen bi aldiz lehenago: duela urte zenbait Lanssaceko jaunari; eta orain berriki Bironeko jaunari, Frantziako mariskala zeinen lekuan sartu bainintzen ni; eta gero utzi nion Matignoneko jaunari, Frantziako mariskala ere. Ni kontent nintzen hain lagungo noblearen edukitzeagatik,

uterque bonus pacis bellicue minister! 332

Zoriak nahi zuen nire gorapenean parte hartu, bere aldetik ezarri zuen gorabehera hutsal horrengatik. Ez osoki hutsala, beti ere; zeren Alexandrok ezetz esan baitzien beren hiriko hiritartasuna eskaintzen zioten enbaxadore korintiarrei; baina Bako eta Herkules ere erregistro horretan zirela esatera etorri zitzaizkionean, grazioski eskertu zien.

Iristean, aurkeztu nintzen fidelki eta kontzienteki, izaten naizela sentitzen dudana bezala: oroimenik, lehiarik, esperientziarik eta indarrik gabe; gorrotik gabe ere, handinahirik, zikoizkeriarik eta bortiztasunik gabe; jakin zezaten nire zerbitzutik zer uste ahal zezaketen. Eta nola bakarrik nire aita zenaren ezagutzak eta bere oroimenaren ohoreak bulkatu baitzituen horretara, arras garbiki gehitu nien hagitz atsekabeturik nintzatekeela baldin eta edozein gauzak nire nahimenean egiten bazuen harenean behiala hiriko eginkizunek, izendatu ninduten leku bereko gobernuan zegoen artean, egin zuten bezainbateko eraginik. Oroitzen bainintzen neure haurtzaroan nola ikusten nuen zaharra, nahasmen publiko horrek gogoa krudelki inarrosia zuelarik, bere etxeko aire goxoa atzenduz, aspaldiko denboraz bere urteen ahuleziak hartaratua baitzen, eta bere dirua eta osasuna ere, eta, egiazki bere bizia gutietsiz gutitarik egin baitzuen ez zuela hartan galdu, haien alde bidaia luze eta nekeei loturik. Hala zen bera; eta izaera hori abiatzen zitzaion etorkizko ontasun handi batetik; inoiz ez baitzen gogo urrikalkor ez herrikoiagorik. Modu hori, beste baten baitan goersten dudana, ez dut inola ere erabili nahi, eta ez naiz aitzakiarik gabe. Hark entzun zuen esaten nork bere burua ahantzi behar duela hurkoaren alde, eta partikularra ezer ez zela orokorraren ondoan.

Munduko arau eta manamendurik gehienek hartzen dute gutaz kanpora eta plazara, gizarte publikoaren zerbitzura, bulkatzeko modu hori. Uste dute ondorio ederra egiten dutela gure buruagandik desbideratzen eta baztertzen, aitzinetik emanaz sobera atxikiak gaudela eta esteka naturalegi batez; horri buruz ez zaie deus esan gabe gelditu. Zeren jakintsuei ez baitzaie berria gauzen predikatzea balio duten bezala, eta ez diren bezala. Egiak baditu bere eragozpenak, trabak eta elkartezintasunak gurekin. Maiz engainatu behar dugu engainaturik ez izateko, itsutu geure ikusmena eta harritu geure adimena beraien zuzentzeko eta korregitzeko. *Imperit enim judicant, et qui frequenter in hoc ipsum fallendi sunt, ne errent.* Manatzen digunean geure burua baino lehenago hiru, lau eta berrogeita hamar gauza maila maitatu behar ditugula, heinean jotzeko helburuaren

gaineko alde handi bati buruz xederatzen duten arkularien artea itxuratzen dute. Zur makur baten zuzentzeko alderantziz makurtzen ohi dugu.

Uste dut Palasen tenpluan, beste erlijioetan ikusten dugun bezala, bazirela itxurazko misterioak jendeari erakutsiak izateko, eta beste misterio gordeago eta goratuagoak, bakarrik adituei erakutsiak izateko. Badirudi hauetan aurkitzen dela bakoitzak bere buruari zor dion adiskidantzaren egiazko heina. Ez adiskidantza faltsu bat, ospea, jakintza, aberastasuna eta halako gauzak atxikimendu nagusi eta neurririk gabeko batekin, gure izatearen zatiak balira bezala, besarkarazten dizkiguna, ez adiskidantza beratz eta zuri bat zeinetan gertatzen baita huntzaren baitan ikusten dena: usteltzen eta hondatzen duela atxikitzen zitzaion pareta; baina adiskidantza osasuntsu eta neurtu bat, berdin erabilgarri eta atsegingarria dena. Horren eginbeharrak dakizkiena eta betetzen dituen, egiazki Museen ganbarakoa da; giza zuhurtasunaren eta gure zoriontasunaren gailurrera iritsi da. Honek, bere buruari zehazki zer zor dion jakinez, bere eginbeharrean aurkitzen du beste gizonen eta munduaren erabilpenaz baliatu behar dela eta, horretarako, dagozkion eginbeharrak eta ofizioak bete behar dituela gizartearentzat. Besteren baitan inola ere bizi ez dena doi ez da bere baitan ere bizi. *Qui sibi aimcus est, scito hunc amicum omnibus esse*. Dugun eginbehar nagusia norberaren zuzenketa da, eta horretarako gara hemen. Ongi eta sainduki bizitzea ahanztiko lukeen eta bere eginbeharretik kitaturik zela besteen bideratzean eta zuzentzean uste lukeena ergel bat litzatekeen bezala, halaber, beste bati zerbitzatzeko bere baitan sendoki eta alaiki bizitzea ahanzten duenak hartzen du, nire irudiko, alderdi txar eta desnaturaldu bat.

Ez dut nahi onartzen diren karguetan axolarik, urratsik, hitzik, izerdirik eta odolik errefusa dadin behar denean:

non ipse pro charis amicis

Aut patria timidus perire. 335

Baina hori maileguz eta bidenabar da. Gogoia beti atsedenean eta osasunean dagoen artean, ez ekintzarik gabe baina bai higatzerik ez pasionerik gabe. Egitea hain guti kostatzen zaio non lotan ere egiten baitu. Baina ibili behar du neurritz; zeren gorputzak hartzen baititu gainean ezartzen zaizkion zamak zehazki diren bezala; gogoak, aldiz, hedatzen ditu eta pisua ematen die maiz bere bizkar, ongi iruditzen zaion neurria emanez. Gauza berdinak egiten dira ahalegin eta nahimenaren bortxatze ezberdinez. Bata ongi doa bestea gabe. Zeren zenbat jende arriskatzen baita egunero berdin zaizkion gerretan, eta galerak loa kenduko ez dien guduetako galbidean agertzen dira. Halako bat, ordea, bere etxean, begiratzera ausartuko ez litzatekeen arrisku horretaz landan, gerra horren ondorioaz apasionatuagoa da eta han bere odola eta bizia ematen duen soldaduak baino gogo nekatuagoa dauka. Neure burua nahasi ahal izan dut kargu publikoetan neure baitarik azazkal baten luzetasunez urrundu gabe, eta beste bati eman neure buruari kendu gabe.

Nahiaren garraztasun eta bortiztasun horrek balio baino gehiago oztopatzen du eginbeharrean, jasangaizkeriaz betetzen gaitu gertakizun kontrario edo berantiarren aurka, eta garrazkeriaz eta xede makurrez gurekin solasean ari direnen aurka. Sekula ez dugu ongi bideratzen gutaz jabetu den eta garamatzan gauza:

male cuncta ministrat

Impetus. 336

Bere adimenik eta trebetasunik besterik ez darabilenak hobeki jokatzen du: itxura egiten du, makurtzen da, atzeratzen du dena, aukeraldien beharraren arabera; zain dago oinazerik ez atsekaberik gabe, prest eta oso eginbehar berri baterako; beti badoa brida eskuan duela. Xede bortitz eta tiraniko horretaz zoratua denaren baitan, halabeharrez ikusten da ausarkeria eta zuzengabekeria asko; bere nahiaren lehiak badarama; mugimendu ausartak dira, eta, zoriak anitz ematen ez badu, mozkin eskasekoak.

Filosofiak nahi du pairatu izan diren laidoen zigorrean kolera desbidera dezagun: ez mendeku gutiago egiteko, baina, aitzitik, hobeki joa eta pisutsuagoa izan dadin; iruditzen baitzaio bortiztasun horrek oztopoa ekartzen baitu. Kolerak ez du bakarrik nahasten, nekatzen ditu zigortzen dutenen besoak. Su horrek moteltzen eta higitzen du beren indarra. Lasterkerian *festinatio tarda est* lehiak bere burua zangotrabatzen, oztopatzen eta geldiarazten du. *Ipsa se velocitas implicat* Adibidez, ohitura arruntean ikusten dudanaren arabera, zikoizkeriak ez du bera bezalako etsairik: zenbat eta gogor eta azkarragoa den orduan eta emankortasun gutiago baitu. Lehenago harrapatzen baititu aberastasunak eskuzabaltasunaren irudipean.

Aitorenseme bat, hagitz gizon onekoa, eta nire adiskidea, deliberatu zen bere osasunaren hondatzera bere nagusia zen printze baten eginkizunei buruzko axola eta atxikimendu apasionatuegi baten bidez. Nagusi hark berak honela deskribatu zidan bere burua: beste batek bezala ikusten duela gorabeheren pisua, baina antolabiderik ez dutenekin bapatean onartzen duela haien pairamena: besteekin, beharrezko prestakizunak manatu ondoren, bere gogoaren ernetasunagatik arras laster egiten ahal duena, atsedenean zaintzen du zer gertatzen ahal den. Egiazki, nik ikusi dut, eginkizun hagitz handi eta arantzatsuen erdian soraiotasun eta ekintzen libertate handi bat mantenduz. Zorigaitz batean handiagoa eta gaiagoa aurkitzen dut zorion batean baino: bere irabazpenak baino ospetsuagoak zaizkio bere galerak, eta bere garaipena baino gehiago bere dolua.

Gogoan har ezazu, hutsal eta ezdeusak diren ekintzetan ere, xakean, pilotan, eta halakoetan, nahi bortitz baten lotura garratz eta sutsuak berehala egozten dituela gogoia eta soinadarrak neurririk ezara eta nahasmenera: norberak itsutzen eta oztopatzen du bere burua. Irabazte eta galtzeari buruz neurtuago jokatzeko duena beti da bere baitan; jokoan gutiago sumintzen eta apasionatzen baita, hainbat abantailosoki eta segurkiago darama.

Bestalde gogoak duen atxikitze eta tinkatzeko ahalmena oztopatzen dugu hainbat gauzen hartzeko emanez. Batzuk soilik aurkeztu behar zaizkio, besteak lotu, besteak birbaitaratu. Ikusten eta sentitzen ahal ditu gauza guztiak, baina soilik bere baitan bazkatzeko behar du, eta adierazi behar zaio berez dagokiona eta berez bere edukiari eta gaiari dagokiona. Naturaren legeak irakasten digu hain zuzen behar duguna. Zuhurrek esan digute inor ez dela haren arabera³³⁹ behartsua eta bakoitza dela bere ustearen arabera, eta gero sotilki bereizten dituzte harengandik datozenak eta gure ameskeriaren desarautzetik datozen nahiak; helburua erakusten dutenak harenak dira, beren xedea ikusten ahal ez dugun eta gure aurrean ihes dabiltzanak gureak dira. Ontasunezko pobrezia sendatzeko erraza da; gogoaren pobrezia ezinezkoa.

Nam si, quod satis est homini, id satis esse potesset,

Hoc sat erat: nunc, cum hoc non est, qui credimus porro

Divitias ullas animum mi explere potesse? ³⁴⁰

Sokratesek, bere hirian barrena aberastasun mukuru handi bat, bitxikeriak eta balioko mobleak eramaten zirela ikusiz, zioen: Metrodoro bizi zen egunkal hamabi ontze³⁴¹ janari izatetik. Epikuro gutiagotik. Metroklesek neguan lo egiten zuen ardiekin, udan elizetako atarietan. *Sufficit ad id natura, quod poscit.*

Kleantes bere eskuetarik bizi zen eta arrandiatzen zen zeren Kleantesek, nahi balu, oraindik beste Kleantes bat haziko baitzukeen.

Baldin eta naturak gure izatearen iraupenerako zehazki eta jatorki eskatzen diguna hagitz guti bada (zinez zein guti den eta zeinen errazki mantentzen ahal den gure bizia gogoeta honen bidez adierazten ahal da: hain guti dela non bere gutitasunaz itzurtzen baitzaio zoriaren ahalmen eta jotzeko bideari), baimen diezaiogun oraindik beste gauza bat geure buruari: dei diezaiogun natura bakoitzaren ohitura eta baldintzari; balora eta erabil dezagun geure burua neurri horretan, heda ditzagun geure jabegoa eta kontuak

horraraino. Zeren hor, hain zuzen, iruditzen baitzait aitzakia zerbait badugula. Ohitura bigarren izaera bat da, eta ez pisu gutiagokoa. Neure ohiturak eskas duena uste dut eskas dudala neronek. Eta kasik berdin nahi nuke bizia ken dakidan hain luzaz bizi naizen egoeratik gabetuko eta moztuko baldin balitzait.

Ez naiz aldaketa handi eta bizimodu berri eta ohigabeko baterako prest. Eta berretzeari buruz ere ez. Ez da beste bat izateko aroa. Ordu honetan eskuetara eroriko litzaidakeen zorion handi zerbaitez dolutuko nintzatekeen bezala, hartaz gozatzen ahal ez naizen aroan etorri zaidalako,

Quo mihi fortuna, si non conceditur uti? 343

berdin dolutuko nintzateke barreneko erdiespen batengatik. Kasik hain berandu baino hobe baita sekula gizon zintzo ez bilakatzea: bizian aditua bizi gehiagorik doi ez denean. Nik, noan honek, errazki irakatsiko nioke datorren norbaiti munduko harremanetarako zuhurtasunaz ikasten dudana. Hil eta gero salda bero³⁴⁴. Ez dut zer egin ezer egiten ahal ez dudan ongiarekin. Zertarako bururik gabeko jakintza? Zoriaren iraina eta desfaborea da beren aroan huts egiteagatik amorru zuzen batez betetzen gaituzten emaitzen eskaintzea. Ez nazazue gida, ez naiz ibiltzen ahal. Jakintzaren hainbat zatietarik jasankortasuna aski zaigu. Eman iezaiozu ahots gora baten abantaila birrikak usteldurik dauzkan kantari bati eta elegintza Arabiako basamortuetan bazterturik den eremita bati. Erortzeko ez da trebetasunik behar: amaiera berez aurkitzen da eginbehar bakoitzaren buruan. Nire mundua akitu da, nire moldea hustu; osoki iraganekoa naiz, onartu behar dut eta nire amaiera horren arabera egin.

Hau esan nahi dut: aita sainduaren hamar egunetako ezabatzeak³⁴⁵ hain apaldurik harrapatu nauela non ez bainaiz jartzen ahal. Ni naiz beste moduz zenbatzen genuen urte haietakoa. Hain erabilpen zahar eta luzeak deitzen eta banarama berarekin. Hortik apur bat heretikoa izatera behartua naiz, berritasunerako ezindua, berritasun zuzena bada ere; nire irudimena, nire hortzen gainetik, badoa beti hamar egunez aitzinago, edo gibelago, eta murduskatzen die nire belarriei. Arau hori sortzeko direnei dagokie. Osasuna bera, hain ezitia, niregana etortzen bada mainguka, nitaz jabetzeko baino gehiago da damu emateko; ez dut hartaz zer egitekorik. Denborak uzten nau, bera gabe ez dugu deus. A zeinen kontu guti eginen nuke munduan ikusten ditudan izendapen hain handi horiekin, abiatzeko prest direnei baizik ez baitzaie ematen! Ez baita ikusten ea zenbat zuzentasunez beteko diren baizik eta zenbat denboraz: sarreratik aterabideari buruz xederatzen da.

Hitz batez, hona prest naizela ez beste baten moldatzeko baina gizon honen bururatzeko. Erabilpen luzearen ondorioz, molde hau gai bilakatu zait, eta zoria izaera.

Badiot, beraz, gutarik bakoitza barkagarria dela neurri horren pean dagoena berea balitz bezala hartzeagatik. Baina, halaber, muga horietaz harago, nahasmenik besterik ez da. Gure zuzenbideei ematen ahal diegun hedadurarik zabalena da. Gure beharra eta jabegoa zenbat eta zabalagoa egiten dugun orduan eta ageriagoak baikatzaizkie zoriaren eta ezbeharren ukaldiei. Gure nahien lasterra mugatua eta moztua izan behar da hurbilenen eta ondoenen ditugun erraztasunen muga laburraren arabera; eta, bestalde, haien lasterra zuzendu behar da, ez kanpora xederatzen den marra zuzenean, baina biribilka, bi buruak baitaude eta amaitzen baitira gure baitan itzulera labor baten bidez. Gogoeta hori gabe, hots, gogoeta hurbil eta izatezko hori gabe, zuzentzen diren ekintzak, zikoitzen, handinahien eta beti aurrera lasterkatzen direnenak, lasterrak beti beren buruaren aitzinera baitaramatza, ekintzak makurrak eta eriak dira.

Gure ofizioetarik gehienak maskaradazkoak dira. *Mundus universus exercet histrioniam* Gure aldia behar bezala jokatu behar dugu, baina pertsonaia mailegatu baten aldia bezala. Maskaraz eta itxuraz ez da egiazko izate bat egin behar, ez eta arrotzaren izateaz norberarena ere. Ez dakigu larrua eta atorra bereizten. Aski da aurpegiaren irineztatzea

bularra irineztatu gabe. Ikusten ditut bururatzen dituzten karguen moldeetan eta izate berrietan antzaldatzen direnak, eta gibel eta hesteetaraino hanpatzen direnak, bere ofizioa aldagelan ere betetzen baitute. Ez diet irakasten ahal beraiei dagozkien agurrak eta beren mandatuari, lagungoari edo mandoari dagozkienak bereizten. Beren gogoia eta beren hitzaldi naturala hanpatzen dute beren jarleku goratuaren pare. Alkatea eta Montaigne beti izan dira bi, hagitz bereizkuntza garbiaz. Abokatu edo finantziaria izateko ez da halako ofizioetan den zurikeria ezezagutu behar. Gizon zintzo bat ez da bere ofizioko bizioaren edo zozokeriaren erantzulea, eta horregatik ez du egin gabe gelditu behar; bere herriko ohitura da eta onuragarria da. Mundutik bizi behar da eta hartaz baliatu aurkitzen den bezala. Baina enperadore baten adimena bere inperioaren gaintetik egon behar da, eta inperioa kanpoko ezbehar bezala gogoan hartu; eta berak jakin behar du bere buruaz gozaten bazterrean eta Jacquesek edo Pierrek bezala iharduki, bere buruarekin bederen.

Nik ez dakit hain barrenki eta osoki neure burua lotzen. Neure nahimenak alderdi batera naramanean ez da hain behartze bortitza non neure adimena kutsaturik gelditzen den. Estatu honetako oraingo nahasmenetan, neure interesak ez dizkit ezezagutarazi neure arerioen nolakotasun goresgarriak ez eta jarraiki diedanen nolakotasun gaitzesgarriak ere. Hauek goresten dute beren alde den oro; nik ez ditut desenkusatzeko ere neure alde diren gauzarik gehienak. Idazki on batek ez ditu bere graziak galtzen neure alderdiaren kontra aritzeagatik. Eztabaidaren gorapiloaren kanpoan, adimen berdinean eta ezaxolan iraun dut. *Neque extra necessitates belli praecipuum odium gero* Horretaz pozten naiz kontrarioaren aldera jotzen ohi dela ikusten baitut. *Utatur motu animi qui uti ratione non potest* Beren kolera eta gorrotoa egiteko urrunago luzatzen dutenek, gehienek egin bezala, erakusten dute kanpotik datorkiela, eta kausa berezi batetik: bere zauria sendaturik duenearengan sukarraren irauteak erakusten duen bezala beste hastapen gordeago bat daukala. Zeren kausa amankomunean, ororen eta estatuaren interesari dagokion egitekoan ezer ez baitute; baina bakarrik pribatuki interesatzen baitzaie. Horra zergatik sumintzen diren pasione partikular batekin zuzenbideaz eta arrazoi publikoaz urrunago. *Non tam omnia universi quam ea quae ad quemque pertinent singuli carpebant.*

Nahi dut abantaila gure alde izan dadin, baina ez naiz zoratzen hala ez bada. Alderdietarik sendoenari atxikitzen natzaio gotorki, baina ez dut arrazoi orokorrak urrunago besteen etsai berezia bezala nabarmendurik izan nahi. Gogorki salatzen dut iritzien egiteko modu bizioso hau: “Ligakoa da Guiseko jaunaren grazia miresten baitu” “Nafarroako erregeren jokaera miresten du: hugonotea da” “Erregeren ohiturei buruz erantzukiak egiten ditu: traidorea da bihotzaren barrenean”. Epaille bati berari ez diot onartzen liburu baten kondenatzeko arrazoia duenik mende honetako poeta hoberenen artean heretiko bat sartzen duelako³⁵¹. Ez ginateke ausartuko ebasle bati buruz zango onak dituela esatera? Eta puta izateagatik kiratsa izan behar du ere? Mende zuhurragoetan, kendu ote zitzaion Marko Manliori “kapitolino” izenburu bikaina erlijioaren eta libertate publikoaren zaindaria izateagatik? Bere eskuzabaltasunaren, armazko ekintzen eta bere bertuteari eman sari militarren oroimena ito ote zuen zeren gero erregetasunari atxiki baitzitzaion bere herriko legeen aurka? Abokatu baten kontrako gorrotoa baldin badute biharamunean berean elegintza galtzen du. Beste inon jende onak halako hutsetara daramatzen lehia aipatu dut³⁵². Neuri dagokidanez, badakit esaten: “Hori gaiztoki eta hura bertutetsuki egiten du”

Halaber, egitekoen aurrikuste eta gertakizun kontrarioetan, nahi dute bakoitza itsua eta zozoa izan dadin bere alderdian, gure sinesmena eta adimena geure nahiaren asmoaren alde izan dadin eta ez egiaren alde. Gehiago joko nuke nik beste muturrari buruz, nahiak engainatua izateko hainbat beldur baitut. Gainera mesfidatzen naiz apur bat nahi ditudan

gauzez. Neure denboran miresgarriak ikusi ditut beren buruzagiek nahi izan dutenera eramanak izateko eta beren sinesmena eta esperantza erabil ditzaten jendeek eduki izan duten neurririk gabeko erraztasun ikaragarrian, batzuk besteen ondotik zihoazen ehun engainuren gainetik, mamuen eta ametsen gainetik. Ez naiz harritzen Apolonioren eta Mohameden tximinokeriek engainatu dituztenengatik. Beren zentzua eta adimena osoki itoa da beren pasionean. Beren usteak ez du bereizten baizik eta beren kausa faboratzen duena. Horretaz ohartu nintzen gure alderdi sukartsuetarik lehenbizikoan; gero sortu denak, imitatuz, gainditzen du. Horregatik uste dut huts herrikoien nolakotasun bereiztezina dela. Abiatzen den lehenaren ondotik, iritziak elkarren bulkaka doaz haizeari jarraikiz olatuen antzera. Ez gara alderdikideak kontraesaten ahal badugu, abiadura orokorraren arabera ez bagoaz. Baina egiazki alderdi zuzenei makur egiten zaie engainuekin lagundu nahi zaienean. Beti kontraesan dut. Bide horrek ez du balio buru erientzat baizik; sendoei buruz badira bide seguruagorik, eta ez bakarrik zintzoagorik, kuraien iraunarazteko eta ezbehar kontrarioen gainditzeko.

Zeruak ez du Zesarren eta Ponpeioren desadostasuna bezain handirik ezer ikusi, ez eta ikusiko ere etorkizunean. Hala ere, iruditzen zait ezagutzen dudala gogo eder horiengan elkarrekiko neurtasun handi bat. Ohorezko eta manakuntzazko lehia bat zen, maltzurkeriarik ez azpikeriarik gabe, gorroto zoro eta neurririk gabeko batera eraman ez zituen. Beren ekintzarik garratzenetan aurkitzen dut begirune eta ontasun hondar zerbait, eta uste dut, ahal balute, haietarik bakoitzak nahi izan lukeela bere arerioaren garaitzea, baina bestearen hondatzearekin baino lehenago bestearen hondamenik gabe. Ohar zaitez zein besterik zihoan Marioren eta Silaren artekoa.

Ez da hain itsuki jo behar gure atxikimendu eta interesen ondotik. Gaztea nintzelarik, neure gainean sobera aurreratzen zen maitasunaren aitzinamenduari oposatzen nintzaion bezala, ikertzen bainuen ez zekidan hain atsegina non bere menpean osoki bortxatuko eta gatibatuko bainindukeen; berdin aritzen naiz neure nahimenak gura soberarekin diharduen aldi guztietan: bere isurmenaren kontrarioari ematen natzaio, bere ardoan murgiltzen eta mozkortzen dela ikusten dudalarik; bere atseginaren hazteari itzurtzen natzaio, ez dadin hain aurrera joan non ez dudan odolezko galerarik gabe berreskuratzen ahal.

Ergelkeriarengatik gauzak soilik erdizka ikusten dituzten gogoek badute kaltegarriek gutiago zauritzen dituztelako abantaila; osasunaren itxura zerbait duen gogozko soraiotasun bat da, eta filosofiak osoki gutiesten ez duen osasuna. Baina, halarik ere, ez da zuhertasuna izendatzeko arrazoirik, askotan egiten dugun bezala. Eta modu horretan burlatzen zen norbait antzinaroan Diogenesek, neguaren minean besarkatzen baitzihoan, biluts gorritan, elurrezko irudi bat bere jasankortasunaren entseurako. Halako ihardueran aurkituz, esan zion: “Hotz handia duk ordu honetan? –Batere, erantzuten du Diogenesek.-Bada, jarraitzen du besteak, zer zaila edo eredugarria uste duk egiten duala horrela egonik?” Iraupenaren neurtzeko, ezinbestean ezagutu behar da pairamena.

Baina gertakizun kontrarioak eta zoriaren irainak beren barrentasun eta laztasunean aurrikusi behar dituzten gogoek, beren garraztasun eta zama naturalaren arabera pisatu eta dastatu behar baitituzte, erabil dezaten beren trebetasuna kausetarik beren buruaren gerizatze eta desbidera ditzaten kausa horien etorbideak. Kotis erregek egin zuena: eskuzabalki ordaindu zuen agertu zitzaion baxera eder eta aberatsa; baina bereziki hauskorra baitzen, berak hautsi zuen berehala, ordu onetik bere buruari kentzeko bere zerbitzarien kontrako hain haserregai erraza. Halaber, neure egitekoak nahasirik edukitzetik itzuri egin naiz gogotik, eta ez dut bilatu neure ontasunak neure hurkoengandik eta adiskidantza hertsu batekin elkartzen naizen jendeengandik hurbil izan zitezen, hortik maiz sortzen baitira liskar- eta eztabaidagaiak. Behiala maite nituen kartetako eta datoetako zorizko jokoak; baztertu naiz aspalditik, bakarrik zeren

galtzearekin zernahi aurpegi on ezartzen banuen ere barrenean ziztadura zerbait bainean beti. Ohoreko gizon bat, gezurtatze eta laido bat bihotzeraino sentitu behar duena, bere galeraren ordaintzat ergelkeria baten hartzeko prest ez dena, itzuri egin dakion egiteko zalantzarrien eta eztabaida liskartsuen aitzinamenduari. Izaera goibel eta gizon zaputzengandik ihes egiten dut izurridunengandik bezala, eta interesik ez hunkimendurik gabe ihardukitzen ahal ez ditudan gaietan ez naiz sartzen, eginbeharrak bortxatzen ez banau. *Melius non incipient, quam desinent* Modurik seguruen, bada, aldiak baino lehenago prestatzea da.

Ondi badakit zuhur zenbaitek beste bidea hartu dutela, eta gai askotan giharreraino sartzeko eta atxikitze beldur izan ez direla. Jende haiek beren indarrez segurtatzen dira, haren azpian gerizatzen baitira etsaiaren garaipen guztien aurrean, beren jasankortasunaren azkartasunaz ezbeharrak borrokatzen dituztelarik:

velut rupes vastum quæ prodit in æquor,

Obvia ventorum furiis, expositaque ponto,

Vim cunctam atque minas perfert cælique marisque,

Ipsa immota manens. 354

Ez ditzagun eredu hauek eztabaida; ez genuke sekula amaituko. Beren borondate osoa zeukan eta zuzentzen zuen beren herriko hondamenaren ikustean tematzen dira ausarki eta hunkimenik gabe. Guretzat, gogo arruntak izanik, ahalegin eta gogortasun sobera bada hor. Horretan utzi zuen Katonek sekula izan zen bizitzarik nobleena. Guk, xumeok, urrunagotik ihes egin behar diogu erauntsiari; sentimenduaz baliatu behar da eta ez jasankortasunaz, eta itzuri geldiarazten ez dakizkigun ukaldiei. Zenon, ikusiz berak maite zuen Kremonides gizon gaztea bere ondoan esertzera zetorrela, bat-batean jaiki zen. Eta, Kleantesek horren arrazoia galdeginik, zioen: “Uste dut sendagileek bereziki atsedena manatzen dutela eta hunkimena debekatzen dutela hanpatze guztientzat” Sokratesek ez dio: ez amore eman edertasunaren erakarpenei, eutsi iezaziozu, entseia zaitetz kontraria. Ihes egizu, zioen, urrunetik aurtikitzen eta jotzen duen pozoin batetik bezala lasterka zaitetz haren ikusmenetik eta elkartetik kanpora. Eta bere ikasle onak, Ziro handi haren betetasun arraroak irudikatuz edo aipatuz, baina nire ustez irudikatuz baino gehiago aipatuz, agertarazten du bere indarrez mesfidaturik Pantea bere gatibu ospetsu haren jainkozko edertasunaren erkarpenen jasateko eta berak baino libertate gutiago duen bati haren bisita eta zaindaritza emanez. Eta Izpiritu Sainduak berdin: *ne nos inducas in tentationem* Ez dugu eskatzen gure arrazoia ez dadila nahikeriak oldartua eta garaitua izan, baina ez dadila entseiatua ere izan, ez gaitzezela bakarrik bekatuaren hurbiltzea, eskariak eta tentazioak pairatu behar ditugun egoerara eramanez izan; eta gure jaunari eskatzen diogu geure kontzientziaren mantentzea lasai: osoki eta erabat libratua gaitzaren harremanetik.

Beren pasione mendekatzailaren edo beste motatako pasioneren arrazoia dutela diotenek egia diote gauzak diren bezala, baina ez ziren bezala. Mintzatzen zaizkigu beraiek hazi eta aitzinatu dituztelarik beren hutsaren kausak. Baina atzera eta eraman itzazu kausa horiek beren hastapenera: hor harrapatuko dituzu apaindurarik gabe. Nahi dute beren hutsa txikiagoa izan dadin zaharragoa delako, eta hastapen zuzengabe baten ondorioa zuzena izan dadin?

Bere herriari ongia opatzen diona, ni bezala, horregatik oinazetu ez hertsatu gabe, atsekabetua izanen da baina ez etsitua, ikusiz bere hondamenera edo iraupen hondatu batera doala. Ontzi gaixoa, uhinek, haizeek eta lemazainak hain helburu kontrarioetara eramana!

in tam diversa magister

Ventus et unda trahunt. 356

Printzeen faboreen ondotik horiek gabe egon ez daitekeena bezala aho zabalik ez doana ez da asko atsekabetzen haien onarpen eta aurpegiaren hoztasunagatik ez haien borondatearen aldakortasunagatik. Bere haurrei edo ohoreei isurmen esklabu batekin atxikitzen ez zaizkiona errazki bizi da ere haien galeraren ondotik. Bereziki bere askiespenerako aritzen dena ez da doi asaldatzen ikusiz gizonak bere ekintzak epaitzen dituztela bere merituaren kontra. Patzientzia ontza³⁵⁷ laurden bat aski da eragozpen horientzat. Ongi aurkitzen naiz ni errezeta horrekin, hastapenetan ahal bezain poliki gerizatzen naiz eta horren bidez itzuri egin natzaie neke eta lan askori. Ahalegin gutirekin gelditzen dut neure hunkimenean lehen mugimendu hori eta uzten dut pisatzen hasten zaidan gaia eraman nazan baino lehenago. Abiatzean gelditzen ez dena ez da lasterrean geldituko. Atea ixten ez dakienak ez ditu kanporatuko sartuz geroztik. Hasiera menperatzen ahal ez duenak ez du amaiera menperatuko. Ez dio erorketari eutsiko inarrosteari eutsi ahal ez dionak. *Etenim ipsae se impellunt, ubi semel a ratione discessum est: ipsaeque sibi inbecillitas indulget, in altumque provehitur imprudens, nec reperit locum consistendi.* Tenorez sentitzen ditut barrendik zirikatzen eta durundatzera datozkidan haize meharrek, erauntsiaren iragarleak: *animus, multo antequam opprimatur, quatitur.*

ceu flamina prima

Cum deprensa fremunt sylvis, et caeca volutant

Murmura, venturos nautis prudentia ventos. 360

Zenbat aldiz egin diot neure buruari zuzengabe arras ageri bat, neure izaerari tortura eta sua baino kontrarioagoak zaizkion mende bat fastikatze eta manamendu eta eginbehar zitalen ondoren are makurrago litzatekeen bat epaileengandik erdiesteko arriskutik ihes egiteko? *Convenit a litibus quantum licet, et nescio an paulo plus etiam quam licet, abhorrentem esse. Est enim non modo liberale, paulum nonnumquam de suo jure decedere, sed interdum etiam fructuosum.* Aski zuhurrak bagina, poztu eta arrandiatu beharko genuke, nik behin batez etxe handiko seme bati hagitz xaloki egiten zuela aditzen nion bezala bere amak galdu berri zuela bere auzia: bere eztula, bere sukarra edo zaintzeko gaizto den beste zerbaite balitz bezala. Zoriak eman diezazkidan faboreetan, hots, gauza horretan erabateko eragina dutenekiko ahaidetasunak eta harremanak, beti ihes egin dut neure kontzientziaren arabera haien erabiltzetik besteren kaltetan eta neure zuzenbideen goratzetik beren mailaz goiti. Hondarrean, hainbat egin dut neure denboran (orain esaten ahal dut!) non hona auzietarik birjina naizela, askotan neure zerbitzura agertu baitzaizkit izenburu zuzenarekin, nahi izan banu, eta liskarretarik birjina ere. Pisuko laido pasiborik ez aktiborik gabe iragan dut bizitza luze bat neure izena baino makurragorik entzun gabe; zeruko fabore arraroa.

Gure inarrosterik handienek izan dituzte zio eta kausa irrigarriak. Zenbat hondamen pairatu zuen gure azken Borgoinako dukeak ardi-larru orga baten liskarragatik? Eta ez ote zen zigilu baten grabaketa sekula errepublika erromatarrek jasan duen burrunbarik handienaren kausa lehena eta nagusia³⁶²? Zeren Ponpeio eta Zesar soilik beste bi horien adaxkak baitira. Eta neure denboran ikusi ditut erresuma honetako bururik zuhurrenak bildurik, zeremonia eta ospamen publiko handitan, hitzarmen eta akordioetarako, berauen egiazko erabakia subiranotasun osoan andereen ganbaretakeo usteetan eta emaxka baten isurmenean zegoenean. Poetek ongi ulertu izan dute hori, sagar batengatik sutan eta odoletan ezarri baitituzte Grezia eta Asia³⁶³. Begira zergatik doan hori bere ohore eta biziaren arriskatzera bere ezpata eta puñalarekin; esan diezazun nondik datorren eztabaida horren iturria, ez du gorritu gabe egiten ahal, aukeraldia hain hutsala baita.

Sartzerakoan, uste guti batez baizik ez da; baina, behin ontziratuz geroz, soka guztiek tiratzen dute. Hornizio handiak, askoz ere zailagoak egin behar dira. Ateratzea baino zeinen errazagoa den ez sartzea! Kanaberaren kontrarioa egin behar da, lehen oldarraldian zurtoin luze eta zuzen bat egiten baitu; baina gero, ilaundu eta arnasaz kanpoan gelditu baita, maiz hasten da korapilo hertsia egiten, lehengo azkartasun eta iraupenik ez duela erakusten duten atsedanak bezala. Hobe hasi behar da ederki eta hozki, eta arnasa eta ahalegin handiak beharraren gihar eta betetasunerako gorde. Egitekoak gidatzen ditugu beren hasieran eta geure menpean eduki: baina abiaturik direlarik, haiek dira gidatzen eta garamatzatenak, eta haiei jarraiki behar diegu.

Halarik ere, horrek ez du esan nahi aholkuak zailtasun orotarik gerizatu nauenik, eta neure pasioneen hezteko eta bridatzeko maiz nekerik izan ez dudarik. Ez baitira beti neurtzen aukeraldien neurrien arabera, eta sarrerak ere badituzte askotan garratzak eta bortitzak. Baina horrela erdiesten da aurrezki eta fruitu eder bat, salbu eta, omena jokoan denean, ezein fruiturekin askiesten ez direnen baitan. Zeren, egiazki, halako ondorioa bakoitzak hartzen baitu kontutan bere baitan. Askietsiagoa zaude baina ez estimatuagoa dantzan hasi eta gaia etorri baino lehen zuzendurik egonez. Halarik ere, ez bakarrik horretan baina bizitzaren beste eginbehar guztietan, ohorera xederatzen direnen bidea osoki ezberdina da ordena eta arrazoia nahi dutenek daramatenarekin alderatuz.

Aurkitzen dut gogoetarik gabe eta zoroki sartzen direla lehian eta lasterraldian mantsotzen direla. Plutarkok dioen bezala ahalke txarraren bizioarengatik onartzeko beratzak eta errazak direnak, zernahi eskatzen bazaie ere, hitzaren jateko eta kontraesateko errazak direla gero ere; halaber, eztabaidan arinki sartzen dena arinki sartzeko gaia da ere. Hasteko oztopatzen nauen zailtasunak berak eramanen nau abiaturik eta beroturik izanen naizenean. Modu gaiztoa da, zeren hor egonez jarraiki edo lehertu egin behar baita. Zuhurtasun eskasetik erortzen da bihotz eskasera, are jasangaitzagoa dena.

Gure gaurko liskarren hitzarmenik gehienak ahalkegarriak eta gezurtiak dira; bakarrik itxuren salbatzera entseiatzen gara, eta zuritzen eta estaltzen ditugu geure egiazko xedeak. Egina apaintzen dugu; badakigu nola esan dugun eta zein zentzutan, eta zeudeneke badakite, eta gure lagunek, eta gure abantaila adierazi nahi izan diegunek. Gure zuzentasun eta gure kuraiaren ohorearen bizkar gezurtatzen dugu geure gogoeta, eta faltsutasunean aterbeak bilatzen ditugu hitzarmenaren egiteko. Geure buruari gezurtatzen diogu eman dugun gezurtatze baten salbatzeko. Ez da begiratu behar ea zure ekintzak edo zure hitzak beste itzulpenik ote duen; zure egiazko itzulpen zintzoa da orain mantendu behar dena, zernahi kostutan. Zure bertuteari eta zure kontzientziari mintzatzen zaio; ez dira moztortzeko zatiak. Utz diezaizkiogun bide eta molde zital horiek jauregiko bihurrikeriari. Egunero hutsaren garbitzeko egiten direla ikusten ditudan aitzakiak eta estakuruak hutsa bera baino itsusiagoak iruditzen zaizkit. Norbere arerioari halako aitzakia emanez norbere buruaren laidostatzea baino hobe litzateke are gehiago arerioaren laidostatzea. Koleraren sutan iraindu duzu eta orain, zeure zentzu hotzean eta hobean, bazoaz haren lasaitzera eta lausengatzera, horrela apaltzen zara lehen aitzinatu zinen baino gehiago. Ezein hitz ez zait hain biziosoa aitorenseme batengan nola hitz jatea, hau ahalkegarri baitzait, manamenduz eragiten dion hitz jatea denean; arinkeria baino desenkusagarriagoa temakeria zaion bezala.

Pasioneak izaten ohi zaizkit neurtzeko gaitzak bezain itzurtzeko errazak. *Abscinduntur facilius animo quam temperantur*. Soraiotasun estoiko noble hori erdiesten ahal ez duena geriza bedi nire zozokeria herrikoi honen magalean. Haiek bertuteagatik egiten zutena ni izaeraz egitera emana naiz. Erdiko izaerak ditu erauntsiak; gizon filosofoen eta gizon zakarren bi puntetako izaerak, aldiz, lasaitasunean eta zoriontasunean berdintzen dira.

*Fælix qui potuit rerum cognoscere causas
Atque metus omnes et inexorabile fatum
Subjecit pedibus, strepitumque Acherontis avari.
Fortunatus et ille Deos qui novit agrestes,*

Panaque, Sylvanumque senem, nymphasque sorores. 365

Gauza guztien sortzapenak ahulak eta hauskorrak dira. Horregatik begiak erne eduki behar dira hastapenetan; zeren orduan, bere xumetasunean, arriskua aurkitzen ez den bezala, handitu denean ez da erremediorik aurkitzen. Handinahiaren ibilbidean egunero aurkituko nituzkeen milioi bat oztopo hartara naraman jatorrizko joeraren gelditzea baino gogorragoak liratekeenak:

jure perhorru

Late conspicuum tollere verticem. 366

Ekintza publiko oro itzulpen zalantzarri eta ezberdinen gaia da, zeren buru gehiegik epaitzen baitute. Zenbaitek diote nire hiriko ardura horretan³⁶⁷ (eta hitz baten esateko kontent naiz, ez balio duelako, baina neure ohituren erakuspenerako izan dadin halako gauzetan), jokatu nintzela sobera mantsoki eta atxikimendu ilaun batez dabilen gizon bat bezala; eta ez dira itxuratik sobera urrun. Entseiatzen naiz neure gogoaren eta gogoeten atsedenean edukitzera. *Cum semper natura, tum etiam aetate jam quietus.* Eta inoiz harrotzen badira hunkimen zakar eta sarkor batengatik, zinez nire baimenik gabe da. Jatorrizko ilauntasun horretarik ez da, hala ere, ezintasunaren probarik batere ondoriatu behar (zeren axolarik eza eta zentzurik eza bi gauza baitira) eta are gutiago ezezagutza eta eskargaitzaren probarik jende honen aldera, eskuetan zeuzkan bide guztiez baliatu baitzen niri eskertzeko, ni ezagutu baino lehenago eta ondoren ere, eta lehen aldiz ematean baino gehiago egin baitzuen nire alde nire karguaren berrematean. Ahal den ongi guztia opa diot, eta zinez, aukeraldirik izan balitz, ez nukeen ezer gabe utziko haren zerbitzurako. Haren alde hunkitu naiz neure alde egiten ez dudana bezala. Jende ona da, gerraria eta eskuzabala, horregatik obedientziaren eta disziplinaren gaia eta, ongi gidatua bada, erabilpen on baterako zerbitzatzeko gaia. Badiote ere nire ofizio hau iragan dela ezaugarriarik eta ondoriorik gabe. On da: nire etenaldia salatzen da kasik mundu guztia sobera egiteagatik kondenatua zen aroan.

Egiteko molde lehiatsua dut nahimenak naramanean. Baina hein hori iraupenaren etsaia da. Nitaz nire arabera baliatu nahi duenak eman diezazkidan indarra eta libertatea behar duten egitekoak, biderakizun zuzena eta laburra eta oraindik arriskatua dutenak; zerbat ahalko dut. Beharrezkoa bada luzea, sotila, nekagarria, artifiziaia eta makurra, hobe eginen du beste norbaitengana joz.

Kargu handiak oro ez dira zailak. Prest nintzen zakarkiago ihardukitzeko behar handia izan balitz. Zeren nire ahalean baita egiten eta nahi ohi dudana baino zerbait gehiagoren egitea. Dakidanez, eginbeharrak eskatzen zidanetik ez nuen mugimendurik batere egin gabe utzi. Errazki ahanzi ditut handinahiak eginbeharrari nahasten dizkion eta beronen izenburuaz estaltzen dituenak. Horiek dira gehienetan begiak eta belarriak betetzen eta gizonak askiesten dituztenak. Gauzak ez, itxurak ordaintzen die. Hotsik ez badute aditzen, iruditzen zaie lotan gaudela. Nire gogaldiak kontrarioak zaizkie gogaldi burrunbalariei. Ongi geldiaraziko nuke nahasmen bat ni nahasi gabe, bihurraldi bat zigortuko nuke asaldatzerik gabe. Koleraren eta suminduraren beharra dut? Maileguz hartzen dut eta mozorroa egin. Nire ohiturak beratzak dira, garratzak baino gehiago motelak. Ez dut epaile bat salatzen lotan dagoelako, bere eskupean daudenak harekin batean lotan dauden ber; legeak berdin daude lotan. Neuretzat, nik goستن dut bizi lerrakor, ilun eta mutu bat. *neque submissam et abjectam, neque se effluentem.* Nire zoriak hala nahi du. Distirarik ez hotsik gabe joan den eta aspalditik zuhurtasunara bereziki emana den familia batengandik sortua naiz.

Gure jendeak hain moldatuak dira inarroste eta arrandiatzeari buruz, non ontasuna, neurtasuna, zuzentasuna, iraupena eta halako nolakotasun geldi eta ilunak ez baitira sentitzen. Gorputz latzak sentitzen dira, leunak eskuztatzen dira oharkabea; gaitza sentitzen da, osasuna guti edo deus ere; gantzatzen gaituzten gauzak ere ez, ziztatzen gaituztenekin alderatuz geroz. Omenarentzat eta mozkin partikularrentzat aritzea da, ez ongiarentzat, plazan egitea kontseiluko ganbaran egiten ahal dena, eta eguerdi minean aitzineko gauan egin zitekeena, eta lagunak ongi egiten duena norberak egiteko lehiatsua izatea. Hala egiten zituzten Greziako zirujau zenbaitek beren ofizioko operazioak taulatuen gainean iragaileen aurrean praktika eta bezero gehiagoren erdiesteko. Uste dute arau onak ez direla aditzen tronpetaren hotsarekin ez bada.

Handinahia ez da lagun txikien ez gureak bezalako indarrak dituztenen bizioa. Alexandrori esaten zitzaion: Mutil hura jeloso zen bere aitaren garaipenez eta haren gobernuaren zuzenbidez. Ez zukeen munduko gobernuaz gozatzea nahi berazki eta soraioki. Altzibiadesek, Platonen baitan, nahiago du gazte, eder, aberats, jakintsu hiltzea halako baldintzako egoeran gelditzea baino gehiago. Menturaz gaitz hori desenkusagarriagoa da hain gogo azkar eta betean. Gogotxo nano eta eskas hauek beren burua liluratuz doazenean eta egiteko bat zuzenik epaitu dutelako edo hiriko atariko zaindaritzaz arduratu direlako beren izena hedatzen dutela uste dutenean, burua goratu uste duten bezainbat ipurdia erakutsi dute. Ongi egite xume horrek ez du gorputzik ez bizirik: ezabatzen da lehen ahoan, eta soilik badabil gurutzabide batetik bestera. Horretaz mintza zakizkie ausarki zeure seme eta zeure morroiari, aspaldiko hura bezala, bere goresmemerako beste adilegorik ez izanik, eta bere balioaren kontzientea izanik, bere neskamearekin askiesten baitzen, oihukatuz: “O Perrete, daukanan nagusi plantako eta jakintsua! Gaizkienean, solas egizu zeure baitan, nire ezagutzako kontseilari batek bezala, ezinagoko bortxazko eta halako ezdeuskeriazko paragrafo mukuru bat zintzurretik atera ondoren, kontseiluko ganbaratik jauregiko pixatokira erretiraturik, aditzen zitzaion murmurikatzen zuela bere buruaz franko harturik: *Non nobis, Domine, non nobis, sed nomini tuo da gloriam*. Bestela ez dezakeenak ordain biezaio bere buruari bere poltsatik.

Omena ez da hain kontu apaletan gaizki saltzen. Dagozkion ekintza arraro eta eredugarriek ez lukete eguneroko ekintza txiki horien laguntza pairatuko. Marmolak goratuko ditu zure izenburuak nahi duzun bezainbat, harresi puska bat petatxarazi edo erreka publiko bat desentratatu duzulako, baina ez zentzua duten gizonek. Hotsak ez doaz ontasun ororen atzetik, zailtasunik eta arrarotasunik artean ez badira. Eta, estoikoen arabera, oneste hutsa ez dagokio bertutetik sortzen den ekintza orori, ez baitute nahi gorets dadin garbitasunagatik atso legartzu batekin egitetik baztertzen dena. Eszipion afrikarraren nolakotasun miresgarriak ezagutu dituztenek errefusatzen dute Paneziok ematen dio ospea esanez abstemia zela jatorriz, hori ez baitzen bere bertutea baina bere mendearena.

Gure zoriari dagozkion atseginak ditugu, ez ditzagun handitasunarenak ebats. Gureak naturalagoak dira, eta sendagoak eta seguruagoak zeren apalagoak baitira. Kontzientziagatik ez bada ere, handinahia errefusa dezagun handinahia. Gutiets dezagun omenaren eta ohorearen gose hori, apala eta zitala, jende mota orori eskatzera baikaramatza, *Quae est ista laus quae possit e macello peti?* bide zitatez eta zernahi kostutan. Ikas dezagun gai garen baino ospe gehiagoren eskaleak ez izaten. Edozein ekintza on eta ezdeusen hanpatzea ohiz kanpokoa eta arraroa zaion jendearen egitekoa da; saldu nahi dute kostatzen zaien prezioan. Ekintza on bat distiragarria den arauz haren ontasunetik behekitzen dut sortzen zaidan susmo txarra: ona izateagatik baino gehiago egin izan dela distiragarria izateagatik; erakutsiz geroz, erdi saldua da. Ohar gabea eta hotsik gabe eskuetarik egileari itzurtzen zaizkion ekintzek askoz ere grazia

gehiago dute, gizon zintzoren batek gero bereizten eta itzaletik goratzen dituenak, argitan ezartzeko beren baitan dutenarengatik. “*Mihi quidem laudabiliora videntur omnia, quae sine venditatione et sine populo teste fiunt*” dio munduko gizonik ospezaleenak.

Soilik mantendu eta iraunarazi egin behar nuen, ekintza gorrak eta somaezinak baitira. Berrikuntza distira handikoa da, baina debekatua da aro honetan, berrikuntzeek behartzen baikaituzte eta beraietarik defendatu behar baitugu geure burua. Egitetik baztertzea askotan egitea bezain eskuzabala da, baina argi gutiago du; eta balio dudana apurra, kasik osoa, alderdi horretakoa da. Hitz batez, aukerek, kargu honetan, nire izaerari jarraiki diote; horregatik eskerrak ematen dizkiet. Norbait ote da eria izan nahi duena bere sendagilea lanean ikusteagatik, eta ez ote zen azotatu behar bere ofizioa praktikan ezartzeagatik izurritea opa ligukeen sendagilea? Ez dut gogaldi gaizto eta aski arrunt hori eduki: hiri honetako eginkizunen nahasmenak eta eritasunak gora eta ohora zezaten neure gobernua; gogotik lagundu dut eginkizunen erraz- eta aisetasunean. Eskertu nahi ez didanak neure gobernua lagundu duten ordena eta lasaitasun ezti eta mutuagatik, ez dit kentzen ahal, bederen, neure zorionagatik dagokidan zatia. Honela egina bainaiz, zuhurra izatea bezainbat nahi baitut zorionsua izatea, eta neure ekintzari bezainbat Jainkoari zor izatea neure arrakasta. Aski argi adierazi nion munduari neure eskasgoa halako eginkizun publikoetarako. Eskasgoa baino makurragorik ere badut: ez zaidala ezatsegin, ez naizela sendatzera entseiatzen, hautatu dudana bizimodua ikusiz. Eginbehar horretan ez nuen neure burua askietsi, baina gutigatik ez dut neure buruari agindu niona erdietsi, eta askogatik gaintitu dut besteei agindu niena: zeren gogotik agintzen baitut ahal eta uste dudana baino apur bat gutiago. Seguru naiz ez dudala ez laidorik ez gorrotorik utzi. Eta badakit, behinik behin, ez dudala sobera bilatu neure alderako oroimen eta gosearen uztea:

me ne huic confidere monstro,

Mene salis placidi vultum fluctusque quietos

Ignorare? 373

XI

Mainguez

Duela bizpahiru urte Frantzian hamar egunetan laburtu zen urtea. Zenbat aldaketak jarraiki behar zion birmoldaketa horri! Egiazki zeruari eta lurrari batean eragitea zen. Halarik ere, deus ez da bere lekutik mugitzen: nire auzokideek aurkitzen dute beren ereinaldien ordua, beren uztarena, beren eginbeharren aldia, egun kaltegarriak eta egokiak, hain zuzen betidanik ezarriak zituzten hein berean. Akatsa ez zen gure erabileran somatzen, eta zuzenketa ere ez. Hainbat zalantza baita orotan, hain zarpaila, iluna eta kamutsa baita gure oharpena. Badiote aldaketa hori molde errazagoan egin zitekeela: Augustoren ereduaren antzera, bisestuen eguna kenduz urte zenbaitetan, oztopo eta nahasmen eguna baita, harik eta zor hori zehazki kitatu arte (zuzenketa honek egin ez duena, oraindik baikara egun zenbaitetako atzerapenean). Eta, modu berean, etorkizuna prestatzen ahal zen, hainbat edo honenbat urteren buruan ohiz landako egun hori ezaba dadin ordenatuz, eta gure kontu makurra ez litzateke hemendik aitzinean hogeita lau ordukoa baino areagoa. Urteez landa, ez dugu beste denbora-neurketarik. Duela hainbat mende mundua horietaz baliatzen da; eta hori da oraindik finkatu ez dugun neurria, eta halakoa ere non egunero dudatzen baitugu beste herriek zein molde eman ote dioten, eta zein molde erabiltzen zen lehen ere. Eta zer, batzuek diotena, zeruak gure aldera hertsatzen ari direla zahartzearekin, eta orduen eta urteen zalantzan ezartzen gaituztela? eta hilabetez Plutarkok dioena: oraindik bere aroaz astrologiak ez zuela ilargiaren mugimendua mugatu ahal izan? Hara zein ongi prestatuak garen iragan gauzen erregistroaren egiteko.

Gogoetan nengoen orain, maiz egiten dudana bezala, nola giza arrazoia tresna libre eta iluna den. Eskuarki ikusten dut gizonek, proposatzen zaizkien gauzetan, haien egiaren bilatzean baino gogotikago dihardutela haien arrazoiaren bilatzean: gauzak uzten dituzte, eta badihardute kauei buruz. Hizlari irigarriak. Kausen ezagutza bakarrik dagokio gauzen zuzendaritza daukanari, ez guri, gauzen pairamena bakarrik baitugu eta erabiltzen baititugu, geure naturaren arabera, jatorriaz eta izateaz jabetu gabe. Ardoa ez zaio atseginagoa bere etorkizko ahalmenak dakizkienari. Aitzitik; gorputzak eta gogoak eteten eta aldaratzen dute munduaren erabilerarako daukaten zuzenbidea, bertan jakintzaren ustea nahasiz. Zehaztea eta jakitea, ematea bezala, zuzendaritzari eta nagusigoari dagozkie; menekotasunari, azpikotasunari eta ikaslegoari dagozkie gozatzea eta onartzea. Itzul gaitezen geure azturara. Gauzen gainetik joaten dira, baina jakinahi handiz ikertzen dituzte ondorioak. Honela hasten dira eskuarki: “Nola egiten da hau?” - Baina, egiten ote da?, esan beharko zen. Gure hitzaldia beste ehun munduren ehuntzeko gauza da eta beren hastapenen eta egituraren aurkitzeko ere. Ez du ez gairik ez oinarririk behar; utz ezazu lasterka: betearen gainean bezain ongi eraikitzen du hutsaren gainean, eta berdin ezer ezaz nola gaiaz,

dare pondus idonea fumo. ³⁷⁴

Kasik orotan aurkitzen dut esan beharko zela: “Ez da deus ere”; eta maiz erabiliko nuke erantzun hau; baina ez naiz ausartzen, zeren oihukatzen baitute gogoaren ahuleziak eta jakinezak eragindako hutsa dela. Eta gehienetan itxuratu behar ditut ihardukitzeko gai eta kontu hutsalak, inola ere sinesten ez ditudanak. Gainera, egiazki, apur bat zakarra eta liskartia da erroatik izatezko proposizio baten ukatzea. Eta, bereziki gauza sinesgaitzetan, jende guti gelditzen da ikusi dutela esan gabe, edo gure kontraesana gelditzen duen pisua duten lekukoak aipatu gabe. Ohitura honi jarraikiz, badakizkigu sekula izan ez ziren mila gauzaren funtsak eta kausak; eta mundua eztabaidan ari da alde eta kontra faltsuak dituzten mila arazotan. *Ita finitima sunt falsa veris, ut in praecipitem locum non debeat se sapiens committere.* Egiak eta gezurrak aurpegi bertsuak dituzte, itxura, gustua eta ibilera berdinak; begi berarekin begiratzen diegu. Aurkitzen dut ez garela soilik engainutik defendatzeko ahulak, baina bilatzen dugula ere bertan sartzeko. Geure burua hutsalkeria nahastea maite dugu, gure izateari dagokion gauza bezala.

Neure aroan mirakulu askoren sortzapena ikusi dut. Sortzean itotzen badira ere, aurrikusten ahal dugu hartuko zuketena abiadura beren adina bizi izan balira. Zeren bakarrik hariaren punta bilatu behar baita eta nahi bezainbateko mataza egiten baita. Eta munduko gauzarik txikienetik handienara baino gehiago bada ezer ezetik txikienera. Bada, doazen lehenbizikoak betetzen dira arrarotasunezko hastapen horretaz eta, bere historiaren ereitera doazelarik, sentitzen dute, egiten zaizkien oposizioagatik, non datzan sinestarazteko zailtasuna, eta alderdi hori zati faltsu zerbaitez estaltzen dute. Gainera, *insita hominibus libidine alendi de industria rumores,*, maileguz ematen zaigun guztiaren itzultzeko kontzientzia egiten dugu gure aldetik kenketarik ez gehiketarik batere gabe. Huts partikularrak lehenik egiten du huts publikoa eta, gero bere txandan, huts publikoak egiten du huts partikularra. Horrela doa eraikuntza hori ehunduz eta moldatuz eskuz esku; halako molde non azken lekukoa hurbilena baino ikasiagoa baita, eta azken informatua lehenbizikoa baino sinetsiagoa. Aurrerapen naturala da. Zeren zerbait sinesten duenak uste baitu karitatezko eginbeharra dela beste bati sinestaraztea; eta, horretarako, ez da bere aldetik gehitzeko beldurrez ari, ikusten baitu beharrezkoa dela bere kontuan besteren gogoan suposatzen duen erresistentziaren eta akatsaren garaitzeko.

Neroni, gezurretan aritzeko kontzientzia berezia egiten dudana, eta diodanari sinesmenaren eta bermearen emateko axola guti egiten dudana, ohartzen naiz, hala ere,

eskuan daukadan solasean, besteren erresistentziak edo narrazioaren beroak sustaturik, inoiz ere neure gaia hanpatzen dudala hitzen mugimendu, azkartasun eta indarraren bidez, eta hedaduraz eta zabaltasunaren bidez, eta ez etorkizko egiari kalterik egin gabe. Baina, hala ere, baldintza honetan egiten dut: egia hutsa eta gordina galdegin didan lehenaren aurrean neure ahalegina uzten dudala eta ematen diot handitzerik, haizatzerik eta betegarririk gabe. Hitz bizia eta sutsua, nire arrunta ohi den bezalakoa, gogotik badoa hiperbole aldera.

Gizonak ez dira deusetara hain emanak nola beren iritziei bidearen egitera; bide arruntak huts egiten digunean, manamendua, indarra, burdina eta sua gehitzen ditugu. Zorigaitza da egiaren frogarik hoberena sinesleen mukurua dela, jendalde baten kopuruan zoroek askogatik gaintitzen baitituzte zuhurak. *“Quasi vero quidquam sit tam valde, quam nihil sapere vulgare”* *“Sanitatis patrociniū est, insanientium turba”* Gauza zaila da norbere gogoetaren bururatzea aburu arrunten aurka. Lehen sinesmenak, gaitik beretik hartua, hartzen ditu zozoak; hortik hedatzen da argiengana, zenbakiaren manupean eta lekukotasunen zahartasunagatik. Neuri dagokidanez, bati sinetsiko ez diodana ez diet ehun eta bati sinetsiko, eta ez ditut usteak urteen arabera epaitzen.

Duela denbora guti, gure printzeetarik batek, bere baitan hezurreriak izaera eder eta alai bat galdu baitzuen, hain gogorki sinestarazi baitzion bere buruari hitzen eta keinuen bidez gaitz guztiak sendatzen zituen apaiz baten ekintza miresgarriari buruz, non bidaia luze bat egin baitzuen haren bila, eta sineskeriaren bortxaz bere zangoak loarazi eta menperatu baitzituen ordu zenbaitez, eta haietarik atera zuen aspaldi ahantzia zuten zerbitzua. Zoriak metatu izan balitu halako bospasei miresgarri, mirakulu hori ontzat hartuko litzateke. Gero hainbat zozokeria eta hain finezia guti arkitu zen halako ekintzen egilearengan non ez baitzen ezein zigorraren mereziduntzat jo. Halako gauzetarik gehienetan, beren sorlekuan ezagutuko balira, egingen litzateken bezala. *Miramur ex intervallo fallentia* Horrela urrundik itxuratzen ditu gure ikusmenak irudi arraroak, hurbiltzearekin ezabatzen direnak. *Numquam ad liquidum fama perducitur.*

Miresgarria da zeinen hastapen hutsal eta kausa arinetarik sortzen ohi diren hain irudi famatuak. Berorrek oztopatzen du beren argitzea. Zeren, kausa eta helburu azkarrak, pisudunak eta halako izen handiaren merezidunak bilatzen diren artean, egiazkoak galtzen baitira: gure ikusmenari itzurtzen zaizkio beren txikitasunagatik. Eta zinez, halako ikerpenetan behar da aztertzaile aski zuhur, erne eta sotil bat, bereizkeriarik eta aurreiritzirik gabekoa. Orain arte, mirakulu eta gertakari arraro horiek desagertzen dira nire aurrean. Ez dut munduan ikusi ni baino mustro ez mirakulu ageriagorik. Arrarotasun guztiarekin jartzen ohi gara ohituraz eta denboraz; baina neure burua zenbat eta gehiago maiztatzen eta ezagutzen dudan orduan eta areago harritzen bainau neure moldagabekeriak, orduan eta gutiago ulertzen baitut neure burua.

Halako gorabeheren aurreratzeko eta sortzeko zuzenbide nagusia zoriari dagokio. Herenegun neure etxetik bi lekoetara den herrixka batetik iragaten aurkitu nuen oraindik lekua berotua zela gertatu berri zen mirakulu batengatik, haren bidez jendea jostatua izana baitzen hilabete askoz, eta ondoko eskualdeak ere zirikatzen hasten ziren eta multzoka etortzen, mota guztietakoak. Hango gizon gazte batek jokatu zuen itxuratuko zuela bere etxean izpiritu baten ahotsa, soilik fartsa batez gozatu nahiz, beste fineziarik gogoetatu gabe. Uste baino hobekixego gertatu baitzen, bere fartsaren hedatzeko maratila gehiagoetara, osoki ergela eta ilupa zen herrixxako neska bat elkarretaratu zuen; eta hondarrean hiru izan ziren, adin berekoak eta jakintza berdinekoak; eta etxeko predikalarietarik egin zituzten predikalari publikoak, elizako aldarepean gordetuz, soilik gauaz mintzatuz eta inolako argirik ekartzea debekatuz. Munduko konbertsio eta azken judizioaren egunarekiko mehatxuari buruzko hitzetarik (zeren, manakuntza eta begiruneko gaiak direnez, faltsukeria errazkiago estaltzen baita), etorri ziren agerpen eta

mugimendu zenbaitetara, hain ergelak eta irrigarriak non doi ez baita ezer hain zakarrik haur txikien jostaketan. Halarik ere, zoriak fabore zerbait eman nahi izan balu, nor daki noraino hedatzen ahal zen maskarada hori? Gaizo horiek gartzelan daude orain, eta gogotik jasanen dute ororen ergelkeriaren zigorra; eta ez dakit haien gainean epaileren batek bere ergelkeriaren mendekua hartuko ote duen. Argi ikusten da honetan, argiturik izan baita; baina gure ezagutza gainditzen duten nolakotasun bereko gauza askotan uste dut gure aburua geldiarazi behar dugula berdin errefusatzeko nola onartzeko.

Munduan engainu asko sortzen dira edo, ausarkiago esateko, munduko engainuak oro sortzen dira gure jakinezaren aitortzeko beldurrez izaten irakasten baitzaigu, eta bortxatuak baikara errefusatzen ahal ez dugun guztiaren onartzera. Gauza guztiez mintzatzen gara arau eta erabakien izenean. Erroman estiloak arautzen zuen lekuko batek bere begiez ikusteagatik esaten zuena eta epaile batek bere jakintzarik seguruenaz ordenatzen zuena ere, adierazia izan zedin mintzamolde honetaz: “Iruditzen zait” Egiantzeko gauzak gorrotarazten zaizkit dudaezinak bezala agertarazten zaizkidanean. Maite ditut hitz hauek, gure esapideen ausartzia biguntzen eta epeltzen dutenak: *Menturaz, Nolabait, Zerbait, Omen, Uste dut*, eta halakoak. Eta haurrak hezi behar izan banitu, ahotan ezarriko niekeen erantzuteko modu galdetzaile eta ez erabakitzaile hau: “Zer esan nahi du? Ez dut ulertzen. Izaten ahal da. Egia ote da?” Hirurogei urtetan gorde zezaten ikaslearen moldea, hamarretan doktoreak itxuratu beharrean, egiten ohi duten bezala. Jakineza sendatu behar duenak aitortu behar du. Iris Thaumantisen alaba da³⁸¹. Mirespena filosofia ororen funtsa da, galdegitea bere aurrerapena eta jakineza bere eremua. Bada ere jakineza azkar eta eskuzabal bat ohorean eta kuraian jakintzari deus ere zor ez diona; jakineza horren sortzeko ez da jakintzaren sortzeko baino jakintza gutiago behar.

Neure haurtzaroan ikusi nuen Corrasek, Tolosako kontseilariak, inprimarazi zuen gorabehera bitxi bati buruzko auzi bat : bata bestearen ordeztuz agertzen ziren bi gizonena. Oroitzen naiz (eta ez naiz beste ezertaz oroitzen) errunduntzat jo zuenaren faltsutasuna hain miresgarria eta gure ezagutzaz gaindikoa egin zuela (eta bere ezagutzaz gaindikoa ere, bera epaile izanik) non ausartzia gehiegi aurkitu bainuen egin zuen urkatzeko sententzian. Onar dezagun “Epailegoak ez du ezer ulertzen” dioen sententzia molde bat, areopagitek egin zutena baino libreki eta garbikiago: bururatzen ahal ez zuten kausa batek hertsatuak aurkituz, manatu zuten alderdiak itzul zitezen ehun urteren buruan.

Nire auzoko sorginek beren bizia arriskatzeko dute beren ametsak gorpuzten dituen autore berri bakoitzaren ustearen arabera. Jainkozko hitzak eskaintzen dizkigun halako gauzen eredu gertu eta ukaezinen egokitzeko eta gure gertakari modernoei lotzeko, kausarik ez biderik ez baitugu ikusten, beharrezkoa da gurea bezalakoa ez den adimen bat. Menturaz soilik lekukotasun guztiahaldun horri dagokio guri esatea: “Hau bada, eta hura ere bai, eta ez beste hori” Jainkoari sinetsi behar, egiazki arrazoia da; baina ez bere narrazioaz harritzen den gutarik edozeini (eta halabeharrez harritzen da zentzutik kanpoan ez bada), berdin beste bat salatzen edota bere kontra erabiltzen badu ere.

Dorpea naiz, eta atxikitzen natzaio apur bat sendoari eta egiantzekoari, aspaldiko erantzuki horiei itzuri eginez: *Majorem fidem homines adhibent iis quae non intelligunt – Cupidine humani ingenii libentius obscura creduntur*. Ongi ikusten dut sumintzen ohi dela, eta dudatzea debekatzen zaidala laidorik makurrenekin mehatxatuz. Sinestarazteko molde berria. Jainkoari esker, nire sinesmena ez da ukabil ukaldika zuzentzen. Oldar egin diezaiten beren ustea faltsutzat salatzen dutenei; nik soilik salatzen dut zailtasun eta ausartziagatik, eta kondenatzen dut oposatzen zaion baieztapena ere, haiekin batean eta berdin, baina ez hain harroki. *Videantur sane, ne affirmantur modo*. Bere hitzaldia harrokeriaz eta manamenduz finkatzen duenak erakusten du arrazoia ahula dela. Hitzezko eztabaida eskolastiko batean badute arerioek bezainbat itxura, baina ateratzen

duten ondorio konkretuan abantaila osoa dute. Jendeen hiltzeko, behar da argitasun garbi bat; sobera erreal eta izatezkoa baita gure bizia gorabehera naturaz gaineko eta ameskeriazko horien bermatzeko. Droga eta pozoinei buruz, neure kontuaz landan uzten ditut: hiltzaileak dira eta mota makurrenekoak³⁸⁵. Hala ere, horretan bertan esaten da ez dela beti jende horien aitorpenean gelditu behar, inoiz ikusi baitzaie sendo eta bizirik aurkitzen ziren jendeen hiltzeagatik beren burua salatzen zutela.

Beste salakuntza bitxi horietan, gogotik esanen nuke aski dela gizon bati, zernahi gomendio badu ere, sinesmen eman behar ziola gizaki bati dagokionean; bere adimenetik kanpoko denari buruz eta naturaz gaineko ondorio bat duenari buruz sinetsi behar zaio bakarrik naturaz gaineko onespen batek baimentzen duenean. Gure lekukotasun batzuei Jainkoak eman nahi izan dien lehentasuna ez da apaldu ez arinki adierazi behar. Honelako mila kontuk belarriak zafratuak ditut: Zinez ez nioke neure buruari sinetsiko. Lagun bat hamabi orduz iragan dadin, haizeekin batean, ekialdetik mendebaldera baino zenbatez ere naturalago eta egiantzekoago ez dut, bada, aurkituko bi lagun gezurretan ari daitezela? Gutarik bat haragi eta hezurretan eramana izan dadin izpiritu arraro batek, isats baten gainean, bere kebidetik goiti, baino zenbatez naturalago gure adimena eramana izan dadila bere lekutik gure gogo zoroaren nahikeriak? Guk, lilura domestiko eta geurek etengabe inarrosiak garenok, ez ditzagun kanpoko lilura ezezagunak bila. Iruditzen zait miresgarritasun baten ez sinestea barkagarria dela miresgarri ez den bide batetik egiaztatzea desbideratzen eta laburtzen ahal bada. Eta San Agustinen aburukoa naiz: froga zaileko eta sinesmen arriskatuko gauzetan segurantzari buruz baino hobe dela zalantzari buruz jotzea.

Duela zenbait urte, printze subirano baten lurretarik iragaten nintzen eta hark, nire faboretan eta nire sinesgogorkeriaren apaltzeko, grazia hau egin zidan: bere aurrean, leku berezi batean, mota horretako hamar edo hamabi presoen erakustea, eta besteen artean atso bat, egiazki arras sorgina itsusitasun eta moldegabekerian, hagitx famatua ofizio horretan. Frogak eta aitorpen libreak ikusi nituen eta ez dakit zein ezaugarri soraioa atso zirtzil horren gainean; eta galdegin nuen eta mintzatu ere nahi bezala, ahal nuen arretarik sendoena ezarri; ez bainaiz adimena aurreiritziengatik estekatzera uzten dutenetarik. Hondarrean eta egiazki, zikuta baino lehenago lupi-belarra³⁸⁶ ordenatuko nieke. *Captisque res magis mentibus, quam consceleratis similis visa*. Zuzenbideak baditu bere zuzenketak halako gaitzentzat.

Han eta beste inon, gizon zintzoek egin dizkidaten oposizio eta argudioei dagokienez, ez ditut aditu sinestarazten didanik eta beren ondorioak baino aterabide egiantzekoagorik ez dutenik. Egia da esperientzia eta ekintzaren gainean finkatzen diren frogak eta arrazoiak ez ditudala laxatzen; ez baitute ondoriorik ere; askotan moztzen ditut, Alexandrok bere korapiloa³⁸⁸ egin bezala. Orogen buru, gizon bat bizirik egosaraztea bere usteak prezio handitan ezartzea da. Adibide askoren bidez aipatzen da, eta Prestantziok bere aitari buruz dio, lo oso bat baino areago zen batean zegoelarik ametsa egiten zuela asto bat zela eta soldaduak zeramatzala. Eta ametsetan zekusana zen bera. Sorginek hala amesten badute, ametsak ondorioetan gorpuzten ahal badira inoiz, oraindik ez dut uste gure borondatea auziperatu behar denik.

Diodan hau, ez epaile ez erregeen kontseilari, ez horren gai ere ez den norbaitek bezala diot, baina gizon arruntak bezala, arrazoi publikoaren obedientziarako sortua eta aitortua, bai ekintzetan nola esanetan. Nire ameskeriak bere herriko legerik, usterik edo ohiturarik xehenaren kontrakoak bezala kontutan hartuko lituzkeenak makurkeria bat eginen luke eta areago bat eginen lidake niri. Esaten dudan honetan ez baitut gogoan dudana beste segurantzarik finkatzen, aski gogo nahasia eta zalantzakorra baitut ere. Solastatzeko mintzatzen naiz orotan, eta ezertan ere sententzia bezala. *Nec me pudet, ut istos, fateri nescire quod nesciam*. Ez nintzateke mintzatzeko hain ausarta sinetsirik

izatea balegokit; eta hau izan zen handi bati erantzun niona, nire esapideen garraz- eta bortiztasunaz kexatzen baitzen: Ez naiz hain harroa bakarrik nahi izateko ere neure usteek isurmena eman diezaioten hain gauza erabakiorrari; nire zoriak ez ditu xederatu hain ondorio ahaldun eta goratuetara. Zinez, ez bakarrik izaerak baina usteak ere badituz neure semea atsekabetuko luketenak, semerik banu. Zer? Egiazkoenak ere ez baitzaizkio errazenak gizonari, hain basa eta konpongaitza baita!

Behar den edo behar ez den tenorean, berdin da, Italian esaten ohi da zuhurtitz arrunta bezala mainguearekin etzan ez denak ez duela Venus bere eztitasun betean ezagutzen. Zoriak, edo gorabehera berezi batek, ezarri dute aspaldi solas hori jendearen ahotan; eta berdin esaten da arrei nola emeei buruz. Zeren amazonen erreginak erantzun baitzion amodiora gomitatzen zion eszitari: “ἀριστα χολοζ οἶπει, maingueak hobeki dagi”. Emakumeen errepublika hartan, arren menekotasunetik ihes egiteko, haurtzarodanik herbaltzen zizkien besoak, zangoak eta beraien gaineko abantaila ematen zien beste soinadarrak, eta gizonez baliatzen ziren bakarrik gu emakumeez baliatzen garen horretarako. Esanen nuke mainguen mugimendu kordokak beharrari atsegin berri zerbait ematen diola eta eztitasun ziztada zerbait frogatzen dutenei, baina ikasi berri dut filosofia zaharrak epaitu duela hori; baitio mainguen zangoek eta izterrek beren hutsengatik ez ukanik zor zaien elikagaia, gertatzen da ernaltzeko zatiak, gainean baitaude, beteagoak, haziagoak eta azkarragoak direla. Edota, akats horrek erabilpena oztopatuz, pairatzen dutenek gutiago xahutzen dituztela beren indarrak eta osoagoak iristen direla Venusen jokoetara. Hori baita ere grekoek ehuleak beste emakumeak baino beroagoak izateagatik salatzen zutelako arrazoia: egiten duten ofizio jarriaren bidez, gorputzaren ariketa handirik gabe. Zeri buruz ez dugu horrela arrazoinatzen ahal? Horiei buruz esan nezake ere beren lanak ematen dien dardaratze horrek, hala eserita, ernatzen eta sustatzen dituela, beren kotxeen balantzak eta ikarak andreak egiten dituzten bezala.

Ez ote dute adibide hauek balio hasieran esaten nuenerako: gure arrazoiek ekintza aurreratzen dutela eta beren menekotasunaren hedadura hain mugaezina dutela non ezer ezari buruz eta ez izateari buruz baitihardute? Amets mota guztientzat arrazoen moldatzeko gure asmamenaren malgutasunaz gainera, gure irudimena ere berdin erraza aurkitzen da faltsutasunaren hunkimenean onartzeko itxura osoki hutsalen bidez. Zeren, zuhurtitz horren erabilpen publiko eta zaharraren ospe bakarragatik behiala sinestarazi bainion neure buruari atsegin gehiago erdietsi nuela emakume batengandik zuzena ez zelako, eta hori bere grazien artean ezarri bainuen.

Torkuato Tasso, Frantzia eta Italiaren artean egiten duen konparaketan, badio ohartu dela aitorenseme italiarrek baino zango meharragoak ditugula, eta horren kausa ematen du zeren beti zaldiz baikabiltza; hortik beretik Suetoniok osoki ondorio kontrario ateratzen baitu: zeren, aitzitik, berak baitio Germanikok loditu dituela bereak ariketa berorren bidez. Ez da deus gure adimena baino arin eta ibilkorragorik; Teramenesen zapata da, oin guztientzat egokia. Bikoitza eta ezberdina da eta gaiak ere bikoitzak eta ezberdinak dira. “Emak zilarrezko drakma bat esaten zion filosofo ziniko batek Antigonori.-Ez duk errege baten emaitza, erantzun zuen. –Emak bada, talentu bat.- Ez duk ziniko batentzako emaitza.”

Seu plures calor ille vias et cæca relaxat

Spiramenta, novas veniat qua succus in herbas;

Seu durat magis et venas astringit hiantes,

Ne tenues pluviae, rapidive potentia solis

Acrior, aut Boreæ penetrabile frigus adurat. 391

Ogni medaglia ha il suo reverso Horra zergatik Klitomakok bazioen behiala Karneadesek Herkulesen lanak gainditu zituela gizonengandik baieztapena erauzi

baitzuen, esan nahi baita, ustea eta epaitzeko ausarkeria. Karneadesen ameskeria hori, hain azkarra, sortu zen nire ustez jakiteko aitorpena egiten dutenen ahalkerik ezatik, eta beren neurritz kanpoko harrokeriatik. Esopo salgai zen beste bi esklaburekin. Erosleak lehenari galdegin zion zer zekien egiten; hark, bere buruaren balioarazteko, erantzun zituen mendiak eta miresgarriak, hau eta hura zekiela; bigarrenak erantzun zuen berari zegokionez beste hainbat edo areago; Esoporengana jo zuelarik eta galdegin ere zer zekien egiten: “Deus ere, zioen, zeren hauek dena hartu baitute: dena badakite”. Hala gertatu da filosofiaren eskolan: giza gogoari gauza ororen ahalmena eman ziotenen harrokeriak besteengan sortarazi zuen, amorruez eta imitazioz, ezertarako gai ez delako uste hori. Batzuek ez jakitean sostengatzen dute besteek jakintzan sostengatzen duten ezinagokotasuna bera. Hala ez baita ukatzen ahal gizona neurririk gabea dela orotan, eta gelditzeko heinik ez duela, non ez den beharra eta areago joateko ezintasuna.

XII

Fisionomiaz

Ditugun uste ia guztiak besteenganako sinesmenagatik hartuak dira. Ez da gaizki; hain mende ahulean, geure kabuz baino makurragorik ez genekike hautatzen. Sokratesen hitzaldien irudi hori, bere adiskideek utzi digutena, ez dugu onartzen onarpen publikoaren bidez baizik; ez geure ezagutzaren bidez: ez baita gure ohiturakoa. Ordu honetan sor baledi zerbait berdinek, jende gutik onetsiko luke.

Ez ditugu graziak somatzen, zorroztuak, hanpatuak eta artifizioz haizatuak ez badira. Bakuntasun eta soiltasunaren azpian doazenak errazki itzurtzen zaizkio gurea bezain zakarra den ikusmen bati; badute edertasun fin eta gorde bat; ikusmen garbia eta ongi libratua izan behar da argi ezageri horren aurkitzeko. Ez ote da, gure arabera, soiltasuna ergelkeriaren ahizpa, eta erantzukigai? Sokratesek bere gogoia erabiltzen zuen mugimendu natural eta arrunt batez. Hala dio nekazari batek, hala dio emakume batek. Ahotan ez du orgari, zurgin, zapatari eta harginik besterik. Gizonen ekintzarik arrunt eta ezagunenetarik ateratako ondorio eta antzak dira; bakoitzak ulertzen du. Ez genuke sekula halako molde apalaren azpian bere gogoeta miresgarrien noblezia eta distiratasuna bereiziko, irakaskuntzak goratzen ez dituen gauza guztiak motel eta apalak iruditzen baitzaizkigu, erakuspen eta ospean ez bada ez baitugu aberastasuna ezagutzen. Gure mundua erakuspenerako moldatua da: gizonak haizez hanpatzen dira eta ukaldika erabiltzen, baloia bezala. Horrek ez ditu ameskeria hutsalak proposatzen: bere helburua bizirako egiazki eta hurbiletik balio duten gauzen eta arauen ematea zen,

servare modum finemque tenere,

Naturamque sequi. 393

Horrela izan zen beti bat eta bera, eta goratu zen, ez jauzika baizik izaeragatik, azkartasunaren azken heineraino. Edo, hobeki esateko, ez zuen ezer goratu, baizik eta gehiago apaldu eta erakarri zuen bere jatorrizko hein naturala eta azpiratu zituen azkartasuna, garraztasunak eta zailtasunak. Zeren, Katonen baitan, argi ikusten da jende arruntaz goiti xederatu ibilera dela; bere biziko ekintza handietan, eta bere heriotzan, beti ikusten zaio bere zaldi handien gainean. Hau, aldiz, lur arrasetik badabil, eta urrats bigun eta arrunt batez darabiltza hitzaldirik onuragarrienak; eta hala dabil heriotzan eta giza bizian zehar gerta daitezkeen ezbeharririk arantzatsuenetan.

Ongi gertatu da ezagun izatea eta munduari eredu bezala agertzea gehien merezi zuen gizona izan dadin hobekien ezagutzen duguna. Sekula izan ziren gizonik argienek argitu izan dute: ditugun haren lekukoak miresgarriak dira fideltasunean eta jakintzan.

Gertakari handia da haur baten ametsei halako antolakuntzaren ematea non, aldatu ez hedatu gabe, hortik gure gogoaren ekintzarik ederrenak sortu baititu. Ez baitu gure gogoia goratua ez aberatsa erakusten; bakarrik sendoa erakusten du, baina, egiazki, osasun alai eta garbi batekin. Bide arrunt eta natural horien bidez, amets apal eta

amankomun horien bidez, hunkitu ez sumindu gabe, eraiki zituen ez bakarrik arautuenak baina sekula izan ziren sinesmen, ekintza eta ohiturarik goratu eta azkarrenak. Berak ekarri zuen giza jakintza zerutik, han denbora galtzen baitzuen, gizonari emateko, hor baita bere eginbehar nekagarriena eta onuragarriena. Ikus nola argudiatzen duen epaileen aurrean, ikus zein arrazoiren bidez ernatzen du bere kuraia gerrako arriskueta, zein argudiok azkartzen du bere pazientzia kalumniaren, tiraniaren, heriotzaren eta bere emaztearen buruaren kontra; ezer ere ez du maileguz hartu arte eta zientzietarik; jenderik xehenak ezagutzen ditu haren bideak eta indarra; ezin da atzerago eta beheitiago joan. Giza naturari fabore handia egin dio erakutsiz zenbat ahal duen bere baitan.

Guztiok gara uste baino aberatsagoak; baina mailegura eta bilara zuzentzen zaigu: irakasten zaigu geureaz baino gehiago bestearenaz baliatzen. Ezertan ez daki gizonak bere beharraren heinean gelditzen: atseginen, aberastasunean, ahalduentasunean, ahal duen baino gehiago besarkatzen du; bere gosea ez da neurtasunerako gai. Aurkitzen dut jakiteko nahian berdin dela; egin ahal eta behar duen baino eginbehar gehiago hartzen du, jakintzaren balioari jakintzaren gaiak duen bezainbateko hedadura ematen baitio. *Ut omnium rerum, sic litterarum quoque intemperantia laboramus.* Arrazoia du Tazitok goresten baitu Agrikolaren ama bere semearengan jakintzarako sobera irakin zen gose bat bridatu baitzuen. Ongi begiratu, hutsalkeria eta ahulezia berezi eta natural asko duen ontasun bat da, eta kostu garestikoa da ere, gizonaren beste ontasunak bezala.

Bere erdiespena beste haragi edo edari ororena baino arriskatuagoa da. Zeren, bestean, erosi izan duguna etxera eramaten baitugu ontziren batez eta hor badugu haren balioa eta zenbat eta noiz hartuko dugun ikertzeko astirik. Baina jakintzak ez ditugu hasieratik gure gogoaz ez den beste ontzian sartzen ahal: irensten ditugu erostearekin, eta merkatutik ateratzen gara edo kutsatuak edo hobekituak. Badira hazi beharrean oztokatzen eta zamakatzen gaituztenak, eta halakoak ere, gure sendatzeko izenburupean, pozointzen gaituztenak.

Kastitate, pobrezia eta penitentziaren agintza bezala, debozioagatik jakinezaren agintza egiten duten gizonak ikusiz atsegin hartu dut. Gure nahi desordenatuen zikiratzea da ere liburuen ikerpenera garamatzan nahi horren kamustea, eta gogoari kentzea jakintzaren ustearekin ferekatzen gaituzten gustu atsegingarri hori. Pobreziaren agintzaren osatzeko molde aberatsa da izpirituzko pobreziaren gehitzea. Ez dugu doi irakaskuntzarik behar geure moldera bizitzeko. Eta Sokratesek irakasten digu irakaskuntza hori gure baitan dela, eta bilatzeko eta baliatzeko modua. Naturalaren gaindi den gure jakintza osoa gutiz goiti beheiti hutsala eta soberazkoa da. Askok da zerbitzatu baino gehiago zamakatzen eta nahasten ez bagaitu. *Paucis opus est litteris ad mentem bonam.* Gure gogoaren soberakeria sukartsuak dira, tresna nahasgarri eta geldiezina baita. Bil zaitez zeure baitara, hor aurkituko dituzu naturaren egiazko argudioak heriotzaren kontra, eta zeuretzat egokienak; horiek dira nekazari bat eta herri osoak hilarazten dituen filosofo bat bezain bermeki. Alaitasun gutiagorekin hil ote nintzatekeen *Tuskuliarrak* irakurri baino lehenago? Uste dut ezetz. Neure burua ikertzearekin, aurkitzen dut neure mintzaira aberastu dela, neure kuraia ezertan ez; naturak egin zidan bezala da, eta gatazkarako prestatzen da ibilera arrunt eta herrikoi batekin. Irakaspenerako baino gehiago liburuek balio izan didate ariketarako. Eta zer baldin eta jakintzak, ezbehar naturalen kontra defentsa berriez armatu nahian, gehiago inprimatu badigu gure irudimenean haien handitasuna eta pisua? Egiazki sotileziak dira, haien bidez jakintzak askotan hagitz hutsalki ernatzen baikaitu. Ikus nola egileek, hertsiki eta zuhurren ere, argudio on baten inguruan zenbat beste arin eta, hurbiletik ikusiz, gorputzik gabekoak ereiten dituzten. Hitzezko argudioak dira, engainatzen gaituztenak. Apur bat kontuz ibili behar da jendetasunik besterik ez denari indarra ez deitzeko, eta zorrotzari sendoa, edo

ederrari ona: *quae magis gustata quam potata delectant*. Atsegin orok ez du hazten. *Ubi non ingenii, sed animi negotium agitur*.

Senekak heriotzaren kontra prestatzeko egiten dituen ahaleginak ikusiz, bere buruaren gogortzeko eta segurtatzeko neketan ikusiz, eta hain luzaz egonez kinka horretan, haren omena dudatuko nukeen ez balu hain suharki mantendu hiltzearekin. Haren mugimendu hain sutsuak eta hain askotan eginak erakusten du beroa eta sutsua zela bera ere. *Magnus animus remissius loquitur et securius* “*Non est alius ingenio, alius animo color*”. Bere bizkar sinestarazi behar du. Eta erakusten du nolabait ere bere arerioak harrapatua zela. Plutarkoren moldea, mesprezakorragoa eta lasaiagoa denez, nire irudiko gizonezkoagoa eta sinesgarriagoa da; errazki sinetsiko nuke bere gogoak bazituela mugimendu seguru eta arautuagoak. Batak, bizikiago, sustatzen eta animatzen gaitu jauzika, gogoak hunkitzen du gehiago. Besteak, lasaikiago, informatzen, finkatzen eta laguntzen gaitu etengabe, adimena hunkitzen du gehiago. Hark liluratzen du gure ustea, honek irabazten du.

Are agurtuagoak diren beste idazkietan, berdin ikusi dut sostengatzen duten haragien eztenen kontrako gatazkaren deskribapenean, hain ziztagarri, ahaldun eta garaitezinak erakusten dituztela non, jende xehearen lerrokoak garenok, beren erresistentzia bezainbat miresten baitugu beren tentazioaren arrarotasun eta bortiztasun ezezaguna.

Zertarako goaz jakintzaren ahalegin horiekin azkartuz? Ikus ditzagun lurrean diren jende xeheak, buru makur beren lanaren aldera, Aristoteles ez Katon ezagutzen ez dituztenak, ez eredurik, ez araurik; horiengadik ateratzen ditu egunero naturak iraupenaren eta pazientziaren ereduak, eskolan hainbat arretarekin ikertzen ditugunak baino garbi eta gogorragoak. Zenbat ikusten ditut pobrezia gutiesten dutenak? Zenbat heriotza nahi dutenak, edo deiadarrik eta atsekaberik gabe jasaten dutenak? Nire baratzea lantzen duen horrek goizean ehortzi du bere aita edo semea. Gaitzen izendatzeko dituzten izenek ere garraztasuna eztatzen eta berazten dute: tisia, berentzat eztula da; disenteria, urdailaren nahasmena; pleuresia, katarro bat; eta eztiki izendatzen dituzten bezala ere hala jasaten dituzte. Hagitz larriak daude beren ohizko lana hausten dutenean; ez dira oheratzen hiltzeko ez bada. *Simplex illa et aperta virtus in obscurum et solertem scientiam versa est*. Hau idazten nuen gure nahasmenen zama handi bat hilabete askoz zuzen-zuzen neure aldera zetorkidan aroan. Alde batetik etsaiak neuzkan atearen aurrean, bestetik ebasleak, etsai makurragoak: *non armis sed vitiis certatur*. eta batera pairatzen nituen laido militar mota guztiak.

Hostis adest dextra levaeque a parte timendus,

Vicinoque malo terret utrumque latus. 402

Gerra ikaragarria: besteek kanpoan dihardute; honek bere burua ausikitzen du eta bere pozoinaz desegin. Hain izaera gaiztokoa eta hondagarrikoa da, non bere burua hondatzen baitu bestearekin batean eta amorruez urratzen eta zatikatzen. Gauza beharrazko baten eskasgoaren bidez eta etsaien indarraren bidez baino maizago ikusten dugu bere burua suntsitzen duela bere kabuz. Disziplina orotarik baztertzen da: bihurkeria sendatu nahi du eta berorretaz betea da, desobedientzia zigortu nahi du eta berorren eredia erakusten du, eta, legeen defentsan arituz, bere legeen aurkako bihurraldiaren zatia da. Non gara? Gure sendagaiak infekzioa darama,

Pozointzen da gure gaitza

Ematen zaion laguntzaz

Exuperat magis aegrescitque medendo. 403

Omnia fanda, nefanda, malo permista furore,

Justificam nobis mentem avertere Deorum. 404

Jendeen eritasun hauetan, hasieran bereizten ahal dira sendoak eta eriak; baina gureak bezala irauten dutenean, gorputz osoak pairatzen du, burutik orpoetaraino; ezein zati ez

da usteldurarik gabe. Zeren ez baita utzikeria bezain errazki hedatzen eta sartzen den airerik. Gure armadak lotuak eta estekatuak dira bakarrik zimendu arrotz bati esker; frantsesekin ez liteke armada iraunkor eta arautu bat egin. Hau ahalkea! Ikusten den disziplina bakarra mailegatu soldaduengan ikusten da; gu geure kabuz gabiltza, buruzagirik gabe: kanpoan baino eginkizun gehiago bada barrenean. Atsegin zait ikustea zenbat laxakeria eta arinkeria den handinahiaren baitan, zenbat apalkeria eta zitalkerietan barrena joan behar duen bere helburura. Baina ezatsegin zait ikustea zuzenbidearen egiteko gai diren izaera on asko egunero usteltzen direla nahasmen honen zuzendaritzan. Pairamen luzeak ohitura sortzen du, ohiturak onarpena eta imitazioa. Gogo gaizki sorturik aski bagenuen onak eta eskuzabalak higitu gabe. Hala jarraikiz ez da izanen estatu honen osasuna inoren baitan fidatzerik, baldin eta zoriak osasun hori itzuliko baligu.

Hunc saltem everso juvenem succurrere seclo

Ne prohibite. 405

Zer bilakatu da antzinako arau hura: etsaien baino gehiago soldaduak beren buruzagien beldur izan behar direla? Eta eredu miresgarri hura: armada erromatarraren kanpamenduko eremuan sagarrondo bat aurkiturik, ikusi zela biharamunean lekutzen zirela jabeari utziz bere sagar kopuru osoa, onduak eta gozoak zirelarik? Nahi nuke gure gazteriak, onuragarritasunik gabeko erromesaldietan eta ohorerik gabeko ikastaldietan erabiltzen duen denboraren ordeaz, erdia erabil dezan itsas gaineko gerraren ezagutzeko, Errodaseko kapitain on baten manupean, eta beste erdia arma turkiarren disziplinaren ezagutzeko, gurearen gaineko abantaila eta ezberdintasun asko baitu. Hainbat, non gure soldaduak laxatuago bilakatzen baitira gerraldian, eta han, aldiz, lotuago eta begiratuago; zeren bakean makil ukaldika zigortzen diren jende xehearen gaineko laidoak eta ebasteak gerran heriotzarekin kondenatzen baitira; ordaindu gabe hartzen den arraultze batengatik berrogeita hamar makilkada dira; beste edozein gauzogatik, jatekoa ez bada, arinagoa bada ere, enpalatzen edo lepoa mozten zaie besterik gabe. Selimen historian harritu egin naiz, sekula izan zen konkistatzailerik krudelena baitzen, ikusiz, Egipto azpiratu zuelarik, Damas hiriko inguruan dauden baratze nasai eta miresgarriak soldaduen eskuetarik birjinak gelditu zirela, eta osoki irekiak dira, hesirik gabe.

Baina, hain droga hilgarriekin gudukatzekoa den gaitzik ote da gobernu batean? Ez, zioen Favoniok, nahiz estatu bateko jabego tiranikoaren kentzeko den ere. Platonek ere ez du onartzen norbere herriko atsedena bortxatua izan dadin sendatzeko, eta ez du onartzen hiritarren odola eta hondamena kostatzen duen hobekitzea; finkatzen du, kasu horretan, gizon onaren eginbeharra dena bere hartan uztea dela, bakarrik Jainkoari eskatuz bere laguntza ohiz kanpokoa eman dezan. Eta badirudi gaitzesten zuela Dion, bere adiskide handia, nolabait bestela jokatzegatik.

Alderdi horretarik platonikoa nintzen, munduan Platonik bazen ere jakin baino lehen. Eta pertsonaia hori gure alderditik baztertua izan behar bada, nahiz eta bere kontzientziaren zintzotasunagatik merezi zuen argi kristauan aski barrenean sartzea, eta bere aroko munduko iluntasun publikoetan zehar ere, ez dut uste ongi denik motibo ematea pagano batek irakas diezagun. Erlijio gabekeria baita Jainkoaren baitatik laguntzarik batere ez igurikatzea. Maiz dudatzen dut, halako beharretan nahasten diren hainbat jendetarik, inor ere den hain adimen ergelekua non uste duen zintzoki hobekitze baten aldera doala moldegabekeria horiekin, salbazioaren aldera doala galbide ageritik, gobernu irauliz, epaileak eta Jainkoak ezarri legeen geriza nahasiz eta bere ama zatikatuz eta bere aspaldiko etsaiei hondar horiek emanez, anaiazko izaerak gorrotoz betez, deabruak eta zoraldiak bere alde deituz, jainkozko hitzaren ezintasun sakratuari eta zuzenbideari laguntza zerbait ematen diola. Handinahiak, zikoizkeriak, krudelkeriak,

mendekuak ez baitute, beren baitan, bortiztasunik aski, susta eta zirika ditzagun zuzenbidearen eta debozioaren izenburuen bidez. Gaiztakeria zilegi bilakatzen denean eta, epailearen baimenarekin, bertutearen jantzia hartzen duenean, ez dugu gauzen aurpegi txarragorik irudikatzen ahal. *Nihil in speciem fallacius quam prava religio, ubi deorum numen praetenditur sceleribus*. Zuzengaberik ezinagokoena, Platonen arabera, zuzengabe dena zuzentzat hartzea da.

Jendeak luzaz pairatu zuen orduan, ez bakarrik oraingo kalteak,
undique totis

Usque adeo turbatur agris, 407

baina etorkizunekoak ere bai. Biziek pairatu behar zuten eta oraino sortu gabe zirenek ere bai. Ebatsi zen, eta niri ere bai, jakina, esperantza bera, urte luzetarako prestaturik zegoena indarka kenduz.

Quæ nequeunt secum ferre aut abducere perdunt,

Et cremat insontes turba scelestas casas. 408

Muris nulla fides, squallent populatibus agri. 409

Nahasmen horretaz landara, besterik ere pairatu nuen. Halako gaitzetan neurtasunak dakartzan eragozpenak jasan nituen. Esku guztiez larruturik izan nintzen: gibelinoetan guelfoa nitzen, guelfoetan gibelinoa⁴¹⁰; nire poetarik batek ongi dio hori, baina ez dakit non den. Neure etxeko kokapenak eta neure auzoko jendeen ezagutzak molde batez aurkezten ninduen, neure biziak eta ekintzek beste batez. Ez zen salakuntza formalik egin, ez baitzen non ausiki; ez bainaiz legeetarik baztertzen. Isilpeko uste mutuak ziren, halako nahasmenean gogo bekaiztiek edo zozoek itxura ematen dietenak. Zoriak neure kontra ereiten dituen uste laidogarriak laguntzen ohi ditut beti daukadan neure buruaren zuritzetik, eskusatzetik eta esplikatzetik ihes egiteko joeragatik, uste baitut neure kontzientzia konpromezuan sartzen dudala auziperatzen badut. *Perspicuitas enim argumentatione elevatur*. Eta bakoitzak neure baitan nik bezain ongi ikusi balu bezala, salakuntzaren aurrean atzeratu ordez, aitzintzen natzaio aitorpen ironiko eta burlari baten bidez; edo osoki isiltzen naiz erantzuna merezi ez duen gauza bezala. Baina hori konfiantza goratuegitzat hartzen dutenek ez naute kausa defendaezin baten ahuleziazat hartzen dutenek baino hobeki maitatzen, bereziki handiek, haienganako hutsik handiena sumisiorik eza baita, ezagutzen eta sentitzen den zuzenbidearekin soraioak baitira: behar dute apaldua, umila eta eskalea. Askotan jo dut habe horren kontra. Hainbatetan non handinahi batek han urkatuko baitzukeen bere burua eta zikoitz batek ere bai.

Ez dut metatzeko axolarik batere.

Sit mihi quod nunc est, etiam minus, ut mihi vivam

Quod superest ævi, si quid superesse volent dii. 412

Baina besteren laidoarengatik datozkidan galerek, dela lapurketek, dela bortizkeriek, zikoizkeriak joa eta eria den gizon bat bezala ziztakatzen naute. Laidoak baitu, neurririk gabe, galerak baino garraztasun gehiago.

Mila gaitz mota etorri zitzaizkidan lerro-lerro; hobeki pairatuko nituzkeen denak meta batean. Jada gogoetatzen nuen, neure adiskideen artetik, ea noren baitan utziko nuen zahartzaro behartsu eta zorogaitzeko bat; begiak orotarik iragan ondoren, ator-has aurkitu nintzen. Osoki erortzeko, eta hain goratik, izan behar da atxikimendu sendo, azkar eta zorioneko baten baitara; bakanak dira, halakorik baldin bada ere. Hondarrean ezagutu nuen seguruena neure buruaz fidatzea izanen zela, eta gertatzen baldin bazitzaidan zoriaren grazia hoztu egiten zitzaidalda, are azkarrago gomendatu behar neure baitara, are hurbilago atxiki eta begiratu neure buruari. Gauza orotan, gizonek berme arrotzetara jotzen dute beraien aurrezteko, berauek izanik seguru eta ahaldun

bakarrak baliatzen dakienarentzat. Bakoitza badoa kanpora eta etorkizun aldera, artean inor ez da bere baitara iritsi. Erabaki nuen, beraz, eragozpen onuragarriak zirela.

Halaber, lehenik azote ukaldika ohartarazi behar zaie ikasle txarrei arrazoa aski ez denean, suaz eta zirien bortxaz zur makur bat bere zuzentasunera eramaten dugun bezala. Aspalditik predikatzen diot neure buruari neure baitan egoteko eta gauza arrotzetarik baztertzeko; halarik ere, oraindik inguratzen ditut begiak saihestu aldera: isurmenak, handi baten hitz faboragarriak, aurpegi on batek, erakartzen naute. Jainkoak daki zein eskas diren aro honetan! Entzuten ditut, kopeta zimirtu gabe, erakartzeko esaten zaizkidanak, eta hain biguinki defendatzen naiz non baitirudi nahiago dudala garaiturik izatea. Bada, hain gogo manugaitz bati makila ukaldiak beharrezkoak zaizkio; mailu ukaldika ere berreraiki eta hertsatu behar da laxatzen, desegiten, isurtzen eta bere baitarik doan ontzi hau.

Bigarrenik, ezbehar horrek balio zidala makurragarako prestatzeko ariketa bezala, baldin eta ni, zoriaren ontasunagatik eta neure ohituren baldintzagatik, azkenetarik izanen nintzela uste nuena, erauntsi horrek harrapatu lehenetarik izaten banintzen: tenore onetik neure bizitzaren bortxatzen eta egoera berri baten arabera antolatzen neure buruari irakatsiz. Zinezko libertatea norbere buruaren gainean guztia ahal izatea da. *Potentissimus est qui se habet in potestate.*

Aro arrunt eta lasai batez, ezbehar neurtu eta amankomunerako prestatzen gara; baina duela hogeita hamar urte gauden nahasmen honetan, gizon frantses orok orduro ikusten du bere burua bere zoriaren iraultza osoaren heinean. Horregatik kuraia hornidura azkar eta bizkorragoez beterik eduki behar da. Esker diezaiogun zoriari mende ez bigun, ez ilun ez alfer batean bizi arazi baikaitu: halakoa non, beste moduz ezin baitu, bere zorigaitzagatik ospetsu bilakatuko baita.

Ez ditut beste estatuetako nahasmenen historiak irakurtzen deitoratu gabe bertan ez egoteagatik ez ditudala hobeki ulertzen ahal, horrela, nire jakinahiak eragiten du inola ere atsegin zaidala neure begiez gure heriotza publikoaren ikuskizun hau, bere sintomak eta modua ikusi ahal izatea. Eta ez baitut geldiarazten ahal, pozik nago gertatu bainaiz egoteko eta hartaz ikasteko.

Gogotik bilatzen dugu itzalean berean eta antzokietako alegian giza zoriaren joko tragikoen erakuspenaren ezagutzea.

Ez dugu urrikaldurarik gabe hori entzuten, baina atsegin zaigu gure ezatseginaren iratzartzea gertakari urrikalgarri horien arrarotasunaren bidez. Deusek ez du kilikatzen zimikatzen ez badu. Eta historialari onak itzuri egiten zaizkie, ur lokartuari eta itsaso hilari bezala, narrazio lasaiei, bihurraldi eta gerretara jotzeko, baitakite horretara deitzen ditugula. Zalantzan nago aski zintzoki aitortzen ahal ote dudan neure atsedean eta lasaitasunaren zeinen sari zitalean iragan dudan bizi erdia baino gehiago neure herriko hondamenean. Zuzen harrapatzen ez nauten ezbeharretan, pazientzia sobera ematen dio neure buruari eta, neuri dagokidanez kexatzeko, ez diot hainbat begiratzen kentzen zaidanari baizik eta salbu gelditzen zaidanari, bai kanpoan nola barrenean. Aldamenean zeinatzen eta mehatxatzen gaituzten gaitzetarik itzurtzean bada atsegin zerbait. Horrela, interes publikoaren gaian, neure atxikimendua zenbat eta hedatuagoa orduan eta ahulagoa baita. Gainera, guti gora behera *tantum ex publicis malis sentimus, quantum ad privatas res pertinet*. Abiatzen ginen osasuna, halakoa zen non berak arintzen baitu harengana izan behar genuen oroimina: osasuna zen, baina soilik jarraiki zion eritasunarekin alderatuz. Ez gara oso goratik erori. Duintasun eta ordenan dauden usteldura eta lapurkeria jasangaitzenak iruditzen zaizkit. Segurtasunezko leku batean baino laido gutiagorekin ebasten zaigu oihan batean. Banaka eta elkarren arabera higatuak ziren soinadarren bilera orokor bat zen, gehienak zauri zaharrak baitziren, sendatzerik eskatzen ez onartzen ahal ez dutenak.

Hondamen horrek, beraz, lurreratu baino gehiago sustatu egin ninduen, nire kontzientziaren laguntzaren bidez, berau ez baitzen bakarrik lasaia baina harroa ere; ez nuen neure buruaz zeren kexatzerik. Horrela, nola Jainkoak ez baitie on ez gaitz hutsik gizonei bidaltzen, nire osasuna ohi baino hobeki ibili zen aro hartan; eta, hura gabe ezer ez badezaket, harekin deus guti da nik ez dezakedana. Hark eman zidan nire ahalmen guztien iratzartzeko bidea eta bestela aurrerago joanen zatekeen zauriaren geldiaraztekoa. Eta neure pazientzian frogatu nuen zoriaren aurkako jasankortasunik banuela, eta estriberetarik erorarazteko ukaldi handiagoa behar nuela. Ez diot hau haren kolerarazteko eta oldar azkarragoa egin diezadan. Haren zerbitzaria naiz, eskuak luzatzen dizkiot; Jainkoagatik, askiets dadila! Haren oldarraldiak somatzen ditudanez? Bai. Goibeltasunak zamakatzen dituenek bezala, arteka atsegin zerbait dastatzen baitute eta irribarre bat ihes egiten baitzaie, nik ere aski ahal dut neure gainean neure egoera arrunta lasai eta irudimen aspergarriez gabetu bilakatzeko; baina, halarik ere, jauzika, harrapatzen naute gogoeta atsegin horien ausikiek, kanporatzeko edo borrokatzeko prestatzen ari naizela garaitzen bainaute.

Hona gainerakoaren ondotik gertatu zitzaidan beste gaitz bat. Neure etxeaz kanpoan eta barrenean ere harrapatu ninduen izurrite batek, bortitza beste edozeinekin alderatu eta ere. Zeren gorputz sendoak gaitz garratzagoetara emanak diren bezala, bakarrik horiek bortxatzen ahal baitituzte, horrela nire aire osasungarriak, betidanik kutsadura ez baitzen hor finkatzen ahal, pozoinduz geroz, ondorio arraroak eragin zituen ere.

Mixta senum et juvenum densantur funera, nullum

Sæva caput Proserpina fugit. 415

Neure etxearen ikustea ezatsegin gertatzen zitzaidalako baldintza bitxia pairatu behar nuen. Han dena zainketarik gabe zegoen, nahi zuenarentzat utzirik. Ni, jendearen hartzera hain emana naizena, neure familiaren aterbearen bila ibili behar nintzen; adiskideak eta bere burua beldurrarazten zituen familia bat, egoitzatik aldatu behar baitzen behatz puntako minaz norbait kexatzen zen bezain sarri. Gaitz guztiak izurritetzat hartzen dira; ez da ezagutzeko astirik ere. Arauen arabera, hurbiltzen den arrisku orotan berrogei egun egon behar da gaitz horren kinkan, artean irudimenak alatzten zaitu bere moduz eta zure osasuna bera sukarrean ezartzen du.

Askoz ere gutiago hunkitu izan nindukeen horrek baldin eta besteren nekeaz arduratu eta karabana horretan gidari bezala zerbitzatu behar ez banu. Zeren neure baitan eramaten baititut neure preserbagailuak: erabakia eta jasankortasuna. Irudimenezko beldurrak ez nau doi hertsatzen, gaitz horretan bereziki beldurtzekoa dena. Eta, bakarrik egonik, irudimenezko beldur horrek jo izan banindu, ihesaldi luze eta urrunagoa izanen zatekeen. Ez zait heriotza hori gaizkienetarik iruditzen: laburra ohi da, soraioa, minik gabea, baldintza publikoak arindua, zeremoniarik, dolurik, jendetzarik gabea. Baina inguruko jendeen artean, arimen ehunenekoa ere ez zen salbatzen ahal:

videas desertaque regna

Pastorum, et longe saltus lateque vacantes. 416

Leku honetan nire irabazpiderik hoberena eskuzko langilegoa da: niretzat ehun gizonek lantzen zutenak luzerako antzu gelditu da.

Orduan, bada, zein zen jende honen soiltasunean ikusi ez genuen erabakimenduaren eredia? Eskuarki, bakoitzak uko egiten zion biziaren axolari. Mahats-mordoak, herriko mozkin nagusia, mahastietan zintzilik gelditu ziren; denak prestatzen ziren soraioi heriotzaren zain arrats hartan, edo biharamunean, hain aurpegi eta ahots lasaiekin, non baitzirudien behar hartarako hitzartuak zirela eta kondena orokorra eta itzuriezina zela. Eta hala da beti. Baina hara hiltzeko bermetasuna zein gutitan datzan: ordu zenbaitetako aldeak eta ezberdintasunak eta bakarrik lagungoaren kontsiderazioak heriotzaren gogoeta bestelakatzen digu. Ikus hauek: hilabate berean haurrak, gazteak eta zaharrak

hiltzen badira ere, ez dira harritzen, ez dira negarrez ere. Ikusi ditut azkenerako gelditzeko beldurrez zirenak, bakardade ikaragarri batean bezala; eta ehortzeko axolarik besterik ez zen: gorputzak zelaiaren erdian barreiatu eta berehala ugaltu ziren basapiztientzat utzirik ikusteak nardatzen zituen. (Nola bestelakatzen diren giza ameskeriak: neoritarrek, Alexandrok menperatu herriak, beren hilen gorputzak botatzen dituzte beren oihanetan barrena bazkatuak izan daitezten, beren artean dohatsutzat hartzen den ehorzketa bakarra.) Halako batek, sendo izanik, bere hilobia egiten zuen; beste batzuk etzaten ziren bizirik. Eta nire eskulangileetarik batek eskuez eta zangoez erakartzen zuen lurra bere gainera hiltzearekin batean: gerizatzeko eta gogotikago lotan egoteko? Kaneseke ihardunaldiaren ondoren beraiek egin eta beraien eskuez estali zuloetan burua sarturik eta itorik aurkitu ziren soldadu erromatar haien parekotasunean nolabait ere. Hitz batez, herri oso bat, ohituraren bidez, ezarri zen erabaki estudiatu eta gogoetatu batek baino gogortasun guttiagorik ez duen jarrera batean.

Jakintzak gure sustatzerako dituen irakaspenik gehienek indar baino erakuspen gehiago dute, eta fruitu baino apaindura gehiago. Naturatik lekutu gara eta orain bere irakaspena irakatsi nahi diogu, hain zuzen hain zoriontsuki eta segurki zuzentzen gintuenari. Eta horrela, haren irakaspenaren hondarrak eta, jakinezari esker, gizon zakarren tropan haren iduriaren inprimaturik gelditu den apurra da, hain zuzen, jakintzak beti maileguz hartu behar duena bere ikasleei iraupenaren, errugabetasunaren eta lasaitasunaren eredu egiteko. On da ikustea hain ezagutza ederrez beterik direnek imitatu behar dutela soiltasun ergel hori, eta hori bertutearen lehen ekintzetan, eta gure jakintzak animaliengandik ikasten dituela gure bizitzaren zatirik handienak eta beharrezkoenak: nola bizi eta hil behar dugun, gure ontasunen erabilpena, gure haurren maitatzen, zuzenbidearen egiten; giza gaitzaren lekukotasun berezia. Gure baitan den arrazoiak, egunero ezberdintasun eta berritasun zerbait aurkituz, ez du gure baitan naturaren itxurazko arrastorik batere. Eta hartaz gizonek egiten dute olioaz lurrinegileek bezala: kanpotik ekarri hainbat argudioz eta hitzaldiez apaindu dute non aldakor eta berezi bilakatu baita bakoitzaren arabera, eta bere aurpegi iraunkor eta orokorra galdu baitu, eta animalien lekukotasuna bilatu behar baitugu, zeren ez baitabil fabore, usteldura eta usteen ezberdintasunaren arabera. Zeren, egia bada ere ez doazela beti naturaren bidetik, hain guti da desbideratzen direna non beti ikusten baituzu bide mugagabea. Halaber, eskutik eramaten diren zaldiek jauziak eta ihesaldiak egiten dituzte, baina bridetuz luzeatasunaren arabera eta gidatzen dituen urratsen ondotik; xoria bere haria duenaren gidaritzapean hegan aritzen den bezala.

Exilia tormenta, bella, morbos, naufragia meditare, ut nullo sis malo tryo. Zertarako balio digu giza naturaren eragozpen guztien irudikatzeko jakinahi horrek eta menturaz ez dagozkigun horien kontrako topaketaren prestatzeak? *Parem passis tristitiam facit, pati posse.* Ukaldiak ezezik, haizeak eta puzkerrak ere jotzen gaitu. Edo sukardunen antzera, zeren zinez sukarra baita, jadanik joatea norbere buruaren azotaraztera zeren izaten ahal baita zoriak halako gauza jasanarazi dizula egunen batean, eta Sanjoanetan jantzi larruztatuaren hartzea zeren Eguberrian haren beharra edukiko baitugu? “Gertatzen ahal zaizkizun gaitzen esperientzara jo ezazu, batez ere ezinagokoen esperientziara: froga itzazu, diote, zaildu ezin zaitez hor.” Aitzitik, errazena eta naturalena litzateke horietarik gogoetaren arintzea. Ez dira aski goiz etorriko, haien egiazko izateak ez digu aski iraunen; gure gogoak hedatu eta luzatu behar ditu eta aurretik birbaitaratu eta haietan ihardu, gure zentzuei pisurik aski egin ez baliote bezala. “Pisurik aski izanzen ditek izanzen direnean -dio irakasleetarik batek eta ez alderdi bigun batekoak baina alderdirik gogorrenekoak-. Artean, fabora ezak heure burua; sinets ezak nahi duana. Zertarako balio dik heure zorigaitzaren biltzeak eta aurreikusteak, eta zertarako orainaldiaren galtzeak etorkizunaren beldurrez, eta

zertarako ordu honetan esteiaria izateak denboraren buruan izanen haizelakoan?" Haren hitzak dira⁴¹⁹. Jakintzak fabore flako bat egiten digu gaitzen neurkizunei buruz irakasten,

Curis acuens mortalia corda. ⁴²⁰

Kaltea litzateke haren handitasunaren zati bat gure sentimendu eta ezagutzatik ihes egitea.

Egia da gehienentzat pairamenak baino oinaze gehiago eman duela heriotzarako prestaketak. Behiala egiazki esana da, eta oso egile adimentsu batek: *minus afficit sensus fatigatio quam cogitatio*.

Noizean behin, oraingo heriotzaren sentimenduak berez sustatzen gaitu osoki itzurezina den gauza bati ez itzurtzeko erabakiarekin. Iragan aroan gladiatore anitz ikusi dira, koldarki gudukatu ondoren, heriotza suharki onartzen zutela, beren zintzurra eskainiz burdinari eta etsaia gonbidatuz. Etorkizuneko heriotzaren ikusteak eskatzen du bermetasun iraunkor bat, erdiesteko aski zaila dena. Hiltzen ez badakizu, zaude lasai; naturak irakatsiko dizu bere hartan, osoki eta aski; berak egingen du zehazki eginbehar hori zure ordezt; ez axolarik egin.

Incertam frustra, mortales, funeris horam

Quæritis, et qua sit mors aditura via. ⁴²²

Pæna minor certam subito perferre ruinam,

Quod timeas gravius sustinuisse diu. ⁴²³

Bizia uhertzen dugu heriotzaren axolaz, eta heriotza biziaren axolaz. Batak aspertzen gaitu, besteak ikaritzen. Ez gara heriotzerako prestatzen, sobera istanteko gauza da. Pasiore ordu laurden batek, ondoriorik ez kalterik gabe, ez du arau berezirik merezi. Egiaren esateko, heriotzaren prestakizunen kontra prestatzen gara. Filosofiak manatzen digu heriotzaren edukitzea etengabe begien aurrean, aurrikustea eta gogoetatzea aroa baino lehen, eta gero ematen dizkigu arauak eta axolak aurrikuspen eta gogoeta horrek zauri ez gaitzan. Horrela egiten dute gaitzetara egozten zaituzten sendagileek beren drogak eta bere artea non erabili edukitzeko. Bizitzen jakin ahal badugu, zuzengabe da hiltzen irakastea eta amaiera bere osotasunetik baztertzea. Bizitzen jakin ahal badugu bermeki eta lasai, berdin jakinen dugu hiltzen. Arrandiatuko dira nahi bezainbat: *tota philosopharum vita commentatio mortis est*. Baina nik uste dut amaiera dela eta ez biziaren helburua; bere akitzea da, bere muga, ez horregatik bere xedea; biziaren ikerpen zuzena norbere buruaren arautzea, zuzentzea, pairatzea. Bizitzen jakiteko kapitulu orokor eta nagusi horrek hartzen dituen beste eginbehar askoren artean hiltzen jakiteko artikulu hori da; eta arinenetarik bat da gure beldurak pisurik emanen ez balio.

Erabilgarritasun eta egia hutsaren arabera epaitzekotan, soiltasunaren ikasgaiek ez dute jakintzak irakasten dizkigunek baino gutiago balio; alderantziz. Gizonak ezberdinak dira gustu eta indarretan; eramanak izan behar dira beren onera beren arabera eta bide ezbedinetarik. *Quo me cumque rapit tempestas, deferor hospes*. Ez nuen sekula ikusi neure inguruetako nekazaririk azken ordu hori nola iraganen dueneko gogoetetan sarturik. Naturak irakasten dio heriotzari buruz ez gogoetatzen, hiltzen ari ez bada. Eta orduan Aristotelesek baino grazia gehiago du, heriotzak hura hertsatu baitzuen poliki bai berez eta bai aitzinetik eduki zuen aurrikuspenagatik. Horregatik uste zuen Zesarrek aurreiritzi gutien duen heriotza zoriontsuena eta arinena dela. *Plus dolet quam necesse est, qui ante dolet quam necesse est*. Irudimen horren garraztasuna gure jakinahitik sortzen da. Horrela geure burua oztopatzen dugu, arau naturalak aitzindu eta zuzendu nahian. Doktoreei dagokie behar baino gaizkiago bazkaltzea, sendo egonik, eta heriotzaren irudiarekin ikaratzea. Gehienek ez dute aldia kanpoko arindura ez sendagailurik behar, eta ez dute sentitzen dutenaz goiti gogoetatzen. Ez ote dugu, bada,

esaten jende xehearen zozokeriak eta oharpenik ezak ematen diola oraingo gaitzei buruzko soraiotasun hori eta etorkizuneko ezbehar ilunei buruzko utzikeria zabal hori? Beren gogoa, gantzatiagoa eta motelagoa izateagatik, sartzeko eta inarrosteko gaitzagoa dela? Ala Jainkoa, hala bada, eduki dezagun, hemendik aurrera, zozokeriaren eskola. Hori baita jakintzek agintzen diguten mozkinik gorena, eskola horrek bere ikasleak hain ezтики bertara daramatza.

Soiltasun naturalaren itzultzaile onak eta irakasle onak ez zaizkigu eskasak izanen. Sokrates izanen dugu bat. Zeren, oroitzen naizenez, zentzu honen inguruan mintzatzen baitzitzairen bere biziari buruz epaitzen zuten epaileei: "Beldur naiz, jaunak, ez hilarazteko eskatzen badizuet, neure salatariek egin salakuntzan sartuko naizela, hots, besteak baino adituagoa naizela, gure gainean eta behean dauden gauzei buruzko ezagutza gordeago bat banu bezala. Badakit ez dudala heriotza maiztatu ez ezagutu, ez dut inor ere ikusi haren nolakotasunak dastatu dituenik niri berri emateko. Heriotzaren beldur direnek aitzinetik ematen dute ezagutzen dutela. Neuri dagokidanez, ez dakit zein den, ez zer den beste munduan. Menturaz heriotza axolarik gabeko gauza da, menturaz gauza nahigarria. (Sinestekoa da, hala ere, leku batetik besterako aldaratzea bada, hobekitze bat dela iragan aroko hainbat pertsonaiaekin bizitzera joatea, eta epaile gaizto eta ustelduekin ikuskizunik ez izatea. Gure izatearen suntsipena bada, hobekitzea da ere gau luze eta lasai batera sartzea. Bizitzan ametsik gabeko atsedeen eta lo lasai eta barren bat baino eztiagorik ez dugu sentitzen.) Txarrak direla dakizkidan gauzen egitetik baztertzen naiz: hala nola lagun hurkoaren kalteatzea eta nagusiari, Jainkoa ala gizona den ere, desobeditzea. Txarrak ala onak ote diren ez dakizkidanen gauzei buruz ez naiz beldurrez egoten ahal... Hiltzera baldin banoa eta bizitzen uzten bazaitzuten, bakarrik jainkoek badakite nori doakion hobeki. Beraz, niri dagokidanez, nahi bezala erabaki ezazue. Baina, gauza zuzen eta zuzengabeen aholkatzeko dudak moduari dagokionez, ongi diot, zuen kontzientziagatik, hobe egingen duzuela libratzen banauzue, nik baino urrunago ikusten ez baduzue nire kasu honetan. Eta, nire iraganeko ekintza publiko eta pribatuaren arabera epaituz, nire xedeen arabera, eta egunero nire solasetik gure hiritarretarik hainbatek, bai gazteek nola zaharrek, ateratzen duten mozkinaren arabera, eta guztiei egiten dizuedan fruituaren arabera, duintasunez ez zarete kitaturik gelditzen ahal nire merituari buruz erabakitzen ez baduzue hazia izan nadin, nire pobrezia kontutan harturik, diru publikoaren bizkar, askotan ikusi baitzaitzuten besteei ematen diezuela arrazoi gutiagorekin... Ez ezazue setakeria edo arbuiotzat jo baldin eta, ohiturari jarraikiz, otoika eta urriki eskaka ari ez banaiz. Adiskideak eta ahaideak ditut (Homerok dioen bezala, ez banaiz zuhaitzetik edo harritik sortua) negarrez aritzeko eta doluaren egiteko gai direnak, eta hiru haur ditut zuen urrikiaren erakartzeko. Baina gure hiriko ahalkea litzateke, naizen adinean eta dudak jakintsuaren omenean, hain jokamolde laxoekin jokatzeko. Zer esanen zen beste atenasterrei buruz? Mintzatzen aditu nautenei gaztigatu diet beti ez dela norbere bizia erosi behar ekintza makur baten truk. Eta gertatu naizen neure herriko gerretan, Anfipolisean, Potidean, Delian eta besteetan, ekintzaz erakutsi dut urrundurik nintzela neure segurantzaren bermatzetik neure ahalkearen bidez. Gainera, zuen eginbeharra makurtuko nuke eta gauza laxoetara gonbidatuko zintuzteket; zeren ez baitagokie neure otoitzei zuen sinestaraztea, zuzenbidearen arrazoi huts eta sendoei dagokie. Jainkoei zin egin diezue horrela mantenduko zaretela: emanen luke erantzuki egiten dizuedala jainkoengan ez sinesteagatik. Eta neronek neure buruaren aurkako lekukotasuna emanen nuke behar dudak bezala ez dudalako ere haiengan sinesten, haien jokaeraz mesfidatuz eta ez ezarrit haien eskuetan neure eginkizun hau. Egiazat dut honetan egingen dutela egokiena izanen zaizuen eta zaidana. Oneko jendeek, ez bizirik ez hilik, ez dute zeren izan jainkoen beldur."

Hara argudiamolde idor eta sendo bat baina, jator eta apala den bezainbat ere, goratasun irudiezin batekoa, egiatia, zintzoa eta zuzena eredu oroz gain. Eta zein beharrean erabilia! Egiazki arrazoa zen nahiago izan zezan Lisias elestari handiak prestatu ziona baino lehen, hau zuzenbidezko estiloan bikainki moldatua baitzen baina desegokia hain kriminal noble batentzat. Aditu ote zen ahots otoizle bat Sokratesen ahotik? Bertute bikain hori bere erakuspena baino apalagoa ote zen? Bere izaera jori eta ahaldun hark arteari gomendatu ote zion bere defentsa eta, bere frogarik gorenean, bere mintzoaren apaindurak ziren egiari eta jatortasunari uko egin, ikasi hitzaldi bateko figura eta itxuren gerizaz hornitzeko? Hagitz zuhurki egin zuen, eta bere arabera ere, bizimodu ustelezin eta gizamoldearen irudi hain saindu bat ez ustelduz bere zaharrieraren luzatzeko urte batez eta amaiera ospetsu horren oroimen hilezinaren traditzeko. Ez bere buruari baina munduaren ereduari zor baitzion bere bizia; ez ote zatekeen kalte publikoa molde alfer eta ilun batez amaitu izan balu?

Zinez bere heriotzaren hain kontsiderazio ezaxolati eta bigun hark merezi zuen gerokotasunak berarentzat areago kontsidera zezan: hori da egin zuena. Zuzenbidean ezer ez da hain zuzena nola zoriak bere gomendioz manatzen duena. Zeren atenastarrek halako aiherkundean eduki zituzten horren kausa izan zutenak, non eskomikatupei bezala itzuri egiten baitzitzairen; zikintzat hartzen zen haiek ukitu izan zutena; bainuetan inor ez zen haiekin garbitzen; inork ez zituen agurtzen ez onartzen; eta, hondarrean, gorroto publiko hori ezin jasanez, beren burua urkatu zuten.

Norbaitek uste badu Sokratesen esaerei buruzko neure xede honetarako nituen beste hainbat ereduren artetik gaizki bereizi dudala honako hau, zeren iritzi arruntez gora aurkitzen baita, jakinaren gainean egin dut. Zeren nik besterik epaitzen baitut, eta uste dut mailan eta jatortasunean iritzi arruntez beheiti eta gibelean aurkitzen dela: ausartasun landu gabe eta ergel batean, haur segurtasun batean, erakusten du naturaren lehen irudimen hutsa eta jakin gabea. Zeren sinesgarria baita minaren beldur gaitezkeela, baina ez, heriotza beragatik, heriotzaren beldur: gure izatearen zati bat baita eta ez bizia baino izate gutiagokoa. Zergatik sortuko liguke naturak harenganako gorrotoa eta higuina, ikusiz nola daukan erabilgarritasuneko maila gora batean, bere eginkizunen ondoregoaren eta bilakaeraren hazteko, eta errepublika unibertsal honetan galtzerako edo hondamenerako baino gehiago sortzerako eta ugaltzerako balio duela?

Sic rerum summa novatur. 427

Mille animas una necata dedit. 428

Bizi baten erortzea beste mila bizietarako iraganbidea da. Naturak animaliei eman die beren buruaren eta beren mantenuaren axola. Horrerraino doaz: beren gaizkiagotzearen, erortzearen eta zauritzearen beldur izateraino, eta berdin guk esteka eta jo ditzagun beldurrez dira, beren zentzuei eta esperientzari dagozkien gorabeherak baitira. Baina guk hil ditzagun beldurrez ez dira izaten ahal, ez dute heriotzaren irudikatzeko ez ondoriatzeko ahalmena. Oraindik esaten da pairatzen dutela ez soilik alaiki (zaldirik gehienek irrintzinak egiten dituzte hiltzean, zisneek kantatzen dute) baina bilatzen dutela ere jakinaren gainean, elefanteen eredu askok erakutsi bezala.

Bestalde, Sokrates hemen baliatzen den argudiamoldea ez ote da miresgarria berdin soiltasunean nola indarrean? Zinez, puskaz ere errazagoa da Aristoteles bezala mintzatzea eta Zesar bezala bizitzea, Sokrates bezala mintzatzea eta bizitzea baino. Hor baitatza betetasun eta zailtasunaren ezinagoko maila: arteak ez du hobetzen ahal. Gure ahalmenak ez dira horretarako heziak. Ez ditugu frogatzen ez ezagutzen; besterenez janzten gara, gureak langabezian uzten ditugularik.

Norbaitek ere nitaz esan lezake lore arrotzen xorta bat egin dudala hemen, niregandik bakarrik lotzeko haria ezarri. Zinez publikatu dut apaindura mailegatu hauek lagun ditudalarik. Baina ez dut uste estaltzen eta gordetzen nautenik: neure xedearen

kontrarioa baita, soilik neurea erakutsi nahi baitut, eta jatorriz den neurea; neuregatik, gertatzen zena gertatzen zela, erabat bakarrik mintzatuko nintzatekeen. Baina beti, neure gogo eta lehen moldeaz goiti, zamakatzen dut neure burua mendearen modaren arabera eta besteren ustearen alde. Gaizki etortzen bazait, uste dudan bezala, berdin da: beste norbaiti etortzen ahal zaio ongi. Halako batek Platon eta Homero aipatzen ditu sekula ikusi gabe. Eta nik iturburua ez den beste lekuetarik hartu dut ere. Nekerik ez jakintzarik gabe, idazten dudan leku honetan mila liburu edukiz neure inguruan, orain nahi banu maileguz hartuko nuke horrelako petatxulari dozena batengandik, doi begiztatzen ez dudan jendea baita gero, fisonomiaren tratua apaintzeko zertaz edukitzeko. Aski dut aleman baten hitzaurrea neure burua aipamenez betetzeko; hortik goaz ospe hutsal baten bila, mundu ergelaren engainatzera.

Aipaleloen bildumek, bertan hainbat jendek ikertzen baitu, doi balio dute leloak diren gaietaz; eta balio dute gure buruaren erakusteko, ez gure buruaren zuzentzeko; jakintzaren mozkin irigarria, Sokratesek hain atsegingarriki Eutidemeoren kontra erabiltzen duena. Ikusi dut liburuak egiten direla sekula ikertu eta aditu ez diren gauzei buruz, egileak bere adiskide ezberdinei gomendatuz honako eta harako gaiaren ikerpena, horrekin gero liburuaren eraikitzeke, bere aldetik aski edukiz xedea asmatu baitu eta hornidura ezezagun mukuru hori metatu baitu; tinta eta papera, bederen, bereak dira. Hori, zinez, liburu baten erostea edo maileguz hartzea da, ez egitea. Hori da jendeei irakastea, ez liburu baten egiten dakiela baizik eta, zalantzan izan zezaketena, ez dakiela egiten. Presidente bat arrandiatzen zen nire aurrean bere xederapen presidentzialean berrehun aipamen arrotz metatu zituelako, guztiei esanez uste dut ezabatzen zuela ematen zitzaion ospea. Arrandiakeria hutsala eta zentzurik gabea, nire irudiko, halako gai eta pertsonarentzat. Hainbat maileguren artean kontent naiz baldin eta bakarren bat estaltzen ahal badut, zerbitzu berri baterako moxorrotuz eta birmoldatuz. Menturaz horrela esanarazten dut ez dudala haien adiera naturala ulertu; beti ere, neure eskuko molde bereziren bat ematen dut hain arrotzak izan ez daitezen. Horiek beren lapurketak ezartzen dituzte erakustaldian eta kontuan: horrela nik baino sinesmen gehiago dute legeetan. Naturalak garenok uste dugu asmamenaren ohorea lehentasun handia eta alderagaitza duela aipamenaren ohorearen gain.

Jakintzaz mintzatu nahi izan banu, lehenago mintzatuko nintzatekeen; neure estudioetarik hurbilago zen aroan idatziko nukeen, gogo eta oroimen azkarragoak baintuen; idazteko ofizio egin izan banu, oraingoaz baino gehiago adin horren indarrak fidatuko nintzatekeen. Gainera, zoriak obra honen bidez eskaintzen ahal didan graziazko fabore zerbaitek orduan aurkituko zukeen aro egokiagoa. Nire ezagunetarik bik, ahalmen horretan handiak direnek, erdia galdu dute, nire ustez, berrogei urtetan ez baitute argitaratu nahi, hirurogeien zain egoteko. Heldutasunak bere akatsak ditu, berdetasunak bezala, eta makurragoak ere. Eta zahartzaroa desegokia da eginbehar horretarako beste edozeinerako bezala. Bere zaharreria jendearen aurrean ezartzen duenak erokeria bat egiten du uste badu zoritxarrerria, ameskeria eta motelkeriaren urrinik ez duten gogaldiak erakutsiko dituela. Gure gogoak zimurtzen eta hozten da zahartzearekin. Jakineza ospetsuki eta aberastasunez adierazten dut, jakintza meharki eta eskaski, hau bide nabar eta menturaz, hura garbiki eta nagusiki. Ez naiz zehazki ezeri buruz ari, eta jakinezaz landara ezein jakintzari buruz ere ez. Margotu behar dudan neure bizitza osoki aurrean dudan aroa bereizi dut: gelditzen dena gehiago dagokio heriotzari. Eta, bestee bezala, heriotza mintzoduna aurkituko banu gogotik emanen nioke jendeari haren berri etxetik jalgiz.

Atsekabe dut Sokratesek, nolakotasun handi orotan eredu betea baitzen, hain gorputz eta aurpegi itsusia aurkitu zuelako, dioten bezala, bere gogoaren edertasunari hain desegokia, bera edertasunarekiko hain maitemindua eta zaletua izanik. Naturak

zuzengabe egin zion. Deus ez baita hain egiantzekoa nola gorputzaren eta gogoaren arteko egokiera eta erlazioa. *Ipsi animi magni refert quali in corpore locati sint: multa enim e corpore existunt quae acuant mentem, multa quae obtundant.* Hau⁴³⁰ naturala ez den itsustasun eta soinadarren moldagabekeria batez mintzatzen da. Baina itsustasuna ere esaten diogu lehen begiradari desegokia zaion zerbaiti, gehienetan aurpegian dena eta maiz zio arinengatik atsekabetzen gaituena: kolorea, orban bat, itxura zarpail bat, soinadar ongi antolatu eta osoen baitan den kausa esplikagaitz batengatik. La Boetieren baitan, gogo hagitz eder bat janzten zuen itsustasuna mota horretakoa zen. Azalezko itsustasun horrek, halarik ere hagitz nabarmena delarik, kalte gutiago egiten dio gogoaren egoerari eta segurtasun guti du jendeen ustetan. Bestea, izen egokiago batez moldegabekeria aipatzen dena, mamitsuagoa da, gogotikago jotzen du barreneraino. Ez bakarrik ongi leundu larruzko zapatak, baina ongi egina den zapata orok erakusten du barreneko oinaren moldea.

Sokratesek bere itsustasunaz esaten zuen zehazki salatzen zuela bere gogo, irakaspenaren bidez zuzendu izan ez balu. Baina esatean uste dut burlatzen zela ohi bezala, sekula ez baitzuen hain gogo bikain batek bere burua egin.

Ez dut aski esaten ahal zenbat deritzodan edertasunari nolakotasun ahaldun eta abantailatsua. Berak tirania laburra esaten zion, eta Platonek naturaren lehentasuna. Ez dugu sinesmenean hura gaingitzen duen ezer. Berak badu lehen maila jendeen harremanetan; bera agertzen da aitzinean, gure adimena liluratzen du eta aurriritzia ematen dio ahalmen handi eta irudimen miresgarri batez. Frinek bere auzia galduko zukeen abokatu bikain baten eskuetan baldin eta, bere jantzia zabalduz, bere epaileak usteldu ez bazituzkeen bere edertasunaren distiraz. Eta aurkitzen dut Zirok, Alexandrok, Zesarrek, munduko hiru nagusi horiek ez dutela beren egitekoetan ahortzi. Lehen Eszipionek ere ez. Grekeraz hitz bakar batek besarkatzen du ona eta ederra. Eta Izipiritu Sainduak maiz onak esaten die ederrak esan nahi dienei. Gogotik mantenduko nuke ontasunen maila kantuak zioen arabera, Platonek baitio lelo bat zela poeta zaharren batengandik hartua: osasuna, edertasuna, aberastasuna. Aristotelesek dio ederrari dagokio manatzeko zuzenbidea eta, edertasuna jainkoen irudikoa delarik, agurtasuna ere berdin zor zaiola. Galdegiten zionari zergatik ederrekin egoten ohi zen luze eta maizago esan zion: “Galdera hori soilik itsu batek egin dezake” Filosoforik gehienek beren eskolatzea ordaindu zuten eta zuhurtasuna erdietsi beren edertasunaren bidez eta faborez.

Ez bakarrik zerbitzatzen nauten jendeengan baina abereengan ere edertasuna onesten dut bi behatz ontasunaren azpitik. Eta uste dut aurpegiaren molde eta modu hori, eta barreneko izaera eta etorkizuneko zoriak aztiatzen direla dioten marra horiek ez direla ongi sartzen zuzen-zuzen eta besterik gabe edertasunaren eta itsustasunaren kapituluan. Airearen usain on eta zoharbitasun orok ez du osasunik agintzen ere, ez uhertasun eta kirastasun orok kutsadurarik izurriteen aroan. Andereak salatzen dituztenek beren ohituen bidez beren edertasuna kontraesaten dutelako ez dute beti asmatzen; zeren sobera ongi osaturik ez den aurpegi baten baitan baitagoke zintzotasun eta konfiantzazko aire bat, aitzitik bezala, inoiz irakurri baititut bi begi ederren artean izaera gaizto eta galgarri baten mehatxuak. Badira fisonomia faboragarriak; etsai garaileen oste batean zeurehala hautatuko duzu, gizon ezezagunen erdian, bata bestea baino lehenago, errenditzeko eta zeure biziaren fidatzeko; eta ez hain zuzen edertasuna gogoan duzula.

Aurpegia berme ahula da; hala ere, zerbait kontutan hartzekoa da. Eta azotatu beharko banitu, gogorrigo eginen nituzke naturak kopetan ezarri aginduak gezurtatzen eta traditzen dituztenak: garrazkiago zigortuko nuke maltzurkeria itxurazko ontasun batean. Badirudi badirela aurpegi zoriontsu batzuk, eta beste ezatsegin batzuk. Eta uste dut

badela arte bat aurpegi onak ergelengandik bereizteko, larriak zakarregandik, maltzurak beltzuriengandik, gutiesgarriak goibelengandik, eta horrela hurbil daitezkeen nolakotasunak. Badira ez bakarrik harroak baina oraindik ere zaputzak diren edertasunak; badira beste batzuk eztiak, eta ergelak ere bai. Horietarik etorkizuneko zorien aztiatzea... erabaki gabe uzten ditudan gauzak dira.

Neuri dagokidanez, beste inon esan dudan bezala, soilik eta gordinik hartu dut aitzineko arau hau: hutsik gabe naturari jarraiki behar zaiola, araurik gorena berari egokitzea dela. Ez ditut zuzendu, Sokratesek bezala, neure izaera naturalak arrazoiaren indarrez, eta ez dut inola ere neure aiherra nahastu artearen bidez. Etorri nintzen bezala, neure buruaren joatera uzten dut, ez dut ezer gudukatzen; nire zati nagusiak berez bizi dira bakean eta adostasunean; baina nire hazkundeko esnea izan da, Jainkoari esker, berdin sendoa eta epela.

Hau ere esanen dut bidenabar: balio duen baino onetsiagoa ikusten dudala gure artean erabiltzen den kasik bakarra, ontasun eskolastikoaren irudi bat, arauen neskamea, esperantzaren eta beldurraren azpian bortxatua. Ez dut maite legeek eta erlijioek egiten dutena baina osatzen eta bermatzen dutena, berez zutik dagoena, gure baitan bere erroetarik sortua, desnaturaldurik ez den lagun ororen baitan arrazoi unibertsalaren hazitik datorrena. Arrazoi horrek, Sokrates bere aihar biziosotik zuzentzen duenak, bere hirian manatzen duten gizon eta jainkoekiko manukor bilakatzen du eta heriotzan kuraiatsua, ez bere arima hilezina delako baina bera hilkorra delako. Erlijiozko sinesmena, bakarrik eta ohiturarik gabe, jainkozko zuzenbidaren betetzeko aski dela jendea sinestarazten dien irakaspena gobernamolde orotan hondagarria da, eta argia eta sotila baino gehiago kaltegarria ere. Erabilerak erakusten digu ezberdintasun ikaragarri bat debozioaren eta kontzientziaren artean.

Badut itxura faboragarri bat bai moldean nola itzulpenean,

Quid dixi habere me? Imo habui, Chreme! ⁴³¹

Heu tantum attriti corporis ossa vides, ⁴³²

Sokratesen itxurak egiten zuenaren kontrarioa egiten duena. Maiz gertatu baitzait, neure itxura eta airearen sinesmena hutsagatik, neure ezagutzarik ez zuten jendeak osoki fidatu zaizkidala, bai beren egitekoentzat eta bai neureentzat ere; eta herri arrotzetan fabore berezi eta arraroak erdietsi ditut. Baina bi esperientzia horiek merezi dute, menturaz, bereziki aipa ditzadan.

Morroi batek erabaki zuen ni eta nire etxea harrapatuko zuela. Bere modua izan zen bakarrik nire atera iristea eta sarreraren eskatzea; izenaz ezagutzen nuen eta banuen hartaz fidatzeko motiburik, nire auzokidea eta inola ere alderdikidea bezala. Irekiarazi nion atea, bakoitzari egiten diodan bezala. Hara osoki ikaraturik, zaldia arnasaz kanpoan, gogorki lehertua. Alegia hau esan zidan: "Handik lekoa erdi batera bere etsai batekin, nik ere ezagutzen nuen eta beren arteko liskarraz aditua neukan, topatu zela; etsai horrek lasterkarazi zuela izigarri eta, uste gabean gertatuz eta kopuru eskasagokoa izanik, nire atera jo zuela aterbe bila; pena handia zuela beren jendeengatik, baitzion hiltzat edo harrapatutzat zeuzkala." Xaloki entseiatu nintzen arintzera, lasaitzera eta freskatzera. Handik labur, hara agertzen direla bere soldaduetarik lauzpabost, itxura eta ikara berean, sartu nahian; eta gero beste batzuk, eta geroago gehiago, ongi hornituak eta armatuak, hogeita bost edo hogeita hamar izan arte, denek etsaia orpoetan zutelakoan. Misterio hori hasi zitzaidan gogoan behartzen. Banekien zein arotan bizi ginen, neure etxea bekaitzak joa zitekeela, eta neure ezagutzako askoren adibidea nuen, gauza bera gertatu baitzitzaien. Baina aurkituz ez nuela irabaztekorik batere amaiera arte bururatzen ez banuen, eta dena hautsi gabe ez bainintzen baztertzan ahal, utzi nuen neure buraren joatera alderdirik natural eta errazenera, beti bezala, manatuz sar zitezen. Horrela, egiazki, jatorriz guti mesfidatia eta asmo txarretara guti emana naiz; gogotik

jotzen dut aitzakiaren eta itzulpen eztiagoaren aldera; jendeak hartzen ditut modu arruntaren arabera eta, lekukotasun azkar batek beharturik ez banaiz, ez dut aiherriz eta desnaturalduen baitan sinesten, ez mustro eta mirakuluetan baino gehiago. Bestalde zoriari gomendatzen zaion eta osorik haren besoetara egozten den gizona naiz. Horregatik, orain arte, kexatzeko baino aukeraldi gehiago izan dut eskertzeko; zoria aurkitu baitut neronei naizen baino argiagoa eta neure egitekoen aldekoa. Nire bizian izan dira ekintza batzuk, bururatzeko zailak edo, nahiago bada, zuzengaitzak; horietarik berorietarik ere emazu herena neurea izan dela eta garaitiko bi herenak zoriarenak. Huts egiten dugu, uste dut, geure burua ez baitugu aski zeruaren baitan fidatzen, eta geure zuzendaritzarentzat nahi baitugu dagokiona baino gehiago. Horregatik desbideratzen dira hain maiz gure xedeak. Zerua jelosoa baita giza zuhurtziaren zuzenbideei ematen diegun hedaduragatik, bere zuzenbideen kaltetan, eta guk zabaldu bezainbat hark moztu dizkigu.

Haiek, bada, zaldiz zeuden nire larrainean, buruzagia nirekin nire egongelan, ez baitzuen nahi bere zaldia bazkatua izan zedin, esanez eta berehala joan behar zuela bere jendeen berri izan bezain laster. Bere burua ikusi zuen bere eginkizunaren jabe, soilik bururatzeko falta zitzaion. Maiz esan du gero, zeren ez baita kontu horren aipatzeko beldur izan, nire aurpegiak eta nire xalotasunak tradiketa eskuetatik kendu ziotela. Berriz zaldiaren gainera igon zen, bere jendeek etengabe begiak haren gainean zituelarik ea zein keinu egiten zuen, eta arras harriturik gelditu ziren ikusiz abiatzen zela eta bere abantaila uzten zuela.

Beste behin, gure armadetan ezarri berri zen ez dakit zein tregoz fidaturik, bidaia batera abiatzen nintzen, biziki arriskutsua zen herri baten barrena. Abiatu berri nintzelarik hara hiruzpalau zaldizko-talde leku ezberdinetarik datozela nire harrapatzera; hirugarren egunean oldartua izan nintzen hamabost edo hogeitasei aitoren seme mozorrotuk, atzean arkulari osteko bat zutelarik. Hara, bada, harrapatua eta errendatua, ondoko oihan batera baztertua, ebatsia, nire kuxkak nahastuak, poltsa eramana, zaldiak eta puskak jabe berrien artean banatuak. Sasi hartan luzaz eztabaidatu genuen nire ordainaren gain, hain gora ezarri zidatena non baitzirudien ez nindutela ezagutzen. Hasi ziren nire biziaren gain eztabaidatzen. Zinez, gorabehera askok mehatxatzen ninduten nengoen arrisku hartan.

Tunc animis opus, Aenea, tunc pectore firmo. 433

Etengabe tematu nintzen, nire tregoa hura zela eta, emanen niela soilik nire ebasketaz egin zuten irabazpidea, ez baitzen gutiestekoa ere, beste ordainaren agintza gabe. Horretan bizpahiru orduz egon eta haiengandik ihes egin ez zezakeen zaldi baten gainera igonarazi ondoren, nire zainketa berezia hamabost edo hogeitasei arkabuzlariei eman zitzaion eta nire jendeak besteen eskuetan gelditu ziren, bide ezberdinetarik eraman behar baizintzuten, eta handik bizpahiru arkabuzkadarara nintzelarik,

Jam prece Pollucis, jam Castoris implorata, 434

hara gogoratzen zaiela bat-bateko eta uste gabeko aldaketa bat. Ikusten dut neure aldera datorrela beren buruzagia hitz eztiagoekin, hasten da ostearen erdian nire puska banatuen bila, eta itzularazten dizkit ahal zen neurrian, nire kutxa ere bai⁴³⁵. Egin zidaten oparirik hoberena nire libertatea izan zen; garaitikoa kasik berdin zitzaidan aro hartan. Ekintza gogoetatu eta aitzinetik prestatu batean, eta ohituraren bortxaz zuzen bilakatua ere (zeren hasieratik aitortu bainien zein alderdikoa nintzen, eta nora nindoan), ezein itxurazko motiborik gabeko hain aldaketa berriaren eta, halako aroan, hain damutze miresgarriaren egiazko zioa, egiazki, oraindik ez dakit ongi zein izan zen. Nabarmenenak, mozorroa kendu baitzuen eta bere izena esan baitzidan, errepikatu zidan anitz aldiz librakuntza hori neure aurpegiari zor niola⁴³⁶, eta nire hitzen libertateari eta

segurtasunari, halako zorigaitzerako desegoki bilakatzen nindutenak, eta eskatu zidan labore berdin baten bermea. Izaten ahal da jainkozko ontasunak baliatu nahi izan zuela tresna hutsal hartaz nire iraupenerako. Biharamunean berak defendatu ninduen beste oldarpen makurragoetarik, haiek beraiek gaztigatu zizkidatenak. Azkena oraindik zutik dago, kontuaren egiteko; lehena hil zuten, aspaldi ez duela⁴³⁷.

Neure aurpegiak ez balu neure ordeaz erantzun, neure begietan eta neure ahotsean irakurriko ez balitz neure xedearen soiltasuna, ez nukeen liskarrik ez laidorik gabe hain luzaz iraunen, zuzen edo makur irudimenera datorkidan guztiaren esateko libertate nabarmen honekin eta gauzei buruz hain ausarki epaitzen. Molde honek arrazoiarekin eman dezake jendetasunik gabea eta desegokia gure ohituran; baina ez dut inor ikusi laidogarria eta maltzurra epaitu izan duenik, ez nire libertateagatik sumindu denik nire ahotik errezibitu izan badu: hitz errepikatuak badute, beste hots bat bezala, beste zentzu bat. Ez dut inor gorrotatzen ere; eta laidotzatzeko ere hain motela naiz non ez baitezaket egin arrazoiaren zerbitzutan bada ere. Eta aukeraldiak kondena kriminaletara gonbidatu nauenean, huts gehiago egin diot zuzenbideari. *Ut magis peccari nolim quam satis animi ad vindicanda peccata habeam.*

Aristotelesi erantzuki egiten omen zitzaion urriki sobera izan baitzuen gizon gaizto baten alde. “Egiazki urrikalkorra izan naiz gizonaren alde, ez gaiztakeriaren alde.” Epaiaketa arruntek mendeku aldera jotzen dute krimenarekiko higuinagatik. Horrek berorrek hoztu du nirea: lehen hilketaren higuinak bigarren baten beldurra sortzen dit, eta lehen krudelkeriaren aldeko gorrotoak bere imitazio oro gorrotarazten dit. Niri, kartetako txankoa bakarrik naizen honi, egokitzen ahal zait Karilo Espartako erregeri buruz esaten zena: “Ez liteke ona izan, gaiztoekin ez baita gaiztoa”. Edo honela, Plutarkok bi moduetan agertarazten baitu, beste mila gauza bezala, ezberdinez eta alderantziz: “Ona izan behar da, gaiztoekin era hala baita” Atsekabetzen naiz ekintza zuzenez baliatzeagatik onartzen ez dituztenen kontra eta, halaber, egiaren esateko, ekintze zuzengabeez baliatzeagatik onartzen dituztenen kontra ere.

XIII

Esperientziak

Ezagutzeko nahia baino naturalagorik ez da. Hara eraman gaitzaketen bide guztietan entseiatzen gara. Arrazoiak eskas dugunean, esperientziak baliatzen gara,

Per varios usus artem experientia fecit:

Exemplo monstrante viam, ⁴³⁹

bide ahulagoa eta apalagoa dena; baina hain gauza handia dugu egia non ez baitugu hara garamatzan baliabiderik batere gutiesten ahal. Arrazoiak hainbat molde ditu non ez baitakigu zeini atxiki; esperientziak ez du gutiago. Gertakarien antzekotasunetik atera nahi dugun ondorioa segurantzarik gabea da, zeren beti baitira ezberdinak: gauzen irudian ez da ezberdintasuna eta aniztasuna baino nolakotasun unibertsalagorik. Grekoak, eta latinoak, eta guk ere, antzekotasunaren eredurik adierazkorrena bezala arraultzeenaz baliatzen gara. Hala ere, aurkitu izan dira lagunak, eta bereziki bat Delfosen, arraultzeen arteko ezberdintasunak ezagutzen zituenak, sekula ez baitzuen bat bestetzat hartzen; eta oilo asko badira arraultzea zeinena den dakitenak. Ezberdintasuna berez sartzen da gure ekintzetan; ezein arte ez da berdintasunera iristen ahal. Ez Perrozetek ez inork ez ditu kartetako gibeletako aldea hain ongi leuntzen eta zuritzen ahal non jokalaria zenbaitek ez baitituzte bereizten ahal soilik besteren eskuetan nahasten ikustearekin. Berdintasunak ez du ezberdintasunak bezainbat egiten. Naturak ez du bere burua behartu baizik eta gauza ezberdinen egitera.

Horregatik ez zait atsegin legeen ugaritasunak epaileen ahalmena, beren eremuak moztuz, bridatuko zuela uste zuenaren iritzia⁴⁴⁰: ez zen ohartzen legeen itzulpenean badela beren moldean bezainbateko libertatea eta hedadura. Eta, Bibliako hitz adierazia

oroitaraziz, gure eztabaidak laburtuko eta geldituko dituztela uste dutenak burlatzen dira. Besteren zentzuaren itzultzeko ez baitu gure gogoak berearen erakusteko baino zabaltasun gutiagoko eremurik aurkitzen. Asmatzean baino areriotasun eta garraztasun gutiago esplikatzean balitz bezala. Badakusagu zenbat engainatu zen. Zeren Frantzian baitugu beste mundu osoan diren eta Epikuroren mundu guztien arautzeko beharko liratekeenak baino lege gehiago, *ut olim flagitiis, sic nunc legibus laboramus*; eta gainera, iritzi egiteko eta erabakitzeo hainbat utzi diegu epaileei non sekula ez baitzen beraiena baino libertate ahaldunagorik eta nabarmenagorik. Zer irabazi dute gure lege-egileek ehun mila ekintza partikular mota bereizten eta beraiei ehun mila lege egokitzen? Zenbaki horrek ere ez du giza ekintzen ezberdintasun mugagabearekin ikuskizunik batere. Gure asmamenen ugaltasuna ez da ereduaren aniztasunera iritsiko. Gehi itzazu beste ehun: horregatik ere, etorkizuneko gertakarien artean hutsik gabe gertatuko da hautatu eta zerrendaratu mila gertakari horiei egokitzen ahal ez zaizen eta neurkizun eta epaiketa berezi behar duena. Gure ekintzek, etengabeko aldaketan egonik, erlazio guti dute lege finkatu eta mugiezinekin. Legerik onesgarrienak arraroenak, soilenak eta orokorrenak dira; eta oraindik uste dut hobe litzatekeela batere ez edukitzea daukagun honelako kopuruaren edukitzea baino.

Naturak egunero ematen ditu guk ematen ditugunak baino hobeak. Poeten urrezko aroaren deskribapena lekuko, eta naturalak bakarrik dituzten herrien egoera. Eta badira, gure epaileen orde, beren auzietan beren mendietan barrena bidaiatzen duen lehenbizikoaz baliatzen direnak. Eta beste batzuek merkatu egunean beren arteko edozein hautatzen dute, bertan beren auzi guztiak erabakitzen dituenak. Zer arrisku ote litzateke jakintsuenek ere modu berean gureak erabakiko balituzte, gorabeheren arabera eta begiz jotzen, ereduaren ez ondorioaren beharrik gabe? Oin bakoitzarentzat bere zapata. Fernando erregek, Indietara maizterrak bidaliz, zuhurki debekatu zuen ez zitezen zuzenbidezko eskolatuak eraman, mundu berri horretan auziak sor beldurrez, berez liskarra eta zatiketa dakarren jakintza baita; Platonekin batean uste izanez lege-gizonen eta sendagileen hornidura gaiztoa dela herri batentzat.

Zergatik bilakatzen da gure mintzaira arrunta, beste erabilera orotan hain erraza, kontratu eta testamentuetan ilun eta ulergaitz, eta hain garbiki adierazten denak, ahoz ala idatziz bada ere, ez du horretan zalantza eta kontraesanean erortzen ez den adierazpenik aurkitzen? Arte horren printzeek, arreta bereziz hitz hanpatuen bereizpenari eta esaldi artistikoen moldatzeari loturik, hainbat pisatu dute silaba bakoitza, hainbat bihurtatu juntagailu bakoitza, hain nahasiak eta korapilatuak dira figuren mugagabetasunean eta zatiketen xehekerian, non ez baitira ezein arauditan ez adimen segurutan sartzen ahal. *Confusum est quidquid usque in pulverem sectum est*. Zilarbizi tanta bat molde berezi batean ezarri nahi duten haurrek bezala: zenbat eta gehiago hertsatzen eta oratzen orduan eta gehiago zirikatzen baitute metal eskuzabal horren libertatea: itzuri egiten zaio haien moduari eta kontu guztiez urrunago badoa xehakatzen eta apurtzen. Berdin da, zeren, sotilezien azpizatiketari, gizonei zalantzen berretzea irakasten baitzaie; hasten gara zailtasunak hedatzen eta ezberdintzen, zabaltzen eta barreiatzen ditugu. Auziak ereinez eta zabalduz, munduan fruitu eta uzta zalantzetan eta liskarretan eginarazten da, lurra emankorragoa egiten den bezala gehiago landuz eta sakonkiago erabiliz. *Difficultatem facit doctrina*. Zalantzak ditugu Ulpianoren gain, are gehiago Bartolo eta Baldoren gain⁴⁴⁴. Usteen ezberdintasun zenbatezin horren bidea apaindu eta gerokotasunari eman beharrean, ezabatu beharko litzateke.

Ez dakit horri buruz zer esan, baina esperientziaz nabari da hainbat itzulpenek egia galtzen eta hausten dutela. Aristotelesek idatzi du ulertua izateko; ahal ez badu, are gutiago eginen du argi gutiago duen batek eta bere irudimenari buruz ari den hirugarren

batek. Gaia zabaltzen eta barreiatzen dugu; gai batetik mila egiten ditugu, eta ugalduz eta azpizatikatuz arrerortzen gara Epikukoren atomoen mugagabetasunean. Sekula ez zuten bi lagunek berdin epaitu gauza bati buruz, eta ezinezkoa da zehazki berdinak diren bi iritziren ikustea, ez bakarrik lagun ezberdinen baina lagun berarengan ordu ezberdinetan. Eskuarki, zalantzarria aurkitzen dut azalpenak iharduki nahi izan ez duena. Errazago behaztopatzen naiz zelaietan, ezagutzen ditudan zaldi batzuk bezala, maizago entrabatzen baitira bide zabalean.

Nork ez du, bada, esanen glosek zalantzak eta jakineza berretzen dituztela, ez baita ezein liburuan ere ikusten, izan dadin giza- ala jainkozkoa, itzulpenak zailtasuna akitzen duela? Ehungarren komentarioak bere hurrengora bidaltzen du, lehengoa baino arantzatsu eta malkarragoa baita. Noiz finkatu da gure artean: liburu honek aski du, gaurgero ez da gehiago esaterik? Hobeki ikusten da hau auzietan. Doktore, sententzia eta itzulpen zenbatezinei ematen ohi zaie manu-indarra. Amaiera aurkitzen ote diogu itzultzeko beharrari? Ikusten ote da lasaitasunaren aldeko aurrerapen zerbait? Zuzenbide-mukuru hau bere lehen haurtzaroan zenean baino abokatu eta epaile gutiago behar ote dugu? Aitzitik, adimena iluntzen eta nahastekatzen dugu; gaurgero ez dugu bereizten hainbat hesi eta trabaren azpian. Gizonek ez dute beren gogoaren eritasun naturala ezagutzen: bila eta xerka ari dela eta etengabe bihurdikatzen, estekatzen eta entrabatzen dela bere beharrean, gure setazko harrak bezala, eta bertan itotzen dela. *Mus in pice* Urrundik iruditzen zaio bereizten duela ez dakit zein argitasun eta ameskeriazko egiaren itxura; baina doan artean, hainbat zailtasun, oztopo eta galdera berri agertzen zaizkio bidean non berauek galtzen eta zoratzen baitute. Esoporen zakurrei gertatu bezala, gorputzezko itxura zerbait itsasoan zegoela ikusiz, eta hari ezin hurbilduz, erabaki zuten uraren edatea eta iraganbidearen idortzea, eta beren hartan ito ziren. Horren antza du ere Kratesek Heraklitoren idazkiei buruz zioenak, “igerilari-irakurle on bat behar zuela”, haren irakaspenaren barrentasunak eta pisuak irents eta ito ez zezan.

Ezagutzaren ihizi horretan, beste zenbaitek edo guk aurkitu dugunaz askiestarazten gaituena ahulezia da; argiago den bat ez baita horretaz askietsiko. Beti bada hurrengo batentzat lekuri, eta guretzat ere bai, eta beste inondikako biderik ere bai. Ez da helbururik gure ikerpenetan; gure helburua beste munduan da. Gogozko laburkeriaren ezaugarria da askiesten bada, edo nekaduraren ezaugarria. Ezein gogo eskuzabal ez baita bere baitan gelditzen: beti nahi du eta badoa bere indarrez urrunago; bere ahalez urrunago xederatzen da; aitzinatzen eta ahalegintzen eta gibelatzen eta behaztopatzen ez bada, erdizka besterik ez da bizirik; bere bilak mugarik eta molderik gabeak dira; bere janaria mirespena, ikerpena eta zalantza dira. Apolok aski garbi adierazten zuena, beti mintzatzen baitzizaigun bikoitz, ilun eta zeharka, ez asetuz baina solastatuz eta behartuz. Araurik gabeko mugimendua da, etengabea, eredurik ez xederik gabea. Bere asmenak elkarrekin berotzen, lotzen eta sortzen dira.

Errekan hala ikusten da

Urak elkarren ondotik doazela,

Lerro bakarrean, betiereko bidean

Elkarretara bilduz, elkarri itzuriz.

Honek hura bulkatzen,

Hark beste hau gainditzen:

Beti ura uretan, beti erreka berean

Beti ur ezberdina ⁴⁴⁶

Gauzen itzultzean baino eginkizun gehiago bada itzulpenen itzultzean, eta beste edozein gairi buruz baino liburu gehiago liburuei buruz: elkarren esplikatzear baizik ez baitugu egiten.

Komentarioak mukuruka eta egileak eskas dugu.

Gure mendeetako jakintzarik gorena eta ospetsuena ez ote da jakintsuen ulertzen jakitea? Hori ez ote da gure estudioen xede arrunta eta azkena?

Gure usteak elkarren gainera hedatzen dira. Lehenak oinarritzat balio dio bigarrenari, bigarrenak hirugarrenari. Horrela bagoaz goiti mailaz maila. Hortik gertatzen da goratuenak meritu baino ohore gehiago duela; zeren doi pikor bat goratu baita azkenaurrekoaren gainean.

Zein maiz, eta menturaz zozoki, eraman dudan neure liburua bere buruaz mintzatzeraz! Zozoki; ez balitz ere zeren oroitu behar bainintzen gauza bera egiten duten besteez diodanaz: “bere obrari hain maiz egin begirada horiek harenganako maitasunagatik bihotza ikaran dutelako lekukotasuna dira, eta zuzentzen dizkioten zakarkeri gutiesgarriak era amazko maitasun baten melengakeriak direla soilik”, Aristotelesi jarraikiz, haren arabera nork bere buruaren goreslea eta gutiestea harrokeriaren itxura beretik sortzen baitira. Zeren ez baitakit inork ere onartuko ote duen neure aitzakia: besteez baino libertate gehiago izan behar dudala ageriki neure buruari buruz eta neure idazkiei buruz neure beste ekintzei buruz idazten baitut eta horregatik neure gaia bere baitara itzultzen dela.

Alemanian ikusi dut Luterok izkribu sailduen gainean sortarazi zituen baino are zalantza gehiago utzi duela bere iritzien gainean. Gure eztabaida hitzezkoa da. Galdegiten dut natura, atsegin eta zirkulu zer diren: hitzezko galdera, hitzez ordaintzen dena. Harri bat gorputz bat da. Baina galdegiten duenak: “Eta zer da gorputz bat? – Gaia- Eta gaia zer da?” hondarrean eramanen du erantzuten duena bere hiztegiaren amaieraino. Hitz bat beste batez ordezkatzeko da, askotan ezezagunago batez. Animalia edo hilkorra edo arrazoigarria baino hobeki dakit gizona zer den. Zalantza baten asetzeko hiru ematen dizkirate: Hidraren⁴⁴⁷ burua da. Sokratesek Memoni galdegiten zion bertutea zer den: “Bada, zioen Memonek, gizonaren eta emakumearen bertutea, epailearen eta lagun pribatuarena, hauraren eta zaharrena.-Hara zeinen ongi! zioen Sokratesek: bertute baten bila ginen eta horra bilduma bat” Galdera bat egiten dugu eta galdera andana bat bihurtzen zaigu. Ez da beste bat osoki bezalakoa den gertakariarik ez molderik batere, eta halaber ez da osoki ezberdintzen denik. Gure aurpegiak antzekoak ez balira, ez litzateke gizona animalia gandik bereizten ahal; ezberdinak balira ez lirateke gizonak elkarrengatik bereizten ahal. Gauza guztiek daukate elkarren antz bat, adibide oro maingua da, eta esperientziatik ateratzen den erlazioa akasdua eta osatu gabea da beti; hala ere, konparaketak elkargarriak dira beti muturren batetik. Horrela balio dute legeek eta horrela egokitzen zaizkio gure egitekoetarik bakoitzari: itzulpen desbideratu, bortxatu eta zeharkatu baten bidez.

Ikusten dugun bezala, lege etikoak, bakoitzaren baitako eginbeharrari dagozkionak, hain finkatzeko gaitzak baitira, ez da mirestekoa hainbat partikular gobernatzen dituztenak areagoak badira. Gogoan har ezazu gobernatzen gaituen zuzenbidearen moldea: giza ergelkeriaren egiazko lekukotasun bat da, hainbat kontraesan eta huts baita bere baitan. Zuzenbidean aurkitzen dugun faborea eta zigorra, eta hainbat aurkitzen dugu non bien artekorik ez baita kasik ezer aurkitzen, zuzenbidearen gorputzaren eta izatearen zati eriak eta atal zuzengabeak dira.

Lehia gorrian, nekazari batzuek ohartarazi berri didate nire oihan batean utzi dutela ehun ukaldiz zauriturik den lagun bat, oraindik arnasetan eta urrikariz ura eta sendatzeko laguntza eskatu diena. Badiote ez direla harengana hurbiltzera ausartu, zuzenbideko jendeek har ditzaten beldurrez eta, lagun hil baten ondoan aurkitzen direnekin egiten den bezala, ezbehar horren erantzuleak gerta ez daitezen beren hondamen osorako, ez baitute jakintzarik ez dirurik aski beren errugabetasunaren defendatzeko. Zer esan niezaieke? Egia da gizatasunezko eginbehar horrek neketan ezarriko zituzkeela.

Zenbat errugabe aurkitu ditugu zigortuak izan direnak, epaileen kulparik gabe diot; eta zenbat dira aurkitu ez ditugunak? Hau nire aroan gertatu da: batzuk heriotzera kondenatuak izan dira hilketa batengatik; sententzia, esana ez bazen, bururatua eta emana zen. Hein horretan, aldameneko epaitegi bateko ofizialek ohartarazten diete epaileei preso zenbait dituztela, hilketa hori aitortzen dutenak, eta ekintza horri zalantzarik gabeko argi bat dakarkiot. Eztabaidatzen da ea horregatik lehenen kontra eman den sententziaren gauzatzea eteten eta atzeratzen ahal den. Gogoan hartzen da ereduaren berritasuna eta haren ondorioa epaiketen oztopatzeko; erabakitzen da kondena iragana dela zuzenbidearen aldetik eta epaileak damurik gabe izan behar direla. Hitz batez, gaizo horiek zuzenbidearen formulei sakrifikatzen zaizkie. Filipok, edo beste norbaitek, hori bezalako oztopo bat honela bideratu zuen: epaiketa erabaki baten bidez, gizon bat kondenatu zuen beste batenganako ordainketa handietara. Gero egia agertu zen, eta aurkitu zen gaizki epaitua zela. Alde batetik auziaren arrazoia zen, bestetik zuzenbidezko moldeen arrazoia. Nolabait ere biak askietsi zituen: sententzia bere hartan utzi zuen eta bere poltsatik ordaindu zuen kondenatuaren interesa. Baina antolagarria zen ezbehar baten egitekoa zen; nireak ordainik gabe urkatuak izan ziren. Zenbat kondena ikusi ditut krimena baino kriminalagoak?

Honek guztiak oroitarazten dizkit aitzineko uste hauek: xehetan makur egin behar duela handitan zuzen egin nahi duenak, eta gauza txikietan zuzengabea handitan zuzenbidearen egiteko ahaldu bilakatu nahi duenak; giza zuzenbidea sendagintzaren eredu moldatua dela, haren arabera onuragarria den oro zuzena eta zintzoa baita ere; eta estoikoek diotena, naturak berak zuzenbidearen kontra jotzen duela bere egitekorik gehienetan; eta zirenaikoek diotena, berez ez dela ezer zuzen denik, ohiturek eta legeek zuzenbidea egiten dutela; eta teodoriarrek sostengatzen dutena, zuhurraren baitan zuzena aurkitzen dutela ebasketa, sakrilegioa, eta soberakeria guztiak, berak onuragarriak zaizkiola uste badu.

Ez da erremediorik. Banago, Altzibiades bezala, ez natzaiola inoiz agertuko, ahal badut, neure buruari buruz erabaki dezakeenari, neure errugabetasunean baino gehiago neure ohorea eta bizia neure abokatuaren trebetasunean eta axolan baitaude. Ongi eta gaizki egina ezagutuko lidakeen eta esperantza bezainbat beldur eragin lidakeen zuzenbidera arriskatuko nintzateke. Kalterik eza ez zaio ordainketarik aski hutsik ez egin baino gehiago egiten duen lagunari. Gure zuzenbideak bere eskuetarik bat bakarrik erakusten digu, eta ezkerrekoa. Nornahi ere den, hortik galerarekin ateratzen da.

Txinan, erresuma hartako gobernuak eta moldeek, gureen berri izan gabe, gure ereduak gaituzten baitituzte alderdi askotan, hango historiak irakasten baitit nola mundua antzinako jakintsuek eta guk uste baino zabalagoa eta ezberdinago dela, Txinan diot, printzeak bere probintzietako egoeraren aztertzeke igorri ofizialek, beren karguan gaizki ari direnak zigortzen dituzten bezala, eskuzabalik sariztatzen dituzte ere ongi ari direnak, zori arruntaz eta bere eginbeharraz goiti. Zuzenbidearen aurrera agertzen ohi da, ez bakarrik defendatzeko, baina erdiesteko ere, ez bakarrik ordaindurik izateko baina sariztaturik izateko ere.

Ezein epaile ez zait oraindik, Jainkoari esker, epaile bezala mintzatu, zernahi auzirengatik bada ere, nirea edo besterena, kriminala edo zibila. Ezein gartzelak ez nau hartu. Irudimenak haren ikustea bera, kanpotik bada ere, ezatsegin bilakatu dit. Libertatearekiko hain gose naiz, non Indietako zokoren baterako bidea debekatuko balitzait ez bainintzateke jada hain ongi biziko. Beste inon lur edo aire zabalik aurkitu bitartean ez naiz neure burua gorde behar dudana lekuan makurtuko. Ala Jainkoa! Zeinen gaizki jasanen nuke ikusten ditudan hainbat jenderen baldintza, erresuma honetako eskualde bati estekatuak, hiri nagusietako eta gorteetako sarrerarik eta errepideen erabilerarik gabe, gure legeak hausteagatik! Zerbitzatzen ditudanek behatz puntarekin

bakarrik mehatxatuko banindute, laster joanen nintzateke beste batzuen bila, edonora ere. Nire zuhurtasun xume guztia, gauden gerra zibil hauetan, entseiatzen da legeek nire joateko eta etortzeko libertatea eten ez dezaten.

Bada, legeen sinesmenak badirau, ez zuzenak direlako, baina legeak direlako. Haien manu-indarraren funts mistikoa da; besterik ez dute. Eta aski dute. Maiz ergelek eginak dira, maizago ere berdintasunarekiko gorrotoagatik zuzentasunik ez duten jendeek, eta, beti ere, gizonek eginak, hots, egile hutsalak eta zalantzarriak.

Legeak baino hutsegile dorpeagorik, zabalagorik eta arruntagorik ez da. Zuzenak direlako obeditzen zaiena ez zaie, hain zuzen, behar duenagatik obeditzen. Gure lege frantsesek, beren desarautze eta moldegabekeriagatik, eskua ematen diete beren ematean eta gauzatzean ikusten den nahaste eta usteldurari. Manua hain uherra eta aldakorra da non inola ere aitzakia ematen baitie desobedientziari eta legeen egitean eta betetzean gertatzen den itzulpenaren bizioari. Esperientziatik zernahi fruitu ateratzen badugu ere, kanpoko ereduatarik erdiesten dugunak ez du sobera balioko gure irakaspenarako, geure buruagandik daukagunetik hain mozkin eskasa egiten baitugu; eta hau hurbilagoa zaigu eta zinez behar dugunerako irakasteko aski.

Neure burua ikertzen dut beste ezer baino gehiago. Nire metafisika eta nire fisika da.

Qua Deus hanc mundi temperet arte domum,

Qua venit exoriens, qua deficit, unde coactis

Cornibus in plenum menstrua luna redit;

Unde salo superant venti, quid flamine captet

Eurus, et in nubes unde perennis aqua.

Sit ventura dies mundi quæ subruat arces. 448

Quærite quos agitat mundi labor. 449

Orokortasun honetan, neure burua uzten dut munduko lege orokorrak eraman dezan: sentituko dudanean jakinen dut zein den. Neure jakintzak ez lezake desbidera; ez da neuregatik aldatuko. Horren zain egotea erokeria da, eta areagoa horregatik nekatzea, halabeharrez berdina, publikoa eta orokorra baita.

Gobernadorearen ontasun eta gaitasunak arindu behar digu haren gobernuarekiko axola. Ikerpen eta behatze filosofikoek soilik janaritzat balio diote gure jakinahari. Filosofoek, arrazoiarekin, naturaren legeetara igortzen gaituzte; baina ez dakite zer egin ezagutza horrekin; gainera, faltsutzen dute eta kolore eta sofistikazio sobera duen aurpegi batekin agertarazten digute, hortik sortzen baitira hainbat deskribapen hain berdina den gai batetik. Naturak ibiltzeko oinak eman zizkigun bezala, horrela ere eman digu bizitzan gidatzeko zuhurtasuna; ez filosofoek asmatu zuhurtasun azkar eta hanpatua, baina erraza eta osasungarria, filosofikoak diotenaren egiteko gaia dena, xaloki eta arautuki, esan nahi baita, naturalki, erabiltzen jakiteko zoriona duenaren baitan. Errazena naturari gomendatzea da, eta zuhurrena era bai. Ai jakineza eta jakinahirik eza, zeinen oheburu eztia eta biguna, eta sendoa ere, ongi sortua den buru baten atsedenerako!

Zizeronen baitan baino nahiago nuke neure burua neure baitan ulertu. Neure buruaz daukadan esperientziatik aski dut zuhurra izateko, ikasle ona banintz. Bere oroimenean iraganiko koleraren sobera daukanak, eta sukar horrek noraino eramen zuen, Aristotelesen baitan baino hobeki ikusten du pasione horren itsuskeria, eta harekiko higuin zuzenago bat gogoratzen zaio. Arriskatu dituen eta mehatxatu duten gaizkiez eta egoera batetik bestera eraman duten aukeraldi arinez oroitzen dena hortik prestatzen da etorkizuneko gorabeheretarako eta bere baldintzaren ezagutzarako. Zesarren bizitzak ez du, guretzat, geureak duen baino eredu gehiagorik; inperiala edo arrunta, beti giza bizitza da, giza ezbeharrei baitagokie. Bakarrik entzun dezagun: geure buruari esaten diogu nagusiki behar dugun guztia. Bere adimenak egin hainbat hutsez oroitzen dena ez ote da ergel bat harenganako betiereko mesfidantza bat ez edukitzeagatik? Beste baten

arrazoiak uste faltsu bat frogatzen didanean, ez dut hainbat ikasten esan didan berria eta horretan neukan jakineza (erdiespen eskasa litzateke) nola ikasten baitut neure ahulezia eta gure adimenaren tradiketa; hortik orobateko birmoldaketa ateratzen dut. Neure gainerako hutsetan berdin egiten dut, eta arau horretarik onuragarritasun handia erdiesten dut. Ez diot hein eta gauzaki horri behaztopatzeko harria bezala begiratzen; ikasten dut orotan neure ibilerarekiko mesfidantza, eta haren arautzera entseiatzen naiz. Ergelkeria bat esan edo egin dela ikastea ez da deus; ikasi behar da norbera ergel batez baizik ez dela, askoz ere irakaspen zabal eta handiagoa. Neure oroimenak, bere buruaz seguruena denean ere, hain maiz eragiten dizkidan urrats faltsuak ez dira alferrik galduak; orain ezertarako zin egiten ahal dit eta segurtatu ere, nik belarriak inarrosten ditut; haren lekukotasunaren kontra sortu lehen oposizioak dudarazten dit, ez naiz hartaz fidatzera ausartzen pisuko gauzetan, ez diot bermerik ematen beste norbaiten eginkizunean. Eta ez balitz ere nik oroimenik ezagatik egiten dudana besteek are maizago federik ezagatik egiten baitute, ekintzazko gauzetan neuretik baino lehenago beti hartuko nuke egia beste baten ahotik. Bakoitzak hurbiletik zelatatu balitu menperatu duten pasioneen ondorioak eta gorabeherak, dagokidanarekin nik egin dudana bezala, ikusiko luke badatozkiola eta mantsotuko luke apur bat haien oldarra eta lasterra. Ez zaizkigu beti zintzurrera jauzi egiten; badira mehatxurik eta mailarik.

Fluctus uti primo cæpit cum albescere ponto,

Paulatim sese tollit mare, et altius undas

Erigit, inde imo consurgit ad æthera fundo. 450

Zentzuak badu nire baitan jarleku nagusi bat, edo axolaz entseiatzen da; uzten ditu nire nahiak beren moduz joatera, eta gorrotoa eta adiskidantza, nire buruarekiko daukadana ere bai, bera asalatu ez usteldu gabe. Beste zatiak birmoldatzen ahal ez baditu bere arabera, haiek bera birmolda dezaten ez du, behintzat, uzten ere: bere jokoa bazter batean egiten du.

Bere buruaren ezagutzeko bakoitzari egin zaion oharpena ondorio handikoa izan behar da jakintzazko eta argizko jainko horrek bere tenpluaren aitzinean⁴⁵¹ ezarrarazi duenez geroz, aholkatzen zigun guztia adieraziz bezala. Platonek badio ere zuhurtzia manamendu horren gauzatzea dela soilik, eta Sokratesek xeheki frogatzen du Xenofonen baitan. Jakintza bakoitzean, iluntasuna eta zailtasunak nabarmentzen zaizkie beraietan sartu direnei. Zeren adimen zerbait behar baita ez dela jakiten jakin ahal izateko, ate bat bulkatu behar da itxirik zaigula jakiteko. Hortik sortzen da sotilezia platoniko hura: dakitenek ez dutela zeren galdegin, baitakite, eta ez dakitenek ere ez, galdegiteko jakin behar baita zer galdegiten den. Bere buruaren ezagutzeko horretan ere, bakoitzak bere burua hain erabakirik eta aseturik ikusteak, eta bakoitzak aski aditua dela uste izateak, adierazten du ez duela bakoitzak ezer ere ulertzen, Sokratesek Eutidemori irakatsi bezala Xenofonen baitan. Nik, beste ofiziorik egiten ez dudana honek, hainbateko barrentasun eta aldakortasun mugagabea aurkitzen dut non neure ikaskuntzak duen helburu bakarra ikasteko zenbat gelditzen zaidan ohartaraztea baita. Hain maiz ezagutua dudana ahuleziari zor diot apaltasunaren aldera dudana isurmena, eta halaber eman zaizkidan sinesmenetara, usteen neurtasun eta hoztasun batera, eta disziplinaren eta egiaren hiltzerainoko etsaia den bere buruaz harturik den harrokeria liskartiarekiko higuinaren alderakoa. Azken hau dutenei entzun iezaiezu: aitzinatzen dituzten lehen ergelkeriak beti doaz erlijioen eta legeen ezartzeko erabiltzen den moldeaz. *Nil hoc est turpius quam cognitioni et perceptioni assertionem approbationemque praecurrere* Aristarkok bazioen antzinako aroan doi bazirela zazpi jakintsu munduan, eta bere aroan doi aurkitzen zirela zazpi ezjakin. Ez ote dugu geure aro honetan hark baino arrazoi gehiago berorren esateko? Segurtasuna eta temakeria zozokeriaren ezaugarri nabariak dira. Harako hark egun batean ehun aldiz muturratz

lurrean jo lezake: baina hara berriz bere “ergo”-en gainean, lehen bezain erabakirik eta osorik; esan zenezake adimenezko gogo eta indar berri bat sartu zaiola eta aspaldiko lurraren seme hari⁴⁵³ bezala gertatzen zaiola, bermetasun eta azkartze berri bat erdiesten baitzuen bere erorketaren bidez,

cui, cum tetigere parentem,

Jam defecta vigent renovato robore membra. 454

Buru gogor temoso horrek uste ote du argitasun berri bat duela beste eztabaida batean hasteagatik? Neure esperientziagatik erakusten dut giza jakineza, neure ustez munduan den alderdirik seguruenak baita. Nirea bezalako eredu hutsalaren bidez berentzat onartu nahi ez dutenek onar dezaten irakasleen irakasle zen Sokratesen bidez. Antistenesek bere ikasleei: “Goazen, zioen, zuek eta ni Sokratesen entzutera; hor ikaslea izanen naiz zuekin” Eta bere alderdi estoikoaren dogma hau esanez: bertutea aski zela bizitza bat osoki zoriontsu bilakatzeko, beste ezeren beharrik gabe, “bakarrik Sokratesen indarra” gehitzen zuen.

Neure buruaren ikertzean erabiltzen dudak arreta luzeak balio dit ere besteen epaitzeko, eta gauza gutitan mintzatzen naiz zuzenago eta zehazkiago. Maiz gertatzen zait neure adiskideen izaerak ikusten eta bereizten ditudala beraiek baino hobeki. Norbait harritu egin dut neure deskribapenaren zehaztasunagatik. Haurtzarodanik hezi bainaiz neure bizitzaren ikusteko beste baten baitakoan, horretan aditua den izaera erdietsi dut eta, horri loturik, neure inguruko deus guti itzuri egiten zait: jokaerak, gogaldiak, hitzaldiak. Dena ikertzen dut: ihes egin eta jarraiki behar diodana. Horrela aurkitzen ditut, neure adiskiden baitan, beren barreneko isurmenak beren ekintzen bidez; baina ez dut egiten ekintzen ezberdintasun mugagabe horren sailkatzeko genero eta kapituluetan, ez neure zatiketen ezartzeko mota eta espezie ezagunetan,

Sed neque quam multæ species, et nomina quæ sint,

Est numerus. 455

Jakintsuek zehazki eta xehekiago zatikatzen eta sailkatzen dituzte beren ameskeriak. Nik, ohiturak irakasten didanaz besterik ez baitut ikusten, araurik gabe, orokorki eta itsuka erakusten ditut hemen neureak. Neure sententzia josi gabeko artikuluetan ahoskatzen dut, behin batez eta multzo bakarrean esaten ahal ez den gauza baita. Elkarpena eta egokipena ez dira gureak bezalako gogo apal eta arruntetan aurkitzen. Zuhurtzia eraikuntza senda eta osoa da, hor zati bakoitzak bere maila dauka eta bere ezaugarria darama: *Sola sapientia in se tota conversa* Artistak bazterrean uzten ditut, eta ez dakit ere itxuren ezberdintasun mugagabe hau ataletan antolatzeke eta gure aldakortasunaren gelditzeke eta araupean ezartzeko gaiak diren. Nik ez ditut soilik gure ekintzen elkarri estekatzeko zailtasunak aurkitzen, bakoitza bere baitan nolakotasun nagusi baten bidez izendatzeko zailtasunak ditut ere, hain bakoitzak eta distira ezberdinetan nabartuak baitira.

Perseo Makedoniako erregeren baitan arraroa bezala nabarmentzen zena, bere izpiritua, inolako baldintzari ez lotuz, bazebilela bizi mota guztietan barrena eta hain ohitura ohigabeak eta ibiltariak erakutsiz non ez berak ez inork ez baitzuen ezagutzen, uste dut, gutiz goiti beheiti, jende guztiari dagokiola. Eta oroz gain, bere mailako beste bat ikusi dut, ondorio hori are egokiago beharko lukeena nire ustez: ez du erdiko jarrerarik batere, beti baitoa mutur batetik bestera asmaezinezko aukeraldiengatik, ez du zeharkatzerik ez kontresanik gabeko ibilerarik batere, ez ahalmen soilik batere; halakoa non egunen batean ondorioztatzen ahalko den egiantzekoena izanen baita ezagutezina bezala ezaguna izateko itxura eta ahaleginak egiten zituela.

Hagitz belarri sendoak behar dira bere burua zintzoki epaitzen dela entzuteke; eta, ausikirik gabe jasan dezaketenak guti baitira, gurekin egitera ausartzen direnek adiskidantzazko ekintza berezi bat erakusten digute; sendoki maitatzea baita onuraren

egiteagatik zauritzearen eta laidostatzearen arriskatzea. Nolakotasun onak baino ugariagoak txarrak dauzkana aurkitzen dut epaitzeko gaitza. Platonek hiru zati manatzen dizkio besteren gogoia ikertu nahi duenari: jakintza, onginahia, ausartzia.

Zenbaitetan galdegiten zitzaidan zertarako uste nuen balio nuela, baldin eta nitaz baliatu izan balitz adina neukanean.

Dum melior vires sanguis dabat, æmula necdum

Temporibus geminis canebat sparsa senectus. 457

“Deustarako ez, nioen nik”. Gogotik desenkusutzen naiz bati estekatzen nauen ezer egiten ez jakiteagatik. Baina bere egiak esanen nizkiokeen neure irakasleari, eta bere ohiturak kontrolatu, berak nahi izan balu. Ez orokorki eta ikasgai eskolastikoen bidez, ez baitakit (eta ez dut ikusten egiazko birmoldaketarik sortzen denik dakitenen baitan), baina urratsez urrats ohartuz, aukeraldi orotan, eta begiz joz zatirik zati, soilki eta naturalki, berari ikusaraziz uste arruntaren arabera zer den, bere lausengariei oposizioa eginez. Ez da gutarik inor erregeek baino gutiago balioko ez zukeenik, baldin eta, haiek diren bezala, etengabe usteldurik izan balitz jendaila mota horrek. Nola, Alexandrok, errege eta filosofo handi hark ere, ez baitzuen haiengandik defendatzen ahal! Leialtasunik, adimenik eta libertaterik aski edukiko nukeen horretarako. Izenik gabeko ofizioa litzateke; bestela galduko luke bere ondorioa eta grazia. Eta ez da edozeini dagokiokeen eginbeharra. Zeren egiak berak ere ez baitu aldi eta molde orotan erabilia izateko lehentasunik: bere erabilpenak, den bezain noblea ere, baditu bere eremuak eta mugak. Mundua den bezala, maiz gertatzen da printzearen belarrian egia uzten dela, eta ez bakarrik fruiturik gabe, baina kaltegarriki eta zuzengabeki ere. Ez zait sinestaziko erantzuki zuzen bat ez dela biziosoki esaten ahal eta gaiaren interesak ez duela maiz amore eman behar moldearen interesaren aurrean. Ofizio horretarako nahi nuke bere zoriaz askietsirik den lagun bat,

Quod sit esse velit, nihilque malit, 458

eta zori erditsu batean sortua ere; alde batetik, ez litzateke nagusiaren bihotzaren biziki eta barrenki hunkitzeko beldur, hortik bere abantailaren ez galtzeko, eta bestetik, baldintza erdikoa izanez, harreman errazagoa luke jende mota guztiekin. Gizon bakar baten baitan nahi nuke, zeren askoren artean libertate eta pribazitate horren lehentasunaren banatzeak kaltegarritzko begirunerik eza sortuko bailuke. Hondarrean, harengandik fideltasuna eta isiltasuna eskatuko nuke oroz gain.

Ez zaio errege bati sinesmenik eman behar etsaiaren zain egoteko duen iraupenaz arrandiatzen denean, baldin eta bere onura eta zuzenketagatik ez baditu adiskide baten hitzak jasaten ahal, hauek bakarrik belarriak zimikatzen baitizkiote, gainerakoa bere eskuan dago. Bada, ez da berori baino oharpen librean behar handiagorik duen giza motarik. Bizi publiko bat daramate, eta hainbat ikusleren atsegina egin behar dute non, beren bidetik kanpoan den guztia isiltzen zaienez geroz, ohartu gabe, maiz aurkitzen baitira beren jendeen higuin eta gorrotoarekin, itzuri egin izan zekizkieken aukeraldiengatik, are beren atseginak moztu gabe, tenorez ohartarazi eta zuzendu balitzaie. Eskuarki, beren faboritoek gehiago begiratzen diote beren buruari bere nagusiari baino; eta ongi doakie, zeren egiazko adiskidantza baten eginbehar gehienak entseiatzeko gogorrak eta arriskatuak baitira erregeren alde; halako moldez non ez soilik atxikimendurik eta zabaltasunik asko, baina are kuraia areagorik behar baita.

Hondarrean, hemen zirriborratzen dudana nahaste-borraste hau neure biziko entseien zerrenda da, eta neure bizia, barreneko osasunari dagokionez, aski eredugarria da, irakaspena alderantziz hartzen bada. Gorputzezko osasunari dagokionez, inork ez du nik baino esperientzia onuragarriagorik adierazten ahal, esperientzia hutsa baita, artearen eta iritziaren usteldurarik ez aldaketarik gabe. Berez, esperientzia bere eremuan dago sendagintzaren gaian, hor arrazoiak leku osoa uzten baitio. Tiberiok bazioen hogeitaz urtez

bizi izan den edonork jakin behar zituela kaltegarriak eta osasungarriak zitzaizkion gauza guztiak, eta medizinarik gabe ibiltzen jakin behar zuela. Eta Sokratesengandik ikasten ahal du ere, bere ikasleei aholkatzen baitzien axola handiz eta ikerpen nagusi bat bezala bere osasunaren ikerpena egin behar zutela, eta gehitzen zuen adimeneko lagun batek, bere ariketei, edateari eta jateari kasu eginez, edozein sendagilek baino hobeki bereizten ahal zuela ona eta txarra zitzaiona. Sendagintzak, gainera, aitortzen du bere ekintzaren froga esperientzia dela. Horrela arrazoia zuen Platonek esateko egiazko sendagilea izateko beharrezkoa litzatekeela sendatu nahi dituen eritasun guztien eta epaitu behar dituen ezbehar eta gorabehera guztien pairatzea. Arrazoia da elgorria har dezaten baldin eta sendatzen jakin nahi badute. Egiazki, halako batez fidatuko nintzateke. Zeren besteei baikaramatzate itsasoa, burkaitzak eta portuak margotzen dituenak bezala: bere mahaian jarria eta itsasontzi baten eredia ibilaraziz segurtasun osoz. Egotz ezazu egiara, ez daki nora jo. Egiten duten gure gaitzen deskribapena zaldi edo zakur galdu bat oihukatzen duen hiriko albinteak bezala da: halako ilajea, halako neurria, halako belarria; baina agertaraz iezaiozu: ez du horregatik ezagutzen. Ala Jainkoa, sendagintzak inoiz laguntza on eta ohargarri bat egiten badit a nola oihukatuko dudan fede onean:

Tandem efficaci do manus scientiæ! 459

Gorputza eta arima osasunean mantenduko dizkigutela agintzen diguten jakintzek anitz agintzen digute; baina ez da agintzen dutena baino gutiagorik betetzen duten ezer. Eta gure aroan, jakintza horien ofizioa egiten dutenek beste gizon guztiek baino ondorio gutiago erakusten digute. Haietaz esan daiteke, gehienez ere, sendagintzazko drogak saltzen dituztela; baina ez daiteke esan sendagileak direnik.

Aski bizi izan naiz kontutan hartzeko hain urrunera eramau nauen ohitura. Dastatu nahi duenarentzat, hemen egiten dut haren erakuspena. Hona, bada, artikulua batzuk, oroimenak ekarri bezala. (Ez dut gorabeheren arabera aldatu ez den molderik, baina aipatzen ditut maizenik erabili ditudanak, orain arte neure baitan jabego gehiago izan dutenak.) Nire bizimodua berdina da eritasunean eta osasunean: ohe berdinez, ordu berdinez, janari eta edari berdinez baliatzen naiz. Ez dut ezer gehitzen, bakarrik neurtasun gehiago edo gutiago, indarren eta gosearen arabera. Neure osasuna da neure ohizko egoeraren iraunaraztea oztoporik gabe. Badakusat eritasunak alde batetik bulkatzen nauela; sendagileei sinesmena emanez bestetik bulkatuko naute; eta hara zoriaz eta arteaz neure bidetik kanporatua naizela. Deus ez dut hau baino gehiago sinesten: ez naiteke ofendaturik izan hain aspalditik ohiturik ditudan gauzengatik.

Ohiturari dagokio gure bizitzaren moldatzea, eta nahi bezala; horretan dena ahal du: Zirtzeren edabea da, nahi duen guztia naturaren kontra ezberditzen duena. Zenbat herrik, guregandik lau urratsetara, hartzen duten irrigarria bezala gaueko aireari buruz dugun beldurra; gure saltinbankiak eta nekazariak horretaz burlatzen dira! Aleman bat eritzen duzu koltxoi baten gainean etzanarazten baduzu, italiar bat lumaren gainean bezala, eta frantses bat gortinarik eta surik gabe. Espainol baten urdailak ez du gure jateko modua jasaten, eta gureak ere ez suitzarren modura edatea.

Aleman batek, Ausburgen, atsegin eman zidan gure sutondoetako gaizkeria kritikatu baitzuen guk haien berogailuen kondentatzeko erabiltzen dugun argudio berarekin. (Zeren, egiazki, bero trinko horrek, eta berogailuak osatzen dituen gai erreberotuaren urrinak buruko mina ematen diete dastatu dituzten gehienei; niri ez. Baina, bestalde, bero hori berdina da iraunkorra izanez, argirik ez kealdirik gabe, gure sutondoan zabaltasunak dakarren haizerik gabe, badu gureen aldean abantaila zerbait ere. Zergatik ez dugu arkitektura erromatarra imitatzen? Zeren esaten baita haien etxeetan ez zela kanpoan besterik egiten, etxeetako oinarrietan: hortik hartzen zen beroa paretetan egin hodietan barrena, hauek berotu beharreko lekua besarkatzen baitzuten; argiki adierazia

ikusi baitut ez dakit non, Senekaren baitan.) Aleman hura, bere hiriko erraztasun eta edertasunak goستن nituela adituz, hasi zen nitaz urrikaltzen zeren joan behar bainuen; eta aipatu zizkidan eragozpenen artean izan zen beste lekuetako sutondoek ekarriko lidaketen buruko pisutasuna. Norbaiti entzun bide zion eragozpen hori eta leporatzen zigun, bere baitan halakorik ezin frogatuz. Sutik datorren bero orok ahultzen eta moteltzen nau. Eta Evenok esaten zuen biziaren ongailurik hoberena sua zela. Hotzari itzurtzeko beste edozein modu nahiago dut.

Kupelaren azpiko aldeko ardoaren beldur gara; Portugalen bikaintasunen artean da, printzeen edaria. Hitz batez, herri bakoitzak baditu aztura eta ohitura asko, ez soilik ezezagunak baina beste herri bati nabarmenak eta miresgarriak zaizkionak.

Zer eginen diogu jende honi lekukotasun inprimatuak bakarrik hartzen baititu kontutan, gizonen sinesmena ematen ez baitie liburuetan ez badira, ez egia ere aro egokikoa ez bada? Gure zozokeriak duintasunean ezertzen ditugu moldepean ezartzen ditugunean. Badu jende honentzat beste pisu bat esateak esan beharrean. Baina nik, ez baitut gizonen eskuan sinesten beren ahoan baino gehiago eta baitakit mintzatzen den bezain zozoki idazten ohi dela, eta mende hau iragan den beste edozein bezala hartzen baitut, Aulugelio edo Makrobio bezain gogotik aipatzen dut neure adiskide bat, eta neronek ikusi dudana haiek idatzi dutena bezala. Eta haiek uste zuten bezala bertutea ez dela handiagoa zaharragoa izateagatik, halaber uste dut nik egia ez dela zuhurragoa zaharragoa izateagatik. Maiz diot ergelkeria hutsa dela eredu arrotz eta eskolastikoen atzetik lasterkarazten gaituena. Haien emankortasuna Homero edo Platonen aroan zen bezalakoa da; baina ez ote da guk aipamenaren ohorea bilatzen dugula hitzaldiaren egia baino gehiago? Vascosan edo Plantinen⁴⁶⁰ lantegitik gure frogak maileguz hartzea gure herrian ikusten denetik hartzea baino gehiago balitz bezala. Edo ez ote dugu gogorik geure aurrean gertatzen denaren argitzeko eta balioarazteko eta egiazki epaitzeko, ereduaren mailan ezartzeko? Zeren esaten badugu gure lekukotasunari fedearen emateko jakintzarik ez dugula, desegoki esaten baitugu. Nire ustez, gauzarik arrunt eta xehenetarik, beren argia bereizten badakigu, naturaren mirakulurik hadienak eta eredurik miresgarrienak egin daitezke, giza ekintzei buruzko gaian bereziki.

Bada, neure gai honetan, liburuen bidez dakizkidan ereduak bazterrean utzirik, eta Aristotelesen Andron argiviarrak dioena, Libiako legar idorrek alde zeharkatzen zituela edan gabe, kargu askotan ibilia den aitorenseme batek zioen ni nengoen lekuan Madriletik Lisboara joana zela uda minean edan gabe. Bizkorki dabil bere adinerako, eta bere bizitzan ez du ezer miresgarriarik hau ezik: bizpahiru hilabete, eta urte bat, esan dit, edan gabe egoten dela. Hertsadura somatzen du, baina uzten du joatera, eta badio berez ilauntzen den gogo bat dela; eta beharraz edo atseginaz baino gehiago edaten omen du nahikeriaz.

Eta hona beste bat. Aspaldi ez duela, aberastasun handixeko Frantziako gizon jakintsuenetarik bat aurkitu nuen, tapizez mugaztatu zitzaion gela bateko zokoan estudiatzen, eta haren inguruan bere morroien bilera bat zarataz betea. Esan zidan, eta kasik Senekaren moduan, abarrots horretarik mozkin egiten zuela, hots horrek joa bere baitara gehiago bilduko eta itxiko balitz bezala gogoetatzeko, eta ahotsen erauntsi horrek bere gogaldiak barrenaren aldera eramaneen balitu bezala. Paduan ikaslea zelarik, hain luzaz bizi zen kotxeetako eta plazako zarataren ondoan non ez baitzen bakarrik jarri kontutan ez hartzeko, baizik eta hotsa ohitura egin zitzaiola estudioetarako. Sokratesek Altzibiadesi erantzun zion, hau harriturik baitzen haren emaztearen etengabeko talata nola jasan zezakeen: Ni osoki alderantzizkoa naiz: gogo minbera eta hariaren galtzeko erraza dut; bere baitan denean, euli baten burrunbak hiltzen du.

Seneka, bere gaztaroan sutsuki atxikia Sextioren ereduari: hil ez den gauzarik ez jatekoa, atseginaz iragan zen horrela urte bat, berak dioen bezala. Eta utzi zuen bakarrik

zeren ez baitzuen nahi uste izan dadin arau hori erlijio berri batzuetarik hartua zuela, hala predikatzen baitzen. Ataloren arauak hartu zituen ere eta haietarik bat hondoratzen diren koltxoien gainean ez etzatea, eta zahartzaroa arte etzan zen gorputzari amore ematen ez diotenen gainean. Bere aroko ohiturak gogorkeriatzat joarazten ziona gureak berazkeriatzat harrarazten digu.

Begira neure morroien bizimodua neurearen ondoan: eszitek eta hinduarrek deus ere ez dute neure moldetik eta modutik hain urrundua denik. Eskalegotik erretiratu ditut haur batzuk neure zerbitzurako, eta laster utzi didate neure sukaldea eta jantzia, bakarrik beren lehenagoko bizimodura itzultzeko. Bat harrapatu nuen, barraskiloen artetik bere janaritzat zituen hondarrak biltzen eta, ez otoika ez mehatxuka, ez nuen desbideratu ahal erromeskerian aurkitzen zuen gustua eta eztitasunetik. Pobreek beren handitasunak eta atseginak dituzte, aberatsek bezala eta, badiote ere, beren karguak eta maila politikoak. Ohituraren ondorioak dira: ez gaitu bakarrik nahi duen moldera eramaten ahal (horregatik, diote zuhurrek, finkatu behar gara ematen digun hoberenean), baina aldaketara eta ezberdintasunera, hau baita bere irakaspenetarik nobleena. Nire gorputzezko izaeretarik hoberena malgua eta temakeriarik gabe izatea da; baditut besteak baino egokiagoak, arruntagoak eta atseginagoak diren aiherrak; baina ahalegin eskas batekin desbideratzen naiz, eta errazki banoakio isurmen kontrarioari. Gizon gazte batek bere arauak nahasi behar ditu bere azkartasunaren ernatzeko, musitu eta moteldu egin ez dakion. Arau eta disziplinaren bidez dabilenarena baino bizimodu ergel eta ahulagorik ez da.

Ad primum lapidem vectari cum placet, hora

Sumitur ex libro; si prurit frictus ocelli,

Angulus, inspecta genesi collyria quaerit. 461

Eta sinesmena ematen badit beste muturrera joko du, bestela bestarik xehenak hondatzen du, eta harremanetarako desegokia eta ezatsegina egiten da. Gizon zintzo bati gaizkien doakion nolakotasuna da modu berezi bati atxikia egotea; eta dena berezia da malgugarria eta arina ez bada. Ahalkegarria da ezintasunagatik ez egitea edo bere lagunek egiten dutenaren egitera ez ausartzea. Beude jende horiek beren sukaldean! Orotan desegokia da baina gerrako gizon bati biziosoa eta barkagaitza zaio; horrek, Filomenok esan bezala, biziaren aldakortasun eta ezberdintasun guztietan ohitura hartu behar du.

Ahal bezainbat libertatean eta soraiotasunean hezia banaiz ere, orain, utzikeriagatik edo zaharrieriaren ondorioz molde zenbaitetan jarriagoa naizelako (nire adina heziketaz kanpo da, bere buruaren mantenuarekin aski du), ohiturak, gogoetatu gabe, nire baitan hain ongi inprimatu du bere izaera gauza zenbaitetan non sobera bailitzateke hortik desbideratzea. Eta, neure burua bortxatu gabe, ezin dut lorik egin egunean, ez bazkarien artean ahamenik hartu, ez gosaldtu, ez afalondoan hiru orduko bitarte bat egin gabe oheratu, ez haurrik egin lokartu aitzinean ez bada, ez zutik egin, ez neure izerdirik eraman, ez ur edo ardo hutsik edan, ez buruhas luzaz egon, ez bazkalondoan ileak eginarazi; eta eskularrurik gabe atorrarik gabe bezain ongi nengoke, eta mahaitik eta ohetik jaikitzearekin garbitzea, eta neure ohean zerua eta gortinak izatea hagitz gauza beharrezkoak iruditzen zaizkit. Mantelik gabe janen nuke; baina, aleman modura, zapi zuririk gabe, arras gaizki: horiek eta italiarrek zikintzen dutena baino askoz ere gehiago egiten dut; goilareaz eta sardexkaz bakanka baliatzen naiz. Deitoragarria aurkitzen dut erregeen eredu orain hasi berria den moda bati ez jarraitzea: zerbitzuen arabera, zapia ere alda diezaguten, platerak bezala. Mario soldadu zahar hartaz badakigu zahartzearekin minbera bilakatu zela bere edarian eta bere edalontzi partikular batean ez bazen ez zuela onartzen. Nik ere jotzen dut edalontzi molde berezi baten aldera, eta ez dut gogotik edalontzi arruntetik ez esku arruntetik ere edaten. Metal oro ezatsegin zait

gai garbi eta garden baten ondoan. Horrela neure begiek ere dasta dezaten, ahal duten moduan.

Ohiturari zor dizkiot halako berazkeria batzuk. Naturak ere, bere aldetik, bereak ekarri dizkit: hala nola, egun batean bi bazkari oso baino gehiago ez jasatea urdaila zamakatu gabe; ez bazkari haietarik bat gabe gelditzea neure gorputza haizez bete, ahoa idortu eta gosea hondatu gabe; eta gaueko airean luzaz egonik eritzea. Zeren duela urte zenbait, gerrako zerbitzuetan gau osoa emanez, gertatzen ohi den bezala, bost edo sei orduren buruan urdaila hasten zait nahasten buruko min gogor batekin eta ez naiz argiaraino iristen oka egin gabe. Besteak gosaltzera doazenean, ni lotara noa, eta handik aurrera nago lehen bezain ongi. Betidanik ikasia nuen nik gaueko airea gauaren sorreran gertatzen dela bakarrik; baina iragan urte hauetan konfiantzarekin egon naiz jaun batekin sinesmen honi atxikia dena: aire kaltegarri hori garratz eta arriskutsuagoa dela eguzkiaren makurpenean, doi sartu baino ordu bat edo bi lehenago, horri itzurtzen zaio axola handiz eta gauekoa, aldiz, aurbuiatzen du: ez zait haren hitzaldia inprimatu baina bai haren sentimendua.

Zer! Zalantzak eta galderak ere gure irudimena jotzen dutela eta aldatzen gaituztela? Aiher horiei dena ematen dietenek hondamen osoa dakarkiete beren buruari. Aitorenseme asko ezagutzen ditut beren sendagileen ergelkeriagatik erretiratu direnak gazte eta sendo izanez. Hobe litzateke erreuma baten pairatzea betirako biziaren harremanaren galtzea baino. Jakintza kaltegarria, eguneko ordurik eztenak hondatzen dizkiguna.

Heda dezagun geure jabegoa azken mugetaraino. Gehienetan, horretan tematuz zailtzen gara eta gorpuzkera zuzendu, Zesarrek bere buruko minarekin egin bezala, arbuiatzearen eta kontra egitearen bortxaz. Arau hoberenei atxiki behar gatzaizkie baina ez haien esklabu egin; non ez diren, halako bat baldin bada, beren behartze eta zerbitzutik onuragarritasuna dakartenetarik.

Erregeek eta filosofoek gorotz egiten dute, eta andereek ere bai. Bizi publikoek beren burua zeremoniari zor diote; nireak, iluna eta pribatua baita, baimen natural osoa du; soldadu eta gaskoi dira apur bat narbarmenkeriara emanak diren nolakotasunak. Horregatik ekintza horretaz esanen dut: igorri behar dela gaueko ordu arautu zenbaitetara, eta hor jarri eta bortxatu ohituraren bidez; baina ez estekatu, nik zahartzaroan egin bezala, leku eta jarlekuaren erraztasun berezi baten axolari, eta luzetasunaren eta biguntasunaren bidez oztopagarri bilakatu. Halarik ere, zerbitzurik zikinenetan, ez ote da inola ere barkagarria axola eta garbitasun gehiagoren eskatzea? *Natura homo mundum et elegans animal est.* Ekintza natural guztietarik, horretan pairatzen dut modurik gaizkienean etendurik izatea. Gerrako jende anitz ikusi ditut izorratuak beren sabelaren nahasteagatik; nireak eta biok ez dugu sekula hutsik egin gure eginbeharreko aldian, ohetik jaikitzean baita, eginbehar bortitz edo eritasunen batek nahasten ez bagaitu.

Ez dakit beraz, nioen bezala, nora jo lezaketen eriek segurtasun hobe batean egoteko, non ez duten betidanik hezi eta hazi diren bizimoduan irauten. Aldaketak, zernahi ere den, harritzen eta kalteatzen du. Sinetsi behar duzu gaztainedu kalte egiten diotela perigordiar edo lukiar bati, eta esneak eta gaztak mendiko jendeei? Arautzen zaie ez bakarrik berria baina alderantzizkoa ere zaien bizimodu bat: sendo batek jasan ez lezakeena. Errezeta iezaiozu ura hirurogeita hamar urteko bretoi bati, itxi ezazu ganbara bero batean marinel bat, debeka iezaiozu ibiltzea lakaio euskaldun bat⁴⁶³; mugimenduz gabetzen duzu, eta, hondarrean, airez eta argiz.

An vivere tanti est?

Cogimur a suetis animum suspendere rebus,

Atque, ut vivamus, vivere desinimus...

Hoc superesse rear, quibus et spirabilis aer

Et lux qua regimur redditur ipsa gravis? 464

Beste onik egiten ez badute, hau bederen egiten dute: ahulduz eta apurka-apurka biziaren erabilpena moztuz, ordu onetik prestatzen dituztela pairaleak heriotzarako.

Sendoa nola eria, gogotik utzi dut neure buruaren joatera hertsatzen ninduten atseginetara. Bide zabala ematen diet neure nahi eta aiherrei. Ez dut gaitza gaitzaren bidez sendatu nahi; eritasunak baino gehiago zirikatzen duten erremedioen aurkakoa naiz. Sabeleko mina izatea eta ostren jateko atseginaz gabetzea bi gaitz dira baten orde. Gaitzak alde batetik ziztatzen gaitu, arauak bestetik. Atsekabetzeko arriskuan garenez, arriska gaitzen gehiago atseginaren aldera. Jendeak alderantziz egiten du, eta uste du ezer ez dela onuragarria ezatsegina ez bada; erraztasunak susmo txarrak ematen dizkio. Gauza askotan nire gosea berez jarri eta arautu da nire urdailaren osasunaren alde. Gazterik, atsegin nituen saltsetako bixitasuna; nire urdaila aspertu da gero eta gustuak jarraiki dio berehala. Ardoak kalte egiten die eriei; hori da nire ahoak errefusatzeko duen lehena, eta garaitezinezko errefusapen batez. Ezatseginez hartzen dudana orok kalte egiten dit, eta gosez eta atseginez hartzen dudana ezerk ez nau kalteatzen; ez dut sekula gaitzik ukan oso atsegin izan zaidan ekintzatik. Horrela neure atseginari emanarazi diot, arras zabalik, sendagintzazko arau ororen gaineko erabakia. Gazterik,

Quem circumcursans huc atque sæpe Cupido

Falgebat, crocina splendibus in tunica, 465

eman izan naiz, beste edozein bezain aske eta neurririk gabea, atxikia zitzaidan nahiara.

Et militavi non sine gloria. 466

Baina nahikerian baino gehiago, beti ere, jarrai- eta iraupenean:

Sex me vix memini sustinuisse vices. 467

Zinez gaitza da, miresgarria baita, aitortzea zenbat urte eskasetan aurkitu nintzen lehen aldiz atxikimendu horretan. Egiazki aurkientzia izan zen, zeren hautabidezko eta ezagutzazko adina baino askoz ere lehenago izan baitzen. Kasik ez naiz neure buruaz oroitzen, hain aspaldikoa baita. Nire zoria Kuartilarekin parekatzen ahal da, bere birjintasunaren oroimenik ez baitzuen⁴⁶⁸.

Inde tragus celeresque pili, mirandaque matri

Barba meæ. 469

Sendagileek onuragarriki malgutzen ohi dituzte beren arauak eriengan sortzen diren nahi garratzen arabera. Ez da hain nahi bizioso eta arrotzik irudikatzen ahal, non naturari egokiezinezkoa zaion. Eta gero, irudimenaren askiesteak zenbat balio du? Nire ustez, zati hori beste oroz gain goratzen da. Gaitzik bortitz eta arruntenak irudimenak gure gainean ezartzen dizkigunak dira. Esaera espainol hau atsegin zait alde guztietarik: “*Defienda me Dios de my*” Eria izanik deitoragarria zait asetzeko nahirik batere ez edukitzea; sendagintzak ez ninduke errazki handik baztertuko. Berdin egiten dut sendorik. Urrikalgarria da nahi izatean ere ilaundurik eta ahuldurik egotea.

Sendagintzazko jakintza ez da hain finkaturik non, zernahi ere egiten baitugu, abururik gabe gelditu izanak garen: eguraldien eta ilargien arabera aldatzen baita, Fernelen eta Eskaligeroren⁴⁷¹ arabera. Zure sendagileak gaizki aurkitzen badu ardoa edo halako haragia erabil dezazun, zaude lasai: nik aurkituko dizut iritzi berekoa ez den beste bat. Sendagintzazko argudioen eta usteen ezberdintasunak molde mota guztiak besarkatzen ditu. Eri urrikalgarri bat ikusi nuen egarritz lehertzen eta erretzen bere buruaren sendatzeko, eta gero burlatzen zitzaion beste sendagile bat aholku hura kaltegarri bezala gaitzesten zuelarik; ongi erabili ote zuen bere nekea? Ofizio horretako gizon bat hil berri da harriaren gaitzaz, eta ezinagoko bararez baliatu zen bere gaitzari kontra

egiteko; bere lankideek badiote alderantziz dela eta baraur horrek idortu eta egosi ziola legarra giltzurrintan.

Ohartu naiz zauritua eta eria naizelarik mintzatzeak nahasten eta kalteatzen nauela egin dezakedan beste edozein soberakeriak bezainbat. Ahotsa kosta egiten zait eta nekatzen nau, zeren goratua eta bortxatua baitut; hainbatekoa, non handien belarrira pisuko egitekoei buruz mintzatzen gertatu zaidanean, askotan ahotsaren neurtzeko eskatu baitidate. Ipuin honek merezi du desbidera nadin: norbait, eskola greko batean, gora mintzatzen zen, ni bezala; zeremonietako maisuak esan zion apalago mintza zedin: “Ezar beza berak, zioen, mintza nadin nahi duen doinua”. Besteak erantzun zion doinua hartu behar zuela mintzatzen zitzaion belarritik. Ongi esana, ulertu behar baita: “Mintza zaitetz zure adileari esan behar diozunaren arabera”. Zeren, esan nahi badu: “aski da hark aditzen badizu”, edo “arau zaitetz haren arabera”, ez baitut uste arrazoia denik. Ahotsaren doinuak eta mugimenduak badu nire zentzuaren adierazpen eta esanahiaren zerbait; niri dagokit haren zuzentzea neure buruaren erakusteko. Bada irakasteko ahotsa, lausengatzekoa edo erantzuki egitekoa. Nahi dut neure ahotsak, harengana iritsi ezezik, jo eta zizta dezan ere. Neure lakaioa zakurra bezala darabildanean, doinu garratz eta sarkor batez, ederra litzateke etor dakidan esatera: “Nagusia mintza zaitetz eztekiago, ongi aditzen dizut” *Est quaedam vox ad auditum accommodata, non magnitudine, sed proprietate*. Hitza erdiz dagokio mintzatzen denari eta erdiz ere entzuten duenari. Honek bere burua prestatu behar du entzuteko hitzak dakarren mugimenduaren arabera. Pilotan aritzen direnen antzera, errestatzen duena abiatzen eta prestatzen da jotzen duena nola mugitzen den eta jotzeko moldearen arabera.

Esperientziak hau ere irakatsi dit: ezinegonak galtzen gaituela. Gaitzek badituztela beren bizia eta beren mugak, beren eritasunak eta beren osasuna.

Eritasunen izaera animalien izaeren arabera moldatua da. Badituzte beren zori eta egun mugatuak sortzapenetik; bortxaz laburtu nahi dituenak luzatu eta ugaltu egiten ditu eta eztitu ordeztatu. Krantoren ustekoa naiz, ez zaiela temosoki gaitzei kontra egin behar, baina ez ere ahulki errendatu, baina naturalki amore eman, haien eta gure baldintzaren arabera. Gaitzei bidea eman behar zaie; eta aurkitzen dut gutiago gelditzen direla neure baitan, egin dezaten utziz geroz; gogorrenak eta zailenak kontsideratzen direnak galdu ditut, beren erorpenagatik, laguntzarik ez antolabiderik gabe eta arauen kontra. Utz dezagun naturak apur bat egin dezan: guk baino hobeki aditzen ditu bere egitekoak. –“Baina halakoa hil zen horretaz – “Eta zu ere hilen zara, gaitz horretaz ez bada, besteaz.” Eta zenbat hil dira ezinbestez, ipurdian hiru sendagile zituelarik? Eredua ispilu lainotsua, orokorra eta zentzu orotakoa da. Sendabide atsegingarria bada, onar ezazu; orainaldiko ona da. Ez naiz haren izenean ez kolorean geldituko, atsegina eta erakargarria bada. Onuragarritasunaren mota nagusietarik atsegina da.

Neure baitan heriotza naturalezt hiltzera utzi ditut erreumak, hezurrerizko isurmenak, zartadurak, bihotzeko pilpirak, buruko minak eta beste ezbeharrak; galdu ditut kasik haien hazteko prest nintzenean. Harrokeriaz baino hobeki gudukatzen dira jendetasunaz. Gure baldintzako legeak pairatu behar dira ezteki. Zahartzeko, ahultzeko, eriak egoteko sortuak gara, sendagintza oro izan eta ere. Hori da mexikarrek beren haurrei egin lehen ikasgaia, beren amen sabeletik honela agurtzen dituzte:

Zuzengabe da kexatzea norbaiti gertatu zaionean edozeini gerta dakiokiena, *indignare si quid in te inique proprie constitutum est*. Ikus zahar bat Jainkoari otoika bere sendotasun osoan eta bizkorrean iraunaraz dezan, esan nahi baita, gaztarora itzul dezan.

Stulte, quid hæc frustra votis puerilibus optas? 474

Ez ote da zorakeria? Bere baldintzak ez du hori jasaten ahal? Hezurreria, legarra, urdaileria urte luzeen sintomak dira, bidaia luzeetan bezala beroa, euriak eta haizeak. Platonek ez du uste Eskulapio neketan sartu behar denik biziaren iraunarazteko bere

herrirako, ofiziorako eta haur sendo eta azkarren egiteko ezteusa den gorputz higatu eta ergel batengan, eta ez du uste jainkozko zuhurtziari dagokion axola denik, gauza guztiak onuragarritasunera eraman behar baititu. Gaizoa, zureak egin du: ez zaizu zuzentzen ahal; gehienera jo eta ere, petatxatuko eta birjosiko zaizu apur bat, eta ordu zenbaitez luzatuko da zure eskaseria.

Non secus instantem cupiens fulcire ruinam,

Diversis contra nititur obicibus,

Donec certa dies, omni compage soluta,

Ipsum cum rebus subruat auxilium. 475

Itzuriezina denaren pairatzea ikasi behar da. Gure bizia, munduko elkargoa bezala, elkarri aitzikoak zaizkien gauzek osatua da, eta halaber doinu ezberdinek, ezti eta garratzek, zorrotz eta motelek, arin eta pisutsuek. Batzuk bakarrik maitatuko lituzkeen musikariak zer joko luke? Jakin behar du orokorki baliatzen eta nahasten. Eta guk ere bai nahasi behar ditugu ongiak eta gaizkiak gure biziari lehengaiak baitzaizkio. Gure izatea ez daiteke nahasmenik gabe eta alderdi bat ez da bestea baino beharrezkoagoa. Behar naturalaren aurka entseiatzea Ktesifonen zoramenaren erakustea da: ostikoka lehiatu baitzen bere mandoemearen kontra.

Bakanka esaten dizkiet ditudan ezbeharrak, zeren jende horiek abantaila baitute beren eskupean zaituztenean: belarriak jaten dituzte beren aurrikuspenekin. Behiala, gaitzak joa harrapatu nindutelarik, laidogarriki erabili naute beren dogma eta moko sasijakintsuekin, mehatxu eginez behin oinaze handiekin behin heriotza hurbilarekin. Ez nintzen horregatik eroria eta neure errotik erauzia, baina bai zartatua eta bulkatua; nire adimena ez zen aldatua ez nahastua, baina bai oztopatua; beti inarrospen eta borroka zerbait baita.

Bada, nire irudimena ahal dudan bezain eztiki darabil eta kenduko nioke, ahal banu, neke eta erantzuki oro. Lagundu eta ferekatu behar zaio, eta engainatu ahal bada. Nire gogo horretarako egokia da: ez dabil irudien eskasean; sinestaraziko balu predikatzen duen bezain ongi, ederki lagunduko ninduke.

Atsegin litzaizuke adibide bat? Badio neure onerako badudala legarra giltzurrintan; neure adineko zurajeek izan behar dutela itaizurren bat (aspaldi hasi dira laxatzen eta kordokatzen; behar amankomun bat da, ez da niretzat mirakulu berezirik izanen, zahartzeari zor zaion ordaina dut hortik, eta ez nezake kontu hoberik eduki); jendearen osteak arindu behar nauela, neure aroko lagunik gehienek duten gaitza baita (orotan ikusten ditut gaitzak berak jo jendeak, eta haren lagungoa ohoregarria zait, gogotikago atxikitzen baitzaie handiei: horren izateak badu noblezia eta duintasun zerbait); joak gertatu izan diren jendeetarik guti dagoela ni baino hobeki: nekea kostatzen baitzaie janeurri garratz bat eta egunero drogak hartu behar dituzte, ni neure zorion hutsarekin nabilen artean: zeren andereen ohoretan hartu ditudan kardaberatzen egosaldi zenbait hartzeko errazak eta ondorio ezdeusekoak iruditu baitzaizkit. Eskulapiori mila agintza ordaindu behar dizkiote eta beren sendagileari beste hainbeste ezkutu, nik naturaren ontasunaz erdiesten dudan legar-isurmen erraz eta ugari beragatik. Nire jokaera eta harreman-moldea ez da nahasia izan, nire urak jasaten baititut hamar orduz eta beste edozeinek bezain luzez.

"Gaitz horren beldurrak, dio⁴⁷⁶, ikaran ezartzen hinduen behiala ezezaguna zitzaianean: beren jasangaizkeriaz garratzago itxuratzen zutenen oihuek eta etsipenak harekiko higuina sortarazten ziaten. Gehien huts egin dituan soinadarretan jotzen hauean gaitza duk. Kontzientziako gizona haiz.

Quae venit indigne pœna, dolenda venit. 477

"Begira zigor honi: eztia duk besteen ondoan eta aitazko faborekoa bezala. Begira haren berankortasunari: bakarrik galdua eta antzua den hire biziaren zatia nekatzen eta

zirikatzen dik; akordio batean bezala, hire gaztarako desmasia eta atseguinei lekua utzirik. Jendeak gaitz horrekiko duen beldurak eta urrikariak balio dik ospegairako; hori, adimena eta hitzaldia horretaz sendaturik baduk ere, hire adiskideek ikusten diate hire izaeran. Atsegina duk nork bere buruaz entzutea: hara indarra, hara jasankortasuna. Ikusten haute izerditan blai, zurbiltzen, gorritzen, ikaratzen, odoleraio oka egiten, dardar eta bihurraldi arrotzak pairatzen, inoiz malko zurrutak begietarik isurtzen, gernu trinkoak, beltzak eta ikaragarriak botatzen, eta zakileko muturran krudelki ziztatzen eta larrutzen hauen harri arantzatsu eta zorrotz batek geldituak, artean daudenekin solasean aritzen haiz aurpegi arrunt batez, jendeekin noizbait burlatzen, hire parte hartzen hitzaldietan, hitzez hire mina desenkusatzan eta hire pairamena apalduz.

"Oroitzen ote haiz iragan aroko jendeez, gaitzak hainbateko gosez bilatzen zituztenak, beren bertutea hatsaren gainean eta ariketan iraunarazteko? Emak naturak eramaten eta bulkatzen hauela eskola ospetsu horretara, gogotik sekula sartuko ez hintzena. Esaten badidak gaitz arriskatua eta hilgarria dela, zein ez da? Zeren sendagintzazko engainua baita batzuk bazterrean uztea, baitiote ez dutela zuzen-zuzen heriotzaren aldera jotzen. Zer axola du zeharka baldin badoaz eta errazki lerratzen eta makurtzen badira garamatzen bidearen aldera? Baina hi ez haiz hiltzen eria haizelako, hiltzen haiz bizirik haizelako. Heriotzak ongi hiltzen hau eritasunaren laguntzarik gabe. Eta eritasunak heriotza urrundu dik batzuengandik, uste baino gehiago bizi baitira hiltzen ari ziren artean. Gainera badituk, zauriak bezala, eritasun sendagarriak eta osasungarriak. Sabeleko mina maiz zu⁴⁷⁸ baino bizikorragoa da; lagun zenbaiten baitan ikusten da lagundu baititu haurtzarodanik azken zahartzaro arte, eta beraiek huts egin izan ez balute bera hor egonen zatekeen urrunago laguntzeko; zuk hura hiltzen duzu hark hiltzen zaituen baino maizago, eta hurbileko heriotzaren irudia erakusten dizunean, ez ote da zu bezalako gizon zahar batentzat gogoeta egokia? Eta, makurrago dena, hik ez daukak norentzat sendatu. Behar amankomunak deitzen hau. Gogoan har ezak zeinen artifizialki eta eztiki moteltzen dian biziarekiko gustua eta mundutik laxatzen hauen: ez esteka tiraniko batez eta bortxaz, hainbat zaharren baitan ikusten dituan gaitz horiek bezala, etengabe entrabatuak baitira ahuleziekin eta oinazeekin, baina arteka eman oharpen eta irakaspenen bidez, atsedenezko aldi luzeak nahasiz, gogoetatzeko eta ikasgaiaren errepikatzeko astia emanez bezala; sendoki epai dezaan eta bihotzeko gizonak bezala hauta dezaan, erakusten dik eure baldintza osoaren egoera, onean eta txarrean, eta egun berean bizi alai eta jasezin bat. Herioa besarkatzen ez baduk ere, hilean behin eskuz esku ukitzen duk. Hortik zaindu behar duk egun batez mehatxurik gabe hartuko hauela eta, hainbatetan haren porturaino hurbildurik, beti bezala hagoela fidatuz, ura iraganen duk goiz batez uste gabeen. Ez duk kexatu behar osasunarekin astia zintzoki partekatzen duten eritasunez."

Zoriari eskertzen diot hain maiz arma mota berarekin oldartzen bainau; ohituraren bidez moldatzen eta hezten nau, gogortzen eta zailtzen; gaur badakit gutiz goiti beheiti zertan geldituko naizen. Oroimen naturalik ezean, paperezko bat egiten dut eta, neure gaitzari sintoma berri bat etortzen zaion bezain sarri, idazten dut. Horregatik, orain, eredu mota guztietarik iragana izanik, harrimen berri batek mehatxatzen banau, josi gabeko ohar hauek begiztatuz, hosto sibiliarrak⁴⁷⁹ bezala, hutsik gabe aurkitzen dut iragan esperientzian gertatu den gertakari faboragarri bat. Ohiturak ere balio dit etorkizunean hobeki gogoetatzeko; zeren, hustutze honen abiadura hain luzaz honela joanik, uste izatekoa baita ez dela aldatuko eta ez dela somatzen dudana baino makurragorik gertatuko. Gainera, eritasun honen modua ongi dagokio nire gorpuzkera arinari. Bigunki hasten zaidanean, haren beldur naiz, luzerako baita. Baina berez baditu oldarpen azkarrek eta goratuak; ezinago inarrostean nau egun pare batez. Nire giltzurriek adin bat iraun dute aldatu gabe; duela hamalau urte aldatu dira. Gaizkiek bere aroak dituzte,

ongiek bezala; menturaz, ezbehar hau azkena da. Adinak moteltzen du nire urdailaren beroa; bere egosketa ez hain osoa izanez, gai gordin hori nire giltzurrintetara igortzen du. Zergatik ez da, iraultza honetan, giltzurritzen beroa ere motelduko eta, beraz, ez dute gaia harritzen ahalko eta naturak garbitzeko beste bide bat hartu beharko du? Urteek isilarazi dizkirate erreuma zenbait. Zergatik ez hondakin hauek, legarrari gaia ematen diotenak?

Baina, ezinagoko oinaze batetik, harriaren egoztearen ondotik, ximist batean bezala osasunaren argi ederra, hain libre eta betea, gure bat-bateko oldarraldi garratzenetan gertatzen den bezala, berreskuratzen dudanean, bapateko aldaketa hau baino eztiagorik ote da? Pairaturiko min horretan ezer ote da hain bat-bateko hobekitzearekin alderatzen ahal denik? Zeinen ederragoa iruditzen zaidan osasuna eritasunaren ondoan, hain elkarri hurbilak non ezagutzen ahal baititut bata bestearen aurrean beren jarlekurik gorenean, lehian ezartzen baitira buruz buru eta eztabaidan bezala! Estoikoek dioten bezala, bizioak onuragarriki sartuak direla bertutearen balioarazteko eta bermatzeko, guk esan dezakegu, arrazoi gehiago eta ausartzia gutiagorekin, naturak mina eman digula atseginaren eta minarik ezaren ohoretan. Sokratesek, burdinak kendu zitzaizkionean, beren pisuak oinetan eragin zioten hazkura somatu zuenean, gogoan hartu zuen atseginak eta minak elkarrekin duten partzuergo hertsia, halabeharrezko esteka batez lotuak balira bezala, txandaka elkarri jarraitzen eta elkar sortzen baitute; eta Esopo onari esaten zion gogoeta horretarik alegia eder baten gaia zeukala.

Beste gaitzetan ikusten dudak txarrena da beren ondorioetan ez direla gero beren akiduretan diren bezain mingarriak: urte bat behar baita birbaitartzeko, beti ahuleziaz eta beldurrez betea; osasunera itzultzeko hainbat arrisku eta maila baitira non sekula ez baita amaitzen; buru-estalkiaz eta gero ohe-estalkiaz libratu baino lehenago, airearen eta gero ardoaren, eta zure emaztearen eta meloien erabilera itzultzen zaizun baino lehenago, gauza handia da beste ezbehar batean eroria ez bazara. Honek lehentasun hori badu: osoki doala, besteek gorputza beste gaitz baten gai bilakatzen duen ondorio eta aldaketa zerbait uzten duten artean. Barkagarriak dira gure gainean duten jabegoaz askiesten direnak, hedatu eta beste ondorioz egin gabe; baina faboragarriak eta graziosoak dira haien iraganbideak ondorio onuragarri zerbait ekartzen badigute. Nire sabeleko minaren ondotik beste gaitzez arindua aurkitzen naiz, lehen ez bezala naiz eta sukarrik gabe. Argudiatzen dut ditudan oka ezinago bortitzek garbitzen nautela, eta bestaldetik iraganiko baraur handiek egosten dituztela hezabizi txarrak eta naturak harri horietan hustutzen dituela berak daukan soberazkoa eta kaltegarria. Ez bekik esan sendabide garestiegia denik; zeren, zer dira hainbat edabe kirats, ziztatze, ebakitze, izerdiarazte, janeurri eta sendatzeko hainbat molde, haien bortizkeria eta nekea ezin jasanez askotan heriotza ekartzen digutenak? Horrela, jotzen nauenean, sendabidetzat hartzen dut; gabeturik naizenean, libratze iraunkor eta osotzat hartzen dut.

Hona oraindik ere nire gaitzaren fabore berezi bat: bere jokoa kasik bere kabuz egiten duela eta neurea egin dezadan uzten didala, eta hor ez du irauteko kuraiarik aski; bere gailurrik gorenean hamar orduz eduki izan dut zaldiz. Paire ezazu bakarrik, ez duzu besterik egin behar; jokoan ari zaitez, jan ezazu, egizu hau eta hura, ahal baduzu; desmasiak ere balio du, gaizkiagotu, behinik behin, ez du egingen. Esaiozu beste hainbeste hezurreria edo zartadura bat duenari: beste gaitzek badituzte eginbehar orokorrak, beste moduz eragiten diete gure ekintzei, gure antolabide osoa nahasten dute eta bizia osoaren egoera erakartzen dute. Honek larrua soilik zimikatzen du; adimena eta nahia zuretzat uzten dizkizu, eta mihia, oinak eta eskuak; lokartu egin beharrean ernatu egiten zaitu. Sukar baten beroak gogoa jotzen du, epilepsia batek hondatzen eta buruko min batek aldaratu, hitz batez, zati noblei eragiten dieten eritasun guztiek harritzen dute. Hemen ez zaio oldartzen. Gaizki badoakio bere errua da; bere

burua gaizki saltzen baitu eta horrela uzten eta desegiten. Bakarrik zoroek sinesten ahal dute gure giltzurrintan egosten den gai gogor eta sendoa ezabatzen ahal dela edabeen bidez; horregatik, behin inarrosiz geroz, bidea eman behar zaio; bestela berak hartuko baitu.

Oraindik badu erraztasun berezi hau: asmatzeko guti ematen digun gaitza dela. Besteek, beren kausen zalantza eta baldintza eta aurrerapenengatik, ematen diguten nahasmen nekagarririk gabe gelditzen gara. Ez dugu aholku eta ikertze doktoralik egin behar: zentzuek erakusten digute zer eta non den.

Halako argudio azkar eta ahulen bidez entseiatzen naiz neure irudimenaren lokartzera eta desbideratzera eta haren zaurien sendatzera; Zizeronek bere zaharrieraren gaitzarekin egin bezala. Bihar gaizkiagotzen bada, beste ihesbideak asmatuko ditugu.

Egia bada ere mugimendurik xehenek odol hutsa botarazten dutela nire giltzurrintarik, eta zer? horregatik ere lehen bezala mugitzen naiz neure zakurren gibeletik, gartsutasun gazte eta ozar batekin. Eta aurkitzen dut arrazoa dudala zeren hain ezbehar handia soilik kostatzen baitzait pisutasun gor bat. Hori da nire giltzurrinten gaia eta nire bizia higatzen eta hertsatzen duen harriztar bat eta nik apurka hustutzen dut, ez eztitasun natural zerbait gabe, kanporatzen den hondakin soberazko eta oztopagarri bat bezala. Zerbait hondatzen dela somatzen badut, ez ezazu uste neure zorna eta gernuak azter ditzaten joanen naizenik, gero aurrikuspen aspergarri baten egiteko; gaitzaren sentitzea denborarik aski dut beldurraren gaitzaren bidez gaizkiagotu gabe. Pairatzearen beldur denak pairatzen du jada beldurragatik. Gainera, naturaren maratilen eta bere barreneko aitzinatzeen argitzera nahasten direnen zalantzak eta jakinezak eta beren ofizioa hainbat aurrikuste faltsuk ezagutarazi behar digute naturak berak badituela bere bide ezinagoko ezezagunak. Zalantza, ezberdintasun eta iluntasun handia da naturak agintzen edo mehatxatzen digun horretan. Zahartzaroa salbu, heriotzaren hurbilketaren ezaugarri dudarik gabekoa baita, beste ezbehar guztietan ezaugarri guti ikusten dut gure asmatzenaren finkatzeko.

Soilik egiazko sentimenduaz epaitzen dut neure burua, ez hitzaldiaren bidez. Jakin nahi duzu zenbat irabazten dudan horretan? Begira beste moduz ari direnei eta hainbat sinesmen eta aholkuren arabera dabiltzanei: zenbat aldiz irudimenak berak hertsatzen ditu gorputzik gabe! Maiz atsegin izan zait, segurtasunez eta ezbehar arriskutsu horiek gabe egonez, sendagileei esatea neure baitan banitu bezala. Beren ondoriapen ikaragarrien sententzia jasaten nuen oso errazki, eta Jainkoari eskerrak ematen nizkion bere graziagatik eta ikasiagoa gelditzen nintzen haien ofizioaren hutsalkeari buruz.

Gazteriarri gehien gomendatu behar zaiona ariketa eta arreta da. Gure bizia mugimenduz besterik ez baita. Nekez abiatzen naiz ni, eta orotan berankorra naiz: jaikitze, etzateko, eta bazkaltzeko ere; zazpietan da soilik goiz niretzat eta ez dut hamaikak baino lehen bazkaltzen, ez afaltzen ere seiak baino lehenago. Behiala leporatu nion dauzkadan sukar eta eritasunen kausa lo luzeak ekarri zidan pisutasun eta moteldurari, eta beti damu egin dut goizean berriz lokartzeagatik. Platonek dio sobera edatea baino gaizkiagoa dela sobera lo egitea. Maite dut gogorrean etzatea eta bakarrik, emazterik gabe, erret moduan, ongi estalia; ez didate sekula ohea berotzen; baina zahartzaroan, ematen dizkidate, behar ditudanean, oinen eta urdailaren berotzeko zapiak. Eszipion handiari erantzuki egiten zitzaion lokartsua zelako, baina ez, nire ustez, arrazoiarekin baizik eta jendeei ezatsegina baitzitzaien beste erantzurik egin ahal ez izatea. Nahikeria zerbait baldin badut, beti izanen da etzatean eta ez jaikitzean; baina eskuarki amore ematen dut eta beharrari egokitzen natzaio beste edozein bezainbat. Nire biziaren zati handi bat loak hartu du, eta hala darrai adin honetan: zortzi edo bederatzi orduz txanda batez. Baztertzen ari naiz aiher kaltegarri horretarik eta hobeki nabil; apur bat sentitzen dut aldaketaren bat-batekotasuna, baina hiru egunetan egina da. Jende guti ikusten dut,

beharra izanez geroz, gutiagorekin bizi dena. Nire gorputza inarroste azkar baten gauza da, baina ez bortitza eta bat-batekoa baldin bada. Ariketa bortitzei eta izerditan ezartzen nautenei itzuri egiten natzaie: soinadarrak nekatzen baitzaizkit berotu baino lehen. Zutik irauten dut egun oso batez, eta ez naiz aspertzen ibiltzean; baina hirian barrena, neure lehen haurtzarodanik, soilik zaldiz ibili nahi dut; oinez lohiztatzen naiz ipurdiraino; eta jende apalak joak eta ukondoka erabiliak izateko gaiak dira karrika horietan, itxurarik ezean. Maite dut atsedean hartzea, bai etzana nola eseria, zangoak jarlekua bezain gora edo are goratuagoak direlarik.

Ez da militarra bezain atsegina den ofizioa; noblea baita bere gauzatzean (zeren bertute guztietarik eskuzabalena eta gorena suhartasuna baita), eta noblea bere kausan ere; norbere herriaren atsedena eta handitasunaren babesa baino eginbehar zuzenagorik ez orokorragorik ez da. Hainbat gizonen lagungoa atsegin zaizu, nobleak, gazteak, biziak, hainbat ikuskizun tragikoren ikustea, solasen libertate zurikeriarik gabekoa, eta bizimodu gizonezko eta zeremoniarik gabe bat, mila ekintza ezberdinen aldaketa, gerrazko musikaren harmonia sutua belarriak eta gogoa berotzen eta ihardukitzen dizkizuna, ariketa horren ohorea, bere garraztasuna eta zailtasuna bera ere, Platonek hain gutitan apreziatzen duena non emakumeei eta haurrei ere parte ematen baitie. Gogozko soldadua izanez, zeure burua gonbidatzen duzu eginbehar eta arrisku berezietara beraietan ikusten duzun distira eta muntaren arabera, eta erabakitzen duzu noiz erabiltzen ahal den bizia bera,

Pulchrumque mori succurrit in armis. 480

Hainbateko jendetzari dagozkion arriskuen beldur izatea, hainbat gogo mota ausartzen denera ez ausartzea, bihotz beratz eta ezinago apal baten egitekoa da. Lagungoak haurrei beraiei segurtasuna ematen baitiete. Beste batzuk zu baino gehiago badira jakintzan, grazian, indarrean, zorian, badituzu horretarako kanpoko kausak; baina gogozko tinkotasunean gutiago baldin bazara, zerori zara kausa bakarra. Ohean heriotza zitalagoa, ilaunagoa eta nekeagoa da gudu batean baino, sukarrak eta katarroak arkabuzaldi bat bezain mingarriak eta hilgarriak dira ere. Bizi arruntaren ezbeharrak ausarki jasaten dituenak ez du bere kuraia hanpatu behar armazko lagun bilakatzeko. *Vivere, mi Lucilli, militare est.*

Ez dut sekula sarnarik izan, oroitzen naizenez. Eta hazkatzea naturak ematen duen sari ez tienetarik bat da, eta hagitx eskuragarria. Baina penitentzia ere hurbilegia du. Nik gehienetan belarrietan egiten dut, barrenetik haznahiak ematen baitizkidate noizean behin.

Zentzu guztiak osorik nituelarik sortu naiz. Nire urdaila aski ona da, nire burua bezala, eta biak, nire arnasa bezala, mantendu egin dira nire sukarretan barrena. Sei urtez gainditu dut berrogeita hamargarrena, bertan herri askok, ez motiburik gabe, hain muga zuzena ezarria zioten biziari non ez baitzuten gainditzea baimentzen. Eta sendaldiak izan ditut, etenduak eta laburrak izanik ere, hain garbiak non kasik baitziruditen gaztaroko osasuna. Ez naiz azkartasunaz eta arintasunaz mintzatzen, ez baita arrazoirik beren mugez gaindi jarraiki diezadaten:

Non hæc amplius est liminis, aut aquæ

Cælestis, patiens latus. 482

Neure aurpegiak salatzen nau berehala, eta neure begiek; nire aldaketa guztiak hortik hasten dira, eta egiazki direnak baino garratzagoak dirudite; askotan urrikalgarria natzaie neure adiskideei ni horren kausa somatu baino lehenago. Neure ispilu honek ez nau harritzen zerengatik, gaztaroan berean, behin baino gehiagotan gertatu baitzait halako susmo txarreko larrumintza eta itxuraren erakustea ezbehar handirik gabe; halako moldeaz non sendagileek, kanpoko aldaketa hari zegokion kausarik ezin bilatuz, gogoari leporatzen zioten eta barrenean alaitzen ninduen pasione ezageri bati; engainatzen ziren.

Gorputza gobernatuko balitz nik gogoia egiten dudana bezala, apur bat hobekixeago ibiliko ginatke. Aro hartan ez nuen bakarrik nahasmenik gabeko gogoia baina oraindik ere askiespen eta bestaz betea, maizenik den bezala, erdiz bere izaeraz eta erdiz bere nahiaz:

Nec vitiant artus aegræ contagia mentis. 483

Eta banago gogoaren izaera horrek askotan goratu duela gorputza bere erorketarik: hau maiz eroria baita hura, alaia ez, baina bederen lasaia eta geldia delarik. Laugarreneko sukarra⁴⁸⁴ izan nuen lau zapabost hilabetez; gogoia, beti ere, ez bakarrik lasai baina are atseginez bazebilen. Mina nitaz kanpoan bada, ahuleziak eta ilaundurak ez naute kasik goibeltzen. Gorputzezko ahulezia askok, bakarrik izendatzearekin ikara ematen dutenek, erabiltzen ohi diren gogoaren mila pasionek eta inarrostek baino beldur gutiago eragiten didate. Lasterka ez ibiltzea hautatu dut, aski da herrestatzen banaiz; ez naiz ere daukadan beherapen naturalaz kexatzen,

Quis tumidum guttur miratur in Alpibus? 485

Eta ez naiz dolutzen ere neure iraupena haritz batena bezain luzea eta osoa ez delako.

Ez dut neure irudimenaz kexatzeko motiburik ere: gogoeta guti izan dut bizian zehar loa etendu didanik; nahiarenak salbu, hauek iratzartzen baininduten goibeldurarik eman gabe. Bakanka egiten dut amets; eta orduan gauza fantastikoak eta kimerak dira gogoeta atsegingarriek eraginak, tristeak baino gehiago iragarriak. Eta banago egia dela ametsak gure aiharren itzultzaile leialak direla; baina ametsen sailkatzeko eta aditzeko molde bat behar da.

Res quæ in vita usurpant homines, cogitant, curant, vident,

Quæque agunt vigilantes, agitantque, ea sicut in somno accidunt,

Minus mirandum est. 486

Platonek dio zuhurtziaren egitekoa dela ametsetarik etorkizunerako irakaspen asmatzaileen ondoratzea. Baina nik ez dut horretan ezer ikusten, salbu eta Sokratesek, Xenofonek eta Aristotelek, ukalezinezko autoritatezko pertsonaiek, aipatu esperientzia miresgarriak. Historiek badiote atlantiarrek ez dutela inoiz ametsik egiten, ez baitute inoiz ere hil den ezer jaten, azken hau gehitzen dut zeren izaten ahal baita menturaz ametsik ez egiteko arrazoia. Zeren Pitagorasek janariaren prestakuntza berezi bat manatzen baitzuen amets egokien egiteko. Neureak xamurrak dira eta ez didate gorputzezko inarrosterik batere ekartzen, ez ahotsezko adierazpenik ere. Neure aroko anitz ikusi ditut ikaragarri inarrosiak ametsengatik. Teon filosofoa bazebilen ametsetan, eta Periklesen morroia etxeko teilen eta gailurraren gainetik.

Mahaian ez dut doi hautatzen, eta hurbilean ikusten dudana lehena hartzen dut, eta ez naiz gustu batetik bestera gogotik ibiltzen. Plater eta zerbitzuen ostea beste edozein oste bezain ezatsegina zait. Errazki askiesten naiz plater gutirekin; eta Favorinoren aburua gaitzesten dut: bazkari batean kendu behar zaizula jangura diozun janaria eta beste berri bat eman behar zaizula, eta afari eskasa dela afaltiarrek ez badira hegaztin ezberdinen uz Kornokiz asetu, eta soilik oilagorrek merezi duela osorik jatea. Eskuarki erabiltzen ditut janari gaziak, eta horregatik maite dut gatzik gabeko ogia eta etxeko okinak ez du besterik egiten neure mahairako, herriko ohituraren kontra. Nire haurtzaroan zuzendu behar izan zitzaidan adin horretan hainbat maite ohi diren gozokien, labeko gauzen eta halakoen kontra neukan errefusapena. Nire irakasleak janari gozokiko higuin hori minberakeria mota bat bezala zuzentzen zuen. Baina soilik gustuaren zailtasuna da. Ogi beltzari eta zingarrari, edo baratxuriari, atxikimendu berezi eta temoso bat haur bati kentzen diot ahoxurikeria kentzen dio. Zenbaitek idikia eta urdaiazpikoa nahi dute eperrik besterik ez dutelako. Hori minberen minberakeria da; hori gauza arrunt eta ohituetan hastio hartzen duen zori beratz baten gustua da, *per quæ luxuria divitiarum*

taedio ludit Janari on baten uztea beste batek jan duelako, prestaketari buruzko axola handi baten edukitzea, hori da bizio honen funtsa:

Si modica cænare times olus omne patella. 488

Hobe da bilatzeko errazagoak diren gauzetara ohitzea; baina bortxatzea beti bizioa da. Behiala minbera esaten nion neure ahaide bati, gure galeretan gure oheez baliatzea eta oheratzeko erantztea ahantzi egin baitzuen.

Semerik eduki izan banu, gogotik opatuko nieke neure zoria. Jainkoak eman zidan aita onak (nigandik bakarrik haren ontasunaren eskerrona ukan zuena, baina zinez eskerron zintzoa) sehaskatik igorri ninduen hazteko bere herrixketarik batera, eta han eduki ninduen inudegoan nitzen artean, eta gehiago ere, bizimodurik apal eta arruntenean heziz: *Magna pars libertatis est bene moratus venter*. Ez ezazuela har, eta are gutiago zuen emazteei eman, haien hazteko axola: utz itzazue molda daitezen lege herrikoi eta naturalen arabera, utz iezaiozue ohiturari sabelneurritasunean eta gogortasunean hezi egin ditzan; garraztasunetik jaitsi egin behar dezaten bertara goratu behar baino lehenago. Aitaren xedeak bestera jotzen zuen ere: elkartu egin nendin jende xeherarekin eta gure laguntzaren beharrean den jende motarekin; uste zuen bizkarra ematen didanari baino hobe nuela besoak luzatzen dizkidanari begira niezaion. Horregatik manatu zuen bataio egunean eduki nintzaten zoririk apaleneko pertsonak⁴⁹⁰, haiei esteka niezaion.

Haren xedea ez da erabat gaizki gauzatu: gogotikago ematen natzaie jende xehei, izan dadin horrela ospe gehiago delako edo izan dadin urrikari naturalagatik, azken honek asko ahal baitu niregan. Gure gerretan kondenatuko dudan alderdia are garratzago kondenatuko dut azkarki aurrera doanean; menturaz izanen da harekin elkartzeko eskas eta lehertua ikusiko dudanean. Zeinen gogotik onartzen dudan Espartako erregeen alaba eta emaztea zen Kelonisen joera! Bere senarra Kleonbrotok bere aita Leonidasen gainean abantaila izan artean, alaba onarena egiten zuen, aitarekin elkartu zen haren atzerriratzean eta pobrezian, garaileari kontra egiten ziolarik. Zoria iraultzen zela? Hara zoriarekin batean nahiaz aldatua, senarrarekin elkartzen da suharki, haren ondotik ibili zen hondamenak eramanez lekura. Irudiz, bere behar handienean zegoen alderdira bere buruaren egozteko hautabiderik besterik ez baitzuen. Pirroren ereduaren ondotik baino gogotikago banoa Flaminioaren ereduaren ondotik, hau ongi egin ziezaioketenen aldera baino lehenago bere beharrean zeudenen aldera joaten baitzen, hura prest zegoen handien aurrean apaltzeko eta xehen gainean harrotzeko.

Bazkari luzeek nekatzen eta kalteatzen naute: zeren, haurtzarodanik ohitua izateagatik edo beste jokamolderik ezean, nagoen artean jaten baitut. Horregatik, neurean, laburra bada ere, gogotik jartzen naiz apur bat besteen ondoan, Augustoren antzera; baina ez dut imitatzen bera ere besteak baino lehenago jaikitzen zenekoan. Aitzitik, maite dut bazkalondoan luzaz egotea eta mintzatzen aditzea, beti ere ni horretan sartu gabe, zeren nekatzen eta eritzen bainaiz urdaila beterik mintzatzean, bazkalaurrean oihukatzeke eta eztabaidatzeko ariketa osasungarria aurkitzen dudanez bezala. Antzinako grekoek eta erromatarrek guk baino arrazoi hoberik zeukaten, biziaren ekintza nagusi bat den jateari gaueko zatirik hoberena eta ordu asko emanez, baldin eta beste ohiz landako eginbeharrak desbideratzen ez bazituen, guk baino lehia gutiagoz janez eta edanez ere, geure ekintza guztietarik zitzu bizian baikabiltza, eta atsegin natural horri asti eta erabilpen gehiago emanez, artetik solasaldi onuragarri eta atsegin ezberdinak egiten baitzituzten.

Nitaz arduratu behar dutenek erraza dute kalte egiten didala uste dutenetik desbideratzeko; zeren, halakoetan, ikusten ez dudana sekula ez baitut nahi ez eskatu; baina aurrean ditudanei buruz alferrik predikatzen didate baraur egitea. Horrela, baraur egin nahi dudanean, afaltiarrengandik urrun ezarriko naiz, eta agertaraz diezadaten

ahamen neurtu baterako doi behar dena; zeren mahaian jartzen banaiz ahanzten baitut neure erabakia.

Janari bati gazpiperra alda dakion manatzen dudanean, neure jendeek badakite horrek esan nahi duela jangura ilaundurik dudala eta ez dudala ukituko ere. Ahal den guztietan, nahi ditut guti egosiak eta azkarki beraztuak, askoren kasuetan bere urrin naturala aldatu arte. Gogortasuna baita aspertzen nauen bakarra (beste edozein nolakotasunekin ezagutu dudan nornahi bezain ezaxolatia naiz), hainbestearino non, uste arruntaren aurka, arrainetan beraietan gertatzen baitzait freskoegiak eta gogorrekiak aurkitzea. Ez da nire hortzagineen errua, beti ezainagoko onak izan baitituz eta soilik orain adinak mehatxatzen baitizkit. Haurtzarodanik ikasi dut neure zapiaz igurtzen, goizetan eta mahaian esertzean eta handik jakitzean.

Jainkoak fabore egiten die bizia apurka kentzen dienei; zahartzaroko ontasun bakarra da. Azken heriotza ez da, beraz, hain oso eta mingarria izanen; ez du gizon erdi edo laurden bat baino gehiago hilen. Hona erori berri zaidan hortz bat, minik gabe, ahaleginik gabe: haren iraupenaren muga naturala zen. Nire baitako zati hori eta beste asko hilak dira jada, beste batzuk erdi hilak, nire adinaren bizkortasunean lehen mailan zeukatenak. Horrela isurtzen eta itzurtzen natzaio neure buruari. Zeinen gaitza litzateke nire adimenarentzat jada hain aitzinatua den erorketa horren jauziaren sentitzea osoa balitz bezala! Baina ez dut uste hala denik.

Egiazki, arindura handia daukat, heriotzarekiko gogoetetan, uste baitut zuzena eta naturala izanen dela eta hemendik aurrera ez dut zoriarengandik zilegi ez den faborerik igurikatzen ahal. Gizonek beren buruari sinestarazten diote behiala izan dutela, garaiera bezala, bizi handiago bat ere. Baina Solonek, aro zahar haietakoa baita, ezinagoko iraupena hirurogeita hamar urtetan ezartzen du. Nik, iragan aroko ἀριστον μετρον⁴⁹¹ hori hainbat eta hain orokorki agurtu dudan honek, erdiko neurria beteena bezala onartu baitut, nahi izanen ote dut orain neurritz gorako zahartzaro bat? Naturaren joeraz kontra datorren oro nekagarria izaten ahal da, baina bere arabera datorrena atsegina izan behar da beti. *Omnia quae secundum naturam fiunt, sunt habenda in bonis*. Horregatik Platonek dio zauriek edo gaitzek ekarri heriotza bortitza dela baina zahartzaroak hara eramanez geroz harrapatzen gaituena orotan arinena eta nolabait ere atsegina da. *Vitam adolescentibus vis aufert, senibus maturitas*.

Heriotza nahasten da orotan gure bizian zehar: beherapenak bere ordua aitzinatzen du eta sartzen da gure aitzinamenduaren beraren ibilbidean. Badituz hogeita bost eta hogeita hamabost urteak nitueneko irudiak; oraingo honekin alderatzen ditut: zeinen aspalditik ez naiz jada hori! haiei baino zeinen hurbilagoa natzaio zendua izanen naizenekoari! Naturaren erabilpen txarra da hain urruneraino herrestatzea non bortxatua gertatzen baita gure garraioaren, gure begien, gure hortzagineen, gure zangoen eta garaitikoaren uztera laguntza arrotz eta artifizial baten faboreari eta, guri jarraitzeaz asperturik, artearen eskuetan ezartzen baikaitu.

Ez ditut sobera nahi ez berdagailuak ez fruituak, meloiak salbu. Nire aitak gorrotatzen zituen saltsa mota guztiak; nik denak maite ditut. Sobera jateak entrabatzen nau; baina bere nolakotasunagatik kalte egiten didan ezein janariren berri ez dut; ez ditut ere nabaritzen hiltzerik, ez hiltzeririk, ez udazkenik, ez udaberririk. Gure baitan badira mugimendu aldakor eta ezezagunak; zeren arbi txikiak lehenik aurkitu ditut onak, gero zakarrak, orain berriz onak. Gauza askotan somatzen dut urdaila eta gosea badabiltzala elkarrengandik urruntzen: ardo zuritik gorriara aldatu nintzen, eta gero gorritik zurira. Arrainaren gutizia dut eta baraur egunak hoberenak dira niretzat; sinesten dut zenbaitek diotena: haragiak baino digestio arinagoa duela. Arrainaren egunean haragiaren jatea kontzientziakoa iruditzen zaidan bezala, horrela zaio neure gustuari haragia arrainarekin nahastea: urrunegia den ezberdintasuna iruditzen zait.

Gaztarodanik, inoiz egin gabe uzten nuen bazkariren bat: edo neure gosearen zorrozteko biharamunerako, zeren, Epikurok baraur eta bazkari eskasak egiten zituen bezala bere atseginaren ohitzeagatik ugaritasunik gabe bizi zedin, nik, aitzitik, neure atseginaren hezteko bere eginbeharra hobeki egin zezan eta nasaikiago balia zedin ugaritasunaz; edo baraur egiten nuen neure azkartasunaren gordetzeko gorputzezko edo gogozko ekintzaren baten faborez, zeren bata eta bestea ikaragarri moteltzen baitira neure baitan betekaden bidez, eta oroz gain hastiatzen baitut hain jainkosa sendo eta alai baten eta jainko txiki egoskor, korrok egile eta bere likorraren bafadaz ito horren arteko elkargo ergel hori; edo neure urdail eriaren sendatzeko; edo lagungo egokirik gabe egoteagatik, zeren baitiot, Epikuro horrek berorrek bezala, ez dela hainbat begiratu behar zer baizik eta norekin jaten den, eta Kilon goستن du ez baitzuen agindu nahi Periandroren bazkarian egonen zela beste bazkaltiarrek nor ziren jakin baino lehenago. Niretzat ez da lagungotik ateratzen dena baino prestaketa eztiagorik, ez saltsa gosegarriagorik.

Uste dut osasungarriagoa dela ederkiago eta gutiago jatea, eta maizago ere. Baina jangura eta gosea balioarazi nahi dut; ez bainuke atseginik batere, sendagintzaren moduan, egunero bortxaz egin hiruzpalau bazkari eskasekin. Nork segurtatzen dit goiz honetan dudan gustu zabala berraurkituko dudala afaltzeko tenorean? Har dezagun, zaharrok oroz gain, har dezagun datorkigun lehen aro egokia. Utz diezazkiegun efemerideak egutegien moldatzaileei eta sendagileei. Nire osasunaren fruiturik gorena atsegina da: har dezagun dagoen lehen ezaguna. Baraur-lege horietan iraupenari itzuri egiten natzaio. Molde batez baliatu nahi duenak ez diezaiola jarraipenik eman; hor zailtzen gara, gure indarrak lokartzen; sei hilabeteren buruan zure urdaila hondatu duzu zure mozkina bezainbat, soilik izanen da beste moldez erabiltzeko libertatea galdu duzula.

Neguan nola udan, zangoak eta izterrak soilik setazko galtzez estaliak ditut. Neure erreumengatik, burua gerizatuagoa eduki izan dut eta sabela berdin neure minarengatik; neure gaitzak horretara jarri ziren egun gutiren buruan eta gainditu zituzten neure hornidurak. Goratu nitzen oihal batetik buruestalki batera eta gero bonete batetik kapelu batera. Neure atorreko luzapenek ez didate trabarako baizik balio, buruari erbi-larru bat gehitu diot. Mailakatze hori jarraikiz, ederki joanen zara. Hots, ez dudala deus ere eginen eta hasieran egina kenduko nuela ausartuko banintz. Eragozpen berri batean gertatuz geroz, birmoldaketak ez dizu ezertarako balio: ohitu egiten zara eta bilatu behar duzu beste bat. Horrela hondatzen dira janeurri bortxatuetan aritzen direnak: gehiago eta areago behar dute; sekula ez da amaitzen.

Gure eginbehar eta atseginerako, errazago litzateke, aitzinekoek egin bezala, bazkariaren galtzea eta atsedean eta erretiratzeko orduan ausarki jatea, eguna hautsi gabe: hala egiten nuen nik behiala. Baina osasunarentzat, gero esperientziaz aurkitu baitut, aitzitik doa eta hobe da hobeki bazkaltzea, digestioa hobeki egiten baita iratzarririk.

Ez ohi dut egarririk, ez sendo eta ez eri; ahoa idortua dut maiz, baina egarririk gabe; jatean datorkidan nahiaz edaten dut, bazkarian aski aitzindurik. Molde arrunteko gizon batentzat, aski edaten dut: udan eta bazkari on batean, ez ditut bakarrik Augustoren mugak gainditzen, zehazki hiru aldiz edaten baitzuen, baina, Demokritoren arauaren ez ofendatzeko, manatzen baitzuen laueta ez gelditzeko zoritxarreko zenbakia delako, banoa bostetaraino. Gero, edalontzi txikiak dira nire faboritoak, atsegin baitzait hustutzea, besteek gauza zarpaila bezala egiten ez dutena. Neure ardoa uretan bustitzen dut askotan erdiz eta inoiz ere hiru laurdenetan. Eta neure etxea naizelarik, sendagile batek aspaldian neure aitari manatu arau baten arabera, behar dudan ardoa bustitzen ohi da zerbitzatu baino bizpahiru orduz lehenago. Badiote Kranok, atenastarren errege, izan zela ardoa uretan bustitzeko ohituraren asmatzailea; onerako ala txarrerako den ez dut eztabaidatu nahi. Zintzoago eta sendoago aurkitzen dut haurrek edan ez dezaten hamasei

edo hemezortzi urteak bete baino lehenago. Bizimodurik erabiliena eta arruntena ederrena da ere: berezikeriak oro iruditzen zaizkit itzurigarriak, beraz berdin gaitzetsiko nuke bere ardoan ura ezartzen duen aleman bat nola hutsa edanen lukeen frantses bat. Ohitura publikoak legeztatzen ditu halako gauzak.

Aire zamatuaren beldur naiz eta ihes nabil kealdietarik (neure etxean konpontzera lehiatu nintzen lehena kebideak eta komunak izan ziren, eraikuntza zaharretako bizio arrunta eta jasangaitza baita), eta gerretako zailtasunen artean kontatzen ditut egun oso batean zehar, berotan, ehortzirik gauzkaten hautsaldi trinko horiek. Arnasa libre eta erraza dut, eta nire katarroak maizenik gertatzen dira biriken kalterik gabe eta eztulik gabe ere.

Udako garraztasuna negukoa baino etsaiagoa zait; zeren, beroaren eragozpenaz gain, hotzarena baino antolagaitzagoa dena, eta eguzki printzeek buruari eman ukaldiaz gain, neure begiak mintzen baitira argitasun distiragarri guztiekin: ez nezake orain su gartsu eta argitsu baten aurrean jan. Paperaren zuritasunaren moteltzeko, irakurtzeko ohitura handiagoa neukan aroan, beirazko zati bat ezartzen nuen neure liburuaren gainean, eta poliki arindua aurkitzen nintzen. Orain arte ez dakit zer den betaurrekoen erabiltzea, eta urrunera sekula bezain ongi dakusat, eta beste edozeinek bezainbat. Egia da ilunabarrean hasten naizela irakurtzeko nahasmen eta nekezia bat somatzen, ariketa horretan aritu izana bainoiz beti, gauaz bereziki. Horra atzerako urrats bat, doi ohargarria. Beste batez gibelatuko naiz, bigarrenetik hirugarrenera, hirugarrenetik laugarrenera, hain eztiki, non osoki itsua izan beharko bainaiz neure ikusmenaren beherapenez eta zaharreriaz ohartzeko. Hain trebeki desegiten baitute Parkek gure bizia. Zalantzatan nago neure belarria zakartzen hasia ote den, eta ikusiko duzu nola erdi galdua izanen dudan eta oraindik errua emanen diodan mintzatzen zaizkidanen ahotsari. Ongi ernarazi behar da gogoia sentiarazteko nola behehitzen ari den.

Nire ibilera arina eta zuzena da; eta ez dakit, puntu batean geldiarazteko, gogoia ala gorputza, bietarik zein kostatzen zaidan gehiago. Nire adiskideetarik izan behar da sermoi oso batean zehar nire arreta erdiesten duen predikalaria. Zeremoniazko lekuetan, bakoitza hain bortxatua baita, andereek beraiek ere begiak tink dauzkatela ikusi baitut, sekula ez dut osoki bururatu nire soinarretarik bat desbideratu gabe; jarria izan eta ere ez naiz geldirik. Krisipo filosofoaren neskameak bere nagusiaz solik zangoetan zegoela mozkorturik esan bezala (zeren zernahi lekutan bazegoen ere haiei eragiteko ohitura baitzuen, eta neskameak esaten zion orduan ardoak besteei eragiten ziela baina berak deus ere ez zuela somatzen), nitaz ere esan ahal da nire haurtzarodanik oinetan zoramena neukala, edo zilarbizia, hain mugimendu eta iraupenik eza baita ezartzen ditudan leku guztietan.

Itxurakeria da, osasunari eta atseginari egiten dion kalteaz gainera, antsiatsuki jatea, nik egin bezala: maiz mihia eta behatzak ausikitzen baititut, lehiaren bortxaz. Diogenesek, horrela jaten zuen haur bat aurkituz, bere irakasleari zartako bat eman zion. Erroman baziren graziarekin mastekatzen, ibiltzen bezala, irakasten zuten jendeak. Horrela ez dut mintzatzeko astirik, hori baita mahaletako hagitz ongailu eztia, solas egokiak diren ber: atseginak eta laburrak.

Bada gure atseginen artean bekaitza eta lehia: elkar jotzen eta oztopatzen dute. Altxibiadesek, atseginetan gizon aditua baitzen, musika bera kanporatzen zuen mahaletarik, solasen eztitasuna nahas ez zezan, zeren, Platonek ematen dio arrazoi hau, lagun herrikoien ohitura baita beren mahaletara musikajole eta abeslarien erakartzea, hitzaldi on eta solas atseginen eskasean, adimeneko jendeek hauetaz baliatzen baitakite.

Varrok honako hau eskatzen dio bazkariari: irudiz ederrak eta solasez atseginak diren lagunak biltzea, mutuak ez hitzontziak ez direnak, janarietan eta lekuan garbitasuna, eta aroa zoharbia. Ez da prestakuntza ez atsegin gutiko besta mahaiko ihardunaldi bat: ez

gerrako buruzagiek, eta filosofo handiek ez dute horren erabilpenik ez jakintzarik errefusatu. Neure irudimenak halako hiru eman dizkio neure oroimenari zain ditzan, horiek ziren zoriak eman zizkidan eztitasun nagusikoetarik neure adin sasoitsuagoan, zeren bazkaltiar bakoitzak ekartzen baitu bere graziarik hoberena aurkitzen den gorputz eta gogozko aldiaren arabera. Neure gaurko egoerak hortik baztertzen nau.

Lurraren gainetik bainabil, hastio dut gorputzaren lantzea arbuiagarri bilakatzen nahi digun jakintza hori. Zuzengabe berdina da atsegin naturalak gogoz kontra hartzea eta sobera gogotik hartzea ere. Xerxes astaputz bat zen: giza atsegin guztiez inguraturik, sari bat agindu baitzion beste batzuk aurkituko lizkiokeenari. Baina naturak aurkitu dizkionak laburtzen dituen ez da gutiago. Ez zaie ez jarraiki ez ihes egin behar, onartu egin behar dira. Nik gogotik onartzen ditut eta aiher naturalaren aldera jotzen dut. Ez dugu haien hutsakeria azpimarratu behar; berez aski nabaritzen eta agertzen da. Eta hori gure gogo eri eta besta hondatzaileari esker, atsegin haietaz eta bere buruaz hastiarazten baikaitu: bere burua eta berari dagokiona behin darabil aitzinetik eta behin gibeletik, bere izaera asegaitza, ibiltaria eta aldakorren arabera.

Sincerum est nisi vas, quodcumque infundis, acescit. 494

Nik, biziko erraztasunak gogotik eta xeheki besarkatzeko nahia daukadan honek, zekazki begiraten dienean, haizerik besterik ez dut aurkitzen. Baina zer? Orotan bagara haizea. Eta haizeak ere, guk baino zuhurkiago, maite du hots egitea eta ibiltzea, eta askietsia da bere ofizioetan, egonkortasunik ez sendotasunik nahi gabe, bereak ez diren nolakotasunak baitira.

Irudimenezko atsegin hutsak, atsekabeak bezala, handienak dira, Kritolaoren balantzak adierazten zuen bezala. Ez da mirestekoa: berak moldatzen eta josten baititu nahi bezala. Egunero eredu nabarmenak ikusten ditut eta menturaz desiragarriak ere. Baina nik, izaera nabar eta zakarrekoa, ez dut ausikitzen ahal hain gauzaki soila, eta banoakie oraingo atsegin orokorre, gogo eta gorputzarentzat somagarriak. Filosofo zirenaikoe badiote, minak bezala, gorputzezko atseginak ere ahaltsuagoak direla, eta zuzenagoak ere.

Badira atseginetarik baztertzen direnak, ergelkeria basa batengatik Aritotelese dioen bezala. Ezagutzen ditut handinahikeriagatik egiten dutenak; zergatik ez diote arnasari uko egiten ere? Zergatik ez dute argia errefusatzeko zeren dohainik baita eta bere ahaleginik ez baitzaie kostatzen? Zergatik ez Marte, edo Palas edo Merkurio, Venusen, Zeresen eta Bakoren orde? Zirkuluaren karratura bilatuko dute beren emazteen gainean uztartuak! Hastio dut esan dakigula gogo hodeietan edukitzeko, gorputza mahaian dugun artean. Ez dut nahi gogo itzeztaturik geldi dadin ez lohian barrena herresta dadin, baina nahi dut balia dadin; jar dadin eta ez etzan dadin. Aristipok gorputza defendatzen zuen soilik, gogorik ez bagenu bezala; Zenonek gogo bakarrik besarkatzen zuen, gorputzik ez bagenu bezala. Biak biziosoki aritzen ziren. Pitagorasek, diote, kontenplaziozko filosofiari jarraiki egin dio; Sokratesek ohitura eta ekintzezkoari. Platonek bien artean aurkitzen du neurria. Baina badiote esateko; egiazko neurria Sokratesen baitan da, eta Platon pitagorikoa baino sokratikoagoa da, eta hobeki doakio.

Dantzan naizelarik, dantzan; lotan nagoelarik, lotan; eta bakarrik nabilelarik sagardo edo batean barrena ere, baldin eta neure gogoetek xehetasun arrotzetan badihardute bolada batez, beste batez ere badaramatzat ibilaldira, sagardoira, bakartasun horren eztitasunera, eta neure baitara. Naturak, amazko xedearekin, finkatu du gure beharrerako gehitu dizkigun ekintzak atsegingarriak izan dakizkigula, eta haietara gonbidatzen gaitu ez bakarrik arrazoiaren baina nahiaren bidez: zuzengabea da haren arauen haustea.

Zesar eta Alexandro ikusten ditudanean, bere eginbeharraren erdian, hain osoki gozatzen direla atsegin naturalez, eta beraz atsegin beharrezko eta zuzenez, ez dut

esaten beren gogoaren laxatzea dela, badiot beren gogoaren gogortzea dela, kuraiaren indarraren bidez menperatzen baitituzte ekintza bortitz eta gogoeta neke horiek bizitza arrunteko erabileran. Zoro handiak gara: "Bere bizia astialdian eman du, diogu; -Ez dut gaur ezer egin. -Zer, bada, ez zara bizi? Ez da bakarrik funtsezkoa baina gure ekintzetarik gorena. -Egiteko handietan ibili izan banintz erakutsiko izan nukeen dakidana. -Jakín izan ote duzu zeure bizitza gogoetatzen eta zuzentzen? Horra egin duzu ekintza guztietarik handiena."

Bere buruaren erakusteko, naturak ez du zoriaren beharrik, berdin erakusten da taulatu guztietan, eta berdin oihalaren gibeledu aldean nola oihalik gabe. Geure ohituren konposatzea da geure eginbeharra, ez liburuen konposatzea, eta ez gudurik edo probintziarik irabaztea, baina gure jokaeraren arau eta lasaitasunaren irabaztea. Garaitiko gauza guztiak, erreinatzea, atesoratzea, eraikitzea, gehienez gehigarri eta osagarri xumeak dira. Atsegin zait armadako buruzagi baten ikustea oldartu berri duen harresi baten oinpean, oso libreki bazkaltzen ari dela bere adiskideekin; eta berdin Bruto, zerua eta lurra zituelarik bere eta Erromako libertatearen kontra, bere eginbeharrei gaueko ordu zenbait ebasten zizkiela Polibioren irakurtzeko segurtasun osoz. Gogo txikiei gertatzen zaie, egitekoen pisuaz itoak, ez dakitela haiengandik libratzen, ez dakitela uzten eta berriz hartzen:

O fortes pejoraque passi

Mecum sæpe viri, nunc vino pellite curas

Cras ingens iterabimus æquor. 495

Burlaz edo zinez bada ere ardo teologikoa eta Sorbonakoa⁴⁹⁶ zuhurtitzetara iragan dela, eta hango bestak ere bai, uste dut arrazoia dela ongi eta ausarki jan dezaten goizaldia beren eskolarako zerbitzuan eman dutenek. Beste orduen ongi aprobetxatzeko kontzientzia mahaiko gazpiper zuzen eta zapoetsua da. Hala bizi izan dira zuhurrak; eta bi Katonen baitan harritzen gaituen bertutearekiko atxikimendua eta ezinagoraino zorrotza den izaera hori bigunki meneratzen eta malgutzen da giza baldintzaren eta Venusen eta Bakoren legeetara, bere alderdiko legee jarraikiz, eskatzen baitute zuhur osoa bizitzaren beste edozein eginbeharretan bezain aditua izan behar dela atsegin naturalen erabilpenean. *Cui cor sapiat, ei et sapiat palatus.*

Badirudi erraztasunak eta aisetasunak miresgarri ohoratzen dutela eta ongi dagozkiola gogo azkar eta eskuzabal bati. Epaminondasek ez zuen uste bere hiriko mutilen dantzan aritzea eta kantatzea bere garaipen ospetsuei eta bere baitan zegoen ohituren ereduari ohorea kentzen zien zerbait izan zenik. Eta Eszipion zaharra ohoratzen duten hainbeste ekintzen artean deusek ez du maskorren bila zebilela ikusteak baino grazia handiagokorik, eta hondartzan barrena lasterka aritzeak Leliorrekin, eta, eguraldi txarra egiten bazuen, komedia arinetan gizonen ekintzarik arrunt eta apalenak idatziz jostatzeak, eta, Anibalen ekintza miresgarria buruan zeukalarik, filosofiazko ikastaroetan egoteak bere Erromako etsaiek bekaitza gorrian ezarri arte. Sokratesen baitan ohargarriena da nola, hagitz zaharra, astia aurkitzen duen dantzan eta musika jotzen ikasteko, eta ongi erabilitzat zeukan denbora hori.

Egun eta gau oso batez ikusia izan zen, zutik, estasiatua, armada greko osoaren aurrean, gogoeta barren batek harrapaturik eta liluraturik. Ikusia izan zen lehenbizikoa lasterkatzen zela etsaiez zamakaturik zegoen Alzibiadesen laguntzera, gorputzarekin gerizatu zuen eta armen bortxaz libratu zuen, eta lehenbizikoa izan zen Teramenesen alde agertu zena hogeita hamar tiranoek heriotzara zeramatenean. Ikusia zen, maite zuen eder batek errekeriturik gelditu zela deus ere egin gabe. Ikusia zen, Delienako guduan, Xenefon goratzen eta salbatzen zuela, zaldigandik eroria baitzen. Ikusia zen oinutsik hormaren gainean ibiltzen, jantzia bera eramaten neguan eta udan, lagun guztiak gainditzen lanaren gogortasunean. Ikusia zen hogeita hamar urtetan aurpegia berarekin

jasaten zituela gosea, pobrezia, bere haurren gaiztakeriak, bere emaztearen atzaparrak eta, hondarrean, gezurra, tirania, gartzela, kateak eta pozoina. Baina jendetasunez edan behar bazuen bera zen ere armadako lehena; berdin ari zen jostetan hurrekin eta berauekin zurezko zaldi baten gainean; eta grazia ona zuen; zeren ekintza guztiak, dio filosofiak, berdin dagozkio eta ohoratzen dute zuhurra. Pertsonaia honen irudia agertu behar da betetasunaren eredu eta molde guztietan. Biziaren adibide hutsez eta betez josia da, eta gaizki egiten da gure irakaskuntza erakusten baitzaizkigu beti ergelak eta mainguak, higuin gehiago ematen digutenak, zuzentzaileak izan ordez usteltzaileak.

Jendea engainatzen da: erdiko bide zabal eta irekitik baino hobeki ibiltzen da ertzetan barrena, hor muturrak balio baitu mugarri eta gidatzat, eta naturaren arabera baino hobeki artearen arabera, baina noblezia eta gomendio gutiagorekin ere. Gogoaren handitasuna ez da aitzinera jotzea baina bere buruaren mugatzen jakitea. Handitzat dauka aski dena, eta bere goratasuna erakusten du gauza arruntak maitatzen dituenean. Giza eginbeharraren egitea baino ezer ederragorik eta zilegiagorik ez da, ez bizi hau ongi eta jatorki bizitzea baino jakintza zailagorik; eta gure gaitzetan gaitzena gure izatearen gaitzestea da. Bere gogoaz baztertu nahi duenak egin beza ausarki, ahal badu, gorputza gaizki dabilenean kutsadura horretaz arintzeko; baina bestela lagundu eta faboratu egin dezan eta har dezan parte bere atseginetan; neurtasuna ekarriz, gorputza baino zuhurragoa bada, neurririk ezagatik ezatseginean eror ez daitezen. Neurtasunik eza atseginaren galbidea da eta neurtasuna ez da bere azotea baina bere gazpiperra. Eudoxok, atseginean ontasunik gorena ezarri baitzuen, eta bere lagunek ere bai, dastatu ahal zuten bere eztitasunik graziosoenean neurtasunaren bidez, haien baitan berezia eta eredugarria baitzen. Neure gogoari manatzen diot atseginari eta minari berdin begira diezaien (*eodem enim vitio est effusio animi in laetitia, quo in dolore contractio*), baina batari alaiki eta besteari larriki eta, ahal bezainbat, bataren hedatzeko xedetan eta bestearen laburtzeko. Ongiak sendoki ikusteak badakar berekin gaizkiak ere sendoki ikusten direla. Minak baitu bere hasiera xumean itzurezina den zerbait, eta atseginak ere badu bere gehiegizko amaieran itzurgarria den zerbait. Platonek biak elkartzen ditu eta nahi du azkartasunaren eginbeharra berdin izan dadin minaren kontra borrokatzea eta halaber atseginaren berazkeria xarmagarrien kontra. Bi iturri dira eta haietarik edaten duena, bai behar duena eta bai behar duenean, izan dadin hiria, edo gizona, edo aberea, hagitx zorientzua da. Lehena sendabide bezala eta halabeharrez hartu behar da, eskaskiago; bestea, egarritx, baina ez mozkortu arte. Mina, atsegina, amodioa, gorrotoa, haur batek somatzen dituen lehen gauzak dira; baldin eta, arrazoia datorrenean, haiek honen bidez gobernatzen badira, hori bertutea da.

Nik badut erabat neure den hiztegi bat: denbora higitzen dut txarra eta ezatsegina denean; ona denean, ez dut higitu nahi, birdastatzen dut, banagokio. Txarra lasterka iragan eta onean jarri egin behar da. *Denborapasa* esaera arrunt horrek erakusten du jende zuhur horien erabilera, uste baitute beren bizitzarekin egin dezaketen hoberena isurtzea eta itzurtzea dela, pasatzea, moteltzea eta, ahal duten bezainbatean, ihes egitea eta ezezagutzea, nolakotasun aspergarri eta gutiesgarriko gauza bezala. Baina nik besterik ezagutzen dut, onesgarria eta erraza aurkitzen baitut, orain daukadan bere azken ibilaldian ere bai; eta naturak halako molde faboragarriez ezarri digu eskuetan non, hertsatzen bagaitu eta alferrik ihes badoakigu, soilik geure buruaz kexatzen ahal garen. *Stulti vita ingrata est, trepida est, tota in futurum fertur*. Prestatzen naiz biziaren gaitzeko damurik gabe, baina berez galkor den zerbait bezala, ez gauza zamagarri eta nekagarri bat bezala. Horrela, hiltzearekin ezatseginik eza bakarrik bizitzen atsegin dutenei dagokio. Atseginean bada ekonomia bat; nik besteek baino bi aldiz gehiagoko atsegina dut, zeren atseginaren neurria baitatza bertan ezartzen dugun arretan. Berezikin orain, denboran hain laburra zaidanean, areagotu egin nahi dut pisuan; haren ihesaren

arintasuna ordaindu nahi dut neure atxikimenduaren arintasunaz; eta haren isurmenaren ziztua neure erabilpenaren barrentasunaz; biziaren jabegoa laburragoa den arauz, barren eta beteago bilakatu behar dut.

Besteek somatzen dute askiespen edo aitzinamendu baten ezintasuna; nik ere haiek bezainbat, baina ez bide nabar eta molde lerrakor batez. Ikertu, dastatu eta ausnartu egin behar da ematen digunari behar bezalako eskerren emateko. Beste atseginez baliatzen dira loaz bezala: ezagutu gabe. Loa bera ihes egin ez zekidan hain zozoki, behiala on aurkitu nuen nahasi egin zekidan hartaz ohartzeko. Askiespenak aztertzen ditut arrazoiaren bidez, hau moteldu egin baita. Ongi naizela? Atsegin zerbait kilikatzen nauela? Ez diet bakarrik zentzuei uzten, gogoia ere sarrarazten dut, ez han galdu egin dadin baizik eta han bere burua atzeman dezan; egoera hartan bere buruari begira diezaion. Horrela neurtzen du zenbat zor dion Jainkoari barreneko nahasmenik gabe izateagatik, gorputza bere jarleku naturalean egoteagatik, zenbat balio dion halako lekuan egotea non, noranahi begira eta ere, zerua zoharbia baitu; ezein nahik, beldurrek edo zalantzak ez dio aireari eragiten, ez du gaindiezinezko zailtasunik, ez iraganean, ez orainaldian, ez etorkizunean. Gogoia hau areagotzen da baldintza ezberdinekin alderatuz. Horrela hartzen ditut gogoan, mila aurpegitan, zoriak edo beren hutsak daramatzen eta jotzen dituen jendeak, eta neure ondoan daudenak ere bai, hain axola gabean hartzen baitute beren zoriona. Beren denbora gainditzen duten jendeak dira; orainaldia eta daukatena gainditzen dute esperantzaren aldea eta ameskeriak beren aurrean ezartzen dizkien itzal eta irudi hutsalen alde,

Morte obita quales fama est volitare figuras,

Aut quæ sopitos deludunt somnia sensus, 500

berauek ihesa luzatzen eta arintzen baitute atzetik joaten bazaie. Jarraipenaren fruitua eta helburua jarraitzea da, Alexandrok zioen bezala bere lanaren helburua lan egitea zela,

Nil actum credens cum quid superesset agendum. 501

Neuri dagokidanez, bizia maite eta lantzen dut Jainkoak eman nahi izan digun bezala. Ez dut nahi edateko eta jateko beharrik gabe izan dadin, eta hori bezain gaizki irudituko litzaidake behar horiek bikoiztuak izan daitezen (*Sapiens divitiarum naturalium quaestior acerrimus*), edo hazi egin gaitezen Epimenidesek gosearen kentzeko erabili droga apur bat, edo haurrak zozoki sor daitezen behatz edo orpoetarik, baina, begirunez mintzatuz, atseginez sortuak izan daitezen behatz edo orpoetarik, edo gorputza nahirik ez atseginik gabe izan dadin. Kexabide eskergaitzak eta gaiztoak dira. Bihotz onean eta eskerrak emanez onartzen dut naturak neure alde egin duena. Zuzengabe egiten zaio emaila guztiahaldun horri bere emaila errefusatu, ezabatuz eta aldatuz. Ona denez, dena egin du ongi. *Omnia quæ secundum naturam simt, aestimatione digna sunt.*

Filosofiaren usteetarik, gogotikago besarkatzen ditut sendoenak direnak, esan nahi baita giza eta gurenak direnak: neure hitzaldiak dira, neure ohituren arabera, apalak eta xumeak. Haur baten moduan egiten du filosofia bere -en gainean jartzen denean guri predikatzeko jainkozkoa lurrezkoarekin, arrazoigarria arrazoirik gabekoarekin, larria barkagarriarekin eta zintzoa lizunarekin ezkontzea elkargo basa bat dela atsegina nolakotasun basa dela, zuhur bati ez dagokiona: hots, emazte eder baten gozamenetik ateratzen duen atsegin bakarra dela bere kontzientziako atsegina, behar denaren arabera jotatzeagatik. Ai ez lezate bere jarraitzaileek ikasgai horretan duten baino zutitasun, zaintasun eta esne gehiagorik izan beren emazteen desfloratzean! Hori ez da Sokratesek dioena, beraien eta gure irakaslea baita. Onesten du gorputzezko atsegina, behar duen bezala, baina nahiago du gogozkoa, indar, iraupen, erraztasun, aniztasun eta egokitasun gehiago baitu. Azken hau ez doa bakarrik bere arabera (ez baita Sokrates hain

ameskoia), baina bakarrik lehena. Harentzat, neurtasuna atseginen zuzentzailea da ez etsaia.

Natura gidari ezti da, baina ez da zuhurra eta zuzena baino eztiagoa. *Intrandum est in rerum naturam, et penitus quid ea postulet, pervidendum.* Orotan nabil haren arrastoen bila: bide artifizialez nahasi baititugu; horregatik, haren arabera bizitzea, akademikoen eta peripatetikoen arabera ontasunik gorena, mugagaitza eta adieraezina da; eta berdin estoikoena, naturari amore ematea baita. Ez ote da huts egitea ekintza zenbaiten gutiestea beharrezkoak direlako? Ez zait burutik kenduko atseginaren eta beharraren arteko ezkontza hagitz egokia dela. Zergatik zatikatzen dugu hain neba-arrebazko egokitasun hertsiaz josia den eraikuntza bat? Aitzitik, berrizta dezagun elkarrekiko faboreen bidez. Gogoak iratzar eta pizt dezan gorputzaren pisutasuna, gorputzak geldiaraz eta finka dezan gogoaren arintasuna. *Qui velut summum bonum laudat animae naturam, et tamquam malum naturam carnis accusat, profecto et animam carnaliter appetit et carnem carnaliter fugit, quoniam id vanitate sentit humana, non veritate divina.* Ez da gure axola merezi ez duen zatirik Jainkoak egin digun emaitza honetan; ile baterainoko kontua zor diogu. Giza moldez jokatzeko manamendu hori adierazia, garbia eta txit nagusia da, sortzaileak eman digu zinez eta larriki. Manu-indarrak gehiago balio du adimen arrunten gainean, eta pisu gehiago du hizkuntza bitxiz. Bila dezagun leku horretan. *Stultitiae proprium quis non dixerit, ignave et contumaciter facere quae facienda sunt, et alio corpus impellere, alio animum, distrahique inter diversissimos montus.*

Bada, horren ikusteko, esanaraz bekizkizu egunen batean horrek buruak dauzkadan gogoetak eta ameskeriak, haiengatik desbideratzen baitu bere gogoaz bazkari on batetik eta dolutzen baita jateko behar duen denboragatik; aurkituko duzu zeure mahaiko plater guztietan deus ez dela haren gogoaren iharduera ederrean dena baino motelagorik (maizenik, gaudenerako iratzarririk egotea baino hobe genuke erabat lotan egotea) eta aurkituko duzu haren hitzaldiek eta helburuek ez dutela zeure eltzeak baino gehiago balio. Eta Arkimedesen beraren liluramenduak balira ere, zer? Hemen ez ditut aipatzen, garen jendaila honetan eta darabiltzagun nahi eta gogoeta hutsaletan, arima agurgarri horiek, debozioaren eta erlijioaren gartsutasunak jainkozko gauzei buruzko gogoeta iraunkor batera goratuak izan baitira. Hori lehentasunezko ikerpena da. Gure artean, beti adostasun berezian ikusi ditudan gauzek dira: zerugaindiko iritziak eta lurrazpiko ohiturak.

Esopok, gizon handi hark, ikusi zuen bere nagusia pixa egiten zuela bazeabilen artean eta zioen: “Hara, bada, kaka egin beharko ote dugu lasterka?” Erabil dezagun denbora; asko gelditzen baitzaigu alferra eta gaizki erabilia. Gure gogoak astirik aski ez balu bezala bere eginbeharretarako, gorputzarengandik ez bereizteko honek bere beharrerako behar duen arte apur horretan. Beren buruz kanpoan ezarri nahi dute eta gizonagandik ihes egin. Erokeria da: aingeru bilakatu ordeztu abere bilakatzen dira; goratu beharrean apaltzen dira. Gogaldi goratu horien beldur naiz, leku garaiak eta helezinak bezala; eta Sokratesen bizitzan gertatzen zaidan aspergarriena bere estasiak eta deabrukeriak dira. Eta gure jakintzetan iruditzen zaizkidan lurrezkoenak eta apalenak dira, hain zuzen, gorenera goratu direnak. Eta Alexandroren bizitzan aurkitzen dudana apal eta hilkorrena bere hilezintasunari buruzko ameskeriak dira. Jupiter Hamonen orakuluak jainkoen artean ezarri zuen eta Filotasek atseginez ausiki egin zion bere erantzunaren bidez: “Hiregatik pozten nauk, baina gizon baten neurria aski aurkitzen ez duen eta horren gainean den gizon bati obeditu eta berarekin bizi behar duten gizonak urriakalgarriak dituk”. *Diis te minorem quod geris, inperas.*

Atenastarrek beren hirirako Ponpeioren etorrera ohoratu zuten inskripzio bikaina dagokio nire gogoari:

*Jainkoa haiz heure burua
Gizontzat daukaan bezainbat.*

Betetasun osoa eta jainkozkoa bezala da norbere izateaz gozatzen jakitea. Beste baldintzen bila goaz geureen erabilpena ez baitugu ulertzen, eta geure buruaz ateratzen gara bertan zer egin ez baitakigu. Makuluen gainean alferrik ibiltzen gara, zeren horien gainean era geure zangoez ibili behar baita. Eta munduko tronurik gorenean, ez gara geure ipurdiaren gainean besterik eseriak.

Bizirik ederrenak dira, nire ustez, giza eredu arruntera jartzen direnak, zuzenik baina mirakulurik ez bitxikeriarik gabe. Bada, zahartzaroak apur bat samurkiago tratatzeko beharra dauka. Gomenda diezaiogun Jainko horri, osasunaren eta zuhurtziaren babeslea baina alaia eta lagunkoia baita:

*Frui paratis et valido mihi,
Latoe, donec, et, precor, integra
Cum mente, nec turpem senectam
Degere, nec cythara carentem.* 508